


*Karl Marx*



**IDAZLAN**

**HAUTATUAK**

Fondo documental **EHK** Dokumentu fondoa

**Euskal Herriko Komunistak**

# KARL MARX: IDAZLAN HAUTATUA

Xabier Mendiguren Bereziartu

KARL MARX

EHKren oharra liburu digital bihurtzeari buruzko oharra, azterketa errazteko. Ezkerreko aldean jatorrizko liburukoei dagozkien orrien zenbakiak agertuko dira. Orriaren ebaketa ez da zehatza, ez baitugu hitzak edo esaldiak moztu nahi izan, erreferentzia besterik ez da.

Lan hau liburu digitala bihurtu da barne-erabilerarako eta pentsamendu marxistaren ikerketarako eta ikerketarako.

**Euskal Herriko Komunistak**

<http://www.ehk.eus>

<http://www.abertzalekomunista.net>

Euskaratzailea: Xabier Mendiguren Bereziartu

Berrikuslea: Baleren Bakaikoa

Hitzaurregilea: Lawrence H. Simon

Lehen argitalpena: 2004ko abenduan

© Itzulpenarena:

© Klasikoak, 2004

Begonako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo

Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia 2004-XII-I

ISBN: 84-96455-02-5

Lege gordailua: BI-47-05

Fotokonposaketa: L&A Diseinua.

Begonako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.

Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.

Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

<b>HITZAURREA</b> .....	7
oharrak .....	37
bibliografia .....	41
<b>I. IDAZKI FILOSOFIKO GOIZTIARRAK</b> .....	45
Bruno Bauer, Juduen Auzia .....	45
Hegelen Zuzenbide-Filosofiaren kritika. Sarrera .....	79
Laburpena-1844ko oharrak (aukera) .....	95
Eskuizkribu ekonomiko-filosofikoak. Hitzaurrea .....	113
Feuerbachi Buruzko Tesiak (1845) .....	167
<b>II. MATERIALISMO HISTORIKOARI BURUZKO IDAZKIA</b> ..	171
Ideologia alemaniarra, I. atala .....	171
Manifestu Komunista .....	239
Louis Bonaparteren Brumarioko Hemezortzia .....	271
Politika Ekonomikoaren Kritikarako Ekarpen	
Baten Hitzaurrea .....	297

<b>III. IDAZKI EKONOMIKOAK</b> .....	303
Kapitala, Lehen argitarapenaren hitzaurrea, 1, 2, 3, 4, 6, 7, 26 eta 32 kapituluak .....	303
<b>IV. IDAZKI POLITIKO BERANTIARRAK</b> .....	381
Frantziako Gerra Zibila .....	381
Gothako Programaren kritika .....	399
Bakuninen Estatismoa eta Anarkia obrari buruzko albo-oharrak .....	421

## HITZAURREA

### I

Karl Marx da eragimen handieneko pentsalaria garai modernoan. Izan ere, aurrerago jo eta defenda daiteke, zenbaki soilak hartuta, Marxen ideiek inpaktu handiagoa eta jende gehiagorengan izan dutela historiako beste inorenak baino, Jesus, Buda eta Mahoma haren arerio hurbilekoenak direla. Hala ere, gehienek gaur egun esango lukete marxismoaren aldia amaitu dela, Marxen ideien faltsutasuna enpirikoki frogatua dela eta moralki porrot egin dutela, eta badela garaia Marxen eraginaren hondarrak garbitu eta «historiaren trasteleku»ra botatzeko. Baieztapen horiek egia badira, orduan Marxen idazki filosofikoak gaur egun bitxikeria historiko bezala bakarrik azter daitezke, Mendebaleko pentsamenduaren baitan irteera gabeko kale baten atal bezala kontsideratuz.

Horrelako ondorioa, jakina, zerbait esatearren presazko eta goiztiarregia izango litzateke. Marxek pentsamenduaren munduari, geure burua eta gizartea ulertzeko dugun moduari, jakintzagai-barietate zabal bateko ikuspegi eta arazo nagusiei egindako ondarea ez dago hain errazki baztertzerik. Mundu moderno ulertzea ezinbestean atxikirik dago Marx ulertzearekin. Zeren Robert Heilbroner-ek ohartarazi duenez:

Marxengana itzultzen bagara, ez da hutsezina delako, baizik ezinbestekoa delako. Marxek estreinatu zuen ikerketa mota jarraitu nahi duen orok, hor aurkitzen du Marx bere aurrean, eta horregatik berarekin bat etorri edo ezetz esan, hedatu edo alboratu, haren ondarea diren ideiak azaldu edo zuritu beharra dauka.<sup>1</sup>

8

Hemeretzigarren eta hogeigarren mendeetako filosofiaren berri zehatza izan nahi duenak, edo politikaz edo teoria politikoaz, edo soziologiaz edo teoria sozialaz, edo estetikaz, eta teoria literario eta kulturalaz interesaturik dagoenak ezin diezaioke uko egin Marxen obrarekin serioski topo egiteari. Badago oraindik zer ikasia franko Marxen sistema teorikotik, zeina baita azterketa filosofiko, araudi eta argudio kritikoa, eta ikerketa enpirikoaren nahastura konplexu bat, nahiz eta hura alde askotatik kritikara zabalik dagoen. Eta Marxen teoria eta praktika iraultzailearen baturak argi-iturri izaten jarraituko du politika erradikalean tarteko direnentzat, nahiz eta arestiko urteetako jazoerek itxuraz haren porreta adierazten duten.

Baina zer eratako ikerketa estreinatu zuen Marxek? Alde batetik, Marx garapen-ildo nagusi baten gailurtzea izan zen filosofia sozial eta politikoan, zeina abiatu baitzen gutxienez Hobbes eta Lockerengandik eta jarraitu baitzuen Rousseau, Kant, eta Hegelengan barrena Marxenganaino iritsi arte. Ikuspuntu horretatik, Marxen egitasmoa da boterearen izaera filosofikoa azaldu eta kritikatzeko gizarte modernoan, eta alde batetik, estatuaren, ordena politikoaren, eta bestetik, merkatuaren eta ordena ekonomikoaren arteko harremanak agertzea. Eginkizun filosofikoak gutxienez bi elementu ditu. Haren aurrekoek bezala, baina agian inork baino

---

<sup>1</sup> Robert L. Heilbroner, *Marxism: For and Against* (New York and London: W.W. Norton and Company, 1980) 15 or.

sakonago, Hegelek izan ezik, Marxek interesa zuen antropologia filosofiko bat, gizakiak sorkari historiko eta sozialak diren heinean haien ulerkuntza bat garatzeko. Eta filosofo politiko handi guztiek bezala, grekoenganaino atzera joz, Marxek bizitza politikoko forma jakin batzuk kritikatzeko ataza araugilearekiko interesa zuen eta komunitate politikoa egoki antolatzeari buruzko ikuspegi bat zirrimarratzekoa. Horrela, kritika moralaren dimentsioa ez dago inoiz urrun gainaldetik Marxen idazkietan. Sarritan Itun Zaharreko profeta batekin erkatu izan da, zeina ahalegintzen baitzen bere gizartea iratzartzera bideetara, zeinetan haien gaizki-ulertzeek praktika bidegabe eta ustelak sostengatzen baitituzte eta haiek salbamenerako errepidera gidatzen laguntzera.

9

Baina Marx filosofo politiko hutsa baino zerbait gehiago zen, zeren politikoa existentzia sozial modernoaren alde bakar bat besterik ez baitzen eta Marxentzat, ez determinatzailea. Agian garrantzitsuagoa da Marxen ekarpena figura gailenetako batena bezala zientzia sozial modernoaren hasieran. Alde horretatik, kapitalismoaren egitura sakonaren, hemeretzigarren mendean Mendebalean existentzia sozialaren forma menderatzaile gisa sortzen ari zen erakuntza sozialaren analisi enpiriko bat ematen saiatu zen. Nahiz eta kapitalismoa izan haren arakatzearen objektu partikularra, haren egitasmo enpiriko zabalagoa giza historia bere osotasunean ulertzea zen eta, bereziki, erakuntza sozial bat zergatik eta nola bilakatzen zen hurrengo. Horretarako materialismo historikoaren bere teoria formulatu zuen, zeina baita teoria enpiriko baten lehen adibidea, baina Marxen ikuspegi filosofiko eta metodologikoetatik bereiztezina.

Marx ez zegoen, noski, teorian, gizakien errealtate historiko eta soziala ulertzean bakarrik interesaturik. Analisi filosofiko, argudio araugile, eta ikerketa enpirikoaz haratago, Marxen ardura mundua aldatzea zen. Haren azken ataza denbora agurotzea zen, zeinean kapitalismoa ez baitzen gehiago bideragarri izango eta erakuntza sozial berri bat, sozialismoa (eta azkenik komunismoa), sortuko baitzen.

Marxen obra guztiko gai nagusia askapena da. Gizakiak naturakoak dira eta naturan daude eta beti bizi izan dira indar naturalen uztarpean. Naturaren menderakuntzaren aurkako haien arma nagusia sortzen duten teknologia da. Historia osoan zehar orain arte, hala ere, gizakiak ez dira gai izan urritasun-egoera iraunkor bat gainditzeko. Inguruabar naturalak eta ongizate materialeko maila sarritan prekariora kontuan harturik, zeina baita eskura izandako teknologiarekin produzitzeko gai izan diren guztia, jendeak egitura sozialetan bizitzera jo behar izan du, zeinek ekarri baitituzte zapalkuntza eta menderakuntza sozial eta politikoko forma desberdinak. Hau da, giza ongizatea mehatxatzen duten indar naturalak saihesteko gaitasunik eza eta dauden premia guztiak asetzeko behar beste produzitzeko gure gaitasunik ezak ekarri dute batzuek besteak esplotatzen eta menderatzen dituzten inguruabarretan bizitzea. Baina Marxen historia eta kapitalismoaren garapena ulertzeko moduaren arabera, denbora bat hurbiltzen ari zen, zeinean gure teknologia gai izango baitzen, naturaren erabateko jabe izateko ez bazen ere, hura neurri handi batean gure asmoetarako erabiltzeko eta gure bizitzak haren alde eta indar gogorrenetatik babesteko. Historiako puntu horretan, jadanik ez zatekeen beharrezko izango gizakiontzat besteen menderakuntza sozial eta politikoa ahalbidetzen duten eratan bizitzea. Egiazko giza askapena orduan eta orduan bakarrik izango zatekeen ahalgarri. Marxen arabera, askapen-borroka muina

zapaltzen gaituzten indarrak ulertzea da; eta xede horri eta giza askatasuna sustatzeari eskaini zion bizitza.

10

Marxen lan teorikoa, beraz —gizakien izaera ulertzea eta beren mundu historikoa nola eraiki duten, kapitalismoaren izaera sakonagoa aurkitzera eta zergatik den ez-egonkorra, moralki justifikaezina, eta aldaketara irekia, eta botere politikoaren izaera maskaragabetzea— mundu soziala Marxek haren azken forma eta egitura bezala ikusten zuenera mugitzearen zerbitzuan jarrita zegoen. Marxentzat, teoria eta praktika elkarrekin txirikordaturik daude era konplikatueta maila kopuru batean eta ezinezkoa da prezatzea zer duen berezirik haren «ikerketa motak», gai hori etengabe buruan izan ezik. Haren teoria, hau da, ulertze «soila»z haratago doan elementu kritiko eta emantzipatzaile batez informaturik dago. Baldin eta, komenientzia-arrazoiengatik, iraultzaren garai modernoa 1789an hasi zela esaten badugu (eta batzuen ustez, 1989an amaitu zela), orduan Marx ez da garai horretako pentsalaririk garrantzitsuena bakarrik, baita iraultzailerik handiena eta argi gidaria ere.

## II

Marxen bizitza hemeretzigarren mendearen parterik handiengan hedatu zen, Mendebaleko Europak eta Amerikak aldaketa sozial, ekonomiko eta politiko bizkor eta sakonak izan zituen garaian. Haren bizitza ulertu behar da Europa kapitalismoaren garai modernora, garapen industrialera, eta teknologiara bultzatzen ari ziren indarrak atze-oihaltzat zituela. Marx 1818an jaio zen Rhinaldeko Trier herritxoan, gaur egun Alemaniaren alderdi mendebaldarra den horretan. Haren familia judua zen eta rabino-erro sakonak zituen aitaren eta amaren aldetik. Marxen aitak, Heinrichek, goiz eten zituen familiarekiko bere hezkuntza juduarekiko loturak eta abokatu egin zen. Bere karrera jarraitzeko, prusiar legeek murriztapenak ezartzen baitzituzten juduek har zitzaketen postuei buruz, Heinrich kristautasunera konbertitu zen (luteranismoa, nahiz eta Rhinaldea nagusiki katolikoa izan) Karl, haren seme zaharrena jaio baino lehentxeago. Marx bera 1824an bataiatu zuten.

11

Trier Prusiarri erantsia izan zen 1814an, baina aurreko urteetan Napoleonen mendeko tropa frantsesek okupatu zuten, eta Ilustrazioaren eta Iraultza Frantsesaren ideiek sapa handiagoa izan zuten han Prusiako ekialdeko alderdietan baino. Giza aurrerakuntza, arrazoia, erlijio eta tradizioarekiko eszeptizismo nozioak, aldaketa sozialaren sustapena eta sozialismo utopikoa bera ere bala-bala zebiltzan Marxen lehen urteetan. Marxen aitak oro har onartzen zituen Ilustrazioaren ideiak eta zalantzarik gabe Marx haren obran nabarmen agertuko ziren gaien eraginpean ezarri zuen lehen aldiz. Bulkada arrazionalista hori neurri bateraino orekatu egin zuen von Westphalen baroiaren partetik zetorkion erromantizismorako suharrak, zeina Marxen gaztaroan eragin handiko auzokidea izan baitzen eta, zeinaren alaba Jennyrekin ezkonduko baitzen gerora.

1835ean, Marx Bonneko unibertsitatean sartu zen legea ikastera aitak nahi zuenez. Hala ere, unibertsitateko haren lehen urtea ez zen arrakastatsua izan. Zurruta, duelua eta poesia erromantikoa idaztearen sareetan harrapatu ibili zen, eta

urtebete igaro ondoren, aitak behin eta berriz eskaturik, Berlingo unibertsitatera aldatu zen. Berlinen, ikasle serioago bihurtu zen eta legearen irakurketak Filosofiako Fakultatera gidatu zuen. Garai hartan Berlingo unibertsitateko filosofiak artean Hegelen eragin handia zeukan, zeina izan baitzen irakasle 1818tik hil arte 1831n. Hegelen filosofiak teoria historiko eta metafisiko handios bat eskaintzen zuen, zeinean Arrazoiak, giza gogamenean txertaturik, natura, historia eta espirituaren (azken horrek bere baitan artea, erlijioa, eta filosofia hartzen zituela) sailak kausatzen eta azaltzen baitzituen. Historia giza kontzientziaren garapena bezala ikusten zen kontraesan eta alienaziozko zenbait estadiotan zehar harik eta autoulkuntzako puntu bat lortu arte. Puntu horretan, askatasuna erabat burutu zitekeen eta alienazioa gainditu. Hegelen filosofiak itxuraz agintzen zuena giza burutzapeneranzko progresuzko mundu arrazional bat zen. Aro modernoan, zeina etorri baitzen existentziara instituzio politiko eta ekonomiko berrien forman, promes filosofiko horren lorpen historikoa bezala hartu zen.

1830.aren azkeneko Hegelen jarraitzaileak banaturik zeuden borrokan ziharduten taldetan, batez ere hegeldar eskuin kontserbadoreak eta gazte liberalago edo hegeldar ezkerrekoak artean. Auzitan zegoen Hegelen filosofiak haren idazkien bitartez interpretatzen zen bezala laguntza ematen zion gero eta kontserbadoreagoa zen estatu prusiarrari, ala Hegelen ulerkuntza zuzenak oinarri filosofikoa hornitzen zuen estatua kritikatzeko. Kontrobertsiaren parte batek bazuen zerikusia erlijioaren estatusa eta izaerarekin, zeina hegeldar gazteek estatuari gotorleku kontserbadore bat ematen ziona eta horrela kritikara irekia bezala ikusteko joera baitzuten. Marx laster jarri zen hegeldar gazteen alde eta, batez ere, Bruno Bauer, filosofo gazte erradikalen zirkulu hartako kide gailenetako baten ideia filosofiko eta politikoen erakarri zuten. 1841ean, Aristotelesen ondoko filosofia grekoari buruzko disertazio bat osatu zuen eta Jenako unibertsitatean hartu zuen doktoregoa, izan ere Berlin politikoki kargatuegi zegoen beste hegeldar gazte baten disertazioari ongiatorri egiteko.

12

Marxek ezin zuen lortu izendapen akademikorik bere ikuspuntu politiko eta erlijiosoengatik, eta, Bauerri jarraituz, kazetaritzan sartu zen. Laster bihurtu zen *Rheinische Zeitung*, Koloniako oposizio-kazeta baten editore, baina dimisioa aurkeztu zuen 1843an protesta gisa estatuaren zentsurarengatik. Bitartean, idazten jarraitu zuen, 1843ko udan, besteak beste, «Juduen auziaz», Bruno Bauerren liburu berri baten erreseina kritikoan lan eginez, eta Hegelen filosofia politikoan, saiakera baten zirriborroa eginez, inoiz osatu ez zuen Hegeli buruzko liburu baten sarrera izan nahi zuen batean. Saiakera ezagutu zen «Hegelen Zuzenbide Filosofiaren Kritikarantz: Sarrera» eta Marxen erlijioaz egindako ohar ospetsuenetako batzuk dauzka bere baitan. Puntu honetan, jadanik bere hegeldar gazteen erro filosofikoetatik aldentzen ari zen, Bauerrengandik nabarmen urrunduz, eta gero eta gehiago erakartzen zuten Moses Hessen eta Ludwig Feuerbachen ideia erradikalagoek, besteak beste.

1843ko udazkenean, Jenny von Westphaleneekin ezkondu ondoren Parisa jo zuen bere obra politikoa kazetari gisa jarraituz. Paris garai hartan Europaren hiriburu politikoa zen, eta Marx zirkulu erradikalen erdian aurkitu zen. Parisen sartu zen lehen aldiz harremanetan langileekin eta proletarioarekin, sortzen ari zen langile-klase industrialaren lehen eskuko zentzuaz jabetu zen. *Deutsch-Französische Jahrbücher*, Alemaniako bere sozio zahar asko elkartu zituen kazetarentzat lan eginez,

buru-belarri murgildu zen politikaren eta ekonomia politikoaren azterlanean. Lan saiatu horren fruitua eskuizkribu bat izan zen, zeinaren edizio osoa ez baitzen argitaratu 1932 arte eta *Eskuizkribu ekonomiko eta politikoak* izenpean ezagutua izan baitzen, halaber *Parisko Eskuizkribuak* edo *1844ko Eskuizkribuak* bezala ere. Obra goiztiar hori, mendearen azken erdian, eztabaida eta interpretaziorako gune nagusi bihurtu zen. Askorentzat, Marxen posizioa humanista erradikal gisa definitzen duen testu erabakigarria da. Aldi horretan, bere erreakzioen berri ere eman zuen ekonomialari politiko zenbaiten obra irakurri ondoren, James Mill, John Stuart Millen aitarena barne. Gogoeta horiek, zeinek beren baitan baitauzkate komunismoari buruzko haren pentsamendu goiztiar interesgarri batzuk, gerora *Hautapena-1844ko oharra* izenpean ezagutu izan dira.

13

1843-44 bitartean, Ludwig Feuerbachen obraren eragin handia izan zuen Marxek. Feuerbachek izen bat irabazi zuen kristautasunaren kritikari gisa, 1841ean *Kristautasunaren esentzia* argitaratu zuelarik. Bertan argudiatzen zuen erlijioa giza esentziaren proiektio alienatua zela. Gero Hegelen idealismoa kritikatzera jo zuen ikuspuntu materialista batetik *Filosofia erreformatarako atalurreko tesiak* (1842) obran. Filosofiak jende errearengandik, mundu materialeko izaki zentzumendun gisa errealki existitzen direnengandik abiatu behar duela Feuerbachek argudiatuak, eta ez Arrazoa, Ideia, edo Geist (Gogamena, Espiritua) hegeldar abstrakzioetatik, inspiratu egin zuen Marx bere pentsamenduan zeuden hegeldar idealismoaren edozein aztarna astintzera.

Ez zuen luzaroan iraun materialista feuerbachiar gisa, hala ere. 1845eko udaberriko Marx ohartu zen, agian Hegelen dimentsio historikoaren eraginpean, Feuerbachek posizioa ez zela behar bezain soziala eta historikoa. Intuzio horiek eskuizkribu labur batean laburbildu zituen aforistikoki eta postumoki baizik ez zuten argia ikusi, *Feuerbach buruzko tesiak* izenpean.

Era berean, garai horretan topo egin zuen Marxek lehen aldiz bere adiskide minena, sostengu nagusia, burkide politiko eta lankidea izango zuen pertsonarekin, Friedrich Engelsekin. Engels ere gazte alemaniar erradikala zen baina familia onekoa, Ingalaterran, Manchesterren eta Alemanian jabetza industrialak zituen. 1842an topo egin zuten lehen aldiz, baina, adiskidetasuna eta lankidetzara ez ziren errealki hasi Engelsek Marx Parisen 1844an bisitatu zuen arte. Engels Manchesterren bizi izan zen 1842tik 1844 arte, zeina baitzen Europako hiri industrializatu aurreratuenetako bat. Bertan aro industrial berriaren eta lantegietako langileen bizitzaren nolako eragina zeukan esperimendatzeko aukera izan zuen. Haien bizimodu ziztrin eta pobretuek, zeinak deskribatu baitzituen *Langile klasearen egoera 1844ko Ingalaterran* bere obra klasikoan, eragin sakona izan zuten berarengan eta Marxengan. 1844an bigarren topa egin zutenetik Marxen bizitzaren bukaera arte, Engels Marxen obraren eta bizitzaren hain parte estua izan zen, non adituek oraindik ere eztabaidatu egiten baitute zenbateraino Marxen pentsamendua zor zaion Engelsenari.

14

Paris erbesteratu politikoz josita zegoen 1840an, eta gobernu frantsesak, agian 1789ko Iraultzaren ondare gisa, oro har haiei aterpea eskaintzeko adinako begikotasunez jokatu zuen. 1840.aren hasierarako, hala ere, giro politikoa gero eta kontserbadoreago bihurtzen hasita zegoen. Gobernu prusiarrak, Marx eta haren



kideen obraren aurrean gero eta suminduago, presio egiten zion gobernu frantsesari isilaraz zitzen. 1845aren hasieran, frantsesek amore eman zioten presioari eta kanporatu egin zituzten Marx eta beste zenbait, eta Marxen familiak Bruselara jo zuen. Bertan Marxek lanean jarraitu zuen, Engelsekiko lankidetzan idazten (baina ez argitaratzen) 1845-46an *Ideologia alemaniarra* historiaren teoria materialistaren bere baieztapen lehena eta nolabait eraginkorrena eta lehen aldiz bere klase-teoria argiro agertzen duen testua.

Marxek komunistatzat identifikatua zuen bere burua zenbait urtez, baina terminoak oso eduki esplizitu urria zeukan jabetza pribatuarekiko kontrajartze-zentzu orokorren bat izan ezik. Marxek komunismoari buruzko ikuspuntu horiek zorrozteari ekin zion lehenik Proudhon anarkistaren aurkako polemika batean *Filosofiaren pobretasuna* (1847) obran eta ospe gehienarekin agian Marxen obretan ezagunena den horretan, *Manifestu komunista* obran. Marxek (eztabaida apur bat bada zer puntutaraino Engelsek lagundu zuen eskuizkribua idazten) 1847-48an idatzi zuen Liga komunistaren gonbitaz, zeina baitzen langile iraultzaile alemaniarrek Londresen zeukaten elkarte bat. Bi xederi begira eginga zegoen: alderdiaren ikuspuntu eta helburu politikoen aldarrikapen publiko izateko eta Marxek eta haren jarraitzaile gisa sortzen hasita zeudenek ulertzen zuten komunismoaren oinarri teoriko nahiz eta konprimituen aldarrikapena egiteko.

15

1848an *Manifestua* argitaratu eta ia berehalaxe, jarduera iraultzaileak eztanda egin zuen European zehar. Marx beharturik aurkitu zen Belgikatik irtetera eta Parisa izuli zen, non gertakari iraultzaileak abian baitzeuden. Hala ere, laster utzi zuen Frantzia Alemaniara joateko hango zarramaltza politikoaen berri izan zuenean. Kolonian kokatu eta beste behin berripaper erradikal bati, *Neue Rheinische Zeitung*, eman zion hasiera iraultzari adorea emateko. 1849rako, hala ere, argi zegoen iraultzak ez zuela arrakastarik izango Alemanian. Marxek beste behin ihes egin behar izan zuen, eta oraingoan Londresen kokatu zen, non iraungo baitzuen bere bizitzaren gainerakoa atzerrira egindako bidaia banaka batzuk salbu.

1848 Iraultzaren porrotaren ondoren, ordena politikoa berrezarri zen europar herrialde batean baino gehiagotan, eta jarduera erradikala oso defentsazko egoeran jarri zen. Marxek aktibo jarraitu zuen Londresko langile iraultzaileen jardueretan, baina politika batez ere errefuxiatuen intrigez arduratzen zen. 1850. urteak lasaitasun politiko handi samarreko aldia izan bazen ere, hamarkada horrek izugarritzko garrantzia izan zuen Marxentzat lan teorikoari zegokionez. Berrito bere azterlanetara itzuli zen, eta British Museumeko liburutegia erabiliz, teoria ekonomikoan eta historian murgildu zen. Bere familia mantentzeko diru apur bat irabaztearren *New York Daily Tribunerako* atzerriko korrespontsal-postua hartu zuen aldibateko langile gisa, eta Engelsen laguntzaz baliatu zen, zeina Manchesterra joana baitzen familia-enpresa kudeatzen laguntzera.

1851ren azkenetan, eta 1852aren hasieran, Marxek *Louis Bonaparteren Brumarioko Hemezortzia* idatzi zuen, Bonapartek 1851n Frantzian emandako estatu-kolpea analizatzen baitzuen. Hurrengo hamar urteetan bere *magnum opus* izango zuenean lan egin zuen, *Kapitalaren* hiru liburukietan. Bere ohiko prozeduren ildotik, eskuizkribu-zirriborroak idatzi zituen nola besteen teoriak kritikatu hala haiei kontrajarritako bere ikuspuntu propioak landuz. Eskuizkribu horietan daude *Grundrisse* (1857-58ko ohar-liburuak, lehen aldiz 1939-40an argitaratu zirenak) eta

*Politika ekonomikoaren kritikarako ekarpen bat*, Marxek 1859an argitaratua. Azken horren hitzaurrean bere ideien garapenaren zirrimarra laburra eskaini zuen eta bere historia-teoriaren aldarrikapen sonatu, labur eta kontrobertsia sortu zuena eman zuen. 1860ko lehen urteetan *Gainbalioaren teoriak* hiru liburukiak idatzi zituen, zeinen baitan baitaude ekonomialari politiko klasikoen, batez ere Smith eta Ricardoren bere kritika hertsia eta luzeenak.

16

1860ko urteen erdi-aldera, langile-klasearen aktibismoa indarberritzen ari zen Ingalaterran eta edonon. Jarduera horrek sindikatu-antolakuntzaren forma hartu zuen eta loturak sortu zituen nazio mailen gainetik sindikatu-taldeekin. Jarduera horrek 1864an Langileen Nazioarteko Elkarteak sortzera gidatu zuen, beste modu batez Lehen Internazional izenarekin ezagutu zena. Internazionala erabakigarria izan zen langile-klasearen mugimenduaren historian eta eragin sakona izan zuen bere existentziako lehen zortzi urteetan gutxi gorabehera; aldi horretan, Marx izan zen haren gidaririk ahaltsuenetakoa bat. Marx eta Bakunin anarkistaren artean izandako barne-borroka eta gatazkek banatu egin zuten Internazionala, eta azkenean hil egin zen 1876an Philadelphian. Inplikazio politiko biziko aldi horretan, Marxek *Kapitalaren* lehen liburukia argitaratu zuen 1867an. Nahiz eta bigarren eta hirugarren liburukiak garai hartan egin samartuak egon, Marxek atzeratu egin zuen haien argitalpena eta haiek lantzen jarraitu zuen. Azkenik, Marx hil eta gero argitaratu zituen Engelsek, bigarren liburukia 1885ean eta hirugarrena 1894an.

1870ean Prusiaren eta Frantziaren arteko gerra piztu zen, frantsesen porrot bizkorraren ondorioz, eta, Alemania prusiarren pean batu zelarik, errepublika aldarrikatu zen Parisen. Errepublika gero eta erradikalago bihurtuz joan zen eta 1871ko martxoan *Commune de Paris* aldarrikatu zuen bere burua; baina bi hilabete barru gobernu frantses kontserbadoreak menderaturik zeukan. Marx anibalentea izan zen Komunarekiko existitu zen bitartean, baina harenak egin zuenean *Frantziako gerra zibila* idatzi zuen, bai gorazarre gisa eta bai gertaturiko jazoeren analisi gisa ere. Saiakera horretatik sonatu bihurtu dena, zeina lehen aldiz Internazionalaren Biltzar Nagusiari egindako hitzaldi bezala eman baitzen, Marxek komunismoaren antolakuntzaz eta proletarioaren diktaduraz egindako oharra dira.

1870erako Marx teorialari nagusi bihurturik zegoen langile-klasearen mugimendu europarrarentzat, eta bereziki alemaniarrentzat, eta zeregin horretan oso entzutetsu bihurtu zen European barrena «Doktore Gorri» izenpean. 1875ean, mugimendu alemaniarreko bi fakzio handienak Gothan elkartu eta beren ahaleginak bateratzeko prestatu ziren, eta beren plataforma komunaren zirriborro bat igorri zieten Marxi eta Engelsi Londresan iruzkinak egin zituzten. Marxek, iruzkin luze batean, kritikatu egin zuen dokumentua bere ikuspuntuekiko zituen zenbait desbideratze zirela eta. Iruzkin horrek, «Gothako programaren kritika» bezala ezagutu izan denak, iruzkin garrantzitsuak ditu Marxek komunismoaz eta estatuaren antolakuntzaz zituen ikuspuntuei buruz. Garai beretsuan, Marxek oharra prestatu zituen *Estatismoa eta anarkia* Bakuninen liburu garrantzitsuari erantzuteko. Nota horiek, 1926 arte argitaratu ez zirenek, Marxek bere bizitzaren azken aldera estatuaz eta gai politikoez zuekan pentsamenduaren berri ematen dute.

17

Marx Londresen hil zen 1883an. Haren emaztea, Jenny, bi urte lehenago hila zen. Bizimodu gogorra izan zuten, batez ere 1850. urteetan pobretasunaren aurka

borroka egin behar izan zuten, eta inguruabar biziki zailetan bizi izan ziren. Haien sei seme-alabetatik hiru bakarrik iritsi ziren heldutasunera. Marx bera ere oso gaixo egon zen bizitzako azken urteetan. Guztiarekin ere, Marxek bere bizialdian ikusi izan zuen langile-klasearen mugimenduaren hazkuntza dramatiko gero eta kapitalismo indartsuago baten garapenarekin parez pare. Nahiz eta ez zen bizi izan bere obrak inspiraturiko iraultza arrakastatsu bat ikusteko, izan zuen arrazoirik sinesteko bere ideiek eman ziotela etorkizunari buruzko ikuspegiren bat eta bere ahaleginak ez zirela izan hutsalak. Gaur egun Marx irakurtzen dutenek, hura hil eta handik ehun urte pasatuta, galdetu behar dute ea zuzen zegoen hori sinestean. Zer egingo ote zukeen bere izenean buruturiko hogeigarren mendeko jazoerez, eta zer analisi egingo ote zukeen historiaren orainaldiko abaguneaz? Auzi horiei buruz gogoeta hobea egiteko Marxen obrako ideia eta kontzeptu nagusietako batzuk aztertu behar ditugu.

### III

Marxek garatu zuen materialaren gorputz esker ga antolatu ahal izateko, haren obraren hiru dimentsio nagusi jorratuko ditut: historiaren haren teoria, materialismo historikoa; kapitalismoaren analisia eta kritika; eta historiaren amaieran gizarte erabat gizatiarraren haren ikuspena, komunismoa.

### *Materialismo historikoa*

18

Marxek oso goiz baztertu zuen Hegelen idealismo filosofikoa eta hark sostengatzen zuen historiaren ikuspegia, eta haren lekuan historiaren teoria bat ezarri zuen, zeina baita Hegelena bezain zabala irismenez eta anbizio azaltzailez. Neurri zabal halako batean, Marxen teoria Hegelenaren alderantzikatzea da, *Kapitalaren* lehen liburukiko «Bigarren Argitalpenaren Hitzatzea»n ohartarazi zuenez.

Nire metodo dialektikoa ez da, haren oinarrietan, Hegelenaz bestelakoa bakarrik, baizik haren erabat kontrakoa. Hegelentzat, pentsatzearen prozesua, berak subjektu independente ere bihurtzen duena, «Ideia»ren izenpean, mundu errearen sortzailea da, eta mundu erreala ideiarekin kanpoko agerpena baizik ez da. Nirekin alderantzizkoa da egia: ideala ez da gizakiaren gogamenean islatutako mundu materiala besterik, eta pentsamenduaren formetara aldatua.<sup>2</sup>

Marx, hau da, Hegel alderantzikatua «maskor mistikoaren barruko muin arrazionala aurkitu ahal izateko.»<sup>3</sup> Hegel oker zegoen errebindikatzen zuenean ideiek, Gogamen kosmiko batean edo gizakien gogamenean zeudelarik, kausalki azal zezaketela mundu historikoa eta soziala. Areago, kausa aurkitu behar zen naturako baldintza materialekiko, ekonomiaren azken materia subjektuarekiko gizakiaren topaketa produktiboan. Hegelen muin arrazionala zen gizakiek beren historia beren lanaren

<sup>2</sup> Karl Marx, «Postface to the Second Edition», *Capital*, vol. 1, Trans. Ben Fowkes, The Marx Library (New York: Random House/Vintage Books, 1977), 102 or.

<sup>3</sup> *Ibid.*, 103or.

bitartez sortu duten ideia, baina ordu arte ezjakintasun, alienazio, eta esplotazioko baldintzatan bakarrik. Horrela haiek topatzen dituzten naturako indarren mendean eta aurre egiten dien indar sozialen mendean daude aldi berean, eta indar sozial horiek berek eraikiak dira baina kontrolatzen ez dituztenak. «Gizakiek», idatzi zuen Marxek *Louis Bonaparteren Brumarioko Hemezortzian*, «beren historia egiten dute, baina ez dute egiten atsegin duten bezala; ez dute egiten berek hautatutako inguruabarretan, baizik eta iraganetik topatu, eman eta helarazitako inguruabarretan bitartegabeki».<sup>4</sup> Historia ulertzeko gakoa ingurabar horiek ulertzea zen. Menderakuntzatik askatzeko gakoa zen ulerkuntza hori erabiltzea inguruabarrak kontrolatzeko, eta horrela jakinaren gainean eta nahita historia egiteko gai izatea.

Marxen egitismo historikoaren helburua da giza historiaren joaira orokorra azaltzea, «gizakiek beren historia propioa» nola egiten duten. Eta hori den heinean, nabarmenki ataza enpirikoa da. Baina horrelako edozein teoriaren kasuan bezala, pisu azaltzailea eramateko hautaturiko kategoriak dira erabakigarriak.

19

Marxen abiapuntua da, esaten digu *Ideologia alemaniarra* obran, «norbanako errealak, haien egintzak, haien bizi-baldintza materialak, existitzen aurkitzen dituztenak ez ezik beren egintzen bitartez sortzen dituztenak ere bai.»<sup>5</sup> Garrantzi nagusia duena da gizaki historiko errealei eta haien baldintza materialei dagokienez nola produzitzen dituzten beren existentzia-bitartekoak naturan eta naturatik. Gizakiek adierazten dute beren burua lehen kasuan beren lanaren bitartez. «Norbanakoek nola adierazten duten beren bizitza, halakoxeak dira. Diren hori, beraz, bat dator produzitzen dutenarekin, zer produzitzen dutenarekin eta *nola* produzitzen dutenarekin.»<sup>6</sup> Marxen antropologia filosofikoaren funtsezko ideia da beraz gizakiak izaki langileak direla, *Homo faber*, eta haien garapena, haien sormena, haien askatasuna, eta haien aberastea haien lanaren baldintzetatik sortzen direla eta haiekiko dependenteak direla.

Gizakiek nola produzitzen duten beren existentzia, noski, nola aldatzen den denboran zehar, eta historiarako giltza, Marxentzat, gizakiek beren burua produzitu eta birproduzitzeko duten ahalmen beti hedakorra zen. Ahalmen, ahalmen produktibo hori, lanabesetan eta teknologian dago, zeinak garatzen baitituzte gizakiek beren baldintza materialak hobetzeko beren ahaleginetan, lanabes horiek erabiltzean sartzen den giza lana gehiturik. Marxek erabiltzen du produkzio-bitartekoak terminoa produkzio-prozesuan sartzen diren lanabes fisikoak, teknologia, eta baliabide naturalak adierazteko. Produkzio-indarrak dira produkzio-bitartekoak gehi gizalana, zeinak indartzen baititu azken finean. Historiaren logika oinarrizkoa da produkzio-indarren garapenaren atzeko logika.

Produkzio-indarrak, hala ere, beti erabiltzen dira haien erabilera gobernatzen duten harreman sozialen sistemaren baten barruan. Harreman sozial horiek, Marxek produkzio-harremanak deitzen zituenak, izatez botere-harremanak dira, zeinek determinatzen baitute nork duen produkzio-bitartekoetarako irispidea eta haiek

<sup>4</sup> Karl Marx, *The Eighteenth Brumaire of Louis Bonaparte*, Karl Marx/Friedrich Engels, Collected Works, vol. 11 (New York: International Publishers, 1979), 103 or.

<sup>5</sup> Karl Marx and Friedrich Engels, *The German Ideology*, trans. D. Easton and Kurt H. Guddat, in *Writings of Young Marx on Philosophy and Society*, eds. Loyd D. Easton and Kurt H. Guddat (Garden City, N.Y.: Anchor Books/Doubleday and Company, Inc., 1967), 409 or.

<sup>6</sup> Ibid.

nork kontrolatzen dituen. Adibidez, baldin eta produkzio-harremanak lanabes eta lehengai batzuk badira, orduan produkzio-harremanek estipulatzen dute zein den indar horien jabea edo bestela nork kontrolatzen dituen, legezko jabetzaren edo konbentzio sozialaren bitartez. Produkzio-bitartekoen gaineko kontrolarekin lanaren gaineko kontrola dator, formalki eta informalki, zeinek bitartekoetarako irispiderik gabe ezer gutzi egin baitezake, eta halaber, oro har, produktuaren gaineko kontrolik gabe ere. Horrela, adibidez, esklabo-lanean oinarrituriko gizarte batean, produkzioko harreman menderatzailea esklabo-nagusien eta esklaboaren artekoa da, eta harreman horrek tradizio sozialean definitua den bezala eta agian legean gobernatzen du gizarte horretako eginkizun ekonomiko nagusien izaera. Nagusien klaseak dauka botere guztia, ekonomikoki eta politikoki, beren esklaboen produkzio-bitartekoak eta lana kontrolatuz. Gainera beren esklaboen lanaren produktuaren jabeak dira, noski.

20

Marxen arabera, ez da hautazkoa produkzio-harremanek lortzen dutena historiako puntu desberdinetan. Arau orokor gisa, produkzio-indarrek denboran zehar hazteko joera dute. Gauzak asko sinpletuz, Marxek aldarrikatzen du produkzio-indarren garapeneko maila desberdinetan, produkzio —harreman mota desberdinak hobeki egokiturik daudela existitzen diren indarren etorkizuneko garapena ahalbidetzeko. Harreman horiek garatzeko joera dute puntu jakin batean.<sup>7</sup> Produkzio-indarrek hazten jarraitzen dutelarik existitzen diren harreman-hertsapenen barruan, puntu bat iristen da, zeinean harreman horiek ez baitira hobekien egokituak indarren garapen jarraitua ahalbidetzeko. Puntu horretan, harreman zaharrek eteteko joera dute eta harreman berriak sortzen dira indarren garapena sustatzeko hobeki egokituak daudenak. Igarobide-puntu horiek iraultza-aldiak dira, nahiz eta litekeena den jarduera iraultzailea ez inplikatzeari erregimen politikoaren aldaketa laster eta sarritan bortxazkoaren zentzu modernoan. Igarobidea izatez denboraldi luze batean zehar gerta liteke eta partaideek ozta-ozta hartaz ohartzea.

Produkzio-indarren konbinazioa une historiko jakin batean erabiltzen den bezala produkzio-harreman determinatzaileen barruan Marxek produkzio-modua deitzen duen sistema ekonomiko bat eratzen du. Marxen arabera, hiru produkzio-modu izan dira kapitalismoaren aurretik. Antzinako produkzio-modua, adibidez, Grezian eta Erroman aurkitzen dena bezalakoa, izan zen antolakuntza sozialaren eskala handiko lehen forma. Ondoren produkzio-modu feudala etorri zen. Modu feudalari kapitalismoaren sorrera jarraitu zitzaion gero. Hirugarren modu prekapitalista izan zen Marxek produkzio-modu asiarra deitzen duena, zeina kokatzen baitu asiar gizarte nagusi zenbaitetan eta zeina sostengatzen baitu egonkorra zela ondorengo beste modu batean garatzen ez den zentzuan, adibidez, feudalismoa kapitalismo izatera garatu zen bezala.

Goian aipatu denez, produkzio-harremanak botere-harremanak dira, zeinetan determinatzen baitute zein jendek boterea duen produkzio-bitartekoen gain,

<sup>7</sup> Ohar hauek, jakina, nabarmen sinpletu dute teoria. Marxen historiaren teoriaren aurkezpen hobereana eta zainduena hau da: G. A. Cohen, *Karl Marx's Theory of History: A Defence* (Princeton, N.J.: Princeton University Press, 1978). Diardespentarako eta Cohenen Marxen irakurketa fintzeko, ikus Jon Elster, *Making Sense of Marx* (Cambridge: Cambridge University Press, 1985), Philippe Van Parijs, «Marxism's Central Puzzle» eta Richard Miller, *Producing Change: Work, Technology, and Power in Marx's Theory of History*, biak in *After Marx*, eds. Terence Ball and James Farr (Cambridge: Cambridge University Press, 1984), eta Erik Olin Wright, Andrew Levine, eta Elliott Sober, *Reconstructing Marxism: Essays on Explanation and the Theory of History* (London and New York: Verso, 1992).

haietarako irispidea eta haien erabilera, aldi berean beste batzuk indarrak kontrolatzen dituztenekiko dependente utziz. Tipikoki, produkzio-bitartekoak kontrolatzen dituztenek ez diote laguntzen beren lanaz produkzio-prozesuari baizik besteen lanetik bizi izaten dira, aldiz, beren lanaren ekarpena egiten dutenek ez dute irispide independenterik, gehienetan, produkzio-bitartekoetara. Ideia hori Marxen klase-teoriaren muina da. Produkzio-modu jakin batean, produkzio-bitartekoak kontrolatzen dituztenak klase menderatzailea dira eta lanaren ekarpena egiten dutenak langileak dira.

21

Klase menderatzailearen eta langileen arteko harremanaren forma erreala desberdintzen bada ere produkzio-modu bakoitzean eta arretaz espezifikatu behar bada ere (feudalismoko nagusi/jopu harremana, adibidez, oso desberdina da kapitalismoko kapitalista/proletario harremanaren aldean), hala ere orokorrean, klase bakoitzak egiten dio nolabaiteko ekarpena produkzio-prozesuari. Klase menderatzaileak teknologiaren eta tipikoki kontrolatzen dituen lehengaien ekarpena egiten du, eta langileek beren lanarena. Baina egoera ez da berdintasunezkoa; harremana ez da simetrikoa. Klase menderatzailea, zeinek ez baitu lanaren ekarpenik egiten edo txikia egiten baitu, produzitutako produktu guztia edo gehiena kontrolatzen du eta gainbalio ekonomikotik bizi da (produktuaren parte hura, zeinaren gainetik jendea subsistentzian bizirik edukitzea beharrezkoa baita). Langile-klasea, bitartean, produkzio-bitartekoetara irispiderik ez duenez gero, edo hoberenean, mugatua, beharturik dago bere lanaren ekarpena egitera (behar izanez gero, indar hori hertsapen politiko gisa egikaritzen da). Produkzio-prozesuari lanaren ekarpena egitean, langileek lana egiten dute, produktua egiten dute, eta hala ere tipikoki haren parte txiki bat bakarrik eradukitzen dute.

Ez da harritzekoa baldintza mota horien azpian antagonismoek existitzeko joera izatea klase menderatzaile nagusikoien eta langile-klase menderatuaren artean. Antagonismo horien kondaira da Marxek klase-borrokaren historia deitzen duena. Marxek eta Engelsek *Manifestu komunistaren* ia hasieran iragartzen dutenez, «Orain arteko gizartearen historia klase-borroken historia da.»<sup>8</sup> Klase menderatzaileak jaiki eta erori egiten dira produkzio-modu bakoitzarekin, eta langile-klasearen osaera eta izaera aldatu egiten da. Baina produkzio-modu jakin baten barruan beti dago klase-borroka. Nolako zehaztasunez historia produkzio-indarren garapenaren kondaira gisa eta historia klase borrokaren kondaira gisa batera daitekeen berri-emate azaltzaile bakar batean inoiz ez zuen argitu Marxek. Hori da materialismo historikoaren auzi nagusietako bat oraindik ere, eta nik hori aipatzea besterik ezin dut egin hemen.

22

Produkzio-harremanak ez dira, noski, gizarteko harreman sozial garrantzitsu bakarrak. Materialismo historikoak soziologia historiko egokia izan behar zuen heinean, berri eman beharra zeukan, gutxienez, instituzio eta harreman politiko, legal, kultural eta erlijiosoena. «Gizartearen egitura ekonomikoa,» idazten du Marxek 1859ko Hitzaurrean, «[gizartearen] oinarri erreala da, zeinaren gainean eraikitzen baita gainegitura legal eta politiko bat eta zeinari baitagozkio kontzientzia sozialaren forma definituak.»<sup>9</sup> Hemen Marx instituzio sozialak erlazionatzen

<sup>8</sup> Karl Marx and Friedrich Engels. *The Manifesto of Communist Party*, Karl Marx/Friedrich Engels, *Collected Works*, vol. 6 (New York: International Publishers, 1976), 482 or.

<sup>9</sup> Karl Marx, «Preface» to *A Contribution to the Critique of Political Economy*, Karl Marx/Friedrich Engels, *Collected*

direneko eredu bat iradokitzen ari da. Egitura ekonomikoak, batez ere produkzio-harremanek, Marxek base deitzen duena barne, eta gizarteko beste instituzioek, batez ere politikoez eta legalek, eta horiek bere baitan hartzen dituzten harreman desberdinek gainegitura izendapena hartzen dute. Produkzio-modu jakin bateko harreman ez-ekonomikoak eta instituzioak, beraz, eredu horretan produkzio-harremanen izaerari dagozkio eta haren bidez azaldu behar dira. Hain zuzen Marxek sostengatzen duenez produkzio-endarren garapen mailak determinatzen duela existitzen diren produkzio-harremanen izaera, horrela produkzio-harremanek (base bezala hartuta) determinatzen dute existitzen diren gainegiturako instituzio eta harremanen izaera.

Ikuspuntu horretatik, bereziki garrantzitsu a da instituzio estatal, legal eta politikoak oro har bigarren mailako garrantzikoak izatea produkzio-harremanei dagokienez, eta ulertu behar dira baseko harreman horien egonkortasunari laguntzeko duten moduaren arabera. Historia tradizionalak, zeinaren ardatzak baitaude estatu—, politika—, diplomazia-gaien eta auzi militarren inguruan, huts egiten du, Marxen arabera azalpen historiaren maila erabakigarriari dagokionez. Produkzio-harremanen mailako garapenek hobeki azaltzen dituzte jazoera politikoak beste gainerako bideek baino.

Kulturari dagokionez, ideien erresuma gainegituraren atal da, eta hori ere basearekiko harreman-terminotan azaltzekoa. «Gizakien kontzientziak ez du determinatzen haien existentzia, baizik haien existentzia sozialak determinatzen die kontzientzia.»<sup>10</sup> Hau da, aro baten kontzientzia, gailentzen diren sineste eta balioak azaldu behar dira produkzio-harremanen izaeraren terminotan eta harreman horiek egonkortzen laguntzeko ideiek funtzionatzen duten moduaren arabera.

23

Kontzientziaren erresuma Marxek aro baten ideologia deitzen duena da. Klase-gizarte guztietan, produkzio-harremanek klase menderatzailearen egoeraren alde egiten dute. Gizarte baten ideologia, gizartea blai egiten duten sineste eta balioek, izatez funtzionatzen dute produkzio-harremanak egonkortzen lagunduz halako punturaino, non ideologiaren onarpen hedatuak lagundu egiten baitu klase menderatzailearen nagusitasuna legitimo agertzen ezinbesteko ez bada ere. Espero izango genuke, beraz, Marxen dioenaren arabera, «Edozein garaitan klase menderatzailearen ideiak ideia menderatzaileak dira, hau da, gizartearen botere materiala menderatzen duena da aldi berean haren botere intelektual menderatzailea.»<sup>11</sup> Krudelki esateko, baldin eta langileei sinestarazten bazaie nagusiek eta menderatzaileek botere legitimoa dutela, etsipen handiagoa izango dute beren zortearekin eta nekezago matxinatuko dira. Horrela, beste gauza batzuen artean, Marxen arabera espero liteke klase-gizarteetako ideologiek ideia faltsuak eta ulerkuntza berritzen dutela bai menderatzaileen eta bai menderatuen aldetik, zeren menderakuntzaren klase-harremanen ulerkuntza egiatzko batek erakutsiko bailuke ez direla ez bidezkoak eta ez beharrezkoak. Ondorioa da iraultzaile baten lehen eginkizunetako bat dela ideologia menderatzailea haustea eta besteei gauza bera

---

*Works*, vol 29 (New York: International Publishers, 1987), 263 or. Oinarria/oinegitura ereduaren azterlan zaindu baterako, ikus Cohen, *Karl Marx's Theory of History: A Defence*, VIII Kap., eta Steven Lukesen ihardespun bat, «Can the Base Be Distinguished from the Superstructure?» in *The Nature of Political Theory*, eds. David Miller and Larry Siedentop (Oxford: Clarendon Press, 1983).

<sup>10</sup> *Ibid.*

<sup>11</sup> Karl Marx and Friedrich Engels, *The German Ideology*, 438 or.

egiten laguntzea. Ideologiaren kritika, beraz, sineste faltsuak maskaragabetzea bai maila herritarrean eta bai teorikoan zen Marxen obra teorikoaren xede nagusietako bat.

### *Kapitalismoaren analisisa eta kritika*

Materialismo historikoa da Marxek garatu zuen teoria sozial handiosa bere mundua azaltzeko. Azalpenaren zentzua beti izan zen mundu hura aldatzea, eta horrela aldatua izateko azaldu behar zen mundu partikularra kapitalismoa zen. Kapitalismoa zen, beraz, objektu espezifikoa, zeinaren gainean materialismo historikoaren teoria orokorra ezarri baitzen xehetasun gehienak emateko.

Helburu horrekin, Marxek teoria ekonomiko bat garatu zuen, zeina aldi berean merkatu kapitalistaren eta produkzio-prozesuen eta harremanen izaera agerian jartzen eta aurreko teoria ekonomiko guztien gabeziak erakusten ahalegindu baitzen. Sarrera honen asmoetarako, Marxen teoria ekonomikoaren aspektu teknikoagoak ez dira garrantzitsuak. Garrantzitsuak dira, ordea, Marxen kapitalismoa, alienazioa eta esplotazioaren kritikan funtsezkoak diren bi kontzeptu filosofikoak. Alienazioa eta esplotazioa beste produkzio-modu batzuetan gertatzen direla esan daitekeelarik, horiek kapitalismoan hartzen duten formari zuzenduko diot arreta.

24

Kontzeptu orokorra, alienazioa, Marxen antropologia filosofikoaren atzeoihalaren kontra ulertu behar da. Gorago esan denez, Marxek lana giza jarduera esentzial gisa ikusi zuen, eta historiako edozein unetan giza potentziala lanak hartzen zituen formek determinatzen zuten. Lanaren oinarritzko eginkizun horren ideia hori materialismo historikoan adierazten da aldarrikatuz indarren garapenak eta produkzio-harremanek determinatu eta azaldu egiten dutela historiaren joaira. Ideia horretan inplizitu dago gizakiek aske izan eta aberats daitezkeela bere kontrolatzen dituzten baldintzetan askatasunean lan egiten dutenean soilik.

Kapitalismoan, produkzio-harreman menderatzailea kapitalistaren eta proletarioaren artekoa da. Lanak hartzen duen forma menderatzailea soldatapeko lanarena da. Proletariaok izatez ez dauka produkzio-bitartekoetarako irispiderik kapitalistak baimendu ezik; kapitalistak kontrolatzen ditu bitartekoak, hau da, lantegien jabea da eta lehengaiak eros ditzake. Langileak, hala ere, hasiera batean bere lana kontrolatzen du. Bizirik irauteko gutxienez behar dena irabazteko, proletarioak lan egin beharra dauka; baina proletarioak irispiderik ez duelako lanabes eta lehengaietara, haiekin lan egiteko, kapitalistak determinatzen ditu lanaren baldintzak. Langileak eman behar dio kapitalistari bere jabetzapeko gauza bakarra, lana (edo zuzenago, ikusiko dugunez, lanindarra). Trukean, kapitalistak ematen dio langileari, ez produzituriko produktua, baizik soldata bat bizirik irauteko beharrezkoak diren ondasunak erosteko. Lana (indarra) soldataz trukitzea, kapitalismoan lana eroste eta saltze bezala esperimintatzen dena, hori da harreman erabakigarria kapitalismoan. Harreman horren izaera ebatzea izan zen, Marxentzat, produkzio-modua ulertzeko giltza.

Kapitalistari bere lana saldu eta gero, langileak ez dauka aukerarik kapitalistaren zehaztapenen arabera lan egitea baizik. Egoerak baldintzatzen du langilea lan



alienatuko baldintza batera. Alienazioak esan nahi du, zentzu batean, bereizturik edo urrundurik egotea norberaren propietate edo atributu esentzietatik, norberatasun errealetik. Soldatapeko langilea, kapitalistari bere lanaren gain aginpidea ematean, izatez bereizi egin da bere giza gaitasun esentzietatik. Langileak saldu duena giza existentziaren muina da, lan egiteko gaitasuna. Jadanik ez da bere pertsona propioa, eta bere lan propioaren kontrolaz gabeturik, ezin daiteke erabat gizatiar izan. Marxentzat, egoera hau tragikoa da eta kondenatu egiten du langilea asmo eta burutzapen esanguratsurik gabeko bitzta batera.

25

*Idazki ekonomiko eta filosofikoetan*, Marxek deskribatzen du lanaren alienazioa lau alde edo memento dituen gisa. Langilea bere produktutik bereizirik dago, teoriarik langilearen nahimen eta ahalmenen adierazpen konkretua den horretatik. Bigarrenik, langilea bereizirik dago lanaren prozesutik; lanaren leku, erritmo, eta iraupenaren kontrolik gabe, langilea ez da aske bere natura adierazteko eta bere pertsona bere lanean garatzeko. Hirugarrenik, langilea bereizirik dago bere espezie-izateatik. «Espezie-izatea» Feuerbachen termino bat da Marxek hasierako bere idazkietan erabili zuena, baina gerora ia erabat baztertu zuena. Norbere espezie-izateatik bereizirik egotea norbere gaitasun eta potentzial esentzietatik bereizirik egotea da gizaki gisa eta giza komunitatearen atal gisa, non, gutxienez potentzialki, bakoitzak osotasunaren ongizateari laguntzen baitio. Azkenik, Marxek deskribatzen du langilea kapitalismoan bere kide langilearengandik alienatuta gisa.<sup>12</sup> Kapitalismoan, non merkatu-harremanek norbanakoak bereizi eta banatu egiten baitituzte eta elkarren aurka jartzen baitituzte, pertsona baten bere kideekiko harremana konkurrentziazkoa bakarrik izan daiteke benetako komunitatekoa izan beharrean. Alienazioaren egitura laukoitz horren emaitza da kapitalismoko langileak bitzta zentzugabe eta huts bezala esperimintatzen duela, frustrazioz betea, eta gogobetegarri errealez gabetua.

Soldatapeko langilearen eta nagusi kapitalistaren arteko trukea badirudi askatasun eta berdintasunezkoa dela. Marxek *Kapitalean* deskribatzen duenez, biek libreki topo egiten dute merkatuan eta merkatu transakzio normal batean sartzen dira. Trukea merkantziaren ordezkotzat merkatantzia da, merkatu kapitalistan edozein objektu saltzen eta erosten den bezala, baina kasu honetan dirua trukatzeko da lanerako gaitasunaren ordezkotzat, Marxek lanindarra deitzen duena. Bakoitzak uko egin diezaiotke trukean sartzei, nahiz eta bakoitzak behar begi-bistakoak dituen, trukea burutuz bakarrik ase daitezkeenak. Ohartzeko garrantzitsua da, Marxek nola azpimarratzen duen, soldata denboraldi baterako diru kopuru baten eskaintza dela, 5,00 txelin orduko, adibidez. Kapitalistak langilearengandik erosten duena denboraldi horretarako lanerako gaitasuna da: soldata-akordioak, adibidez, zortzi ordu egunean 40 txelinengatik. Kapitalistak erosi duena hartzen du, lanindarra, zeina, noski, ateratzen delarik ezin baita langilearen gorputzetik bereizi, berriz lantegira itzultzeko kapitalistak, egoki dakusanez erabiltzeko.<sup>13</sup>

<sup>12</sup> Teknikoki, zenbatekoak nahikoa izan behar du bere baitan langilearen familia mantentzeko, zeren epe luzera, lanindarra produzitzeko beharrezko lanak bere baitan izan behar du seme-alabak produzitu eta haztearen kostua, zeinak baitira etorkizuneko lanindarraren hornitzaileak. Hori sistemak kontuan hartuko ez balu, kapitalistak laster geratuko lirarteke beren merkantzia garrantzitsuenaren horniketara iraunkorrik gabe.

<sup>13</sup> Jakina, Marxek kontatzen duen istorioa hori baino askoz konplikatuagoa da. Ahalegintzen da erakusten badirela merkatu-indar errealek soldata beharrezko balioaren mailan mantentzen dutenak. Era garrantzitsuan dago indar horien artean enplegu-gabezia, zeinak esan nahi baitu lanaren horniketara haren eskaera baino handiagoa dela eta

26

Lantegian gertatzen denaren gakoa da kapitalistak langilearen lanerako gaitasuna denboraldi zehaztu baterako erosi duela, baina horrek zenbat lan inpliketzen duen ez dago alde zurririk zehazturik. Hau da, bi kapitalistak eres lezake lanindar baliokidea bi langilerengandik zortzi ordu lan egiteko forman 40 txelinen trukean. Hala ere, kapitalista bat bestea baino lan gehiago eginarazteko gai bada, zeinak esan nahiko baitu haren langileak ondasun gehiago produzituko dituela denbora-kopuru berean beste langilearekin erkatuta, orduan kapitalista hori posizio argiro abantailatsuan egongo da. Zenbat lan kapitalistak atera dezakeen erositako lanindar kopurutik faktore sail baten baitan dago, Marxen arabera. Faktore horien artean nagusiak lantegian langileen gain ezarritako diziplina eta lanerako eskura dagoen teknologia maila daude.

Lanaren baldintzak zeinahi direlarik ere, fabrikari produzituriko produktu osoa kapitalistarena da. Bera da, azken finean, produkzio-faktore guztien jabea: fabrika eta makinak eta bertako gainerako teknologia, prozesu manufakturatzaileak erabiltzeko erosi dituen lehengaiak, bai eta merkatuan erosi duen lanindarra ere beste osagaiekin konbinatzeko azken produktura iritsi arte. Langileak soldata bakarrik erreklama dezake, zeina, azken finean, merkatuko trukean estipulatu baita hark oniritzia emanik.

Gainbalio-produktua (edo Marxek esango lukeenez, gainbalioa) da bizitzari eusteko behar denaz gainera produzitzen den guztia. Bizitza sostengatzeko behar den produktuaren parteari produktu beharrezkoa (edo balio beharrezkoa) deitzen zaio. Egunean ogi bat kontsumitu behar badugu bizitzeko, eta urtean 400 produzitzeko baliabideak baldin baditugu halere, balio beharrezkoa da 365 ogi urteko, urteko 35 bat ogiko gainbalioa produzitzeko gaitasuna dugu. Gainbalio hori oro har klase menderatzaile ez-langileari eustera joaten zen, gerrarien buruzagiak edo apaizak, adibidez. Baina askoz nabariago eta dramatikokiago, Iraultza industrialaren etorrerarekin hemezortzigarren mendearen erdia aldera, gizakiek bizitzari eusteko beharrezkoa zena baino askoz gainbalio handiagoa produzitzeko gaitasuna lortu zuten. Nola banatu da gainbalio hori kapitalismoan?

27

Auzi hori, pentsa liteke, ez da erantzuten zaila. Argi dago, kapitalistak bereganatzen duela gainbalio-produktua, zeren ikusia dugunez, bere baitu produktu osoa, parte beharrezkoa eta gainbalioa. Baina objekta liteke ez dela errealki produktu osoaren jabe, zeren, izan ere, langileari entregatu behar izan baitio haren parte bat soldata-eran. Nondik dator soldata kapitalak diru bihurtzen duen produktuaren partetik izan ezik hura salduz bere langileei ordaindu ahal izateko? Marxentzat auzia honela bihurtzen da, zer ordezkaten duen soldatak gainbalio eta beharrezko balio kontzeptuen terminotan. Langileari emandako gainbalioaren parte da soldata-eran, ala kapitalistak eradukitako gainbalio osoa da?

Marxek auzi horri ematen dion erantzuna konplikatu da, eta ezin dezaket hemen osoki azaldu. Hala ere, laburbilduz, Marxen erantzuna honako hau da. Balioaren lan-teoriaren, Marxek Adam Smith eta David Ricardorengandik hartu zuen teoria ekonomiko oinarrikoaren arabera, merkantzia baten (saltzeko espezifikoki produzituriko objektu baten) balioa (edo prezioa) hura produzitzeko beharrezko lan

kopuruak determinatzen du. Langilearen lanindarra kapitalismoan merkatuko beste edozein merkantzia gisa tratatzen denez gero, haren prezioa ere metodo beraz determina daiteke. Baina lanindarra produzitzeko beharrezko lan kopurua langilea osasuntsu eta goizero fabrikako ateetan kapitalistari beste egun baten baliokidea den lanindarra saltzeko prest mantentzeko beharrezko kopurua da. Kopuru hori, hala ere, Marxek produktu beharrezkoa (edo zehatzago, balio beharrezkoa), deitzen duena da hain zuzen, zeren langilea sostengatzeko beharrezko kopurua baita Langileari balio beharrezkoa baino soldata txikiago ematen bazaio, langilea ez da gai izango bere burua bizirik mantentzeko beharrezko gauzak eta horrela egun bakoitzeko lanean kontsumitzen den lanindarraren hornizioa birbetetzeko. Langileari balio beharrezkoa baino soldata handiagoa ordaintzen bazaio, langilea, lanbaliorearen teoriaren arabera, gainordaindurik dago. Lehiakide bat moldatzen bada bere langileei soldata txikiago bat ordaintzeko, balio beharrezkoaren parekoa den bat, konkurrentzia-tarte bat izango du. Horrela merkatu-indarrek eta lanindarra produzitzeko prozesuaren izaerak produktu beharrezkoaren mailan mantentzen dituzte soldatak oreka-prezio gisa.

28

Baina soldata produktu beharrezkoaren baliokidea bada, eta hori da langileak bereganatzen duen eta eskubidez erreklama dezakeen guztia, horrek esan nahi du kapitalistak gordetzen duela gainbalio osoa. Itxuraz desoreka bat dago hemen. Langileak lan guztia egin du, produktu osoa produzitu du.<sup>14</sup> Baina egunaren bukaeran, hasieran zeukana baino gehiagorik ez dauka. (Gogora bedi, soldata da balio beharrezkoa norbera lanegunaren hasieran zegoen baldintzaren parekotasunera itzularazteko.) Kapitalistak, bitartean, ez du ezer egin, baina gainbalio guztia dauka. Hau da, kapitalistak produktuaren parte bat erreklamatu du hutsaren indarrez, produkzio-bitartekoen (gutxi gorabehera, kapitalaren) jabetzaren funtzioan izan ezik. Jabetza horrengatik, kapitalista lanindarra erosteko era erabiltzeko posizioan dago; eta alderantziz, produkzio-bitartekoetara irispiderik ez duelako, langileek ez dute beren lanindarra kapitalistari saltzea beste aukerarik. Desorekako harreman egituratu hori, zeinaren bidez langileak egiten baitu beharrezko balio eta gainbalio bihurtzen den lan guztiaren ekarpena, baina beharrezko portzioa bakarrik eskuratzen du itzuleran, Marxek esplotazio deitzen duena. Horrela, merkatuko askatasun eta berdintasunaren hasierako itxurak gezurtatu egiten du kapitalistaren eta langilearen arteko harremanaren egiazko izaera, zeinak orain hertsapen eta truke bidegabekoa dela baitirudi.<sup>15</sup> Kapitalismoko lan alienatuaren, haren izaeraren eta birproduktzio-baldintzen azalpena, beraz, esplotazioaren teoriak ematen du.<sup>16</sup>

<sup>14</sup> Kapitalistak errealki lan egin badu, errealki lana gehitu badio produkzio-prozesuari, orduan produktuaren atal bat merezi du ordain gisa —pentsa bedi hori kapitalistaren soldata dela—, Baina kapitalista batek ez dauka lanaren ekarpena egin beharrik gainbalio-produktua erreklamatu ahal izateko.

<sup>15</sup> Trukea zinez hertsatua dela, Marxek itxuraz pentsatzen duenez, eta zinez bidegabekoa dela, biak izan dira kontrobertsia-gai. Trukea ez da hertsatua baldin eta langileak beste arrazoizko ibilbide irekiren badu soldatapeko lana ekiditeko. Eta ez da bidegabekoa baldin eta bidezkotatasunaren ereduak merkatu kapitalistaren arauak determinatzen badute, non, azken finean, langilea bere lanindarraren balioa dena eta izan beharko lukeena hartzen ari baita hain zuzen.

<sup>16</sup> Kapitalismoaren Marxen teoriaren beste aspektu garrantzitsu bat da, noski, zergatik eta nola kapitalismoak utziko dion behar bezala funtzionatzeari eta iraultzarekiko zaugarri bihurtuko dela esaten duena da. Berri emate horrek, alde batetik, sarrera honetarako teknikoegiak diren gai ekonomikoak inplikatzeko, eta beste batetik, komunismoaren ahaltasunari buruzko auziak inplikatzeko, zeinak aztertuko baitira hurrengo sailean.

## *Komunismoa*

Kapitalismoaren ondoren, Marx ziur zegoen, produkzio-modu berri eta desberdin bat, komunismoa etorriko zela. Komunismoa produkzio-modu gisabakarra izango litzateke zeren egiazko askatasuneko eta berdintasuneko gizartea izango bailitzateke, alienazio, esplotazio edo klase-menderakuntzarik gabeko gizartea. Baina zer itxura izango luke xeheki gizarte komunistak? Eta nola gertatuko litzateke?

29

Lehenik bigarren auziari heltzeko, Marxek pentsatzen zuen komunismoa sortuko zela proletalgoak egindako iraultzaren ondorioz, zeinek eraitsiko baitzuen klase kapitalista eta ezarri produkzio-harreman sozialistak. Iraultza hori gertatuko litzateke kapitalismoak gero eta zailago aurkituko duelako baldintza birproduzitzea, zeinen azpian gainbalioa sortuko bailitzateke eta kapital-eran metatuko. Produkzio-indarren aurreranzko garapena trabatu egingo litzateke. Depresioak, enplegurik eza, eta kapitalismoaren beste nahaste eta ondorio txarrak sarriagoak gertatuko lirateke eta txartu egingo lituzkete proletalgoaren baldintzak. Aldi berean, langile-klasea, haren elementu militante eta erradikalagoek gidaturik, kapitalismoko bere alienazioa eta esplotazioaren izaera eta sistema aldatzeko aukerak ikustera iritsiko litzateke. Kapitalismoa gero eta gehiago espermentatuko litzateke askatasun falta bezala. Merkatu kapitalistaren irrazionalkeria, langileen bizitzen gain egundoko eragina duen baina zeinen gainean ez baitu inolako kontrolik, gero eta begi-bistakoago bihurtuko litzateke. Punturen batean, bi sektore elkarrerlazonatu horiek, birproduzio kapitalistaren zailtasunek eta langile-klasearen gero eta izaera iraultzaileagoak talka egingo lukete eta iraultza bat gertatuko litzateke.

Batez ere hasierako egunetan, Marxek pentsatu bide zuen iraultza hori etorkizun hurbilean gertatuko zela eta biolentia eta bat-batekoa izango zela. Baina badira aztarnak haren geroagoko idazkietan adierazten dutenak iraultza denboraldi batean ez zela gertatuko, kapitalismoa aski erresistentea izan zitekeela denbora batean jarraitzeko, eta bazela ere posible iraultza bortzarik gabe burutzea langile-klasearen alderdi baten hautapenaren bitartez.<sup>17</sup> Nik uste dut Marxek ez zuela uste iraultza sozialista bat saihestezina zenik, behar nomikoaren zentzu indartsuan ez behintzat. Baina seguru asko pentsatzen zuen arrazoi onak zeudela sinesteko halako bat gerta zitekeela historiako uneren batean; kapitalismoa ez zela produkzio-modu egonkor eta bideragarria epe luzera; ez zela ongien zerbitzatzen zituena giza beharrak; eta hori ulertu eta prezatu egingo zuela gizarte kapitalistako jendearen gehiengoak, proletalgoak. Marxen energia guztia egikaritze hori hurbilagozten gastatu zen.

Ongi ezaguna denez, Marxek ez zuen aztertu xehetasunez nolako izango zen iraultzaren osteko gizartea. Haren arreta lehenik kapitalismoari zuzendu zion, eta sentitzen zuen komunismoaren eraikuntza bitartegabeko atazatzat edukiko zutenen interesa izango zela. Haren interesak esku artean zeuzkan arazoekin zuen zerikusia. Guztiarekin ere, komunismoari buruzko oharra badira sakabanatuak haren obra batean baino gehiagotan.

30

---

<sup>17</sup> Bi auzi horiek, kapitalismoaren garapenean zer puntutan iraultza gerta litekeen eta behar lukeen, eta iraultza ez-bortxazko baten ahaltsuna oraindik, oso dira eztabaidagai marxisten artean.

*Gothako Programaren Kritika* obran, Marxek bi garapen-estadiotatik igaroko den iraultza osteko gizarteaz hitz egiten du. Bi estadioak nabarmen desberdin daitezke estatu politikoaren banaketaren eta izaeraren haien printzipioen arabera. Lehen estadioa (zeina batzuetan sozialismo gisa aipatzen baitu, nahiz eta Marxek terminoa ez erabili testuinguru horretan) igarobide bat bezala ikusten du. Kapitalismoaren hondarrak oraindik existitu egiten dira. Aldaketak egin eta babestu egin behar dira artean posible diren kontrairaultza-mehatxuaren aurrez aurre. Produkzio-bitartekoak gehiago garatu behar dira, halako punturaino, non gainbalio-produktua oinarrizko aldaketak ahalbidetzen hasiko baita gizakiek beren lanarekiko duten erlazioan. Estadio honetan, beraz, oraindik badago agintaritzaren baten beharra langile-klasearen interesen alde arituko dena. Proletalgoaren diktadura-aldia izango da, Marxek deitzen duenez.

Halaber, lehen estadioan zehar, produkzio-bitartekoak sozializatu egingo dira, hau da, produkzio-bitartekoen jabetza pribatua ezabatu egingo da, eta harekin, klase kapitalista. Bizigaietara iristeko beste modurik izango ez delarik norberaren lanaren bidez izan ezik, norbanako guztiak izatez langile bihurtuko dira. Produkzio-bitartekoen jabetza eta antolakuntzarekin gizarteak bere osotasunean, denak klase berean izango dira, hau da, denek harreman bera izango dute produkzio-bitartekoekiko. Izatez, bada, klasea ezabatu egingo da orokorrean. Gizarte sozialista horrela klasegabea da.

Jabetza kapitalista ezabatzean, esplotazioa amaitu egingo da. Mundu guztiak izango du produktu sozialerako irispidea buruturiko lanaren indarrez. Gizarteak artean merkatu-trukearen harreman-terminotan funtzionatuko du, baina gainbalio-produktua honako printzipio honen arabera banatuko da: «bakoitzarengandik haren gaitasunaren arabera, bakoitzari haren ekarpenaren arabera». Klase batek bestea menderatzea inplikatzeko duten produkzio-harremanak sostengatu beharrik gabe, instituzio politikoek irekiak eta demokratikoak izan daitezke. Baliabideak esleitzeari buruzko erabakiak arrazionalki hartuko dira zentraliki koordinaturiko plangintza sozialaren bitartez, eta ez dira utziko merkatuaren apeten baitan, zeinak, kapitalismoan bezala, inorena ez den kontrolpean baitzeuden. Harreman sozialak, oro har, ez dira beharke aurrerantzean, kapitalismoan egiten zenez, truke alienatu eta esplotatzaileen izaera mozorrotzeko. Ideologia, beraz, menderakuntza-harremanak egonkortzeko funtzioari zerbitzatzen dioten sineste faltsu edo distortsionatu formapean, desagertu egingo da.

31

Baina, Marxek ohartarazten duenez, iraultza osteko lehen estadioak oraindik bere akatsak izango ditu. Oraindik estatu-autoritatearen beharra izango da, nahiz eta mota gutxiago eta mota onberagokoa izango den. Eta produktu soziala ekarpenaren arabera banatzeak oraindik jendea desberdin tratatzea inplikatzeko du moralki muntzagabeak diruditen arrazoiengatik. Jende bat, bere gaitasun naturalengatik, ekarpen handiagoa egiteko gauza izango da, eta horrela gehiago jasoko du produktutik eta bere beharrak hobeki asetzeko gauza izango da; beste batzuek, beren erantzukizun familiako eta pertsonalengatik, produktuarekiko partaidetza urriago hedatu beharke dute.

Azken finean, hala ere, produkzio-bitartekoak gehitu egingo dira halako puntu

bateraino, non urritasuna gainditu eta egiazko ugaritasuna lortuko den.<sup>18</sup> Puntu horretan, errealki desagertu egingo dira autoritate- eta banaketa-auziak. Ugaritasunak esan nahi badu geure beharrak ase ditzakegula besteak beren beharrak asetzeaz gabetu gabe eta gure denborarik gehiena gogoz kontrako jardueratan xahutu beharrik gabe, zeinak ez baitira esperimintatzen helburu bezala beren baitan, orduan denbora eta produktu soziala esleitzeari buruzko gatazkak, seguru asko, gutxiago sortuko dira eta errazago izango da kontsentsu soziala lortzea. Kasu horretan, estatu-autoritatea, zeinak azken finean funtzionatzen baitu klase-harremanak ezartzeko eta jabetzari buruzko eztabaida-gaiak ebazteko, aurrerantzean ez da beharrezko izango. Estatua, Engelsek esan zuenez, ihartu egingo da.

Egiazko ugaritasunarekin, kezkatu beharrik ez dugu izango behar beste izateaz, geure behar bitartegabeak asetzeko behar den puntutik haratago aberastasuna metatzeaz, zeren sozialki partekaturiko konfiantza bat egongo baita gure etorkizuneko beharrak aseko direla garapenaren joaira normalaren bitartez. Ondasunak eta aberastasuna eskuratzeko motibazioak ez du zentzurik izango aurrerantzean gure bizitzak antolatzeke oinarri gisa. Izatez, gutziak eta norberakeriak erreakzio naturalak, are arrazionalak diruditen baldintzak, jadanik ez dira gertatuko. Ugaritasun-baldintza berrien azpian, produktu soziala honako printzipioaren arabera bana daiteke: «bakoitzarengandik haren gaitasunaren arabera, bakoitzari haren beharren arabera.»

32

Komunismoaren bigarren eta goragoko estadio horretan egitekoa den baina nahigarria ez den lan beharrezkoa teknologia erabiltzearen bidez minimizatu egingo da. Horrek jendeari utziko dio bere denbora sortzaileki eta libreki pasatzen. Jarduera produktiboari bere kausa propioz ekingo zaio, eta ez soilik produktu bat produzitzeko beste behar bat asetzeko beharrezkoa delako. Gure jarduera sortzailearen prozesua eta produktua bizitzaren atal esentzial gisa balioetsiko da. Artearen eta lanaren arteko lerroa lausotu egingo da, ezabatzen ez bada. Lan alienatuaren eta esplotazioaren amaierarekin, giza harremanak distortsionatzen dituzten indarrak gutxitu egingo dira. Egiazko giza harremanak garatuko dira, zeinetan jendea elkarrekin erlazionatuko baita benetako giza komunitate baten atal bezala. Truke-harremanak, zeinetatik inoiz ezingo baitugu erabat ezabatu alderdi alienatzaile bat, desagertu egingo dira. Nire produktuaren eta zure produktuaren, zure behararen eta nire behararen arteko bereizkuntza, jadanik ez da garrantzitsua izango. *Hautapena-1844ko Oharrak* obran Marxek zioenez, «Neure bizitza indibidualean zuzenean sortuko nuke zure bizitza; neure jarduera indibidualean bitartegabeki berretsi eta egikaritzeko nukeen neure egiazko izaera gizatiarra eta soziala.»<sup>19</sup>

Komunismoak, beraz, giza potentziala eta burutzapena egikaritzearen baldintzak

<sup>18</sup> Urritasuna definitzea zeregin bihurri samarra da. G.A. Cohenek definizio praktikoa ematen du esanez «gizakien premiak eta kanpoko naturaren izaera direnak direla, ezin dituzte beren premiak ase beren denboraren eta errerigiaren partetik hoberena gastatu ezean, ez egin nahiago luketena egin gabe, bere baitan helburu bat bezala esperimintatzen ez den lan batena inplikaturik». *Karl Marx's Theory of History: A Defence*, 152 or. Ugaritasunak, bada, inplikaturik luke norberaren behar gehienak asetzeko gai izatea aldi berean gai izanez norberaren denboraren parte handiena jarduera batena gastatzeko, zeina esperimintatzen baita helburu bat bezala bere baitan eta ez soilik objektu bat irabazteko bitarteko bat bezala, bestela jarduerarekin erlazionaturik ez leudekeen behar batzuk asetzeko.

<sup>19</sup> *Writings of Young Marx on Philosophy and Society*, 281 or.

ordezkatzen ditu. Giza gatazkaren oinarrizko iturburuak ezabatu egingo lirateke. Jadanik ez litzateke existitzen diren harreman sozial eta ekonomikoak gainditu beharrik, horrela, ez litzateke beharrezko izango giza bilakaerak aurrera egitea produkzio-modu berriei dagokienez. Komunismoa zentzu horretan historiaren amaiera izango litzateke; «historiaren enigma ebatzia da, eta bere burua soluzio hori bezala ezagutzen du.»<sup>20</sup>

Ea Marxek pentsatzen zuen begi-bistakoa denez ikuspen utopikoa den hori errealki inoiz egikaritu zenik, nik uste, ez da garrantzi handikoa. Nahiz eta pentsatu izan balu komunismoa helburu lortuezina zela, ziur pentsatu zuela hurbilago irits gintezkeela kapitalismoan geundena baino. Ildo horretatik, ikuspen moral mota bat eta gure progresua epaitzeko neurri bat ordezkatzen du, eta Marxen egitasmoaren amaiera filosofiko gisa ageri da.

33

#### IV

Marxen ikuspuntu funtsezko eta teoriko ia guztiak jarri dira auzitan, eta kasu batzuetan, ia ezeztatu. Pentsalari gutxi izan da, inor izan bada, Marxek izan duen tamainako kritika maila eta intentsitatearen mendean egon denik, eta hainbeste ikuspuntu desberdinetatik. Baina sarrerako sailean adierazi dudanez, askok esango luke, hala ere, Marxek ezinbesteko izaten jarraitzen duela figura bezala, zeina onartu beharra baitago geure burua ulertzeko, geure mundua eta geure historia. Jakite marxistak, batez ere ingelesez hitz egiten den munduan, birjaiotze harrigarria izan du azken hogeita bost urteotan, Marxi buruz eta ikuspuntu marxista batetik filosofia gehiago eta hobea idazten da ingelesez orain arte baino. Hala ere, Marxen eragina jazoera politikoetan akademiako dorreetatik haratago, badirudi beheraka doala, oraingoz behintzat. Zer egin behar dugu egoera nahasi honen aurrean?

Hau ez da lekua Marxen ideiak kritikatuak izan diren moduei buruzko eztabaidan sartzeko. Auziak konplikatuak dira eta batzuetan teknikoak, eta eztabaidak sarritan luzeak eta gogorak izaten dira. Berehala aurki daiteke erantzun bateraezinen mordo bat Marxengan zer dagoen hilik eta zer bizirik galderarentzat.<sup>21</sup> Baina edonolako zerrenda egiten dugularik ere, aurrena Marxekin zuzenean topo egin eta haren testuak ulertzen saiatu behar dugu. Orduan bakarrik espero izan dezakegu arrakastarekin nabigatzea iruzkinen eta kritiken korrante zailtan barrena.

Beraz, sarrera hau amaituko dut, ez Marxen kritika edo defentsen ikuspegi batekin baizik nire ustez interes jarraiotu bat diren Marxen ideia nagusietako batzuen azterketa labur batekin. Ideia horiek denak kontrobertsiakoak dira, azken finean gerta liteke faltsuak direla frogatzea. Baina modu desberdinetan oraindik ere kontuan hartu beharreko ideiak dira.

Lehena Marxen antropologia filosofikoaren muinean dagoen ideia da. Gizakiok, Marxen arabera, izaki esentzialki aktiboak, sortzaileak gara, eta lana da giza jarduera sortzailearen paradigma. Gure lanean, geure buruaren izaera adierazten dugu eta autoegikaritzea aurkitzen dugu. Baieztapen hori egia bada, orduan gure lanaren

<sup>20</sup> Ibid, 304 or.

<sup>21</sup> Adibidez, ikus obra honen azken kapitulua: Jon Elster, *An Introduction to Karl Marx* (Cambridge: Cambridge University Press, 1986).

baldintzak neurri handi batean gure bizitzen izaera azaltzearen bidetik doaz, nahiz zoriontsuak eta betegarriak edo kamustuak eta desitxuratuak diren.

34

Baieztapen horretatik jarraituko litzateke giza askatasuna ezin dela ulertu lan askearen baldintzen terminotan izan ezik. Bestalde, baieztapena faltsua bada, orduan badu garrantzia giza bizitza bete batean lanaren eginkizunaz oraindik galdetzeak. Zer besteri kontu egin behar diogu, lanaren baldintzez gainera edo horien ordez, giza aberaste, hazkuntza, eta adierazpenaren koadro egoki bat izateko?

Marxek ez zuen sostengatzen lana giza jarduera esentziala zela bakarrik, baita giza lana orain arteko historian, parterik handienez, alienatua izan zela ere. Noski, kapitalismoaren haren kritika filosofikoa lan alienatua eta esplotazio kontzeptu erlazionatuetan ardazturik dago. Marxen kritikari gutxi, ezta Marxen komunismoaren ikuspena lortuezina eta arbuigarria dela uste dutenek ere baieztatuko lukete gaur eguneko kapitalismoa alienaziorik gabea denik. Jendeak izan dezake desadostasuna alienazioaren izaeraz, kausez eta hedapenari buruz, eta bereziki, zer puntutaraino talde marjinalizatu batek baino gehiagok esperimentatutako alienazioak haien lanaren izaerarekin zerikusia duen (edo langabetuen kasuan, lanaren gabeziarekin). Baina gehienek onartuko lukete alienazioa formaren batean kapitalismoaren gaitzen artean dagoela. Marxen analisiak, beraz, muntaduna da oraindik ere.

Halaber, munta izaten jarraitzen dute materialismo historikoaren bi ideia nagusiek ere: historia garapen ekonomikoaren terminotan azaldu behar da ideien garapenarenean baino areago (edo Marxek esango lukeenez, izate sozialak determinatzen du kontzientzia soziala); eta klasea aldagai azaltzaile nagusia dela teoria sozialean. Nolabait, bi ideia horiek hainbestearaino sartu dira mundua ulertzeko dugun zentzu komunean, non normalizat hartzeko joera baitugu. Baina ez beti. Zeren oraindik ahalegin asko baitaude garapen historiko nagusiak balio moral, konpromiso erlijioso, edo ideologia politikoen arabera. Gaur egun munduan gertatzen ari den jazoera esanguratsuenen artean seguru asko Ekialdeko Europaren eraldakuntza dago. Ikuspegi marxista autokontziente batetik egindako analisi batek jazoera horiek azpian dauden faktore ekonomiko eta klasekoen arabera azaltzera joko luke, nahiz eta konplikatuak izan. Hori da modu zuzena munduaren alderdi hartan hain indartsuak diren korrante erlijioso, etniko eta nazionalistak ulertzeko.

Klasea da Marxekin gehien asoziatzen den kategorietako bat. Haren klase-analisia, zeinek funtsean kapitalismoa bi klase nagusiren, kapitalista eta proletarioarenean ikusi baitzuen, sinplista zen hemeretzigarren mendeko Europari justizia egiteko, eta seguru asko desegokia da gure gizartearen berri emateko. Baina ba al da klase eta klase-borroka kontzeptu bat nolabaiteko azalpen-indarra duenik? Edo klasea besterik gabe kontzeptu okerra al da gure errealitate sozial konplexua ulertzen ahalegintzeko erabilera? Baldin eta klase-analisi marxista bezalako zerbaiti eutsi nahi badiogu, ba al da gaur egun klase bat (edo oraindik orokorrago, talde sozial bat) Marxek proletarioari esleitu zion eragile iraultzailearen eginkizuna izan dezakeena?

35

Gizarte komunistaren hiru ezaugarri garrantzitsu, Marxek zirrimarratu zuenez, halaber muntadunak dira: merkatua baztertzea harreman sozialen printzipio antolatzaile gisa, produkzio-bitartekoaren jabetza pribatua ezabatzea, eta berdinaletasunaren izaera eta esanahia. Nahiz eta oraingoz sozialismoa lekurik



gehienetan agenda politikotik atzeratzen ari dela dirudien, merkatuaren auziak iraun egiten du. Ba al dago alternatiba bideragarrikerik merkatuaren erabilerarentzat gure ekonomiaren, eta orokorrago gizartearen printzipio antolatzaile gisa? Zer neurritaraino jarraitu nahi dugu merkatuaz fidatzen baliabideak esleitu eta aberastasuna banatzeko, eta zer neurritaraino esleitu beharko genizkioke egiteko horiek autoritate zentralizatu bati? Zein fokapen instituzionalek, edo bien konbinazioen batek eskaintzen du efizientzia, askatasuna, eta arrazionaltasuna maximizatzeko modurik hobereena? Marxengan berarengan bi joera edo memento detekta daitezke horri buruz. Alde batetik, argiro kritikoa zen merkatu kapitalistarekiko, azken finean ez-efiziente, irrazional, eta alienatzaile gisa, eta plangintza sozial zentralizatu baten eredurantz jo zuen alternatiba arrazional, eta nolabaiteko zentzuan, askatzaile gisa. Besterik, Marxengan joera anarkista bat ageri da zenbait tokitan. Dezentralizazioaz eta produkzio-prozesuaren eta produktuaren kontrol parte-hartzaile bitarte gabeaz hitz egiten duenean, ez da garbi agertzen hori nola den bateragarria plangintza zentralizatuarekin. Hogeigarren mendearen azken aldeko merkatu kapitalistaren Marxen garaikoaren artean amildegi bat dagoelarik, oraindik borrokan ari gara estatua merkatua eta zentralizatu/dezentralizatu *continuumekin* ados jartzeari dagokionez.

Oraindik ere borrokan ari gara produkzio-bitartekoen jabetza pribatuaren auziarekin, hau da, kapitalaren izaerarekin. Jakina, ahalegin bat baino gehiago izan dira auzi hori bideratzeko Sobiet Batasunetik hasi eta Suedian barrena Estatu Batuetaraino doan continuum batean ageri diren esperimentu sozialak. Auzia, hala ere, ez da ebatzi, osasungintzako industrian gobernuaren eginkizunari buruzko gaur eguneko eztabaidak argiro adierazten duenez.

36

Azkenik, gizarte berdinzale baten ideia muntaduna da. Marx sarritan hartzen da indibidualismoaren eta askatasun indibidualaren etsaitzat. Hori ez da inondik ere egia. Haren ikuspena izan zen gizarte batena, zeinean norbanakoak lehen aldiz izan baitzitezkeen aske beren talentu eta gaitasunak garatzeko. Baina era garrantzitsuan, hori egiteko norbanako guztiak berdinki askeak izango ziren gizarte bat zen. Komunismoa oraindik ere askotan gizarte nibelatzaile bat bezala oker errepresentatzen da, zeinean dena maila komun batera murriztuko bailitzateke. Hori da Marxekin asoziatu berdinzaletasunaren zentzua. Baina Marxek egiazko balio bezala ikusten zuena ez zen emaitzaren berdintasuna, baizik potentzialaren berdintasuna, ez berdintasuna askatasunarekiko tentsioan, baizik guztientzako egiazko askatasunarekin bakarrik egikaritu zitezkeen berdintasuna. Komunismoa ez litzateke izango emaitza berdineko edo lorpen berdineko gizarte bat. Baina izango litzateke gizarte bat, zeinean lorpen-desberdintasunak ez bailirateke izango jelskortasun—, bekaizkeria—, edo gutizia-kausa. Berdinzalea izango litzateke lorpen indibidualerako beharrezkoak ez diren hesi kaltegarrietatik berdinki askea izango litzatekeen zentzuan. Hori ikuspen burutsu eta utopiko bat da, noski. Baina Marx berdinzalea zer zentzutan zen behar bezala ulertzeak heldulekuren bat ematen digu gu geu ez garen moduak ulertzeko.

Lawrence H. Simon

## Bibliografia

### Bibliografia Hautatua

Marxi buruzko bibliografia, esan beharrik ez dago, izugarria da. Honako zerrenda honek ingelesez eta arestiko iraganean argitara eman diren obrak dakartza Batez ere azterlan filosofikoak dira Marxi zuzenduak areago tradizio marxistari baino.

### I. Marxen idazkiak

*Capital*, 1 lib. Ben Fowkesen itzul. Pelican Marx Library. New York: Random House, 1977.

*Capital*, 2 lib. David Fernbach itzul. Pelican Marx Library. New York: Random House, 1981.

*Capital*, 3 lib. David Fernbach itzul. Pelican Marx Library. New York: Random House, 1981.

Grundrisse: *Foundations of the Critique of Political Economy*, Martin Nicolausen itzul. Harmondsworth: Penguin Books, 1974.

*Marx Engels Collected Works*. New York: International Publishers, 1975.

*Marx Engels Gesamtausgabe*. Berlin: Dietz Verlag, 1972.

*Theories of Surplus Value*. London: Lawrence & Wishart, 1969-72. 3 lib. *Writings of the Young Marx on Philosophy and Society*. Loyd D. Easton and Kurt H. Guddat, ed. eta itzul. Garden City: Doubleday Anchor Books, 1967.

Marx y Engels. *Obras Escogidas I, II, III*. Moscú: Editorial Progreso, 1976.

### II. Biografiak

Berlin, Sir Isaiah. *Karl Marx: His Life and Environment*. 4. Ed. Oxford: Oxford University Press, 1978.

McLellan, David. *Karl Marx: His Life and Thought*. New York: Harper & Row, 1973.

### III. Bibliografia sekundarioa

Althusser, Louis eta Balibar, E. *Para leer «el Capital»*. México: Siglo XXI, 1974.

Avineri Shlomo. *The Social and Political Thought of Karl Marx*. Cambridge. Cambridge University Press, 1968.

Bakunin, M. *Dios y el Estado*. Madrid: Biblioteca Jucar, 1975.

Ball, T. and J. Farr, eds. *After Marx*. Cambridge: Cambridge University Press, 1984.

Bianchi, M. *La Teoría del Valor desde los Clásicos a Marx*. Madrid: Alberto Corazón, 1975.

Buchanan, Allen. *Marx and Justice*. Totowa: Rowman and Littlefield, 1982.

Callinicos, Alex, ed. *Marxist Theory*. Oxford: Oxford University Press, 1989.

Carver, Terrell, ed. *The Cambridge Companion to Marx*. Cambridge: Cambridge University Press, 1991.

Cohen, G. A. *History, Labour and Freedom: Themes from Marx*. Oxford Clarendon Press, 1988.

- Cohen, G. A. *Karl Marx's Theory of History: A Defence*. Princeton: Princeton University Press, 1978.
- Cohen, M., T Nagel, and T Scanlon, eds. *Marx, Justice and History*. Princeton: Princeton University Press, 1981.
- Dobb, Maurice. *Economía Política y Capitalismo*. Mexico: Fondo Cultura Económica, 1966.
- Draper, Hal. *Karl Marx's Theory of Revolution*. 2 lib New York: Monthly Review Press.
- Elster, Jon. *An Introduction to Karl Marx*. Cambridge: Cambridge University Press, 1986.
- Elster, Jon. *Making Sense of Marx*. Cambridge: Cambridge University Press, 1985.
- Geras, Norman. *Marx and Human Nature*. London: New Left Books, 1983.
- Heilbroner, Richard. *Marxism: For and Against*. New York: Norton, 1980.
- Kolakowski, Leszek. *Main Currents of Marxism*. 3 lib. Oxford: Oxford University Press, 1978.
- Little, Daniel, *The Scientific Marx*. Minneapolis: University of Minnesota Press, 1986.
- Lukes, Steven. *Marxism and Morality*. Oxford: Clarendon Press, 1984.
- Mandel, Ernest et al. *Marxismo hoy*. Madrid: Ed. Revolución, 1983.
- Meek, Ronald. *Smith, Marx y después, Diez Ensayos sobre el Desarrollo del Pensamiento Económico*. Madrid: Siglo XXI, 1980.
- Miller, Richard. *Analyzing Marx: Morality, Power and History*. Princeton: Princeton University Press.
- Peffer, R. G. *Marxism, Morality, and Social Justice*. Princeton: Princeton University Press, 1990.
- Plamenatz, John. *Karl Marx's Philosophy of Man*. Oxford: Oxford University Press, 1975.
- Robinson, Joan, *Introducción a la Economía Marxista*, México: Siglo XXI, 1969
- Roemer, John. ed. *Analytical Marxism*. Cambridge: Cambridge University Press, 1986.
- Schmidt, Alfred. *The Concept of Nature in Marx*. London: New Left Books, 1971.
- Schmitt, Richard. *Introduction to Marx and Engels: A Critical Reconstruction*. Boulder: Westview Press, 1987.
- Shaw, William H. *Marx's Theory of History*. Stanford: Stanford University Press, 1978.
- Singer, Peter. *Marx*. Oxford: Oxford University Press, 1980.
- Sweezy, P. *Teoría del Desarrollo Capitalista*, México: Fondo Cultura Económica, 1972.
- Wolff, Robert Paul. *Understanding Marx*. Princeton: Princeton University Press, 1984.
- Wood, Allen W *Karl Marx*. London: Routledge and Kegan Paul, 1981.
- Wright, Erik Olin, Andrew Levine, and Elliott Sober. *Reconstructing Marxism: Essays on Explanation and the Theory of History*. New York: Verso, 1992.

## I. IDAZKI FILOSOFIKO GOIZTIARRAK

### JUDUEN AUZIA

Karl Marx

*1842an, Bruno Bauer-ek artikulu sail bat argitaratu zuen Deutsche Jahrbücheren Alemaniako juduen emantzipazioaren gaiaz. Marxek haren erreseina bat idatzi zuen eta Bauerren artikulei (eta ondorengo liburuari) erantzun zien 1843ko udazkenean Kreuznachen, nora itzuli baitzen bere ezkon-bidaiatik, eta urrian Parisa joan baino lehentxeago. Marxen erreseina Deutsch-Französische Jahrbücheren argitaratu zen 1844ko otsailean. Saiakera eskubide zibilei buruzko lehen adibidea da: ea juduei kristauen eskubide berak aitortu behar zitzaizkien. Prusiako legeek mugak jartzen zizkieten juduei merkataritza-jarduera eta okupazio-abagunei zegokienez. Marxen aita politika horren biktima izana zen.*

*1840. urteen hasieran, juduen emantzipazioaren auziak bazuen interes apur bat erradikal alemaniarrentzat. Bauerrek argudiatua zuen juduei kristauen eskubide berak aitortzeko, biek beren erlijioei uko egin behar zietela. Erlijioa banaketa handiegia zen; kristauek menderaturiko estatu batek ezin zizkien aitortu juduei eskubide berak. Posizio horrek bazuen zentzurik hegeldar gazteen erlijioaren kritika orokorraren testuinguruan. Izatez, hala ere, juduen emantzipazioari kontra-jartzen zitzaizkion interesak zerbitzatzen zituen.*

46

*Marxek salbuespena egiten dio Bauerren argudioari. Estatu liberalak berdintasuna aitor liezaieke juduei estatuaren hiritar diren heinean. Amerika, ohartarazten du, horren adibidea da. Era berean, estatu batek, ikuspuntu instituzional batetik, aska litzake hiritarrak jabetzatik jabetza-kualifikazio bat ezabatuz frankiziatik jabetza pribatuaren efektuetatik jendea askatu gabe gizarte zibilean. Juduen emantzipazioaren auzi erreala, Marxek jarraitzen du argudiatzen, emantzipazio errealaren auzi bat bezala ikusi beharko litzateke oro har. Erlijioa praktikatzeko aske izatea gizarte zibilean posible da erlijioa den alienaziotik aske izan gabe. Era berean, mundu guztiari hiritartasun-eskubideak aitortzeak estatuarekiko harremanean ez du ziurtatzen espezie-bizitza bat gure hiritar-eginkizunetik kanpo egote komunal bat bezala. Izan ere, mundu guztiari «gizaki-» eta «hiritar-» eskubideak aitortzeak azken finean esan nahi du denak aske direla egoista eta askatasunik gabeko izateko gizarte zibilean. Alienazioa eta gizakiaren gizakiarengandiko bereizkuntza estatuaren esferan gainditzeak ez du amaitzen gizarte zibilaren estaturiko alienazioa. Emantzipazio politikoa ez litzateke nahastu behar espezie-izakien komunitate batean lortu beharreko giza emantzipazio errealarekin. Saiakera, beraz, ahalegin bat bezala ikus daiteke liberalismoaren mugak agertzeko jabetza pribatuaren esfera erreformatu gabearen testuinguruan.*

*Saiakeraren bigarren atalean, Marxek gizarte zibilaren harreman ekonomikoak eta jarrera karakteristikoak kritikatzeko jarraitzen du. Horiek, bere garaiko era tipiko batean, juduen estereotipoekin identifikatzen ditu. Batzuek ikusi izan dituzte ohar horiek Marxen antisemitismo propioaren froga gisa. Iruditeria eta erretorika*

*antisemita esplotatzen dituen bitartean, haren jo puntu erreala gizarte zibila (eta azken finean, kapitalismoa) da eta ez juduak per se.*

\*\*\*

**Bruno Bauer, JUDUEN AUZIA,**

Braunschweig, 1843

Judu alemaniarrek emantzipazioa eskatzen dute. Zer emantzipazio eskatzen dute? Emantzipazio *zibil*, *politikoa*.

Bruno Bauerrek erantzun egiten die: Inor ez dago Alemanian politikoki emantzipaturik. Gu geu ere ez gara aske. Nola askatu behar zaituztegu? Zuek, juduok, egoistak zarete, baldin eta emantzipazio berezi bat zeuentzat, judu gisa, eskatzen baduzue. Zuek, alemaniar gisa, Alemaniaren emantzipazio politikoaren alde, gizaki gisa, gizakiaren emantzipazioaren alde lan egin beharko zenukete eta zuen zapalkuntzaren eta zuen lotsaizunaren era berezia ez zenukete arauaren salbuespen gisa sentitu behar, baizik eta arauaren berrespen gisa areago.

47

Ala *mendeko kristauekin* parekatzea eskatzen dute juduek? Orduan *estatu kristaua* legitimotzat berrezagutzen dute, orduan hura uztarpetze orokorraren eraientza gisa berrezagutzen dute. Zergatik ez zaie atsegin beren uztarri berezia, baldin eta uztarri orokorra atsegin bazaie? Zergatik interesatu behar dute alemaniarrek juduen askapenaz, badin eta juduak ez badira alemaniarren askapenaz interesatzen?

Estatu *kristauak pribilegioak* bakarrik ezagutzen ditu. Juduak hartan badu judu izateko pribilegioa. Berak judu gisa kristauek ez dituzten eskubideak ditu. Zergatik eskatzen ditu berak ez dituen eta kristauek gozatzen dituzten eskubideak?

Estatu kristauko juduak emantzipatu izan nahi badu, orduan estatu kristauak bere aurreiritzi *erlijioso* abandonatzeko eskatzen ari da. Abandonatzen al du berak, juduak, bere aurreiritzi erlijioso? Ba al du orduan berak beste bati erlijioaren abdikazio hori eskatzeko eskubidea?

Estatu kristauak *bere esentziaren* arabera ezin du judua emantzipatu; baina Bauerrek gehitzen du judua ez dagoela haren esentziaren arabera emantzipatzerik. Estatu kristauak eta estatu juduak, judutarra den bitartean, biek ezgaitasun bera dute emantzipazioa emateko eta hartzeko. Estatu kristauak estatu kristauaren eran bakarrik joka dezake juduarekiko, hau da, era pribilegiatzailean, zeren horrek judua beste mendekoengandik bakartzea ahalbidetzen baitu, baina hartaz bestelako esferen zapalkuntza sentiaraziz, eta hainbat gogorrago sentiaraziz, judua kontraste *erlijiosoan* aurkitzen den heinean erlijio menderatzailearekiko. Baina juduak ere estatuarekiko joka dezake judu gisa soilik, hau da, atzerritar batek bezala estatuarekiko, zeren berak nazionalitate errealar bere nazionalitate kimerikoa kontrajartzen diolako, lege errealar bere lege begitaziozkoa, zeren baimendurik irudikatzen baitu bere burua gizaditik bereizteko, zeren printzipioz ez baitu inola ere eskuhartzen mugimendu historikoan, zeren etorkizun bat itxaroten baitu gizakiaren etorkizun orokorrarekin ezer batera ez duena, zeren berak bere burua populu juduaren kidetzat baitauka eta populu judutarra populu hautatutzat.

48

Zer titulurekin eskatzen duzue, zuek juduok, emantzipazioa? Zeuon erlijioarengatik? Hori estatu-erlijioaren etsai heriozkoa da. Hiritar gisa? Alemanian ez dago hiritarririk. Gizaki gisa? Zuek ez zarete gizakiak, dei egiten diezuen horiek ere ez diren bezala.

Bauerrek era berrian ezarri du juduen emantzipazioaren auzia, gaur arteko auziaren posizioen eta irtenbideen kritika bat egin ondoren. Nolakoa da, galdetzen du, emantzipatu beharreko judua, eta emantzipatu behar duen estatu kristauaren *izaera*? Erlijio juduaren kritikaren bidez erantzuten du, judutasuna eta kristautasunaren arteko kontrajartze *erlijiosoa* aztertzen du, estatu kristauaren esentzia azaltzen du, hori guztia argitasunez, zorroztasunez, espirituz, sakontasunez idazkera doi batez ez ezik mamitsu eta indartsu batez.

Nola ebazten du Bauerrek juduen auzia? Zein da emaitza? Auzi baten formulazioa haren soluzioa da. Juduen auziaren kritika juduen auziaren erantzuna da. Laburbilduma honako hau da:

Geure burua emantzipatu behar dugu, besteak emantzipatu baino lehen.

Juduaren eta kristauaren arteko kontrajartzearen era zurrunena kontrajartze *erlijiosoa* da. Nola askatzen da kontrajartze bat? Hura ezinezko eginez. Nola bihurtzen da ezinezko kontrajartze *erlijioso* bat? *Erljioa gainditzearen bidez*. Juduak eta kristauak elkarren erlijioak *giza espirituaren garapen maila desberdinak* baizik ez direla berrezagutzen duten heinean, *historiak* jaulkitako suge-azalak baizik ez direla eta gizakia hartaz jantzitako sugea, orduan ez dira harreman erlijioso batean egongo, baizik harreman kritiko, *zientifiko*, gizatiar batean. Zientzia da orduan haien batasuna. Zientziako kontrajartzeak *zientziaren* beraren bidez ebazten dira. Judu *alemaniarri* bereziki kontrajartzen zaio emantzipazio politikoaren gabezia eta estatuaren kristautasun aitortua. Bauerren zentzuan, hala ere, juduaren auziak esanahi orokor, harreman alemaniar bereziaz apartekoa dauka. Erlijioaren eta estatuaren arteko harremanaren auzia da, *aurreiritzi erlijiosoaren eta emantzipazio politikoaren kontraesanarena*. Erlijiotiko emantzipazioa baldintza gisa ezartzen da, nola juduari, politikoki emantzipatu nahi duenari, hala estatuari, zeinak emantzipatu behar baitu eta berak ere emantzipatua izan.

49

«Ederki —esaten da, eta juduak berak esaten du— juduak emantzipatua izan behar du ez judu gisa, ez judua delako, ez etizitatearen printzipio hain bikain, hain unibertsalki gizatiar bat duelako, aitzitik *juduak* amore emango du *hiritarraren* aurrean eta *hiritar* izango da, nahiz eta judu izan eta judu iraun behar duen; hau da, judu da eta *judu* iraun behar du, nahiz eta *hiritarra* den eta harreman unibertsalki gizatiarretan bizi, azken finean, haren esentzia judutar eta mugatua garaile aterako da beti haren betebeharrak gizatiar eta politikoen gaineratik. *Aurreiritziak* iraun egiten du, nahiz eta printzipio *orokorrek* gainditzen duten. Baina irauten badu, askoz gaindituko du gainerako guztia. «Sofista gisa bakarrik, itxuran, iraun ahal izango luke juduak halako estatuaren bizitzan; kasu horretan, judu iraun nahiko balu, itxura hutsa izango litzateke esentziazkoa eta garaile aterako litzateke, hau da, *estatuaren* baitako haren bizitza itxura besterik ez litzateke, edo aldiuneko salbuespena esentziaren eta arauaren aurka». («Gaurko juduen eta kristauen gaitasuna aske bihurtzeko.» *Einundzwanzig Bogen*, 57 or.)

Entzun dezagun, bestalde, nola planteatzen duen Bauerrek estatuaren betekizuna.

«Frantziak —esaten da— berriki eman digu (1840ko abenduaren 26ko Diputatuen

Ganberako Eztatidak) juduen auziari dagokionez, beti beste auzi *politikoei* dagokienez bezala, bizitza baten ikuskizuna, askea dena, baina legean askatasuna bera ezeztatzen duena, beraz itxuraz iragartzen duena, eta bestalde egitatearen bidez bere lege askea aurkakotzen duena.» (*Juduen auzia*, 64 or.)

«Askatasun orokorra Frantzian oraindik ez da lege, juduen auzia oraindik ez da ebatzi, zeren legezko askatasuna —hiritarrak berdinak direlakoa— mugaturik baitago bizitzan, zeina pribilegio erlijiosoek menderaturik eta zatiturik baitago eta bizitzaren ez-askatasun horrek eragina du legean eta horrek behartu egiten du berez aske diren hiritarren bereizkuntza santzionatzera, zapalduetan eta zapaltzaileetan.» (65 or.)

Noiz ebatziko litzateke, beraz, Frantziarentzat juduen auzia?

«Juduak, adibidez, utzi egin beharko lioke judu izateari, baldin eta bere legearen bidez eragotzi ezin badu, estatuarekiko eta hiritarkideekiko bere betebeharrak betetzea, adibidez, larunbatean Diputatuen Ganberan aurkeztu eta debate publikoetan esku-hartuko balu. *Pribilegio erlijioso* oro orokorrean, baita prerrogatibaz hornituriko eliza baten monopolioa ere, gainditu egin beharko litzateke. Eta banaka batzuek, edo askok, baita *gehiengo nagusiak betebeharrak erlijiosoak bete beharko lituzketela usteko balute ere*, betetze hori *gauza pribatu huts* bat bezala baimendu beharko litzateke» (65 or.).

«Ez dago erlijiorik, erlijio pribilegiaturik ez badago. Ken iezaiozue erlijioari bere indar eskusibizatzailea, eta aurrerantzean ez da existituko.» (66 or.).

«Martin du Nord jaunak ikusi du igandearen aipamena legera ez pasatzearen legeaian kristautasunak izateari utzi ziola aitortzearen proposamena; eskubide beraz (eta eskubide hori erabat oinarriturik dago), Sabbatharen legeak judua ez duela gehiago behartzen aitortzea judutasunaren deuseztapenaren aldarrikapena litzateke.» (71 or.)

50

Bauerrek, alde batetik, eskatzen du juduak uko egin diezaiola judutasunari eta gizakiak orokorrean uko egin diezaiola erlijioari *zibikoki* emantzipatuak izateko. Eta, besterik, ondorio logikoz erlijioaren *gainitze politikoa* erlijio ororen gainditze bezala. Erlijioa auresuposatzen duen estatua ez da oraindik estatu erreal eta egiazkoa.

«Noski, errepresentazio erlijiosoak bermeak ematen dizkio estatuari. Baina zer estaturik? *Zer estatu motari?*» (97 or.)

Puntu honetan agertzen da Bauerren *aldebakarreko* juduen auziaren kontsiderazioa.

Ez zen aski hau bakarrik galdetzea: Nork emantzipatu behar du? Nork izan behar du emantzipatua? Kritikak hirugarren bat ere egin beharra zeukan. Galdetu behar zuen: *Zer emantzipazio motaz ari gara?* Zer baldintza daude oinarrituak erreklamaturiko emantzipazioaren esentzian? *Emantzipazio politikoaren* kritika ez zen bere baitan juduen auziaren azken kritika, baizik eta haren egiazko ebazpena «*garaiko auzi orokorrean*».

Bauer, auzia garaiera horretara jasotzen ez duelako, kontraesanetan erortzen da. Baldintzak ezartzen ditu, emantzipazio politikoaren esentzian oinarriturik ez daudenak. Bere arazoan sartzen ez diren auziak sortzen ditu, eta bere auzia ukitugabe uzten duten arazoak ebazten ditu. Bauerrek juduen emantzipazioaren aurkakoez dioenean: «Horien hutsegite bakarra izan da estatu kristaua egiazko bakar suposatzea, eta judutasuna kontsideratzen zuten kritika beraren azpian ez zuten ezarri» (3 or.). Guk hemen Bauerren hutsegitea aurkitzen dugu «estatu kristaua»

kritikaren azpian ezartzean eta ez «estatu bera», ez duelako bilatzen *emantzipazio politikoaren eta giza emantzipazioaren arteko harremana* eta horregatik baldintzak ezartzen dituelako emantzipazio politikoaren eta orokorki giza emantzipazioaren arteko nahaste akritiko batekin bakarrik azalgarriak direnak. Bauerrek juduei galdetzen die: Zuen ikuspuntutik ba al duzue *emantzipazio politikoa* eskatzeko eskubiderik? Guk alderantziz galdetzen dugu: Emantzipazio *politikoaren* ikuspuntuak ba al du eskubiderik, juduei judutasuna gainditzea, gizakiari orokorrean erlijioa gainditzea eskatzeko?

51

Juduen auziak itxura desberdina hartzen du judua aurkitzen den estatuaren arabera. Alemanian, estatu politikorik, estatu gisa estaturik ez dagoen tokian, juduen auzia auzi *teologiko* soila da. Judua kontrajartze erlijiosoan aurkitzen da estatuarekiko, zeinak kristautasuna oinarritzat aitortzen baitu. Estatu hori teologoa da *ex professo /ofizioz/*. Kritika teologiaren kritika da hemen, kritika ebakidura bikoitzean, kristau teologiaren kritika eta teologia juduaren kritika. Baina horrela beti teologian mugitzen gara, *kritikoki* mugitzen garen heinean.

Frantzian, estatu *konstituzionalean*, juduen auzia konstituzionalismoaren auzia da, *emantzipazio politikoaren osagabetasunaren* auzia. Zeren hemen estatu-erlijio baten *itxura* gorde baita, nahiz eta formula huts eta bere baitan kontraesankorrean, *gehiengoaren erlijioaren* formulan, juduak estatuarekin duen harremanak kontrajartze erlijioso, teologiko baten *itxura* daukan.

Ipar Amerikako estatu askeetan bakarrik —haien parte batean bederen— galtzen du juduen auziak bere esanahi teologikoa, eta auzi errealki sekular bihurtzen da Estatu politikoa bere erakuntza burutuan existitzen den tokian bakarrik, juduaren eta, oro har, gizaki erlijiosoaren estatuarekiko harremana aurkez daiteke bere berezitasunean, bere garbitasunean. Harreman horren kritikak utzi egiten dio teologikoa izateari estatuak era teologikoan erlijioarekiko portatzeari uzten dion bezain laster, hau da politikoki. Kritika, orduan, estatu politikoaren kritika bihurtzen da. Puntu horretan, auziak teologiko izateari uzten dionean, uzten dio Bauerren kritikak kritiko izateari.

«*Il n'existe aux Etats-Unis ni religion de l'état, ni religion déclarée celle de la majorité ni prééminence d'un culte sur un autre. L'état est étranger à tous les cultes.*» (*Marie ou l'esclavage aux Etats-Unis etc., par G. De Beaumont. Paris 1835, 214 or.*) Badira noski estatu iparramerikar batzuk, non «*la constitution n'impose pas les croyances religieuses et la pratique d'un culte comme condition des privilèges politiques*» (*l.c. 224 or.*) Eta, hala ere, «*on ne croit pas aux Etats-Unis qu'un homme sans religion puisse être un honnête homme*» (*l. c. 225 or.*) [Estatu Batuetan ez dago estatu-erlijiorik, ez gehiengoaren erlijio aitorturik ez kultu baten beste baten gaineko nagusitasunik. Estatu arrotza da kultu guztiekiko.] (*Marie edo esklabotza Estatu Batuetan etc.*) G. De Beaumont, Paris 1835, 214 or.). Badira, noski, estatu iparramerikar batzuk, non «*konstituzioak ez baititu ezartzen sineste erlijiosoak edo kultu jakin bat praktikatzea pribilegio politikoaren baldintza gisa (ibidem, 225 or.)*. Eta, hala ere, «*ez da sinesten Estatu Batuetan erlijiorik gabeko gizaki bat gizaki jatorra izan daitekeenik*» (*ibid., 224 or.*)

52

Guztiarekin ere Ipar Amerika lehentasunez da erlijiosotasunaren herrialdea, Beaumont, Tocqueville eta Hamilton ingelesak aho batez ziurtatzen dutenez. Estatu iparramerikarrek adibide gisa bakarrik balio digute honetan. Auzia da: nolako



harremana dauka emantzipazio politiko *burutuak* erlijioarekiko? Baldin eta emantzipazio politiko *burutuaren* herrialdean bertan erlijioaren *existentzia* ez, baizik eta existentzia *fresko* eta *indartsua*, hori froga bat da erlijioa izatea ez doala estatua burutzearen aurka. Baina erlijioaren existentzia gabezia baten existentzia denez gero, gabezia horren iturburua estatuaren beraren esentzian bakarrik bila daiteke. Erlijioa gehiago agertzen zaigu *oinarri* baino munduaren izate mugatuaren *fenomeno* gisa. Horregatik azaltzen dugu hiritar askeen mendekotasun erlijiozkoa haien mendekotasun sekularraz. Ez dugu aitortzen beren mugatutasun erlijiozkoa gainditu behar dutela, beren muga sekularrak gainditzeko. Aitortzen dugu beren mugatutasun erlijiozkoa gainditzeko dutela, beren muga sekularrak gainditzeko dituzten bezain laster. Ez ditugu auzi sekularrak teologiko bihurtzen. Auzi teologikoak sekular bihurtzen ditugu. Historia nahiko luzaroan superstizio ebatzi delarik, superstizioa historia ebazten dugu. *Emantzipazio politikoaren erlijioarekiko harremanen auzia emantzipazioa zio politikoaren emantzipazio gizatiarrarekiko harremanaren* auzi bihurtzen zaigu. Kritikatu egiten dugu estatu politikoaren ahulezia erlijiosoak, estatu politikoak kritikatzeko dugun heinean, *alde batera utzirik* ahulezia erlijiosoak haren eraikuntza *sekularrean*. Gizatiartu egiten dugu estatuaren eta *erlijio jakin* baten arteko kontraesana, adibidez, judutasunarena, estatuaren eta elementu *sekular jakin* batzuen arteko kontraesanean, estatuaren eta oro har erlijioaren arteko kontraesanean, estatuaren eta haren *aurresuposizioen* arteko kontraesanean.

Juduaren, kristauaren, oro har, gizaki erlijiosoaren emantzipazio *politikoa* estatuaren *emantzipazioa* da judutasunetik, kristautasunetik, oro har, *erlijiotik*. Bere forman, bere esentziaren modu propioan, estatu gisa emantzipatzen da estatua erlijiotik *estatu-erlijiotik* emantzipatuz, hau da, estatuak estatu gisa erlijiorik aitortzen ez duenean, areago estatuak bere burua estatu gisa aitortzen duenean. Erlijiotako emantzipazio *politikoa* ez da erlijiotako emantzipazio burutua, kontraesangabea, zeren emantzipazio *politikoa* ez baita *giza* emantzipazioaren modu burutu, kontraesangabea.

53

Emantzipazio politikoaren muga berehalaxe agertzen da *estatuak* bere burua hertsapen batetik aska dezakeelakoan, gizakia *errealiki* hartatik aske izan gabe, estatua *estatu aske* bat izan daitekeelakoan, gizakia gizaki *aske* izan gabe. Bauerrek berak onartzen du hori inplizituki, emantzipazio politikoari honako baldintza ezartzen dionean: pribilegio erlijioso orokorrean, beraz, prerrogatibaz hornituriko Eliza baten pribilegioa ere gainditu egin beharko litzateke, eta batzuek edo askok edo *gehiengo nagusiak betebeharrak erlijiosoak bete behar direla uste izango balu*, betetze hori *gauza pribatu* soiltzat utzi beharko litzateke.» Baliteke estatua erlijiorik emantzipaturik egotea nahiz eta *gehiengo nagusia* artean erlijiosoak izan. Eta gehiengo nagusiak ez dio erlijioso izateari uzten *privatim erlijioso* izategatik.

Baina estatuaren erlijioarekiko portaera, eta bereziki *estatu askearena*, estatua eratzen duten gizakien erlijioarekiko portaera baizik ez da. Hortik dator gizakiak *estatuaren bitartekoaren* bidez, politikoki, hertsapen batetik askatzea, bere buruarekiko kontraesanean, modu *abstraktu* eta *mugatuan*, modu zatiko batean, hertsapen horren ginetik altxatuz. Gainera hortik dator, gizakia, politikoki askatuz, *zeharbidez* askatzen dela, *bitarteko* baten bidez, nahiz eta *beharrezko bitarteko* baten bidez izan. Azkenik dator gizakiak, nahiz eta estatuaren hitartekaritaz, bere

burua ateo aldarrikatu, hau da, estatua ateo aldarrikatu, oraindik beti erlijiosoki inplikaturik irautea, hain zuzen zeharbidez soilik bere burua aitortzen duelako. *Bitartekari* baten bidez soilik. Estatua gizakiaren eta gizakiaren askatasunaren arteko bitartekaria da. Kristo bitartekaria den bezala, zeinari gizakiak bere jainkotasun guztia, bere aurreiritzi erlijioso guztia kargatzen baitio, horrela estatua bitartekaria da, zeinean bere ez-jainkotasun guztia, eta bere *giza askatasun* guztia, bere aurreiritzi-gabezia guztia ezartzen baitu.

Gizakia erlijioaren gaineretik *politikoki* igotzeak politikoki igotzearen akats guztiak eta abantada guztiak partekatzen ditu. Estatuak estatu gisa ezabatu egiten du, adibidez, *jabetza pribatua*, gizakiak era politikoan *gainditutzat* aldarrikatzen du jabetza pribatua, *zentsua* hautagarritasun aktiboz eta pasiboz gainditzen duen bezain laster, iparramerikar estatu askotan gertatzen den bezala. *Hamilton*ek aski zuzen interpretatzen du gertakari hori ikuspuntu politikotik: «*Biztanleriaren gehiengo handiena garaile atera da jabeen eta diru-aberastasunaren gaineretik*».<sup>1</sup> Ez al da jabetza pribatua idealki gainditu, jabe ez dena jabearen legegile bihurtu denean? *Jabetza-kualifikazioa* da jabetza pribatua berrezagutzeko azken forma *politikoa*.

54

Hala ere, jabetza pribatuaren ezeztapen politikoarekin ez da jabetza pribatua ez gainditua bakarrik geratzen, baizik eta gainera auresuposatu egiten da. Estatuak gainditu egiten ditu bere eran *jaiotza-*, *maila-*, *hezkuntza-*, *lanbide-*desberdintasunak ez-politiko aitortzen dituenean, desberdintasun horiek kontuan hartzeke populuaren kide bakoitza *neurri berean* populuaren subiranotasunaren partaide aldarrikatzen duenean, populuaren bizitza errealeko elementu guztiak estatuaren ikuspuntutik tratatzen dituenean. Guztiarekin ere estatuak utzi egiten die jabetza pribatuari, hezkuntzari, lanbideari beren gisara, hau da, jabetza pribatu gisa, hazkuntza gisa, lanbide gisa *obratzen* eta beren esentzia berezia baliarazten. Desberdintasun faktiko horiek gainditzetik oso urrun, horien auresuposizioaren azpian areago existitzen da; *estatu politiko* gisa hautematen du bere burua eta bere elementu horiekiko kontrajartzean soilik baliarazten du bere orokortasuna. *Hegelek* guztiz zehazki determinatzen du *estatu politikoaren* erlijioarekiko harremana hau dioenean: »Estatua espirituaren *errealitate etiko autokontziente* gisa izatera irits dadin, beharrezkoa da autoritatearen eta fedearen formatik *bereiztea*; baina bereizkuntza hori agertzen da, ordea, eliz-alderdia bere baitan banatzera iristen denean; horrela bakarrik eliza *partikularren* gaineretik lortu du estatuak pentsamenduaren *orokortasuna*, bere formaren printzipioa eta existentzia ematen dio» (Hegel, *Zuzenbide-filosofia*. I. ed., 346 or.). Noski! Elementu *partikularren gaineretik* soilik eratzen da estatua orokortasun gisa.

Estatu politiko perfektua gizakiaren *espezie-bizitza* da bere esentziaz, haren bizitza materialarekiko *kontrajartzean*. Bizitza egoista horren auresuposizio guztiek izaten jarraitzen dute estatuaren esferatik *kanpo*, *gizarte zibilean*, baina gizarte zibilaren ezaugarri gisa. Estatu politikoak bere egiazko garapena lortu duen tokian, gizakiak eramaten du ez bakarrik pentsamenduan, kontzientzian bakarrik, baizik eta errealitatean, bizitzan, bizitza bikoitz bat, bata zerutarra eta bestea lurtarra, erkidego politikoko bizitza, zeinean bera erkidego gisa baieztatzen baita, eta gizarte zibileko

---

<sup>1</sup> [Thomas Hamilton, *Men and Manners in America* (2 lib; Edinburgh: William Blackwood, 1833). Marxek *Die Menschen und die Sitten in den Vereinigten Staaten von Nordamerika* (Mannheim: Hoff, 1834) 1 .lib., 146 or. alemaniar itzulpenetik egiten du aipamena. ]

bitzta, zeinean gizaki pribatu gisa aritzen baita, zeinak kontsideratzen baititu beste gizakiak bitarteko gisa, bere burua bitarteko izatera endekatzen baitu eta indar arrotzen jostailu bihurtzen. Estatu politikoa hain espiritualki portatzen da gizarte zibilarekiko nola zerua lurrarekiko. Kontrajartze berean dago harekiko, hura gainditzen du erlijioak mundu profanoaren mugatutasuna, hau da, aldi berean aitortu, lehengoratu eta bere burua hark menderatzen utzi behar duen era berean. Gizakia bere errealitate hurbilenean, gizarte zibilean, izaki profano bat da. Hemen, norbanako erreal gisa bere buruarentzat eta besteentzat balio duen tokian agerpen ez-egiazko bat da. Estatuan aitzitik, gizakia, gizakiak espezie gisa balio duen tokian, subiranotasun fantastiko baten kide imajinarioa da bitzta indibidual errealaz gabetu eta orokortasun irreal batez betetzen da.

55

Gatazka, zeinean aurkitzen baita gizakia erlijio *partikular* baten aitortzaile gisa bere hiritartasunarekiko, beste gizakiekin erkidegoko kide diren heinean, etendura *sekular* batera murrizten da estatu *politikoaren* eta *gizarte zibilaren* artean. Gizakiarentzat *bourgeois* den heinean [Hemen: gizarte zibileko kide] «estatu bitzta itxura besterik ez da edo aldiuneko salbuespen bat esentziaren eta arauaren aurka». Noski *bourgeoisak*, juduak bezala, sofistaki bakarrik dirau estatu-bitzitan, *citoyenek* [hiritarrak] sofistaki bakarrik judu edo *bourgeois* gisa dirauen bezala; baina sofistika hori ez da pertsonala. *Estatu politikoaren beraren sofistika* da. Gizaki erlijiosoaren eta hiritarraren arteko desberdintasuna merkatariairen eta hiritarraren artean dagoen desberdintasuna da, soldatapekoaren eta hiritarraren artekoa, lurjabearen eta hiritarraren artekoa, *norbanako bizidunaren* eta *hiritarraren* artekoa. Kontraesana, zeinean aurkitzen baita gizaki erlijiosoa gizaki politikorekin, kontraesan bera da, zeinean aurkitzen baita *bourgeois* *citoyenarekin*, zeinean gizarte zibileko kidea bere *lehoi-larru politikoarekin* aurkitzen baita.

Amaigabeko gatazka sekular hau, zeinera azken finean murrizten baita juduen auzia, —estatu politikoa bere auresuposizioekiko duen, nahiz eta elementu materialak izan, jabetza pribatua eta abar bezalakoak, edo espiritualak, hezkuntza, erlijioa bezalakoak, interes *orokorraren* eta *interes pribatuaren* arteko gatazka, *estatu politikoaren* eta *gizarte zibilaren* arteko etendura— kontrajartze sekular horiei, Bauerrek utzi egiten die irauten, horien adierazpen *erlijiosoaren* aurka polemizatzen duen bitartean. «Hain zuzen bere oinarriak, bere beharrak, zeinak segurtatzen baitio *gizarte zibilari* bere existentzia eta *bermatzen baitio bere beharrezkotasuna*, haren existentzia atergabeko arriskueta jartzen du; segurtasun-gabezia elementu bat mantentzen du hartan, eta nahaste hura, beti aldatzen ari dena, sorrarazten du, miseria eta aberastasuna, beharra eta oparotasunaren artekoa, hitz batean aldaketa» (8 or.).

56

Sail osoa erka bedi: «Gizarte zibila» (8-9 or.) Hegelen zuzenbide-filosofiaren oinarriko lerroen arabera idatzirik dago. Gizarte zibila estatu politikorekiko bere kontrajartzean beharrezko gisa aitortzen da, beharrezko aitortzen baita estatu politikoa.

Emantzipazio *politikoa* aurrera-pauso handia da noski. Ez da giza emantzipazioaren azken forma oro har, baina giza emantzipazioaren azken forma da egungo mundu-ordenaren *barruan*. Ulertzen da: emantzipazio erreal, praktikoa ari gara hemen.

Gizakia *politikoki* emantzipatzen da erlijiorik, zuzenbide publikotik zuzenbide pribatura baztertuz. Jadanik ez da estatuaren espiritua, zeinean gizakia —nahiz eta era mugatuan, forma partikular baten azpian eta esfera partikular batean— espezie gisa portatzen baita, beste gizaki batzuekiko erkidegoan. *Gizarte zibilaren* espiritu bihurtu da, egoismoaren esfera, *bellum omnium contra omnes*-arena [denen denen aurkako gerra]. Jadanik ez da erkidegoaren esentzia, baizik eta bereizkuntzaren esentzia. Gizakiak bere erkidegoarekiko, bere burua eta beste gizakiekiko duen bereizkuntzaren adierazpen bihurtu da, horixe *baitzen jatorriz*. Zentzugabekeria partikularraren aitorten abstraktua besterik ez da oraindik, *apeta pribatuarena*, hautazkotasunarena. Ipar Amerikan erlijioak izan duen atalkatze mugagabeari, adibidez, kanpotik jada eginkizun guztiz banakoaren forma ematen dio. interes pribatuen multzora baztertua izan da eta izaki komun gisa erkidegotik erbesteratua. Baina ez da atzipetu behar emantzipazio politikoaren mugei buruz. Gizakia gizaki *publiko* eta gizaki *privatu* etetea, estatuaren erlijioa gizarte zibilera transferitzea, ez da maila bat, baizik eta emantzipazio politikoaren *burutzea*, zeinak hain gutxi gairitzen baitu gizakiaren erlijiotasun *erreal*a, nola gutxi ahalegintzen baita hura gairitzen.

Gizakia judu eta hiritar, protestante eta hiritar, gizaki erlijioso eta hiritar, *deskonposatze* hori ez da hiritartasunaren aurkako gezurra, ez da emantzipazio politikoa saihesteko era bat, *emantzipazio politikoa bera da*, erlijiorik emantzipatzeko era *politikoa* da. Noski: estatu politikoa estatu politiko gisa gizarte zibilak bortxaz sortzen duen garaietan, zeinean autoaskapen gizatiarrak autoaskapen politiko gisa burutzerat jotzen baitu, estatuak ahal du eta behar du erlijioa *gairitu*, erlijioa *deuseztu* arte jardun, baina jabetza pribatua gairitzen diharduen bezala, gehienez, konfiskazioarekin, zergapetze mailakatuarekin, *gillotinarekin* bizitza gairitzen diharduen bezala. Bere buruarekiko sentimenduaren mementoetan, bizitza politikoa bere auresuposizioa, gizarte zibila eta bere elementuak, itoarazten saiatzen da, eta gizakiaren espezie-bizitza erreal, kontraesangabe bihurtzen. Hori soilik egin daiteke bere bizi-baldintza propioen aurkako kontraesan *bor txazkoarekin*, iraultza *iraunkortzat* aldarrikatuz, eta drama politikoa amaitu egiten da horregatik bitartean derrigor erlijioa, jabetza pribatua, gizarte zibileko elementu guztiak lehengoratzuz gerra bakearekin amaitzen den bezala.

57

Gainera, estatu *kristau* deitua, ez da kristautasuna bere oinarri propiotzat aitortzen duen estatu *kristau* deitua, estatu-erlijioan eta gainerako guztiak baztertzen dituen. Areago da estatu *ateoa*, estatu *demokratikoa*, erlijioa gizarte zibileko beste elementuen artera baztertzen duen estatu. Oraindik teologoa den estatu, oraindik era ofizialean fede kristauaren aitortpena egiten duena, oraindik bere burua estatu aldarrikatzera ausartzen ez dena, oraindik ez da iritsi era *sekularrean*, *gizatiarrean* bere *errealitatean* estatu gisa hartzera, *giza* oinarria, zeinaren adierazpen bapikatua baita kristautasuna.

Estatu kristau delakoa *ez-estatu*a baizik ez da, zeren ez kristautasuna erlijio gisa, baizik erlijio kristauaren *giza oinarria* bakarrik burutu baitaiteke sorkuntza errealki gizatiarretan. Estatu kristau deitua estatuaren ukapen kristaua da, eta inola ere ez kristautasunaren egikaritze estatuzkoa. Kristautasuna erlijio-eran oraindik aitortzen duen estatu, ez du aitortzen oraindik estatu-eran, zeren oraindik erlijiosoki portatzen baita erlijioarekiko, hau da, estatu hori ez da erlijioaren giza oinarriaren

adierazpen erreala, zeren horretan oraindik *ez-errealitatearekin*, giza muin horren irudi *imajinarioarekin* jartzen baita harremanetan. Estatu kristau deitua estatu *ez-perfektua* da, eta erlijio kristauak bere ez-perfektutasunaren *osatze* eta *santutze* gisa balio dio. Horregatik erlijioa *bitarteko* bihurtzen da derrigor, eta honela estatu *hipokrita* bat da. Alde handia dago, estatu *perfektuak*, estatuaren esentzia orokorrean datzan gabeziarengatik, erlijioa bere *aurreuposizioen* artean kontatzearen, edota estatu *ez-perfektuak*, bere *existentzia partikularrean* datzan gabeziarengatik, estatu ez-perfektu den heinean, erlijioa bere *oinarri* propio aitortzearen artean. Azken kasu horretan erlijioa *politika ez-perfektu* bihurtzen da. Lehen kasuan erlijioan *politika* perfektuaren ez-perfektzioa bera agertzen da. Estatu kristau delakoak erlijio kristauaren beharra du *estatu bezala* bere burua osatzeko. Estatu demokratikoak, estatu erreala ez du erlijioaren beharrik bere burua osatzeko. Erlijiorik abstraitzeko eran dago, zeren hartan erlijioaren giza oinarria era sekularrean egikariturik baitago. Estatu kristau delakoa, alderantziz, politikoki portatzen da erlijioarekiko eta erlijiosoki politikarekiko. Estatu-formak itxurara eraisten baditu, horrela era berean itxurara eraisten du erlijioa ere.

58

Kontraesan hori argitzeko, azter dezagun Bauerren estatu kristauaren eraikuntza; eraikuntza hori estatu kristau-germanikoaren azterketatik sortua da.

«Berriki, dio Bauerrek, estatu kristau baten *ezintasuna* edo *existentzia eza* frogatzeko sarri askotan Ebanjelioko esapide haietara jo izan da [Bauerrengan: Ebanjelioetara], zeinak [gaurko] estatuak *ez baititu ez jarraitzen bakarrik*, baizik *jarraitu ere ezin baititzake, ez badu nahi [estatu gisa] erabat bere burua disolbatu*». «Baina gauza ez da hain erraz konpontzen. Zer eskatzen dute, ordea, Ebanjelioko esapide horiek? Norbere buruarekiko ukapen naturaz gaindikoa, agerkundearen autoritatepean norbere burua ezartzea, estatutik saihestea, harreman sekularrak gainditzea. Alabaina, hori dena eskatzen eta burutzen du estatu kristauak. *Ebanjelioaren espirituaz* jabetu da, eta nahiz eta ez errepikatu letraz letra, zeinez adierazten baitu Ebanjelioak, hori gertatzen da espiritu hori estatu-formatan adierazten duelako bakarrik, hau da, formatan adierazten duelako, zeinak mundu honetako estatu-esentziazatik mailegatu baitira, baina pairatu behar duten birjaiotze erlijiosoan itxurara eraitsiak. Estatutik saihestea da, zeina egikaritzeko estatu-formez baliatzen baita» (55 or.).

Bauerrek jarraitzen du azaltzen nola estatu kristauko populua ez-populu baizik ez den, nahimen propiorik nola ez duen, bere benetako izatea men egiten dion buruan ezartzen duen, zeina oraindik jatorriz eta bere izaeraren arabera arrotza zaion. Hau da, Jainkoak emana eta bere egite propiorik gabe etorri zaion, nola populua horren legeak ez diren haren obra, baizik agerpen positibo, nola haren buru gorenak beharra duen populua egiazko eta propioaren baitan, masaren baitan, bitartekari pribilegiatuena, nola masa bera desegiten den zirkulu partikularren multzo batean, zeinak zoriak eratzen eta determinatzen baititu, zeinak desberdintzen baitira beren interesez, beren grinaz eta beren aurreiritzi partikularrez, eta pribilegio gisa hartzen baitute batak besteetatik bakartzeko baimena, eta abar (56 or.).

59

Baina Bauerrek berak dio: «Politika, erlijioa beste ezer izan behar ez badu, ezin daiteke politika izan, lapikoak garbitzea bezalaxe, erritu erlijiosoaren balioa izan behar badu, ezin daiteke arazo ekonomiko gisa kontsidera» (108 or.). Estatu kristau-germanikoan, hala ere, erlijioa «arazo ekonomiko» da, «arazo ekonomiko» erlijio den bezala. Estatu kristau-germanikoan erlijioaren domeinua domeinuaren erlijioa da.

«Ebanjelioaren espiritua» «Ebanjelioaren letratik» bereiztea egintza *irreljioso* bat da Ebanjelioari politikaren letrarekin hitz eragiten dion esatua, hau da, Espiritu Santuarenaz bestelako letrarekin, sakrilegio bat egiten du, gizakien begien aurrean ez bada, gutxienez bere begi erlijioso propioen aurrean. Kristautasuna bere arau gorentzat *Biblia* bere *kartatzat* aitortzen duen estatuari, Eskritura santuko *hitzak* kontrajarri behar zaizkio, zeren Eskritura santua baita hitzeraino. Estatu hau, *giza zaborra* bezala, zeinen gainean oinarritzen baita, kontraesan mingarri batean erortzen da, kontzientzia erlijiosoaren ikuspuntutik, baldin eta Ebanjelioaren esapide haietara igortzen bada, zeinetara «ez baita egokitzen, *aitzitik ezin du egokitu ere estatu gisa bere burua erabat desegin nahi ez badu*». Eta zergatik ez du erabat bere burua desegin nahi? Berak ezin dio galdera horri bere buruaren aurrean ez besteen aurrean erantzun. Bere *kontzientzia propioaren* aurrean, estatu kristau ofiziala *betebehar* bat da, zeinaren egikaritzea lortuezina baita, bere existentziaren *errealitatea* bere buruari gezurra esanez bakarrik daki konstatatzen; eta bere begien aurrean beti zalantzaren objektu gisa geratzen da, objektu fidagaitz, arazotsu. Kritika, beraz, eskubide betean dago estatu bortxatzen duenean, zeina bermatzen baita Bibliaren gainean, kontzientziaren erokeriara, halako moldez, non berak ere ez dakien gehiago lilura bat ala errealtate bat den, zeinean bere xede sekularren infamia erlijioak belo batez estalia duen, gatazka konponezin batean sartzen baita bere kontzientzia *erlijiosoaren* jatortasunarekin, zeinarentzat erlijioa munduaren xede gisa agertzen baita. Estatu horrek ezin dio ihes egin bere barne-tormentuari Eliza katolikoaren *lekaio* bihurtu ezik. Horren aurrean, zeina botere sekularra haren gorputz zerbitzari aitortzen baitu, estatua ezindua da, ezindua botere sekularra espiritu erlijiosoaren jaun dela aitortzen duena.

60

Estatu kristau delakoan *alienazioak* balio du, baina ez gizakiak. Balio duen gizaki bakarra, erregea, beste gizakiengandik espezifikoki desberdina da, baita oraindik erlijioso ere, zuzenean zeruarekin, Jainkoarekin lotua. Hemen nagusi diren harremanak, oraindik *fede*-harremanak dira. Espiritu erlijioso ez dago oraindik errealki sekulartua.

Baina espiritu erlijioso ezin da *errealiki* sekulartu: bada, zer da hori giza espirituaren garapen manaren forma *ez-sekularra* besterik? Espiritu erlijioso soilik sekulartu daiteke, giza espirituaren garapen maila, zeinaren adierazpen erlijioso baita, bere forma *sekularrean* aurkezten eta eratzen den heinean. Hori gizarte *demokratikoan* gertatzen da. Ez kristautasuna, baizik kristautasunaren giza oinarria da estatu horren oinarria. Erlijioak bere kideen kontzientzia ideal, zeren ez-sekular dirau, zeren horretan egikaritzen den *giza garapen mailaren* forma ideala baita.

Estatu politikoko kideak erlijiosoak dira banakoeta espeziebizzaren arteko dualismoaren bidez, gizarte zibilaren eta bizitza politikoaren bizitzaren artean. Erlijiosoak gizakia bere banakotasun egiazkotik haratago ezarritako estatu-bizitzarekiko bere bizitza egiazkoarekiko bezala portatzen den heinean, erlijiosoak hemen gizarte zibilaren espiritua, gizakia gizakiarengandik bereizte eta urruntzearen adierazpen erlijioa den neurrian. Demokrazia politikoa kristaua da horretan gizakiak, ez bakarrik gizaki batek baizik gizaki orok izaki *subirano*, izaki goren bezala balio duelako. Baina gizakia bere agerpen landugabe, asozialean, gizakia bere existentzia akzidentalean, gizakia bizitzen eta ibiltzen den heinean, gure gizartearen antolakuntzak osoaren bidez hondatua, bere buruarentzat galdua,

alienatua, harreman eta elementu ez-gizatiarren mendean, hitz batean, gizakia, oraindik espezie-izaki erreal ez dena. Fantasiaren sorkaria, ametsa, kristautasunaren postulatu, gizakiaren subiranotasuna, baina izaki arrotz, gizaki errealaz bestelako den heinean, demokrazian errealitate sentigarri da, presente, maxima sekular.

Kontzientzia erlijioso eta teologikoak, demokrazia perfektuan, hainbat balio erlijioso, teologiko gehiago du, zenbat eta itxuraz gabetuago den garrantzi politikoaz, helburu lurtarrez, munduari izua dion afera, arrazoiaren mugatutasunaren adierazpen, hautazkotasunaren eta fantasiaren emaitza, zenbat eta gehiago den haraindiko bizitza. Kristautasunak hemen bere esanahi erlijioso-unibertsalaren adierazpen *praktikoa* lortzen du, zeren mundu-ikuskerak desberdinenak elkarren ondoan taldekatzen baitira kristautasunaren forman, eta oraindik gehiago besteei ezartzen dielako ez kristautasunaren exigentzia, baizik erlijioarena soilik oro har, edozein erlijioarena (cfr. Beaumont idazki aipatua). Kontzientzia erlijiosoak kontrajartze erlijiosoaren eta askotarikotasun erlijiosoaren aberastasunean agertzen da.

61

Hau era frogatu dugu: erlijiotiko emantzipazio politikoak utzi egiten dio irauten erlijioari, nahiz eta ez izan erlijio pribilegiatu. Kontraesana, zeinean erlijio partikular baten jarraitzailea bere hiritartasunarekin aurkitzen baita, *estatu politikoaren eta gizarte zibilaren arteko kontraesan sekular* orokorraren *atal* bat besterik ez da. Estatu kristauaren perfekzioa bere burua estatu gisa aitortzen duen eta bere kideen erlijiorik abstraitzen duen estatua da. Estatuaren erlijiotiko emantzipazioa ez da gizaki errealaren erlijiotiko emantzipazioa.

Guk ez diegu esaten Bauerrekin juduei: zuek ezin zarete politikoki emantzipatuak izan, judutasunetik errotik emantzipatu gabe. Guk areago esaten diegu: politikoki emantzipatuak izan zaitezketenez gero, erabat eta kontraesangabe judutasunetik askatu gabe, horregatik *emantzipazio politiko* bera ez da *giza emantzipazioa*. Baldin eta zuek, juduok, politikoki emantzipatu nahi baduzue, gizaki gisa zeuok emantzipatu gabe, erdizkakotasuna eta kontraesana ez dago zuengan bakarrik, emantzipazio politikoaren *esentzian* eta *kategorian* baizik. Zuek kategoria horretan harrapaturik bazaudete, orokorki harrapaturik zaudetelako da. Estatuak *ebanjelizatzen* duen bezala, nahiz eta estatu izan, kristaukiro juduekin portatzen denean, horrelaxe *politizatzen* du juduak, nahiz eta judua izan, hiritar-eskubideak eskatzen dituenen.

Baina baldin eta gizakiak, judua den heinean, politikoki emantzipatu, hiritar-eskubideak har baditzaie, errebindikatu eta har al ditzake *giza eskubide* direlakoak? Bauerrek ukatu egiten du.

«Auzia da judua, halakoa den heinean, hau da, juduak espontaneola aitortzen duenak beharturik dagoela bere egiazko esentziaz besteengandik betiereko isolamenduan bizitzera, ea gai den gizakiaren *eskubide unibertsalak* hartzeko eta besteei esleitzeko».

62

«Giza eskubideen ideia mundu kristauak aurkitu zuen lehen aldiz aurreko mendean. Ez da jaiotzatikoa gizakiarengan, areago tradizio historikoekiko borrokan konkistatua izan da soilik, zeinetan gizakia orain arte hezia izan baita. Horrela giza eskubideak ez dira naturaren dohain, ez orain arteko historiaren dote, baizik jaiotzaren zorizkotasunaren eta historiak belaunetik belaun orain arte heredaturiko pribilegioen aurkako borrokaren saria. Kulturaren emaitza dira, eta merezi izan eta irabazi dituenak bakarrik izan daiteke haien jabe».

«Judua errealki izan al daiteke horien jabe? Judua den bitartean, beharrezkoa da, giza izaeraren gainetik, zeinek lotu beharko bailuke gizaki den heinean gizakiekin, judu egiten duen esentzia mugatua garaile irtetea eta ez-juduengandik bakartzea. Bakartze horren bidez, frogatzen du judu egiten duen esentzia partikularrak bere egiazko esentzia gorena duela, zeinaren aurrean gizakiaren esentziak amore eman behar baitu.»

«Era berean kristauak, kristau den heinean, ezin ditu giza eskubideak esleitu» (19, 20 or.).

Gizakiak, Bauerren arabera, sakrifikatu egin behar du «*fedearen pribilegioa*» giza eskubide unibertsalak hartu ahal izateko. Une batez kontsidera ditzagun giza eskubide direlakoak, eta noski, giza eskubideak beren figura kautoan, haien *aurkitzaileengan*, iparramerikarengan eta frantsesengan duten figuran! Parte batean giza eskubideak *eskubide politikoak* dira, besteekiko erkidegoan soilik egikaritzen diren eskubideak. *Erkidegoan*, hau da erkidego *politikoan*, *estatuaren izaeran esku-hartzea* da horien edukia. Askatasun politikoaren kategorian erortzen dira, *hiritar-eskubideen* kategorian, zeinek inola ere ez baitute auresuposatzen, guk ikusten dugunez, erlijioaren gainditze kontraesangabe eta positiboa, ezta judutasunarena ere. Giza eskubideen beste partea geratzen da kontsideratzeko, *droits de l'homme* [giza eskubideak] *droits du citoyen* [hiritar-eskubideak] bereizten diren heinean.

Horien zerrendan aurkitzen da kontzientzia-askatasuna, nahi den kultura praktikatzeko eskubidea. *Fedearen pribilegioa* espresuki aitortzen da, edo *giza eskubide* bat bezala edo giza eskubide baten, askatasunaren ondorio gisa.

*Déclaration des droits de l'homme et du citoyen* 1791, art. 10. «Nul ne doit être inquiet pour ses opinions même religieuses.» [«Inork ez du kezkarazia izan behar bere iritziengatik, ezta erlijiosoengatik ere.»] 1791ko Konstituzioaren 1. tituluan giza eskubide gisa bermatzen da: «La liberté à tout homme d'exercer le culte religieux au quel il est attaché.» [Askatasuna ororentzat *kultu erlijiosoa* praktikatzeko, zeinari atxikitzen baitzaio.»]

63

*Déclaration des droits de l'homme*, eta abar. 1793, aipatzen du giza eskubideen artean, 7. Artikulua: «Le libre exercice des cultes.» [«Kultuen praktika askea»] Baita nork bere pentsamenduak eta iritzia jendaurrean agertzeko, elkartzeko, nork bere kultura praktikatzeko eskubidearekiko, hau ere esaten da: La necessite d'enoncer ees *droits* suppose ou la presence ou le souvenir recent du despotisme.» [Eskubide horiek iragartzeko beharrak despotismoaren arestiko presentzia edo oroitzapena suposatzen du.»] Erka bedi 1795eko Konstituzioa, XIV titulua, 354 artikulua.

*Constitution de Pennsylvanie*, article 9, § 3: «Tous les hommes ont reçu de la nature le droit imprescriptible d'adorer le Tout-Puissant selon les inspirations de leur conscience, et nul ne peut légalement être contraint de suivre, instituer ou soutenir contre son gré aucun culte au ministère religieux. Nulle autorité humaine ne peut, dans aucun cas, intervenir dans les questions de conscience et contrôler les pouvoirs de l'homme.» [Pennsylvaniako Konstituzioa, 9. Artikulua, § 3: «Gizaki guztiek hartu dute naturatik Ahalguztiduna adoratzeko eskubide preskribaezina beren kontzientziako inspirazioen arabera, eta inor ezin da legez behartua izan gogoz kontra ezein kultu edo erlijio jarraitu, eratu edo sostengatzera. Ezein giza autoritatek ezin du, ezein kasutan, kontzientziako auzietan eskua sartu eta arimako ahalmenak kontrolatu.».]



*Constitution de New-Hampshire*, article 5 eta 6: «Au nombre des droits naturels, quelques-uns sont inalienables de leur nature, parce que rien n'en peut être l'équivalent. De ce nombre sont les *droits* de conscience.»[Eskubide naturalen artean, batzuk besterenezinak dira beren izaeraz, zeren ez baitago horiek beste baliokide batez ordeztarik. Horien artekoak dira kontzientzia-*eskubideak*» (Beaumont, l.c. 213, 214 or.)]

Erljioa eta giza eskubideen bateraezintasuna hain gutxi dago nahasia giza eskubideen kontzeptuan, non *erlijiosoa izateko* eskubidea, edozein modutara erlijioso izatekoa, nork bere erlijio propioaren kultura praktikatzekoa, horrela espresuki aipaturik dator gizakiaren eskubideen artean. *Fedearen pribilegioa gizakiaren eskubide unibertsal bat* da.

*Droits de l'homme*, giza eskubideak halako diren heinean bereizi egiten dira *droits du citoyenetik*, hiritar-eskubideetatik. Nor da *citoyenetik* [hiritar] desberdina den *homme*-a [gizakia]? *Gizarte zibileko kidea* besterik ez. Zergatik deitzen zaio gizarte zibileko kideari «gizaki», gizaki besterik gabe, zergatik deitzen zaie haren eskubideei *giza eskubide*? Nondik azaltzen dugu gertakari hori? Estatu politikoak gizarte zibilarekiko duen harremanetik, emantzipazio politikoaren esentziatik.

64

Ezer baino lehen konstatatzen dugu *giza eskubide, droits de l'homme* direlakoak *droits du citoyenetauk* bestelako gisa, *gizarte zibi leko kidearen* eskubideak, hau da, gizaki egoistaren, gizakiarengatik eta erkidegotik banatutako gizakiaren eskubideak besterik ez direlakoak. Konstituzio erradikalenak, 1793ko Konstituzioak esan dezake:

*Déclaration des droits de l'homme et du citoyen.*

*Article 2.* «Ces droits etc. (les droits naturels et imprescriptibles) sont: *l'égalité, la liberté, la sûreté, la propriété.*»[Giza eta hiritar-eskubideen deklarazioa.

2. *Artikulua.* «Eskubideak etab. (eskubide natural eta preskribaezinak) dira: «*Berdintasuna, askatasuna, segurtasuna, jabetza.*»]

Zertan datza *liberté*-a?

*Article 6.* La liberté est le pouvoir qui appartient à l'homme de faire tout ce qui ne nuit pas aux droits d'autrui», edo 1791eko Giza Eskubideen Deklarazioaren arabera: La liberté consiste à pouvoir faire tout ce qui ne nuit pas à autrui.»

[6. *Artikulua.* «Askatasuna da gizakiaren eskubidea, dena egin ahal izateko, beste baten eskubideei kalte egiten ez diena», edo 179 leko giza eskubideen Deklarazioaren arabera «Askatasuna datza, beste inori kalterik egiten ez dion dena egin ahal izatean»]

Askatasuna, beraz, besteei kalte egiten ez dien guztia egin eta eragiteko eskubidea da. Mugak, zeinetan bakoitza besteei *kalte egin gabe* higi daitekeen, legearen bidez determinatzen dira, bi alorren mugak hesola baten bidez finkatzen diren bezala. Hau da gizakiaren askatasuna monada bakartu eta bere baitan bildu gisa. Zergatik da judua, Bauerren arabera, giza eskubideak hartzeko ezgai? «Judua den bitartean, beharrezkoa da, giza izaeraren gaineratik, zeinek lotu beharko bailuke gizaki den heinean gizakiekin, judu egiten duen esentzia mugatua garaile irtetea eta ez-juduengandik bakartzea». Baina askatasunaren giza eskubidea ez da oinarritzen gizakia gizakiarekin lotzean, baizik areago gizakia gizakiarengandik bakartzean. Bakartze horren *eskubidea* da, *mugatuaren* eskubidea da, norbanako mugatuarena.

65

Askatasunaren giza eskubidearen erabilpen praktikoa *jabetza pribatuaren* giza

eskubidea da.

Zertan datza jabetza pribatuaren giza eskubidea?

*Article 16.* (Constitution de 1793): «Le droit de *propriété* est celui qui appartient à tout citoyen de jouir et de disposer à son gré de ses biens, de ses revenus, du fruit de son travail et de son industrie.» [16. *Artikulua.* (1793ko Konstituzioa): «*Jabetza*-eskubidea da hiritar orok nahierara bere ondasunez, bere errentez, bere lanaren eta antzearen fruituez gozatu eta haiek erabiltzeko duen eskubidea.»]

Jabetza pribaturako giza eskubidea, beraz, eskubidea da *nahierara* (à son gré), beste gizakiekiko harremanik gabe, gizartetik aparte, bere ondareaz gozatzeko eta hartaz baliatzeko, norbere interesaren eskubidea. Askatasun indibidual horrek eta horren erabilera interesdunak eratzten du gizarte zibilaren oinarria. Horrek uzten du gizaki orok beste gizakiengan ez *egikaritzea* aurkitzen, baizik bere *askatasunaren* muga. Aitzitik, ezer baino lehen giza eskubidea aldarrikatzen du, «de jouir et de disposer à son gré de ses biens, de ses revenus, du fruit de son travail eta de son industrie» [*nahierara* bere ondasunez, bere errentez, bere lanaren eta antzearen fruituez gozatu eta haiek erabiltzeko duen eskubidea].

Beste giza eskubideak geratzen dira oraindik, *égalité* eta *sûreté*-a.

*Égalité*-a, hemen esanahi ez-politiko batean goian deskribaturiko *liberteaien* berdintasuna besterik ez da, hau da: gizaki oro berdinkiro kontsideratua dela bere baitan oinarrituriko monada bat bezala. 1795eko Konstituzioak berdintasun horren kontzeptua honela finkatzen du, haren esanahiaren arabera:

*Article 3.* (Constitution de 1795): «L'égalité consiste en ce que la loi est la même pour tous, soit qu'elle protège, soit punisse.» [3. *Artikulua.* (1795eko Konstituzioa): «Berdintasuna datza legea denentzat bera izatean, erabat berdina delarik babestea edo zigortzea.»]

Eta *sûreté*-a?

*Article 8.* (Constitution de 1793): «La sûreté consiste dans la protection accordée par la société à chacun de ses membres pour la conservation de sa personne, de ses droits et de ses propriétés.» [8. *Artikulua.* (1793ko Konstituzioa): «Segurtasuna datza gizarteak bere kideetako bakoitzari ematen dion babesean haren pertsona, haren eskubideak eta haren jabetzak iraunarazteko.»]

66

*Segurtasuna* gizarte zibilaren kontzeptu sozial gorena da, *poli ziaren* kontzeptua, gizarte osoa bakarrik existitzen dela bere kideetako bakoitzari haren pertsonaren, haren eskubideen eta haren jabetzaren iraunarazpena bermatzeko. Hegelek ildo horretatik gizarte zibilari »beharraren eta adimenaren estatua» deitzen dio.

Segurtasunaren kontzeptuaren bidez gizarte zibila ez da bere egoismoaren gainetik goratzen. Segurtasuna areago da haren egoismoa *bermatzea*.

Giza eskubide direlakoetako batek ere ez du gainditzen gizaki egoista, gizakia, gizarte zibilaren kide den heinean, hau da, bere baitako interes pribatuan eta hautazkotasunean bildua, eta erkidegotik bakartua. Gizakia urrun dago horretan espezie-izaki kontzebitua izatetik, areago agertzen da espezie-bizitza bera, gizartea, norbanakoaren kanpoko marko baten gisara, haren jatorrizko independentziaren muga bat bezala. Horiek batzen dituen lokarri bakarra behar naturala da, premia eta interes pribatua, horien jabetzaren eta horien pertsona egoistaren iraunarazpena.

Aski enigmatikoa da nazio bat, zeina puntuan bere burua askatzen hasten baita, eta populuko kide desberdinen arteko hesi guztiak eraisten, erkidego politiko bat sortzen, halako populu batek gizakideengandik eta erkidegotik bakarturiko gizaki egoistaren justifikazioa solemneki aldarrikatzea (*Déclaration de 1791*), are aldarrikapen hori aldiune batean errepikatzea, zeinean dedikazio heroikoenak bakarrik salba baitezake Nazioa eta horregatik erreguka eskatzen baitu aldiune batean, zeinean gizarte zibilaren interes guztien sakrifizioa eguneko ordenan jarri behar baita, eta egoismoa delitu bat bezala zigortu behar baita (*Déclaration des droits de l'homme etc. de 1793*). Oraindik enigmatikoago bihurtzen da gertakari hori ikusten dugunean, hiritartasuna, *erkidego politikoa* emantzipatzaile politikoez eraitzia bitarteko soil izatera giza eskubide direlako horien iraunarazpenerako, beraz *citoyena homme* egoistaren morroi kontsideratzen dela, esfera, zeinean gizakia izaki komun gisa portatzen baita, izaki zatiko gisa portatzen den esferaren azpira endekatzen dela, azken finean, ez gizakia *citoyen* gisa, baizik gizakia *bourgeois* gisa hartzen dela gizaki *benetako* eta *egiazkotzat*.

67

«Le but de toute association politique est la conservation des droits naturels et imprescriptibles de l'homme.» (*Déclaration des droits etc. de 1791 article 2.*) Le gouvernement est institué pour garantir à l'homme la jouissance de ses droits naturels et imprescriptibles.» (*Déclaration etc. de 1793 article 1.*) [Elkarte politikoren ororen xedea da giza eskubide natural eta preskribaezinen iraunarazpena (Eskubideen deklarazioa etab. 1791koa, 2. Artikulua) «Gobernua eraturik dago gizakiari bere eskubide natural eta preskribaezinen gozamina bermatzeko.» Deklarazioa etab. 1793koa, 1. artikulua)]. Oraindik gaztaro gordinetako eta inguruabarren bulkadaz muturreraino eramandako suhar-aldiuneetan ere, bizitza politikoa *bitarteko* soil gisa azaltzen da, zeinaren helburua gizarte zibilaren bizitza baita. Noski, haren praxi iraultzailea teoriarekiko kontraesan bizian dago. Adibidez, segurtasuna giza eskubideetako bat bezala aitortzen delarik, gutuneria-sekretua urratzea eguneko ordena bezala jarrita dago. Liberté indéfinie de la presse» [prentsa-askatasun mugagabea] (*Constitution 1793, article 122*) giza eskubidearen, askatasun indibidualaren kontsekuentzia gisa bermatua den bitartean, etengabe deusezten da prentsa-askatasuna, zeren «la liberté de presse ne doit pas être permise lorsqu'elle compromet la liberté publique» (Robespierre jeune, *Histoire parlementaire de la révolution française* par Bouchez et Roux, T. 28 159 or. [...prentsa-askatasunaz dago baimentzerik, askatasun orokorra konprometitzen badu» (Robespierre gaztea. *Frantses Iraultzaren Parlamentu Historia*, Bouchez et Roux, 28. libkua, 159 or.), hau da: Askatasunaren giza eskubideak utzi egiten dio eskubide izateari, bizitzapolitikoarekin gatazkan sartzen den orduko, teoriaren arabera bizitza politikoa giza eskubideen, norbanakoaren eskubideen bermea besterik ez baita, baina bertan behera utzi behar da, haren *xedearekin* giza eskubide horiek kontraesanean sartzen diren orduko. Baina praxia salbuespena baizik ez da, eta teoria araua. Baina praxi iraultzailea bera harremanaren posizio zuzen gisa kontsideratzen bada ere, enigma hori artean ebatzi gabe geratuko da: zergatik emantzipatzaile politikoen kontzientzian jartzen da harreman hori buruz behera eta agertzen da xedea bitarteko gisa, eta bitartekoa xede gisa? Haien kontzientziaren lilura optiko hori beti enigma bera izango litzateke, nahiz eta enigma psikologiko, teoriko bat izan.

Enigma ebazten simplea da.

68

Emantzipazio politikoa gizarte zaharraren *deskonposizioa* da, zeinaren gainean hartzen baitu atsedena populutik alienatutako estatuak, agintariaren botereak. Iraultza politikoa gizarte zibilaren iraultza da. Zein zen gizarte zaharraren izaera? Hitz bakar batek ezaugarritzen du: *Feudalismoak*. Gizarte zibil zaharrak izaera *politiko bitartegabe* bat zeukan, hau da, bizitza zibilaren elementuak, adibidez, jabetza edo familia edo lanaren espezie eta era, estatu-bizitzaren elementu izatera jasoak zeuden lurjabearen, kastaren eta korporazioaren forman. Horiek determinatzen zuten, forma horretan, norbanako bakartuak *estatuaren osotasunarekiko* harremana, hau da, haren harreman politikoa, hau da, gizartearen beste osagaiekiko banatzeeta esklutitze-harremana. Zeren nazio-bizitzaren antolakuntza hura ez zuen jasotzen jabetza edo lana elementu sozial izatera, baizik areago burutu egiten zuen haren *banatzea* estatuaren osotasunetik eta haiek gizarte *partikular* eratzen zituen gizartean. Horregatik ziren beti gizarte zibileko bizi-funtzioak eta bizi-baldintzak politikoak, nahiz eta politikoak izan feudalismoaren zentzuan, hau da, esklutitu egiten zuten norbanakoa estatuaren osotasunetik, eraldatu egiten zuten bere korporazioaren harreman partikularra estatuaren osotasunarekiko bere harreman orokor propioan naziobizitzarekiko, bere jarduera eta egoera zibil determinatua bere jarduera eta egoera orokorrean bezala. Antolakuntza horren kontsekuentzia gisa derrigor agertzen da estatu-batasuna, kontzientzia, nahimena eta estatu-batasunaren jarduera gisa, —estatu-botere orokorra—, baita populutik eta bere zerbitzarietatik banaturiko jaun baten inguruabar *partikular* gisa ere.

Iraultza politikoa, zeinak irauli baitzuen jaunaren boterea eta estatu-aferek populu-afera izatera jaso baitzituen, zeinak ordeztu baitzuen estatu politikoa afera *orokor* gisa, hau da, estatu erreal gisa apurtu egin zituen derrigor kasta, korporazio, gremio, pribilegio guztiak, zeinak nazioa bere erkidegotik banatu zelako adierazpen ugariak baitziren. Iraultza politikoak *gainditu* egin zuen, beraz, *gizarte zibilaren izaera politikoa*. Apurtu egin zuen gizarte zibila bere osagai sinpleetan, alde batetik *norbanakotan*, beste alde batetik elementu *material* eta *espiritualetan*, zeinek osatzen baitute norbanako horien bizi-eraketa, egoera zibila. Kategabetu egin zuen espiritu politikoa, nolabait gizarte feudalaren karrika itsuetan atalkatua, desegina, galdua zena; bildu egin zuen barreiakuntza horretatik, bizitza zibilarekiko nahaste horretatik askatu egin zuen eta erkidegoaren esfera gisa eratu zuen, nazioaren afera *orokorrarena* gizarte zibileko elementu partikular haiekiko independentzia idealean. Bizi-jarduera determinatua eta bizi-egoera determinatua garrantzi indibidual soila izatera itzuli ziren. Jadanik ez zuten eratzen norbanakoaren harreman orokorra estatuaren osotasunarekiko. Afera publikoa halakoa zen heinean norbanako bakoitzaren afera orokor bihurtu zen areago, eta funtzio politikoa funtzio orokor bihurtu zen.

69

Estatuaren idealismoa egikaritzea bakarrik izan zen aldi berean gizarte zibilaren materialismoa egikaritzea. Uztarri politikoa inarrotea izan zen aldi berean lokarriak inarrotea, zeinek estekaturik baitzeukaten gizarte zibilaren espiritu egoista. Emantzipazio politikoa izan zen aldi berean gizarte zibilaren emantzipazio politikatik, eduki orokorreko *itxuratik* beretik ere.

Gizarte feudala bere oinarrian disolbatu zen, *gizakian*. Baina gizakian, errealki haren

oinarria zen gizaki *egoistan*.

Alabaina *gizaki* hori, gizarte zibilaren kide den hori, estatu *politikoaren* onarria, auresuposizioa da. Estatuak halakotzat berrezagutu du giza eskubideetan.

Gizaki egoistaren askatasuna eta askatasun horren ezagutza areago da bizi-edukia eratzen duten elementu espiritual eta materialen mugimendu *galgagabearen* berrezagutza.

Gizakia ez zen, beraz, erlijiorik askatu, askatasun erlijiosoa hartu zuen. Ez zen jabetzatik askatua izan. Jabetzaren askatasuna hartu zuen. Ez zen jarduera profesionalaren egoismotik askatua izan, askatasun profesionalaren askatasuna hartu zuen.

*Estatu politikoaren konstituzioa* eta gizarte zibila *norbanako* independentetan deskonposatzea —zeinaren harremana *eskubidea* baita, kasta-eta gremio-gizakiaren harremana *privilegioa* zen bezala— *egintza bakar eta berean* egikaritzen da. Gizakia, gizarte zibilaren kide den heinean, *gizaki ez-politiko*a, *gizaki naturala* bezala agertzen da derrigorrean. *Droits de l'homme*-ak [gizakiaren eskubideak] *droits naturels* [eskubide natural] gisa agertzen dira, zeren *jarduera autokontzientea egintza politikoan* kontzentratzen baita. Gizaki *egoista* gizarte deskonposatuaren emaitza *besterik gabe emana, pasiboa* da, *ziurtasun bitarte gatearen* objektua, beraz objektu *naturala*. *Iraultza politikoak* deskonposatu egiten du bizitza zibila bere osagaitan, osagai horiek beroriek *iraultzatu* gabe eta kritikapean ezarri gabe. Gizarte zibilarekin, beharren, lanaren, interes pribatuen, eskubide pribatuaren munduarekin *bere izatearen oinarriarekin* bezala portatzen da, gehiago oinarritu gabeko *auresuposizio* batekin bezala, beraz, bere *oinarri naturalarekin* bezala. Azkenik, *gizakia*, *gizarte zibilaren kide den heinean benetako* *gizaki gisa hartzen da, homme gisa citoyenarekiko* desberdintasunean, zeren bera *gizakia* baita bere izate *hurbileneko*, sentigarri eta banakoan, aldiz, *gizaki politiko*a *gizaki abstraitu*, artifiziala baizik ez baita, *gizakia pertsona alegoriko, moral gisa*. *Gizaki erreala norbanako egoistaren* forman, egiazko *gizakia citoyen abstraktuaren* forman soilik dago berrezagutua.

70

Gizaki politikoaren abstrakzioa zuzen deskribatzen du Rousseauk:

«Celui qui ose entreprendre d'instituer un peuple doit se sentir en état de *changer*,<sup>2</sup> pour ainsi dire, la *nature humaine*, de *transformer* chaque individu, qui par lui-même est un tout parfait et solitaire, en partie d'un plus grand tout, dont cet individu recorve, en quelque sorte, sa vie et son être, de substituer une *exis tence partidle et inorale* a l'existence physique et independante. Il faut qu'il ote a *l'homme ses forces propres* pour lui donner qui lui soient etrangeres et dont il ne puisse faire usage sans le secours d'autrui.» (*Contrat Social*, livre II, Londres 1782, 67 or.)

[Populu bati zuzenbide-erakuntza bat emateko adorea duenak, gai sentitu behar du, nolabait esan, *giza izaera aldatzeko*, norbanako oro, bere baitan eta beretzat bakarrik osotasun perfektu bat dena, osotasun handiago baten *atalean eraldatzeko*, zeinatik norbanako horrek nolabaiteko eran bere bizia eta izatea hartzen baititu, existentzia fisiko eta independente baten lekuan *existentzia zatiko eta moral* bat ezartzera. Kendu egin behar dizkio *gizakiari* bere *indar propioak*, arrotzak zaizkionak hari emateko, zeinak beste batzuen laguntzarekin bakarrik erabil ditzakeen». (*Kontratu Soziala*, II. lib, Londres 1782, 67 or.)]

<sup>2</sup> [Tipo etzanak Marxen hanpadura identifikatzen du aipuan.]

Emantzipazio oro giza mundua, harremanak *gizakiarengana berarengana birgizatzea* da.

Emantzipazio politikoa gizakiaren erredukzioa da, alde batetik, gizarte zibilaren kidera, norbanako *egoista eta independentera*, eta besterik, *hiritarrera*, pertsona moralera.

Gizabanako errealak hiritar abstraktua bere baitan berrartzen duenean, eta norbanako gisa bere bizitza enpirikoan, bere lan banakoan, bere harreman banakoetan giza *espeziearen kide* bihurtu denean bakarrik, gizakiak bere «forces propres» [«indar propioak»] berrezagutu eta antolatu dituen indar *sozial* gisa bakarrik, eta horregatik beregandik indar soziala indar *politikoaren* figuran banatzen ez duenean, orduan bakarrik egikaritzen da giza emantzipazioa.

71

## II

Bruno Bauer: «*Gaurko juduen eta kristauen aske izateko gaitasuna*». (21 Plegu, 56-71 or.)

Bauerrek, hemen, *erlijio juduaren eta kristauaren* arteko harremana tratatzen du, baita horien kritikarekiko harremana ere. Horien kritikarekiko harremana horien «*aske izateko gaitasuna*»rekiko harremana da.

Hortik ondorioztatzen da: «Kristauak maila bat bakarrik dauka, hau da, erlijioa gainditzeko, erlijioa abandonatzeko unean», beraz, aske izateko; «juduak, aitzitik, ez du bakarrik bere esentzia judua hautsi behar, baizik eta bere erlijioaren bilakaera, egikaritzea, arrotz geratu zaion garapena ere bai» (71 or.).

Bauerrek eraldatu egiten du hemen juduen emantzipazioaren auzia auzi erlijioso soil izan arte. Eskrupulu teologikoa: zeinek dauka aukera gehiago salbatzeko, juduak ala kristauak, era argituan errepikatzen da, bietatik zein da *emantzipatzeko gaitasun handiagoa duena*? Jadanik ez du galdetzen gehiago: Judutasunak edo kristautasunak aske egiten al du? Baizik alderantziz areago: Zerk egiten du askeago, judutasunaren ukapenak ala kristautasunaren ukapenak?

«Aske izan nahi badute, orduan juduek ez dute kristautasuna aitortu behar, baizik kristautasun disolbatua, erlijio disolbatua oro har, hau da, gizatasun askearen argitzapena, kritika eta haren emaitza» (70 or.).

Kontua da juduentzat beti *fede-aitorpen bat* dela, baina ez kristautasunaren aitortpena, baizik eta kristautasun disolbatuarena.

Bauerrek jartzen die juduei erlijio kristaua hausteko eskakizuna, berak esaten duenez, esentzia judutuaren bilakaeratik irteten ez den eskakizun bat.

Bauerrek, *Juduen auziaren* amaieran, judutasuna kristautasunaren kritika erlijioso gordin gisa kontzebitu zuen, eta horri munta erlijioso «bakarrik» eman baitzion, aurreikustekoa zen, juduen emantzipazioa ere egintza filosofiko-teologiko bat izatera eraldatuko zuela.

72

Bauerrek kontzebitzen du juduaren esentzia abstraktu *ideala*, haren *erlijioa* esentzia *oso* bezala. Horregatik arrazoiz ondorioztatzen du: «Juduak ez dio ezer ematen

gizateriari, haren lege mugatua bere buruarentzat mespretxatzen duenean», bere judutasuna erabat gainditzen duenean. (65 or.).

Horren arabera juduen eta kristauen arteko harremana honako hau bihurtzen da: kristauak juduaren emantzipazioan duen interes bakarra interes gizatiar orokorra, *teorikoa* da. Judutasuna gertakari iraintzailea da kristauaren begietarako. Haren begiak erlijioso izateari uzten dionean, gertakari horrek ere utzi egiten dio iraingarri izateari. Juduaren emantzipazioa bere horretan eta berarentzat ez da inolako lana kristauarentzat.

Juduak, aitzitik, bere burua askatzeko, ez du bere lan propioa bakarrik mantendu behar, baizik aldi berean kristauaren lana, «*Sinopti koen kritika*» (Strauss) eta «*Jesusen bizitza*» (Bruno Bauer) eta abar.

«Berek egin beharrekoa da: berek determinatuko diote beren buruari destinoa; baina historiak ez dio onartzen inori iseka egiterik.» (71 or.).

Gu ahalegintzen gara auziaren formulazio teologikoa hausten. Juduaren emantzipazio-gaitasunari buruzko auzia eraldatzen zaigu auzi honetan: zein elementu sozial partikular gainditu behar da judutasuna ezabatzeko? Zeren gaurko juduaren emantzipazio-gaitasuna judutasunak gaurko munduarekin duen emantzipazio-harremana baita. Harreman hori derrigorrean sortzen da judutasunak gaurko mundu morrontzapetuan daukan posizio partikularretik.

Kontsidera dezagun judu sekular erreala, ez *sabbath-judua*, Bauerrek egiten duenez, baizik *eguneroko judua*.

Bila dezagun juduaren misterioa ez haren erlijioan, baizik bila dezagun erlijioaren misterioa judu errealaengan.

Zein da judutasunaren oinarri sekularra? Behar *praktikoa, interes propioa*.

Zein da juduaren kultu sekularra? *Tratua*. Zein da haren Jainko sekularra? *Dirua*.

73

Beraz! *Tratutiko* eta *dirutiko* emantzipazioa, beraz judutasun praktikoa errealetikoa gure garaiko autoemantzipazioa izango litzateke.

Gizartearen antolakuntza batek, zeinek ezabatuko bailituzke tratuaren auresuposizioak, beraz, tratuaren ahaltasunak ezinezko egingo zukeen judua. Haren kontzientzia erlijioso disolbatu egingo zatekeen lurrin lauso baten gisara gizartearen bizi-egurats errealean. Bestalde: baldin eta juduak bere esentzia *praktikoa* ez baliozkotzat aitortzen badu eta hura ezabatzeko lan egiten badu, orain arteko bilakaeratik irteteko lan egiten du, *giza emantzipaziora* joateko besterik gabe eta giza autoalienazioaren adierazpen *praktiko gorenaren* aurka bihurtzen da.

Honela hautematen dugu judutasunean *orainaldiko* elementu *antisozial* orokor bat, zeina bilakaera historikoaren bitartez bere oraingo erpineraino bultzatua izan baita, zeinean juduek elementu horretan suharki lagundu baitute, derrigorrean disolbatua izan behar duen erpineraino.

*Juduaren emantzipazioa bere azken esanahian gizadiaren judutasunetiko emantzipazioa da.*

Judua dagoeneko emantzipatu da era juduan. «Juduak, Vienan adibidez toleratua baizik ez denak, determinatu egiten du erresuma osoaren destinoa bere

diru-boterearekin. Juduak, estatu alemaniar txikienean eskubide gabe egon daitekeenak, Europaren zoria erabakitzen du. Korporazioak eta lanbideak juduei ixten zaizkien bitartean edo aldeko ez zaizkion bitartean, industriaren ausardiak iseka egiten du Erdi Aroko *instituzioen* setakeriaz.» [(B. Bauer, «Judenfrage», [«Juduen *auzia*»] 114 or.)]

Hori ez da gertakari bakartu bat. Judua era juduan emantzipatu da, ez bakarrik diruaren botereaz jabetu delako, baizik eta *dirua*, haren bidez eta hura gabe, mundu-botere bihurtu delako, eta juduaren espiritu praktikoa, populu kristauen espiritu praktikoa.

«Ingalaterra Berriko biztanle jaierratsua eta politikoki askea», kontatzen du adibidez Hamilton Koronelak, «Laokoon gisako bat da, zeinek ez baitu ahaleginik txikienez ere egiten iratortzen duten sugeengandik bere burua askatzeko. *Mammon* da haien idoloa, hari errezatzen diote beren ezpainez ez ezik beren gorputzeko eta beren animuko indar guztiez. Lurra haien begietarako ezer ez da burtsa baizik, eta sinetsirik daude, hemen behean ez dutela beren auzokoak baino aberatsago izatea beste zereginik. Tratua jabetu da haien pentsamendu guztiez, gauzakien trukea da haien suspengarri bakarra. Bidaiatzen dutenean bizkarrean garraiatzen dituzte beren merkantziak eta beren bulegoa, nolabait esateko, eta interesez eta irabaziez bakarrik mintzatzen dira. Une batez bakarrik beren negozioak begietatik galtzen badituzte, besteenetan sudurra sartzeko bakarrik gertatzen da hori.»

74

Bai, judutasunak mundu kristauaren gain duen nagusitasun praktikoa Ipar Amerikan lortu du adierazpen zalantza gabea, normala, eta *Ebanjelioaren aldarrikapena* bera, kristau predikua merkataritza-gai bihurtu da, eta merkataritza porrotegina ebanjelioan aritzen da ebanjelista aberastua negozioetan bezala. «*Tel que vous le voyez à la tête d'une congrégation respectable a commencé par être marchand; son commerce étant tombé, il s'est fait ministre; cet autre a débuté par le sacerdoce, mais dès qu'il y a eu quelque somme d'argent à la disposition, il a bissé la chaire pour le négoce. Aux yeux d'un grand nombre, le ministère religieux est une véritable carrière industrielle.*» (Beaumont, l.c.p. 185,186.)

[*Konkregazio errespetagarri baten buruan ikusten duzun hori, merkataritza gisa hasi da; negozioak porrot egin dionean, ministro egin da; beste honek apaizgora jo du, baina diru apurren bat eskura izan duen bezain laster, kurpitoa tratuaz trukatu du. Askoren begietarako, ministerio erlijiosoaren egiazko karrera industrialak da.*] (Beaumont, l.c., 185,186 or.)

Bauerren arabera, egoera hipokrita bat da juduari eskubide politikoak ukatzea, praktikan ahal eskergaren jabe izaki eta eragin politikoa, *en detail* murrizten zaiona, *en gros* baliarazten baitu (*Juduen auzia*, 114 or.).

Kontraesana, zeinean juduaren botere politiko praktikoa haren eskubide politikoekiko baitago, politikaren eta diru-boterearen kontraesana da, oro har. Lehena idealki bigarrenaren gainean dagoen bitartean, egitatean horren mirabe bihurtu da.

Judutasunak kristautasunaren *alboan* iraun du ez bakarrik kristautasunaren kritika erlijioso gisa, ez bakarrik kristautasunaren jaiotza erlijiosoari buruzko zalantza bizi gisa, baizik era berean espiritu praktikoa-judutarrak, judutasunak iraun duelako



gizarte kristauan eta perfekzio gorena lortu duelako. Judua, kide partikular gisa gizarte zibilean dagoena, gizarte zibileko judutasunaren agerpen partikularra besterik ez da.

75

Judutasunak ez du iraun historiaren aurka baizik historiaren bitartez.

Bere errai propioetatik sortzen du gizarte zibilak etengabe judua.

Zein zen bere baitan eta beretzat erlijio juduaren oinarria? Behar praktikoa, egoismoa.

Juduaren monoteismoa horregatik da errealitatean, behar askotako politeismoa, politeismo bat, komuna [toileta] bera ere lege jainkotiarreko objektu bihurtzen duena. *Behar praktikoa, egoismoa* da *gizarte zibilaren* printzipioa eta halako gisa soilik agertzen da, gizarte zibilak estatu politikoa erabat erdi duen bezain laster. *Behar praktikoen eta interes propioaren* jainkoa dirua da.

Dirua da Israelen Jainko jeloskorra, zeinaren aurrean ezin baitu existitu beste Jainkok. Diruak narrastu egiten ditu gizakien jainko guztiak eta merkantzia bihurtzen ditu. Dirua da gauza guztien *balio* orokor berez eratua. Horregatik gabetu du mundu osoa, nola giza mundua hala izadia, haien balio propioaz. Dirua da gizakiari arrotz egindako esentzia haren lanarena eta haren izatearena eta esentzia arrotz horrek menderatu egiten du eta berak adonatu egiten du hura.

Juduen Jainkoa sekulartu egin da, Jainko sekular bihurtu da. Trukea da juduaren Jainko erreala. Haren jainkoa truke lilurazkoa bakarrik da.

Jabetza pribatuaren eta diruaren nagusitasunaren pean naturatik lortzen den kontzepzioa naturaren mespretxu erreala, endekatze praktikoa da, erlijio judutarrean existitzen dena, baina irudimenean bakarrik.

Ildo horretatik Tomas Münzerrek aitortzen du jasangaitza dela «sorkari guztiak jabetza bihurtu direlako, arrainak uretan, txoriak airean, landareak lurtean: sorkariek ere aske bihurtu beharko luketelako.»

Erljio judutarrean abstraktu dagoena, teoriaren, arrearen, historiaren, baitako xede gisa gizakiaren mespretxua *errealiki jakindako abiapuntua* da, diru-gizonaren bertutea. Sexu-harremana bera, gizonaren eta emakumearen arteko harremana, etab., merkataritza-gai bihurtzen da! Emakumea tratu-gai da.

76

Juduaren nazionalitate *kimerikoa* merkatariazen nazionalitatea da, orokorrean diru-gizonarena.

Juduaren oinarri eta zorurik gabeko legea moralitatearen eta zuzenbidearen onarri eta zorurik gabearen karikatura erlijiosoa da oro har, erritu *formalena* soilik, zeinek inguratzen baitu interes propioaren mundua.

Hemen ere gizakiaren harreman gorena *lege-harremana* da, legeekiko harremana, zeinek balio baitiote ez bere nahimen propioaren eta esentziaren lege direlako, baizik haiek nagusi direlako eta haien hausketa zigortu egiten delako.

Jesuitismo judutarra Bauerrek Talmuden adierazten duen jesuitismo praktikoa bera, interes propioen munduak haien jaun diren legeekiko duen harremana da, zeinetatik zuhurki ihes egitea baita mundu honetako arte gorena.

Noski, mundu honen mugimendua bere legeen barruan legearen etengabeko gaintitze bat da.

*Judutasunak, erlijio* gisa, ezin izan du ikuspuntu teoriko batetik garatu gehiago, zeren behar praktikoaren kontzepzioa bere izaeraz mugatua baita eta zertzelada gutxitan agortzen da.

Behar praktikoaren erlijioa, bere esentziaz, aurki zezakeen burutzapena ez teorian *praxian* baizik, haren egia *praxia* delako hain zuzen.

Judutasunak ezin zuen mundu berri bat sortu; mundu-sorkuntza eta mundu-harreman berriak bere jardueraren esparrura erakarri bakarrik egin zezakeen, zeren behar praktikoa, zeinaren adimena interes propioa baita, pasiboki portatzen da eta ez da nahierara hedatzen, baizik hedatua *aurkitzen* da baldintza sozialen garapen mailakatuarekin.

Judutasunak gizarte zibilaren burutzapenarekin lortzen du bere puntu gorena; baina gizarte zibila mundu *kristauan* bakarrik burutzen da. Kristautasunaren nagusitasunaren pean, zeinak gizakiaz *kanpoko* bihurtzen baititu harreman nazional, natural, moral, teoriko *guztiak*, banatu ahal izan zuen estatu-bizitzatik erabat gizarte zibilak, gizakiaren espezie-lokarri guztiak urratu, egoismoa, interes propioko beharrak espezie-lokarri horien lekuan ezarri, giza mundua mundu atomista, elkarren aurrez aurre etsaikor kontrajarritako mundu batean disolbatu.

77

Kristautasuna judutasunetik sortu da. Eta judutasunean disolbatu daberrero.

Kristaua aldez aurretik judu teorizatzailea zen, judua horregatik kristau praktikoa da, eta kristau praktikoa berriro judu bihurtu da.

Kristautasunak itxuraz bakarrik gaintitu zuen judutasun erreala. *Nobleegia*, espiritualegia zen, behar praktikoen gordintasuna aire oskarian jasoz bestetara baztertzeko.

Kristautasuna judutasunaren pentsamendu sublimea da, judutasuna kristautasunaren aplikazio arrunta da, baina aplikazio hori bakarrik bihur zitekeen orokor kristautasunak erlijio perfektu gisa gizakiaren autoalienazioa bere baitatik eta naturatik *teorikoki* burututa.

Orduan bakarrik irits zitekeen judutasuna jauntasun orokorrera eta gizaki desjabetua, natura desjabetua *bestereztzera*, salgarritzera, behar egoisten morrontzapean, tratuaeren objektu erori bihurtzera.

Salmenta kanpokotzearen praktika da. Nola gizakiak, harik eta erlijiosoki harrapatua den bitartean, bere burua objektibatzen izaki fantastiko *arrotz* eginez bakarrik dakien, horrela behar praktikoaren nagusitasunaren pean praktiko obra dezake, praktikoki objektuak produzi ditzake, bere produktu propioak, jarduera propioa bezala izaki arrotz baten nagusitasun pean, eta haiei izaki arrotz baten, diruaren esanahia emanaz.

Doatsutasun-egoismo kristaua derrigorrean iraultzen da bere praxi burutuan juduaren gorputz-egoismoan, behar zerutarra lurtarrean, subjektibismoa interes propioan. Juduaren seta azaltzen dugu ez haren erlijiorik, baizik haren erlijioaren giza oinarritik areago, behar praktikotik, egoismotik.

Zeren juduaren esentzia errealia gizarte zibilean orokorki egikaritu, sekulartu delako, gizarte zibilak ezin zuen konbentzitu judua haren esentzia *erlijiosoaren irrealtasunaz*, zeina behar praktikoaren kontzepzio ideala besterik ez baita. Ez, beraz, Pentateukoan edo Talmuden, baizik gaurko gizartean aurkitzen dugu gaurko juduaren esentzia, ez izaki abstraktu gisa baizik izaki gorenki enpiriko gisa, ez bakarrik juduaren mugatutasuna bezala, baizik gizartearen mugatutasun judutar bezala.

78

Gizartea judutasunaren esentzia *enpirikoa*, —tratua eta horren auresupostuak— gairiditza iritsiko den bezain laster, judua *ezinezko* bihurtu da, zeren haren kontzientziak ez baitu inolako objekturik gehiago, zeren judutasunaren oinarri subjektiboa, —behar praktikoa— gizatiartu egiten baita, zeren existentzia indibidual-sentigarriak gizakiaren espezie-existentziarekin duen gatazka gairiditu egin baita.

Juduaren emantzipazio *soziala* *gizartearen judutasunetiko emantzipazioa* da.

## HEGELEN ZUZENBIDE-FILOSOFIAREN KRITIKA SARRERA

Karl Marx

*Marxen 1843ko egitasmo nagusietako bat Hegelen filosofia politikoa aztertu eta kritikatzeko zen, batez ere Zuzenbide-filosofian aukeztuta zegoenez. Marxen obrak oharliburu-forma hartu zuen, zeine tan iruzkin xehea idatzi baitzuen berak kopiaturiko Hegelen liburuetatiko sail espezifikoetako buruzko iruzkin xehatuak idatzi zituen. 1843ko udazkenean Parisa joan ostean, Marxek saiakera bat idatzi zuen Hegelen filosofia politikoari buruz planeatu zuen liburuaren sarrera izateko asmoa zuena. Nahiz eta liburua inoiz osatu ez (zirriborro gisako eskuizkribua lehen aldiz 1927an argitaratu zen), sarrera Deutsch-Französische Jahrbücher-en argitaratu zen 1844an.*

*Saiakera gutxiago da Hegelenganako sarrera bat garai hartako Alemaniako testuinguru politiko orokorrerako sarrera bat baino. Interes berezikoak da bi arrazoirengatik. Hasieran Marxek erlijioari buruz egindako ohar ezagunak dauzka, «herriaren opioa da» erlijioari buruzko iruzkina barne dela.*

*«Juduen auzia»z haratago bere analisia jarraituz, Marxek ikus ten du erlijioa gizarte zibilean erroturiko alienazioaren sintoma bat bezala. Erlijioa, beraz, ez da arazoa, eta kritika edota erlijioaren abolizioa bera ez da soluzioa. Berak dioenez, «Zeruaren kritika turraren kritika bihurtzen da... teologiaren kritika politikaren kritika bihurtzen da.». Horretara, argi eta garbi hegeldar gazteen analisisiaz haratago doa.*

80

*Saiakerako bigarren puntu garrantzitsua kritikaren haren analisiarekin du zerikusia. Kritika filosofiko hutsa ez da aski izango mundua aldatzeko. «Kritikaren armak,» ohartarazten du, «begi-bistan dago ezin dituela ordeztu armen kritika. Indar materiala indar materialez eraitsi behar da.». Eta nondik etorriko da indar material hori? Hemen Marx hegeldar kontzeptu hatera itzultzen da baina bere asmo propioetarako erabiltzen du. Behar dena klase unibertsal bat da status quoan ezer ez daukana jokoan eta horregatik hura eraistean ezer galtzekorik ez duena. Klase hori existitzen da Alemanian, —aitortzen du Marxek—, proletalgoan. Proletalgoak kritika filosofikoaren teoria hartuko du eta iraul izaren praktika bihurtuko du hura. Horrela Marxek proletalgoaren «aurkikuntza» iragarriko du eta teoria eta praktika batzen hark duen eginkizuna.*

\*\*\*

Alemaniantzat erlijioaren kritika funtsean amaitu da, eta erlijioaren kritika kritika guztien premisa da.

Errakuntzaren existentzia profanoa konprometiturik dago, *oratio pro aris et focis* [aldare eta etxerako otoitza] zerutarra ezeztatua izan delarik. Gizakiak, zeruko errealitate fantastikoan, gaingizaki bat bilatzen zuenak, bere buruaren *errainua* bakarrik aurkitu du, ez da gehiago prest egongo, bere buruaren *itxura* bakarrik,

ez-gizakia bakarrik aurkitzeko, bere errealitatea bilatzen duen eta bilatu behar duen tokian.

Kritika irreligiosoaren oinarria da: *Gizakiak egiten du erlijioa*, erlijioak ez du gizakia egiten. Izan ere, erlijioa gizakiaren autokontzientzia eta autosentimendua da, oraindik bere burua bereganatu ez duena edo berriro galdu duena. Baina *gizakia* ez da izaki abstraktu bat, mundutik kanpo ezarria. Gizakia *gizakiaren mundua* da, estatua, gizartea. Estatu horrek eta gizarte horrek erlijioa sortzen du, *mundu-kontzientzia alderantzikatu* bat, zeren *mundu alderantzikatu* bat baitira. Erlijioa da mundu horren teoria orokorra, horren laburbilduan entziklopedikoa, horren logika era herritarrean, horren *point-d'honneur* [ohore-puntu] espiritualista, horren entusiamoa, horren santzio morala, horren osatze solemnea, kontsolamenduetan justifikazio-oinarri orokorra. Giza esentziaren *egikaritze fantastikoa* da, zeren *giza esentzia* ez baita egiazko errealitatearen jabe. Erlijioaren aurkako borroka zeharka *mundu* haren aurkako borroka ere bada, zeinaren *aroma* erlijioa baita.

81

Sufrimendu *erlijiosoa* aldi berean sufrimendu errealaren *adierazpena* da eta aldi berean sufrimendu errealaren aurkako *protesta*. Erlijioa sorkari zanpatuaren hasperena da, bihotzik gabeko mundu baten sentimendua, espiriturik gabeko baldintza baten espiritua den bezala. Populuaren *opioa* da.

Populuaren zorion *lilurazko* gisa erlijioa gainditzea haren zorion *erreal*a exigitzea da. Lilurak baldintza baten gainean abandonatzearen exigentzia *liluren beharra duen baldintza bat abandonatzearen exigentzia* da. Erlijioaren kritika *ernamuinean negar-herriaren* kritika da, zeinaren *aureola* baita erlijioa.

Kritikak erauzi egin ditu lore imajinarioak katetik, ez gizakiak kate fantasiagabea eta kontsolamendugabea eraman dezan, baizik eta katea jaurti dezan eta lore biziak har ditzan. Erlijioaren kritikak desliluratu egiten du gizakia desliluratu batek bezala pentsa, obra, bere errealitatea taxu dezan, arrazoira heldutako gizaki batek bezala, bere buruaren inguruan eta horregatik bere eguzki errealaren inguruan higi dadin. Erlijioa eguzki lilurazkoa baizik ez da, gizakiaren inguruan higitzen dena, hura bere inguruan higitzen ez den bitartean.

Beraz, *historiaren eginkizuna*, *egiaren haraindia* desagertu denean, *honaindiaren egia* ezartzea da. Eta gero *filosofiaren eginkizuna* da, historiaren zerbitzuan dagoenarena, giza autoalienazioaren *irudi sakratua* maskaragabetu ondoren, autoalienazioa maskaragabetzea haren *irudi profanoetan*. Zeruaren kritika horrela lurraren kritika bihurtzen da, *erlijioaren kritika zuzenbidearen kritika*, *teologiaren kritika politikaren kritika*.

Ondorengo azalpena —lan horretarako ekarpen bat [Kreuznachen idatzitako «Hegelen Estatuaren Filosofia»ren Kritika argitaratugabetik garatua]— ez zaio jatorrizkoari atxikitzen, kopia bati baizik, alemaniar estatueta zuzenbide-*filosofiari*, eta ezein arrazoiengatik ez baizik eta *Alemaniar* atxikitzen zaiolako.

Alemaniar *status quo* berari lotu nahiko balitzaio, nahiz eta modu egoki bakarrean, hau da, negatiboki, emaitzak *anakronismo* izaten iraugo luke. Gure orainaldi politikoaren ukapena bera jadanik hautsez estalitako gauza bat bezala dago herri modernoek trasteleku historikoan. Ileorde hautseztatuak ukatzen ditudanean, beti

geratzen zaizkit ileorde hautseztatugabeak. 1843ko egoera sozial alemaniarra ukatzen badut, egutegi frantsesaren arabera, 1789an aurkitzen naiz, orainaldiaren erdigune berotik urrunago.

82

Noski, historia alemaniarra harrotu egiten da haren aurretik zero historikoan ezein herrik egin ez duen eta gero ere egingo ez duen mugimendu batez. Nazio modernoan lehengoratzea partekatu dugu haien iraultza partekatu gabe. Lehengoratuak izan gara, lehenik, beste nazio batzuek iraultza bat egitera ausartu zirelako, bigarren, beste nazio batzuek kontrairaultza bat pairatu zutelako, lehen aldian gure jaunek beldurra zutelako, eta bigarren aldian gure jaunek beldurrik ez zutelako. Guk, geure artzainak buru genituela, behin aurkitu ginen askatasunaren gizartean, *haren lurperatzearen egunean*.

Gaurko izen txarra atzoko izen txarrarekin legitimatzen duen eskola, jopuak knutaren azpian jaregiten duen garrasi oro garrasi errebeldea dela iragartzen duen eskola, knuta urtez zamaturiko knuta, hereditarioa, historikoa denean; historiak bere *a posteriori* [atze-aldea] bakarrik erakusten dion eskola bat, Israelgo Jainkoak bere jopu Mosesi bezala, —*zuzenbidearen eskola historikoak*—, historia alemaniarra asmatuko zukeen, bera izan ez balitz historia alemaniarren asmakizuna. Shylock, baina Shylock jopua, zin egiten du populuaren bihotzetik ebaki den libra haragi bakoitzeko, haren kreditu-titulu, haren kreditu-agiriaren gain, haren agiri historikoaren gain, haren agiri kristau-germaniarren gain.

Aitzitik, suhartsu bihotzabalek, odolez alemaniarzale eta gogoetaz liberalek, gure askatasunaren historia gure historiaz haratago bilatzen dute, lehen-oihan teutonikoetan. Baina nola bereizi ahal izango da gure askatasun-historia basurdearen askatasun-historiatik, hura lehen-oihanetan bakarrik aurkitzen bada? Gainera ezaguna da: oihanean egiten den oihua, horixe bera itzultzen du oihartzunean oihanak. Bakea, beraz, lehen-oihan teutonikoei!

*Gerra* alemaniar baldintzei! Zalantzarik gabe! *Historiaren mailaz azpitik dago, kritika ororen azpitik dago*, baina kritikaren objektu geratzen da, gizateriaren azpitik dagoen gaizkilea *borreroaren* objektu geratzen den bezala. Egoera sozial horrekiko borrokan, kritika ez da buruko grina bat, baizik grinaren burua. Ez da bisturi bat, arma bat da. Haren objektua, haren *etsaia* da, berak ezeztatu ez baizik *ezerestu nahi* duena. Zeren egoera sozial horren espiritua ezeztatua izan baita. Bere baitan eta beretzat, egoera hori ez da *pentsatzea merezi duen* objektu bat, eta zerbait mespretxatua bezain mespretxagarria den *existentzia* bat da. Kritikak berez ez du bere burua argitu beharrik objektu horrekiko, zeren argi baitago horrekiko. Ez du bere *buruaren xede* gisa jartzen, *bitarteko* gisa bakarrik. Haren *pathos* esentziala *indignazioa* da, haren lan esentziala *denuntziatzea*.

83

Esfera sozial guztiek elkarrekiko egiten duten presio sorra deskribatzea komeni da, desakordio orokor ekintzagabea, bere burua desezagutzen duen hein berean berrezagutzen duen mugatutasuna, gobernu-sistema baten markoan itxitakoa, zeina ziztrinkeria guztien kontserbaziotik biziz, bera gobernuan dagoen *ziztrinkeria* besterik ez baita.

A zer ikuskizuna! Amaigaberaino arrazarik askotarikoenetan zatituz doan gizarte bat, zeinak antipatia txikiakin, kontzientzia txarrekin eta erdipurdikeria ankerrekin elkarri kontra egiten baitiote, eta zeinek elkarrekiko beren posizio anbiguo eta

susmagarriarengatik denak bereizketarik gabe tratatuak izatea eskatzen baitute, nahiz eta formalitate desberdinekin, *existentzia kontsentitu* gisa beren *jaunen* aldetik. Eta *menderatu*, *gubernatu*, *jabetu* izatea bera ere *zeruaren kontzesio* gisa berrezagutu eta aitortu behar dute! Bestalde jaun haiek berak daude, zeinen handitasuna alderantzizko erlazioan baitago beren kopuruarekiko!

Eduki honetaz arduratzen den kritika, *nahas-mahaseko* kritika da, eta horrelako guduak kontua ez da arerioa noblea, maila berekoa edo arerio *interesgarria* den jakitea, hura *jotzea* da kontua. Kontua da ez ematea alemaniarrei beren buruaz lilura eta etsipenezko aldiune bakar bat ere. Oraindik zapaltzaileago bihurtu behar da zapalkuntza erreala horri zapalkuntzaren kontzientzia gehituz, oraindik lotsagarriagoa lotsa, horri publizitatea emanez. Gizarte alemaniarreko esfera bakoitza gizarte alemaniarreko *partie honteuse* [lotsaizuna] bezala deskribatu behar da, harreman harrizkotu horiek dantza egitera behartu behar dira, horiei beren doinu propioa abestuz! Populuari bere buruaz *ikaratzen* irakatsi behar zaio, *adorea* emateko. Horrenbestez, nazio alemaniarren behar ezinbesteko bat asebetetzen da, eta populuen beharrak berenez izaten dira pertsona propioan horien asetzearen azken zioak.

84

Eta nazio *modernoentzat* berentzat ere *status quo*aren eduki hertsatuaren aurkako gerra hori ezin daiteke interes gabea izan, zeren *status quo* alemaniarra *ancien régime*aren *burutze zabala* baita, eta *ancien régime*a *estatu modernoaren akats ezkutatua* da. Alemaniar presente politikoaren aurkako borroka nazio modernoan iraganaren aurkako borroka da, eta iragan horren erreminiszentziek beti molestutzen dituzte. Horientzat ikasgarria da *ancien régime*a ikustea. Haien baitan beren tragedia bizitzen duena, orain *komedia* errezitatzen alemaniar erreplika gisa. *Tragikoa* izan zen haien historia hura munduaren botere zahar aurrexistentea zenean askatasuna ideia pertsonal bat zen bitartean, hitz batean, harik eta hark bere justifikazio propioan sinesten zuen eta sinetsi behar zuen bitartean. Harik eta *ancien régime*a, indarreko munduordena gisa artean bilakaeran zegoen mundu baten aurka borroka egin zuen arte, haren aldetik historia unibertsaleko errakuntza bat zen, baina ez errakuntza pertsonal bat. Horregatik izan zen tragikoa haren gainbehera.

Aitzitik, gaur egungo erregimen alemaniarrek, anakronismoak, unibertsalki aitorturiko axiomekiko kontraesan flagranteak, munduaren bistan ezarritako *ancien régime*aren ezereztasunak, oraindik imajinatzen du, bere buruan sinesten duela, eta irudimen bera eskatzen dio munduari. Baina bere *esentzia* propioan sinesten badu, ezkutatuko al luke hori esentzia arrotz baten *itxurapean* eta bilatuko al luke bere salbamena hipokrisian eta sofisman? *Ancien régime* moderno munduordena baten komediantea besterik ez da, zeinaren *heroi errealak* hilik baitaude. Historia erradikala da, fase bat baino gehiago korritzen ditu figura zahar bat hilobiratzen duenean. Historia unibertsaleko figura baten azken fasea bere *komedia* da. Greziako jainkoek, zeinak behiala tragikoki herioz zaurituak izan baitziren Eskiloren *Prometeo kateatuan*, beste behin hil behar izan zuten komikoki Luzianoren *Dialogoetan*. Zergatik historiaren joira hori? Gizateria *naretasunez* bereiz dadin bere iraganetik. Determinazio historiko *nare* hori erreibindikatzeko diegu Alemaniako botere politikoei.

85

Baina errealtate politiko-sozial *moderno*a kritikaren pean ezarri bezain laster, arazo

egiazki gizatiarretara kritika altxatzen den bezain laster, hura *status quo* alemaniarretik kanpo aurkitzen da, bestela bere objektua bere objektuaren *azpitik* hartuko luke. Adibide bat! Industriak aberastasunaren munduan oro har mundu politikoarekin duen harremana aro modernoaren arazo nagusi bat da. Zer formaren azpian hasten da arazo hori alemaniarrek kezkatzen? *Babes-tarifen, debeku-sistemaren, ekonomia politikoaren* formapean. Alemaniarzalekeria gizakietatik materiara pasatu da, eta horrela ikusi zituzten goiz batean gure kotoizko zaldunek eta burdinazko heroiek beren buruak abertzale bihurturik. Beraz, dagoeneko hasita gaude Alemanian monopolioaren subiranotasuna barruan berrezagutzen *kanpoan subiranotasunez* inbestituz. Beraz orain Alemanian hasi egin da, Frantzian eta Ingalaterran amaitzeari ekin diona. Egoera zahar ustela, zeinaren aurka herrialde horiek teorikoki erreboltan baitaude, eta zeina orain jasan egiten baitute kateak jasaten diren bezala, Alemanian etorkizun eder bat jaiotzen ari den goizeko oskorriari bezala agur egiten zaio, zeina ozta-ozta ausartzen baita igarotzen teoria *maltzurretik* praktika errugabeenera. Frantzian eta Ingalaterran arazoa honela planteatzen den bitartean: *ekonomia politikoa edo gizartearen nagusitasuna aberastasunaren gain*, Alemanian honela planteatzen da: *ekonomia nazionala edo jabetza pribatuaren nagusitasuna nazionalitatearen gain*. Beraz, kontua da Frantzian eta Alemanian azken ondorioetaraino joan den monopolioa gainditzea; Alemanian kontua da monopolioaren azken ondorioetaraino jarraitzea. Han soluzioa da kontua, eta hemen gatazka besterik ez da. Hau arazo modernoaren forma *alemaniarren* adibide egoki bat, nola gure historiak, errekluta trebatu gabe batek bezala, oraindik entrenamendu estra bat egiteko zeukan historian behin eta berriz jorraturiko gai ei buruz.

Alemaniar garapen *osoa* ez balego alemaniar garapen *politikoaz* haratago, alemaniar batek gehienera ere esku hartu ahal izango luke orainaldiko arazoetan, nola horietan *errusiar* batek esku har dezakeen. Baina norbanako bakarra nazioaren mugez loturik ez badago, nazio osoa oraindik gutxiago dago askaturik norbanako baten askapenaz. Eszitek ez zuten urrats bakar bat ere aurrera egin greziar kulturarentz, nahiz Greziak eszita bat bere filosofoen artean izan.

Zorionez, gu, alemaniarrok, ez gara eszitak.

Antzinako nazioek beren aurrehistoria irudimenean, *mitologian*, bizi zuten bezala, horrela guk, alemaniarrok bizi izan dugu etorkizuneko geure historia pentsamenduan, *filosofian*. Gu presentearen garaikide *filosofikoak* gara, horren garaikide *historikoak* izan gabe. Filosofia alemaniarra historia alemaniarren *luzamendu ideal*a da. Beraz, gure historia errealeko *oeuvres incomplètes*en [obra osatugabeak] ordez gure historia idealeko *oeuvres posthumes* [obra postumoak], *filosofia* kritikatzan badugu, gure kritika egiazki aurkitzen da arazoen erdian, zeini buruz presentek esaten baitu: *that is the question* [hori da auzia]. Nazio aurreratuetan estatu-egoera modernoekiko haustura *praktikoa* dena, Alemanian, egoera horiek oraindik egon ere ez dauden tokian, batez ere haustura *kritikoa* da egoera horien isla filosofikoarekiko.

*Zuzenbidearen eta estatuaren filosofia alemaniarra* da historia *alemaniar* bakarra *al pari* dagoena presente moderno *ofizialarekin*. Nazio alemaniarrek, beraz, ametsetako bere historia hori bere oraingo egoerarekin batera eraitsi egin behar du eta ez ditu kritikaren pean jarri behar bakarrik oraingo egoerak, baizik eta batera,



baita haren jarraipen abstraktua ere. Haren etorkizuna ezin *daiteke muga* haren egoera juridiko-estatal errearen ukapen bitartegabera, ezta ideal haien burutze bitartegabera ere, zeren haren egoera errearen ukapen bitartegabeaz jabeturik baitago haren egoera idealetan, eta haren egoera idealen burutze bitartegabea aldiz ia nazio auzoen ideian ia *gainditu* egin du. Arrazoiz eskatzen du alderdi politiko *praktikoak* Alemanian *filosofiaren ukapena*. Haren okerra ez dago eskari horretan, baizik eskari horretan geratzean, zeina ezin baitu seriozki ase, ezta ase ahal izan ere. Uste du ukapen hori burutu dezakeela, filosofiari bizkarra emanaz eta bere burua aldendurik, haren aurka esapide aldarte txarreko eta hutsalen bat marmarka esanez. Haren horizontearen mugatutasuna, filosofia ez du kontatzen errealitate *alemaniarren* esparruan, edo praktika alemaniarren eta hari zerbitzatzen dioten teoriaren *azpian* suposatzeraino doa. Zuek eskatzen duzue *bizi-ernamuin errealei* lot dakiola, baina ahaztu egiten duzue populu alemaniarren bizi-ernamuin erreala nazio horren berorren *garezurpean* bakarrik zoritu dela. Hitz batean: *Ezin duzue filosofia gainditu, hura eguneratu*.

Oker bera, baina faktore *alderantzikatuekin*, egin du filosofiatik abiatzen den alderdi politiko *teorikoak*.

Gaurko borrokan, alderdi horrek ez du ikusi *filosofiak mundu alemaniarrekin daukan borroka kritikoa besterik*, eta ez du kontuan hartu *gaurko filosofia* bera ere mundu horretakoa dela eta haren *osagarria* dela, nahiz eta ideala izan. Arerioaren aurkako kritika, ez-kritiko portatu zen bere buruarekiko, zeren filosofiaren *aurresuposizioetatik* abiatu baitzen, baina edota filosofia emandako emaitzei atxiki zitzaien, edota beste leku batera joan zen eskakizunak eta emaitzak bilatzera filosofiaren eskakizun eta emaitza bitartegabe gisa emateko, nahiz eta horiek alderantziz —horien justifikazioa onarturik— *gaurko filosofiaren ukapenez* bakarrik lor baitaitezke, hau da, filosofiaren ukapenez, filosofia den heinean. Erreserbatu egiten dugu alderdi horren deskribapen sakonago bat ematea. Horren akats nagusia honetara murriz daiteke: *uste zuen filosofia egunera zitekeela hura gainditu gabe*.

87

*Estatuaren eta zuzenbide-filosofia alemaniarren* kritika, zeinak *Hegelekin* hartu baitu bere forma koherente, aberats eta azkena, gauza bata eta bestea da, nola estatu modernoaren eta hari lotutako errealitatearen analisi kritikoa, nola *kontzientzia politiko eta juridiko alemaniarren* aurreko *modu* guztiaren ukapen erabakigarria, zeinaren adierazpen gailenena, unibertsalena, *zientzia* izateraino jasoa *zuzenbide-filosofia espekulatiboa* bera baita. Baldin eta Alemanian bakarrik posible izan bada *zuzenbide-filosofia espekulatiboa*, estatu modernoaren *pentsamendu* abstraktu eta transzendente hori, zeinaren errealitateak haraindi batek bezala baitirau, haraindi horrek Rhin ibaiaz haraindi bakarrik iraun badezake ere: alderantziz era berean, estatu modernoaren *gizaki errealetik* abstraituriko kontzepzio *alemaniarra* bakarrik da posible, estatu moderno bera *gizaki errealetik* abstraitzen, edo *gizaki osoa* modu imajinario batean bakarrik askatzen duen heinean. Alemaniarrek *pentsatu* egin dute politikan, beste nazio batzuek *egin* dutena. Alemania haien *kontzientzia teorikoa izan* da. Alemaniarren *pentsamenduaren* abstrakzioa eta presuntzioa pauso berak eginez ibili dira beti haien errealitatearen aldebakartasunarekin eta azpikotasunarekin. Baldin eta *ordena politiko alemaniarren* [*Staatswesen*] *status quoak* adierazten badu *ancien régimearen* bukaera, zeina baita arantza bat estatu modernoaren *gorputzean, zientzia politiko*

*alemaniarren [Staatswissen] status quoak estatu modernoaren ez-bukaera* adierazten du, haren haragiaren hondamendia.

Orain arteko kontzientzia politiko *alemaniarren* arerio aitortu gisa, zuzenbide-filosofia espekulatiboaren kritika ez da bere baitan agortzen, baizik eta *eginkizunetan*, zeinen ebazpenerako bitarteko bakar bat baitago: *praktika [Praxia]*.

Galdera hau da: Alemania gai izango al da praktika batera iristeko *à la hauteur des principes* [printzipioen pareko], hau da, *iraultza* batera, zeinek jasoko baitu ez bakarrik populu modernoan *maila ofizialera*, baizik eta nazio horien hurrengo etorkizuna izango den *gizatasun mailara*?

88

Kritikaren armak ezin du ordeztu armen kritika, bortxa materiala bortxa materialak amilarazi behar du, teoria bera ere bortxa material bihurtzen da, hura masez jabetzen denean bakarrik. Teoria gai da masez jabetzeko *ad hominem* [gizakiari] frogatzen duen bezain laster, baina, eta *ad hominem* frogatzen du, erradikal bihurtzen den bezain laster. Erradikal izatea da gauzari errotik heltzea. Baina gizakiarentzat erroa gizakia bera da. Teoria alemaniarren erradikalismorako froga nabaria, baita haren energia praktikorako, erlijioaren gaintitze *positibo* erabakitik hura irtetea da. Erlijioaren kritika bukatzen da *gizakia gizakiarentzat izaki gorena den doktrinarekin*, beraz, *harreman guztiak iraultzearen inperatibo kategorikoarekin*, zeinetan gizakia izaki endekatu, mendekotu, abandonatu, mespretxagarria baita. Harreman horiek ez dago hobeki deskribatzerik frantses batek txakurren gainean proiektaturiko zerga baten aurrean egindako esklamazioaz baino: «Txakur gaixoak! Gizakiak bezala tratatu nahi zaituztete!»

Historikoki ere emantzipazio teorikoak esanahi praktiko espezifikoak du Alemaniantzat. Alemaniarren iragan *iraultzailea* izatez teorikoa da, *Erreforma* da. Behiala *monakoa* izan zen bezala, horrela gaur *filosofoa* da garunean iraultza hasten zaiona.

*Luterok*, egiaz, garaitu egin zuen *deboziazko* morrontza haren ordez *konbikziozko* morrontza ezarriz. Autoritatearekiko fedea hautsi egin du, fedearen autoritatea lehengoratu duelako. Apaizak laiko bihurtu ditu, laikoak apaiz bihurtuz. Gizaki kanpoko erlijiosotasunetik askatu du, zeren erlijiosotasuna barne-gizaki egin baitu. Gorputza katetik emantzipatu du, zeren bihotza kateari lotu baitio.

Baina protestantismoa ez bazen egiazko soluzioa izan, hala ere auziaren egiazko planteamendua izan zen. Orain ez zeukan laikoak apaizarekin borroka egitea *bere buruaz kanpo*, baizik *barruko bere apaiz propioarekin*, *bere apaiz-izaerarekin*. Eta laiko alemaniarrek apaiz eraldatze protestanteak emantzipatzen baditu papa laikoak, hau da, *printzeak* beren klero, pribilegiatu eta filisteoekin, alemaniar apaizezkoak gizaki eraldatze filosofikoak *populua* emantzipatuko du. Baina emantzipazioa printzeengan geratu ez zen bezala, jabetzaren *sekularizazioa* ere ez da geratuko *elizaren jabetzaren espoliazioan*, zeina obratu baitzuen inork baino lehenago Prusia hipokritak. Orduan, baserritarren gerrak, alemaniar historiako gertakari gogorrenak porrot egin zuen teologiaren aurka. Gaur teologiak berak porrot egin duelarik, alemaniar historiako askatasun gutxieneko gertakari bihurturik, —gure *status quo*— filosofiaren aurka puskatuko da. Erreformaren aurreko egunean, Alemania ofiziala Erromaren morroi baldintzagabeena zen. Iraultzaren aurreko egunean Erromaren izan ezik beste edozeren morroi baldintzagabeena zen: Prusiarena eta

Austriarena, jauntxo ezjakinena eta filisteoena.

89

Baina Alemaniaren iraultza *erradikal* baten aurka badirudi zailtasun nagusi bat kontrajartzen dela.

Iraultzek elementu *pasibo* bat behar dute, noski, oinarri *material* bat. Teoria beti egunartzen da nazio batean, haren beharren egikaritze bezala bakarrik. Pentsamendu alemaniarren erreibindikazioen eta errealtate alemaniarren erantzunen arteko desadostasun eskergari gizarte zibilak estatuarekiko eta bere buruarekiko duen desadostasun bera ote dagokio? Behar teorikoak behar praktikoko bihurtuko ote dira bitartegabe? Ez da aski pentsamenduak egikaritzera jotzea, errealtateak berak jo behar du pentsamendurantz.

Baina Alemaniak ez ditu igo emantzipazio politikoaren tarteko mailak nazio modernoekin aldi berean. Teorikoki gainditu dituen mailetara beraietara ere ez da oraindik iritsi. Nola lortuko luke *salto morale* batez ez bakarrik bere mugez gainetik jauzi egitea baizik, aldi berean, populu modernoek mugen gainetik, zeinak errealtatean hark sentitu eta jazartu behar baititu askapen bat bezala bere muga errealtateatik? Iraultza erradikal bat behar erradikalen iraultza bakarrik izan daiteke, zeinen auresuposizioak eta jaiotze-tokiak berak ere itxuraz falta baitira.

Baina Alemaniak pentsamenduaren jarduera abstraktuarekin populu modernoek garapena lagundu badu parte aktiborik hartu gabe garapen horren borroka errealtatean, bestalde, partekatu ditu garapen horren *minak* atseginak, edo zatikako asebetetzea partekatu gabe. Alde bateko jarduera abstraktuari bestaldeko min abstraktua dagokio. Horregatik Alemania goiz batean europar beherakadaren mailan aurkituko da, europar emantzipazioaren mailan sekula egon gabe. Kristautasunaren gaitzez hondatzen ari den *fetixista* batekin erka daiteke.

90

Kontsideratzen badira ezer baino lehen *gobernu alemaniarra*, ikusiko da inguruabarren bidez, Alemaniaren situazioaren bidez, alemaniar kulturaren egoeraren bidez, eta bere instintu propio zorionekoaren bidez, *estatu-mundu modernoaren akats zibilizatuak*, zeinaren abantailen jabe ez baikara, *ancien régimearen akats barbaroekin* konbinatzeko, zeinetaz neurri betean gozatzen baitugu, halako moldez, non Alemaniak beti esku-hartu behar baitu arrazionalitatean ez bada, bere *status quo*az haratago dauden estatu-erakuntzen irrazionalitatean gutxienez. Ba al dago, adibidez, herrialde bat munduan hain xaloki partekatzen dituenik sistema politiko konstituzionalaren instituzioak, bere errealtateak partekatu gabe Alemania konstituzionala deritzona baino? Ala ez al zen beharrezkoa izan alemaniar gobernuaren burutada, zentsuraren tormentuak iraileko lege frantsesaren tormentuekin lotzea, zeinek prentsa-askatasuna auresuposatzen baitzuten? Panteoi erromatarrean nazio guztietako *jainkoak* aurkitzen ziren bezala, erresuma alemaniar-erromatar sakratuan estatu-forma guztien *bekatuak* aurkituko dira. Eklektizismo horrek orain arte inoiz suposatu gabeko garaiera lortuko duen bermea errege alemaniar baten [Frederiko Gilen IV] *salokeria politiko-estetikoak* ematen digu hain zuzen, zeinek erregetzaren eginkizun guztiak, nola feudala hala burokratikoak, nola absolutua ala konstituzionala, nola autokratikoa hala demokratikoa, nazioaren pertsonaren bidez ez bada, pertsona *propioan*, nazioarentzat ez bada, *beretzat behintzat betetzea* espero baitu. *Alemaniak bere mundu propio izateko eraturiko presente politikoaren gabezia* gisa ezin izango ditu

porrokatu muga alemaniar espezifikoak, presente politikoaren muga orokorrak porrokatu gabe.

Iraultza *erradikala* ez da Alemaniarentzat amets utopiko, ez *giza* emantzipazio *orokorra*, baizik eta areago zatikoa, iraultza politiko *soila*, etxeko pilareak zutik uzten dituen iraultza. Zertan oinarritzen da iraultza zatiko, politiko *soila*? *Gizarte zibilaren atal* bat emantzipatzean eta jauntasun *orokorrera* iristean, klase determinatu batek bere *egoera berezitik* abiatuta gizartearen emantzipazio orokorrari ekitean. Klase horrek gizarte osoa askatzen du, baina gizarte osoa klase horren egoeran aurkitzen dela auresuposatuz gero bakarrik, beraz, *esaterako*, diruaren edo kulturaren jabe dela edo horiek nahierara eskura ditzakeela.

91

Gizarte zibileko ezein klasek ezin ditu eginkizun horiek bete, bere baitan eta masengan suhartasunezko aldiune bat eragin gabe, aldiune bat, zeinean gizartearekin oro har senidetzen eta nahasten baita, zeinarekin bat egiten baita eta zeinaren *ordezkari orokor* hautemana eta aitortua baita, aldiune bat, zeinean bere uziak eta eskubideak egiazki gizartearen beraren uziak eta eskubideak baitira. Zeinean bera buru soziala eta bihotz soziala baita. Gizartearen eskubide orokorren izenean bakarrik errebindika dezake klase berezi batek nagusitasun orokorra. Posizio emantzipatzaile hori konfiantza intelektuala asaltuz hartzeko eta gizartearen esfera guztiak politikoki ustiatzeko esfera propioaren etekinean ez dira aski energia iraultzailea eta asebetetze espirituala soilik. *Nazio-iraultza* eta gizarte zibileko *klase berezi baten emantzipazioa* bat etortzeko, egoera *batek* gizarte osoaren egoera gisa balio dezan, horretarako beharrezko da alderantziz gizarte baten gabezia guztiak beste klase batean kontzentratzea, horretarako beharrezkoa da egoera jakin bat eskandalu orokorraren egoera, muga orokorren inkorporazio izateko, horretarako esfera sozial berezi batek gizarte osoaren *krimen nabariaren* balioa izan behar du, beraz esfera horren askapena autoaskapen orokor gisa ager dadin. Egoera *bat* askapen-egoerapar *excellence* bihur dadin, horretarako alderantziz beste egoera batek menderakuntzaren egoera agerikoa izan behar du. Noblezia frantsesaren eta apaizeria frantsesaren garrantzi orokor negatiboak baldintzatu egin zuen *bourgeoisiearen* klase bitartegabe mugakide eta kontrajarriaren garrantzi orokor positiboa.

Baina Alemaniako klase berezi orori falta zaio ez bakarrik koherentzia, zorrotasuna, kemena, kontsideraziorik eza gizartearen ordezkari negatibo gisa ezaugarritzeko. Halaber falta zaio egoera orori arimazabaltasun hura, zeinarekin identifikatzen baita, nahiz eta aldiune baterako izan, populuaaren arimarekin, genialitate hura, zeinak bortxa materiala botere politiko bihurtzen baitu, ausardia iraultzaile hura, zeinak botatzen baitizkio aurkariari erronkazko hitz hauek: *Ez nauk ezer, eta dena izan beharko nitek*. Alemaniar moralaren eta ohoregarritasunaren sostengua, ez bakarrik norbanakoarena, baizik baita klaseena ere, areago eraten du *egoismo apal* hark, zeinek baliatzen baitu eta besteei baliatzen uzten baitie bere *mugatutasuna*. Gizarte alemaniarreko esfera desberdinen arteko harremana horregatik ez da dramatiko, epikoa baizik. Horietako bakoitza bere burua sentitzen eta besteen alboan kokatzen bere eskakizun partikular propioekin, ez zapaldua den bezain laster, baizik eta bere ekarpenik gabe inguruabarrek oinarri sozial bat eraten dutenean, zeinaren gainean hark bere aldetik presioa eragin baitezake. *Klase ertain alemaniarren autosentimendu morada* bera ere beste klase guztien erdipurdikeria filisteoaren

ordezkari orokorra izatearen autokontzientzian bakarrik oinarritzen da. Horregatik errege alemaniarrek bakarrik ez dira iritsi tronura *mal-à-propos*, baizik, gizarte zibileko esfera bakoitzak bere porrota bizi izan du, bere garapena ospatu baino lehen, bere hesiak garatzen ditu kontrajarritako hesiak garaitu baino lehen, bere izaera bihotz-estua baliarazten du, bere izaera bihotz-zabala baliarazi baino lehen, eta horrela, eginkizun handi baten aukera beti igarota egoten da, presente egon baino lehen, eta horrela klase orok, gainean daukan klasearekin borrokan hasten den bezain laster, ordurako nahasturik egoten da azpian daukan klasearekiko borrokan. Horregatik aurkitzen da printzegoa erregegoaren aurkako borrokan, burokrata noblearekiko borrokan, burgesa horien guztien kontrako borrokan, bitartean proletarioa burgesiarekin borrokan egoten hasten da. Klase ertaina ozta-ozta ausartzen da bere ikuspuntutik emantzipazioaren ideia lantzen, eta egoera sozialen bilakaerak eta teoria politikoaren aurrerabideak erakusten dute ikuspuntu hori zaharkitua edo gutxienez arazotsua dela.

93

Frantzia aski da norbera zerbait izatea dena izan nahi izateko. Alemanian ezin da ezer izan, denari uko egin gabe. Frantzia emantzipazio zatikoa da orokorraren oinarria. Alemanian emantzipazio orokorra *conditio sine qua non* da emantzipazio zatikoarena. Frantzia errealitatea da, Alemanian askapen mailakatuaren ezintasuna askapen osoa sortu behar duena. Frantzia nazio-klase oro *idealista politikoa* da eta batez ere ez du sentitzen bere burua klase berezi gisa, baizik eta behar sozialen ordezkari gisa oro har. *Emantzipatzailearen* eginkizuna hurrenez hurren pasatzen da mugimendu dramatikoarekin frantses popularen klase bakoitzera, harik eta azkenean askatasun soziala egikaritzen duen klaseraino iristen den arte, ez jadanik gizakiaz kanpo dauden, eta hala ere giza sozietateak sortutakoak diren baldintzen auresuposiziopean, baizik eta giza existentziaren baldintza guztiak areago antolatzen dituen askatasun sozialaren auresuposiziopean. Alemanian, aitzitik, non bitzta praktikoa hain espiritugabe baita zeina bitzta espirituala praktikotasunik gabea den, gizarte zibileko ezein klasek ez dauka emantzipazio orokorren behar eta gaitasunik, harik eta bere *egoera bitartegabearen* bidez, behartasun *materialaren* bidez, bere *kateen beraien* bidez horretara behartua izan arte.

Non dago, beraz, alemaniar emantzipazioaren ahaltasun *positiboa*?

93

Erantzuna: *Kate erradikalak* dituen klase bat prestatzean, gizarte zibileko klase bat, zeina gizarte zibileko klase ez dena, egoera bat, zeina egoera guztien soluzioa baita, esfera bat, zeina izaera unibertsal baten jabe baita bere min unibertsalen bidez eta *ezein eskubide partikular* erreibindikatzen ez duena, zeren horren aurka ez baita *injustizia partikular* bat praktikatzen baizik injustizia besterik gabe, zeinek ez baitezake titulu *historiko* bat eska baizik *giza* titulu bat, zeina ez baita aurkitzen kontrajarrita aldebakarrekoan ondorioekiko, baizik kontrajartze alde guztiekikoan alemaniar sistema politikoaren premisa guztien aurka, esfera bat, azken finean, ezin duena bere burua emantzipatu gizarteko gainerako esfera guztietatik emantzipatu gabe eta horrekin berarekin gizarteko gainerako esfera guztiak emantzipatu, zeina, hitz batean, gizakiaren *galera betea* baita, eta berriro irabaz dezakeena, beraz, bere burua *gizakiaren berreskuratze osoaren* bitartez bakarrik. Gizartearen disoluzio hori egoera partikular gisa *proletalgoa* da.

Proletalgoa hasten da Alemaniarentzat halako izaten mugimendu *industrial*

hasiberriaren bidez, zeren ez *naturalki sorturiko* pobretasuna baizik eta *artifizialki ekoizturiko* pobretasuna, ez gizartearen pisuak mekanikoki zapal dutako gizaki-masa baizik eta haren *disoluzio bizirik* datorren gizaki-masak eratzten du proletalgoa, nahiz eta haren lerroetan pixkanaka sartu, berez ulertzen denez, pobretasun naturala eta joputza kristau-germaniarra ere.

Proletalgoak munduaren *ordenamendu tradizionalaren disoluzioa* iragartzen badu, horrek adierazten du *bere existentzia propioaren sekretua* soilik, zeren hori munduaren ordenamendu horren disoluzio *faktikoa baita*. Baldin eta proletalgoak *jabetza pribatuaren ukapena* eskatzen badu, horrek *gizartearen printzipio* maila jasotzen du gizarteak *bere* printzipiora jaso duena, ordurako gizartearen emaitza negatibo gisa gorpuztua zegoena haren ekarpenik gabe. Proletalgoa, beraz, aurkitzen da bilakatzen ari den munduarekiko *errege alemaniarra* jadanik bilakaturiko munduarekiko aurkitzen den eskubide berean, hark bere populuari populua deitzen dionean, *bere* zaldia deitzen dionean bezala Erregeak, populua *bere* jabetza pribatu aitortzen duenean, adierazten du soilik jabe pribatua erregea dela.

Filosofiak proletalgoarengan bere arma *materialak* aurkitzen dituen bezala, horrela aurkitzen ditu proletalgoak filosofian bere arma *intelektualak*. Eta pentsamenduaren oinartzia sakon sartu denean populu-zoru xalo horretan *alemaniarrok gizaki* bihurtzearen emantzipazioa burutuko da.

94

Laburbil dezagun emaitza:

Alemanien askapen *praktiko* posible bakarra da teoria haren ikuspuntutiko askapena, zeinek aldarrikatzen baitu gizakia dela gizakiaren esentzia gorena. Alemanian *Erdi Arotik* emantzipatzea posible da, bakarrik aldi berean Erdi Arotiko gairatze *zatikoen* emantzipazioa den heinean. Alemanian ezin da *ezein* joputza hautsi joputza mota *oro* hautsi gabe. Alemania *erradikalak* ezin du egin iraultza *erroetatik* egin gabe. *Alemaniarren emantzipazioa gizakiaren emantzipazioa* da. Emantzipazio horren burua *filosofia* da, haren bihotza *proletalgoa* da. Filosofia ezin da egikaritu proletalgoa gairatze gabe, proletalgoa ezin da gairatze filosofia egikaritu gabe.

Barne-baldintza guztiak burutu direnean, *alemaniar berpiztearen eguna gallar oilarraren kukurruak* iragarriko du.

## LABURPENA 1844KO OHARRAK (AUKERA)

Karl Marx

*1844ko udaberrian ekonomia politikoki azterlan serio bat hasi zuen. Teorialari kopuru baten idazkiak landu zituen, Smith, David Ricardo, Jean Baptiste Say, eta James Mill (John Stuarthen alta) borse zirela, besteak beste. Bere era tipikoan, pasarteak kopiatzen zituen haien obretatik koaderno batean eta iruzkinak egiten zizkien. Ondoren datorrena Millen Politika ekonomikoko elementuak obrari buruzko haren iruzkina da.*

*Pasarte horietako Marxen gai nagusia merkatu-trukeko harremanen efektu desgizatiartzaileak dira. Azterketa horrek Eskuizkribu ekonomiko eta filosofikoetako lana eta diruaren azterketa parekatzen du, zeinaren gainen ari baitzen lanean Marx garai hartan. Hemen gutxiago azpimarratzen du produkzioaren prozesua eta gehiago merkatuko trukearean izaera, batez ere kreditu-sistemaren funtzio bat den heinean. Kreditueta banku-sistemak oro har, argudiatzen du Marxek, jendea alienatu eta gure espezie-bizitzaren egiazko izaera distortsionatzen dute. Gure egiazko erkidego-bizitza, edo espezie-izatea geure elkarrekiko jarduera geure beharrak hobeki asetzeko antolatze moduan adierazten da. «Giza jardueraren trukea produkzioaren beraren barruan giza produktuen trukea bera bezala beste edozeinekin espezie-jarduera eta espezie-espirtuaren baliokidea da, zeinaren kontzientzia erreala, eta benetako existentzia jarduera soziala baita eta asetze soziala.» Zuk giza harreman bat daukazu nire produktuarekiko unibertsala den eta zuk daukazun giza behar bat ase dezakeen heinean. Gure harremanak gizatiarrak diren heinean beharrek bitartekotzak dira eta ez jabetzak.*

96

*Baina jabetza pribatuaren eta merkatu-harremanen sistema baten barruan, geure jabetzaren bitartez bakarrik erlazionatzen gara elkarrekin eta gutako bakoitzak bere behar indibidualak hobekin ase ditzakeen ikuspuntutik soilik. Horrela, nire produkturako zure beharra, «nire produkzioaren gain zuri boterea emateko bitartekoa inola ere izan gabe...niri zure gain boterea emateko bitartekoa» da. Gure harremana elkarren esplotazioko bihurtzen da, lehenik eta batez ere gure objektuekiko harremanean adierazia. Ni zuzan interesaturik nago soilik eta nik eduki nahi dudak objektu baten jabe zaren heinean, eta alderantziz «Gure objektuek elkarrekiko harremanean eratzen dute elkarrekin erabiltzen dugun hizkuntza ulergarri bakarra. Ez gendake ulertuko giza hizkuntza bat, eta efekturik gabe geratuko litzateke.»*

*Zeren antza izango luke, orduan, giza hizkuntza batek? Marxek esaten digu bilduma horren amaieran, pasarte sonatu batean, batzuek hartu dutela jende ez-alienatuak gizarte komunista batean elkarrekin erlazionatzeko izango lukeen moduaren adierazpen bat bezala.*

\*\*\*

### *Dirua eta Gizaki Alienatua*

Dirua metal preziatuekin erkatzean, baita produkzio-kostuen eztabaidan balioa determinatzeko faktore bakar gisa ere, Millek oker bat egiten du —oro har Ricardoren eskolak bezala— *lege abstraktu* bat ematean hor sortzen den bariazioa eta etengabeko esekipena gabe. Lege *independente* bat bada, adibidez, produkzioa-kostuek azken finean —edo areago eskaintza eta eskariaren bat-etortze aldizkako eta akzidentalarekin— determinatzen dute prezioa (balioa), era berean lege *independente* bat da harreman hori ez dela mantentzen eta balioak eta produkzio-kostuek ez dutela harreman beharrezkorik. Izan ere, eskaintza eta eskaria une batean bakarrik bat etortzen dira aldez aurreko eskaintza eta eskariaren gorabeherengatik, kostuen eta truke-balioaren desadostasunarengatik, gorabehera eta desadostasun horiek, bestalde, eskaintza eta eskariaren aldiuneko bat-etortzeari jarraitzen zaizkion bezala. Prozesu *erreal* hori, zeinean lege hori faktore abstraktu, akzidental, eta aldebakarreko baita, zerbait akzidentala bihurtzen da, zerbait ez-esentziala ekonomialari modernoekin. Zergatik? Ordena ekonomikoa formula doi eta zehatzetara murrizten dutenez gero, oinarriko formula, abstraktuki adierazia honako hau litzateke: ordena ekonomikoan legezkotasuna horren aurkakoa den legegabetasunak determinatzen du. Ordena ekonomikoaren lege erreala *kontingentzia* da, zeinetatik guk, zientzilariok, hautaz egonkortzen baititugu alderdi batzuk lege-formapean.

97

*Dirua* truke-bitarteko gisa izendatzean, Millek gaia oso ongi eta laburbildurik planteatzen du kontzeptu bakar batean. Diruaren esentzia ez lehenik jabetza kanporatzea, baizik *jarduera bitartekotzaile* edo prozesua —egintza gizatiar eta soziala, zeinean gizakiaren produktuek elkar osatzen baitute— alienatu bihurtzen da eta *gauza material* baten nolakotasuna hartzen du, dirua, gizakiaz kanpoko. *Jarduera bitartekotzaile* kanporatzean, gizakia aktiboa da bera galdua eta desgizatiartua den heinean. Gauzen *harremana* bera eta haiekiko giza tratua gizakiaz haratagoko eta goragoko eragiketa bihurtzen da. *Bitartekaritza alieno* horren bitartez gizakiak kontsideratzen du bere nahimena, bere jarduera, eta besteekiko bere harremanak bere buruarekiko eta haiekiko botere independente gisa —gizakia bera gizakiarentzako bitartekari gisa kontsideratu ordez. Haren esklabotzak gailurra jotzen du horrela. Argi dago bitartekari *bou jainko erreal* bihurtzen dela, zeren bitartekaria baita *botere erreala*, nirekiko bitartekotzen duen horren gainean. Hori adoratzea helburu bihurtzen da bere horretan. Bitartekotza horretatik kanpo, objektuek galdu egiten dute beren balioa. Soilik dute balioa hura ordezkatzeko duten heinean jatorriz zirudienean bitartekotza horrek balioa izango zuela *objektuak ordezkatzeko* dituen heinean. Jatorrizko harremanaren alderantzizkatzea beharrezkoa da. Bitartekotza, beraz, jabetza pribatuaren *esentzia* galdu, alienatua da, jabetza pribatu kanporatu eta *kanpokotua*, giza produkzioarekin giza produkzioaren truke *kanpoko tua* den bezala, gizakiaren espezie-jarduera kanpokotua. Jarduera horretan inplikaturiko nolakotasun guztiak bitartekariari transmititzen zaizkio. Gizakia bere bitartekariarengandik bereizita bezala hainbat pobreago bihurtzen da zenbat eta



bitartekaria *aberatsago* bihurtzen den.

Kristo jatorriz *ordezkaten* du: (1) gizakia Jainkoaren aurrean; (2) Jainkoa gizakiarentzat; (3) gizakia gizakiarentzat.

98

Era berean, *diruak* jatorriz bere kontzeptu propioz ordezkaten du: (1) jabetza pribatua jabetza pribatuarentzat; (2) gizartea jabetza pribatuarentzat; (3) jabetza pribatua gizartearentzat.

Baina Kristo Jainko *kanpokotua* da, *gizaki* kanpokotua. Jainkoak balioa du Kristo ordezkaten duen heinean soilik; gizakiak balioa du Kristo ordezkaten duen heinean soilik. Gauza bera gertatzen da diruarekin.

Zergatik bukatu behar du jabetza pribatuak *diruan*? Gizakiak izaki sozial gisa *trukera* jo beharra dauka —jabetza pribatuaren auresuposiziopean— bukatu behar du balioan. Trukeak egiten dituen gizakiaren prozesu bitartekotzailea ez da *prozesu* sozial, *gizatiarra*, ez da giza harremana; areago, jabetza pribatuak jabetza pribatuarekiko duen *harreman abstraktua* da, eta harreman *abstraktu* hori balioa da, zeinaren existentzia erreal balio gisa lehenik *dirua* baita. Trukeak egiten dituzten gizakiak elkarrekin gizaki gisa harremanetan jartzen ez direnez gero, gauzek galdu egiten dute jabetza gizatiar eta pertsonak izatearen esanahia. Jabetza pribatuak jabetza pribatuarekin duen harreman soziala, jabetza pribatuak bere burua alienatu duen harremana da. Harreman horren existentzia erreflexiboa, dirua, jabetza pribatuaren kanpokotzea da horrela, abstrakzio bat horren izaera *espezifiko* eta pertsonaletik.

Bere azkartasun guztia gorabehera, ordena ekonomiko modernoak diru-sistemari kontrajarrita, ezin du garaipen erabakigarririk lortu. Jendearen superstizio ekonomiko gordinak eta horren gobernuek diru-poltsa *hautemangarri*, *ukigarri* eta *behagarriari* heltzen diote eta metal preziatuen balio absolutuan sinesten dute eta horien jabe izatean aberastasunaren forma erreal bakar gisa. Ekonomialari argiztatu eta adituak etorri eta frogatzen die dirua merkantzia bat dela beste edozein bezalakoa eta haren balioa, beste edozien merkantziarena bezala, produkzio-kostuak eskaria (konkurrentzia) eta eskaintzarekiko harremanaren baitan dagoela, eta beste merkantzia batzuen kantitatea eta konkurrentziarekiko. Ekonomialari horri eman beharreko erantzun zuzena da gauzen balio *erreal*, azken finean, truke-balioa dela, eta truke-balioa diruan dagoela, dirua metal preziatuetan existitzen den bezala. Dirua, beraz, gauzen balio *egiazkoa* da eta hortik gauza desiragarriena izatea. Ekonomialariaren doktrinek jakituria berari men egiten diote, soilik abstraktuki berrezagut dezakeela diruaren existentzia merkantzia-forma guztietan eta ez sinetsi horren existentzia metaliko ofizialaren truke-balioan. Diruaren existentzia metalikoa soilik da produkzio-abar guztietan eta gizarte zibileko eragiketa guztietan existitzen den diruaren arima beraren adierazpen zentzumenezko ofiziala.

99

Ekonomialari modernoek, diru-sistemarekiko kontrajartzean, abstrakzioan eta orokortasunean ulertu dute *dirua* eta argiztaturik daude superstizio zentzumenezkoaz, zeinak sinesten baitu dirua metal preziatuetan bakarrik existitzen dela. Superstizio errefinatua beste gordin horrekin ordezten dute. Baina biek erro bakarra dutenez gero, superstizioaren forma argiztatuak ez du erabat ordezten forma zentzumenezko gordina, zeren ez baitu tratatzen haren esentziarekin baizik, haren esentziaren forma partikularrekin bakarrik. Diruaren existentzia *pertsonala*

diru gisa —eta ez bakarrik merkantzien harreman barneko, inplizituki existente eta ezkutuko harremana elkarrekiko haien konbertsioa eta estatusarekiko— existentzia hori gehiago dagokio diruaren esentziari zenbat eta abstraktuagoa den eta zenbat eta harreman *natural* gutxiago duen beste merkantziekiko. Zenbat eta gehiago agertu produktu gisa eta areago gainera gizakiak sortutako zerbait ez bezala, hainbat gutxiago da haren existentzia-elementu, naturak *sortutako zerbait*. Zenbat eta gehiago produzitu gizakiak edo ekonomian produzitua, hainbat handiagoa da *diru bezala haren balioaren* harreman *alderantzikatu*a materialaren truke-balioa edo diru-balioarekiko, zeinean existitzen baita. Hortik dator *diru-papera* eta *diruaren paper-ordezkoak*, hala nola, trukeletrak, txekeak, ordaindukoak, eta abarrek osatzen dute existentzia osatuena diruarena diru bezala eta fase beharrezko bat diru-sistemaren garapen progresiboan. *Kreditu-sisteman*, *banku-sisteman* osoki adierazian, badirudi indar alieno, material baten boterea hautsi egiten dela, autoalienazio-harremanak gainditu egiten dira, eta berriro gizakia gizatiarki harremantzen da gizakiarekin. *Saint-Simonen jarraitzaileek*, *itxura* horrek errebelaturik kontsideratzen dituzte diruaren garapenak, truke-lerrak, diru-papera, diruaren paper-ordezkoak, *kreditua*, eta *bankusistema* gizakia gauzetatik, kapitala lanetik, jabetza pribatua dirutik eta dirua gizakitik bereiztearen pixkanakako transzendentzia bezala —gizakia gizakitik bereiztearen pixkanakako transzendentzia bat bezala—. Hortik dator *banku-sistema* antolatua haien ideala izatea. Baina alienazioaren transzendentzia hori, gizakia bere baitara *itzultze* hori eta horrela beste gizakietara *itxurazkoa* bakarrik da. Haren autoalienazioa, haren desgizatiartzea hainbat *gorrotagarriagoa* eta *muturrekoagoa* da, zenbat eta haren elementua gehiago ez baita merkantzia, metala, edo papera, baizik existentzia *moral* eta *soziala*, giza bihotzaren barnetasuna bera; zenbat eta den gizakiaren gizakiarenganako mesfidantza handiena eta alienazio erabatekoa, gizakiak gizakiarenganako duen konfiantzaren itxurapean.

100

Zer da *kreditu-izaeia*? Hor erabat alde batera uzten dugu kredituaren *edukia*, zeina berriz ere dirua baita. Horrela alde batera uzten dugu konfiantza horren edukia, zeinarekin gizaki batek beste bat *berrezagutzen* baitu hari maileguak eginez —suposa dezagun ez duela interesik hartzen eta ez dela lukuraria— eta konfiatuz haren kidea gizon «ona» dela eta ez alproja bat. Konfiatzen duen gizakiak hor gizaki «onaz» ulertzen du, Shylockek bezala, ordain dezakeen gizakia. Kreditua ahalgarrria da bi harremanen pean eta bi baldintza desberdinen azpian. Har dezagun aberats batek pobre bati kreditua ematen dion kasua, zeina maratz eta fidagarritzat jotzen baitu. Kreditu-mora hori ekonomiaren atal erromantiko eta sentimentalean haren desbideratzei, gehiegikeriei, *salbuespenei* dagokie, ez haren *arauari*. Nahiz eta *salbuespen* eta aukera erromantiko hori suposatu, pobrearen bizitzak, talentuak eta jarduerak *bermatzen dute* aberatsarentzat mailegatutako diruaren berrordainketa. Pobrearen bertute sozial horiek guztiek, beraz, haren bizitzaren eta haren existentziak berak ordezkatzen dute aberatsarentzat bere kapitalaren birpoltsaratzea ohiko interesarekin. Pobrearen heriotza da hartzekodunarentzat aukerarik txarrena. Haren kapitalaren heriotza da, eta interesarena ere bai. Kontsidera dezagun zer ignominia dagoen gizaki bat *diru-terminotan ebaluatzean* kreditu-sisteman gertatzen denez. Ulertzen da berme *moralez* gainera, hartzekodunak baduela indar judizialaren bermea ere eta berme gutxi edo asko errealak gizon horrentzat. Zorduna

bera modua duena bada, kreditua bitarteko trukeerraztaile huts bihurtzen da, eta diruak berak forma ideal bat hartzen du. *Kreditua* gizaki baten moralitatearen epai *ekonomikoa* da. Kredituan, *gizakia* bera metala eta paperaren orde bihurtu da truke-bitarteko, baina ez gizaki gisa, baizik *kapitalaren* eta interesaren *existentzia* gisa areago. Truke-bitartekoa horrela bere forma materialetik gizakira itzultzen da, baina gizakia kanpokotu delako soilik eta bera forma material bihurtu delako. Kreditu-harremanaren barruan, dirua ez da traszenditu gizakian, baina gizakia diruan eraldatu da, eta *dirua* harengan *inkorporatu* da. *Giza banakotasuna* eta giza *moralitatea* merkataritza-artikulu bihurtu da eta dirua existitzen den *materiala*. Diruaren eta paperaren orde, nire existentzia pertsonala bera, nire haragia eta odola, nire bertute eta ospe soziala *moneta-espirtuaren* gaia eta substantzia da.

101

Kredituak ez du murrizten moneta-balioa dirura, baizik giza haragira eta giza bihotzera. Sistema faltsu baten progresu eta inkontsekuentzia guztia horrela ignominiaren erregresio eta kontsekuentzia muturrekoa bihurtzen dira. Kreditu-sistemaren izaera gizakitik alienatu gisa berretsi egiten da honako eran gizakiaren berrezagutze ekonomikoaren itxurapean:

(1) Kapitalistaren eta langilearen arteko kontrastea —kapitalista handiaren eta txikiaren artekoa— oraindik handiagotu egiten da jadanik baduenari bakarrik kreditua ematen zaionean eta aukera berri bat denan aberastasuna metatzeko, edo pertsona pobreak ikusten duenean bere existentzia *osoa* berretsia edo ukatua, erabat dependente gizaki aberatsaren apeta eta epai akzidentalaren baitan.

(2) Elkarrekiko disimulazioa, hipokrisia, eta santukeria halako punturaino eramaten dira, non epai moral gehitzen baitzaio krediturik gabeko gizakia pobrea delako baieztapen soilarti, fidagarritasunik gabea eta berrezagutua izatea merezi ez duena den epaia, paria soziala eta gizaki txarra. Bere destituzioaren gailurreko sufrimendutik gizaki pobreak sufritu egiten du kreditua eskatuz aberatsari erregu umiliagarria egin behar diolako.

(3) Diruaren existentzia erabat *ideal* horrekin, gizakiak *simulatu* egin behar du bere pertsona propioa eta tranpa eginez eta gezurra esanez lortu behar du kreditua. Kreditu-harremana —nola hartzekodunarentzat hala zordunarentzat— merkataritza-objektu bihurtzen da, elkarrekiko traizioaren eta abusuaren objektu. Hor *mesfidantza* distiratsuki nabaria da konfiantza ekonomikoaren oinarri gisa; kreditua eman behar ote den ala ez ote den eman behar haztapen fidagaitzean; kredituaren bila dabilenaren bizitza pribatuko sekretuetan espiatuz; arerioaren aldi bateko zorigaitzak agerian jarriz hura hondatzeko haren kreditua zalantzan jarriz, etab.; porrot egiteen, sasi-enpresen eta abarren sistema osoa. *Estatu mailako kreditusisteman* estatuak erabat hartzen du lehen gizakiak erakutsitako posizio bera... *Gobemu-bonuekiko* jokoak erakusten du noraino bihurtu den estatua merkataritza-gizakien jostailu.

(4) *Kreditu-sistema banku-sisteman* perfekzionaturik dago. Banku-jabearen posizioa sortzea, banku-sistemaren estatu-arauketa, esku horietan fortunak kontzentratzea —nazioaren *areopago* ekonomiko hori— moneta-sistemaren perfekzio goretzia da. *Gizaki baten berreza gutza morola* eta *estatuarekiko konfiantzak* kreditu-forma duen bezala *kreditu-sisteman*, berrezagutza moralaren dezepzioan inplikaturiko sekretua, nola moralitate horren ignominia *amoral* hala estatuarekiko konfiantzaren

santukeria eta egoismoa begi-bistako bihurtzen dira —eta horrek guztiak agerian jartzen du errealki zer den.

102

Giza jardueraren *trukea* produkzioaren barruan bertan, baita *giza produktuen* trukea ere beste batekin *jarduera orokorrekiko* eta espiritu orokorrekiko baliokidea da, zeinaren existentzia erreal, kontziente eta benetakoa *jarduera soziala* eta asetasun *soziala* baita. *Giza* natura gizakiaren *egiazko bizitza komuna* [Gemeinwesen]enez, gizakiek beren *naturaren* aktibazioaren bitartez *giza bizitza komun* bat *sortzen* eta produzitzen dute, esentzia sozial bat, zeina ez baita botere abstraktuki unibertsala norbanako bakoitzari kontrajarria, baizik norbanako bakoitzaren esentzia edo natura da, haren *jarduera* propioa, haren *bizitza* propioa, haren *espiritu* propioa, haren *aberastasun* propioa. *Benetako bizitza komuna* ez da *sortzen* gogoetaren bidez; aitzitik, norbanakoen *behar* eta *egoismotik* sortzen da, hau da, haien existentzia beraren aktibaziotik bitartegabe. Ez dagokio gizakiari *bizitza komun* hori existitzen den ala ez. Hala ere, gizakiak bere burua berrezagutzen ez duen bitartean eta mundua gizatiarki antolatzen ez duen bitartean, *bizitza komun* hori *alienazio-forman* agertzen da, zeren haren *subjektua*, *gizakia*, bere baitatik alienatutako izakia baita. Gizakiek norbanako erreal, bizi, partikular gisa, ez abstrakzioan, *eratzten* dute *bizitza komun* hori. Beraz, *gizakiak diren hori* da. *Gizakiak* bere burua alienatzen duela esatea *gizaki alienatu* horren *gizartea* haren *bizitza komun errealaren*, haren *egiazko espezie-bizitzaren* karikatura dela esatea adina da. Haren *jarduera*, beraz, *tormentu gisa* agertzen da, haren *sorkuntza* propioa berarekiko indar alieno, haren *aberastasuna* pobretasun bezala, bera beste gizakiekin konektatzen duen *lokarri esentziala* zerbait ez-esentzial bezala, eta horrela beste gizakiekiko bereizkuntza haren *egiazko existentzia* bezala agertzen da. Haren *bizitza* haren *bizitzaren* sakrifizioa bezala agertzen da, haren *natura* egikaritzea haren *bizitza* urritzea bezala, haren *produkzioa* haren *suntsipenaren* produkzioa bezala, objektuarekiko haren *boterea* beraren *gaineko objektuaren* boterea bezala; haren *sorkuntzaren* nagusia haren *esklaboa* bezala.

103

Politika ekonomikoak ulertzen du *gizakiaren bizitza komuna*, *giza* esentzia auto-aktibatzailea eta *espezie-bizitza* egiazki *gizatiarreranzko* elkarrekiko berrintegrazioa, *truke-* eta *merkataritza-formapean*. *Gizartea*, dio Desttut de Tracyk, *aldeaskotako truke sail bat* da. *Aldeaskotako* integrazioaren mugimendu honek eratua da. *Gizartea*, dio Adam Smithek, *merkataritza-enpresa bat* da. Horko kide bakoitza *mer kantzia* da. Begi-bistakoa da ekonomia politikoak *tratu sozialeko forma alienatu bat* ezartzen duela *giza forma esentziala*, *jatorrizko* eta behin betiko bezala.

Ekonomia —prozesu erreal bera bezala— *gizakiak gizakiarekiko duen harremanetik* dator eta *jabetza-jabe batek bestearekiko* duen harremanetik. Auresuposu dezagun *gizakia jabetza-jabe* gisa, bere *nortasuna* mantentzen duen eta beste *gizakiengandik* bereizten dena eta haiekin *erlazionatzen* dena bezala bere *jabetza* eksklusiboaren bitartez. *Jabetza* pribatua du bere *existentzia* pertsonala, haren *existentzia bereizgarria* eta horregatik *esentziala*. *Jabetza* pribatuaren *galera* edo *lagape na*, beraz, *gizakiaren eta jabetza pribatuaren kanpokotzea* da. Hemen azken hori bakarrik *ardura* zaigu. Neure *jabetza* pribatua beste pertsona bati ematen diodanean, *nirea* izateari utzi egiten dio. Nirekiko zerbait independente bihurtzen da eta nire *esferatik kanpoko*, *nigandik kanpo ko* zerbait. Neure *jabetza* pribatua *kanpokotu* egiten dut. Niri dagokidanez, *jabetza* pribatu *kanpokotua* da. Zerbait oro har

kanpokotu bezala bakarrik ikusten dut. Transzenditu besterik ez dut egiten neure harreman *pertsonala* hartara; eta naturako indar *elementaletara* itzultzen dut neure buruarekiko harremanena bakarrik kanpokotzen dudanean. *Jabe tza pribatu* kanpokotu soilik bihurtzen da *nire jabetza pribatu* izateari uzten dionean jabetza pribatu oro har izateari utzi gabe, hau da, nitaz *kanpoko beste* gizaki batekiko harreman bera eskuratzen duenean, nirekin zuena bezalakoa —hitz batean, *beste gizaki baten jabetza pribatu* bihurtzen denean. Nire *indar-egoeiaz* aparte, zerk eragiten dit *nire jabetza pribatua* beste pertsona bati kanpokotzea? Ekonomiak zuzen erantzuten du: *beharrak* eta *gabeziak*. Beste pertsona ere jabetza-jabe da, baina nik falta dudana *beste* objektu batean eta zeina gabe ezin baitut egon eta ez baitut nahi ere; objektu hori iruditzen zait nire existentzia berrintegratzeko eta nire natura egikaritzeko *beharrezko* zerbait dela.

104

Bi jabetza-jabeak elkarrekin erlazionatzen dituen *lokarria objektuaren natura espezifikoa* da. Jabetza-jabeak objektuak desiratu eta behar izateak kontziente bihurtzen du berak jabetzaz kanpoko objektuekiko beste harreman *esentzial* bat daukala eta bera ez dela bera dela uste duen izaki partikularra baizik izaki *total* bat, zeinaren gabeziek harreman bat baitute barne-jabetzakoa beste pertsona baten lanaren produktuekiko. Zeren objektu baten beharra frogatzen duen begi-bistakoen eta ezeztazinen baina objektu hori *nire* naturakoa dela eta niretzat objektu hori existitzea eta haren *jabetza* nire esentziarentzat jabetza egokia direla. Bi jabeak horrela beren jabetza lagatzera bultzatuak dira, baina halako modu batean, non aldi berean berretsi egiten baitute jabetza hori; edo bultzatuak dira jabetza hori lagatzera jabetza pribatuaren harremanaren barruan. Bakoitzak horrela bere jabetzaren atal bat kanpokotzen du beste pertsonarengan.

Bi jabeen harreman *soziala* horrela *kanpokotzearen elkarrekiko tasuna* da, kanpokotzearen harremana bi aldetan —edo *kanpokotzea* bi jabeen harremana bezala— aldiz, jabetza pribatu soilean *kanpokotzea* alde batetik bakarrik gertatzen da, harekiko harremenean.

*Trukea* edo *tratu*, beraz, espezie-egintza soziala da, esentzia komuna, gizakiaren eragintruke soziala eta integrazioa *jabetza pribatuaren* barruan, eta espezie-egintza kanpoko, *kanpokotua*. Arrazoi horrengatik beragatik *tratu* bezala agertzen da. Eta horrengatik era berean harreman *sozialaren* aurkakoa da.

Jabetza pribatuaren elkarrekiko kanpokotzearen edo alienazioaren bitartez, *jabetza pribatua* bera determinatua izan da jabetza pribatu *kanpokotu* gisa. Lehenengo eta behin utzi egin dio lanaren produktua izateari eta haren jabearen nortasun eksklusibo, bereizgarria izateari, zeren jabeak kanpokotu egin baitu; kendu egin zaio jabeari, zeinaren produktua baitzen eta esanahi pertsonal bat hartu du hura produzitu ez zuen pertsonarentzat. Galdu egin du esanahi pertsonala jabearentzat. Bigarrenik beste jabetza pribatu batekin eriazionatu da eta harekin berdindu. Natura *desberdin* bateko jabetza pribatu batek hartu du haren lekua, natura *desberdin* bateko jabetza pribatu baten posizioa hark berak hartzen duen bezala. Bi aldeetan, beraz, jabetza pribatua natura desberdin bateko jabetza pribatuaren ordezkari bat bezala agertzen da, beste produktu natural baten *baliokidetzat* bezala. Bi aldeak hain daude erlazionatuak, non bakoitzak *bestearen* existentzia *ordezkatzat* duen eta biek beren buruaren eta bestearen *ordezkotzat* balio dioten elkarri. Jabetza pribatuaren existentzia halakoa den heinean, *ordezko*, *baliokide* bihurtu da. Bere autounitate

bitartegabearen ordez *beste zerbaitekiko* harremanean bakarrik existitzen da. *Baliokide* gisa haren existentzia jadanik ez da hartarako zerbitu bereziki egokia. *Balio* bihurtu da eta *tru ke-balio* bitartegabeki. Haren existentzia *balio* gisa *bere buruaren* determinazioa bat da, haren existentzia bitartegabeaz bestelakoa, haren natura espezifikotik kanpo, eta *kanpokotua* —existentzia *erlatibo* bat soilik.

105

Beste nonbait agertuko dugu nola *balio* hori zehatzago determinatzen den eta nola bihurtzen den *prezio*.

Truke-harremana auresuposatzen delarik, *lana* bitartegabeki bihurtzen da *soldata-lan*. Lan alienatuaren harremanak lortzen du bere kinka alde batetik *soldata-lana*, langilearen produktua ez dagoelako haren beharra eta haren *estatusarekiko* harreman *bitartegabe*, baizik bi norabidetan determinaturik dago areago langileari alieno zaizkion konbinazio sozialen bidez; produktuaren *eroslea* bera produktiboa ez izatea baizik besteek produzitu dutena trukatzeari. Jabetza pribatu *kanpokotuaren* forma gordinen, *tratuan*, bi jabe pribatuetako bakoitzak produzitzen du haren beharrak, haren jaidurak, eta existitzen den material gordinak produzitzera bultzatzen duena. Beren produkzioaren soberakina bakarrik trukatzeko dute. Zalantzarik gabe, *lana* zen bakoitzarentzat haren *biziraupenerako iturri* bitartegabea; aldi berean, hala ere, haren *existentzia banakoaren* berrespena ere bazen. Trukearen bitartez, haren *lana* parte batean haren *errenta-iturri* bihurtu da. Lanaren asmoa eta existentzia aldatu egin dira. Produktua *balio*, *truke-balio* eta *baliokide* bat sortu da eta jadanik ez produzitzailearekiko harreman pertsonal bitartegabearengatik. Zenbat eta produkzioa bariatuago bihurtzen den —beste hitz batzuetan, zenbat eta bariatuago bihurtzen diren beharrak alde batetik eta zenbat eta aldebakarrekoagoa produzitzailearen etekina besterik— hainbat gehiago sartzen da haren *lana soldata-lana* kategorian, harik eta *soldata-lana* besterik ez den arte eta harik eta erabat *intzidental* eta *ez-esentzial* bihurtzen den arte, produzitzaileak bitartegabe gozatzen duen eta behar duen bere produktua eta jarduera, lanaren egintza bera haren autoasetze den eta haren xedapen natural eta helburu espiritualen egikaritzea.

Honako elementu hauek daude *soldata-lanaren* barruan: (1) zorizko harremana eta lanaren alienazioa lan egiten duen subjektuarengandik; (2) zorizko harremana eta lanaren alienazioa haren objektutik; (3) langilearen determinazioa behar sozialen bitartez zeinak konpulsio alieno baitira harentzat, konpulsio bat zenari men egiten baitio behar egoistaz eta atsekabez —behar sozialak bizitako premiak hari hornitzeko iturria baizik ez dira, bera haientzat esklabo bat den bezala; (4) bere existentzia banakoaren mantenimendua langileari bere jardueraren *jopuntu* bezala agertzen zaio eta haren egintza erreala bitarteko bat besterik ez da; *bizitzeko* bitartekoak eskuratzeko bizi da.

106

Zenbat eta handiagoa eta artikulatuagoa izan botere soziala jabetza pribatuko harremanean, hainbat eta *egoista* eta asozialago bihurtzen da gizakia, hainbat alienatuago bihurtzen da bere natura propiorik.

*Giza jarduerako* produktuen elkarrekiko trukea *merkataritza* eta *negozio* gisa agertzen den bezala, horrela agertzen da jardueraren beraren elkarrekiko berrintegrazioa eta trukea *lanaren banaketa* bezala, gizakia eginez, ahagarri den heinean, izaki abstraktu bat, automata bat, eta hura munstro espiritual eta fisiko

bihurtuz.

Hain zuzen, giza lanaren unitatea kontsideratzen da haren *bana keta* bezala, zeren haren natura soziala haren aurkako bezala iristen baita izatera, alienazio-formapean.

*Lanaren banaketa* gehitu egiten da zibilizazioarekin. Lanaren banaketaren aurreuposizioaren barruan, jabetza pribatuaren produktua eta materiala pixkanaka norbanakoarentzat *baliokide* baten esanahia hartzen du. Jadanik ez du bere *gainbalioa* trukutzen, eta *axolagabe* bihurtu daiteke bere produkzioaren objektuarekiko. Jadanik ez du bitartegabeki trukutzen bere produktua *behar* duen produktuarekin. Baliokidea *dirutan* bihurtzen da baliokide, zeina baita soldata-lana eta trukearen *bitartekoaren* emaitza bitartegabea. (Ikusi gorago.)

Objektu alienatuak gizakiaren *gain* duen erabateko menderakuntza begi-bistakoa da *diruan* eta materialaren natura erabat deskonsideratzean, nola jabetza pribatuaren natura espezifikoak hala jabearen nortasuna.

Lehen pertsona baten beste pertsona baten gaineko menderakuntza zena *gauzak pertsonaren* gain duen menderakuntza orokor, produktuak produzitzailearen gain duen menderakuntza bihurtzen da orain. Jabetza pribatuaren *kanpokotzearen* determinazioa *baliokidean* eta balioan datzan bezalaxe, horrelaxe da *dirua kanpokotze* horren existentzia zentzumenezko, autoobjektibatua.

107

Argi dago ekonomiak garapen oso hori gertakari bat bezala eta zorizko behararen kimu bat bezala uler dezakeela.

Lana bere baitatik bereiztea = langilea kapitalistarengandik bereiztea = lana kapitaletik bereiztea bitartekotzat trukea edo banaketa aipatzen ditu, zeinaren jatorrizko forma *jabetza errealean* eta *jabetza higikorrean* bana baitaiteke... Jabetza pribatuaren jatorrizko determinazioa; konstituzio politiko bat eskuratzen duen bezain laster, monopolioarena izaten da. Monopolio perfektionatua konkurrentzia da. Ekonomialariak *produkzioa* eta *kontsumoa* bereizten ditu eta bien bitarteko bezala *trukea* edo *banaketa* aipatzen ditu. Produkzioa eta kontsumoa bereiztea, jarduera eta gogamena norbanako batean baino gehiagotan eta norbanako beraren barruan *lanaren bereizketa* da haren *objektutik* eta bere baitatik gogamen bakar bat bezala. *Banaketa* jabetza pribatuaren botere autoaktiboa da. Lana, kapitala eta jabetza errealearen elkarrekiko bereizketa, baita lana lanetik, kapitala kapitaletik, jabetza erreala jabetza errealetik bereiztea, eta, azkenik, lana soldatatik, kapitala mozkinetik, mozkina interesetik, eta jabetza erreala errentatik autoalienazioa agerrarazten du autoalienazioaren formapean, baita elkarrekiko alienazioaren formapean ere.

### *Giza Produkzio Askea*

Jabetza pribatuaren oinarritzko aurreuposizioa da gizakiak *jabetzan edukitzeko* bakarrik *produzitzen* duela. Produkzioaren helburua *jabetzan edukitzea* da. Ez du bakarrik helburu *baliagarri* hori; helburu *egoista* bat ere badu. Gizakiak zerbait beretzat *jabetzan edukitzeko* bakarrik produzitzen du. Haren produkzioaren objektua haren *behar bitartegabe egoista* objektifikazioa da. Gizakiak —bere baldintza basati,

barbaroan— determinatu egiten du bere produkzioa bere behar bitartegabearen *neurrian*, zeinaren edukia *bitartegabe* produzituriko objektua bera baita.

Baldintza horretan bitartegabe behar duena *baino* ez du produzitzen gizakiak. Haren *beharraren muga* haren *produkzioaren muga* da. Eskaria eta eskaintza bat datoz. Produkzioa beharrak *determinatzen* du. Edo ez da trukerik gertatzen edo trukea gizakiaren lana haren lanaren produktua trukatzera murrizten da, eta truke hori da truke errealaren forma latentea (ernamuina).

108

Trukea gertatu bezain laster, gainprodukzio bat dago jabetasunaren muga bitartegabeaz haraindi. Baina gainprodukzio horrek ez du gaintitzen behar egoista. Aitzitik behar bat asetzeko *zeharkako* modu bat bakarrik da, zeinak aurkitzen baitu bere objektibazioa beste pertsona baten produkzioan. Produkzioa *errenta-iturri* bihurtu da, mozkinerako lan. Lehen beharrak produkzioaren hedadura determinatzen zuen bezala, orain produkzioak, edo *produktuaren jabe izateak* determinatzen du noraino ase behar diren beharrak.

Neuretzat produzitu ditut eta ez zuretzat, zuk zeuretzat produzitu dituzun bezala eta ez niretzat. Nire produkzioaren emaitzak bere horretan lotura zuzen gutxi dauka zurekin zure produkzioaren emaitzak nirekin daukan bezala, hau da, gure produkzioa ez gizakiaren gizakiarentzako produkzioa gizaki den heinean, ez da produkzio sozializatua. Inork ez du atsegin izaten beste baten produkzioa dela eta. Gure elkarrekiko produkzioak ez du ezer esan nahi guretzat gizaki gisa. Gure trukea, beraz, ezin da izan mugimendu bitartekotzailea, zeinean berrezagutua izango bailitzateke nire produktuak edozer esan nahi duela zuretzat zure izatearen, zure beharraren *objektibazioa* delako. *Giza natura* gure produkzioaren lokarria elkarrentzat. Trukeak *mugimenduan* jarri eta berretsi bakarrik egiten du *harremana*, zeina gutako bakoitzak baitu bere produktu propioarekiko eta beste pertsonaren produkzioarekiko. Gutako bakoitzak ikusten du bere produktuan bere autointeres objektibatu propioa eta beste pertsona baten produktuan, *beste* autointeres bat, independentea, aliena eta objektibatua dena.

Gizaki bezala, hala ere, giza harreman bat duzu nire produktuarekiko; nire produktua *nahi duzu*. Zure desirako eta zure nahimeneko objektua da. Baina zure nahia, desira, nahimena nire produktuarentzat inpotenteak dira. Beste hitz batzuetan, zure giza natura, derrigorrean eta estuki nire giza produkzioarekin lotua, ez da zure *boterea*, ez da zure partaidetza produkzio horretan, zeren *giza* naturaren *boterea* ez baita berrezagutzen nire produkzioan. Areago da nirekiko dependente egiten zaituen *lokarria*, zeren horrek dependente bihurtzen baitzaitu nire produktuarekiko. Urrun dago nire produkzioaren gain zuri boterea emateko *bitartekoa*; areago da niri zure gain boterea emateko *bitartekoa*.

109

Kontsumi dezakedana baino *gehiago* produzitzen dudanean, sotilki zure beharrarekin *kontatzen* dut. Objektuaren soberakin baten *itxura* bakarrik produzitzen dut. Egiaz objektu *desberdin* bat produzitzen dut, zure produkzioko objektu bat, soberakin horren ordezkatzeko asmoa baitut, pentsamendua jadanik eginga dagoen truke bat. Zurekiko nire harreman *soziala* eta zuretzako nire lana *dezepzio* hutsa da, elkarrekiko gure berrintegrazioa *dezepzioa* da. Elkarrekiko harrapaketa da horren oinarria. Horren atzealdean, harrapatzeko, iruzur egiteko asmoa dago. Gure trukea egoista denez gero, nola zure aldetik hala niretik, eta



autointeres oro saiitzen den beste pertsonarena gainditzen, derrigorrean saiitzen gara elkarri iruzur egiten. Nik neure objektuari zureen gainetik ematen didan botereak, hala ere, zure *berrezagutza* eskatzen du erreal bihurtzeko. Gure objektuen elkarrekiko boterearen elkarrekiko gure berrezagutza batana bat da, eta asmo, energia, botere eta azkartasun gehien duena da irabazlea. Nire indar fisikoa aski bada, zuzenean egiten dizut harrapaketa. Ez badago botere fisikorik, elkarrekin disimuluan ibiliko gara eta trebeena iritsiko da gailurrera. Berdin dio harreman *osorako* nor den irabazlea, zeren garaipen *ideala* eta *saiatua* bi aldeetan gertatzen baita; bietako bakoitzak, bere epaian, menderatu egin du bestea.

Bi aldeetan trukeak derrigor eskatzen du elkarrekiko produkzioaren eta elkarrekiko jabetasunaren *objektua*. Gure produkzioaren elkarrekiko objektuen harreman ideala elkarrekiko gure beharra da. Baina harreman *erreal* eta *egiazki benetakoa* elkarrekiko produkzioaren *jabe tasun* elkarrekiko *esklusiboa* da. Zure *objektua* da, nire objektuaren *baliokidea* nire objektuarekiko nire nahiari *balioa*, *duintasuna*, eta *eraginkortasuna* ematen diona niretzat. Elkarrekiko gure produktua, beraz, elkarrekiko gure beharren *bitartekoa*, *bitartekaria*, *tresna*, *botere berrezagutua* da. Zure *eskaria* eta zure *jabetzaren baliokidea* niretzat *sinonimoak* eta balio berekoak diren terminoak dira, eta zure eskaria efektiboa da nigan efektu bat duenean bakarrik. Efektu hori gabe zure eskaria ahalegin asegabe bat bakarrik da zure aldetik eta kontsekuentziarik gabe niretzat. Ez duzu inolako harremanik nire objektuarekiko gizaki gisa, zeren *neuk ere ez* baitut harremanik harekiko. Baina bitartekoa da objektu baten gaineko *botere erreala*, eta biok kontsideratzen dugu gure produktua bakoitzak bestearengan eta norbere buruarengan duen *boterea* bezala. Beste hitz batzuetan, geure produktu propioa geure aurka bihurtu zaigu. Gu geu bazterturik gaude *egiazko* jabetzatik zeren gure *jabetzak* baztertu egiten baitu beste gizakia.

110

Gure objektuak dira beste batekiko harremanean elkarrekin erabiltzen dugun hizkuntza ulergarri bakarra. Ez genuke ulertuko giza hizkuntzarik, eta efektu gabe geratuko litzateke. Alde batetik, arrena, eskaria eta *umiliazioa* bezala izango litzateke sentitua eta hitz egina eta horregatik lotsaz eta erregu-sentipen batekin adierazia; bestalde, *lotsagabekeria* edo *erokeria* giza entzuna eta arbuia izango litzateke. Hain gaude giza naturatik elkarrekiko alienatuak, non natura horren zuzeneko hizkuntza *giza duintasunarekiko iraina* baita guretzat, eta balio objektiboaren hizkuntza alienatua giza duintasun justifikatu, autokonfiatu eta auto-onartu gisa agertzen baita.

Zalantzarik ez, zure ikuspuntutik *tresna* bat, *bitarteko* bat da nire produktuaz jabetzeko eta zure beharra asetzeko. Baina nire ikuspuntutik gure trukearen jomuga da. Objektu horren produkzioarako bitarteko eta tresna bezala kontsideratzen zaitut, hau da, nire *jopuntu* eta hainbat areago horrela neure objektuarekiko erlazionaturik kontsideratzen zaitudana baino. Baina (1) gutako bakoitza errealki *egiten* du besteak egiten ari dela pentsatzen duena. Zuk zeure burua errealki bitarteko, tresna eta *zeure* produktu propioaren produzitzaile bihurtu duzu nireaz jabetzeko; (2) zuretzat, zure objektu propioa nire objektuaren *zentzu menezko maskorra* eta *forma ezkutatua* da; haren produkzioak *esan nahi* du eta *espresuki* da nire objektuaren *lorpena*. Zu zeure objektuaren *bitarteko* eta *tresna* bihurtu zara benetan; zure gutizia objektu horren esklaboa da, eta zuk esklabo-zerbitzuak burutu dituzu, halako moldez, non objektua inondik ere ez baita zure gutziaren barkamena.

Objektuarekiko elkarrekiko morrontza hori errealki agertu zaigu haren garapenaren hasieran *jauntasunaren* eta *esklabotasunaren* harremana bezala eta gure harreman esentzialaren adierazpen *gordin* eta *agerikoa* bakarrik da.

Gure *elkarrekiko* balioa elkarrekiko gure objektuek guretzat duten *balioa* da. Gizakia bera, horregatik, elkarrekiko *baliogabea* da guretzat.

Demagun gauzak produzitu ditugula gizaki bezala: bere produkzioan gutako bakoitzak *bi aldiz berretsia* zukeen bere burua eta bestea. (1) Neure *produkzioan* neure *banakotasuna* eta haren *partikularitasuna* objektibatuko nituzkeen, eta jardueraren joiran bizitza banako bat gozatuko nukeen; neure objektua begitaratzean neure nortasuna botere *objektibo*, *zentzumenez hautemangarri* eta *zalantzagabe* gisa ezagutzearen gozamen banako gisa sentituko nukeen. (2) Nire produktuaren zure asetasunean eta zure erabileran nire obrak giza behar bat ase izanaren, *giza* natura objektibatu izanaren asetasun *zuzen* eta kontzientea izango nukeen; eta beste *gizaki* baten beharrerako objektu egoki bat sortu izanarena. (3) Ni *bitartekaria* izango nintzatekeen zure eta espeziearen artean eta zuk zeure natura propioaren berreintegrazio bezala esperimendatuko nindukezun eta zeure buruaren parte beharrezko bezala; zure pentsamenduan ez ezik zure maitasunean ere ni berretsia izango nintzatekeen. (4) Nire bizitza banakoan zure bizitza zuzenean sortuko nukeen; neure jarduera banakoan bitartegabe *berretsi* eta *egikarituko* nukeen neure natura *gizatiar* eta *soziala*.

111

Gure produkzioak gure natura islatzen duten hainbat ispilu izango lirateke. Niri dagokidanez gertatzen dena zuri ere aplikatuko litzaizuke. Laburbil ditzagun aurreko suposizioko faktore desberdinak: Nire lana *bizitzaren agerpen aske* bat izango litzateke eta *bizi izaren gozamen* bat. Jabetza pribatuaren auresuposiziopean *bizitzaren kanpokotze* bat da, zeren nik *bizitzeko* eta neure buruari *bizitzeko bitartekoak* emateko lan egiten baitut. Lan egitea *ez da* bizitzea.

Areago, nire lanean nire banakotasunaren *partikularitasuna* berretsia izango litzateke, zeren nire bizitza *banakoa* berretsia baita. Lana, orduan, *jabetza egiazko*, *aktiboa* izango litzateke. Jabetza pribatuaren auresuposiziopean nire banakotasuna kanpokotua izan baita nik *jarduera hori gorrotatzen* dudan eta niretzat *tormentu* bat den punturaino. Areago jarduera baten *simulazio* besterik ez da, jarduera *behartu* bat, behar *kanpoko* eta akzidental batek bakarrik nire gain inposatua eta *ez* behar *barneko* eta *determinatu* batek.

Nire lana ager daiteke nire objektuan haren naturaren arabera bakarrik; ezin da bere baitatik *desberdina* den zerbait bezala. Nire lana, beraz, neure *auto-galeraren* eta neure *botere-gabeziaren* adierazpen objektibo, zentzumenezko, hautemangarri eta zalantzagabe gisa agertzen da.

## ESKUIZKRIBU FILOSOFIKO ETA EKONOMIKOAK (AUKERA)

Karl Marx

*1844ko udan, Marxek zirriborro bat idatzi zuen politikoa ekonomikoaren obra bat gaitzat harturik. Lau eskuizkribuk iraun dute. Lehen parterik handienean pasarte kopiatuak dauzka Marx aztertzen aritu zen politika ekonomikoko testuetatik hartuak. Ondoren ematen den horren azken sailak alienazioari buruzko Marxen ohar ospetsuenetako batzuk dauzka, eta bereziki, lan alienatuari buruzkoak. Bigarren eskuizkribua zati bat da kapitala eta lanaren arteko gatazkaz eta hemen ez dugu ematen. Hirugarren eskuizkribuaren zatirik handiena jabetza pribatuari, lanari, eta komunismoari buruzko eztabaida bat da, eta behean ematen dugu, Hegelen dialektikaren eztabaida bat den heinean, hori ere hirugarren eskuizkribukoa. Laugarren eskuizkribua Hegelen Fenomenologiaren azken kapituluaren laburbilduma bat da, eta Hegeli buruzko sailean sartu dugu. Zentzu batean baino gehiagotan, eskuizkribu horiek ekonomia politikoaren aurreuposizioei eta oinarri filosofikoei buruzko haren obra beteko zuten gaiak modu sistematikoan garatzeko Marxek egindako ahalegina adierazten dute.*

*Idazki filosofiko eta ekonomikoak 1932an argitaratu zen lehen aldiz. Marxen ikuspegi filosofikoa ulertzeko duten eraginak oraindik ere sakona izaten jarraitzen du. Batzuek ikusi izan dituzte eskuizkribu horietan Marxek sorturiko idatzi filosofiko garrantzitsuenak. Beste batzuek baztertu egiten dituzte artean feuerbachiar humanista bat eta marxista zientifiko egiazko bat ez zen Marx gazte baten produktu bezala. Bereziki, alienazioaren kontzeptuaren zentralitateak erakartzen du arreta eskuizkribu hauetan; emaitza gisa, kontzeptu hori Marxen geroko idazkuntzarekin, bereziki Kapitalarenarekin nola erlazionatzen den birpentsatze bat egin da. Eskuizkribu horiek erabakigarritzat jo izan dira Marxek Hegelekin izandako harremana ulertzeko ere. Idazki goiztiar horietan batzuek Marx gazte humanistaren aztarna aurkitzen dute, zeinak artean Hegelen eragin handia baitzeukan eta zeina nabarmen desberdintzen baita geroko Marx zientifikoarengandik. Beste batzuek alienazioa eta emantzipazio kontzeptuak Marxen obra osoan zehar ageri diren eta ardatz filosofiko iraunkorra ematen dutenak bezala. Azken interpretazio horrek azpimarratu egiten du jarraipena Marxen garapenean eta haren Hegelekiko harremanean.*

*«Lan alienatua» saiakerak bere baitan dauka Marxen antropologia filosofikoaren azterlan esplizituena. Lana da haren kategoria nagusia. «Animalia bere bizi-jarduera da. Gizakiak bere nahimenaren eta kontzientziaren objektu bihurtzen du bere bizi-jarduera bera.». Gizakia Homo faber bat da esentzian. Gu modu bakarrean lan egin dezakegun izakiak gara, bi gauza egiteko gai garenak geure lanaren objektua eta geuk kontrola dezakegun objektu intentzionalak lantzeko prozesua. Lan egiteko gure moduak zer garen adierazten du. Bereziki, lanean ditugun besteekiko harremanak gure izate konkretuaren natura determinatzen duten faktore nagusiak dira. «Mundu objektiboaren tratamenduan, beraz, gizakiak frogatzen dio bere*

*buruari benetako espezie-izaki bat dela. Produkzio hori haren espezie-bizitza aktiboa da.». Lan-prozesua langilea bestelako norbaitek kontrolatzen duenean, langilea lanaren objektuaren gaineko kontrolaz gabetzen dutenean, emaitza da osoki buruturiko gizakia izateko nagusia den jardueratik bertatik alienaturik geratzen dela langilea. Esanahi-gabeziatzko zentzu bat, egiazko aberaste falta bat eta besteekin egiazko giza harremanak ezartzeko zailtasun bat datoz ondoren. Arazoaren muinean lan alienatua dago soldatapeko lanaren praktikak eragina. Jabetza pribatua eta merkatu-harremanengatik alienazioa, hasierako idazkietan aztertua, orain ikusten da produktio-prozesuan dagoen alienazioaren forma oinarrizkoagoaren ondorioa dela.*

*«Jabetza pribatua eta komunismoa»n Marxek jarraitu egiten du lan alienatuaren efektuen bere ikerketarekin jabetza pribatua eta hura komunismoan ezabatzearekiko harremanean. Komunismoa, idazten du, «gizakia eta naturaren eta gizakia eta gizakiaren arteko antagonismoaren benetako ebazpena da; existentzia eta esentziaren, objektifikazioa eta autobaieztapenaren, askatasuna eta behartasunaren, norbanakoaren eta espeziearen arteko gatazkaren egiazko ebazpena da. Historiaren enigma ebatzia da eta bere burua soluzio hori bezala ezagutzen duena.». Marxek aurrera jarraitzen du sail horretan alienazioa gainditzearen inplikazioak arakutzen naturarekiko eta zientzia naturalarekiko gure harremanetarako.*

115

*«Hegeldar dialektikaren eta oro har filosofiaren kritika» da Marxen ahaleginik hedatuena Hegelen logika eta filosofia orokorrera hurbiltzeko, batez ere Feuerbachek Hegeli egindako kritika materialistaren argitan. Hegeli huts eta gaizki-ulertze serioak saiatzeko badizkio ere, Marxek aitortzen dio Hegeli «gizakiaren autogarapena prozesu bat bezala, objektifikazioa objektuaren galera bezala, alienazio horren alienazio eta transzendentzia bezala hartzea; berak horrela lanaren izaera hartzen duela eta gizaki objektiboa besarkatzen duela, benetako giza erreal delako, bere lan propioaren emaitza bezala.». Hau da, Hegelek, nahiz eta modu distorsionatuan edo era alderantzikatu, egiazko ikuspegia zuela Marxek giza historiaren eta norbere burugin izaren faktore nagusizat hartzen duenarekiko.*

\*\*\*

Dagoeneko iragarria dut *Deutsch-Französische Jahrbücheren* estatu- eta zuzenbide-zientziaren kritika *Hegelen* zuzenbide-filosofiaren kritikaren formapean. Inprimatzeko prestatzean agertu zen espekulazioaren aurka zuzenduriko kritikaren nahastea beste gai batzuen kritikarekin desegokia gertatzen zela, garapena trabatu eta zaildu egiten zuela ulerkuntza. Gainera, tratatu beharreko gaien aberastasun eta askotarikotasuna obra *bakar* batean *soilik* ulertu ahal izango zen era guztiz aforistikoan, eta bestalde azalpen aforistiko horrek sistematizazio hautazko baten *inpresioa* sortuko zukeen. Beraz, hurrenez hurren, foileto desberdinetan egingo dut zuzenbidearen kritika, moralarena, politikarena eta abarrena, eta azkenik, lan berezi batean ahaleginduko naiz guztiaren lotura agertzen, atalek beren artean duten harremana, baita material horren lantze espekulatiboaren kritika ere. Arrazoi horrengatik honako idazki honetan ekonomia politikoak estatu arekin, zuzenbidearekin, moralarekin, bizitza zibilarekin eta abarrekin duen lotura bakarrik

ukitzen da, ekonomia politikoak berak, *ex professo*, objektu horiek lantzen dituen heinean.

116

Ekonomia politikoaren ezagupidea duen irakurleari ez daukat segurtatu beharrik nire emaitzok analisi erabat enpirikoaren bidez lortu ditudala, ekonomia politikoaren azterketakritiko arretatsu baten bitartez.

[Aitzitik, erabateko bere ezjakintasuna eta ideia-pobretasuna ezkutatu nahi dituen erreseinagile ezjakina kritikari positiboaren burura «*esaldi utopikoa*» edo «Kritika erabat garbia, erabat erabakigarria, erabat kritikoa», «gizarte ez bakarrik juridikoa, baizik soziala, erabat soziala», «masa trinko masifikatua», «masa masifikatuaren ahotsa daramaten bozeramaileak» (Bruno Bauer), lehen froga hornitu beharko du oraindik, familiako auzi teologikoez landa, auzi *sekularretan* ere baduela zerbait esateko].

Berez ulertzen da, sozialista frantsesen eta ingelesen lanez gainera, sozialista alemaniarrenak ere erabili ditudala. Zientzia honetan lan alemaniar trinko eta *originalak* errealki *Hessen* artikulura mugatzen dira (Witlingen idazkiez landa), 27 *Pleguetan* argitaratuetara eta Engelsen «*Ekonomia Politikoaren Kritikarako Zirrimarra*»ra, *Urtekari Frantziar-alemaniarretan*, zinetan halaber iragarri baintuen, modu erabat orokorrean, honako lan honen lehen elementuak.

((Ekonomia Politikoaz kritikoki arduratu diren idazle horiez landa, kritika positiboak oro har, eta Ekonomia Politikoaren kritika positibo alemaniarrek beraz, bere egiazko oinarritapena *Feuerbach*en aurkikuntzei eskertu behar dio, zeinaren «*Etorkizuneko Filosofia*»ren aurka, eta zeinaren «Filosofia eraberritzeko tesien» aurka *Anekdotetan* batzuen bekaizkeria ziztrinak eta besteen sumin errealak badirudi benetako isiltasun-konplot bat eratu duela.))

*Feuerbachengandik* bakarrik abiatzen da kritika *positibo*, humanista naturalista. Zenbat eta zarata gutxiago, hainbat seguruago, sakonago, zabalago eta iraunkorragoa da *Feuerbach*en idazkien efektua, bakarrak baitira Hegelen *Logika* eta *Fenomenologiatik*, iraultza teoriko erreal bat beren baitan izaten.

117

Gure garaiko *teologo kritikoei* [Bruno Bauer eta jarraitzaileei] kontrajarririk, erabat ezinbestekotzat jo dut idazki honen azken kapitulua, —*Hegeldar dialektikaren* eta, oro har, Hegeldar filosofiaren eztabaida—, zeren lan hori ez baita egin. Eta hori *egiatitasun-gabezia* saihestezina da, zeren teologo *kritikoak* berak ere *teologo* izaten jarraitzen baitu, eta, horregatik, Filosofiaren auresuposizio jakin batzuetatik abiatu behar du autoritate batetik bezala, edo bestela, baldin eta kritikaren prozesuan eta inoren aurkikuntzen bidez hartan zalantzak sortzen badira auresuposizio filosofikoei buruz, eta modu koldar eta justifikaziorik gabean bertan behera uzten ditu, haietatik *abstraitu* egiten ditu, haiekiko bere morrontza adieraztera mugatzen da eta morrontza horrekiko atsekabea era negatibo kontzientziagabe eta sofistikoan.

((era negatibo eta kontzientziagabean adierazten du soilik, alde batetik, bere kritika propioaren *garbitasunaz* segurtasuna atergabe errepikatuz, eta besterik, behatzailearen begiak bere propioak adina urruntzeko *kritikaren* eta sehaskaren arteko kontu-doitze *beharrezkotik* —*hegeldar dialektika* eta alemaniar filosofiatik oro har— kritika modernoaren jasotze ezinbesteko horretatik bere mugatutasunaz eta zakarkeriaz, itxura sortzen saiatuz kritikak zerikusia duela soilik kritikaren forma

mugatu batekin hartaz kanpo —XVIII. mendeko kritikarekin zehatzago esateko— eta *masaren* kamustasunarekin. Azkenik, teologo kritikoak edota, norberaren aurreuposizio filosofikoen esentziari buruzko aurkikuntzak egiten direnean —*Feuerbachena* bezalakoak—, berak egin izanaren itxurak egiten ditu, edo aurkikuntza horien emaitzak jaurtiz egiten ditu itxurak, landu ezinik, oraindik filosofiaren preso dauden idazleen aurkako *kontsigna* gisa, edota aurkikuntza horiei buruz beren nagusitasun-kontzientzia sortzen dakite, ez hegeldar *dialektikako* elementuak harreman zuzenean ezarriz edo ezartzen saiatuz, zeinaren mira baitu beraren kritika hartan, zeina artean ez baitira kritikoki eskainiak izan bere gozamenerako, baizik eta misterioetsuki baliaraziz, *propioa* zaion eran, era ezkutu, maltzur eta eszeptikoan, hegeldar dialektikaren kritika haren aurka, horrela, agian frogatartekariaren kategoria bere baitatik abiatzen den egia positiboaren kategoriaren aurka, [...?] ... etab. Kritikari teologikoak, izan ere, erabat natural aurkitzen du filosofiaren aldetik dena *egiteko* egotea, garbitasunaz eta, erabakitasunaz, kritika erabat kritikoz berrikeran aritu ahal izateko, eta filosofiaren *egiazko konkistatzailetzat* dauka bere burua Feuerbachengan Hegelen une bat falta dela *aurkitzen* duenean, zeren eta «*autokontzientzia*»ren eta «*espiritu*»aren fetitxismo espiritualista praktikatzen badu ere, kritikaria ez da kontzientziaren sentimendutik pasatzen.))

118

Zehatz kontsideraturik, *kritika teologikoa* —nahiz eta hasieran progresuaren une erreala bat izanez da, azken finean, trantsendentzia *filosofiko* zaharraren, eta zehazki, *hegeldarraren karikatura teologikoraino* eramandako kontsekuentzia eta gailurtzea besterik. Beste abagune batean [*Familia Sakratuan*] erakutsiko dut xeheki nemesis historiko hori, Historiaren justizia interesgarri hori, zeinak determinatzen baitu Teologia, behiala Filosofiaren alde ustela izan zena, orain Filosofiaren disoluzio negatiboa, hau da, bere usteltze-prozesua azaltzera.

((Zer neurritan, aitzitik, beharrezko egiten duten Filosofiaren esentziari buruzko *Feuerbachena* aurkikuntzek eztabaida kritiko bat dialektika filosofikoarekin —gutxienez frogatzat balio dakien— nire azalpenean ikusiko da.))

### *Lan alienatua*

Ekonomia politikoaren aurrepostuetatik abiatu gara. Horren hizkuntza eta horren legeak onartu ditugu. Aurreuposatu ditugu jabetza pribatua, lanaren bereizkuntza, kapitala eta lurra, baita alokairua, kapitalaren mozkina eta lur-errenta, baita lanaren banaketa, konkurrentzia, truke-balioaren kontzeptua, eta abar. Ekonomia politikotik bertatik, haren hitz propioekin, frogatu dugu langilea hondoratu egiten dela merkantzia mailaraino eta merkantzia errukarriaren mailaraino; langilearen errukarritasuna alderantzizko proportzioan dagoela bere ekoizpenaren boterea eta tamainarekin, konkurrentziaren emaitza beharrezkoa kapitala esku gutxitan metatzea, beraz monopolioaren lehengoratzeko beldurgarria dela; eta azkenik, kapitalistaren eta lurjabearen, nekazariaren eta langile industrialaren arteko bereizkuntza desagertu egiten dela eta gizarte osoa *jabetzadunen* eta *langile* desjabetuen artean banatu behar duela.

Ekonomia politikoa jabetza pribatuaren gertakaritik abiatzen da, baina ez du azaltzen jabetza pribatua. Jabetza pribatuaren prozesu *materiala*, errealitatean aurkitzen duena, formula orokor abstraktutan jasotzen du, zeinek gero *lege* gisa balio baitiote. Ez ditu *besarkatzen* lege horiek, hau da, ez du frogatzen nola sortzen diren jabetza pribatuaren esentziatik. Ekonomia politikoak ez digu azalpenik ematen lana eta kapitala, kapitala eta lurraren arteko banaketaren oinarriaz. Adibidez, alokairuaren eta kapitalaren mozkinaren arteko harremana determinatzen duenean, kapitalisten interesa hartzen da azken oinarritzat: hau da, ekonomia politikoak garatu beharko lukeen hura suposatzen du. Gauza bera gertatzen da puntu guztietan konkurrentziarekin ere. Kanpoko zirkunstantziek azaltzen dute. Ekonomia politikoak ez digu irakasten ezer zer puntutaraino zirkunstantzia kanpoko, itxuraz zorizko horiek beharrezko garapen baten adierazpena baizik ez diren. Ikusia dugu nola ekonomia politikoak kontsideratzen duen trukea bera gertakari zorizko gisa. Ekonomia politikoak ekinean jartzen dituen gurpil bakarrak *gutizia* eta *gutiziatien arteko gerra*, *konkurrentzia* dira.

119

Hain zuzen ere, ekonomia politikoak mugimenduaren koherentzia ulertzen ez duelako kontrajarri ahal izan zion konkurrentziaren teoria monopolioarenari, enpresa librearena korporazioarenari, lurraren banaketarena latifundio handiarenari, zeren konkurrentzia, enpresa-askatasuna eta lur-banaketa eta monopolioaren, korporazioaren eta jabetza feudalaren indarrez ezarritako ondorio zorizko, deliberatu gisa bakarrik izan baitziren ulertuak eta aztertuak, eta ez haien emaitza beharrezko, saihestezin eta natural gisa.

Gure oraingo egitekoa da ulertzea jabetza pribatua, gutizia, lanbanaketa, kapitala eta lurra, trukea eta konkurrentzia, balioa eta gizakiaren desbaliotzearen, monopolioa eta konkurrentziaren arteko koherentzia; alienazio horrek guztiak *diru*-sistemarekin duen koherentzia ulertzea.

Ez gaitezen jar, ekonomialariak zerbait azaldu nahi duenean bezala, lehen egoera imajinario batean. Lehen egoera horrek ez du ezer azaltzen, auzia urruntasun lainotsu eta grisaxka batera lekualdatzea baizik ez du lortzen. Gertakari, jazoera gisa suposatzen du ondorioztatu beharko lukeena, hau da, bi gauzaren arteko harreman beharrezkoa. Adibidez, lan-banaketaren eta trukearen artekoa. Horrela azaltzen du teologiak gaizkiaren jatorria jatorrizko bekatuaren bidez gertakaritzat, historiatzat suposatuz azaldu behar duen hura.

Gu ekonomia politikoko gertakari *presenteko* batetik abiatzen gara.

120

Langilea hainbat pobreago da, zenbat eta aberastasun gehiago produzitzen duen, zenbat eta gehiago hazten den haren produkzioa boterez eta tamainaz. Langilea merkantzia hainbat merkeago bihurtzen da zenbat eta merkantzia gehiago ekoizten dituen. Giza munduaren *desbaliotzea* gauzen munduaren *balioespenarekiko* zuzeneko proportzioan gehitzen da. Lanak ez ditu merkantziak soilik produzitzen; bere burua ere produzitzen du eta langilea *merkantzia* gisa, eta hain zuzen ere merkantziak, oro har, produzitzen dituen proportzioan.

Gertakari horrek, gainerakoan, hau besterik ez du adierazten: lanak produzitzen duen objektua, haren fruitua, *izaki arrotz*, produzitzaileagandiko *botere independente* gisa kontrajartzen zaio. Lanaren produktua objektu batean finkatu den lana da, gauza bihurtu dena, lanaren *objektutzea* da.

Lanaren egikaritze hori ekonomia politikoaren estadioan agertzen da langilearen *desegikaritze gisa*, objektutzea *objektuaren galera eta harekiko morrontza gisa*, jabekuntza *alienazio* [Entfremdung] gisa, *kanpokotze* [Entausserung] gisa. Lanaren egikaritzea halako punturaino agertzen da langilearen *desegikaritze gisa*, non langilea *desegikaritzen* den harik eta gosez hil arte. Objektutzea halako punturaino agertzen da *objektuaren galera gisa*, non langilea objektu beharrezkoenez *desjabeturik* aurkitzen baita ez bizitzakoez soilik, baita laneko objektuez ere. Areago oraindik, lana bera objektu bihurtzen da zeinaz langilea ahaleginik handienarekin eta etendura ezohikoenekin bakarrik jabe baitaiteke. Objektuaren jabekuntza halako punturaino agertzen da *alienatze gisa*, non zenbat eta langileak objektu gehiago ekoitzi, hainbat gutxiago jabetzera iristen baita eta hainbat gehiago geratzen baita bere produktuaren, hau da, kapitalaren mende.

Ondorio horiek guztiak determinaturik daude langilea *bere lanaren produktuarekin* objektu batekin bezala erlazionatzen delako. Aurrepostu horretatik abiatuz argi dago zenbat eta langilea gehiago ahalegindu, hainbat eta ahaltuagoa dela bere aurrean sortzen duen mundu arrotz, objektiboa eta hainbat pobregoa direla bera eta bere barne-mundua, hainbat gutxiago dauka berak jabetzeko. Gauza bera gertatzen da erlijioan ere. Zenbat eta gehiago jarri gizakiak Jainkoarengan, hainbat gutxiago gordetzen du bere baitan. Langileak objektuan jartzen du bere bizitza baina ordudanik ez dagokio berari, objektuari baizik. Zenbat eta handiago izan jarduera, hainbat objektu gutxiago dauka langileak. Haren lanaren produktua den hura, bera ez da. Beraz, zenbat eta handiagoa den produktu hori, hainbat eta txikiagoa da bera. Langilearen *kanpokotzeak* bere produktuan esan nahi du ez bakarrik haren lana objektu bihurtzen dela, existentzia *kanpoko* baizik eta *hartaz kanpo* existitzen dela, independente, botere beregain bihurtzen dela haren aurrez aurre. Objektuari mailegatu dion bizitza etsaikor eta gisa aurrean jartzen zaiola.

121

Kontsidera dezagun orain hurbilagotik *objektutzea*, langilearen produkzioa, eta hartan *alienatzea*, objektuaren, haren produktuaren *galera*.

Langileak ezin du ezer sortu *natura gabe*, *kanpoko mundu sentigarria* gabe. Hori da haren lana egikaritzen den gaia, zeinean jarduten duen, zeinetatik eta zeinaren bitartez produzitzen duen.

Baina naturak lanari *bizi-bitartekoak* eskaintzen dizkion bezala, lana objekturik gabe, zeinetan aritzeko, bizi ezin daitekeen zentzuan, horrela, bestalde, *bizi-bitartekoak* ere eskaintzen ditu zentzu hertsian, hau da, *langilearen* beraren subsistentzia fisikorako bitartekoak.

Zenbat eta langilea gehiago *jabetzen* den kanpoko munduaz, natura sentigarriaz, bere lanaren bitartez, hainbat gehiago gabetzen da *bizi-bitartekoez* zentzu bikoitz horretan; lehenik, kanpoko mundu sentigarriak utzi egiten diolako gero eta gehiago, haren lanarena den objektu bat, haren lanaren *bizi-bitarteko* bat; bigarrenik, mundu horrek berak utzi egiten diolako gero eta gehiago, *bizi-bitarteko* izateari zentzu bitartegabe, langilearen subsistentzia fisikorako bitarteko.

Langilea morroi bihurtzen da bere objektuarekiko zentzu bikoitzean: lehenik *lan-objektu* bat hartzen duelako, hau da, lana hartzen duelako; bigarrenik *subsistentzia-bitartekoak* hartzen dituelako. Hau da, aurrena langile gisa existiarazten duelako, bigarren *subjektu fisiko* gisa existiarazten duelako. Morrontza



horren erpina datza *langile* den heinean bakarrik *subjektu fisiko* gisa iraun ahal izatean, eta *subjektu fisiko* gisa bakarrik langile izatean jadanik.

(Langilearen alienazioa bere objektuan adierazten da, lege ekonomikoen arabera, honetara: zenbat eta gehiago produzitu langileak, hainbat gutxiago kontsumitu behar du; zenbat eta balio gehiago sortu, hainbat balio gutxiagoko, hainbat duinezago da bera; zenbat eta formatuagoa haren produktua, hainbat deformatuagoa langilea; zenbat eta zibilizatuagoa haren objektua, hainbat barbaroago langilea, zenbat eta ahaltsuago lana, hainbat ahalgabeago langilea, zenbat eta espiritualago lana, hainbat espiritugabeago eta naturarekiko morroiago langilea).

122

*Ekonomia politikoak ezkutatu egiten du lanaren alienazio esentziala, zeren ez baitu kontsideratzen langilearen (lanaren) eta produkzioaren arteko harreman bitartegabea.* Lanak mireskizunak sortzen ditu aberatsentzat, baina gabeziak langilearentzat. Jauregiak produzitzen ditu, baina txosnak langileentzat. Edertasuna produzitzen du, baina elbarritasuna langilearentzat. Lana makinez ordeztzen du, baina langileen parte bat lan barbaro batera jaurtitzen du, eta makina bihurtzen du beste partea. *Inteligentzia* produzitzen du, baina ergelkeria, kretinismoa produzitzen du langilearentzat.

*Lanaren eta haren produktuaren arteko harreman bitartegabea langilearen eta haren produkzioaren objektuarekiko harremana da.* Dirudunaren harremana produkzioaren objektuekiko eta produkzioa berarekiko lehen harreman horren kontsekuentzia bat besterik ez da eta berretsi egiten du. Geroago kontsideratuko dugu azken aspektu hori.

Baldin eta galdetzen badugu: zein da lanaren harreman esentziala, orduan langileak produkzioarekiko duen harremanaz galdetzen dugu.

Orain arte langilearen alienazioa, kanpokotzea kontsideratu dugu, aspektu bat bakarrik, zehazki bere *lanaren produktuekiko harremanean*. Baina alienazioa ez da emaitzan bakarrik agertzen, baizik eta *produkzio-egintzan*, jarduera produzitzailearen barruan bertan. Nola egin liezaioke aurre langileak bere jardueraren produktuari zerbait denari bezala baldin eta produkzioaren egintzan bertan ez balu bere burua alienatuko? Produktua jardueraren, produkzioaren laburbilduma besterik ez da. Beraz, baldin eta lanaren produktua kanpokotzea bada, produkzioak berak kanpokotze aktiboa izan behar du, jardueraren kanpokotzea; kanpokotzearen jarduera. Lanaren produktuaren alienazioan alienazioa —kanpokotzea lanaren beraren jardueran— laburbildu besterik ez da egiten.

Zertan datza, beraz, lanaren kanpokotzea?

123

Lehenik lana langileaz *kanpoko* izatean, —hau da, haren izatekoa ez izatean—; eta bere lanean langileak bere burua ez baiezatzean, baizik eta ukatzean; ez da ongi sentitzen, dohakabe baizik; ez du energia fisiko eta espiritual aske bat garatzen, baizik eta bere gorputza hilduratu eta bere espiritua hondatu egiten ditu. Horregatik langilea lanetik kanpo sentitzen da bere baitan, eta lanean bere baitatik kanpo. Lan egiten ez duenean sentitzen da eroso, eta lan egiten duenean ez dago eroso. Haren lana ez da, horrela, borondatezkoa, bortxatua baizik, *lan bortxatua*. Horregatik ez da behar baten asetzea, baizik eta lanetik kanpo beharrak asetzeko *bitarteko* bat. Haren

arroztasuna argi nabarmentzen da hertsapen fisiko bat edo beste edozein eratako bat ez dagoen bezain laster lanetik izurritik bezala ihes egiten zaiolakoan. Kanpoko lana, gizakia kanpokotzen den lana, autosakrifizioko, aszetismoko lan bat da. Azken batean, langilearentzat lanaren kanpokotasuna agertzen da hori berea ez izatean, beste batena baizik, berari ez dagokiola, beste bati baizik; hartan dagoenean ez dagokiola bere buruari, beste bati baizik. Erljioan giza fantasiaren, giza garunaren eta giza bihotzaren autojarduerak norbanakoarengandik independente, hau da, jarduera arrotz, jainkotiar edo deabruzko baten modura gizakiarengan diharduen bezala; langilearen jarduera ere ez da bere autojarduera. Beste bati dagokio, norberaren galera da.

Hortik datorren emaitza da gizakia (langilea) bere animalia-funtzioetan, jaten, edaten eta ugaltzen bakarrik sentitzen dela libre, eta bere giza funtzioetan, berriz, animalia. Animaliazkoa gizakizko bihurtzen da eta gizakizko a animaliazko.

Jatea, edatea eta ugaltzea, etab., errealki benetako giza funtzioak dira. Baina giza jardueraren gainerako esparrutik bereizten dituen eta azkeneko helburu bakar bihurtzen dituen abstrakzioan animaliazkoak dira.

Lanaren, giza jardueraren alienazio-egintza bi alderditan kontsideratu dugu: 1) langilearen harremana *lanaren produktuarekin* besterena den eta mendean hartzen duen objektu batekin bezala. Harreman hori, aldi berean kanpoko mundu sentigarriarekiko, objektu naturalekiko harremana da, aurrean daukan mundu arrotz, etsaikor batekin bezala; 2) lanaren harremana *produktzio-egintzarekin lanaren barruan*. Harreman hori langileak bere jarduera propioarekin duen harremana da, arrotz, ez dagokion batekin bezala, jarduera grina gisa, indarra ezintasun gisa, ugaltzea irentze bezala, langilearen energia fisiko eta espiritual *propioa*, haren bizitza pertsonala —izan ere zer da bizitza jarduera besterik— ez dagokion jarduera bat bezala, berarengandik independentea, beraren aurka zuzendua bezala. *Autoalienazio* bezala, lehenagoko gauzaren alienazio bezala.

124

Oraindik aurreko bietatik *lan alienatuaren* hirugarren determinazio bat atera behar dugu.

Gizakia espezie-izaki [*Gattungswesen*] bat da, ez bakarrik teorian eta praktikan espeziea bere objektutzat hartzen duelako, bai bere propioa eta bai gainerako gauzarena, baizik eta —eta hau beste adierazpen bat besterik ez da gauza bererako— bere buruarekin erlazionatzen delako espezie bizi presenteko gisa, zeren bere buruarekin izaki *unibertsal* eta horregatik aske batekin bezala erlazionatzen baita.

Espezie-bizitza, nola gizakiarengan hala animaliarengan fisikoki datza, lehenik, gizakia (animalia gisa) natura inorganikotik bizi izatean, eta zenbat eta unibertsalago den gizakia animalia baino, hainbat unibertsalagoa da natura inorganikoaren esparrua, zeinatik bizi baita. Nola landareek, animaliek, harriek, aireak, argiak eta abarrek, teorikoki giza kontzientziaren parte bat eratzen baitute, partez naturako objektu gisa, parte batez arteko objektu gisa —haren izaera espirituala, subsistentzia espiritualeko bitartekoak gozamina eta asimilaziorako prestatu behar dituenakhalaber horrela eratzen dute bizitzaren eta giza jardueraren parte bat ere. Fisikoki gizakia produktu natural horietatik bakarrik bizi da; janari, berokuntza, jantzi, etxebizitza eta abarren eran agertzen dira. Gizakiaren unibertsaltasuna praktikan agertzen da natura bere gorputz *inorganiko* bihurtzen duen unibertsaltasunean hain

zuzen, nola subsistentziagai bitartegabe, kamutsa materia delako, haren bizijardueraren objektua eta instrumentua.

Natura gizakiaren *soin inorganikoa* da, hau da, natura giza soina ez den heinean. Gizakia naturatik bizi delakoak esan nahi du natura bere *soin* duela, zeinarekin etengabeko prozesuan iraun behar baitu ez hiltzeko. Gizakiaren bizitza fisiko eta espirituala naturarekin loturik egoteak ez du beste zentzurik natura bere buruarekin loturik egoteak baino, zeren gizakia naturaren atal baita. Natura gizakitik alienatzean (1) eta gizakia bere burutik, bere funtzio aktibotik, bere bizi-jardueratik, lan alienatuak era berean alienatzen du espeziea hartatik, *espeziea* ere gizakiaz bestelako bihurtzen du; *espezie-bizitza* harentzat norbanako-bizitzarako bitarteko bihurtzen du. Lehenik alienatu egiten ditu *espezie-bizitza* eta norbanako-bizitza, bigarrenik lehena, abstraktu, azkenaren helburu bihurtzen du, halaber haren forma alienatu eta abstraktuan.

125

*Zeren*, lehenik, *bizi-jarduera*, *bizitza produktiboa* bera gizakiaren aurrean behar bat asetzeko bitarteko bat bezala soilik, existentzia fisikoa iraunaraztekoa. Bizitza produktiboa, ordea, *espezie-bizitza* da. Bizia sortzen duen bizia da. Bizi-jardueraren forman datza *espezie* baten izaera jakina, haren *espezie-izaera*, eta *jarduera askea*, kontzientea da gizakiaren *espezie-izaera*. Bizitza bera agertzen da *bizi-bitarteko* soil gisa.

Animalia bitartegabe bat da bere bizi-jarduerarekin. Ez da hartatik bereizten, hura da. Gizakiak bere nahimenaren eta kontzientiaren objektu bihurtzen du bere bizi-jarduera bera. Bizi-jarduera kontzientea du. Ez da gizakia bitartegabe bat egiten den determinazio bat. Bizi-jarduera kontzienteak bitartegabe bereizten du gizakia bizi-jarduera animaliazkotik. Eta hain zuzen, eta horregatik bakarrik, da *espezie-izaki*. Edo, bestela esateko izaki kontziente bakarrik da, hau da, bere bizitza propioa bakarrik du objektu beretzat, *espezie-izaki* baita. Horregatik bakarrik du askea bere *jarduera*. Lan alienatuak alderantzikatu egiten du harremana, halako moldez, non, izaki kontziente delako hain zuzen bere bizi-jarduera, bere *esentzia*, *existentziarako* bitarteko soil bihurtzen baitu.

*Mundu objektibo* baten sortze praktikoa, natura inorganikoaren *tratamendua* gizakia *espezie-izaki* kontzientea den froga da, hau da, bere *espeziearekin* erlazionatzen den izaki baten baieztapena bere *esentzia* propioarekin bezala edo bere buruarekin *espezie-izaki* gisa erlazionatzen dena. Egia da animaliak ere produzitzen duela. Habia bat, bizitokiak eraikitzen ditu, erleak, kastoreak, inurriak eta abarrek bezala. Baina soilik produzitzen du bitartegabe beretzat edo bere kumearentzat behar duena; aldebakarki produzitzen du gizakiak, aldiz unibertsalki produzitzen du; behar fisiko bitartegabearen mendean bakarrik produzitzen du, gizakiak, aldiz behar fisikotik aske ere produzitzen du eta harekiko askatasunean bakarrik produzitzen du egiazki; animaliak bere burua bakarrik produzitzen du, gizakiak, aldiz, natura osoa birproduzitzen du; animaliaaren produktua haren *soin* fisikoari soilik dagokio bitartegabe, gizakiak, aldiz, bere produktuari aske aurre egiten dio. Animaliak beharraren eta dagokion *espeziearen* neurriaren arabera bakarrik formatzen du, gizakiak, aldiz, badaki produzitzen edozein *espezieren* neurriaren arabera eta badaki beti objektuari datzekion neurria ezartzen; horregatik gizakiak edertasunaren legean arabera ere formatzen du.

126

Horregatik mundu objektiboaren lanketan bakarrik da gizakia errealki *espezie-izaki*. Produkzio hori haren espezie-bizitza aktiboa da. Haren bidez agertzen da natura haren obra eta haren errealitate gisa. Lanaren objektua horregatik da gizakiaren *espezie-bizitzaren objektutzea*, zeren hori ez baita intelektualki bakarrik bikoizten, kontzientzia bezala, baizik aktiboki eta errealki, eta bere burua begiesten du berak sortutako mundu batean. Horregatik lan alienatuak, gizakiari bere produkzioaren objektua erauztean, *espezie-bizitza* erauzten dio, bere espezie-objektibitate erreala erauzten dio eta animaliarekiko abantada desabantail eraldatzen du, zeren soin inorganikoa, natura kendu zaiolako.

Era berean lan alienatuak autojarduera, jarduera askea bitarteko izatera endekatzean, gizakiaren espezie-bizitza haren existentzia fisikorako bitarteko bihurtzen du.

Gizakiak bere espezieaz duen kontzientzia alienazioaren bidez eraldatu egiten da, halako moldez, non espezie-bizitza bitarteko soil bihurtzen baitzaio.

Lan alienatuak egiten du, beraz:

(3) *Gizakiaren espezie-bizitza*, nola natura hala haren espezie-gaitasun espiritualak, existentzia *arrotz* alienatu berarentzat, haren *nor banako-existentziaren bitarteko* bihurtzen da lan alienatua. Alienatu egiten dio gizakiari bere soina, baita hartaz kanpoko natura, haren esentzia espiritualak, haren giza esentzia.

(4) Gizakia bere lanaren, bere bizi-jardueratik, *bere espezie-izatearen* produktutik alienaturik egotearen ondorio bitartegabe bat da *gizakia gizakiarengandik alienatzea*. Gizakiak aurre egiten badio bere buruari, aurre egiten dio *beste* gizakiari ere. Baliozko dena gizakiak lanarekiko, bere lanaren produktuarekiko eta bere buruarekiko duen harremanari buruz, halaber baliozko da gizakiaren harremanean beste gizakiarekiko eta lanarekiko eta haren lanaren objektuarekiko.

Oro har, gizakia bere espezie-bizitzatik alienaturik dagoen baieztapenak esan nahi du gizaki bat bestegandik, haietako bakoitza giza esentziaz alienaturik dagoen bezala.

Gizakiaren alienazioak eta, oro har, gizakiak bere buruarekin duen harreman oro bakarrik egikaritzen da, adierazten da gizakia beste gizakiarekiko dagoen harremanean.

127

Lan alienatuarekiko harremanean, gizaki bakoitzak kontsideratzen ditu besteak langile gisa bere buruarekiko aurkitzen den neurrian eta harremanean.

Horrela lan alienatuaren harremanean gizaki orok ikusten ditu besteak ereduaren eta harremanaren arabera, zeinean aurkitzen baitu bere burua langile bezala.

Gertakari ekonomiko batetik abiatu gara, langilearen eta haren produkzioaren alienaziotik. Gertakari horren kontzeptua azaldu dugu: lan *alienatua*, *kanpokotua*. Kontzeptu hori analizatu dugu, hau da, gertakari ekonomiko bat aztertu dugu besterik gabe.

Ikus dezagun orain nola adierazi eta ordezkatu behar den errealitatean lan alienatuaren, kanpokotuaren kontzeptua.

Lanaren produktua arrotz bazait, botere arrotz batek bezala aurre egiten badit, nori dagokio orduan?

Nire jardera propioa ez badagokit, jarduera arrotz, bortxatua bada, nori dagokio orduan?

Nitaz *bestelako* izaki bati.

Nor da izaki hori?

*Jainkoak?* Egia da lehen aldietan produkzio nagusia, esaterako, tenpluen eraikuntza etab. Egipton, Indian, Mexikon, jainkoen zerbitzuan agertzen dela, produktua ere jainkoena denez. Baina jainkoek berek bakarrik ez ziren inoiz izan lanaren nagusiak. Hainbat gutxiago *natura*. Eta nolako kontraesana izango litzatekeen gizakiak natura zenbat eta gehiago menderatu bere lanaren bidez, zenbat eta alferrikagoak izan jainkoen mirariak industriaren mirarien bitartez, gizakiak uko egin behar izatea botere horien maitez produkzioaren pozari eta produktuaren gozamenari.

Izaki *aliena* zeinari baitagokio lana eta lanaren produktua, zeinaren zerbitzua baitago hura eta zeinaren gozamenerako balio baitu hark, *gizakia* bera bakarrik izan daiteke.

Lanaren produktua langileari ez badagokio, haren aurrean botere arrotz bat bada, hori bakarrik da posible *langileaz bestelako beste gizaki bati* dagokiolako. Baldin eta haren jarduera oinaze bazaio, beste baten gozamen eta bizi-poz izan behar du. Ez jainkoek, ez naturak baizik gizakiak bera izan behar du gizakien gaineko botere arrotz hori.

128

Gogora bedi lehen egindako baieztapena gizakiak bere buruarekin duen harremana bakarrik dela berarentzat *objektiboa* eta *erreala* beste gizakiekiko haren harremanaren bitartez. Baldin eta hura, bada, harremanetan jartzen bada bere lanaren produktuarekin, bere lan objektibatuarekin, objektu ahaltzu, berarengandik independente, etsaikor, batekin bezala halako molde batez ari da harekin harremanetan jartzen, non berarengandik independentea den beste gizaki, ahaltzu, etsaikor, berarekiko arrotz bat objektu horren jabea den. Baldin eta bera harremanetan jartzen bada bere jarduerarekin jarduera ez-aske batekin bezala, beste baten zerbitzurako jarduera batekin bezala jartzen da harremanetan harekin, beste baten aginduen, bortxaren eta uztarriaren azpian.

Gizakiaren bere buruarekiko eta naturarekiko autoalienazio oro bere burua eta natura aldatzeko bere buruaz bestelako gizakiei ezartzen dien harremanean agertzen da. Horregatik autoalienazio erlijiosoa derrigorrean agertzen da laikoak apaizarekin duen eriazioan, edo baita bitartekari batekikoan ere, zeren hemengo kontua mundu espiritualarekikoa baita. Mundu praktiko, errealean autoalienazioa beste gizakiekiko harreman praktiko, errealean bitartez bakarrik ager daiteke. Alienazioa obratzen den bitartekoa bera bitarteko *praktikoa* da. Lan alienatuaren bitartez ez du gizakiak objektuarekiko eta produkzio propioaren egintzarekiko bere harremana bakarrik sortzen arrotz eta etsaikor zaizkion botereekin bezala, baizik eta harremana, zeinean beste gizakiek beren produkzioarekin eta beren produktuarekin baitaude, eta harremana. Zeinean hura beste gizaki horiekiko baitago. Bere produkzio propioa bere desegikaritze, bere zigor, bere produktu propioa galera, berari ez dagokion produktu bat bezala, horrela sortzen du produzitzen ez duenaren nagusitasuna produkzioaren eta produktuaren gainean. Bere jarduera propioa alienatzen duen bezala, arrotza jabeazten du berari propioa ez zaion jardueraz.

Orain arte harremana langilearen aldetik kontsideratu dugu, eta geroago ez-langilearen aldetik ere kontsideratuko dugu.

Horrela, bada, *lan alienatuaren, kanpokotuaren* bitartez sortzen du langileak lan horren harremana lanetik kanpo dagoen eta arrotza zaion gizaki batekiko harremana. Langilearen lanarekiko harremanak sortzen du horren kapitalistarekiko harremana, edo beste nolanahi deitu nahi zaiola ere lanaren ugazabari. *Jabetza pribatua*, bada, produktua, emaitza, *lan kanpokotuaren* ondorio beharrezkoa da, langileak naturarekin eta bere buruarekin duen kanpo-harremanarena.

129

*Jabetza pribatua* horrela eratortzen da, analisiaren bitartez, *lan kanpokotuaren* kontzeptutik, hau da, *gizaki kanpokotutik*, lan alienaturik, bizitza alienaturik eta *gizaki alienatutik*.

Ekonomia politikotik abiatuak *lan alienatuaren (bizitza alienatuaren)* kontzeptura heldu gara *jabetza pribatuaren mugimenduaren* emaitza gisa. Baina kontzeptu horren analisiak erakusten du nahiz eta jabetza pribatua oinarri gisa, lan alienatuaren kausa gisa agertu, horren ondorio bat areago dela, era berean jainkoak *jatorriz* kausa ez baizik giza adimenaren nahastearen efektua diren bezala. Gerora harreman hori eragintruke bihurtzen da.

Bere garapenaren azken gailurtze-puntuak bakarrik aurkitzen du jabetza pribatuak bere sekretua, hau da, lehenik lan alienatuaren produktua dela, eta bigarrenik, lana alienatzen den *bitartekoa* dela, *kanpokotze horren egikaritzea*.

Garapen horrek orain arte ebatzi gabe zenbait gatazka argitzen ditu.

(1) Ekonomia politikoa lanetik abiatzen da produkzioaren benetako arimatik bezala eta, hala ere, ez dio ezer ematen lanari eta dena jabetza pribatuari. Proudhonek kontraesan horretatik abiatuz lanaren alde eragin du eta jabetza pribatuaren aurka. Guk, ordea, ulertzen dugu itxurazko kontraesan hori *lan alienatuak* bere buruarekiko duen kontraesana dela eta ekonomia politikoak lan alienatu horren legeak adieraztea baizik ez duela egin.

Halaber, ulertzen dugu *alokairua* eta *jabetza pribatua* identikoak direla, zeren produktua ordaintzen duen alokairua, lanaren objektua, lana bera, lanaren alienazioaren ondorio beharrezkoa dela; alokairuan lana ez da agertzen bere baitako xede gisa, baizik alokairuaren zerbitzari gisa. Geroago xehakatuko dugu hori eta orain ondorio batzuk ateratzea bakarrik egingo dugu.

*Alokairuen jasotze* bortxatu bat, (gainerako zailtasun guztiak alde batera utzirik, anomalia bat delako bortxaz bakarrik mantendu ahal izango litzatekeela alde batera utzirik), *esklaboaren saritze* hobe bat besterik ez litzateke izango, beraz, eta ez langilearentzat, ez lanarentzat, ez lituzke bere giza bokazio eta duintasuna konkistatuko.

130

*Alokairuen berdintasunak* berak, Proudhonek eskatzen duenez, oraingo langilearen bere lanarekiko harremana gizaki guztien lanarekiko harreman bihurtzea besterik ez du egiten. Gizartea orduan kapitalista abstraktu gisa ulertzen da.

Alokairua lan alienatuaren ondorio bitartegabea da eta lan alienatua jabetza pribatuaren kausa bitartegabea da. Termino bat desagertzean, horregatik, bestek ere desagertu egin behar du.

(2) Lan alienatuaren jabetza pribatuarekiko harremanetik jarraitzen da, gainera, jabetza pribatuaren gizartearen emantzipazioa, etab. morrontzatik, langileen emantzipazioaren era *politikoan* adierazten dela, ez bakarrik *horien emantzipazioa* balitz bezala, baizik horien emantzipazioaren baitan dagoelako giza emantzipazio orokorra; eta hori horrela da giza morrontza osoa langilearen produkzioarekiko harremanean tarteko delako eta morrontza-harreman oro harreman horien modifikazioak eta ondorioak direlako.

*Lan alienatuaren, kanpokotuaren* kontzeptutik abiatuz *jabetza pribatuaren* kontzeptua *analisiaren* bidez aurkitu dugun bezala, horrela era berean bi faktore horien laguntzaz garatu ahal izango dira kategoria ekonomiko guztiak, eta kategoria horietako bakoitzean aurkituko dugu, —adibidez, tratua, konkurrentzia, kapitala, dirua—, lehen oinarri haien adierazpen *determinatua, garatua* bakarrik.

Taxuketa hori kontsideratu aurretik, bi auzi ebazten saiatuko gara.

(1) *Jabetza pribatuaren*, lan alienatuaren emaitza gisa emanaren *esentzia* orokorra determinatu, *jabetza egiazki gizatiar eta sozialarekiko* haren harremanean.

(2) Onartu egin dugu *lanaren alienazioa*, haren *kanpokotzea* gertakari gisa eta gertakari hori analizatu. Orain galdetzen dugu nola iristen da *gizakia* bere lana *alienatzera, kanpokotzera*? Nola oinarritzen da alienazio hori giza bilakaeraren esentzian? Asko daukagu irabazita arazo hori ebazteko *jabetza pribatuaren jatorriaren* auzia *lan aliena tuaren* harremanaren auzi eraldatzean gizateriaren bilakatze-joairan. Zeren *jabetza pribatuaz* hitz egiten denean uste izaten da gizakiaz kanpoko zerbaitekin duela zerikusia. Lanaz hitz egiten denean gizakiarekin berarekin dugu zerikusia bitartegabe. Galderaren formulazio berri hori berori bada horren ebazpena.

131

Ad. (1) *Jabetza pribatuaren esentzia orokorra eta jabetza egiazki gizatiarrekiko haren harremana.*

Lan kanpokotua elkar baldintzatzen duten edo harreman bat eta beraren adierazpen desberdinak diren bi osagaitan ebatzi zaigu, *jabekuntza alienazio* gisa agertzen da, *kanpokotze gisa*, eta *kanpokotzea jabekuntza gisa, alienazioa egiazko naturalizazio gisa.*

Aspektu bat kontsideratu dugu, lan *kanpokotua, langilearekiko* berarekiko harremanean, hau da, *lan kanpokotuaren erlazioa bere buruarekiko*. Produktu gisa, harreman horren emaitza beharrezko gisa aurkitu dugu *ez-langilearen jabetza-harremana langilearekin eta lanarekin. Jabetza pribatuak* lan kanpokotuaren adierazpen material, laburbildu gisa, bi harremanak besarkatzen ditu, *langilearen lanarekiko, haren lanaren produktuarekiko eta ez-langilearekiko harremana, eta ez-langilearen langilearekiko eta haren lanaren produktuarekiko harremana.*

Ikusia dugunez, bere lanaren bitartez naturaz *jabetzen* den langilearekiko harremanean jabetzea alienazioa gisa agertzen da —autojarduera bestearantz eta bestearen jarduera gisa, bizitza biziaren sakrifizio gisa, objektuaren produkzioa hura botere *alieno* bati, gizaki *alieno* bati galtzea bezala— guk orain gizaki *alieno* horren harremana kontsideratzen dugu langilearekiko, lanarekiko eta haren objektuarekiko.

Gutxienez ohartu beharra dago langilearengana *kanpokotze-*, *alienazio-jarduera* gisa agertzen dena, *ez-langilearengan kanpokotze-*, *alienazio-egoera* gisa agertzen dela.

Bigarrenik, langilearen *portaera praktiko*, *erreal*a produkzioan eta produktuarekiko (aldarte-egoera gisa) hari aurre egiten dion ez-langile gisa portaera *teoriko* gisa agertzen da.

*Hirugarrenik*. Ez-langileak langilearen aurka dena egiten du, langileak bere buruarena aurka egiten duena, baina ez du egiten bere buruaren aurka, langilearen aurka egiten duena.

Hurbilagotik kontsidera ditzagun hiru harreman horiek. [Hemen eskuizkribua eten egiten da, amaitu gabe.]

### *Jabetza Pribatua eta Komunismoa*

132

*Jabetza-gabeziaren* eta *jabetzaren* arteko antitesia *oraindik* antitesi axolagabea, *oraindik bere harreman aktiboan*, *bere barne*-loturan atzemangabea da, *oraindik kontraesan* gisa atzemangabeko antitesia da, *lana* eta *kapitalaren* arteko antitesi gisa atzematen ez den bitartean. Jabetza pribatuaren mugimendu mailakatua bera gabe ere, zeina, adibidez, antzinako Erroman, Turkian eta abarretan gertatzen baita, antitesi hori *lehen* forman adieraz daiteke. Horrela ez da *agertzen* jabetza pribatuak berak ezarria bezala. Baina lana, jabetza pribatuaren esentzia subjektiboa jabetzaren eskusio gisa, eta kapitala, lan objektiboa lanaren eskusio gisa, *jabetza pribatua* da kontraesaneraino garaturiko harreman bat bezala, eta horregatik disoluziora bultzatzen duen harreman dinamiko bat bezala.

Norberaren autoalienazioa gainditzeak [*Aufhebung*] autoalienazioaren bide bera jarraitzen du. Lehenik *jabetza pribatua* bere aspektu objektiboan bakarrik begiesten da, —baina lana haren esentzia gisa—. Haren existentzia-forma horregatik da *kapitala*, «halako den heinean» gainditu behar dena (Proudhon). Edo lanaren *era partikularra* —lan nibelatu, partzelatu eta, ondorioz, ez-askea— hartzen da jabetza pribatuaren *kaltegarritasunaren* eta haren gizakiarekiko existentzia arrotzaren iturri gisa. *Fourier*-ek, zeinek fisiokraten arabera, *nekazaritza-lana* berriz ere *ereduzko* kontsideratzen duen; *Saint Simonek*, aitzitik, *industria-lana* halako den heinean esentzia dela eta industrialen nagusitasun *esklusiboa* eta langileen egoera hobetzea bilatzen du. *Komunismoa*, azkenik, jabetza pribatu gaindituaren adierazpen *positiboa* da, lehenik, jabetza pribatu orokorra da. Harreman hori bere orokortasunean hartzean, komunismoa da: (1) Haren lehen forman harreman beraren *orokortze* eta *burutze* bat; eta halako den heinean taxuketa bikoitzean agertzen da: alde batetik jabetza *materialaren* nagusitasuna hain handia da haren aurrean, non hark deuseztu egin nahi duen jabetza pribatu gisa *guztiek* jabetua izateko gaitasuna ez duen dena; talentua abstraitu nahi du *era bortxazkoan*, eta abar. *Jabetze* fisiko bitartegabea da harentzat bizitzaren eta existentziaren xede bakarra, *langilearen* bokazioa ez da gainditzeko, baizik gizaki guztiengana hedatzen da; jabetza pribatuaren harremana erkidegoaren harremana da gauzen munduarekiko; azkenik jabetza pribatua jabetza orokorrari kontrajartzearen mugimendu hori adierazten da, animalia forman, zeinek kontrajarri nahi baitio *ezkontzari* (zeina bestalde *jabetza pribatu eksklusiboaren forma* bat baita) *ema kume-erkidegoa*, zeinean emakumea *jabetza komunal* eta *komun*



bihurtzen baita. Esan daiteke *emakume-erkidegoaren* ideia hori dela komunismo oraindik erabat gordin eta gogoetagabearen *sekretu aldarrikatua*.

133

Emakumea ezkontzatik irteten den bezala prostituzio orokorrean sartzeko, horrela aberastasunaren mundu osoa, hau da, gizakiaren esentzia objektiboarena, jabetza pribatudunarekiko ezkontza eskusiboko harremanetik irten egiten da erkidegoarekiko prostituzio unibertsaleko harremanean sartzeko. Komunismo hori —gizakiaren *personalitatea* erabat ukatzen duen heinean— jabetza pribatuaren adierazpen logikoa da, zeina ukapen hori baita. *Bekaizkeria* orokorra eta botere eratua *guti zia* eratzen den forma ezkutua baizik ez da, eta *beste* era batean asetzen da. Jabetza pribatu ororen ideia halako den heinean *gutxienez* jabetza pribatu *aberatsagoaren* aurka nibelazio-desira eta bekaizkeria gisa itzultzen da, halako modez, non horiek konkurrentziaren esentzia eratzen duten. Komunismo gordina gutizia eta nibelazio horren gailurtzea besterik ez da gutxieneko *errepresentatutik* abiatutik. Neurri *determi natu mugatu bat* du. Jabetza pribatuaren gainditze horrek egiazko jabekuntzatik daukan gutxia hain zuzen frogatzen du hezkuntzaren eta zibilizazioaren mundu osoaren ukapen abstraktuak, gizaki *behartsu* eta beharrik gabearen sinpletasun *antinaturalera* itzultzeak, zeinek ez baitu ez bakarrik gainditu jabetza pribatua, baizik eta hartara iritsi ere ez baita egin.

Erkidegoa *lan-erkidegoa* eta *alokairu-berdintasuna* bakarrik da, zeina kapitalista komunalak, kapitalista orokor gisa *erkidegoak* ordaintzen baitu. Harremanaren bi aldeak orokortasun *suposatu* batera jasotzen dira, *lana* bakoitza ezarria dagoen baldintza gisa, *kapitala* erkidegoaren unibertsaltasun eta botere aitortu gisa.

*Emakumearekiko* harremanean erkidegoaren luxuriaren *harra pakin* eta mirabe gisa, adierazten da degradazio amaigabea, zeinean gizakia existitzen baita bere buruarentzat, zeren harreman horren sekretuak bere adierazpen *bikoiztasunik gabea*, erabakigarria, *nabaria*, agertua baitauka *gizonaren emakumearekiko* harremanean eta espezieharreman bitartegabe eta naturala kontzebitzeko eran. Gizakiak gizakiarekiko harreman bitartegabe, natural eta beharrezkoa, *gizonak emakumearekin* duen *harremana* da. Espezie-harreman *natural* horretan, gizakiaren naturarekiko harremana gizakiarekiko haren harreman bitartegabea da, haren determinazio *natural* propioa. Harremana horretan nabaritzen da, bada, *era sentigarrian*, *gertakari* begiesgarri batera murrizturik, zer neurritan giza esentzia bihurtu den gizakiarentzat natura edo zer neurritan natura gizakiaren giza esentzia bihurtu den. Harreman horretatik epai daiteke gizakiaren kultura maila osoa. Harreman horren izaeratik ondorioztatzen da *gizakia* zer neurritan *espezie-izaki* bihurtu den, *gizaki*, eta halakotzat bere burua ulertu duen; gizonak emakumearekiko duen harremana da gizakiak gizakiarekiko duen harreman *naturalena*. Hartan erakusten da zer neurritan gizakiaren portaera *naturala gizatiar* bihurtu den edo zer neurritan haren *giza natura natura* bihurtu zaion. Harreman horretan, halaber, nabaria da zer neurritaraino gizakiaren *beharra gizatiar* bihurtu den, zer neurritaraino *beste* gizakia, gizaki gisa, berarentzat behar bihurtu den, zer neurritaraino bere existentzia banakoenean aldi berean izaki sozial den.

134

Jabetza pribatuaren lehen gainditze positiboa —komunismo *gor dina*—, ez da, beraz, jabetza pribatuaren doilorkeria *agertzeko era* bat bakarrik, zeinek bere burua *erkidego positibo* gisa ezarri nahi baitu.

(2.) Komunismoa (a) izaera politiko, demokratiko edo despotikokoa izanik ere; (b) estatuaren gainditzearekin, baina aldi berean oraindik esentzia osatugabearekin eta jabetza pribatuak, hau da, gizakiaren alienazioak afektatuarekin. Bi forma horietan komunismoak jadanik bere burua ezagutzen du berrintegrazio edo gizakiaren bere baitarako itzulera gisa, gizakiaren auto alienazioa gainditze gisa, baina oraindik jabetza pribatuaren esentzia positiboa atzeman ez duenez, eta gutxiago oraindik ulertu beharraren *giza* izaera, oraindik preso eta hartaz infektatua dago. Egia da kontzeptua ulertu duela, baina ez haren esentzia.

3) *Komunismoa* jabetza pribatuaren gainditze *positibo gisa gizakiaren autoalienazio*

den heinean, eta horregatik gizakiarengatiko eta gizakiarentzako *giza* esentziaren *jabetze* erreal gisa; horregatik gizakiaren bere baitarako itzulera gisa *gizaki sozial* den heinean, hau da, gizatiar; itzulera bete, kontziente eta gaurdainoko giza bilakaeraren aberastasun osoaren barruan burutu. Komunismo hori naturalismo burutu gisa humanismoa da, humanismo burutu gisa naturalismoa da; gizakiaren eta naturaren arteko gatazkaren *egiazko* soluzioa da, gizakiaren eta gizakiaren artekoarena, existentziaren eta esentziaren, objektibazioaren eta autobaieztapenaren, askatasunaren eta behartasunaren, norbanakoaren eta espeziaren arteko liskarraren behin betiko soluzioa. Historiaren enigma ebatzia da, eta badaki soluzioa dela.

135

Historiaren mugimendu osoa, beraz, nola haren sortze *erreal* —haren existentzia enpirikoaren jaiotza—, hala haren kontzientzia pentsatzailearentzat, haren *bilakaeraren* mugimendu *ulertu* eta *ezagutua*. Bitartean, oraindik osatugabea den komunismo hura bilatzen ari da jabetza pribatuari kontrajarritako taxuketa historikoetan haren aldeko froga *historiko* bat, froga bat, zeinean esplizituki existitu egiten baita. Horrenbestez erauzi egiten ditu une partikularrak mugimendutik (Cabet, Villegardelle, etab., zaldi horren gainean doaz bereziki) eta haren loratze historiko betearen frogatzat aurkezten dituzte. Horrekin argi uzten du mugimendu horren parterik nabarmenki handiena kontraesanean dagoela haren baieztapenekiko eta, behin izan bada, haren *iraganeko* izateak *esentziaren* uzia ezeztatzen duela.

Erraz ikusten da zer behar daukan mugimendu iraultzaile guztiak bere oinarria aurkitzekoa, nola enpirikoa hala teorikoa, *jabetza pribatuaren* garapenean, ekonomian zehazki.

Jabetza pribatu *material*, bitartegabe *hautemangarri* hau *giza* bizitza *alienatuaren* adierazpen materiala da. Haren mugimendua —produkzioa eta kontsumoa— orain arteko produkzio guztiaren mugimenduaren agerpen *sentigarria* da, hau da, gizakiaren egikaritzearena edo errealitatearena. Erlijioa, familia, estatua, zuzenbidea, morala, zientzia, arrea, etab., produkzioaren erapartikularrak besterik ez dira eta haren lege orokorraren azpian jartzen dira. *Jabetza pribatuaren* gainditze positiboa *giza* bizitzaren jabetze gisa horregatik da alienazio ooren gainditze positiboa, hau da, erlijiorik, familiarik, estatutik eta abarretik bere *giza existentziarako*, hau da, *sozialerako* itzulera. Alienazio erlijiosoa, halakoa den heinean, barne barrenaren kontzientziaren alorrean bakarrik gertatzen da, baina alienazio ekonomikoa *bizitza errealarena* da; hura gainditzeak bi aldeak besarkatzen ditu. Ulertzekoa da mugimenduak bere *lehen* hasiera herri desberdinetan era desberdinean izatea, populuen egiazko bizitza *berrezagutua* areago kontzientzian edo kanpoko munduan gertatzearen, bizitza idealagoa edo materialagoa izatearen arabera.

Komunismoa berehala hasten da ateismoarekin (*Owen*), baina ateismoa lehenik oso urrun dago *komunismo* izatetik, zeren ateismo hura oraindik areago baita abstrakzioa.<sup>1</sup> — Ateismoaren filantropia, horregatik, lehenik, filantropia *filosofiko* abstraktua da; komunismoarena bitartegabe *erreal*a eta zuzenean *egintzara* hedatua.

136

Ikusia dugu, jabetza pribatuaren gainditze positiboaren supostua emanik, gizakiak nola produzitzen duen gizakia, bere burua eta beste gizakia; nola objektua, bere indibidualitatearen jarduera bitartegabea den aldi berean bere existentzia propioa beste gizakientzat, haien existentzia eta haien existentzia berarentzat. Baina era berean, nola laneko materiala hala gizakia subjektu gisa, aldi berean, mugimenduaren emaitza eta abiapuntu dira (eta *abiapuntu* hori izatean datza hain zuzen jabetza pribatuaren *behartasun* historikoa). Izaera *soziala* da, beraz, mugimendu ororen izaera orokorra; gizartea bera den *bezala gizakia gizaki gisa produzitzen* duen bezala, horrela gizakiak produzitzen du gizartea ere. Jarduera eta gozamina ere sozialak dira, nola *existentzia-eran* hala haren edukian; jarduera *soziala* eta gozamen [*Genuss*] *soziala*. Naturaren *giza* esentzia ez da existitzen gizaki *sozialarentzat* baizik, zeren horrela bakarrik existitzen baita harentzat *gizakiarekiko lokarri* gisa, bere existentzia gisa bestearentzat eta bestearen existentzia gisa berarentzat, giza errealitatearen bizi-elementu gisa; horrela bakarrik existitzen da bere giza existentzia propioaren *oinarri* gisa. Orduan bakarrik bihurtzen zaio bere existentzia naturala *giza* existentzia, eta natura, gizaki. Gizartea, beraz, gizakiaren naturarekiko batasun bete esentziala da, naturaren egiazko berpiztea, gizakiaren naturalismo burutua eta naturaren humanismo burutua.

Jarduera soziala eta asetasun soziala ez dira existitzen, ez da gutxiago ere, jarduera *bitartegabe* komunitarioaren eta asetasun bitartegabe *komunitarioaren* forman *bakarrik*, nahiz eta jarduera *komunitarioa* eta gozamen *komunitarioa*, hau da, *gizarte errealean* beste gizaki batzuekin bitartegabe kanporatzen eta baieztatzen diren jarduera eta asetasuna, nonahi gertatuko dira gizartegarritasunaren adierazpen *bitartegabe* hura bere edukiaren esentzian oinarritzen eta bere naturari egokitzen zaion tokian.

Baina nik *zientifikoki* bakarrik dihardudanean ere, etab., —nik neuk besteekin erkidego bitartegabearen burutu ezin dudan jarduera batean—, ni *sozialki* aktiboa naiz, zeren *gizaki* bezala baitihardut. Ez da bakarrik nire jardueraren materiala —pentsatzailea ari den hizkuntza bezala— produktu sozial gisa ematen zaidana, baizik eta nire existentzia *propioa* da jarduera soziala, zeren nik egiten dudana gizartearentzat egiten dut eta izaki sozial bat izatearen kontzientzian.

137

Nire kontzientzia *orokorra* forma *teorikoa* besterik ez da, zeinaren forma *bizia* erkidego *erreal*a baita; izaki soziala, aldiz, gaur egun kontzientzia *orokorra* bizitza errealean abstrakzio bat da eta halako den heinean etsaikor aurre egiten dio. Hortik dator nire kontzientzia orokoraren jarduera, halako den heinean, nire existentzia *teorikoa* izatea izaki sozial gisa.

---

<sup>1</sup> Prostituzioa adierazpen partikular bat besterik ez da langilearen prostituzio orokorrarena, eta prostituzioa harreman bat denez gero, zeinak hartzen baitu bere baitan ez bakarrik prostituitua baizik baita prostituitzailea ere -zeinaren doilortasuna oraindik handiagoa baitahorrela kapitalista, etab., kategoria horretan sartzen da [Marxen oin-oharra]

Ezer baino lehen saihestu egin behar da «gizartea» berriro norbanakoaren aurrean abstrakzio gisa finkatzea. Norbanakoa *izaki soziala da*. Haren bizi-kanporatzea —nahiz eta ez agertu bizi-kanporatze komunitario baten forma bitartegabea, beste batzuekin batera buruturiko bizi-kanporatze batean— horregatik *bizitza sozialaren* kanporatze bat eta baieztapen bat da. Gizakiaren banako-bizitza eta espezie-bizitza ez dira hain *desberdinak*, nahiz eta —eta hori derrigorrean— banako-bizitzaren existentzia-modua espezie-bizitzaren modu *partikularrago* edo *orokorrago* bat izan, edo espezie-bizitza banako-bizitza *partikularrago* edo *orokorrago* bat.

*Espezie-kontzientzia* gisa gizakiak bere *bizitza sozial* erreala baieztatzen du eta bere existentzia erreala pentsamenduan errepikatzea baizik ez du egiten, alderantziz, espezie-izakia espezie-kontzientzian baieztatzen den bezala eta haren orokortasunean existitzen da esplizituki izaki pentsatzaile gisa. Gizakia —nahiz eta banako *partikular* bat izan, eta hain zuzen ere partikulartasun horrek bihurtzen du banako eta izaki sozial *banako* erreala— neurri berean, *totalitatea* da, totalitate ideala, beretzat pentsatu eta sentitutako gizartearen existentzia subjektiboa. Existentzia sozialaren errealitatean intuizio eta gozamen gisa errealitatean existitzen bezala eta bizi-kanporatze gizatiar baten totalitate gisa.

Pentsatzea eta izatea, bada, *desberdindurik* daude eta, aldi berean, *batasunean* elkarrekin.

*Heriotza* badirudi espeziearen garaipen gogor bat dela banako determinatuaren gainetik eta haien batasunari kontraesaten diola; baina banako determinatua *espezie-izaki determinatu* bat besterik ez da, eta halakoa den heinean hilgarria.

138

[4] *Jabetza pribatua* gizakia bere buruarentzat *objektibo* egiten delako adierazpen sentigarria bakarrik denez eta, aldi berean, objektu alieno eta ez-gizatiar berarentzat bihurtzen denez gero, haren bizi-kanporatzea haren bizi-kanpokotzea eta haren egikaritzea haren desegikaritzea, errealitate *alieno* bat, jabetza pribatuaren gainditze positiboa —hau da, gizakiarengatik eta gizakiarentzat giza esentzia eta bizitzaren, giza *obren* jabeakuntza sentigarria da kontzebitu behar soilik *goza men bitartegabe* eskusiboaren *zetzuan*, *jabetze*, *edukitze* zetzuan soilik. Gizakia bere esentzia askotarikoaz era askotarikoan jabetzen da, hau da, gizaki total bezala. Haren *giza* harreman bakoitza munduarekiko —ikustea, entzutea, usnatzea, dastatzea, pentsatzea, behatzea, hautematea, desiratzea, jardutea, maitatzea— hitz batean, haren banakotasuneko organo guztiak, zeinak bitartegabe komunitarioak baitira forman, objektuaren jabetze bat dira beren harreman *objektiboan* edo *beren harekiko harremanean*. Giza errealitateaz jabetzea, objektuarekiko haren portaera, *giza errealitatearen baieztapena* da; beraz, giza esentziaren determinazioak eta jarduerak bezain askotarikoa da; giza *eraginkortasuna* eta gizakiaren *sufrimendua* da, zeren sufrimendua, gizatiarki ulertua, gizakiaren autogozatze bat baita.

Jabetza pribatuak hain tentel eta aldebakarreko egiten gaitu, non objektu bat *gure* den, hura daukagunean bakarrik, guretzat kapital gisa existitzen denean edo bitartegabe jabetua, jana, edana, jantzia, bizi izana, hitz batean, guk erabilia denean. Nahiz eta jabetza pribatuak, bestalde, jabetzearen egikaritze bitartegabe horiek guztiak *bizi-bitarteko* huts gisa kontzebitzen dituen eta bitarteko gisa zerbitzatzen dioten bizitza *jabetza pribatuaren bizitza*, lana eta kapitalizazioa.

Zentzumen fisiko eta espiritual *guztien* tokian horrela zentzumen horien guztien

alienazioak ordezkatu da, *edukitzearen* zentzuak. Gizakiak erabateko pobretasuna horretara murriztu beharra zeukan bere barneko aberastasunaz erditzeko. (*Edukitzearen* kategoriaz, ikus *Hess*, in *21 Bogen*)

Jabetza pribatuaren gainditzea horregatik da zentzumen eta giza nolakotasun guztien *emantzipazio* osoa; baina emantzipazio horrek esan nahi du, hain zuzen ere, zentzumen eta propietate horiek guztiak *gizatiar* egin direla, nola zentzu objektiboan hala subjektiboan. Begia *giza* begi egin da, *objektua* objektu sozial egin den bezala, *gizatiar*, gizakiak gizakiarentzat sortua. *Zentzumenak* horrela bitartegabe *teoriko* egin dira beren praktikan. *Gauzarekiko* harremanetan jartzen dira gauzaren maitasunarengatik, baina gauza bera *giza* harreman *objektibo* bat da beretzat eta gizakiarentzat<sup>2</sup> eta alderantziz. Behartasunak eta gozamenak galdu egiten dute horrekin beren izaera egoista eta naturak galdu egin du bere *baliagarritasun* hutsa, baliagarritasuna *giza* baliagarritasun bihurtzean.

139

Era berean, beste gizakien zentzumenak eta gozamena nire jabetze *propio* bihurtu dira. Organo bitartegabe horiez gainera organo *sozialak* eratzen dira horrela, gizartearen *forman*; horrela, adibidez, gizartean besteekiko jarduera bitartegabea, etab., nire *bizi-kanporatzearen* organo bihurtzen da eta *giza* bizitzaren jabetze-modu.

Bistan dago *giza* begiak begi gordin ez-gizatiarraz bestetara gozaten duela, giza belarriak belarri gordinaz bestetara, etab.

Ikusia dugu. Objektua gizakiarentzat *giza* objektu edo gizaki objektibo denean bakarrik ez da galtzen gizakia bere objektuan. Hori bakarrik da posible objektua harentzat objektu sozial bihurtzen denean, eta bera bihurtzen da izaki *sozial*, gizartea, objektu horretan izaki bihurtzen zaion bezala.

Horrela, gizakiarentzat gizartean giza indar esentzialen errealitate egitean errealitate objektibatua, giza errealitate eta, horregatik, bere indar esentzial *propioen* errealitate harentzat *objektu* guztiak bere buruaren *objektibazio* bihurtzen zaizkio, haren indibidualtasuna baieztatzen eta egikaritzen duten objektu, *beraren* objektu, hau da, *bera* bihurtzen da objektu. *Nola* egiten diren beraren *objektuaren* izaeraren baitan dago eta *berari* dagokion *indar esentzialaren* izaerari, zeren hain zuzen harreman horren *mugatutasunak* taxutzen baitu baieztapenaren modu determinatu *erreal*. Objektu bat desberdina da *begiarentzat belarriaren* aldean eta begiaren objektua desberdina da belarriarenaren aldean. Indar esentzial bakoitzaren berezitasuna hain zuzen ere haren *izate berezia* da, baita haren izate *objektibo-errealaren*, haren *izate* biziaren objektibazioaren era berezia ere. Horregatik ez pentsamenduan bakarrik baizik zentzumen *guztiekin* baieztatzen du gizakiak bere burua mundu objektiboan.

140

Beste era batera, eta subjektiboki kontzebiturik, musikak bakarrik iratzartzen duen bezala gizakiaren zentzu musikala, musika ederrenak *inolako* zentzurik ez duen bezala entzumen ez-musikalarentzat, —ez da harentzat objektu, zeren nire objektua nire indar esentzialesetako baten baieztapena bakarrik izan baitaiteke, hau da, bakarrik izan daiteke niretzat nire indarra harentzat den heinean gaitasun subjektibo, zeren

---

<sup>2</sup> Praktikoki erlaziona naiteke subjektuaren gaiarekin era gizatiar batean, baldin eta bera gizatiarki erlazionaturik badago gizakiarekiko. [Marxen oin-oharra ]

objektuaren zentzua niretzat (berari dagokion zentzuan bakarrik du zentzua)— *nire zentzumena* iristen den tokiraino bakarrik iristen da, horregatik dira gizaki sozialaren *zentzumenak* ez-sozialarenaz bestelakoak; gizakiaren aberastasun objektiboki garatuaren bidez bakarrik da, partez landua, partez sortua, *giza* sentigarritasun subjektiboaren aberastasuna, entzumen musikal bat, formaren edertasunerako begi bat. Labur esateko, horrela bakarrik lantzen edo sortzen dira giza gozamenerako gai diren *zentzumenak*, *giza* indar esentzial gisa baieztatzen diren zentzumenak. Zeren bost zentzumenak ez ezik, baizik eta espiritual deituriko zentzumenak ere, zentzumen praktikoak (nahimena, maitasuna, etab.), hitz batean, *giza* zentzumena, zentzumenen gizatiartasuna, haren objektuaren existentziaren bidez bakarrik eratzen baitira, natura *gizatiartuaren* bidez. Bost zentzumenen *erakuntza* gaur arteko historia unibertsal osoaren lana da. Behar gordin praktikoaren preso den *zentzumenak* zentzu *mugatua* du bakarrik.) Gosez hiltzen dagoen gizakiarentzat ez dago janariaren giza formarik, baizik eta haren izate abstraktua janari gisa; hori aurkez liteke formarik gordinenean eta ezinezkoa litzateke orduan esatea zertan bereizten den elikatzeko jarduera hori elikatzeko *animaliaren* jardueratik. Gizaki behartsuak, kezka zamatuak, ez du zentzumenik ikuskizunik ederrenetarako. Mineraletan tratuan ari denak haien balio komertziala bakarrik ikusten du, ez haien edertasuna edo mineralaren izaera berezia, ez du zentzumen mineralogikorik. Giza esentziaren objektibazioa, nola zentzu teorikoan hala praktikoan, beharrezkoa da, beraz, nola gizakiaren *zentzumena* *gizatiar* bihurtzeko hala esentzia *gizatiar* eta naturalaren aberastasun osoari dagokion *giza zentzumena* sortzeko.

((Etorri datorren gizarteak eskura aurkitzen duen bezala kultur garapen [Bildung] horretarako material guztia, *horrela* erabat *eraturiko* gizarteak gizakia produzitzen du aberastasun bete horretan, zentzumen *guztiz aberaski eta sakonki* hornituriko gizakia, bere errealitate iraunkor gisa.))

Ikusten da, beraz, egoera sozialean subjektibismoak eta objektibismoak, espiritualismoak eta materialismoak, aktibitateak eta pasibitateak uzten dioten aurkako izateari eta halako aurkako gisa beren existentzia galtzen duten; ((ikusten da oposizio *teoriko* beren soluzioa era *praktikoan bakarrik*, gizakiaren energia praktikoaren bitartez bakarrik posible den eta, horregatik, soluzio hori ez den, inondik ere, ezagutzaren eginkizun eksklusiboa, baizik eta bizi-eginkizun *erreal*a, zeina *filosofiak* ezin baitzuen ebatzi eginkizun teoriko bezala *bakarrik* ulertzen zuelako.))

141

((Ikusten da *industriaren* historia eta industriaren existentzia *objektibo* egin dena, *giza indar esentzialen* liburu *irekia* dela, zentzumenetara irekitako *giza psikologia*, orain arte gizakiaren *esentziarekiko* loturan kontzebitua izan ez dena, baizik eta baliagarritasuneko kanpoharreman batean, zeren, alienazioaren barruan mugituz *giza indar esentzialen* harreman batean bakarrik atzematen baitzekien eta *giza egintza orokor* gisa gizakiaren existentzia orokorraren, —erlijioa edo historia beren esentzia orokor eta abstraktuan, politika, artea, literatura, etab. bezala—. *Ohiko industria materialean* (zeina kontzebi baitaiteke mugimendu orokor haren atal gisa, bera industriaren atal *berezi* bat bezala kontzebi daitekeen bezala, zeren orain arte giza jarduera guztia lana baitzen, hau da, industria, haren jarduera autoalienatua) geure artean daukagu, *objektu zentzumenezko, arrotz eta baliagarrien* formapean, alienazioaren formapean, gizakiaren indar esentzial objektibatuak. *Psikologia*, zeinarentzat itxita baitago liburu hau, hau da, hain zuzen historiaren parterik

sentigarriki presentekoena eta irisgarriena, ezin daiteke eduki erreala duen zientzia *erreal* bihurtu. Zer pentsa daiteke zientzia batez, zeinak *hautaz* abstrakzio egiten baitu giza lanaren parte handi horretaz eta ez baitu bere baitan haren osagabetasuna sentitzen, giza jardueraren hain aberastasun hedatuak ezer esaten ez dionean, hitz bakarrean esan daitekeena izan ezik: «*beharrizana*», «*behar arrunta*»?

*Natur zientziek* jarduera eskerga garatu dute eta etengabe gehituz doan material batez jabetu dira. Filosofia, hala ere, hain arrotz geratu dahaientzat, nola haiek filosofiarentzat. Aldiuneko batzea *lilura fantastiko* bat besterik ez zen izan. Bazegoen nahimena, baina bitartekoak falta ziren. Historiografia bera ere iraizean bakarrik arduratzen da natur zientziez ilustrazio, Baliagarritasun, aurkikuntza partikular handien faktore gisa. Baina, industriaren bidez, natur zientziak giza bizitzan *praktikoki* sartu, hura eraldatu eta giza emantzipazioa prestatu duten neurrian, desgizatze bitartegabea burutu behar zuten. *Industria* da naturaren harreman historiko *erreal*a (eta, horregatik, natur zientziarena) gizakiarekin; horregatik, giza *indar esentzialen* desestaltze *exoteriko* gisa kontzebitzean, halaber naturaren giza esentzia edo *gizakiaren* esentzia *naturala* ere ulertzen da; horrekin galdu egiten du natur zientziak bere orientazio abstraktua, materiala, edo hobeki idealista, eta *giza* zientziaren oinarri bihurtzen da, giza bizitza erreala oinarri bihurtu den era berean —nahiz eta forma alienatuan—, eta oinarri bat ematea bizitzari eta *beste* bat *zientziari*, beraz, alde aurretik, gezurra da. ((Giza historian garatzen den natura (gizartearen jaiotze-egintzan) gizakiaren izaera *erreal*a da; horregatik natura, nahiz eta forma *aliena tuan* garatu, industriaren bitartez, egiako natura *antropologikoa* da.))

142

*Zentzumen-pertzepzioak* (ikus bedi Feuerbach) zientzia ororen oinarri izan behar du. Bakarrik hartatik abiatzen denean kontzientzia sentigarriaren eta behar sentigarriaren forma bikoitzean, hau da, naturatik abiatzen denean bakarrik, da zientzia egiako zientzia. Historia osoa prestakuntza bat da «gizakia»rentzat kontzientzia *zentzumenezko aren* objektu eta «gizaki den heineko gizakiaren» behararentzat behar *zentzumenezko* bihurtzekoa. Historia bera natur historiaren atal *erreal* bat da, natura gizaki bihurtzearena. Egunen batean *natur zientziak* bere baitan subsumituko du gizakiaren zientzia, gizakiaren zientziak natur zientzia bezala; zientzia bakar *bat* izango da.

*Gizakia* natur zientziaren objektu bitartegabea da, zeren *zentzu men-natura* bitartegabea gizakiarentzat giza zentzumena da bitartegabe (adierazpen identikoa) berarentzat zentzumenez presente dagoen *beste* gizakiaren forman; haren zentzumen-pertzepzioa bakarrik; *bestearen* bitartez existitzen da berarentzat giza zentzumen-pertzepzio bezala. Baina natura da *gizakiaren zientziaren* objektu bitartegabea. Gizakiaren lehen objektua —gizakia— natura da, zentzumen-pertzepzioa, eta gizakiaren indar esentzial zentzumenezko bereziak mundu naturaleko Zientzian bakarrik aurki dezakete beren autoezagutza, objektu *naturaletan* bakarrik beren burutzapen objektiboa aurki dezakeen bezala. Pentsatzearen beraren elementua, pentsamenduaren bizi-adierazpena, *hizkun tza*, natura sentigarria da. Naturaren errealitate *soziala* eta giza natur zientzia edo gizakiaren natur zientzia adierazpen identikoak dira.

((Ikusten da ekonomia zabalaren *aberastasunaren* eta *miseriaren* tokian *gizaki aberatsa* eta *giza* behar *aberatsa* agertzen direla. Gizaki aberatsa da, aldi berean,

bizi-kanporatze gizatiarraren totalitatearen *beharra duen* gizakia. Gizakia zeinarengan bere egikaritze propioa barne-behar bezala, *premiatasun* bezala existitzen baita. Ez bakarrik *aberastasunak*, baita gizakiaren *pobretasunak ere, era* berean *giza* esanahi bat, eta horregatik, sozial bat hartzen du —ikuspegi sozialista batean—. Pobretasuna da lokarri pasiboa, zeinak sentiarazten barrio gizakiari behar gisa aberastasun handiena, *beste* gizakia. Izaki objektiboaren nagusitasuna nigan, nire jarduera esentzialaren leherdura zentzumenezkoa da, horrekin, hemen nire izakiko *jarduera grina* bihurtzen dena.))

143

(5) *Izaki* bat independente kontsideratzen da bere buruaren jabe denean bakarrik eta bere buruaren jabe da bakarrik bere buruari *existentzia* zor dionean. Beste baten graziaz bizi den gizaki batek bere burua izaki dependentetzat jotzen du. Hala ere, erabat bestearen graziaz bizi naiz zor diodanean ez bakarrik biziaren mantenimendua, baizik eta hark nire *bizitza sortu* duenean, nire bizitzaren *iturria* denean; eta nire bizitzak derrigorrean du hartaz kanpo oinarria neure sorkuntza propioa ez denean. *Sorkuntza* da, horregatik, populuaren kontzientziatik oso nekez ezaba daitekeen errepresentazio bat. Naturaren eta gizakiaren bere-buruaren-bidez izatea *kontzebiezina* gertatzen da, zeren kontraesanean baitago bizitza praktikoko *gertakari haztagarri* guztiekin.

Lurraren sorkuntzak kolpe gogorra hartu du *geognosiaren* [*geogonia*: areago] hau da, lurraren erakuntza, haren bilakaera, prozesu, autosorkuntza gisa azaltzen duen zientziaren aldetik. *Generatio aequivoca* da sorkuntza-teoriaren ezeztapen praktikoa bakarra.

Alabaina, benetan erraza da norbanako bakartuari esatea dagoeneko Aristotelesekin esaten duena: Heure aitak eta heure amak sortu haute, hau da, bi gizakiren koitoak, gizakien espezie-egintza batek sortu ditek hiregan gizakia. Ikusten duk, beraz, fisikoki ere gizakiak gizakiari zor diola existentzia. Horregatik ez duk alde bakar *bat* kontuan hartu behar, progresu *amaigabea*; eta hurrenez hurren galdetu: Nork sortu zun nire aita? Nork sortu zuen nire aitona?, etab. *Mugimendu zirkularra* ere, progresu hartan nabarmen ikuskorra dena, zeinean gizakiak bere burua errepikatzen baitu ugalketan, hau da, *gizakiak* beti bere burua subjektu gisa mantentzen du. Hik erantzungo duk, hala ere: onartzen dizut mugimendu zirkular hori, onariezadazu zuk gero eta urrunago bultza egiten didan progresua, harik eta galdetzen dudan arte, nork sortu du lehen gizakia eta natura, oro har? Hau bakarrik erantzun zezakeat: hire galdera bera abstrakzioaren produktua duk. Galdegiok heure buruari nola iritsi haizen galdera horretara: galdegiok heure buruari hire galdera ez ote datorren absurdoa delako erantzun ezin diodan ikuspuntu batetik. Galdegiok progresu hori existitzen ote den halako gisa pentsamendu arrazional batentzat. Gizakiaren eta naturaren sorkuntzaz galdegiten duanean gizakia eta natura abstraitu egiten dituk.

144

*Ez-existentztzat* suposatzen dituk eta *existentetzat* frogatzea nahi duk. Orain esaten diat, amore emaiok heure abstrakzioari eta horrela amore emango diok heure galderari ere, edo heure abstrakzioari heldu nahi badiok, hadi kontsekuentea, eta gizakia eta natura *ez-existentztzat* pentsatuz ere pentsatzen baduk, pentsa ezak heure burua ez existente gisa, zeren heu ere natura eta gizaki baitaiz. Ez pentsatu, ez galdetu niri, baina pentsatzen eta galdegiten duanean galdu egiten dik zentzu guztia naturaren eta gizakiaren izatearen hire *abstrakzioak*. Edota halako egoista al haiz,



non dena ezereztzat hartzen duan eta heuk bakarrik izan nahi duan?

Ihardets diezadakek: ez dut naturaren ezereza baieztatu etab.; haren *jaiotze-egintza* galdetzen dizut, anatomistari hezurren erakuntzaz galdetzen diodan bezala, etabar.

Hala ere, nola gizaki sozialistarentzat *historia unibertsal deituriko guztia* ezer ez den giza lanaren bitarteko gizakigintza baizik, naturaren bilakaerak gizakiarentzat horrela dauka froga nabaria, ezeztazina, bere baitatiko *jaiotzarena, bere sortze-prozesuarena*. Naturaren eta gizakiaren *esentzialtasuna era* praktikoa eta sentigarrian nabari bihurtzean; gizakia gizakiarentzat naturaren existentzia gisa eta natura gizakiarentzat gizakiaren existentzia gisa praktikoki, zentzumenez begiesgarri egin delarik, praktikoki ezinezko bihurtu da izaki *arrotz* bati, naturaren eta gizakiaren gainetik kokaturiko izaki bati buruzko galdera —naturaren eta gizakiaren ez-esentzialtasunaren berrezagutza bere baitan hartzen duen galdera bat—. *Ateismoak*, ez-esentzialtasun horren ukapen gisa, jadanik ez du zentzurik, zeren ateismoa *Jainkoaren ukapena* baita eta ukapen horren bidez *gizakiaren existentzia* ezartzen baitu; baina sozialismoak, sozialismo den heinean, jadanik ez du bitartekaritza hori behar; *zentzumenezko kontzientziatik hasten da, teoriko ki eta praktikoki*, gizakiaren eta naturaren izaki *esentzial* gisa. Gizakiaren *autokontzientzia positiboa*, erlijioaren gaitziteak jadanik ez bitartekotua da *komunismoa, bizitza erreala* gizakiaren errealitate positiboa den bezala, ez bitartekotua jadanik jabetza pribatuaren gaitzitez. Komunismoa posizioa da ukapenaren ukapena bezala, eta horregatik une *erreal* beharrezkoa, giza emantzipazioaren eta berreskuratzearen bilakaera historiko bitartegabea. *Komunismoa* etorkizun hurbilekoaren forma beharrezkoa eta printzipio dinamikoa da, baina komunismoa bere horretan ez da giza bilakaeraren xedea —giza sozietatearen forma.

145

### *Hegeldar Dialektikaren eta oro har Filosofiaren Kritika*

Puntu hau da agian lekua ulerkuntzarako eta justifikaziorako oro har Hegeldar Dialektikari buruz, baita haren *Fenomenologia* eta *Logikako* azalpenari buruz eta, azkenik, mugimendu kritiko modernoarekiko haren harremanaz argibide batzuk emateko.

Alemaniar kritika modernoaren ardura mundu zaharraren edukiaz hain zen indartsua, hain zegoen gaian murgildua, non erabat jarrera akritikoa izan baitzuen kritikatzeko metodoari buruz eta kontzientziagabezia osoa *partzialki formala*, baina errealki *esentziala* den honako auziari buruz: zer egoeratan gaude orain hegeldar dialektikaren aurrean? Kritika modernoak oro har hegeldar filosofiarekiko eta bereziki dialektikarekiko zuen harremanari buruzko kontzientziagabezia hain zen handia, non *Strauss* eta *Bruno Bauer* kritikariak, lehena erabat, eta bigarrena bere «*Sinoptiko*»etan (zeinetan *Straussen* aurrean gizaki abstraktuaren autokontzientzia ezartzen baitu «natura abstratua»ren substantziaren tokian eta *Kristautasun aurkituan* bertan ere bai) gutxienez potentzian Hegeldar Logikaren barruan erabat harrapaturik daude. Honela esaten da, adibidez, *Kristautasun aurkituan*:

«Autokontzientziak, mundua, desberdintasuna ezartzean, bere burua sortu ez balu bezala bere objektua sortzean, zeren berak ezabatu egiten baitu berriro berak sortutakoaren desberdintasuna, ze bera sorkuntzan eta mugimenduan bakarrik baita

bera; mugimendu horretan bere xedea ez balu bezala, etab. Edo: «Haiek (materialista frantsesek) ezin izan dute oraindik ikusi unibertsoaren mugimendua autokontzientziaren mugimendu gisa bakarrik egin dela erreal beretzat eta batasunera iritsi dela bere buruarekin.» Adierazpen horiek terminologian ere ez dute ageri desberdintasunik kontzepzio hegeldarrarekiko, baizik eta hitzez hitz errepikatzen dituzte.

Zer puntutaraino zen urria kritikaren egintzan (Bauer, *Sinoptikoak*) dialektika hegeldarrarekiko haren harremanaren kontzientzia, zer puntutaraino kontzientzia hori ez zen agertu kritika materialaren egintzaren ondoren Bauerrek frogatzen duen gauza da bere *Askatasunaren kausa onan* Gruppe jaunaren galdera desegokia: «zertan da logika orain?» baztertzen duenean, etorkizuneko kritikariei igorritz.

146

Baina orain ere, *Feuerbachek* (bai bere *Anecdotes* «Tesietan» eta bai xehekiro *Etorkizuneko filosofian*) porrokatu egin du dialektika zaharraren eta filosofia zaharraren muina; aitzitik, egitatea burutzeko gai izan ez zen kritika hura burutua ikusi zuenean, kritika huts, erabakigarri, absolutu, bere buruarekin argitasunera iritsia aldarrikatu zuenean; bere harrotasun espiritualistan, mugimendu historiko guztia munduaren berarekiko harremanera murriztu zuenean (zeinaren aurrean «masa» kategoriaren pean erortzen baita) eta disolbatu egin ditu kontraesan dogmatiko guztiak bere zorrotasun propioak munduaren ergeltasunarekin duen kontraesan dogmatiko bakarrean, Kristo kritikoak Gizateriarekin «*mordo*» gisa duenean, egunean-egunean eta orduz ordu frogatu ondoren bere bikaintasun propioa masaren ergeltasunaren aurrean; azkenik, *azken judizio* kritikoa iragarri duenean, haren aurrean gizateria dekadente guztia taldekatuko den eguna hurbiltzen ari dela aldarrikatuz, eta hark taldetan banatuko duela, mordo bakoitzak bere *testimonium paupertatis* hartuz; bere nagusitasuna giza sentimenduen gainetik eta munduaren gainetik inprimarazi ondoren, zeinaren gainean, bere bakardade harrean ostots eginez, noizean behin, jainko olinpikoen barrea erortzen bakarrik uzten baitu bere ezpain sarkastikoetatik; kritikaren forman iraungitzen den idealismoaren (neohegelianismoaren) aurpegi-imintzio dibertigarri horien guztien ondoren, horrek ez du adierazi bere amarekin, dialektika hegeldarrarekin kritikoki azaldu behararen susmoa ere, halaber, jakin izan ez duen bezala ohartarazpen kritiko bat Feuerbachen dialektikaz. Jarrera erabat akritikoa bere buruarekiko.

*Feuerbach* bakarrik da dialektika hegeldarrarekiko jarrera serio, kritikoa daukan bakarra, alor horretan egiazko aurkikuntzak egin dituen bakarra, oro har filosofia zaharraren egiazko irabazlea. Ekarpenearen tamaina eta Feuerbachek hura munduari ematen dion sotiltasun diskreto kontrajartze harrigarrian daude alderantzizko portaerarekin.

Feuerbachen balentria handia da:

1) Filosofia ideiatan ezarritako eta diskurtsiboki garatutako erlijioa den froga; beraz, hura bezain gaitzesgarria dela eta gizakiaren alienazioaren beste forma bat, beste existentzia-modu bat besterik ez dela.

2) *Egiazko materialismoaren* eta *zientzia erreala*ren oinarritzapena, «gizakiaren gizakiarekiko» harreman sozialaz Feuerbachek teoriaren oinarritzko printzipioa egiten duen heinean.

147

Positibo absolutua dela baieztatzen duen ukapenaren ukapenari bere baitan atsedena hartzen duen positiboa kontrajarri zion eta bere burua positiboki oinarritzen duen heinean.

Feuerbachek azaltzen du dialektika hegeldarra (eta horrenbestez oinarritzatzen du positiboaren, zentzumenezko-ziurraren abiapuntua) honetara:

Hegel substantziaren, abstrakzio absolutu eta finkatuaren alienaziotik abiatzen da (logikoki amaigabetik, orokor abstraktutik), hau da, modu herritarrean adierazita, Erljiorik eta Teologiatik abiatzen da.

*Bigarren:* Gainditu egiten du Amaigabea, Zentzumenezkoa, erreala, amaitua, partikularra (Filosofia, Erljioaren eta Teologiaren gainditzea).

*Hirugarren:* Berririo positiboa gainditzten du, berriz ere abstrakzioa berrezartzen du; Erljioaren eta Teologiaren berrezarpena.

Feuerbachek kontzebitzen du ukapenaren ukapena Filosofiak bere buruarekin duen kontraesan bat bezala *bakarrik*; Teologia (transzendentzia, etab.) baieztatzen duen Filosofia bezala, hura ukatu ondoren; zeina baieztatzen baitu bere buruarekiko kontrajartzean.

Ukapenaren ukapenean inplizitu dagoen posizioa edo autobaieztapena eta autoberrespena bere buruaz oraindik seguru ez dagoen posizio bezala kontzebitzen da, haren aurkakoaz zamatua, bere buruaz zalantzakor eta horregatik frogara behar duena, ez duena bere burua frogatzen, bada, bere existentziaren bidez; posizio aitortugabe gisa eta zeinari, horregatik, kontrajartzen baitzaio, zuzenean eta bitartegabe posizio zentzumenezko ziurra, bere baitan oinarritua.

Baina Hegelek ukapenaren ukapena, bertan inplizitu dagoen aspektu positiboaren arabera kontzebitu duen heinean, egiazko eta positibo bakarra bezala eta, halaber inplizitu dagoen aspektu negatiboaren arabera, egiazko egitate eta izaki oren baieztatze-egitate bakar gisa, adierazpen *abstraktu, logiko, espekulatiboa* bakarrik aurkitu du Historiako mugimendurako, zeina ez baita oraindik gizakiaren historia *erreala* subjektu auresupostu gisa, baizik gizakiaren espezie-egitate bakarrik, *gizakiaren jaiotzaren historia*. Forma abstraktua eta mugimendu horrek Hegelengan duen aldea azalduko dugu Feuerbachen *Kristautasunaren Esentzian* prozesu beraren kritika modernoarekiko kontrajartzean; edo areago, mugimendu horren *forma* kritikoa azalduko dugu Hegelengan oraindik akritikoa dena.

148

Begiratu bat sistema hegeldarrari. Hegeldar *Fenomenologiatik*, hegeldar Filosofiaren iturri egiazko eta sekretutik hasi behar da.

## *Fenomenologia*

### *A. Autokontzientzia*

I. *Kontzientzia*. α) Ziurtasun zentzumenezkoa edo «hau» eta esanahia. β) *Hautemanpena* edo gauza bere propietateekin eta *lilura*. γ) Indarra eta adimena, fenomeno eta zentzumenaz gaineko mundua.

II. *Autokontzientzia*. Norbere buruaren ziurtasunaren egia. A) Autokontzientziaren

dependentzia eta independentzia, jauntasuna eta morrontza. B) Autokontzientziaren askatasuna. Estoizismoa, eszeptizismoa, kontzientzia dohakabea.

III. *Arrazoi*. Arrazoiaren ziurtasuna eta egia. Arrazoi behatzailea; naturaren behaketa eta autokontzientzia. B) Autokontzientzia arrazionalaren egikaritzea beraren bitartez. Gozamina eta beharritana. Bihotzaren legea eta presuntzioaren eldarnioa. Bertutea eta munduaren joira. C) Indibidualtasuna erreala dena bere baitan eta beretzat. Espirituaren animala erresuma eta iruzurra edo gauza bera. Arrazoi legegilea. Arrazoi lege-aztertzailea.

#### B. *Espiritua*

I. Egiazko espiritua: etika. II. Espiritu bere baitatik alienatua, kultura. III. Espiritua bere buruaz ziur, moralitatea.

#### C. *Erljioa*

*Erljio naturala, erljio estetikoa, erljio agertua.*

#### D. *Jakite absolutua*

149

Nola Hegelen *Entziklopedia* logikarekin hasten den, pentsamen *du espekulatibo hutsarekin*, eta *jakite absolutuarekin* amaitzen den, espiritu autokontzientiarekin, bere burua atzematen duenarekin, filosofiko, absolutuarekin, hau da, gizakiaz gaineko espiritu abstraktuarekin, *Entziklopedia* osoa espiritu filosofikoaren *esentzia hedatua* besterik ez da, haren objektibazioa; Espiritu filosofikoa, bestalde, munduaren espiritu alienatua besterik ez den bezala, zeinek pentsatzen baitu bere autoalienazioaren barruan, hau da, bere burua era abstraktuan atzematen baitu. *Logika* espirituaren *dirua* da, *balio pentsatua*; espekulatiboa, gizakiarena eta naturarena; haren esentzia erabat axolagabe egin dena determinazio erreal orekiko eta, horregatik, irreal dena; *pentsamendu alienatua* da horregatik naturaren eta gizaki errearen abstrakzio egiten duena; pentsamendu abstraktua. *Pentsamendu abstraktu horren kanpokotasuna... natura* pentsamendu abstraktuarentzat den bezala; hartaz kanpokoa da, bere buruaren galera; eta hark kanpotik atzematen du hura ere, pentsamendu abstraktu gisa, baina pentsamendu abstraktu alienatu gisa; azkenik, *espiritua*, bere sehaska propiora itzultzen den pentsamendu hori, zeinak espiritu antropologiko, fenomenologiko, psikologiko, moral, artistiko-erlijioso oraindik ez baitu bere buruarentzat balio, harik eta, azkenik, *jakite absolutu*, hau da, abstraktu gisa, eta bere existentzia kontzientea, dagokion existentzia hartzen duen arte, zeren haren existentzia erreala *abstrakzioa* baita.

Hegelen akats bikoitz bat.

Lehena erarik argienean sortzen da *Fenomenologia*, hegeldar filosofiaren sehaska den heinean, adibidez, aberastasuna, estatu-boterea, etab., *gizakiarentzat* esentzia alienatu gisa kontzebitzen dituenen, hori pentsamendu-forman bakarrik gertatzen da... Izaki idealak dira eta horregatik pentsamendu filosofiko hutsaren, hau da, abstraktuaren alienazio *huts* bat. Mugimendu osoa horregatik *jakite absolutuarekin* amaitzen da. Hain zuzen ere, pentsamendu abstraktutik daude alienatuak objektu horiek eta hain zuzen ere pentsamendu abstraktuari arre egiten diote bere

errealitate-uziarekin. *Filosofoa* —gizaki alienatuaren forma abstraktu bat, beraz— mundu alienatuaren *neurri* bihurtzen da. *Kanpotartzearen historia* osoa eta kanpotartzearen *itzularazte* guztia pentsamendu abstraktuaren, hau da, absolutuaren, pentsamendu logiko espekulatiboaren *ekoizpen-historia* baizik ez da. *Alienazioa*, zeina baita, beraz, kanpotartze honen eta kanpotartze honen gainditzearen egiazko interesa, bere *baitakoaren* eta *bere baitarakoaren*, *kontzientziaren* eta *autokontzientziaren*, *objektuaren* eta *subjektuaren* kontrajartzea da, hau da, pentsamenduaren beraren barruan, pentsamendu abstraktua eta errealitate zentzumenezkoaren edo errealitate errearen arteko kontrajartzea. Kontrajartze horien gainerako kontrajartze eta mugimendu guztiak *itxura*, *estalkia*, kontrajartze horien forma *exoterikoa* besterik ez dira, interesgarri bakarrak, gainerako kontrajartze profanoen *zentzua* eraten dutenak. Alienazioaren esentzia ezarri gisa balio duena eta gainditu behar dena ez da gizakia era *ez-gizatiarrean*, bere buruarekiko kontrajartzean *objektibatzea* baizik eta pentsamendu abstraktuarekiko *desberdintasunean* eta *kontrajartzean objektibatzea*.

150

Gizakiaren indar esentziaz, objektu eta objektu alienatu bihurtuz jabetzea *kontzientzian*, *pentsamendu hutsean*, hau da, *abstrakzioan* gertatzen den *jabetze* bat da, *pentsamenduak* eta *pentsamendu-mugimenduak* bezalako objektuez jabetzea, horregatik, jadanik latente dago *Fenomenologia* —nahiz eta haren itxura erabat negatibo eta kritikoa, eta haren baitako kritika errealia izan, zeina sarritan asko aurreratzen baitzaio ondorengo garapenari— ernamuin gisa, potentzia gisa, misterio gisa presente dago, Hegelen ondorengo obretako positibismo akritikoa eta era berean idealismo akritikoa, enpiria existentearen disoluzio eta errestaurazio filosofiko horiek.

*Bigarrenik*. Gizakiak mundu objektiboa ereibindikatzea —adibidez, kontzientzia *zentzumenezkoaren* ezagutza ez da kontzientzia zentzumenezko *abstraktu* bat, baizik kontzientzia zentzumenezko gizatiar bat; erlijioaren, aberastasunaren eta abarren ezagutza, *giza* objektibazioaren errealitate alienatua baizik ez dira, egintzarako jaiotako *giza* indar esentzialak eta, horregatik, *bidea* bakarrik egiazko *giza* errealiterantz—, jabetze hori edo prozesu horren ulerkuntza halako moldez agertzen da Hegelengan, non *sentsibilitatea*, *erlijioa*, estatu-boterea, etab., esentzia *espiritualak* diren, zeren *espiritua* soilik baita gizakiaren *egiazko* esentzia, eta espirituaren egiazko forma espirtu pentsatzailea da, espirtu logiko espekulatiboa. Naturaren *gizakitasuna* eta historiak ekoiztako naturarena, gizakiaren produktuena, agertzen da haiek espirtu abstraktuaren *produktuak* izatean eta, horregatik, eta neurri horretan bertan, *memento spiritualak*, *esentzia pentsatuak*. *Fenomenologia* kritika ezkutatua da, bere buruarentzat oraindik iluna eta mistifikatzailea dena; baina gizakiaren *alienazioa* eradukitzen duen heinean —nahiz eta gizakia espirituaren forman bakarrik agertzen den— hartan ezkutaturik daude kritikaren elementu guztiak eta sarritan *prestaturik* eta *landurik* ikuspuntu hegeldarra zabalkiro gainditzeko duen modu batean. «Kontzientzia dohakabea», «kontzientzia jatorra», «kontzientzia noblearen eta kontzientzia bilauaren» borroka, etab., sail solte horiek bere baitan daukate —nahiz eta forma alienatu batean— erlijioa, estatua, bitzta zibila, etab., esfera osoen elementu kritikoak. Nola *esentzia*, *objektua* bezala, esentzia pentsatu gisa agertzen den, hala *subjektua* da beti *kontzientzia* edo *autokontzientzia*; edo hobeki, objektua kontzientzia abstraktu bat bezala bakarrik

agertzen da, gizakia autokontzientzia bezala bakarrik; han sortzen diren alienazio-forma desberdinak, horregatik, kontzientziaeta autokontzientzia-forma desberdinak bakarrik dira. Nola kontzientzia *abstraktua bere baitan* —objektua halakotzat kontzebitzen da— beti memento bat den, *autokontzientiaren* desberdintzearena, horrelaxe sortzen da mugimenduaren emaitza gisa autokontzientiaren identitatea kontzientiarekin, jakite absolutua, pentsamendu abstraktuaren mugimendua, zeina jadanik ez baitoa kanpora, baizik bere baitan, hau da, emaitza pentsamendu hutsaren dialektika da.

151

*Fenomenologia* hegeldarraren handiostasuna eta haren azken emaitza da —negatibitatearen dialektika printzipio mugiarazle eta sortzaile gisa—, lehenik, Hegelek gizakiaren autosorkuntza prozesu bat bezala kontzebitzen duela, objektibazioa desobjektibazio bezala, kanpotartze eta kanpotartze horren gainditze bezala: *lanaren* esentzia atzematen duela eta gizaki objektiboa kontzebitzen duela, egiazkoa erreala delako, haren *lan propioaren* emaitza gisa. Gizakiak bere buruarekin duen harreman *erreal*, aktiboa espezie-izaki gisa, edo bere buruaren agerpen gisa espezie-izaki orokor gisa, hau da, gizaki gisa, bakarrik da posible bere *espezie-indar* guztiak errealki kanporatzen dituelako —zeina, bestalde, bakarrik baita posible gizakien lankidetzaren bidez, historiaren emaitza gisa— eta haiekiko objektuekiko bezala portatzen baita, zeina hasteko alienazio-forman bakarrik baita posible.

Orain xeheki aurkeztuko dugu Hegelen mugen aldebakartasuna *Fenomenologiako* azken kapituluaren, jakite absolutuaren argitan: kapitulu horrek alde batetik Fenomenologiaren espiritu kondentsatua, dialektika espekulatiboarekiko harremana, dauka eta besterik, Hegelen biekiko eta haien elkarrekiko harremanaren *kontzientzia*.

Oraingoz hau bakarrik aurreratuko dugu: Hegel ekonomia politiko modernoaren ikuspuntuan kokatzen da. *Lana* gizakiaren *esentzia* gisa, bere burua berresten duen gizakiaren esentzia gisa kontzebitzen du; hark lanaren aspektu positiboa bakarrik ikusten du, ez haren aspektu negatiboa. *Lana gizakiaren bere buruarentzako bilakaera* da *kanpotartzearen* barruan edo gizaki *kanpotartu* gisa. Hegelek ezagutzen eta berrezagutzen duen lan bakarra *abstraktu espiritual* da. Oro har, filosofiaren *esentzia* eratzen duena —*bere burua ezagutzen duen gizakiaren kanpotartzea*, edo pentsatzen den *zientzia kanpotartua*, Hegelek lanaren esentzia gisa atzematen du eta horregatik, aureko filosofiaren aurrean, haren memento desberdinak bil ditzake, haren filosofia Filosofia gisa aurkeztu. Beste filosofoek egin zutena —naturaren eta giza bizitzaren memento bakartuak atzeman autokontzientiaren edo, zehatzago, autokontzientzia abstraktuaren memento gisa— hori Hegelek *badaki* filosofiaren *egite* gisa. Horregatik da haren zientzia absolutua.

152

Pasa gaitezen orain geure objektura.

*Jakite absolutua*. Fenomenologiako *azken kapitulua*.

Gai nagusia da kontzientiaren *objektua autokontzientzia* besterik ez dela, edo objektua *autokontzientzia objektibatu* besterik ez dela, autokontzientzia objektu gisa. (Gizakia ezartzea = Autokontzientzia.)

Kontua da, beraz, *kontzientiaren objektua* gainditzea. *Objektibitatea* bere horretan gizakiaren harreman *alienatu* bat da, *giza esentziari*, autokontzientiari ez dagokion

harreman bat, alienatu gisa alienazioaren determinaziopean sortutako gizakiaren esentzia objektiboaz *birjabetzeak ez du bakarrik alienazioa* gainditzearen esanahia, baita objektibitatea ere; hau da, gizakiak balio du izaki *ez-objektibo, espiritualista* gisa ere.

*Kontzientziaren objektua gainditzearen* mugimendua Hegelek honela deskribatzen du:

*Objektua ez da agertzen soilik (hau Hegelen arabera mugimendu haren kontzepzio aldebakarra da alde bakarra atzematen duena) bere baitara itzuliz bezala. Gizakia bere beretasuna da. Baina beretasuna bera gizakia abstraktuki kontzebitua eta abstrakzioaren bidez sortua baizik ez da. Gizakia norbera bat da. Bere begia, bere, belarria, etab., beretasuna dira; haren indar esentzialetako bakoitzak beretasunaren propietatea du harengan. Horregatik da erabat faltsua esatea: autokontzientziak begiak, belarriak, indar esentzialak. Autokontzientzia areago da giza naturaren, giza begiaren eta abarren nolakotasun bat, ez auto kontzientziaren giza natura.*

Norbera abstrahitu eta finkatua bere buruarentzat da gizakia *egoista abstraktu* gisa, *egoismoa* haren abstrakzio hutsean pentsamenduraino jaso. (Geroago itzuliko gara honetara.)

153

*Giza esentzia, gizakia, autokontzientzia* da Hegelentzat. Giza esentziaren alienazio oro *autokontzientziaren alienazioa baizik ez da*. Kontzientziaren alienazioa ez da adierazpen kontsideratzen, giza esentziaren alienazio *errealaren* jakitean eta pentsatzean islatzen den adierazpena. Alienazioa *erreal*a, halakotzat agertzen dena ez da, aitzitik, haren esentzia *barnekoen* eta ezkutukoena —Filosofiak bakarrik argitara ateratzen duena— giza esentzia *errealaren, autokontzientziaren* alienazioaren *agerpena* besterik ez da. Horregatik hori ulertzen duen zientziari *fenomenologia* deitzen zaio. Esentzia objektibo alienatuaren birjabetze oro horrela agertzen da autokontzientziaren inkorporazio gisa; bere esentzia *errealaz* jabetzen den gizakia esentzia objektiboaz jabetzen den autokontzientzia *besterik ez da*; objektuaren bere baitarako itzulera da, beraz, objektuaren birjabetzea.

*Orokorki* adierazita *autokontzientziaren objektuaren gainditzea* da: 1) Objektua halako den heinean kontzientziari iraungikor gisa agertzen zaiola. 2) Autokontzientziaren kanpotartzea dela gauzatasuna ezartzen duena; 3) kanpotartze horrek ez duela esanahi *positiboa* bakarrik, baita *negatiboa ere*; 4) ez duela bakarrik *guretzat* edo bere baitan, baita *berarentzat ere*; 5) *autokontzientziarentzat* objektuaren negatiboa edo haren bidez bere burua gainditzeak esanahi *positiboa* du —edo berdin dena, *berak ezagutzen* du haren ezezkotasun hori—, zeren berak bere burua kanpotartzen baitu, zeren kanpotartze horretan *bere burua* objektutzat ezartzen baitu edo objektua bera bezala ezartzen du *beretzat-izatearen* batasun bereiztezinaren indarrez. 6) Bestalde, ere berean presente dago beste memento hau, hau da, hark [autokontzientziak] gainditu eta bere baitan berrartu dituela kanpotartze eta objektibitate horiek *bere* beste-izatean *halako gisa* bere baitan dagoela; 7) hori da kontzientziaren mugimendua eta hau da, berarengatik, haren mementoen totalitatea; 8) Hark [autokontzientziak] objektuarekin portatu behar du bere determinazioen totalitatearen arabera eta horietako bakoitzaren arabera atzeman behar izan du. Haren determinazioen totalitate horrek *esentzia espiritual* bihurtzen du *bere baitan* eta kontzientziarentzat hori egia bihurtzen da haietako

[determinazioetako] bakoitza partikularrean atzematez *norbera* bezala edo lehen aipaturiko haiekiko portaera *espiritual*ez.

Ad (1) Objektua halakoa den heinean kontzientziaren aurrean iraungikor gisa aurkeztea lehen aipaturiko *objektuaren bere baitarako itzulera* da.

154

Ad (2) *Autokontzientziaren kanpotartzeak* ezartzen du *gauzatasuna*. Zeren gizakia = autokontzientzia, haren esentzia objektibo alienatua, edo *gauzatasuna* (harentzat *objektu dena*, eta objektu esentzial zaiona bakarrik da harentzat egiaz objektu, hau da, haren esentzia *objektiboa* dena. Alabaina, zeren eta gizaki *erreal*a halakoa den heinean subjektu egiten ez denez eta, beraz, ezta *natura ere* —gizakia *giza natura* da— baizik gizakiaren abstrakzioa bakarrik, autokontzientzia, gauzatasuna autokontzientzia kanpotartua bakarrik izan daiteke) = *autokontzientzia kanpotartua* eta *gauzatasuna* kanpotartze horren bidez ezartzen da. Erabat naturala da izaki bizi, natural indar esentzial objektiboz hau da, materialez dotatu eta hornituak, bere izakiaren objektu *erreal*, naturalak edukitzea, eta era berean bere autokanpotartzea mundu *erreal*, objektibo bat ezartzea izatea, baina *kanpotartasunaren* formapean, hau da, haren izatekoa eduki gabe, hura menderatuz. Ez dago ezer kontzebiezinik edo enigmatikorik horretan. Aitzitik, alderantzizkoa izango litzateke enigmatikoa. Baina era berean, argia da *autokontzientzia* bat, hau da, bere kanpotartzearen bidez *gauzatasuna*, hau da, gauza abstraktu bat, abstrakzioko gauza bat ezar dezakeela eta ez gauza *erreal* bat. Gainera, era berean argi dago gauzatasuna, beraz, ez dela ezer *independentea*, *esentziala*, autokontzientziaren aurrean, baizik sorkuntza huts bat, hark *ezarritako* zer bait, eta ezarritakoa, bere burua baieztatu ordez, ezartze-egitatearen baieztapen bat besterik ez da, zeinek memento batez bere energia produktua bezala finkatzen baitu eta, *itxuraz* —baina aldiune batez soilik izaki independente, erreal bat esleitzen baitio.

*Gizaki* erreal, soindunak, lur biribildu finkoaren gainean zutik, indar natural guztiak arnasean kanporatuz eta barneratuz bere *indar esentzial* erreal eta objektiboak objektu arrotz gisa *ezartzen* dituenen bere kanpotartzearen bidez, *ezartzea* ez da subjektu; indar esentzial *objektiboen* subjektibitate da, zeinaren egintzak, horregatik, halaber *objektiboa* izan behar baitu. Izaki objektiboak objektiboki jarduten du, eta ez luke objektiboki jardungo, baldin eta objektiboa dena ez balego bere determinazio esentzian. Objektuak sortu eta ezarri bakarrik egiten du zeren hura [izaki objektiboa] objektuen bidez ezarria delako, berez *natura* delako. Ezartzearen egintzan ez da errotzen, bada, bere «jarduera huts»etik *objektuaren sortze* batera, baizik eta haren produktu *objektiboak* besterik gabe berretsi egiten du haren jarduera objektiboa, haren jarduera izaki natural objektibo baten jarduera gisa.

155

Hemen ikusten dugu nola naturalismo burutua, edo humanismoa nola bereizten den idealismotik eta materialismotik eta, aldi berean, nola den bien egia bateratzailea. Halaber, ikusten dugu nola naturalismoa bakarrik den gai historia unibertsalaren egintza ulertzeko.

*Gizakia izaki natural* da bitartegabe. Izaki natural gisa, eta izaki natural bizi gisa, alde batetik, *indar naturalez*, *indar biziz* dotaturik dago, izaki natural aktiboa da; indar horiek talentu eta gaitasun gisa, *bulkada* gisa existitzen dira harengan; bestalde, izaki natural, soindun, zentzumenezko, objektibo gisa, animalia eta landarea bezala, izaki



*pairatzaile*, baldintzatua eta mugatua da; hau da, haren bulkaden *objektuak* hartaz kanpo daude, harekiko *objektu* independenteak diren heinean, baina objektu horiek haren *beharrizanaren objektuak* dira, haren indar esentzialen ariketa eta baieztapenerako *objektu* ezinbesteko eta esentzialak. Gizakia izaki *soindun* indar naturalekikoa, bizia, erreala, zentzumenezkoa, objektiboa izateak esan nahi du bere izatearen, bere bizikanporatzearen objektutzat *objektu erreal*, *zentzumenezkoak* dituela edo objektu erreal zentzumenezkoetan bakarrik *kanpora* dezakeela bere bizi-tza. Objektibo natural zentzumenezkoa *izatea*, norberaz kanpo objektua, natura, zentzua edukitzea bezalaxe da, edo hirugarren batentzat objektu, natura, zentzu izatea gauza bera da. Gosea behar naturala da; beraz, natura bat, objektu bat behar du bere buruaz kanpo asetzeko, baretzeko. *Gosea* nire soinak daukan *beharrizan* objektibo bat da hartaz kanpo dagoen *objektu* batena, ezinbestekoa dena bere integrazioarako eta bere *natura* adierazteko. Eguzkia landarearen objektua da, objektu ezinbesteko bat harentzat, haren biziaren baieztatzailea, landarea Eguzkiaren objektua den bezala, Eguzkiaren indar bizi-azlearen *kanporatze* gisa, Eguzkiaren indar esentzial *objektibo* gisa. Izaki bat, bere natura kanpoan ez daukana, ez da izaki *naturala*, ez du esku hartzen naturaren izatean.

Izaki bat, bere baitatik kanpora objekturik ez duena, ez da izaki objektiboa. Izaki bat, hirugarren izaki batentzat objektu ez dena, ez du izakirik bere *objektutzat*, hau da, ez da objektiboki portatzen, haren izatea ez da objektiboa.

Izaki ez-objektibo bat *ez-izaki* bat da.

Demagun izaki bat, bera objektu ez dena eta objekturik ez duena. Halako izaki lehenik izaki *bakarra* izango litzateke, ez litzateke izakirik existituko hartaz kanpo, bakar eta bakarti existituko litzateke. Bada, nitaz kanpo objektuak dauden bezain laster, *bakarrik ez* nagoen bezain laster, *beste* bat naiz, *beste errealitate* bat nitaz kanpoko objektuaren aldean. Hirugarren objektu horrentzat ni *beste errealitate* bat naiz beraren aldean, hau da, *haren* objektua. Izaki batek, beste izaki baten objektu ez denak, suposatzen du ez dela existitzen izaki objektiborik. Nik objektu bat daukadan bezain laster, objektu horrek ni nauka objektutzat. Baina izaki ez-objektibo bat izaki irrazionala, ez zentzumenezkoa, pentsatu soila, hau da, irudikatu soila da, abstrakzio-izaki bat da. *Zentzumenezkoa* izatea, hau da, erreala izatea zentzumenen objektu izatea da, objektu *zentzumenezkoa*, ondorioz, objektu zentzumenezkoak bere baitatik kanpo edukitzea, bere sentsibilitateko objektuak edukitzea. Zentzumenezkoa izateak pairatzea esan nahi du.

156

Gizakia izaki zentzumenezko objektibo gisa, horregatik, *pairatzailea* da eta bere pairamendua sentitzen duen izaki gisa, izaki *pasio duna*. Pairamendua, pasioa bere objekturantz errerrikoki lehiatzen den gizakiaren indar esentziala da.

Gizakia ez da, ordea, izaki natural bat bakarrik, baizik *giza* izaki natural bat, hau da, bere buruarentzat den izaki bat, horregatik *espezie-izaki* bat dena, eta halo den heinean bere burua baieztatu behar duena: eta bere burua nola bere izatean hala bere jakitean berretsi behar duena. Ezta *giza* objektuak dira, bada, objektu naturalak bitartegabe eskaintzen diren bezala, ezta *giza zentzumena*, bitartegabe den bezala, objektiboki den bezala da *giza* sentsibilitate, *giza* objektibitatea. Ez objektiboki ezta subjektiboki existitzen da natura bitartegabe *gizakiaren* aurrean era egokian; eta naturala den orok *jai*o behar duenez, *gizakiak ere* badu bere jaiotze-egintza, historia,

zeina, hala ere, berarentzat historia jakina baita eta, horregatik, jaiotze-egintza kontzientziadun gisa, bere burua gainditzeko duen jaiotze-egintza da. *Historia* gizakiaren egiazko natur historia da (honetara itzuliko gara).

Hirugarrenik, eta gauzatasuna ezartze hori itxura bat besterik ez delako, jarduera hutsaren esentzia kontraesaten duena, gainditua izan behar du, gauzatasunak ukatua izan behar du.

Ad 3,4,5, 6: 3º) Kontzientziaren kanpotartze horrek ez du esanahi *negatiboa* bakarrik, baita *positiboa* ere eta, 4º, esanahi positibo horrek ez *gureztat* edo bere baitan bakarrik, baizik berarentzat, kontzientziarentzat berarentzat. 5º) *Harentzat* objektuaren negatiboa edo horren autogainditzeak esanahi *positiboa* du, edo haren ezezkotasun hori *ezagutu* egiten du berak *bere burua* kanpotartzen duelako, zeren kanpotartze horretan berak bere burua *ezagutzen* baitu objektu gisa edo objektua ezagutzen du, izakiaren *bere-buruarentzat-izatearen* batasun bereiztezinaren bidez bere burua bezala. 6º) Bestalde, beste mementoa hor dago aldi berean, kontzientziak gainditu eta berrartu dituen bere baitan kanpotartze eta objektibitate hori, eta horrela bere *baitan dago bere beste-izatean halako den heinean*.

157

Dagoeneko ikusia dugu. Izaki objektibo alienatuaren jabetzea edo objektibitatearen gainditzea *alienazioaren* determinaziopean —zeinak aurrera egin behar baitu arrotzasun axolagabetik alienazio erreal etsaikorreraino— badu Hegelentzat ere berean, edo nagusiki, *objektibitatea* gainditzearen esanahia, zeren objektuaren izaera *determinatua* ez, baizik haren izaeran izaera *objektiboa* baita autokontzientziarentzat eskandalua eta alienazioa. Objektua, horregatik, negatibo bat da, bere burua gainditzeko duen zerbait, *ezezkotasun* bat. Haren ezezkotasun horrek ez du kontzientziarentzat esanahi negatiboa, *positiboa* baizik, zeren objektuaren *ezezkotasun* hori baita hain zuzen ere ez-objektibitatearen, bere buruaren *abstrakzioaren autoberrespena*.

*Kontzientziarentzat berarentzat*, objektuaren ezezkotasunak esanahi positiboa du zeren hark *ezagutzen* baitu ezezkotasun hori, izaki objektiboa, haren *auto kanpotartzea* bezala; bai baitaki, haren autokanpotartzearen bidez bakarrik... Kontzientzia deneko eta zerbait harentzat deneko era *jakitea* da. Jakitea da haren egintza bakarra. Horregatik zerbait da harentzat *zer bait hori dakien* neurrian. Jakitea da haren portaera objektibo bakarra. Alabaina, autokontzientziak badaki objektuaren ezezkotasuna, hau da, objektuaren desberdin-ez-izatea harenik, objektuaren harentzat ez-izatea, bere *autokanpotartze* gisa baitaki objektua, hau da, haren bidez daki —jakitea objektu gisa— objektua objektu baten *itxura* besterik ez dela, lilura bat, baina bere izatean jakitea bera besterik ez da, bere buruari kontrajarri zaiona eta horregatik *ezezkotasun* bat, jakiteaz kanpo *inolako* objektibitatearik ez duen zerbait; edo, bestela esateko, jakiteak badaki objektu batekin harremanean jartzean, bere baitatik *kanpo* dagoela beste gabe, kanpotartu egiten dela, *bera* objektu gisa bakarrik *agertzen* zaiola bere buruari, edo objektu gisa agertzen zaion hura bere burua besterik ez dela.

Bestalde, dio Hegelek, hemen inplizitu dago, aldi berean, beste memento hau: kontzientziak gainditu eta berrartu egin duela bere baitan kanpotartze hau eta objektibitate hau eta, ondorioz, bere *beste-izatean halako den heinean*.

158

Eztabaida horretan daude batera espekulazioko lilura guztiak.

*Lehenik*: Kontzientzia, autokontzientzia *bere baitan dago bere beste-izatean halako den heinean*. Horregatik autokontzientzia —edo hemen hegeldar abstrakzioa abstrahitzen badugu eta gizakiaren autokontzientzia ezartzen badugu autokontzientiaren lekuan— *bere besteizatea halako den heinean bere baitan dago*. Horrek esan nahi du, lehenik, kontzientzia —jakitea jakite gisa, pentsatzea pentsatze gisa— bere buruaz bestea izan nahi duela, sentsibilitatea, errealitatea, bizitza izan nahi duela: pentsamenduan bere burua gainpasatzen duen pentsamendua (Feuerbach). Alde hori inplizitu dago hemen kontzientzia, kontzientzia bezala bakarrik, objektibitate alienatuarekin ez, baizik *objektibitatearekin halako den heinean* tupust egiten ez duen neurrian.

Bigarrenik, horrek esan nahi du gizaki autokontzienteak mundu espirituala —edo bere munduaren existentzia espiritual orokorra— autokanpotartze gisa berrezagutu eta gainditu duenak, berretsi egiten duela, hala ere berriro forma kanpotartu horretan eta bere egiazko existentzia bezala aurkezten duela, berrezarri egiten duela, *bere baitan egon nahi duela bere beste-izatean halako den heinean*. Hau da, esate baterako, erlijioaren gainditzearen ondoren, erlijioa autokanpotartzearen produktu bat bezala berrezagutu ondoren, hala ere berretsirik aurkitzen da *erlijioan erlijio* den heinean.. Hemen dago Hegelen positibismo *faltsuaren* edo haren kritizismo soilik *iturazkoaren* erroa; Feuerbachek erlijioa edo teologia ezartzea, ukatzea eta berrezartzea deitzen duena, baina era orokorragoan kontzebitu behar dena. Arrazoa bat dator bere buruarekin desarrazoian desarrazoi den heinean. Zuzenbidean, politikan, eta abarretan bizitza kanpotartua daramala berrezagutu duen gizakiak, bizitza kanpotartu horretan darama bere egiazko giza bizitza. Autobaieztapena, autoberrespena bere buruarekiko *kontraesanean*, nola objektuaren jakitearekiko hala izatearekiko, egiazko *jakitea* eta *bizitza* da.

Horrela, Hegelen erlijiora, estatura eta abarrera egokitzeaz ez dago gehiago hitz egiterik, zeren gezur hori bere printzipioaren gezurra baita.

Nik baldin *badakit* erlijioa gizakiaren autokontzientzia *kanpotartua* dela, badakit hartan ez dagoela berretsirik nire autokontzientzia, baizik nire autokontzientzia kapotartua. Badakit, beraz, nire nia bera, nire esentziari dagokion autokontzientzia, ez dela *erlijioan* berresten, baizik areago erlijio *gainditan*, *deuseztuan*.

159

Horrela Hegelengan ukapenaren ukapena ez da egiazko esentziaren berrespena itxura izatearen ukapenaren bidez, baizik eta itxura izatearen edo bere ukapenean bere baitatik alienatutako izakiaren berrespena; edo itxura izatearen ukapena gizakiaz kanpo izaki objektibo gisa egoitza daukan itxura izate horren ukapena eta hartatik independentea dena, eta hura subjektu eraldatzea.

Eginkizun berezia du horretan *gainditzeak*, zeinetan korapilaturik baitaude ukapena eta preserbazioa, ukapena eta baieztapena.

Horrela, adibidez, Hegelen zuzenbide-filosofian, *zuzenbide pribatu* gainditua *moralaren* parekoa da, moral gainditua *familiaren* parekoa, familia gainditua *gizarte zibilaren* parekoa, estatu gainditua *historia unibertsalaren* parekoa. *Errealitatean* zutik diraute zuzenbide pribatuak, moralak, familiak, gizarte zibilak, estatuak eta abarrek, bakarrik *memento* edo aspektu bihurtu direlako, gizakiaren existentzia partikularraren modu, zeinek bakarturik baliorik ez baitute eta elkar disolbatzen eta sortzen baitute. *Prozesuaren memento aira*.

Haren existentzia errealean, haren esentzia *mugikor* hori ezkutaturik dago. Pentsatzean, Filosofian bakarrik nabaritzen da, agertzen da, eta horregatik nire egiazko existentzia erlijioso da nire existentzia *filosofiko-erlijioso*, nire egiazko existentzia politikoa nire existentzia *filosofiko-juridikoa* da, nire egiazko existentzia naturala da nire existentzia *filosofiko-naturala*, nire egiazko existentzia artistikoa existentzia *filosofiko-artistikoa*, nire egiazko *giza* existentzia da nire *existentzia filosofikoa*. Era berean, erlijioaren, estatuaren, natuarren, arrearen eta abarren egiazko existentzia erlijioaren, naturaren, estatuaren, artearen *filosofia* da. Baina niretzat erlijioaren egiazko existentzia, etab., erlijioaren filosofia bakarrik bada, *Erljioaren filosofo* gisa bakarrik naiz egiazki erlijioso eta ukatu egiten ditut horrela erlijiosotasun *erreal*a eta gizaki errealki *erlijioso*a. Guztiarekin ere, aldi berean *berretsi* egiten ditut, alde batetik, neure existentzia propioaren edo kontrajartzen diedan inoren existentziaren barruan, zeren hori haien adierazpen *filosofiko besterik ez* baita, eta besterik, haien forma jatorrizko berezian, zeren haiek niretzat balio baitute *iturazko* beste-izate batek bezala, haien egiazko existentziaren, hau da, nire existentzia *filosofikoaren* alegoriak bezala, formak bezala, estalki zentzumenezkoen azpian ezkutaturik.

160

Era berean, *nolakotasun* gainditua = *kantitatea*, *kantitate* gainditua = *neurria*, neurri gainditua, = *esentzia*, esentzia gainditua = *agerpena*, agerpen gainditua = *errealitatea*, errealitate gainditua = *kontzeptua*, kontzeptu gainditua = *objektibitatea*, objektibitate gainditua = *ideia absolutua*, ideia absolutu gainditua = *natura*, natura gainditua = *espiritu subjektiboa*, espiritu subjektibo gainditua = *espiritu objektibo etiko* =, espiritu objektibo etiko gainditua = *arte*, arte gainditua = *erlijioa*, erlijio gainditua = *jakite absolutua*.

Alde batetik, gainditze hau izaki pentsatuaren gainditze bat da, eta horrela jabetza pribatu *pentsatua* moralaren *ideian* gainditzen da. Eta nola pentsatzeak irudikatzen duen norberaz bestelakoa bitartegabe, *errealitate zentzumenezkoa* eta, nola, ondorioz, haren egintzak ere balio duen harentzat egintza *erreal zentzumenezko* bezala, gainditze pentsatzaile horrek, bere objektua ukigabe errealitatean uzten duenak, errealki gainpasatu egin duela uste du. Bestalde, nola orain objektua harentzat pentsamendu-mementoa bihurtu den, horregatik, haren errealitatean ere balio du harentzat beraren, autokontzientziaren, abstrakzioaren berrespen gisa.

Alde batetik, Hegelek filosofian *gainditzen* dituen existentziak ez dira erlijioa, estatua edo natura *errealak*, baizik erlijioa bera jakitearen objektu gisa, hau da, *dogmatika* gisa, eta era berean *jurisprudentzia*, *estatu-zientzia*, *natur zientzia*. Alde batetik kontrajarrita dago *izaki errealarekiko* baita izaki horren *zientzia* bitartegabe ez-filosofikoarekiko edo *kontzeptu* ez-filosofikoekiko. Kontraesanean dago, beraz, zientzia horien ohiko kontzeptuekiko.

Bestalde, gizaki erlijiosoak, eta abarrek., Hegelengan aurki dezakete beren azken berrespena.

Orain laburbildu egin behar dira dialektika hegeldarraren memento *positiboak* —alienazioaren determinazioaren barruan.

3) *Gainditzea* bere baitan kanpotartzea *berrartzen* duen mugimendu objektibo gisa. Hori da ikuspena, alienazioaren barruan adierazia, esentzia objektiboaren *jabetzearena*, haren alienazioaren gainditzearen bidez, gizakiaren *objektibazio*

*errealaren* ikuspen alienatua, haren esentzia objektiboaren jabetze errealarena mundu objektiboaren determinazio *alienatuaren* deuseztapenaren bidez, haren existentzia alienatuaren gainditzearen bidez, era berean ateismoak, Jainkoaren gainditze gisa, humanismo teorikoaren bilakaera den heinean, komunismoa, jabetza pribatuaren gainditze den heinean giza bizitza errealaren erreibindikazioa den bezala bere buruaren jabetza gisa, humanismo praktikoaren bilakaera den bezala, edo bestela esanda, ateismoa humanismoa da bere buruarekin adiskidetua erlijioa gainditzearen bidez; komunismoa humanismoa da bere buruarekin adiskidetua jabetza pribatuaren gainditzearen bidez. Bitartekaritza horren gainditzearen bidez bakarrik —zeina hala ere auresuposizio beharrezko bat baita— iristen da humanismora, zeina bere baitatik positiboki hasten baita, humanismo *positibora*.

160

Baina ateismoa eta komunismoa ez dira inolako ihes, inolako abstrakzio, gizakiak sortutako mundu objektiboaren inolako galera, objektibitaterako jaiotako haren indar esentzialena; ez dira sinpletasun antinatural garatu gabe batera itzultzen den pobrezia bat. Aitzitik, eta lehen aldiz, bilakaera erreala, egikaritzea, gizakiarentzat erreal egina, haren esentziarena, eta haren esentziarena zerbait erreal gisa.

Ukapenaren bere buruari buruzko zentzu *positiboa* atzematean —nahiz eta berriro era alienatuan egin— Hegelek ulertzen du gizakiaren autoalienazioa, kanpotartze esentziala, desobjektibazioa eta desegikaritzea nor bere burua irabazte bat bezala, kanporatze esentzial gisa, objektibazio gisa, egikaritze gisa. Labur esateko, lana (abstrakzioaren barruan) gizakiaren *egintza autosortzaile* gisa atzematen du, norbere buruarekin izaki arrotz batekin bezala harremanean jartzea eta bere burua izaki arrotz bat bezala baieztatzea, bilakatzen ari den *espezie-kontzientzia* eta *espezie-bizitza* bezala.

1 Hegelengan —dagoeneko deskribaturiko aldrebeskeria alde batera utzirik edo horregatik hain zuzen ere— egintza hori lehen lekuan agertzen da, egintza *formal huts* bezala abstraktua delako, zeren gizakiak berak bakarrik duelako balioa *izaki pentsatzaile abstraktu* gisa, autokontzientzia gisa; bigarren lekuan, atzematea *formal eta abstraktua* denez gero, kanpotartzearen gainditzea kanpotartzearen baieztapen bihurtzen da edo Hegelentzat *autosorkuntza*, *auto-objektibazioko* mugimendu hori, *autokanpotartze* eta *autoalienazio* gisa, *giza bizi-kanporatze absolutua* da eta horregatik behin betikoa, bere helmuga propioa dena, bere baitan atsedena hartzen duena eta bere esentziara iristen dena.

162

Haren forma abstraktuan, dialektika gisa, mugimendu hori *bizitza egiazki gizatiarretik* pasatzen da horrela, baina giza bizitza egiazko hori abstrakzio bat denez gero, giza bizitzaren alienazio bat, bizitza hori *prozesu jainkotiar* kontsideratzen da, baina gizakiaren prozesu jainkotiar gisa —gizakiaren esentzia berak burutzen duen prozesua hartaz bestelakoa, abstraktua, hutsa, absolutua.

*Hirugarren lekuan*. Prozesu horrek eroale bat izan behar du, subjektu bat; baina subjektua emaitza gisa bakarrik agertzen da. Emaitza hori, bere burua autokontzientzia absolutu gisa ezagutzen duena, horregatik *Jainkoa*, *Espiritu absolutua*, *bere burua ezagutzen eta baieztatzen duen ideia da*. Gizaki erreala eta natura erreala gizaki irreal ezkutatu eta natura irreal horren predikatu, sinbolo besterik ez dira bihurtzen. Subjektuak eta predikatuak elkarrekiko alderantziketa

absolutuko harremana dute *subjektu-objektu mistikoa* edo *objektua gainpasatzen duen subektibitatea*, *subjektu absolutua prozesu bezala*, bere burua *kanpotartzen duen* eta horrela kanpotartzera itzultzen den, eta horrela aldi berean bere baitan berrartzen duen *subjektu bezala*; subjektua prozesu hori bezala; bere baitako bira emate *atergabe*, huts bezala.

*Lehenik*. Gizakiaren autosorkuntza edo autoobjektibazioko egintzaren kontzepzio *formal eta abstraktua*.

Gizakiaren objektu alienatua, errealtate esentzial alienatua kontzientzia besterik ez dira —zeren Hegelek gizakia = autokontzientzia ezartzen baitu—, alienazioaren idea soilik, haren adierazpen *abstraktua* eta horregatik irrealia eta zentzurik gabea, *ukapena*. Era berean, kapotartzearen gainditzea ez da, beraz, abstrakzio huts horren gainditze abstraktu eta edukigabea besterik, *ukapenaren ukapena*. Auto-objektibazioaren jarduera eduki biziz betea, zentzumenezkoa eta konkretua horrela abstrakzio huts bihurtzen da, *negatibitate absolutu*; bestalde, halakotzat finkatzen den eta jarduera independente gisa pentsatzen den abstrakzio bat, antonomasiako jarduera gisa. Negatibitate deitu hori forma *abstraktu*, *eduki gabea* besterik ez denez gero egintza bizi, erreal harena, haren edukia eduki *formal* bat besterik ezin da izan, eduki ororen abstrakzioak sortua. *Abstrakzio-forma* orokor eta abstraktuak, eduki ororen propioak eta, ondorioz, axolagabeak edozein edukirekiko eta haietako edozeinentzat baliozkoak; pentsatze-formak dira, espiritu *errealetik* eta natura *errealetik* erauzitako kategoria *logikoak*. (Aurrerago garatuko dugu negatibitate absolutuaren eduki logikoa.)

163

Positiboa dena, Hegelek hemen egin duen ekarpena —bere logika espekulatiboan— *kontzeptu determinatuak pentsatzearen forma finko* eta orokorrak izatean, naturaren eta espirituaren aurreko haien independentzian gizakiaren, eta, beraz, giza pentsamenduaren alienazio orokorraren emaitza beharrezko bat, Hegelek abstrakzio-prozesuaren memento gisa aurkeztu eta laburbildu du. Adibidez, izaki gainditua esentzia da, esentzia gainditua kontzeptu, kontzeptu gainditua... ideia absolutu. Baina zer da ideia absolutua? Hark, bestalde, bere burua gainditzen du, berriz korritu nahi ez badu berriro eta hasieratik abstrakzio-egintza osoa eta nahikotu ez badu gura abstrakzioen totalitate bat edo bere burua atzematen duen abstrakzioa. Baina abstrakzio gisa bere burua atzematen duen abstrakzioa ezer ez bezala ezagutzen da; bere burua, abstrakzioa abandonatu behar du, eta horrela hain zuzen aurkakoa den izaki baten albora, *naturaren* albora iritsi behar du. Logika osoa pentsamendu abstraktua bere buruarentzat ezer ez delakoaren froga da, ideia absolutua berez ezer ez delakoarena, *natura* bakarrik dela zerbait.

Idea absolutua, ideia abstraktua, zeina «berarekin batasun batean *kontsideratua kontenplazioa* baita» (Hegelen Entziklopedia, 3<sup>a</sup> ed., 222 or.), zeinak «bere buruaren egia absolutuan *erabakitzen* baitu *libreki irteten uztea bere baitatik* bere partikulartasunaren edo lehen determinazioa eta beste-izatearen mementoa, *ideia bitartegabea* haren isla gisa, *natura* gisa.» (l.c.)

hain era estrainio eta barrokoan portatzen den eta hegeldarrei buruko min sinestezinak eragin dizkien ideia oso hori ez da, azken finean *abstrakzioa* besterik, hau da, pentsatzaile abstraktua, zeinak esperientziak susperturik eta bere egiami buruz argiztaturik, erabakitzen baitu, baldintza —faltsu eta oraindik ere

abstraktuen— batzuen pean *abandonatzera* eta bere beste-izatea, partikularra dena, determinatua dena, bere buruaren alboan izatearen, bere ez izatearen, bere orokortasun eta indeterminazioaren lekuan. Erabakitzen du *libreki irteten uztea bere baitatik naturari*, zeina abstrakzio gisa, pentsatze-gauza gisa ezkututzen baitzuen bere baitan. Hau da, abstrakzioa abandonatzea erabakitzen du eta azkenik hartaz *asktaturiko* natura kontenplatzea. Ideia abstraktua, bitartegabe *kontenplazio* bihurtzen dena, ez da bere buruari uko egiten dion eta kontenplaziora deliberatzen den pentsamendu abstraktua besterik. Logikatik Natuarren Filosofiarako igarobide hori ez da *abstrakziotik kontenplaziorako* igarobidea baizik —hain egikaritze zailekoa pentsatzaile abstraktuarentzat, zeren horregatik deskribatzen baitu era hain abenturazkoan. Pentsatze abstraktutik kontenplatzea filosofoa daraman sentimendu *mistikoa asperdura* da, eduki baten nostalgia.

164

(Bere buruarengandik alienatutako gizakia bere *esentziaz* alienatutako pentsatzailea ere bada, hau da, bere esentzia natural eta gizatiarretik. Haren pentsamenduak, horregatik, naturatik eta gizakiarengandik kanpo bizi diren espirituak dira. Bere *Logikan* Hegelek espiritu horiek guztiak batera sartu ditu, eta horietako bakoitza, lehenik, ukapen bezala ulertu du, hau da, *giza* pentsatzearen *kanpokotze* gisa, gero ukapenaren ukapen gisa, hau da, kanpotartze horren gaintitze gisa, giza pentsatzearen kanporatze *erreal* gisa; —baina bera oraindik alienazioan harrapaturik dagoela— ukapenaren ukapen hori, parte batean, espiritu horiek alienazioan berrezartzea da, parte batean, azken egintzan finkatzea, bera kanpotartzean harremanean jartzea espiritu finko horien egiazko existentzia gisa<sup>3</sup>, eta parte batez abstrakzio horrek bere bura atzematen duen eta bere buruaz asperdura amaigabe bat sentitzen duen neurrian, Hegelengan pentsatze abstraktuaren gaintitzea, pentsatzean mugitzen den pentsatzearena agertzen da —begirik gabea, hortzik gabea, belarririk gabea, dena gabea dena—, *natura* izaki bezala berrezagutzeko eta kontenplaziora dedikatze erabakiarekin.)

Baina *natura* bera ere abstraktuki hartua berarentzat, gizakiarekiko bereizkuntza finkaturik, ez da *ezer* gizakiarentzat. Erraz ulertzen da pentsatzaile abstraktuak, kontenplatzea erabaki duenak abstraktuki kontenplatzea. Nola natura pentsatzaileak itxita zeukan pentsatzaileak ideia absolutuaren, gauza pentsatuaren figuran, berarentzat era ezkutatu eta misterioitsuan, askatu duenean, *natura abstraktu* hori askatu du egiazki bere baitatik —baina orain bera pentsamenduaren, natura errealaren, kontenplatuaren, pentsamenduaz bestelakoaren beste-izatea den esanahiarekin— natura *gauza pentsatu* gisa askatu du soilik. Edo giza hizkuntzaz mintzatzeko, pentsatzaile abstraktuak, naturaren bere kontenplazioan, berak hutsetik, abstrakzio hutsetik, dialektika jainkotiarretik sortu nahi zituen izakiak, bere baitan kulunkatzen den pentsamenduaren laneko produktu huts gisa eta inoiz ere errealitatera agertzen ez dena bezala, *determinazio naturalen abstrakzioak* besterik

---

<sup>3</sup> Hau da, Hegelek absrrakzio finkatu horien lekuan haren barruan inarosten den abstrakzio-egintza ezartzen du. Horrenbestez zerbitzua burutu du, lehen tokian, jatorriz filosofia desberdinenak ziren kontzeptu desegoki horiek guztien sorburua adieraziz, horiek denak bilduz eta absrrakzioaren gama osoa sortuz abstrakzio espezifikoren baten ordezkariaren objektu gisa. (Geroago ikusiko dugu Hegelek zergatik bereizten duen pentsatzea *subjektutik*. Baina orain jadanik argi dago gizakia gizatiar ez bada, haren kanpokotze karakteristikoa ezin dela existitu, eta hortik ateratzea bera ezingo litzakeela ikusi gizakiaren kanpokotze karakteristikoa gisa subjektu gizatiar eta natural gisa begiekin, belarriekin, eta abarrekin, gizartearen, munduan, eta naturan biziz.) [Marxen parentesi arteko oharra eskuizkribuko paragrafoaren barruan.]

ez da. Natura osoak errepikatzen dizkio abstrakzio logikoak, bada, bere kanpoko forma zentzumenezkoan. Hark berriz *analizatzen* ditu abstrakzio batzuk eta besteak. Haren natur kontenplazioa natur kontenplazioaren bere abstrakzioaren egintza berreslea besterik ez da, bere abstrakzioaren, kontzienteki errepikaturiko sortze-egintza. Horrela da, adibidez, denbora = bere buruarekin harremanean jartzen den negatibitatea. Existentzia gisa gaindituriko bilakaerari dagokio forma naturalean materia gisa gaindituriko mugimendua. Argia da —forma *naturala*— *erreflexioa bere baitan*. Gorputza *ilargi* eta *kometa* gisa *kontrajartzearen* forma naturala da, zeina Logikaren arabera, alde batetik, *bere baitan atsedena hartzen duen positiboa*, besterik, bere baitan atsedena hartzen duen *negatiboa*. Lurra da *oinarri* logikoaren forma *naturala* kontrajarrien batasun negatibo gisa, etab.

165

*Natura natura* gisa, hau da, haren baitan ezkutaturiko zentzu ezkutu hartatik zentzumenez bereizten den heinean, natura bereizia, abstrakzio horietatik desberdina, *ezereza* da, *ezerez bezala bere burua berresten duen ezerez bat zentzugabea* da edo gainditua izan behar duen kanpokotasun baten zentzua bakarrik du.

«Ikuspuntu *mugatu-teleologikoan* aurkitzen da naturak bere baitan xede absolutua ez daukan auresuposizio zuzena.»

Haren xedea abstrakzioaren berrespena da.

«Naturak bere burua agertu du ideia gisa *beste-izatearen forman*. Nola *ideia* den, horrela, bere buruaren negatiboa edo *bere buruaz kanpoko*, natura ez da kanpoko ideia horren aurrean bakarrik, baizik eta *kanpokotasuna* da determinazioa zeinean bera natura gisa baita.

Ez da ulertu behar hemen *kanpokotasuna kanporatzen* den, argira eta gizaki sentikorrarengana irekitako *sentsibilitate* gisa. Kanpokotasun hori hartu behar da hemen kanpotartze baten, akats baten, izan beharko ez lukeen inperfekzio baten zentzuan. Zeren egiazkoa beti ideia baita. Natura haren *beste-izatearen forma* besterik ez da. Eta pentsamendu abstraktua *esentzia* denez, kanpoko zaiona, haren esentziaren arabera, *kanpoko* bat besterik ez da. Pentsatzaile abstraktuak berrezagutzen du, aldi berean, Naturaren esentzia *sentsibilitatea* dela, bere baitan kulunkatzen den pentsamenduari kontrajarritako *kanpokotasuna*. Baina, aldi berean, halako moldez adierazten du kontrajartze hori *natu raren kanpokotasun* hori, pentsamenduarekiko haren *kontrajartzea*, haren *gabezia* dela; natura abstrakziotik bereizten den neurrian esentzia akasduna dela. Esentzia bat akasduna dena ez nireztat bakarrik, nire begien aurrean, bere buruarentzat ere akasduna den esentzia bat, berari falta zaion zerbait bere buruaz kanpo daukana. Hau da, haren esentzia bere buruaz bestelako zerbait da Pentsatzaile abstraktuarentzat, beraz, naturak bere brua gainditu behar du, zeren dagoeneko hark ezarria baitu esentzia potentzialki *gainditu* gisa.

166

«Espirituak *guretzat, auresupostu* gisa, *natura* dauka, zeinaren *egia* baita eta, horregatik, *absolutu lehena*. Egia horretan *desagertu* egin da natura eta Espiritua agertu da beretzat-izatera iritsitako *Idea* bezala, zeinaren *kontzeptua* nola *objektu* hala *subjektu* baita. Identitate hori *negatibitate absolutua* da, zeren naturan baitu kontzeptuak bere kanpoko objektibitate osoa, baina kanpotartze hori jadanik



gainditua izan da eta hartan Kontzeptua bere buruarekin identiko egin baita. Horrela, hura identitate hori da naturaren itzulera gisa bakarrik».

«*Agerkundera*, zeina *ideia abstraktu* gisa igarobide bitartegabea baita, naturaren *bilakaera*, askea den espirituaren agerkunde gisa da natura *ezartzea haren* mundu gisa; ezartze bat, zeina gogoeta gisa aldi berean munduaren *aurresuposatze* baita natura independente gisa. Agerkundera kontzeptuan naturaren sorkuntza da espirituaren izate gisa, zeinean hura ematen baita haren askatasunaren *baieztapena eta egia... Absolutua espiritua da*; hori da Espirituaren definizio gorena».

## FEUERBACHI BURUZKO TESIAK

Karl Marx

*Haustura handia ikusten dutenentzat Marxismo gazte, artean feuerbachiarreko Marxen eta materialismo historikoaren Marx helduaren artean, aldi erabakigarria da 1844ko udatik 1845eko udaberrira doana. Bere iragan hegeldar eta feuerbachiarrekiko azken hausturaren adierazpentzat hartzen den dokumentua da «Feuerbachi buruzko tesiak». Marxengan garapen-lerro jarraikiago bat ikusteko joera dutenek tesiak Hegelen idealismoaren eta Feuerbachen materialismoaren azken integrazioaren aitorten bezala ikusten dituzte, zeinarantz aritu baitzen lanean Marx. Hamaika aforismoren erara egindako ohar hauek 1845eko martxoaren edo apirilaren inguruan idatziak dira, Marx Parisetik alde egin eta Bruselara joan zenean. Engelsek gerora deskribatu zituen tesi hauek «mundu-ikuskera berri baten ernamuin distiratsua» beren baitan zeukatenak bezala. Lehen aldiz Engelsek 1888an argitaratu zituen bere Ludwig Feuerbach eta filosofia alemaniar klasikoaren amaiera obraren eranskin bezala.*

*Tesi hauek ordezkatzan dute Marxek egin zuen ahalegina Feuerbachen materialismotik urruntzeko eta materialismo forma bat artikulatzeko, zeina nabarmenki desberdina baita «aurreko materialismo oro»tatik, zeinaren falta sentitzen baitzuen. Aurreko materialismoa pasiboegia eta ahistorikoa izan zen. Egin behar dena da materialismoari Eskuizkribu filosofiko eta ekonomikoetan azterturiko hegeldar ideia nagusia txertatu, hau da, giza historiaren nozioa norbereburugintza aktiboaren prozesu gisa. Hau da, gizakiak ulertu behar dira «giza jarduera zentzumenezko»aren terminotan, zeinaren forma nagusia, noski, lana baita. Marxek dioenez, «Inguruabarren aldaketaren eta giza jarduera edo autoaldaketa atzeman eta arrazionalki uler daiteke praktika iraultzaile bezala bakarrik.»*

168

*Askatasunaren arazo filosofikoak eta hegeldar idealismoaren muinean datzan norbera giza norbere burugintzaren oinarri materialista behar bezala ulertuz bakarrik ebatz daiteke. «Teoria mistizismora gidatzen duten misterio guztiek aurkitzen dute beren soluzio arrazionala giza praktikan eta praktika hori atzematean.» Puntu horretaz jabetzen garenean, askatasunaren arazo filosofikoaren soluzioa ikus dezakegu baldintza materialak kontrolatzean datzala, zeinen azpian egiten baitugu geure historia eta geure buruak. Marxek amaitzen ditu pentsa mendu hauek, bada, haren pentsamendu sonatuena izan litekeenarekin. «Filosofoek mundua era desberdinetara interpretatzea besterik ez dute egin, baina kontua da hura aldatzea.»*

\*\*\*

### 1

Aurreko materialismo guztiaren oinarrizko akatsa —Feuerbachena barne delagauzak,

errealitatea, zentzumenezkotasuna, *objektu* edo *kontenplazioaren* formapean kontzebitzea da, baina ez *giza jarduera*, *praktika zentzumenezko* gisa, subjektiboki. Hortik dator alde aktiboa idealismoak garatua izatea, materialismoarekiko kontrajartzean, —baina abstraktuki soilik, zeren idealismoak naturalki, ez baitu ezagutzen jarduera erreal, zentzumenezkoa bere horretan—. Feuerbachek objektu zentzumenezkoak nahi ditu, objektu kontzeptualez errealki bestelakoak direnak; baina hark ere ez du kontzebitzen giza jarduera propioa jarduera *objektibo* gisa. Horregatik, *Kristautasunaren esentzian* portaera teorikoa bakarrik kontsideratzen du benetan gizatiartzat, aldiz, praktika kontzebitzen eta finkatzen du haren agertzeko forma zikinki judutarrean soilik. Horregatik ez du ulertzen jarduera «iraultzaile», praktiko-kritikoaren garrantzia.

## 2

Giza pentsamenduari egia objektiborik egotz ote dakioken auzia, ez da auzi teoriko bat, baizik auzi *praktiko* bat. Praktikan frogatu behar du gizakiak egia, hau da, bere pentsamenduaren errealitatea eta boterea, honainditasuna. Praktikatik bakartzen den pentsamendu baten errealitateari edo irrealitateari buruzko liskarra auzi *eskolastiko* hutsa da.

169

## 3

Gizakiak inguruabarren eta hezkuntzaren produktu direlako teoria materialistak, eta, gizaki aldatuak beste inguruabar batzuen eta hezkuntza aldatu baten produktu direlakoak, ahaztu egiten du, gizakiak direla hain zuzen ere inguruabarrak aldatzen dituztenak eta hezitzailea bera hezi egin behar delakoa. Horregatik derrigor gizartea bi zatitan banatzera eramaten du, zeinetariko bata gizartearen gainetik baitago. (adibidez, Robert Owen-engan Engelsek erantsia).

Ingurubarren eta giza jardueraren aldaketaren bat-etortzea *prak tika iraultzaile* gisa bakarrik kontzebi eta uler daiteke arrazionalki.

## 4

Feuerbach abiatzen da autoalienazio erlijiosotik, mundua mundu erlijiosoan, imajinarioan, eta beste erreal batean bikoiztetik. Haren lana datza mundu erlijiosoaren oinarri sekularrean disolbatzean. Ez da ohartzen, lan hori egin ondoren, lan nagusia egiteko geratzen dela. Izan ere, oinarri sekularra bere baitatik bereiztea eta erresuma independente gisa hodeietan finkatzea, oinarri sekular horren bere buruaren urratze eta kontraesate propioz bakarrik azal daiteke. Beraz, egin beharreko lehen gauza da hori bere kontraesanean ulertzea eta gero praktikoki iraultzatzea kontraesana saihestuz. Beraz, adibidez, familia lurtarrean familia santuaren sekretua aurkitu ondoren, teorikoki kritikatu eta praktikoki iraultzatu egin behar da hura.

## 5

Feuerbachek, *pentsamendu abstraktuarekin* pozik ez egonik, kontenplazio zentzumenezkora jotzen du; baina ez du kontzebitzen zentzumenezkotasuna giza jarduera zentzumenezko *praktiko* gisa.

## 6

Feuerbachek disolbatu egiten du esentzia erlijiosoa *giza* esentzian. Baina giza esentzia ez da norbanako bakoitzak bere baitan daukan zerbait abstraktua. Haren errealitatean gizarte-harremanen multzoa da. Feuerbach, esentzia erreal horren kritikaz arduratzen ez dena, horregatik beharturik aurkitzen da:

170

1. Ibilbide historikoaz abstraitzera, beretzat sentimendu erlijiosoa finkatuz eta giza banako abstraktu —*bakartu*— bat auresuposatuz.
2. Harengan, giza esentzia «espezie» gisa bakarrik kontzebi daiteke, orokortasun barneko, mutu bat bezala, norbanako anitzak *natu ralki* lotzera mugatzen dena gisa.

### 7

Feuerbachek ez du ikusten, beraz, «sentimendu erlijiosoa» ere gizarte produktu bat dela eta berak analizatzen duen norbanako abstraktua, errealitatean, gizarte-forma determinatu batekoa dela.

### 8

Gizarte-bizitza, esentzian, *praktikoa* da. Teoria mistizismora errebelatzen duten misterio guztiek beren soluzio arrazionala aurkitzen dute giza praktikan eta praktika horren ulerkuntzan.

### 9

Materialismo kontenplatazalea, hau da, zentzumenezkotasuna jarduera praktiko gisa kontzebitzen ez duen materialismoa iristen den gorena, norbanako bakoitza «gizarte zibil»aren barruan kontenplatzera iristen da.

### 10

Materialismo zaharraren ikuspuntua sozietate «zibila» da; materialismo berriarena, giza sozietatea edo gizateria sozializatua.

### 11

Filosofoek mundua era desberdinetara *interpretatzea* besterik ez dute egin, baina kontua da hura *aldatzea*.

## II. MATERIALISMO HISTORIKOARI BURUZKO IDAZKIAK

### Ideologia alemaniarra. I. atala (aukera)

Karl Marx eta Engels

1845eko apirilean, Engels Bruselara joan zen Marxengana. Uda hartan biak Ingalaterrara joan ziren teoria ekonomikoa ikastera eta Londresko langile alemaniarren taldeekin loturak egitera. Bruselara itzuli zirenean, baterako lanari ekin zioten, lehenari, zeinak bi helburu nagusi baitzituen: negatiboki, lehen garaietan kide izandako hegeldar gazteak kritikatu eta haiekin «kontuak garbitzea» eta berriki sortzen ari ziren bien ideiak beste haien «ideologiekiko» zeinen desberdinak ziren argitzea; eta positiboki, beren historiaren teoria materialista propioa garatzea. Halen jopuntu nagusiak Bauer, Feuerbach, Max Stirner eta Karl Grun ziren eta sozialista egiazko edo utopiko del tuak. Ahalegin horien emaitza, zeinek iraun baitzuten 1846ko udan zehar, bostehunen bat orrialdeko eskuizkribu bat izan zen. Obraren bigarren eta hirugarren atal luzeak haien aurkarien, bereziki Stirnerren, kontrako polemika satirazkoak dira neurri handi batean, zeinek berriki argitaratu baitzuen Egoa eta bere propioa, Marx eta Engels kritikatu. Atal horiek gutxi irakurtzen dira gaur egun. Lehen atala, hala ere, zeina nabarmen baita Feuerbachen kritika baina, garrantzitsuagoa dena, materialismo historikoaren aurkezpen sistematikoa baita, Marxen idazki guztietatik eragin handienekoa da. Hala ere, obrak ez zuen ikusi orgia Marx bizi zela. Marxek «Ekonomiapolitikoaren kritikarako ekarpen bat» obraren hitzaurrean idatzi zuenez, eskuizkribuaren bigarren eta hirugarren atalak «Westfaliako argitaratzaileengana iritsi zirenean jakinarazi zitzaigun inguruabarrak aldatu zirelako ez zegoela haiek inprimatzerik. Bertan behera utzi genuen eskuizkribua saguen kritika karraskarian hainbat gogotsuago, non geure helburu nagusia —geure burua argitzea—, lortua baikenuen». 1932an argitaratu zen lehen aldiz.

172

Ideologia alemaniarren I. atalean Marxek eta Engelsek aurretik baino neurri handiagoan argitzeko ahalegina egin zuten historiaren teoria nola desberdintzen den feuerbachiar materialismoarenetik, alde batetik, eta hegeldar idealismotik, bestetik. Haien ikuspuntua «ez da premiaz gabetua. Premisa errealetatik abiatzen da eta ez ditu une batez ere abandonatzen. Premisa horiek gizakiak dira, ez isolamendu eta finkapen fantastikoan, baizik haien garapen-prozesu erreal, enpirikoki hautemangarrian baldintza batzuen pean... Espekulazioa amaitzen den tokian, hau da, bizitza errealean, hor zientzia erreal, positiboa gizakien garapen-prozesuaren jarduera praktikoaren errepresentazio gisa hasten da «Hasiera-puntu horretatik, instituzio sozialen garapenaren berri ematen duen prozesu teorikoa deskribatzen dute, estatuaren eta kulturaren eta ideien erresuma bornean sartuz, eta bilakaera historikoaren izaera zirrimarratzen dute. Instituzio eta praktika sozial guztiak nagusitzen diren baldintza materialen terminotan ulertu behar dira. Kontzientzia, edo ideologia, harreman materialen isla bat da, bereziki, produkzio-harremanena.

*Horrela, filosofia eta zuzenbide alemaniar garaikidea ulertzeko, manufakturatzearen, lanaren banaketaren, merkataritza-harremanak, eta bizitza ekonomikoa taxutzen duten beste faktore batzuk ulertu behar dira. Eskuizkribuan zehar komunismoari buruzko ohar garrantzitsuak daude sakabanaturik.*

Ideologia alemaniarren I. atala ez zen inoiz amaitu eta alde batera utzi zen bigarren eta hirugarren atalak argitaratzeko planak egin zirenean. Ez da, beraz, obra akabatua, eta gai garrantzitsuak ez daude sistematikoki garatuak. Gainera, Marxen historiari buruzko geroko lanekin alderatuta, obra horri nabarmen falta zaio Marxek 1850ean eskuratuko duen historiaren ezagutza xehatua. Guztiarekin ere, materialismo historikoaren gai nagusi guztiak Ideologia alemaniarrean daude, erabat landuriko forman ez bada ere, eta dokumentuaren garrantzia ukazina da.

\*\*\*

173

### *Hitzaurrea*

Orain arte gizakiek etengabe izan dituzte kontzepzio faltsuak beren buruaz, berak direnaz edo izan beharko luketenaz. Elkarrekin harremanean jarri dira Jainkoa, gizaki normala, etab., ideien arabera. Haien irudimeneko mamuak handiegi bihurtu zaizkie. Haiek, sortzaileak, beren sorkariei men egiten ari izan dira. Aska ditzagun beraien kimeretatik, beraien ideia, dogma, izaki imajinarioetatik, zeinen uztarripean baitaude abaildurik. Errebolta gaitzezen pentsamenduen nagusitasun horren aurka. Irakats diezaiegun, dio batek, imajinazio horiek giza esentziari dagozkion pentsamenduez trukutzen; haiekiko kritikoki portatzen, dio besteak; irakats diezaiegun gizakiari horiek burutik kentzen, dio hirugarrenak, eta dirauen errealitatea porrokatu egingo da.

Haur-fantasia errugabe horiek eratzen dute hegeldar gazteen filosofiaren muina, zeina alemaniar publikoak ez baitu soilik lastura eta ikararekin hartzen, baizik eta *heroi filosofikoek* berek arriskugarritasun kataklismozkoaren eta axolagabekeria kriminalaren kontzientzia solemne batekin proposatzen baitute. Publikazio honen lehen liburukiaren xedea da beren buruak arditzat dauzkateni eta besteek otsotzat har ditzaten nahi dutenei mozorroa kentzea, erakusteko, haien marrak filosofian alemaniar hiritar ertainen kontzepzioak jarraitzen dituztela, adierazteko exegeta filosofiko horien harrandikeriek Alemaniako gaur egungo egoeraren errukarrikeria islatzen dutela. Publikazio honen xedea da laidotu eta kreditu gabe uztea errealitatearen itzalekiko borroka filosofikoa, zeina populu alemaniar ameslari eta lokartuari egozten baitzaio.

Gizaseme azkar bati behin otu zitzaion *grabitatearen ideiaz* jabeturik daudelako itotzen direla uretan gizakiak. Beren buruetatik nozio hori kentzen bazuten hura superstizio erlijiosotzat harturik, erabat saibo izango zirela uraren arriskutik. Bere bizitza osoan borrokan aritu zen grabitatearen liluraren aurka, haren ondorio kaltegarriez estatistika orok froga berri eta ugariak ematen bazizkioten ere. Gizaseme azkar hura filosofo alemaniar iraultzaile berrien tipoa zen.

### *1. Feuerbach: Ikuspegi materialista eta idealistaren kontra-jartzea*<sup>1</sup>

174

Ideologo alemaniarrek iragartzen dutenez, Alemania azken urteotan parekorik gabeko iraultza batetik igaro da. Hegeldar sistemaren desegite-prozesua, Straussekin hasi zena, hartzidura unibertsal bihurtzeraino garatu da, «iraganeko potentziak» berekin arrastatu dituena. Kaos orokorraren erdian erresuma ahaltsuak eratu dira, berriro bizkor porrokatzeko, une batez heroiak agertu dira, arerio ausartago eta ahaltsuagoek berriro ilunpetan irensteko. Iraultza hori, zeinaren aldean frantsesa haur-jolas baizik ez baita, mundu osoko borroka bat, zeinaren ondoan huskeriak baitira diadokoen borrokak. Prinzipioek elkar aldatzen zuten lekuz, pentsamenduaren heroiek elkar amiltzen zuten ziztu bizian, eta 1842tik 1845era doazen hiru urteetan Alemania gehiago aldatu zen lehen hiru mendetan baino.

Eta hori guztia gertatu omen zen pentsamendu hutsaren alorretan. Gertaera interesgarria da noski: espiritu absolutuaren usteltze-prozesua. Azken bizi-txinparta iraungitzean, *caput mortuum* horren atal osatzaile bakoitza deskonposatzen hasi zen, konbinazio berriak sortu zituzten eta substantzia berriak eratu zituzten. Filosofiaren industrialak, orain arte espiritu absolutuaren ustiapenetik bizi izandakoak, konbinazio berrietara oldartu ziren. Bakoitza lehia handienez aritu zen egokituriko parte arteko negozioa ustiatzen. Ezin zitekeen hori konkurrentziarik gabe gerta. Hasieran, burges eta tradizional samarra izan zen. Geroago, merkatu alemaniarra gainezkatu eta merkantziak, ahalegin guztiak gorabehera, mundu-merkatuan irteerarik aurkitzen ez zuenean, negozioak alferrik galtzen hasi ziren ohiko era alemaniarrean, ekoizpen fabrikazko eta adulteratuaren, kalitatearen txartzearen, lehengaiaren sofistikazioaren, errotuluen faltsutzearen, erosketa simulatuen, zorpeko txeeen eta inolako oinarri errealik ez zeukan kreditu-sistema baten bidez. Eta konkurrentzia borroka bizi bihurtu zen, gaur egun goratzen eta eraikitzen zaiguna historia unibertsalaren aldaketa bat bezala, emaitza eta lorpen handien sortzaile gisa. Lehia borroka bizi bihurtu zen, zeina orain mundu-historiaren mailako esanahia duen iraultza bezala, eta emaitza eta lorpen eskergenak produzitu dituena bezala interpretatu eta goratzen baita. Dendari filosofikoen berritsukeria hori guztia behar bezala preztatzeko, zeinek iratzartzen baitu sentimendu nazional osasungarri bat hiritar alemaniar jatorraren bularrean ere; mugimendu hegeldar gazte horren guztiaren ziztrinkeria, txokokeria agerian jartzeko eta, batez ere, heroi horien egiazko balentrien eta haien inguruan sorrarazitako liluren arteko kontraste tragikomikoa, beharrezko zaigu behin gutxienez kontenplatzea ikuskizun osoa Alemaniatik kanpo kokaturiko ikuspuntu batetik.

175

#### *A. Ideologia orokorki, ideologia alemaniarra bereziki*

Kritika alemaniarra ez da irten, azken orduko bere ahalegin horietan berrietan ere, filosofiaren alorretik. Eta haren auresuposizio filosofiko orokorrak ikertzen hastetik oso urrun, haren arazo guztiak sortzen dira, baita sistema filosofiko jakin baten alorrean ere, sistema hegeldarretik. Ez bakarrik haren erantzunek, baizik eta galderek berek ere iruzurra dute. Hegelekiko dependentzia da, hain zuzen ere,

<sup>1</sup> [Engelsen eskuizkribu zaharragoko izenburua I. Ataleko azken orrialde eskuizkribuzkoan.]

kritikari moderno horietako bat bakar bat ere hegeldar sistemaren kritika orohartzaile bat egitera ez ahalegindu izanaren arrazoia, nahiz eta horietako bakoitzak baieztatzen duen Hegelez haratago dagoela. Hegelekiko haien polemika eta elkarrekiko polemika haietako bakoitzak sistema hegeldarraren aspektu bat nabarmentzera mugatzen da, sistemaren aurka, aldi berean, jartzen saiatuz eta besteek nabarmendutako aspektuen aurka. Hasieran hegeldar kategoria huts eta benetako batzuk hartzen ziren, hala nola, substantzia eta autokontzientzia, geroago Espezie, Bakar, Gizaki, etab., izen sekularragotan profanatzeko.

Kritika filosofiko alemaniar osoa Straussengandik Stirnerrengana ideia *erlijiosoetara* mugatzen da. Erlijio errealetik eta egiazko teologiatik abiatzen zen. Era desberdinean determinatzen zen ondorengo joairan zer zen kontzientzia erlijiosoa, ideia erlijiosoa. Aurrerabidea zetzan ideia metafisikoak, politikoak, juridikoak, moralak eta beste mota batzuetakoak, ustez nagusi zirenak subsumitzean ideia erlijioso edo teologikoen esferan, era berean kontzientzia politikoa, juridikoa edo morala azalduz kontzientzia erlijioso edo teologiko gisa eta gizaki politiko, juridiko edo morala eta, azken finean, «gizakia», gizaki erlijioso gisa aurkeztuz. Erlijioaren nagusitasuna auresuposatzen zen. Pixkanaka, harreman menderatzaile oro harreman erlijioso gisa azaltzen zen eta kultu bihurtzen zen: zuzenbidearen kultu, estatuaren kultu, etab. Nonahi ageri ziren dogmak, dogmak besterik ez, eta dogmekiko fedea. Mundua gero eta neurri handiagoan kanonizatzen zen, harik eta, azkenean, Max [Stirner] Santu gurgarriak *en bloc* santutu eta behin betiko bukatutzat eman ahal izan zuen arte.

Hegeldar zaharrek dena *ulertzen* zuten Hegelen kategoria logikoetako batera murrizten zutenean. Hegeldar gazteek dena *kritikatzen* zuten ideia erlijiosoak haren azpira lerratze hutsarekin edo zerbait teologikotzat aitortzen zutelarik. Hegeldar gazteak bat etortzen ziren hegeldar zaharrekin erlijioaren, kontzeptuen, orokorraren nagusitasunarekiko fedean mundu existentearen barruan. Batzuek autoritatea usurpazio gisa erasotzen zuten, eta besteek legitimotzat ospatzen zuten.

176

Eta hegeldar gazte horientzat errepresentazioak, pentsamenduak, kontzeptuak eta, oro har, haiek substantibaturiko kontzientziaren produktuak gizakiaren egiazko lokarritzat kontsideratuak zirenez gero, hegeldar zaharrek haietan giza sozietatearen benetako lokarriak ikusten zituzten bezala, ulertzekoa da halaber hegeldar gazteek kontzientziaren lilura horien aurka bakarrik borrokatzea. Nola haien fantasiaren arabera gizakien harremanak, haien egite eta eragitea guztiak, haien kate eta mugak haien fantasiaren produktuak diren kontsekuenteki formulatzen dute haien aurrean presenteko kontzientzia giza kontzientzia kritiko edo egoistaz trukatu behar duten postulatu morala, horren bitartez mugak baztertuz. Kontzientzia aldatzearen postulatu hori existitzen dena beste era batez interpretatzea besterik ez da, hau da, beste interpretazio baten bitartez berrezagutzea. Ustez «munduari dardar eragiten dioten» haien esaldiak gorabehera, hegeldar gazteak dira kontserbatzaile handienak. Haien arteko gazteenek aurkitua dute adierazpen egokiena beren jarduera izendatzeko «esaldien» aurka borroka egiten dutela baieztatzen dutenean. Baina ahaztu egiten zaie haiek borrokaturiko esaldi horiei gehitzea beste esaldi batzuk kontrajartzea besterik ez dakitela eta, mundu honetako esaldiak bakarrik borrokatzean, ez dutela inola ere existitzen den mundu erreala borrokatzen. Kritika filosofiko horrek ekar zitzakeen emaitza bakarrak izan ziren erlijioaren historiako



argitzapen alderditar batzuk kristautasunari buruz; haren gainerako baieztapen guztiak, argitzapen hutsal horiekin, mundu-historiaren mailako aurkikuntzak guri entregatzeko bere uzia apaintzeko beste hainbeste era baizik ez dira.

Filosofo horietako bati ere ez zaio bururatu galdetzea alemaniar filosofiak zer lotura duen Alemaniako errealitatearekin, bere kritikak zer lotura duen ingurune material propioarekin.

### *1. Ideologia orokorki, filosofia alemaniarra bereziki<sup>2</sup>*

((Zientzia bakar bat ezagutzen dugu, historiaren zientzia. Historiari bi aldetatik begira dakiok: naturaren historian eta giza historian bana daiteke. Bi aldeak, ordea, ez dago izaki independente gisa ikusterik. Existitu den bitartean, naturak eta gizakiak elkar afektatu dute. Naturaren historia, historia natural deitua, hemen ez zaigu batere axola. Baina gizakiaren historia eztabaidatu beharko dugu, zeren ia ideologia oro historia horren interpretazio distortsionatua baita edo hartatik erabateko abstrakzioa. Ideologia bera historia horren aldeetako bat besterik ez da.))

177

Abiatzen garen auresuposizioak ez dira hautazkoak, ez dira dogmak, baizik auresuposizio errealak, zeinetarik irudimenean bakarrik abstrai baitaiteke. Norbanako errealak dira, haien egintza eta haien bizi-baldintza materialak, nola jadanik eginak aurkitu diren haiek hala haien egintza propioz sortuak. Auresuposizio horiek bide enpiriko hutsez egiazta daitezke.

Giza historia oren lehen premisa da, noski, norbanako bizien existentzia. ((Norbanako horien lehen egintza *historikoa*, egintza, zeinaren bidez bereizten baitira animaliangandik ez da pentsatzearen egintza baizik *beren subsistentzia-bitartekoak produzitzen* hastearen egintza.)) Egiazta daitekeen lehen egitatea, beraz, gizabanako horien antolakuntza gorputzekoa da eta, horren ondorioz, naturaren gainerakoarekiko harremana. Ezin gaitezke hemen sar, noski, gizakien beraien egitamu fisikoa aztertzen, ezta haiek aurkitzen dituzten baldintza naturalak ere: geologikoak, orohidrografikoak, klimatikoak eta beste harremanak. ((Harreman horiek ez dituzte afektatzen soilik gizakien antolakuntza jatorrizko eta naturalak, bereziki arrazarekikoak, baizik eta haren geroko garapen osoa edo ez-garapena orainaldia arte.)) Historiografia orok oinarri natural horietatik abiatu behar du eta gizakien egintzaz historiaren joiran duten modifikaziotik.

Gizakiak animaliangandik kontzientziaz, erlijioz edo beste edozerez bereiz ditzakegu. Baina gizakiak berak hasten dira animaliangandik bereizten beren bizi-bitartekoak *produzitzen* hasten diren bezain laster, urrats hori haien antolakuntza gorputzekoak baldintzatua dagoelarik. Gizakiak bere bizi-bitartekoak produzitzean, bere bizitza materiala bera produzitzen du zeharka.

Gizakiek duten beren bizi-bitartekoak produzitzeko modua lehenik, aurkitzen dituen eta birproduzitu behar diren bizi-bitartekoen egitamuaren baitan daude. Produkzio-modu hori ez da kontsideratu behar soilik, gizabanakoen existentzia fisikoaren birprodukzioaren aldetik. Jadanik areago da norbanako horien jardueraren modu determinatu bat, haien bizitza kanporatzeko modu determinatu bat, haien

---

<sup>2</sup> [Burualde hau eta ondorengo materiala parentesi bikoitzaren barruan ezabaturik eskuizkribuan.

*bizimodu* determinatu bat. Norbanakoak beren bizitza kanporatzen duten modukoak dira. Haiek direna, bat dator haien produkzioarekin, baita produzitzen dutenarekin eta produzitzeko moduarekin ere. Norbanakoak direna ere haien produkzioaren baldintza materialen baitan dago.

178

Produkzio hori *biztanleria ugaltzean* bakarrik agertzen da. Eta gizabanakoen bata bestearekiko eragintruke bat auresuposatzen du. *Eragintruke* horren forma, bestalde, produkzioak baldintzatzen du.<sup>3</sup>

Nazio batzuen eta besteen arteko harremanak beren produkzioindarrak, lanaren banaketa eta barneko eragintrukea noraino garatu dituzten arabera dira. Baieztapen hori, oro har, onartua da. Baina nazio baten eta beste baten arteko harremanak ez ezik, baizik eta nazio bakoitzaren barne-egitura osoa ere bai, haren produkzioaren eta haren barne- eta kanpo-eragintrukearen baitakoa da. Zer puntutaraino garatu diren nazio bateko produkzio-indarrak era nabarienean erakusten du hartan lanaren banaketak lortu duen graduak. Produkzio-indar berri orok, alde aurretik jadanik ezagunak diren produkzio-indarren hedatze kuantitatibo hutsa ez denean (adibidez, lurak maneatzearekin gertatzen denez), lanaren banaketaren garapen berri bat ekartzen du berekin ondorioztat.

Lanaren banaketa nazio baten barruan burutzen da batik bat lan industrialaren eta komertzialaren banaketan nekazaritzako lanarekiko eta horrekin, hiria eta landaren arteko bereizketan eta haien interesen kontrajartzean. Haren ondorengo garapenak gidatzen du lan komertziala industrialetik bereiztera. Aldi berean, abar desberdin horien baitako lanaren banaketak dakar, bestalde, lan determinatutan lankide diren norbanakoen arteko sektore desberdinak eratzea. Sektore desberdin horiek beren artean hartzen duten posizioa baldintzaturik dauka nekazaritza, industria eta komertzioa ezartzeko moduak (patriarkalismoa, esklabotza, estamentuak, klaseak, etab.). Eta harreman horiek beroriek agertzen dira, trukea garatzean nazio desberdinen elkarrekiko harremanetan.

Lan-banaketaren garapenaren fase desberdinak beste hainbeste jabetza-forma desberdin dira, hau da, lan-banaketaren maila bakoitzak norbanakoek elkarren artean dituzten harremanak ere determinatzen ditu, lanaren materiala, instrumentua eta produktuari dagokienean.

179

Jabetzaren lehen forma tribuarena da. Jabetza-forma hori produkzioaren hasierako mailari dagokio, zeinean populua ehizatik eta arrantzatik, abelazkuntzatik edo, gehienez ere, nekazaritza elikatzen baita. Azken kasu horretan, landu gabeko lur-masa handi bat auresuposatzen da. Maila horretan, lanaren banaketa oraindik oso gutxi garaturik dago oraindik eta familiaren baitan dagoen lanaren banaketa naturalaren hedadura besterik ez da. Gizarte-egitura, maila horretan, familiaren handitzera batera murrizten da, beraz, tribuaren buruan patriarkak daude, gero tribuko kideak eta, azkenik, esklaboak. Familiako esklabotza latentea pixkanaka garatuz doa biztanleria eta beharrak haztean, kanpo-trukea hedatzean eta gerrak eta truke-merkataritza gehitzean.

Bigarren forma antzinako erkidegoeta estatu-jabetza da, hiri bat eratzeko tribu bat

<sup>3</sup> [Haustura testu eskuizkribuzkoan hurrengo paragrafoaren lehen lerroaren identazio hirukoitzez adierazia. Jarraiko testu osoan paragrafo luze batzuk banatu egin dira irakurketa errazteko, baina kasu horietan paragrafo berrien lehen lerroek ohiko identazioak dituzte. ]

baino gehiagoren bat-egitearen emaitza gisa sortzen dena, borondatezko akordioaren edo konkistaren bidez, eta zeinean esklabotzak irauten jarraitzen duen. Erkidego-jabetzaren alboan, jabetza higikor eta geroago higiezina garatuz doa, baina forma anormal, erkidego-jabetzari mendekotu gisa. Estatuko hiritarrek erkidego gisa bakarrik ezar dezakete beren aginpidea haien lan egiten duten esklaboek gain, eta horrenbestez erkidego-jabetzaren formari loturik daude. Estatuko hiritar aktiboen erkidego-jabetza pribatua da, zeinak beharturik baitaude esklaboekiko elkarturik irautera elkarte mota natural horretan. Horrek azaltzen du zergatik oinarri horietan bermaturiko gizartearen egitura, eta harekin populuaren boterea beheraka doazen jabetza pribatu higiezina garatuz doan heinean. Lanaren banaketa hor garatuago ageri da. Jadanik hiriaren eta landaren arteko kontrajartzearekin topo egiten dugu eta, geroago, alde batetik, hiri-bizitzaren interesak eta, besterik, landa-bizitzarenak ordezkatzan dituzten estatuen kontrajartzearekin. Hirien barruan bertan industria eta itsas merkataritzaren arteko kontrajartzea aurkitzen dugu. Hiritarren eta esklaboekiko arteko klase-harremanek dagoeneko lortua dute beren garapen beteak.

Jabetza pribatuaren garapenarekin garai modernoetako jabetza pribatua aurkituko ditugun harreman berak sortzen dira hor, nahiz eta neurri handiago batean. Alde batetik, jabetza pribatuaren kontzentrazioa ageri da, Erroman oso goiz hasten dena (horren frogak bat nekazaritza-lege lizinoa da), zeina gerra zibiletatik, batez ere enperadoreen mendean, oso laster aurrera egiten duena, eta horrekiko harremanean, nekazari txiki plebeiuak proletario bihurtzea, hala ere, hiritar jabetzadun eta esklaboekiko arteko haien tarteko posizioa zela eta, ez baita garapen independente bat lortzera iristen.

180

Hirugarren forma jabetza feudala edo estamentuzkoa da. Antzinaroa *hiritik* eta haren eskualde txikitik abiatzen zen bezala, Erdi Aroak *landa* zeukan abiapuntutzat. Abiapuntu-aldaketa hori baldintzaturik aurkitu zen biztanleria urri, gune handietan barreiatu eta konkistatzaileek gehikuntza handirik ekarri ez zioten baten aldetik. Hortik, Grezian eta Erroman gertatu zenaz bestetara, garapen feudala lursail askoz hedatuago, erromatar konkistek eta hasieran haiekin loturiko nekazaritzaren hedapenak prestatuturiko batean hasi zen. Erromatar inperio beheranzkoaren azken mendeek eta barbaroek bere hura konkistatzeak produkzio-indarren kopuru handi bat suntsitu zuten; nekazaritza lur jota zegoen, industria jausia zegoen merkatu faltaz, merkataritza lozorroan sartu zen edo indarrez etena aurkitu zen eta landa eta hiri-biztanleria urritu egin zen. Faktore aurreexistente horiek eta haiek baldintzaturiko konkistaren antolakuntza-moduak egin zuten, armada germaniarren egituraren eraginpean, jabetza feudala garatzea. Hori ere, tribueta erkidego-jabetza bezala, erkide-izate batena oinarritzen da, baina haren aurrean ez dira aurkitzen orain, klase zuzenki produktzaile diren heinean, esklaboak, antzinaroko gizartearen gertatzen zenez, baizik eta gleba-jopu ziren nekazari txikiak. Eta feudalismoaren garapen osoarekin batera, landaren antagonismoa agertzen da hiriarekiko. Lurralde-jabetzaren egitura hierarkikoa eta, harekiko harremanean, jarraitzaile armatuek ematen zioten nobleziari jopuen gaineko boterea. Egitura feudal hori, antzinako erkidego-jabetza izan zen bezala, asoziazio bat zen klase produktzaile menderatuaren aurrean; asoziazioaren forma eta produktzaile bitartegabeekiko harremana bakarrik ziren desberdinak, zeren produkzio-baldintzak

desberdinak baitziren.

Lurren jabetzaren egitura feudal horri hirietan jabetza korporatiboa zegokion, artisautzaren antolakuntza feudala. Hor jabetza, nagusiki, norbanakoaren lanean zetzan. Noblezia harrapari asoziatuari aurre egiteko asoziatu beharrak; merkaturak lokal komunak izatearen beharrak industrialak, aldi berean, merkatarik ere bazen garai batean; gletatik ihes egiten zuten eta trumilka hiri oparoetara zihoazen jopuen gero eta konkurrentzia handiagoak, eta herrialde osoko egitura feudalak sorrarazi zituzten gremioak; banakako artisauen pixkanaka aurrezturiko kapital txikiek, eta haziz zihoan biztanleria baten erdian horien kopuru egonkorrak, ofizial eta aprendizaren sistema garatu zuten, landan zegoenaren antzeko hierarkia bat hirietan sortuz.

181

Beraz, feudalaroan, jabetza nagusia lur-jabetza zen hari loturiko jopuen lanarekin, alde batetik, eta lan propioa gremioetako ofizialen lanaren gainetik nagusi zen kapital txiki batekin, besterik. Bi forma horien egitura produkzioaren baldintza mugatuek, lurraren lantze urri eta hasi-masizkoak eta artisautzako industriak determinaturik zegoen. Lanaren banaketa oso gutxi garatu zen feudalismoaren loraldian. Herrialde orok zeukan bere baitan hiriaren eta landaren arteko kontrajartzea; egia da estamentuen egitura oso markaturik zegoela, baina printze, noblezia, apazeria eta nekazarien bereizkuntzaz aparte, landan, eta maisu, ofizial eta aprendizaren, eta berehalaxe soldatapekoen plebearenaz aparte, hirian, ez dugu beste banaketa garrantzikorik aurkitzen. Nekazaritzan, lanaren banaketa lantze partzelatuak trabatu egiten zuten, zeinaren alboan sortu baitzen gerora nekazarien beraien etxe-indusria; industrian, ez zegoen lanaren banaketarik ofizio bakoitzaren barruan, eta oso txikia ofizio batzuen eta besteen artean. Industria eta merkataritzaren arteko banaketa jadanik aldeztatik aurreratu finkaturik aurkitu zen hiri zaharretan; aldiz, berrietan, geroago soilik garatu zen, hiriak harremanetan sartu zirenean.

Lurralde handiagoak taldekatzea erresuma feudalak eratzeko beharra bat zen, nola lurren jabe zen nobleziarentzat hala hirientzat. Horregatik klase menderatzailearen, nobleziaren antolakuntzak monarka bat zeukan nonahi erpinean.

Gertakaria da norbanako determinatuek, produkzio-modu determinatu batean aritzen direnek harreman sozial eta politiko determinatu horiek ezartzen dituztela beren artean. Behaketa empirikoak derrigor jarri behar du agerian kasu konkretu bakoitzean, empirikoki eta inolako atzipetze eta espekulaziorik gabe, egitura sozial eta politikoaren eta produkzioaren arteko harremana. Egitura soziala eta estatua etengabe sortzen dira norbanako jakin batzuen bizi-prozesutik; baina norbanako horiengandik, ez norbere irudimenaren edo inorenaren aurrean aurkez daitezkeenez, baizik errealki direnez; hau da, jarduten duten eta materialki produzitzen duten bezala eta, horregatik, beren jarduerak muga, auresuposizio eta baldintza material determinatu batzuen azpian garatzen dituztenez, beren nahimenaz aparte.

182

((Norbanako horiek eratzen dituzten ideiak naturarekiko beren harremanari buruzko ideiak dira, elkarrekiko harremanei buruzkoak, edo beren izaera propioari buruzkoak. Begi-bistakoa da kasu horietan guztietan ideia horiek adierazpen kontzientea direla —errealak edo lilurazkoahorien harreman eta jarduera egiazkoena, horien produkzioa eta komertzioarena, eta horien portaera sozial eta politikoarena. Kontrako asuntzioa soilik da ahalgarri, baldin eta norbanako materialki garatu eta errealean espirituaz

gainera, espiritu bereizi bat auresuposatzen bada. Norbanako horien egiazko harremanen adierazpen kontzientea lilurazkoa bada, baldin eta beren irudimenean errealtatea hankaz gora jartzen badute, hori, bestalde, jardueraren modu mugatuaren eta hartatik sortzen diren harreman sozial mugatuen emaitza da.))

Ideien, errepresentazioen eta kontzientziaren produkzioa, hasieran, jarduera materialarekin eta gizakien truke materialarekin zuzenean txirikordaturik ageri da. Gizakien ideien, pentsamenduaren eta harreman intelektualen erakuntza hor oraindik haien portaera materialaren zuzeneko emaitza gisa agertzen da. Eta gauza bera gertatzen da produkzio espiritualarekin herri baten politikaren, legeen, moralaren, erlijioaren, metafisikaren eta abarren hizkuntzan agertzen denez. Gizakiak dira beren errepresentazioen, ideien eta abarren produzitzaileak, baina gizaki erreal eta aktiboak dira produkzio-indar determinatu batzuek eta haiei dagozkien trukeak determinaturik baldintzaturik daudenez, harik eta forma urrundenetara iritsi arte. Kontzientzia izate kontzientea besterik ezin daiteke izan, eta, gizakien izatea haien bizitza errealaren prozesua da. Eta ideologia osoan gizakiak eta haien harremanak alderantzikaturik ageri badira *camera obscura* [kamera ilunean] batean bezala, fenomeno hori era berean haren bizi-prozesu historikotik dator, objektuak buruz behera erretinaren gainean proiektatzean haren bizi-prozesu zuzenean fisikotik datorren bezala.

Alemaniar filosofian gertatzen denaz zeharo bestetara, zeina zerutik lurrera jaisten baita, hor lurretik zerura igotzen da. Hau da, ez da abiatzen gizakiek diotenetik, errepresentatzen dutenetik edo imajinatzen dutenetik, ezta gizaki predikatu, pentsatu, errepresentatu edo imajinatuarengandik, hortik abiaturik, hezur eta haragizko gizakiarengana iristeko; errealki diharduen gizakiarengatik abiatzen da eta, eta haren bizitza errealeko prozesutik abiaturik, erreflexu ideologikoen eta bizi-prozesu horren oihartzunen garapena ere aurkezten da. Gizakien burmuinetan kondentsatzen diren laino-erakuntzak haren bizi-prozesu materialaren beharrezko sublimazioak dira, zeina prozesu enpirikoki konstatagarria eta baldintza materialei lotua baita. Moralak, erlijioak, metafisikak eta beste edozein ideologiak eta haiei dagozkien kontzientzia-formek galdu egiten dute horrela beren substantibitate propioaren itxura. Ez dute beren historiarik ez beren garapen propiorik, baizik eta beren produkzio materiala eta truke materiala garatzen duten gizakiek aldatu egiten dute, errealtate hori aldatzean, beren pentsamendua eta beren pentsamenduko produktuak. Kontzientziak ez du bizitza determinatzen, baizik bizitzak determinatzen du kontzientzia. Lehen ikuspuntutik kontzientziatik abiatzen da norbanako bizi bat bailitzen; bigarren ikuspuntutik, zeina bizitza errealari dagokiona baita, norbanako erreal bizirik abiatzen da eta kontzientzia *haren* kontzientzia bezala bakarrik kontsideratzen da.

183

Gauzak kontsideratzeko era hori ez da auresuposiziorik gabea. Baldintza errealetatik abiatzen da eta une batez ere ez ditu begietatik galtzen. Haren auresuposizioak gizakiak dira, baina ez bakartasun eta zurruntasun fantastiko batean hartuta, baizik garapen errealeko eta enpirikoki intuigarria den prozesu batean, baldintza determinatu batzuen egintzapean. Bizi-prozesu aktibo hori aurkezten denean, historiak utzi egiten dio egitate hilen bilduma izateari, enpirista, oraindik abstraktuentzat den bezala, edo subjektu imajinarioen egitate imajinario, idealistentzat zen bezala.

Espekulazioa bukatzen den tokian, bizitza errealean, zientzia erreal eta positiboa hasten da, egintza praktikoaren aurkezpena, gizakien garapenaren prozesu praktikoarena. Han bukatzen dira kontzientziari buruzko esapideak eta haren lekua jakite errealak hartzen du. Filosofia independenteak galdu egiten du, errealtatearen aurkezpenarekin, bere existentzia-bitartekoa. Haren orde, ager daiteke, gehienera, emaitza orokorragoen bilduma bat gizakien garapen historikoaren kontsideraziotik abstraituak. Abstrakzio horiek berez, historia errealetik bereiziak, batere baliogabeak dira. Material historikoaren ordenazioa errazteko bakarrik balio dezakete, estratu desberdinen segizioa adierazteko. Baina ez dute inondik ere eskaintzen, filosofiak bezala, errezetarik edo eskemarik, zeinaren arabera aldi historikoak berma daitezkeen. Aitzitik, zailtasuna hasten da kontsiderazio eta ordenazio materiala, iraganeko aldi batena edo presentearena, gauza aurkezpen errealak hasten den tokian. Zailtasun horiek saihestea hemen inondik ere eman ez daitezkeen auresuposizioek baldintzatzen dute, zeren bizitza errealearen eta prozesuaren azterketatik garai bakoitzeko norbanakoen egintzatik eratoritzen baitira beti. Abstrakzio horietako batzuk nabarmenduko ditugu hemen, ideologiari kontrajartzeko, adibide historiko batzuekin argitzeko.

184

«Feuerbach»<sup>4</sup> [...(gutxienez bi eskuizkribu-orrialde falta dira)] errealtatean eta materialista praktikoarentzat, hau da, komunistarentzat, den bezalako mundu hori iraultzatzearen auzia da, edo praktikoki heldu eta dauden gauzak aldatzea. Nahiz eta guk batzuetan horrelako gauzak Feuerbachengan aurkitzen ditugun, inoiz ez dira joaten aieru bakartuez haratago eta eragin txikiegia izaten dute haren ikuspegi orokorrean garatuak izateko gaitasuna duten ernamuinak baino gehiagotzat hemen ez kontsideratzeko. Mundu zentzumenezkoaren Feuerbachen «kontzepzioa», alde batetik, haren pertzeptzio [*Anschauung*] hutsera zedarriturik dago, eta sentsazio [*Empfindung*] hutsera, besterik. «Gizakia» dio, «gizaki historiko errealak» esan beharrean. «Gizakia bere horretan» da, *realiter*, «alemaniarra». Lehen kasuan, mundu zentzumenezkoaren *pertzeptioan*, bere kontzientziari eta sentimenduari kontraesaten dioten gauzeekin topo egiten du derrigorrean, zeinek nahaspilatzen baitute mundu zentzumenezkoaren atal guztien berak auresuposatutako harmonia eta, nagusiki, gizakiarena eta naturarena. <Feuerbachen hutsegitea ez dago *itxura* zentzumenezko, nabarmenki begi-bistakoa errealtate zentzumenezkora menderatzean, zeina finkatu baita gertakari zentzumenezkoen azterketa hurbilekoagoz, baizik ez izatean, azken finean, zentzumenezkoari aurre egin «begiez» hari begiratu gabe, hau da, *filosofoaren* «betaurrekoen» bitartez.<sup>5</sup>> Kontraesan hori gainditzeko, Feuerbach beharturik aurkitzen da pertzeptio bikoitz batera jotzera, kontzepzio profano baten, «eskuan dagokiena bakarrik» ikusten duenaren, eta beste garaiago, filosofiko, gauzen «egiazko esentzia» kontenplazten duen baten artean kulunkatuz. Ez du ikusten inguratzen duen mundu zentzumenezkoa ez dela betiere oso batetik zuzenean emandako zerbait eta etengabe bere buruarekiko berdina, baizik eta industriaren eta egoera sozialaren produktua, produktu historiko bat den zentzuan, belaunaldi sail oso baten jardueraren emaitza, zeinetariko bakoitza

<sup>4</sup> [Puntadun kortxete bikoitzak albogehikinenzat Marxen eskuizkribuan orrialde eskuizkribuzkoaren eskuineko zutabearen. Orrialde eskuizkribuzko bakoitza luzetara erdinabaturik dago bi zutabetan, ezkerrekoa Engelsen idazkeran testu gehienaz beterik -Marxek baino leunago eta lasterrago idazten zuenbaterako diktatutik.]

<sup>5</sup> [Punta bakarreko kortxeteak albogehikinenzat Engelsen idazkeran orrialde eskuizkribuzkoaren eskuineko zutabearen.]

aurrekoaren sorbaldetara igotzen baita, bere industria eta bere trukea garatuz eta bere antolakuntza soziala aldatuz jarraitzen duena behar berrien arabera. «Ziurtasun zentzumenezko» sinpleenaren objektuak berak ere garapen sozial, industrial eta merkataritza-trukeen bitartez bakarrik emanak datozkio. Horrela jakina da gereziendoak, frutarbola ia guztiak bezala, gure gunera mende gutxi batzuk dela aldatua izanik merkataritzaren egitez eta, gizarte jakin baten eta garai jakin baten egintza horren bitartez, Feuerbachen «ziurtasun zentzumenezko»ra eramana izan zen.

185

Gainerakoan, gauzen kontzepzio hrretan, errealki diren eta gertatu diren bezala, arazo filosofiko sakon oro, aurerrantzean argiroago frogatuko denez, gertakari enpiriko huts eta soil batera mugatzen da. Horrela, adibidez, gizakiak naturarekiko duen jarreraren arazo garrantzitsua (edo, halaber, Brunok dioenez, «natura eta historiaren kontrajartzea», bi «gauza» desberdin balira bezala eta gizakiak bere aurrean beti natura historiko bat eta historia natural bat ez balitu bezala), zeinetik sortu baitira «obra arakaezinki garai» guztiak «substantzia»z eta «autokontzientzia»z, berez desagertzen da «gizakiaren naturarekiko batasun» guztiz sonatua beti industrian egon izan dela, modu batera edo bestera izanik garai bakoitzeko industriaren garapen handiagoa edo txikiagoaren arabera, gizakiak naturarekin izan duen «borroka» bezalaxe, bere produkzio-indarren garapeneraino dagokien oinarriaren gainean. Industriak eta merkataritzak, bizi-bitarteko produkzioak eta elkartrukeak baldintzatu egiten dute, alde batetik, eta baldintzaturik aurkitzen dira, besterik, funtzionatzeko moduari dagokionez banaketaren bidez, gizarte-klase desberdinen egituraz; eta horrela azaltzen da zergatik Feuerbachek, Manchesterren, adibidez, fabrikak eta makinak bakarrik aurkitzen dituen, non duela ehunen bat urte lehenago eskuz eragindako iruteko dornuak eta ehundegiak besterik ez zegoen, edo Campagna di Roman, non Augustoren garaian mahastiak eta erromatar kapitalisten villak besterik ez baitzituzkeen aurkituko, gaur egun larreak eta zingirak bakarrik daudenean.

Feuerbachek bereziki hitz egiten du zientziaren bidez natura kontenplatzeaz, fisikariaren eta kimikariaren begietara bakarrik agertzen diren misterioez, baina, zer izango litzateke natur zientziez, industria eta merkataritzarengatik ez balitz? Natur zientzia «huts» horiek berek ere beren xedea lortzen dute haien materialak bezala merkataritza eta industriari esker soilik, gizakien jarduera zentzumenezkoari esker. Eta halako punturaino da jarduera hori, etengabe lantze eta sentorioak sortze hori, produkzio hori, gaur existitzen den bezalako mundu zentzumenezko osoaren oinarria, non etengo balitz urtebetez bakarrik ere, Feuerbachek ez lituzke soilik egundoko aldaketak aurkituko mundu naturalean, baizik eta laster izango luke giza mundu osoaren mira ere eta bere kontenplazio-gaitasun propioarena, baita bere existentzia propioarena ere.

186

Egia da zutik geratzen dela, horretan, kanponaturaren lehentasuna eta hori guztia ez dela aplikagarri gizaki jatorrizkoari, *generatio aequivocaz* sortuari, baina desberdintasun horrek du zentzua gizakia naturaz bestelako zerbait bezala kontsideratzen denean bakarrik. Gainerakoan, giza historiaren aurreko natura hori ez da Feuerbach bizi den natura, baizik natura bat, zeina berriki eratutako uharte koralifero australiar banaka batzuk kenduz gero, gaur egun jadanik inon existitzen ez den, beraz, Feuerbachentzat ere existitzen ez zen.

Egia da Feuerbachek materialista «huts»ei gizakia ere «objektu zentzumenezko» den abantada handia ateratzen diela; baina «objektu zentzumenezko» soil eta ez «jarduera zentzumenezko» bezala ikusteaz aparte, horretan ere teoriaren barruan mantenduz, gizakiak emandako lotura sozial emanaren barruan kontzebitu gabe, existitzen diren bizibaldintzen azpian, zeinek egin baitute diren hori, ez da iristen, horregatik berorregatik, errealki existitzen den gizakiarengana, gizaki aktiboarenganaino, baizik eta «gizakia» kontzeptu abstraktuan gelditzen da, eta sentsazioan bakarrik lortzen du «gizaki erreal, banako, gorpuzduna» berrezagutzea; hau da, ez du berrezagutzen beste «giza harremanik» «gizakiaren eta gizakiaren artean» maitasun eta adiskidetasunezkoak izan ezik, eta, gainera, idealizatuak. Ez digu eskaintzen inolako kritikarik gaur eguneko bizi-baldintzei buruz. Ez du lortzen inoiz, beraz, mundu zentzumenezkoa eratzten duten norbanakoen jarduera zentzumenezko eta bizi total gisa, eta arrazoi horregatik beharturik ikusten du bere burua, adibidez, gizaki osasuntsuen ordeztu izaki gosekil, eskrofulatsu, nekeak eta tuberkulosiak unatuen tropel bat ikustean, «kontenplazio garaia batera» eta «espeziearen barruko konpentsazio» idealera jotzera; hau da, idealismoan berriz erortzera materialista komunistak beharra ikusten duen toki hartantxe hain zuzen eta, aldi berean, eraldakuntza erradikal baten baldintza nola industriarena hala eraentza sozialarena.

Feuerbach materialista den heinean, historiaz aparte mantentzen da, eta historia kontuan hartzen duen heinean, ez da materialista. Materialismoa eta historia erabat dibortziaturik ageri dira harengana, eta hori, bestalde, ulertzekoa da hemen aurkeztuta utzi dugunarengatik.

187

«Historia» Auresuposizio gabeko alemaniarren kasuan hasi behar dugu konstatatzetik giza existentziaren lehen auresuposizioa eta, beraz, baita historiarena ere gizakiek, bizitzeko gai izan behar dutela, «historia egin» ahal izateko. Alabaina, bizi izateko ezer baino jatekoa, edatekoa, etxebizitza, jantzia eta beste gauza batzuk gehiago behar dira. Lehen gertakari historikoa, beraz, behar horiek asetzeko ezinbesteko bitartekoen produkzioa da, hau da, bizitza material beraren produkzioa, eta ez dago inolako zalantzarik hori gertakari historiko bat dela, historia ororen oinarritzko baldintza bat, era berean gaur egun duela milaka urte bezala, egunero eta ordu oro bete behar dela, gizakien bizia segurtatzeko besterik gabe. Eta zentzumenen bizitza minimora, elementalenera murriztu —makila batera—, Bruno Santuarengana bezala, minimo horrek beti auresuposatuko du, derrigorrean, makila hori produzitzea. Beraz, lehena kontzepzio historiko ororengana, oinarritzko gertakari hori behatzea da bere esanahi osoan eta bere irismen osoan eta dagokion lekuan ezartzea. Hori alemaniarrek, ezaguna denez, ez dute inoiz egin, eta arrazoi horregatik inoiz ez dute izan base lurtarrik historiarako, ezta, ondorioz, historialari bat ere. Frantsesek eta ingelesek, nahiz eta era harrigarriro aldebakarrekoan kontzebitu zuten gertakari horren historia deituarekiko lotura, batez ere ideologia politikoaren preso beren burua ikusi zutenek, hala ere, historiografiari base material bat emateko lehen ahaleginak egin zituzten, gizarte zibilaren, merkataritzaren eta industriaren lehen historiak idaztean.

Bigarrena da lehen behar hori asetzea; asetzearen egintzak eta horretarako beharrezko instrumentua eskuratzeak behar berrietara gidatzen dute, eta behar berrien sortze hori gertatzen da lehen gertakari historikoa. Eta horrek berehala



erakusten du nondik datorren alemaniarren jakituria historiko handia, zeinek material positiboa falta zainean eta ergelkeria politiko, teologiko eta literarioak ez direnean, ez baitigute historiari eskaintzen, baizik eta gure aurrean desfilarazten baitituzte «historiaurreko garaiak», baina azaltzen gelditu gabe nola igarotzen den «historiaurrea»ren ergelkeria horretatik benetako historiara, nahiz eta begi-bistako izan, bestalde, haien espekulazio historikoak gozamen bereziarekin oldartzen direla «historiaurre» horretara, zeren sail horretan saibo daudelakoan baitaude «gertakari gordin»en ingerentziatik eta, aldi berean, hor beren bulkada espekulatiboari irteten utzi baitieziaiekete eta milaka hipotesi sortu eta irauli.

188

Hirugarren faktorea hor hasiera batetik garapen historikoan sartzen dena da egunero beren bizitza berritzen duten gizakiak aldi berean beste gizaki batzuk sortzen hasten direla, ugaltzen: senar-emaztearen, guraso eta seme-alaben arteko harremana, familia da. Familia hori, hasieran harreman sozial bakarra eratzen duena, geroago, beharrek, ugaltzean, harreman sozial berriak sortzen dituzte eta, bestalde, giza zentsua gehitzean, behar berriak sortzen dira, harreman sekundario bat izatera pasatzen da (Alemanian izan ezik) eta, beraz, dauden datu empirikoen arabera tratatu eta garatu behar da, eta ez «familia kontzeptu» berera doituz, Alemanian egin ohi denez. Gainerakoan, jarduera sozialaren hiru alderdi horiek ez dira hiru maila desberdin gisa kontsideratu behar, baizik horrelaxe besterik gabe, hiru aspektu bezala edo, alemaniarrentzat era ulergarriagoan esateko, hiru «memento» bezala, zeinak aldi berean existitu baitira historiaren hasieratik eta lehen gizakiarengandik eta oraindik gaur egun ere historian baliozko baitira.

Biziaren produkzioa, nola norberarena lanean hala inorena ugaltzean, berehala agertzen da harreman bikoitz bat bezala —alde batetik, harreman natural bat bezala, eta bestetik, harreman sozial bat bezala—; soziala, norbanako baten baino gehiagoren lankidetzaz hartaz ulertzen den zentzuan, zeinahi direlarik ere haien baldintzak, edozein modutara eta edozein xedetarako. Hemendik sortzen da produkzio-modu edo fase industrial determinatu batek beti berekin daraman lankidetzaz-modu edo maila sozial determinatu bat, lankidetzaz-modu bat, bestalde, «produkzio-indar» bat dena; gizakiarentzat atzemangarriak diren produkzioindarren baturak baldintzatu egiten duela egoera soziala eta, ondorioz, «gizateriaren historia» beti aztertu eta landu behar dela industriaren eta elkartrukearen historiarekiko loturan. Baina, halaber, argi dago Alemanian ez dagoela historia mota hori idazterik, zeren alemaniarrek ez baitute kontzebitzeko gaitasunik eta materialik, ezta zentzumenerik bitartez eskuratutako «ziurtasunik» ere, eta Rhin ibaiak bestaldetik ez dela posible esperientziak biltzea, han jadanik inolako historiari gertatzen ez delako. Beraz, agertu egiten da, alde aurretik, gizakien elkarrekiko lotura materialista bat, beharrek eta produkzio-moduak baldintzatu eta gizakiak bezain zaharrena dena; etengabe forma berriak hartzen dituen lotura eta, ondorioz, «historia» bat eskaintzen duena, nahiz eta inolako zentzugabekeria politiko edo erlijiosorik ez existitu, gainera gizakiak loturik mantenduko dituen.

189

Orain bakarrik, jadanik lau memento, harreman jatorrizko historikoen lau alderdi kontsideratu ondoren, konturatzen gara gizakiak «kontzientzia» ere baduela. Baina hori ere ez da hasieratik kontzientzia «huts» bat. «Espirituak» badu alde aurretik bere baitan, materiaz «ernaldua» egotearen madarikazioa, zeina hemen agertzen baita airegeruzen formapean mugimenduan, soinutan, hitz batean, hizkuntzaren

formapean. Hizkuntza kontzientzia bezain zaharra da: hizkuntza kontzientzia praktikoa da, kontzientzia erreala, beste gizakientzat ere existitzen dena eta, beraz, harentzat ere existitzen hasten dena; eta hizkuntza jaiotzen da, kontzientzia bezala, beharretik, beste gizakiekiko harreman-premiaz. ((Nire ingurunearekiko harremanak nire kontzientzia dira.)) Jarrera bat existitzen den tokian niretzat existitzen da, zeren animaliak ez baitu «jarrera»rik ezerean aurrean eta, oro har, ezin dezakegu esan inolako «jarrera»rik duenik. Animaliaentzat, besteekiko harremanak ez dira existitzen halako harreman gisa. Kontzientzia, beraz, alde aurretik produktu sozial bat da, eta hala izaten jarraituko du gizakiak existitzen diren bitartean. Kontzientzia, printzipioz, naturalki, inguratzen gaituen mundu *bitartegabe* eta zentzumenezkoaren kontzientzia da eta beste pertsona eta gauzekiko lotura mugatuaren kontzientzia, bere buruaz kontziente den norbanakoagandik kanpo; eta, aldi berean naturaren kontzientzia da, zeinak hasieran gizakiari aurre egiten baitio botere erabat arrotz, ahalguztidun eta erasoezin baten modura, zeinaren aurrean gizakien jarrera animaliazko hutsa baita eta zeinari men egiten baitiote abereak bezala; beraz, naturaren kontzientzia animaliazko hutsa da (erlijio naturala) —natura oraindik historikoki modifikatua izan ez delako arrazoiarengatik berarengatik—.Bestalde, beste norbanako batzuekin kontaktuan sartzearen behararen kontzientzia da; gizartearen bizi delakoaren gizakiaren kontzientziaren hasiera da. Hasiera hori gizarte-bizitza bezain animaliazkoa da estadio horretan. Talde baten kide izatearen kontzientzia hutsa da, eta ardiaren eta gizakiaren arteko desberdintasun bakarra da gizakiak kontzientzia duela instintuaren ordez, edo beste hitz batzuetan haren instintua kontzienteagoa dela.

190

«Bitartegabe ikusten dugu hemen erlijio natural hori edo naturarekiko jarrera determinatu hori forma sozialak determinaturik dagoela, eta alderantziz. Kasu horretan, guztietan bezala, natura eta gizakiaren arteko identitatea halako moldez agertzen da, non gizakien naturarenganako jarrera mugatuak baldintzatzen duen gizaki batzuen besteenganako jarrera mugatua, eta horrek, bestalde, determinatu egiten du haren jarrera mugatua naturarenganakoa.» Kontzientzia gregario edo tribal hori garatu eta hobetu egiten da gero, produktibitatea gehitzean, beharrak haztean eta biztanleria ugaltzean, zeina baita aurreko biak bermatzen dituen faktorea. Horrekin batera lanaren banaketa garatzen da, zeina jatorriz ez baitzen pasatzen lanaren banaketatik egintza sexualean eta, geroago, lan espontaneoaren banaketa batetik edo modu «natural» batean sarrarazitik gaitasun fisikoen (adibidez, indar gorputzezkoaren), beharren, bat-etortze zorizkoen eta abarren arabera. Lanaren banaketa soilik bihurtzen da egiazko banaketa lan materiala eta intelektuala bereizten diren unetik. «Ideologoek, *apaizen*, lehen forma, lehiakorra da.» Une horretatik, kontzientzia imajina dezake *errealiki* existitzen den praktikaren kontzientzia baino zerbait gehiago eta zerbait bestelakoa dela, zeinak errealki zerbait ordezkatzen baitu zerbait erreala ordezkatu gabe; une horretatik kontzientzia mundutik emantzipatzeko baldintzatan aurkitzen da, eta teoria, teologia, filosofia, moral «hutsa» eta abar sortzera pasatzeko moduan. Baina nahiz eta teoria, teologia, filosofia, moral hori eta abar kontraesanean egon existitzen diren harremanekin, hori soilik azal daiteke dauden harreman sozialak, bestalde, kontraesanean daudelako existitzen den produkzio-indarrarekin —hori gainerakoan, harremanen zirkulu nazional determinatu baten barruan, gerta baitaiteke zeren kontraesana ez baita gertatzen orbita nazional horren baitan, baizik kontzientzia nazional horren eta

beste nazio batzuen praktikaren artean; hau da, kontzientzia nazionalaren eta nazio baten kontzientzia orokorraren artean.

Gainerakoan, erabat axolagabea da kontzientziak bere kabuz bakarrik egin edo ekin dezakeena, zeren zaborra horretatik guztitik emaitza bakarra lortuko baitugu, hau da: hiru memento horiek, produkzio-indarra, egoera soziala eta kontzientzia, derrigorrean ahal dutela eta behar dutela kontraesanean sartu elkarren artean, zeren, *lanaren banaketarekin*, ahaltasuna baitago, areago, errealitatea jarduera espiritual eta materialak —gozamina eta lana, produkzio eta kontsumoa, norbanako desberdinei esleitzekoa, eta kontraesanean ez erortzeko ahaltasuna soilik dago lanaren banaketa berriz ere abandonatzean—. Gainerakoan, berez ulertzen da «mamuak», «loturak», «izaki garaiak», «kontzeptuak», «erreparoa» adierazpen espiritual idealista hutsa baizik ez direla, imajinarioki bakarturiko norbanakoaren ideia, eragozpen eta mugakizun oso enpirikoen errepresentazioa, zeinen barruan mugitzen baita biziaren produkzio-modua eta harekiko truke-forma koherentea. ((Dauden murriztapen ekonomikoen adierazpen idealista hori ez dago presente teoria hutsean bakarrik baita kontzientzia praktikoan ere; esan nahi da, bere burua emantzipatu eta dagoen produkzio-moduarekin gatazkan sartuz, kontzienteki taxutzen ditu erlijioak eta filosofiak ez ezik, baita estatuak ere.))

191

Lanaren banaketarekin, zeinen baitan baitaude kontraesan hauek guztiak eta zeinak, bestalde, familiaren baitako lanaren banaketa naturalean atseden hartzen baitute eta gizartea familia desberdin kontrajarritan bereiztean, gertatzen da, aldi berean, zatiketa eta, zehazki, zatiketa desberdina, nola kuantitatiboa hala kualitatiboa, lanarena eta haren produktuena; hau da, jabetza, zeinaren lehen ernamuina, zeinaren hasierako forma jadanik familian baitago, non emaztea eta seme-alabak senarraren esklaboak baitira. Esklabotza, artean oso hasi-masizkoa, noski, familian latentea dena, jabetzaren lehen forma da, zeina, bestalde, jadanik hemen perfektuki baitagokio ekonomialari modernoan definizioari, zeinaren arabera inoren lanindarraz baliatzeko eskubidea baita. Gainerakoan, lanaren banaketa eta jabetza pribatua adierazpen identikoak dira —batean jarduerari buruzko harremanean esaten dena, bestean jardueraren produktuari buruzko erlazioan adierazten da.

Gainera, lanaren banaketak inplikatzan du norbanakoaren interesaren edo familia banakoaren eta elkarrekin kontaktua duten norbanako guztien erkidego-interesen arteko gatazka. Erkidego-interesa ez da existitzen irudimenean soilik, zerbait «orokorra» bezala baina ezer baino lehen errealitatean, norbanako horien bata bestearekiko elkardependentsia gisa, zeinen artean baitago banaturik lana. Eta azkenik, lanaren banaketak eskaintzen digu lehen adibidea gizakiaren egintza propioa botere arrotz gertatzen denekoa berari kontrajarria eta esklabotzen duenarena haren kontrolatzaile bihurtu beharrean —gizakiak gizarte naturalean dirauen bitartean, interes partikularren eta komunaren artean etena dagoen bitartean, eta jarduera ez dagoen borondatez baizik naturalki banatua—. Zeren lana zatitzen hasi den bezain laster, pertsona bakoitzak dauka inposatu zaion jardueraren arlo partikular, eskusiborik, zeinetik ezin baitu ihes egin. Ehiztaria, arrantzalea, artzaina edo kritikari kritikoa da, eta horrela iraun beharra dauka ez baditu galdu nahi bizitzeko bitartekoak. Gizarte komunistan, ordea, zeinean inork ez baitauka jarduera-arlo eskusiborik eta bakoitza nahi duen edozein abarretan treba baitaiteke, gizarteak arautzen du produkzio orokorra, niretzat posible eginez egun batean gauza

bat egitea eta beste bat bihar, ehizean egitea goizean, arrantzan egitea arratsaldean, abereak zaintzea arratsean, kritikatzeara afalostean, nahi dudan bezalaxe, inoiz izan gabe ehiztari, arrantzale, artzain edo kritikari. Gizarte-jardueraren finkatze hori, geure produktu propioen sendotze hori gure gaineko botere objektibo batean, gure konrolpetik haziz, gure igurikapenak murriztuz, gure kalkulak hutseratuz, faktore nagusietako bat da garapen historikoan [...bederatzi lerro ezabatu eta irakurtezin]

192

[aurreko paragrafoaren alboan]. Norbanakoaren interesaren eta erkidegoaren arteko kontraesan horregatik hain zuzen ere, azken horrek forma independente bat hartzen du estatu gisa, norbanakoaren eta erkidegoaren interes errealetatik bereizita, eta aldi berean erkidego-bizitza lilurazko bat bezala, baina beti familia bakoitzean eta tribu-multzokatze bakoitzean presente dauden lokarri errealean gainean oinarriturik, hala nola haragia eta odola, hizkuntza, maila handiko lanaren banaketa, eta beste interes batzuetan, eta bereziki, geroago erakusten saiatzen garenez, ordurako lanaren banaketak determinatutako klasetan oinarriturik, zeinak eratzen eta desberdintzen baitira giza multzokatze horietako bakoitzean eta zeinen artean beti baitago bat beste guztiei nagusitzen zaiena. Hortik dator estatuaren barruan gertatzen diren borroka guztiak, demokrazia, aristokrazia eta monarkiaren arteko borroka, sufragio-eskubidearen aldeko borroka, etab., ez dira baizik eta forma lilurazkoak, zeinen pean gertatzen baitira klase bakoitzaren arteko borroka errealek (zeinetaz teoriarari alemaniarrek ez baitute aztarna txikiarik ere, nahiz eta eskua eman zaizkien horri buruzko beharrezko orientazioak *Urtekari alemaniar-frantzesetan* eta *Familia Santuan*). Eta gainera, bere nagusitasuna ezarri nahi duen klase orok, nahiz eta hori, proletarioaren kasuan gertatzen denez, aurreko gizartearen eta nagusitze ororena erabat forma osoaren gainditzea guztiz baldintzatu, botere politikoa konkistatzetik hasi behar du, aurkeztu ahal izateko, bestalde, bere interesa interes orokor gisa, zeinetara lehen mementoan beharturik baitago. «Hain zuzen ere, norbanakoek beren interes partikularra *bakarrik* bilatzen dutelako, zeinentzat ez baitator bat haien interes komunarekin, eta orokorra beti erkidegoaren forma lilurazkoa denez gero, hori zerbait «arrotz» eta «independente» gisa ezarriko zaie, izaera partikular eta bereziko interes «unibertsal» bat bezala, bestalde, edo haiek beraiek derrigorrean mugitu beharrean daude eten horren barruan, demokrazian bezala. Bestalde, interes partikular horien borroka *praktikoa*, zeinak etengabe eta era errealean kontrajartzen baitzaie interes komunei edo lilurazkoei, zerbait beharrezko gisa ezartzen du tartejartze *praktikoa* eta interes «orokor» lilurazkoaren galgatzea estatu gisa.

193

Komunismoa ez da guretzat oraindik finkatu gabeko gauzen egoera bat, ez ideal bat, zeinera errealtateak doitu behar baitu. Deitzen diogu komunismoari gauzen oraingo egoera gainditzen duen mugimendu erreala. Mugimendu horren baldintzak sortzen dira orain existitzen diren auresuposizioetatik.» Botere soziala, hau da, produkzioindar biderkatua, norbanako desberdinen lankidetzaren obraz jaiotzen dena lanaren banaketaren egintzapean, norbanako horiei agertzen zaie, lankidetzaren borondatezko bat ez delako, baizik eta espontaneo, ez botere propio, asoziatu bat bezala, baizik botere arrotz bat bezala, haiengandik kanpo kokatua, nondik datorren eta nora doan ez dakitena eta, horregatik, jadanik menderatu ezin dutena, baizik eta korritzen duena, aitzitik, garapen aldi eta fase sail bat berezi eta independentea dena borondateatik eta gizakien egintzetatik eta borondate hori berori eta egintza

horiek gidatu ere egiten dituen. Nola, bestela, izan lezake jabetzak, adibidez, historia bat, forma desberdinak eta lurralde-jabetza hartu, demagun, dauden auresuposizio desberdinen arabera, Frantzia garatutako partzelaziotik esku gutxiren zentralizaziora pasatzeko eta Ingalaterran, alderantziz, esku gutxiren kontzentrazioetik partzelaziora, gaur egun errealki ikusten ari garenez? Edo azal daiteke merkataritza, norbanako eta herrialde desberdinen produktuak elkartrukea baizik ez dena, mundu osoa menderatzera iritea eskaintza eta eskariaren arteko harremanaren bitartez —ekonomialari ingeles batek dioenez, harreman horrek lurraren gain grabitatu du antzinarokoen patuak bezala, esku ikustezin batez zoriona eta zorigaitza gizakien artean banatuz, inperioak sortuz eta suntsituz, herriak jaioaraziz eta desagerraraziz —, aitzitik, jabetza pribatuaren, basearen suntsierarekin, produkzioaren arautze komunistarekin eta gizakien beren produktuen aurrean sentitzen duten alienazioaren gainditzearekin, eskaintzaren eta eskariaren arteko harremanaren boterea hutsera murriztuz eta gizakiak berriz ere elkartrukeaz, produkzioaz eta beren elkarrekiko harremanen moduz nagusituz?

194

«X «*Alienazio*» hau, filosofoei ulergarri gerta dakien, bi auresuposizio *praktikotatik* abiatuz bakarrik buka daiteke. Botere «jasanezin» bihur dadin, hau da, zeinaren aurka iraultza egin behar den, beharrezko da erabat «desjabetu» gisa gizateriaren masa bat sortzea eta, horrekin batera, aberastasun eta hezkuntzako mundu batekin kontraesanean, eta horrek bi kasuetan, produkzio-indarraren gehitze handi bat auresuposatzen du, haren garapenaren maila handi bat; eta bestalde, produkzio-indarren garapen hori (zeina baita, aldi berean, existentzia enpiriko bat plano historiko-unibertsal batean emana, eta ez gizakien existentzia lokal hutsean) halaber auresuposizio praktikoa erabat beharrezkoa, zeren hura gabe eskasia orokortuko bailitzateke eta, ondorioz, pobretasunarekin, berriro, parez pare hasiko litzateke ezinbestekoarengatik borroka eta derrigorrean aurreko zikinkerian eroriko litzateke; eta, gainera, produkzio-indarren garapen unibertsal horrek bakarrik daramalako berekin gizakien elkartruke unibertsal bat, zeinaren indarrez, alde batetik, masa «desjabetu»aren fenomeno aldi berean gertatzen baita herri guztietan (konkurrentzia orokorra), haietako bakoitza besteen konmozioetatik esekita egotea eraginez, eta azkenik, banako historiko-unibertsalak eratzen ditu, enpirikoki unibertsalak, tokiko banakoen orde. Hori gabe 1. Komunismoa tokikotasun bat bezala existituko litzateke, 2. Eragintrukeko botereak ezingo liriateke garatu botere unibertsal gisa, eta, beraz, jasanezin gisa, baizik eta jarraituko lukete atez barruko «inguruabar» superstizioso izaten, eta 3. Eragintrukearen hedatze orok tokiko komunismoa gaindituko luke. Komunismoa, enpirikoki, populu menderatzaileen egintza «baterako» edo aldibereko gisa bakarrik gerta daiteke, eta horrek produkzio-indarren garapen unibertsala eta berekin dakarren garapen unibertsala eta

### *Komunismoa*

komunismoarekin loturiko mundu mailako eragin-trukea auresuposatzen du. Gainerakoan, langile *jabetzagabeen* masa —kapitaletik edo haien beharren asetzetik, denik mugatuena izanik ere, masan bazterturiko laneskua—, eta beraz, lan horren berorren galerak ez aldi baterako soilak bizi-iturri seguru gisa, konkurrentziaren

bidez, mundu-merkatua auresuposatzen du. Beraz, proletalgora plano historiko-sekularrean bakarrik existi daiteke, halaber komunismoa, haren egintza, errealitatea izatera soilik irits daitekeenez existentzia historiko-unibertsal gisa. Norbanakoen existentzia historiko-unibertsala, hau da, historia unibertsalarekin bitartegabe loturiko norbanakoen existentzia.»

195

Aurreko fase historiko guztietan zeuden produkzio-indarrek baldintzaturiko eragin-trukearen forma, eta zeinak, bestalde, baldintzatzen baititu, *gizarte zibila* da, zeinak aurretik azaldutakotik eratortzen denez, familia sinplea eta familia konposatua, tribu deitzen dena, baititu auresuposizio eta oinarritzat, eta zeinaren definizioa zehazturik geratu baita aurreko orrialdeetan. Jadanik horrek agertzen du gizarte zibil hori dela historia osoaren egiazko bizilekua eta agertokia eta zeinen zentzugabea gertatzen den aurreko kontzeptzio historikoa, zeinek, harreman errealei jaramonik egin gabe, bere mugarekin, estatuaren egintza durunditsuei eta egitatei bakarrik begiratzen baitie.

Orain arte giza jardueraren aspektu bakar bat besterik ez dugu aztertu: *gizakiek egindako naturaren eraldakuntzari*. Beste aspektua *gizakiegizakiez egiten duten eraldakuntza da...estatuaren jatorria eta estatuaren eta gizarte zibilaren arteko harremana [...]*.

Historia belaunaldi guztien suzesioa baizik ez da, zeinetariko bakoitzak aurretik izan dituenek transmitituriko materialak, kapitalak eta produkzio-indarrak ustiatzen baititu; hau da, alde batetik, aurreko jardueraz zeharo bestelako baldintzetan jarraitzen duela, aldiz, besterik, aurreko inguruabarrak modifikatu egiten ditu jarduera zeharo bestelako baten bidez, eta hori espekulatiboki oker liteke, esanez ondorengo historia aurrekoaren xedea dela, esango bagenu bezala, adibidez, Amerito aurkitzearen xedea iraultza frantsesa hedatzen laguntzea zela, zeinaren interpretazioaren bidez historiak bere xede propio eta independenteak lortzen baititu eta «pertsonek bihurtzen baita beste pertsona batzuen alboan» («Autokontzientzia», «Kritika», «Bakarra» eta abarren alboan), aldiz, aurreko historiako «determinazio», «xede», «ernamuin», «ideia» hitzez izendatzen duguna ondorengo historiako abstrakzio bat besterik ez baita, aurrekoak horretan duen eragin aktiboarena.

196

Zenbat eta gehiago hedatzen diren, bilakaera horren joairan, elkarren baitan eragina duten zirkulu konkretuak, zenbat eta gehiago suntsitzen den nazionalitate bakoitzaren lehen itxiera produkzioaren, elkarrukearen eta lan banaketaren bidez, zeina horrek sorrarazten baitu espontaneoki nazio desberdinen artean, hainbat gehiago bihurtzen da historia historia unibertsal, eta horrela ikusten dugu, adibidez, gaur Ingalaterran makina bat asmatzen denean, ezin zenbatu ahala langile jaurtitzen direla kalera Indian eta Txinan eta estatuaren existentzia-forma osoa zotukatzen dela, eta horrek esan nahi du asmakari hura gertakari historiko-unibertsala dela; eta era berean ikusten dugu nola azukreak eta kafeak erakusten duten XIX. mendean beren esanahi historiko-unibertsala, zeren produktu horien eskasiak, sistema kontinental napoléondarrak eraginak, xaxatu baitzituen alemaniarrek Napoleonen aurka matxinatzera, horrenbestez 1813ko independentzia-gerra aintzatsuen oinarri erreala ezartzera. Eta hortik ateratzen da historiaren historia unibertsal bihurtze hori ez dela, ezta gutxiago ere, «autokontzientzia»ko gertakari abstraktu soil bat, espiritu

unibertsalarena edo beste edozein aspektu metafisikorena, baizik eta gertakari perfektuki material bat, zeinaz edozein norbanakok eman baitiezaguke froga bat, den bezalakoa izanik, ibiltzen den eta geratzen den arabera, jaten, edaten eta janzten den arabera.

«Kontzientziaren produkzioaz» Orain arteko historian, bistakoa da, gertakari enpiriko bat dela norbanako konkretuak, beren jarduerak plano historiko-unibertsal bateraino hedatzean, gero eta esklabotutago aurkitu dira beraiengandik arrotza den botere batetik (zeinaren zapalkuntza gero espiritu unibertsal deituaren eta abarren zitalkeriatzat jotzera iristen baitira), botere horrek gero eta masa-izaera handiagoa hartzen du eta azken finean *mundu-merkatu* gisa agertzen da. Baina, era berean, enpirikoki frogatzen da, existitzen den ordena soziala porrokatzean iraultza komunistaren egintzaz (horretaz geroago hitz egingo dugu) eta jabetza pribatuaren gainditzearekin, iraultza horrekiko identikoa denarekin, disolbatzen da teoriarri alemaniarrentzat hain misteriotsua den botere hori eta, orduan, norbanako bakoitzaren askapena inposatzen da historia erabat historia unibertsal bihurtzen den neurri berean. Begi-bistakoa da, gorago azaldurik utzi dugunez, norbanakoaren egiazko aberastasun espirituala haren harreman errealean aberastasunaren baitan dagoela erabat. Horrela bakarrik askatzen dira norbanako konkretuak oztupo nazional eta tokiko orotatik, jartzen dira harreman praktikoan mundu osoko produkzioarekin (espirituala barne) eta lur osoko produkzio askotariko eta osoaz (gizakien sorkuntzez) gozatzeko beharrezko gaitasuna eskuratzeko baldintzatan. *Alde guztietako* dependentzia, norbanakoen lankidetzak historiko-unibertsalaren espontaneoki sortutako forma, iraultza komunista horri esker, botere horien gaineko kontrol eta nagusitze bihurtzen dena, zeinak gizaki batzuek beste batzuen gaineko egintzatik jaiok, orain arte haien gainean ezarriz eta menderatuz etorri baitira, botere erabat arrotz gisa. Alabaina, kontzepzio hori interpreta daiteke, bestalde, modu espekulatibo idealistaz, hau da, fantastikoz, «espeziearen autosorkuntza» gisa («gizartea subjektu» gisa), elkarren artean harremanduriko norbanakoen ondoko ondoko segida errepresentatuz bere burua sortzearen misterioa egikaritzen duen norbanako bakar bat bezala. Hor, ikusi beharko dugu nola *norbanakoek bata bestea* egiten duten, nola fisikoki hala espirituali, baina ez dute beren burua egiten, ezta Bruno Santuaren kontzepzio zentzugabea, ezta «Bakarra»ren, gizaki «gina»ren zentzuan ere.

197

Azkenik, goian garaturiko historiaren kontzepziotik honako ondorio hauek ateratzen ditugu: (1) Produkzio-indarren garapenean fase batera iristen da, zeinean produkzio-indarrak eta truke-bitartekoak sortzen diren, zeinek dauden harremanetan, gizakien iturri bakarrik izan bataitezke, zeinak ez baitira jadanik halako produkzio-indarrak baizik eta areago indar suntsitzaileak (makineria eta dirua). Horrekin loturik klase bat sortzen da gizartearen eragozpen guztiak jasatera kondenatua, haren abantailez gozatu gabe. Gizartetik bazterturik dago eta beste klase guztiekiko muturreko kontrajartzean egotera behartua; klase bat, zeinak eratzen baitu gizarteko kide gehien gehiengoa eta, zeinetik jaiotzen baita iraultza erradikal bat beharrezkoa den kontzientzia, kontzientzia komunista, kontzientzia, zeina, naturalki, beste klaseen artean ere eratzera irits daitekeen, horretan zer posiziotan kokaturik dagoen ikustean; (2) Produkzio-indar determinatu batzuk erabail daitezkeen baldintzak gizarte mota determinatu baten

nagusitasun-baldintzak dira, zeinaren botere sozialak, haren aberastasunetik jariatua aurkitzen baitu bere adierazpen idealista-praktikoa kasu bakoitzean nagusi den estatu-forman, eta arrazoi horrengatik borroka iraultzaile oro derrigorrean zuzendurik doa klase baten aurka, ordu arte nagusi izan dena. «Jendea interesaturik dago presenteko produkzio-egoerari eusten» (3) aurreko iraultza guztiek aldatugabe uzten zuten jardueramodua eta horren beste banaketa bat lortu besterik ez zuten nahi, beste pertsona batzuen arteko lanaren banaketa berri bat, aldiz, iraultza komunista jardura horren aurreko izaeraren aurka zuzendurik dago, lana ezabatu egiten du, eta klase guztien nagusitasuna gainditzen du, klaseekin berekin, zeren iraultza hori burutzen baitu gizarteak halakotzat hartzen ez duen klaseak, klasetzat aitortzen ez duenak eta jadanik berez klase guztien, nazionalitateen eta abarren disoluzioa adierazten duenak, gaur eguneko gizartearen barruan, eta (4) beraz, masan kontzientzia komunista hori sortzeko gauza bera aurrera eraman ahal izateko, beharrezkoa da gizakien masa-eraldakuntza bat, zeina mugimendu praktikoa batez bakarrik lor baitaiteke, iraultza baten bidez; eta, ondorioz, iraultza ez da beharrezko klase menderatzailea ezin daitekeelako beste era batera porrokaraz bakarrik, baizik eta iraultza baten bitartez bakarrik lortuko duelako porrokatuko duen klasea murgiltzen den lokatzatetik irtetea eta gizartea oinarri berri batzuen gainean ezartzeko gai bihurtzea.

198

Historiaren kontzepzio hau datza, bada, produkzio-prozesu erreala garatzean, bizitza bitartegabearen produkzio materialetik abiatuz horretarako, eta produkzio-modu horri loturiko eta produkzio-modu horrek sorturiko truke-forma kontzebitzean, hau da, gizarte zibilak bere fase desberdinetan, historia osoaren oinarri gisa. Erakutsi behar dugu gizarte zibila egintzan estatu gisa eta produktu teoriko guztiak kontzientzia-formak, erlijioa, filosofia, moralak, etab., azaldu behar ditugu, eta horien genesia oinarri horretatik aztarnatu behar dugu, eta gero naturalki gauza guztia bere totalitatean (eta horrengatik beragatik, alderdi desberdin horien arteko eragintrukea). Kontzepzio horrek, idealistak ez bezala, ez du bilatzen kategoria bat aldi bakoitzean, baizik eta beti lurzoru historikoaren errealean mantentzen da, ez du praktika ideatik abiatuta azaltzen, baizik erakuntza ideologikoak praktika materialaren oinarriaren gainean azaltzen ditu, zeinaren bidez kontsekuenteki iristen baita kontzientziaren forma guztiak eta produktu guztiak suntsi ezin daitezkeelako ondoriora kritika espiritualaren obraz, «autokontzientzia»ra murriztuz edo «fantasma», «mamu», «begitazio», etab., eraldatuz, baizik eta soilik disolba daitezkeela harreman sozial errealean porrokatze praktikoz, zeinetatik jariatzen baitira kimera idealista horiek; historiaren indar bultzatzailea, baita erlijioa, filosofia eta teoria ororena ere, ez dela kritika, baizik iraultza. Kontzepzio horrek agertzen du historia ez dela amaitzen «autokontzientzia»n disolbatuz, «espirituaren espiritua» bezala baizik eta haren faseetako bakoitzean emaitza material bat aurkitzen dela, produkzio-indarren batura bat, jarrera historiko sortu bat gizakiengandik naturarengana eta bata besteenganakoa, zeina belaunaldi bakoitzak transferitzen baitio darraionari —produkzioindar, kapital eta inguruabarren masa bat, zeina, alde batetik, belaunaldi berriak modifikatu egiten baitu, baina, bestalde, beren bizi-baldintza propioak eta garapen determinatu bat, izaera berezi bat ezartzen baitiote; beraz, inguruabarrek egiten dutela gizakia gizaki horrek inguruabarrak egiten dituen neurri berean.

199

Produkzio-indar, kapital eta harreman sozialeko formen batura hori, zeinarekin



norbanako bakoitzak eta belaunaldi bakoitzak topo egiten baitu emandako zerbaitekin bezala, filosofoek «substantzia» eta «gizakiaren esentzia» gisa errepresentatzen dutenaren oinarri erreala da, apoteosizatuz eta borrokatuz; oinarri erreala hori ez da txikienean ere hondatua ikusten bere egintzari eta bere eraginei dagokienez, gizakien garapenari buruz filosofo horiek haren kontra matxinatzen direlako «autokontzientzia» eta «Bakarra» bezala. Eta belaunaldi bakoitza jaiotzean aurkitzen dituen bizi-baldintza horiek ere erabakitzen dute historian aldika errepikatzen diren inarrote iraultzaileak izango ote diren ala ez, behar bezain indartsuak existitzen den guztiaren oinarria porrokatzeko. Eta erabateko inarrostearen elementu material horiek gertatzen ez badira, hau da, alde batetik, dauden produkzio-indarrak eta, besterik, masa iraultzaile bat eratzea, zeina jaikiko baita, ez bakarrik aurreko gizarteko baldintza jakin batzuen aurka, baita orain arte indarrean egon den «bizi-produkzio»aren beraren kontra ere, «multzoko jardura»ren kontra, zeinaren gaien atsedena hartzen baitu, ezertan ez du lagunduko gauzen joira praktikoa aldarazten, inarrote horren *ideia* jadanik behin edo ehun bider aldarrikatua izanak, komunismoaren historiak frogatzen duenez.

Orain arteko historiaren kontzepzio osoak ez dio jaramonik egin historiaren oinarri erreala horri, edo bigarren mailako zerbait bailitzan kontsideratu du, garapen historikoarekin ezer ikustekorik ez balu bezala. Horrek egiten du historia beti hartaz kanpo kokaturiko pauta baten arabera idaztea; bizitzaren produkzio erreala zerbait historiaurrekoa bezala agertzen da, aldiz historikoa dena beti agertzen da ohiko bizitzatik bereizitako zerbait bezala, zerbait estra eta lurraz gaindikoa bezala. Horretara, baztertu egiten da historiatik gizakiek naturarekiko duten jarrera, zeinaren bitartez naturaren eta historiaren arteko kontrajartzea sortzen baita.

200

Horregatik, kontzepzio horrek bakarrik asmatzen du historian ikusten egitate politiko handiak eta estatu-egintzak, erlijio-borrokak eta borroka teorikoak, oro har, eta beharturik aurkitzen da *partekatzer*a bereziki, garai historiko bakoitzean, *garai horren lilurak*. Adibidez, garai batek imajinatzen badu zio «politiko» edo «erlijioso» hutsengatik mugitzen dela, nahiz eta «erlijioa» edo «politika» haren zio errealean formak besterik ez izan, kasua deneko garaiko historialariak onartu egiten ditu besterik gabe iritzi horiek. Gizaki determinatu horiek «begitantzen», «kontzebitzen» dutena beren praktika erreala botere determinatzaile eta aktibo bakar bihurtzen da gizaki horien praktika menderatzen eta determinatzen duena. Eta horrela, hinduen eta egiptoarren artean lanaren banaketa aurkezten deneko forma zakarrak eragiten duenean herri horietan haien estatuak eta erlijioak propioa duen kasta-eraentza, historialariak uste du kasta-eraentza izan zela forma sozial zakar hura sortu zuen indarra. Eta frantsesek eta ingelesek heltzen dioten bitartean, gutxienez, lilura politikoari, zeina errealitatetik hurbilago baitago, noski, alemaniarrek «espíritu hutsa»ren esferan mugitzen dira eta lilura erlijioso historiaren indar higiarazle bihurtzen dute.

Historiaren filosofia hegeldarra azken ondorioa da, alemaniar historiografia horretako guztiko «adierazpen huts»enera eramana, zeina ez baitabil interes errealean inguruan, ezta interes politikoenean ere, baizik pentsamendu hutsen inguruan, zeina Bruno Santuak gerora derrigorrean ordezkaturiko baititu bata bestea irensten dituzten eta azkenik «autokontzientzia»n deusezten den «pentsamendu»-sail bat bezala, eta bide horretatik oraindik kontsekuenteago egiten

du aurrera Max Stirner Santuak, zeinak ez baitaki ezer historia erreal osoaz, prozesu historiko osoa derrigorrean aurkeztu beharra dauka «zaldun», bandido eta mamuen historia soil bat bezala, zeinen ikuspenetatik berak bakarrik asmatzen baitu salbatzen, jakina, «santugabezia»rengatik. «Historiografia objektibo deitua baldintza historikoak jardueratik bereizi bezala tratatzea besterik ez da izan. Izaera erreazionarioa» Kontzepzio hori errealki erlijiosoa da: gizaki erlijiosoa aurkezten du historia osoa abiatzen deneko lehen gizaki gisa eta bere fantasian ordeztu ditu bizi-bitartekoen eta bizitzaren beraren produkzio erreal kimera erlijiosoen produkzioaz.

201

Historiaren kontzepzio hori guztia haren disoluzioarekin batera, eta hartatik jaiotako eskrupulu eta gogoetekin, alemaniarren arazo *nazional* hutsa da eta Alemaniarentzat bakarrik dauka interes *tokikoa*, adibidez, auzi garrantzitsuak, azken garaiotan hainbeste aldiz planteaturikoak bezala, nola irits daitekeen, benetan, «Jaikoaren erresumatik gizakiaren erresumara», «Jainkoaren erresuma» hori irudimenean bakarrik existitu izan ez balitz bezala eta jaun adituak beti bizi izan ez balira bezala, jakin gabe, «gizakiaren erresuman», zeinetaranzko bideak bilatzen baitituzte, eta entretenimendu zientifikoa —ez baita besterik—, lainoetan galdutako erakuntza teoriko horren misterioa azaltzean ez balego bezala, aitzitik, lurraren gaineko harreman errealetik nola jaiotzen den frogatzean. Alemaniaren horientzat, kontua izaten da beti, oro har, aurkitzen ditugun zentzugabekeriak azaltzea beste edozein eratako kimeren bidez; hau da, zentzugabekeria horiek guztiek zentzu propio bat dutela auresuposatzea, zeinahi dela ere, zein aurkitzea beharrezkoa baita, kontua denean, besterik gabe, esapide teoriko horiek dauden harreman errealean bidez azaltzea. Dagoeneko esan dugunez, esapide horien disoluzio erreal eta praktikoa, ideia horiek gizakien kontzientziazik saihestea, inguruabarren aldaketaren obra da, eta ez dedukzio teorikoena. Gizakien masarentzat, hau da, proletariogarentzat, ideia teoriko horiek ez dira existitzen, eta ez dute, beraz, disolbatuak izan beharrik, eta nahiz eta masa horrek noiz edo noiz motaren bateko ideia teorikoak, adibidez, erlijioa izan duen, orain aspaldidanik inguruabarrek horiek disolbatuak dituzte.

Arazo horien eta horien soluzioen izaera nazional hutsa agertzen da, gainera, teorialari horiek seriozki sinestean garun-mamuak, hala nola, «Gizaki-Jainkoa», «Gizakia», etab., historiako garai determinatu batzuetan egiazki nagusi izan direla. Bruno Santua, areago, baieztatzera iristen da «kritikak eta kritikariek egin dutela historia» soilik, eta berenez eraikuntza historikoetara menturatzen direnean, presa handienaz jauzi egiten dute aurreko guztiaren gainetik eta «mongolismo»tik berehala pasatze dira historia egiazki «zentzuz bete»ra, hau da, «*Hallische*» eta «*Deutsche Jahrbücher*»etako historiara, eta hegeldar eskolaren disoluziora zaramaltza orokor batean. Ahazmenduan uzten dira gainerako nazio guztiak eta jazoera erreal guztiak, eta *theatrum mundi* Leipzigekeko Liburuaren Azokara mugatzen da eta «Kritika», «Gizakia» eta «Bakarra»ren arteko eztabaidetara. Eta teoria behingoz bederen deliberatzen denean gai errealki historikoak tratatzera, adibidez, XVIII. mendea, ideien historia eskaintzera mugatzen da, oinarritzat dituen gertakarietatik eta garapen praktikoetatik deslotua, eta horretan ere eragiten dio garai horri atariko ez-perfektu gisa, egiazko garai historikoaren oraindik hasiberriketako aurrekari gisa aurkezteko asmo eksklusiboak, hau da, filosofo alemaniarren arteko

borroka-aldiarena (1840-44).

202

Xede horri, aurreko historia bat idaztearenari, erlantz handiagoz distiarazteko pertsona ez historiko baten eta haren fantasien ospea erantzuten dio jazoera errealki historiko guztiak jaramonik egin gabe pasatzeak, baita politikak historian izan dituen tarteratze errealki historikoak, horren orde azterketetan oinarritu gabeko kontakizun bat eskainiz, baizik eta eraikuntza eta berritsukeria literarioetan, Bruno Santuak egin behar izan zuenez bere *XVIII. mendearen Historian*, zeina inork ez baitu gogoratzen. Ideia-dendari arranditsu eta hitz jariotsu horiek, zeinek jotzen baitituzte beren buruak aurreiritzi nazional guztiek hain infinituki gainetik, errealitatean, bada, Alemaniaren batasuna amets egiten duten garagardotegietako filisteo horiek baino askoz nazionalagoak dira. Ez dituzte historikotzat aitortzen gainerako herrien egitateak, Alemanian bizi dira, Alemaniarekin eta Alemaniarentzat, Rhinaren kanta espiritual bihurtzen dute eta Alsazia-Lorena konkistatzen dute frantses filosofiari lapurreta eginez frantses estatuari egin beharrean, Frantziako probintzien orde ideia frantsesak germaniartuz. Venedey jauna kosmopolita bat da Bruno Santuaren eta Max Santuaren aldean, zeinek aldarrikatzen baitute mundu-nagusitasunean Alemaniaren mundunagusitasuna.

Kontsiderazio horietatik frogatzen da, era berean, zeinen erraturik zegoen Feuerbach (*Wigand's Vierteljahrsschrift*. 1845, 2. libkia.) komunista bere burua deklaratzearan «gizaki arrunt» bere burua kalifikatzean, nolakotasun hori «Gizakia»ren predikatu bihurtuz eta sinetsiz, horrenbestez, kategoria soil batera berriro murrizten zuela «komunista» hitza, zeinak gaurko munduan alderdi iraultzaile determinatu baten jarraitzaileak izendatzen baititu. Feuerbachen dedukzio osoa gizakien arteko harremanei dagokienez gizakiek elkarren premia dutela eta *beti izan dutela premia* frogatzeko joera du besterik gabe. Kontzientzia ezarri nahi du gertakari horren gainean; beste teoriariek bezala, kontzientzia zehatz bat sortu nahi du dagoen gertakari bati buruz, aldiz egiazko komunistari dagoena porrokatzea axola zaio. Erabat aitortzen dugu, gainerakoan, Feuerbach, gertakari horren kontzientzia hain zuzen sortzen ahalegintzean, teoriarari bat irits daitekeen urruneneraino iristen dela teoriarari eta filosofo izateari utzi gabe.

203

Adierazgarria da, hala ere, Bruno Santuak eta Max Santuak berehalaxe ezartzea Feuerbachek komunistaz eratzen duen ideia komunista errealaren lekuan, eta hori egiten dute, alde batetik, berek mailaz arerio berdinak diren heinean, komunismoari borroka egin ahal izateko «espirituren espirtu» bezala, kategoria filosofiko bat bezala; eta, Bruno Santuaren aldetik, izaera pragmatikoko interesei erantzunez, gainera. Existitzen denaren errekonozimendu, eta era berean ez-ezagutzaren adibide gisa, zeina Feuerbachek partekatzen jarraitzen baitu gure aurkariekin, gogora dezagun haren *Etorkizuneko Filosofiako* pasartea, zeinean sostengatzen eta garatzen baitu gauza baten edo gizakiaren izatea, aldi berean, haren esentzia dela, animalia edo giza banako baten bizi-modua eta jarduera eratzen duten harreman determinatuak direla hura, zeinean haren «esentzia» asebetarik sentitzen baita. Salbuespen oro kontsideratzen da hor, espresuki, akzidente gisa, aldaraz ezin daitekeen anomalia bezala. Beraz, milioika proletario asebeteak sentitzen ez direnean, ezta hurrik eman ere, beren bizi-baldintzekin, haien «existentzia»<sup>6</sup>, ezta

<sup>6</sup> Hemen behean «... errealitatearen hizkuntza» amaitzen den paragraforaino itzuli egin dira orain arte falta izan diren orrialdeak, Amsterdameko Historia Sozialeko Nazioarteko Institutuan aurkituak. ]

urrunetik ere, haien «esentzia»ri ez dagokionean, aipaturiko pasartearen arabera, ezbehar saihestezina da, zeina patxadaz jasan behar den. Baina milioika proletario edo komunista horiek zeharo bestetara arrazoitzen dute eta ordua iritsitakoan frogatuko dute, era praktikoan, iraultzaren bidez, beren «izatea» «esentzia»ri dagokiola ezarriko dutenean. Horrelako kasuetan Feuerbachek inoiz ez du hitz egiten, horregatik, gizakiaren munduaz, baizik eta babesa aurkitzen du kanpo-naturaren esferan eta, gainera, oraindik gizakien mendean aurkitzen ez den natura batean. Baina asmakari berri bakoitzarekin, industriaren pauso berri bakoitzarekin, esfera horri beste zati bat kentzen zaio, eta Feuerbachen horrelako tesi batentzat hazten den lurzorua gero eta murriztagoa da. Muga gaitzen tesi batera: arrainaren «esentzia» haren izatea da, ura. Ibaiko arrainaren «esentzia» ibaiko ura da. Baina ur horrek utzi egiten dio haren «esentzia» izateari, ingurune desegoki bihurtzen da, haren existentziarako, industriak ibaia menderatzen duen bezain laster, koloratzaileek eta beste hondakin batzuek kutsatzen duten bezain laster, eta itsasontziek gurutzatzen dutenean, hango urak kanal batetik desbideratzen direnean, zeinean kendu ahal izango baitzaio arrainari bere ingurumena, uraren pasabidea interzeptatuz. Antzeko motako kontraesan guztiak anomalia saihestezintzat jotzea ez da bereizten, esentziaz, Max Stirner Santuak aseberetik ez daudengana jotzen duen kontsolamendutik, esanez kontraesana haien kontraesan propioa dela, egoera txar hori haien egoera txar propio bat dela eta haiek horretara etsi daitezkeela edo beren deskontentuekin beren golkorako geratu, edo egoera horren aurka modu fantastikoren bat matxinatu. Era berean txikia da Feuerbachen kontzepzio horren eta Bruno Santuaren haserrearen artean dagoen aldea: inguruabar zorigaitzeko horiek, dio, horien biktimak «substantzi»en zaraman trabatu izanari, «autokontzientzia absolutu»ra ez heldu izanari eta harreman txar horiek haien espirituaren espiritu direla ez ulertu izanari zor zaizkiola.

204

Jakina, ez gara arduratuko gure filosofo jakintsuak argitzeaz haiei azalduz «gizakia»ren «askapena»k ez duela urrats bakar bat ere aurrera egin Filosofia, Teologia, Substantzia eta zaborra hori guztia «Autokontzientzia»ra murriztuz eta gizakia inoiz esklabotarik eduki ez duten esapide horien nagusitasunetik askatuz. «Feuerbach. Askapen filosofikoa eta erreala. Gizakia. Bakarra. Norbanakoa. Baldintza geologikoak, hidrológicoak, eta abar. Giza gorputza. Beharra eta lana.» Eta ez diegu azalduko, halaber, askapen erreala mundu errealean eta bitarteko errealekin bakarrik lor daitekeela, esklabotza ez dagoela gairik lurrin-makinarik eta kotoia iruteko makinarik gabe, joputza ez dago gairik nekazaritza hobetuz gabe, eta jendea oro har ez dagoela askatzerik jatekoa eta edatekoa, aterpea eta jantzia nolakotasun eta kantitate egokian eskuratzeko gai ez den bitartean. «Askapena» egintza historikoa da, ez intelektuala. Baldintza historikoen, industriaren, merkataritzaren, nekazaritzaren, garraioaren garapenak burutzen dute [eskuizkribuaren orrialdea hondatua, irakurtezina].

Alemanian, garapen historiko ziztrin bakarrik gertatzen ari den herrialdean, garapen intelektual horiek, hutsalergia aintzatu eta eragingabe horiek, naturalki balio dute ordezkotza garapen historikoaren gabeziarako, eta errotu egiten dira eta borroka egin behar zaie. Baina hori tokiko esanahia duen borroka bat da «Esapideak eta mugimendu erreala. Esapideen garrantzia Alemanian. Hizkuntza errealitatearen hizkuntza da.»

205

Garai guztietan klase nagusien ideiak izaten dira ideia nagusiak, hau da, gizartearen botere materiala. Gizarteko botere materiala kontrolatzen duen klasea izaten da aldi berean haren botere intelektuala kontrolatzen duena ere. Produkzio materialeko bitartekoak diruen klasea dauzka produkzio intelektualeko bitartekoen gaineko kontrola ere. Ideia nagusiak ideia bezala hartutako harreman material menderatzailearen adierazpen ideala besterik ez dira, hortik dator klase bat menderatzaile bihurtzen duten ideiena eta ondorioz haren menderakuntza ideiak. Klase nagusiaren osagai diren banakoak beste gauza batzuen artean kontzientzia eta pentsamenduaren jabe dira. Klase bezala agintzen duten bitartean eta garai historiko baten hedadura determinatzen duten heinean, begi-bistakoa da gama osoan egiten dutela hori. Beste gauza batzuen artean pentsatzaile eta ideia-sortzaile gisa agintzen dute eta beren aldiko ideien produkzioa eta banaketa arautzen dute. Haien ideiak garaiko ideia menderatzaileak dira. Adibidez, aldi eta herrialde batean, zeinean errege-boterea, aristokrazia eta burgesia menderakuntzarengatik lehian ari baitira eta, zeinean kontrola partekatu egiten baita, botere-banaketa doktrina izaten da ideia menderatzailea eta «lege betiko» gisa adierazten da.

Lanaren banaketa, zeina ikusi baitugu lehenago orain arteko historiako indar nagusi gisa, lanaren banaketa intelektual eta material gisa adierazten da klase agintarian, halako moldez, non klase horren barruan parte bat klasearen pentsalari gisa agertzen baitira (haren ideologo aktibo, sortzaile gisa, zeinek klase horrek bere buruaz duen lilura hobetzea bihurtzen baitute beren bizimodu-nagusia), aldiz beste batzuen ideia eta lilura horiekiko jarrera pasiboago eta harkorragoa baita zeren haiek baitira errealki klase horretako kide aktiboak eta denbora gutxiago baitute beren buruaz lilurak eta ideiak sortzeko. Klase horren barruan eten hori bi parteen arteko kontrajartze eta etsaikortasuneraino gara daiteke, zeina desagertu egiten baita, ordea, klasea bera arriskuan dagoen gatazka praktikoaren kasuan. Kasu horretan ideia nagusiak klase nagusiaren ideia ez ziren itxura klase horretaz bestelako botere bat duen klase batenak direlako ere desagertu egiten da. Garai berezi batean ideia iraultzaileak existitzeak klase iraultzaile bat existitzea auresuposatzen du. Azken horren premisei buruz dagoeneko egina dugu nahikoa iruzkin.

Historiaren joaira kontsideratzean klase nagusiaren ideiak klase nagusiarengandik beragandik bereizi eta horiei existentzia independente bat ematen badiegu, baldin eta mugatzen bagara esatera honelako edo halako ideia gailendu zirela garai jakin batean, haien produkziobaldintzez edo produzitzaileez kezkatu gabe, ez baditugu aintzakotzat hartzen norbanakoak eta mundu-baldintzak, zeinak baitira ideien iturriak, esan dezakegu, adibidez, aristokrazia menderatzailea zen garaian ohore, leialtasun, eta abar., kontzeptuak gailendu zirela.

206

Burgesiaren nagusitasunaren aldian, askatasun, berdintasun eta abar kontzeptuak gailendu zirela, etab. Klase nagusiak berak eskuarki imajinatzen du horrela gertatzen dela. Historiaren kontzepzio horrek, historialari guztientzat komuna dena hemezortzigarren mendetik, derrigorrean talka egingo du gero eta gehiago ideia abstratuak gailentzen direlako fenomenoarekin, hau da, ideiek gero eta gehiago hartzen dutela unibertsalitate-forma. Aurretik nagusia zen klase bat desplazatzen duen klase berri bat beharturik dago, bere asmoa betetzeko gai izan nahi badu besterik gabe, bere interesa gizarteko kide guztien interes komuna bezala ordezkatzera, hau da, idealki adieraztera. Unibertsalitate-forma eman behar die bere

ideiei, eta horiek arrazional bakar, unibertsalki baliozko gisa ordezkatu behar ditu. Iraultza egiten duen klasea sortzen da hasieran besterik gabe klase bati kontrajarria delako, ez klase bat bezala baizik eta gizarte osoaren ordezkari gisa. Gizartearen masa osoa bezala agertzen da klase nagusiari aurre eginez. «Unibertsalitatea dagokio honi: (1) klasea versus estatuari, (2) konkurrentzia, mundu-merkataritza, eta abarri, (3) klase menderatzailearen sendotasun zenbakizkoari, (4) interes komunaren lilurari (hasieran lilura hori egiazkoa da), (5) ideologoengainuari eta lanaren banaketari.» Hori egin dezake hasieran bere interesa errealki atxikiago dagoelako beste klase ez-menderatzaile guztien interes komunari, eta baldintza gailenen presiopean haren interesa oraindik ez delako gai izan garatzeko klase partikular baten interes partikularra bezala. Haren garaipenak, beraz, beste klase batzuetako norbanako askori egiten dio mesede, zeinek ez baitute irabazten boterea baina norbanako horiek klase menderatzaile izateko posizioan jartzen ditu. Frantses burgesiak aristokraziaren boterea eraitsi zuenean, aukera eman zien proletario askori proletarioaren gainetik altxatzeko, baina burges egin ziren heinean bakarrik. Klase berri orok, beraz, nagusitasuna lortzen du, baina aurreko klase menderatzailearena baino base zabalago batean soilik; aldiz, klase ez-menderatzailearen klase menderatzaile berriaren aurka gerora hainbat zorrotzago eta sakonago garatzen da. Bi faktore horiek adierazten dute klase menderatzaile berri horren aurka egiteko borrokaren asmoa dela gizarteko aldezaurreko baldintzen ukapen deliberatuzko eta erradikalago bat lortzea dela, nagusitasunaren alde lehian zebiltzan aurreko klase guztiek baino.

207

Itxura hori guztia, hau da, klase jakin baten agintea ideia baten agintea besterik ez dela, naturalki amaitzen da klase-agintze batek, oro har, gizartea antolatuz dagoen forma izateari uzten dionean, interes partikular bat orokor edo «interes orokorra» menderatzaile bezala errepresentatzea beharrezko ez den bezain laster.

Idea nagusiak norbanako nagusietatik bereizten direnean eta batez ere produkzio-moduaren maila jakin batetik sortzen diren harremanetatik eta ideiak beti historia menderatzailea dela ondorioa atera denean, oso erraza da ideia askotariko horietatik «ideiak», Idea, etab., abstraitzea historiako indar menderatzaile gisa eta horrela ulertzea ideia eta kontzeptu bereizi horiek guztiak historian garatzen den Kontzeptuaren «Autodeterminazio» gisa. Horri segitzen dio, noski, gizakien harreman guztiak gizaki kontzeptutik erator daitezkeela, gizakia kontzeptu bezala, gizakiaren esentzietatik, Gizakitik. Hori egin da filosofia espekulatiboan. «Hegelek berak onartzen du Historia-filosofiaren amaieran berak «Kontzeptuaren progresua bakarrik kontsideratu duela» eta historiaren «egiazko teodizea» aurkeztu duela (446).» Orain itzul gaitezke «Kontzeptua»ren produzitzaileengana, teorialari, ideologo eta filosofoengana, eta ateratzen dugun ondorioa da filosofoak, pentsalariak bere horretan, menderatzaile izan direla historian ondorio hori, ikusi dugunez, Hegelek dagoeneko aurreratua zuen. Horrela historian Espirituak duen hegemonia frogatzearen trikimailu osoa (Stirnerrek hierarkia deitzen dio horri) honako hiru ahalegin hauetara mugatzen da.

1.zk. Bereizi egin behar dira arrazoi enpirikoengatik, baldintza enpirikoen pean, agintzen dutenen ideiak, eta norbanako material gisa agintari egiazkoengandik; ideiek eta lilurek historian duten agintea aitortu beharra dago.

2.zk. Ordena ezarri behar da ideien aginte horretan, lotura mistura bat frogatu behar

da elkarren ondoko ideia menderatzaileen artean, zeina lortzen baita horiek «Kontzeptuaren autodeterminazio» gisa ikusita (hori ahagarri da zeren ideiak elkarrekin errealki lotuta baitaude horien base enpirikoaren indarrez eta ideia huts gisa auto-bereizkuntza, pentsamenduz egindako bereizkuntza bihurtzen direlako).

3.zk. «Kontzeptu autodeterminatzaile» horren itxura mistikoa kentzeko pertsona bihurtzen dugu —»Autokontzientzia»edo, erabat materialista agerrarazteko, historian «Kontzeptua» errepresentatzen duten pertsona sail bat, «pentsalari», «filosofo», ideologo, zeinak berriz ere historiaren manufakturatzaile gisa ulertzen baitira, «zaindarien kontseilu», agintari gisa. «Gizakia = «giza espiritu arrazionala».» Horrela elementu materialista guztiak kendu zaizkio historiari eta trosta betean libre utz daiteke espekulazioaren zaldia.

208

Alemanian nagusitu zen metodo historikoa eta batez ere gailentzeko izan zuen arrazoia, oro har, ideologoen lilurarekin, adibidez, jurista, politikarien lilurekin (estatu-gizon pratikoak ere baziren haien artean) eta lagun horien ameskeria dogmatiko eta distorsioekin zuen loturatik azaldu behar da. Oso erraz azaltzen da bitartean zuten posizio praktikotik, haien enplegutik eta lanaren banaketatik.

Egunero bizimoduan edozein *shopkeeper*«aenaari» oso gai izaten den bitartean bereizteko norberak zer den esaten duena eta norbera errealki dena, gure historialariek oraindik ez dute lortu intuizio simple hori. Garai bakoitza bere hitzean hartzen dute eta esaten duen eta bere buruaz imajinatzen duen guztia sinesten dute. [36tik 39rako orrialdeak Marxen paginazioan falta dira hemen.]

[Lanaren Banaketa] [...]aurkitu dira. Lehenetik ondorioztatzen da lan garatu baten eta merkataritza hedatu baten premisa; bigarrenetik, lokalitatea. Lehen kasuan, beharrezkoa da norbanakoak batzea; bigarrenean, jadanik produkzio-tresna gisa aurkitzen dira produkzio-tresnaren alboan.

Beraz, produkzio-tresna naturalen eta zibilizazioak sortuen arteko aldea agertzen da hor. Landa (ura, etab. bezala) produkzio-tresna naturalzat har daiteke. Lehen kasuan, produkzio-tresna natural bat denean, norbanakoak naturaren mendean aurkitzen dira; bigarren kasuan, lanaren produktu baten pean. Horregatik, lehen kasuan, jabetza (lur-jabetza) ere zuzeneko menderakuntza natural gisa agertzen da; bigarrenean, lanaren menderakuntza gisa, bereziki lan metatuaren, kapitalarena. Lehen kasuak auresuposatzen du norbanakoak lokarriren batez baturik daudela: familiaz, tribuaz, lurraz beraz eta abarrez. Bigarren kasuak auresuposatzen du elkarrekiko independenteak direla eta trukearen bidez bakarrik matentzen direla elkarturik. Lehen kasuan, trukea nagusiki gizakien eta naturaren arteko trukea da; bigarrenean, batez ere gizakiek beren artean duten trukea da. Lehen kasuan aski da batez besteko giza zentzu komuna. Bigarrenean, praktikoki osatu egin behar da lan fisikoaren eta intelektualaren arteko banaketa, Lehen kasuan, jabeak ez-jabeen gainean ezartzen duen menderakuntza harreman pertsonalean edo erkidego gisako batean oinarri daiteke; bigarren kasuan, derrigorrean hartu behar izan du forma materiala hirugarren objektu batean, diruan. Lehen kasuan, industria txikia existitzen da, baina produkzio-tresna naturala erabiltzeari menderatua eta, beraz, norbanako desberdinen artean lanaren banaketarik gabe; bigarren kasuan industria lanaren banaketan oinarritzen da eta horren bitartez bakarrik egikaritzen da.

209

Orain arte produkzio-tresnetatik abiatu gara eta jadanik hemen jabetza pribatuaren

beharra agertu zaigu fase industrial batzuetarako. *Industrie extractive-n* jabetza pribatua oraindik bat dator lanarekin; industria txikian eta gaur egun arteko nekazaritza osoan, jabetza dauden produkzio-tresnen beharrezko ondorioa da; industria handian bakarrik, produkzio-tresnaren eta jabetza pribatuaren arteko kontraesana industriaren produktu bat da, eta beharrezko da, hori sortzeko, industria handia garatu samartua egotea. Beraz, horrekin bakarrik sortzen da jabetza pribatua gainditzeko aukera.

Lan fisiko eta intelektualaren arteko banaketarik garrantzitsuena hiriaren eta landaren arteko banaketa da. Landaren eta hiriaren arteko kontrajartzea barbarietik zibilizatorako igarobidean hasten da, tribu-eraentzatik estaturakoan, lokalitatetik naziorakoan, eta zibilizazioaren historia osoaren barruan mantentzen da gure egunotara iritsi arte (*Anticorn-law-league*). Hirien existentziarekin administrazioaren, poliziaren, zergaren eta abarren beharra sortzen da, hitz batean, udal bizitzarena eta horrela politikarena, oro har. Lehen aldiz agertzen da hemen biztanleria bi klase handitan banatzea, zuzenean lanaren banaketan eta produkzio-tresnetan oinarritua. Hiria jadanik biztanleriaren kontzentrazioaren obra da, produkzio-tresnena, kapitalarena, gozamenarena, eta beharrena; aldiz, landa aurkako gertakariaren adierazgarri garbia da, isolamendua eta bakardadearena. Hiriaren eta landaren arteko kontrajartzea jabetza pribatuaren barruan bakarrik gerta daiteke. Norbanakoa lanaren banaketari, ezartzen zaion jarduera determinatu bati menderatzearen adierazpen nabariena da; menderatze horrek hiri-animalia mugatu bihurtzen ditu batzuk, eta beste batzuk landa-animalia mugatu, egunero interesen kontrajartze hori birproduzitzen. Lana bihurtzen da hor oinarritzea, norbanakoen gaineko boterea, eta botere horrek dirauen bitartean, jabetza pribatuak derrigorrean existitu behar du. Hiriaren eta landaren arteko kontrajartzearen gainditzea lehen baldintzetako bat da erkidegoarentzat, eta baldintza hori, bestalde, premisa materialen masa baten baitan dago, zeina ez baitago nahimen hutsaren bidez bakarrik lortzerik, edozeinek lehen begiradan hauteman dezakeenez. (Geroago eztabaidatuko ditugu baldintza horiek).

210

Hiriaren eta landaren arteko bereizketa kontzebi daiteke, halaber, kapitalaren eta luraren gaineko jabetzaren bereizketa bezala, existentzia baten eta lurjabetzatik dependentea den kapitalaren garapen baten hasiera bezala, hau da, lanean eta trukean bakarrik oinarrituriko jabetza batetik. Hirietan, zeinak Erdi Aroan aurreko historiatik ez baitzituen mailegatu, baizik eta erakuntza berri gisa sortu baitziren, gizaki libre bihurturiko glebako jopuen bidez, horietako bakoitzaren lan berezia zen bere eskuan zeukan jabetza bakarra, berak egindako kapital txikiaren ekarpenaz landa eta beharrezko lanabesak ia besterik ez zena. Etengabe hirira zetozen ihes egindako jopuen konkurrentzia, landa hiriguneen aurka etengabe egiten ari zen gerra eta, horren ondorioz, botere militar antolatu baten beharra hirien aldetik, baterako jabetza lan determinatu batekin zuen lotura, merkantziak saltzeko lonja komunak edukitzearen beharra, artisauak *commerçants ziren* garai batean, eta profesioakoak ez ziren norbanakoak lonja horietatik ondorioz kanporatzea, ofizio batzuen eta besteen arteko interesen kontrajartzea, ahalegin handiarekin ikasitako lan bat babestu beharra eta herrialde osoaren antolakuntza feudala: horiek izan ziren ofizio bakoitzeko langileak gremiotan taldekatzera bultzatu zituzten kausak. Ez daukagu hor gremio-sistemaren, ondorengo ibilbide historikoaren produktuaren



modifikazio askotarikoetan sartu beharrik. Glebako jopuak hirietara ihes egitea Erdi Aro osoan zehar gertatu zen. Jopu horiek, landan beren jaunek jazartuak, banaka aurkezten ziren hirietan, non taldekatze antolatuekin topo egiten baitzuten, zeinen aurka ezindurik baitzeuden eta zeinetan beren lanaren eskariak eta beren lehiakide hiritar ordurako gremioratuek esleitzen zieten postua etsipenez hartu behar izaten baitzuten. Langile horiek, nor bere aldetik hirira etortzen zirenak, ezin ziren inoiz indar bat izatera iritsi, zeren ikasi beharreko gremio-lan bat bazen haien lana, gremioetako maisuak jabetzen baitziren haietaz eta beren interesen arabera antolatzen baitzituzten, eta lana ikasi beharrekoa ez zen kasuetan eta, beraz, ezein gremiotan txertatua ez zegoenean, baizik jornalari-lan soila baldin bazen, horretan aritzen zirenak ez ziren ezein antolakuntza eratzerantz iristen eta betiko jendetza desantolatua izaten jarraitzen zuten. Hirietan zegoen jornalari-lanaren beharrak sortu zuen plebe hori.

211

Hiri horiek behar bitartegabeak sortutako egiazko «elkarteak» ziren, jabetza defendatu eta produkzio-bitartekoak eta auzo bakoitzaren defentsa-bitartekoak biderkatzeko kezka sortuak. Hiri horietako plebea botere oroz gabeturik zegoen, bata bestearekiko arrotzak ziren norbanako-tropel batek eratua baitzen, eta nor bere aldetik etorriak ziren, antolatu gabe zeuden, eta haien aurrean botere antolatu bat zegoen, militarri hornitua, begi txarrez begiratzen ziena eta zorrotz zelatatzen zituena. Ofizio bakoitzeko ofizial eta apendizak maisuen interesei hobekien zegoen eran antolaturik zeuden; gremioen maisuekin lotzen zituen patriarka-harremanak horiei botere bikoitza ematen zien; alde batetik, ofizialen bizitza osoaren gain zuten zuzeneko eraginaren bidez, eta, besterik, maisu berarekin lan egiten zuten ofizialentzat hori loturagune erreala baitzen, zeinek mantentzen baitzituen loturik gainerako maisuen ofizialen aurrean eta horiengandik bereizten baitzituen. Azkenik, ofizialak existitzen zen antolakuntzari lotuta zeuden egunen batean maisu izatera iristeko zuten interesarengatik. Horrek azaltzen du zergatik plebea gutxienez, noizean behin, jaikialdi eta matxinadatarantz oldartzen zen, bitartean hiri-antolakuntza horren guztiaren aurka, zeinek, hala ere, ez baitzuten inolako efekturik izaten, sostengatzen zituztenen ezintasunarengatik; eta ofizialak, berriz, erresistentzia eta protesta-egintza txikietan bakarrik sartzen ziren gremio bakoitzaren barruan, egintza horiek, errealtatean, gremio-sistema propioaren osagai zirelarik. Erdi Aroko matxinada handiak landatik abiatu ziren beti, baina era berean porrot egin zuten, hain zuzen ere haien sakabanketarengatik eta hortik zetorren nekazarien ankerkeriarengatik.

Kapitala, hiri horietan, etxebizitzak, ofizioko lanabesek eta herentziazko eta tradiziozko bezeriak eratua zen; kapital naturala zen. Egikariezina zelarik trukea hasiberria zelako eta zirkulaziorik ez zegoelako, gurasoetatik seme-alabetara heredatzen zen. Ez zen, garai modernoetan bezala, kapital dirutan tasagarria, zeinean berdin baitio honelako edo halako gauzatan inbertitzea, baizik kapital jabearen lan determinatu eta konkretuarekin zuzenean txirikordatua eta harengandik bereiztezina; beraz, ildo horretatik, *estamentu-kapitala* zen.

212

Hirietan, gremio bakoitzaren arteko lanaren banaketa oso naturala zen [erabat primitiboa] eta gremioetan beraietan ere dena ez zen langile banakoen artean egiten. Horietako bakoitzak trebaturik egon behar zuen lan sail batean eta lanabesek ahalbidetzen ziotena egin behar zuen; truke mugatu eta hiri batzuek beste batzuekin

harreman urriak izatea, biztanleriaren urritasunak eta beharren mugapenak ez zuten uzten lanaren banaketa garatzen, horregatik maisu izatera iritsi nahi zuenak ofizio osoa menderatu behar izaten zuen. Hortik dator Erdi Aroko artisauen artean beren lan bereziarekiko eta hartan aritzeko trebetasunarekiko halako interes bat, zentzu artistiko mugatu izatera ere irits daitekeen trebetasuna. Baina horri zor zaio era berean Erdi Aroko artisauek erabat beren lanari emanak bizi izatea, harekiko basailutzajarrera etsitu bat izatea eta beren eginbeharrek erabat hurrupaturik egotea, langile modernoa baino askoz gehiago, zeinari axolagabe baitzaio bere lana.

Lanaren banaketako hurrengo hedapena produkzioa eta merkataritza, merkatariklase berezi bat prestatzea izan zen; bereizkuntza hori hiri tradizionaletan (zeinetan, besteak beste, juduak baitzeuden) iraganetik heredatua zen eta hiri sortu berrietatik berandu gabe agertu baitzen. Horrekin merkataritza-harremanak izateko aukera ezarri zen, hurbileneko zirkulua gaindituz, aukera hori egikaritzea existitzen ziren komunikabideetan baitan zegoen, herrialdean lortutako segurtasun publikoko egoeraren baitan eta ingurabar politikoen (jakina da Erdi Aro osoan merkatariek beren ibilaldiak karabana armatuetan egiten zituztela) eta merkataritzak eskura zeuzkan guneetako behar primitibo edo garatuenean baldintzatua, haiei zegokien kultura mailaren arabera.

Klase berezi batean eraturiko komertzioarekin eta merkatarien bidez merkataritza hedatzean, hiriaren ingurune hurbilenaz haratago, berehalaxe gertatzen da produkzioa eta komertzioaren arteko elkardependentsia. Hiriak elkarrekin harremanetan jartzen dira, hiri batetik bestera lanabes berriak garraiatzen dira, eta produkzioaren eta komertzioaren arteko bereizkuntzak laster eragingo du produkzioaren banaketa berri bat hirien artean, eta laster ikusiko dugu haietako bakoitzak abar industrial bat nagusiki ustiatzera jotzen duela. Hasiera batean lokalitate batera mugaturik egote hura pixkanaka desagertzen hasiko da.

213

Komertzioaren hedapenaren baitan zegoen erabat lokalitate batean lortutako produkzio-indarrak, eta batez ere asmakariak, ondorengo garapenerako galtzea edo ez. Ingurune hurbilenekotik haratago doan komertzio bat oraindik ez dagoenean, asmakari bakoitza lokalitatean bertan egin behar da, eta aski dira zorizko akzidente soilak, esaterako herri barbaroen sarraldiak, baita ohiko gerrak ere, herrialde baten produkzio-indarrak eta beharrak murrizteko halako punturaino, non dena berriro hastera beharturik aurkituko den. Historiaren hasieran, asmakari guztiak egunero berriro egin behar izaten ziren, eta lokalitate bakoitzean, besteekiko independentziarekin. Zeinen segurtasun gutxirekin aurkitzen ziren erabateko suntsipenetik produkzio-indar ongi garatuak, nahiz eta komertzioak hedapen handi samarra lortua izan, feniziarrek «eta Erdi Aroko beira margotugintzak» erakusten dute, zeinen asmakariak desagertu egin baitziren ia gehien batean nazio hori komertzioetik luzaz desplazatua izatean, Alexandrok menderatua eta ondorioz beherakada gertatzean. Eta gauza bera gertatu zen Erdi Aroan, adibidez, kristal polikromatuaren industriarekin. Lortutako produkzio-indarren iraupena soilik bermatzen da komertzioak izaera unibertsala lortzean, industria handia oinarritzat izatean eta nazio guztiak konkurrentzia-borrokari sartzean.

Hiri bat baino gehiagoren arteko lanaren banaketak ondorioz manufaktura sortzea ekarri zuen, jadanik gremio-sistematik ateratzen ziren produkzio-abar gisa. Manufaktura lehen loratzea —Italian, eta geroago Flandes nazio atzeritarrekiko

komertzioa izan zuen premisatzat. Beste herrialde batzuetan —Ingalaterran eta Frantzian, adibidezmanufakturak barne-merkatura mugatuz hasi ziren. Dagoeneko aipaturiko premisez gainera, manufakturek auresuposatzen dute biztanleriaren kontzentrazio aurerra samartu bat —landan batez ereeta kapitalarena, zeina esku gutxitan batzen hasten baita, bai gremioetan gremio-ordenantzak gorabehera—, bai merkatarien artean. Lehen unetik makina baten funtzionamenduak auresuposatzen zuen lana, nahiz eta hasi-masizkoena izan, laster agertu zen garapenerako gaituena bezala.

Lehen lana, bultzatua izan zena eta komertzioaren hedapenaren bidez garapen berria lortu zuena, ehundegia izan zen, ordu arte nekazariak albo-jarduera gisa burutzen zutena, janzteko beharrezkoak eskuratzeko. Ehundegia izana zen lehena, eta denetan garrantzitsuena izaten jarraitu zuen. Janzteko ehunen eskaria, biztanleria gehitu ahala haziz zihoana, kapital naturalaren hasiberriko metatzea eta mobilizazioa zirkulazio azeleratuaren eta nolabaiteko luxu-beharraren efektuz, faktore horiek guztiek eragina eta trukearen pixkanakako hedapenak babestua, bulkada kuantitatibo eta kualitatiboa eman zioten ehungintza-arteari, produkzio tradizionalaren forma-markotik irtetera behartu zuena. Beren behar propioei aurre egiteko ehungintzan aritzen ziren nekazarien ondoan, zeinek existitzen iraun baitzuten eta, oraindik ere existitzen baitira, ehule-klase berri bat agertu zen hirietan, zeinen ehun-lan guztiak barne-merkatu osorako eta askotan kanpo-merkaturako ere determinatuak baitziren.

214

Ehungintzak, zeinak kasurik gehienetan trebetasun gutxi eskatzen baitzuen eta berandura gabe abar sail amaigabe batean biderkatu baitzen, bere izaera propioz uko egiten zion sistema feudalaren trabak jasateari. Horrek argitzen du ehuleek zergatik lan egiten zuten ia beti herrixketan eta gremio-antolakuntzarik gabeko merkatu-guneetan. Pixkanaka hiri bihurtuz joan ziren, eta herrialde bakoitzeko aberatsenak gainera.

Gremio-trabez gabeturiko manufakturarekin aldatu egin ziren jabetza-harremanak ere. Estamentuko kapital naturala gainditzeko lehen pausoa merkatariaik agertzean eman zen, zeinen kapitala lehen mementotik kapital higigarria izan baitzen, hau da, kapitala hitzaren zentzu modernoan, garai hartan hura ahalgarri zen neurrian. Bigarren aurrerapausoa manufakturak eman zuen, zeinak, bestalde, kapital naturalaren masa bat higiarazi baitzuen eta gehitu egin baitzuen kapital higikorren masa, oro har, harenaren aurrean. Eta manufaktura, aldi beran, nekazarien aterpe bihurtu zen gremioen aurka, zeinek eskluditzen baitzituzten edo gaizki ordaintzen baitzieten, beren garaian gremioen mendeko hiriek nekazari-biztanleriari aterpea eman zioten bezala zapaltzen zuen [lurjabeen aurka].

Manufakturen hasierak berekin ekarri zuen, gainera, alderraialdi bat, mesnada feudalak ezabatzeak, erregei basailuen aurka balio izan zieten armaden lizentziatzeak, nekazaritzaren aurreratzeak eta lurhedadura handiak larre eraldatzeak sortua. Jadanik horrek frogatzen du alderraialdi hori agertzea zehazki bat datorrela feudalismoaren disoluzioarekin. XIII. mendean jadanik aurkitzen ditugu mota horretako aldi jakin batzuekin, nahiz eta alderraialdia XV mendearen amaieran eta XVI. mendearen hasieran bakarrik orokortu eta fenomeno iraunkor bihurtu. Hain ugariak ziren alderrai horiek, non Ingalaterrako Henry VIII.ak, monarka hori baizik ez aipatzeko, 72.000 urkarazi zituen. Zailtasun eskergak eta erresistentzia oso luzea

garaitu behar izan ziren miseria gorrira eramandako jende-masa handi horiek lanari ekitera erabaki zuten arte. Manufakturen goratze lasterrak, batez ere Ingalaterran, pixkanaka hurrupatu egin zituen.

215

Manufakturak nazio bat baino gehiago konkurrentziara, merkataritza-borrokara jaurti zuen, zeinari irteera gerra-erara, arantzel babesle eta debekuen bitartez aurkitu baitzitzaion; aldiz, lehen nazioek, elkarrekiko ukipenean zeudenean, merkataritza-truke kaltegabea zuten. Hemendik aurrera merkataritzak esanahi politikoa hartzen du.

Manufakturak berekin ekarri zuen, halaber, langilearen ugazabarekiko jarrera desberdin bat. Gremioetan ofizialen eta maisuen arteko antzinako harreman parriarkalak zirauen; manufakturan harreman hori langilearen eta kapitalistaren arteko diru-harremanak ordeztu zuen; landan eta hiri txikietan, harreman horrek kolore patriarkal bat izaten jarraitzen zuen, baina hiri handietan, antonomasiaz hiri manufakturatzaileak zirenetan, berehala galdu zuen, ia erabat, kutsu hori.

Manufakturak eta, oro har, produkzioaren mugimenduak gehitze eskerga izan zuten komertzioaren hedatzeari esker Amerika aurkitzearen eta Ekialdeko Indietarako itsas bidea irekitzearen ondorioz. Lurralde horietatik inportaturiko produktu berriek, eta batez ere zirkulaziora jaurtiriko urreeta zilar-masek, erabat aldarazi zuten klase batzuen posizioa beste batzuekiko, eta aldi berean menturazaleen espedizioek, kolonizazioak eta, batez ere, merkatuak mundu-merkaturantz hedatzeak, zeina orain ahalgarri bihurtu baitzen eta egunean-egunean egikaritzuz baitzihoan, garapen historikoaren aldi berri bati hasiera eman zioten, zeina oro har ez baitugu tratatuko hemen. Berriki aurkituriko herrialdeen kolonizazioa pizgarri berria gertatu zen nazioen arteko merkataritza-borrokarako, eta horrek, beraz, hedapen handiagoa eta garatze handiagoa eman zion.

Merkataritzaren eta manufakturaren hedatzeak kapital higikorren metatzea azeleratzeko balio izan zuen, aldiz, gremioetan, zeinetan ezerk ez baitzuen estimulatzen produkzioa areagotzera, kapital naturalak egonkor zirauen edota urritu egiten zen. Merkataritzak eta manufakturak burgesia handia sortu zuten; aldiz, gremioak burgesia txikian kontzentratzen ziren, zeinek orain ez baitzuten jarraitzen menderatzen, lehen bezala, hirietan, baizik eta makurtu beharra zuten merkataritza eta manufakturatzaile handien nagusitasunaren pean. Hortik gremioen beherakada manufakturarekin ukipenean jartzen ziren bezain laster.

216

Nazioen arteko harremanek forma desberdinak hartzen dituzte, aipatu dugun garaian. Hasieran, urre eta zilar zirkulatzailaren kantitate urriak baldintzatu egiten zuten metal horiek esportatzeko debekua, eta eskuarki atzerritik inportaturiko industria eta hazten ari zen hiri-biztanleriari okupazioa eman beharrak ezarria ez zihoan barne-konkurrentziaren aurka bakarrik, baizik eta, eta funtsean, kanpo-konkurrentziaren aurka. Gremioen tokiko pribilegioa nazio osora hedatzen zen jatorrizko debeku horietan. Muga-zergak sortu ziren jaun feudalek merkatariei beren sailak zeharkatzeagatik kobratzen zizkieten zergetatik, zakuratzeen erreskate gisa; gerora hiriek ere kobratu zituzten zergak eta, estatu modernoak sortzean ogasuna izan da dirua lortzeko eskuraen izan duen baliabidea. Amerikako urrea eta zilarra europar merkatuetan agertzeak, industriaren pixkanakako garapenak, merkataritzaren hazkuntza lasterrak eta, horren ondorio gisa, burgesia ez-gremiala

gorantz joateak eta diruaren hedapenak bestelako esanahi bat eman zieten neurri horiei guztiei. Estatuak, zeinak egunetik egunera gero eta diruaz gutxiago gabeturik egon zitekeenak eutsi egin zion orain, maila fiskaleko arrazoiengatik, urrea eta zilarra esportatzeko debekuari; burgesak, zeinek ikusten baitzuten beren akaparatzeko-helburu handia orain berriro merkatura jaurtitako diru-masa horietan, erabat asebeterik sentitzen ziren horrekin; aurreko pribilegioak, diruagatik salduak, diru-sarrera bihurtu ziren gobernuarentzat; muga-legerian esportazioaren muga-zergak sortu ziren, zeinak bigarren eragozpen bat tartekatuz industriaren bidean helburu fiskal hutsen atzetik baitzihoazen.

Bigarren aldia XVII. mendearen erdi aldean hasi zen eta ia XVIII. mendearen amaiera arte iraun zuen. Merkataritza eta nabigazioa manufaktura baino lasterrago garatu ziren, zeinak bigarren mailako egitekoa baitzuen; koloniak kontsumitzaile garrantzitsu bihurtzen hasi ziren eta nazio bakoitza posizioak hartzen hasi zen, borroka luzeen bitartez, irekitzen ari zen mundu-merkatuan. Aldi hori nabigazio-legeekin eta monopolio kolonialean hasiko da. Nazio batzuen eta besteen arteko konkurrentzia, ahal zen heinean, muga-zerga, debeku eta itunen bidez ezabatzen zen; azken finean, konkurrentzia-borroka gerraren bidez (batez ere itsas gerraren bidez) burutzen eta deliberatzen zen. Itsasoan nazio ahaltsuena zenak, Ingalaterrak, bere nagusitasunari eusten zion merkataritzan eta manufakturan. Jadanik badakusagu hor herrialde bakar bateko kontzentrazioa.

217

Manufakturak etengabeko babesa izan zuen, muga-zerga protekzionisten bidez barne-merkatuan, monopolioen bidez merkatu kolonialean eta, kanpo-merkatuan, goreneraino eramanez muga-tarifa diferentzialak. Faboratu egiten zen herrialde propioan sortutako lehengaiak lantzea (artilea eta lihoa Ingalaterran, zeta Frantzian), haien esportazioa debekatuz (artilearena, Ingalaterran), aldi berean zabartuz edo jartzuz inportaturiko lehengaiaren esportazioa (horrela, Ingalaterran, kotoiarena). Naturala denez, itsas merkataritzan eta potentzia kolonial gisa menderatzailea zen herrialdea, halaber, saiatu zen manufaktuarren hedaturik kuantitatibo etakualitatibo handiena segurtatzen. Hori ezin zitekeen inondik ere babes-erantzarik gabe gera, zeren aise gal baitzezakeen bere merkatua eta hondatua gertatu beste herrialde batzuetan egindako aldaketa txikiengatik; erraza zen neurri bateraino aldeko baldintzak zituen herrialde batean sartzea, baina horrek berak egiten zuen halaber erraza izatea hura suntsitzea. Baina, aldi berean, herrialdeko funtzionamendu-metodoengatik, XVIII. mendean batik bat, manufaktura halako moldez txirikordatzen zen norbanako-masa handi baten bizi-harremanekin, non ezin herrialde ez baitzitekeen mentura bere existentzia jokoan jartzera konkurrentzia askeari bide eman. Beraz, erabat, esportazioraino eramaten zenean merkataritzaren hedapenaren edo murriztapenaren baitan zegoen, eta horretan efektu erlatiboki oso txikia eragiten zuen. Hortik haren esanahi sekundarioa eta hortik, halaber, merkatarien eragina XVIII. mendean. Merkataria, eta batez ere itsasontzi-armadoreak, saiatzeko ziren besteen gaitetik estatuaren babesa eta monopolioak lortzen; eta nahiz eta manufakturatzaileek, egia da, neurri protekzionistak eskatu eta lortzen zituzten, garrantzi politikoari zegokionez, merkatarien atzetik zeuden denbora guztian. Merkataritza-hiriak, eta batez ere itsas hiriak, zentro zibilizatu eta burgesiarenak bihurtu ziren nolabait ere, aldiz, lantegi-hirietan burgesia txikiak zirauen. [Cf. Aikin, etab.] XVIII. mendea

merkataritzaren mendea izan zen. Horrela dio espresuki Pintok: «*Le commerce fait la marotte du siècle*» «Merkataritza izan zen XVIII. mendeko mania» eta «*Depuis quelque temps il n'est plus question que de commerce, de navigation et de marine*» «Azken bolada honetan jendeak merkataritzaz, nabigazioaz eta marinaz besterik ez du hitz egiten».

218

Hala ere, kapitalaren mugimendua, nahiz eta nabarmenki azeleraturik, geldo samar mantendu zen. Mundu-merkatua atal bat baino gehiagotan sakabanatzeak, haietako bakoitza nazio desberdin batek esplotaturik, nazioen arteko konkurrentzia ezabatzeak, produkzioaren beraren baldarkeriak eta diru-sistemak, zeina doi-doi hasi baitzen bere lehen faseetatik irteten, horrek guztiak nabarmen eragozten zuen zirkulazioa. Horren ondorioa zen merkataritza guztiei eta, oro har, merkataritza-bizitzaren modu eta estiloari atxikirik artean zirauen dendari-espiritu zikin eta ziztrin hura. Manufakturatzaileekin alderatuta, eta batez ere artisau guztiekin, merkataritza horiek, zalantzarik gabe, burgesak ziren eta burges handiak, baina hurrengo aldiko merkataritza eta industrialekin alderatuta burges txikiak besterik ez ziren.

Aldi horren ezaugarria da, halaber, urrea eta zilarra esportatzearen debekua amaitzea, diru-merkataritzaren jaiotza, bankuen agerpena, zor publikoarena, paper-dituarena, akzio eta baloreekiko espekulazioena, salerosgai guztietako agiotajearena eta oro har finantzen garapenarena. Kapitalak berriro galtzen du artean geratzen zitzaion izaera naturalaren parte handi bat.

Herralde batean, Ingalaterran, merkataritza eta manufaktura kontzentratzea, XVII. mendean zehar ategabe mantendu zen eta pixkanaka herrialde horrentzat mundu-merkatu erlatibo bat sortuz joan zen eta, horrekin, herrialde horretako bertako manufaktura-produktuentzat eskari bat, industriaren aurreko produkzio-indarrek jadanik asetzea lortzen ez zutena. Eta eskari hori, produkzio-indarren gaitasuna gaitzen zuena, izan zen jabetza pribatuaren hirugarren aldiari sorrera eman zion indar bultzatzailea Erdi Arotik, industria handia sortuz eta, horrekin, indar elementalak xede industrialei, makineria eta lanaren banaketa oso hedatua ezartzea. Fase berri horren gainerako baldintzak —konkurrentzia-askatasuna herrialdearen barruan, mekanika teorikoaren garapena (Newtonek bere gailurrera eramandako mekanika izan zen Frantzia eta Ingalaterrako zientzia ezagunena, XVIII. mendean), etab— jadanik existitzen zen Ingalaterran. (Herrialdearen baitako konkurrentzia askea alderdi guztietan iraultzaren bidez konkistatu behar izan zen: 1640 eta 1688koen Ingalaterran, 1789koen Frantzian.)

219

Konkurrentziak berehala behartu zuen bere eginkizun historikoari eutsi nahi zion herrialde oro bere manufaktura babestera mugazerga berrien bidez (zeren zerga-muga zaharrak askiek baitziren industria handiaren aurrean), eta, handik gutxira, industria handia muga-zerga protekzionisten babespean sarraraztera. Baliabide babesle horiek gorabehera, industria handiak unibertsalizatu egin zuen konkurrentzia (industria handia merkataritzarako askatasun praktikoa da, eta muga-zerga protekzionistak aringarri bat besterik ez dira, babes-horma bat merkataritza-askatasunaren *barruan*), komunikabideak eta mundumerkatu modernoa sortu zituen, bere aginte-makilapean ezarri zuen merkataritza, kapital osoa kapital industrial bihurtu eta horrekin zirkulazio lasterra sortu zuen

(diru-sistemaren garapena) eta kapitalen zentralizazioa. <Konkurrentzia unibertsalaren bidez norbanako guztiak beren errerriak ezin gehiagoraino ezartzera behartu zituen. Suntsitu egin zituen ahal izan zuen tokian ideologia, erlijioa, morala, etab., eta, ezin izan zuen tokian, gezur nabari bihurtu zituen>. Lehen aldiz historia unibertsala sortu zuen, nazio zibilizatu oro eta norbanako oro, haren barruan, mundu osoaren baitan egotea eraginez bere beharrak asetzeko, eta zuen nazio bakartuen eskusibismo natural eta primitiboa, ordu arte existitzen zena, deuseztatu zuen. Naturaren zientzia kapitalaren mendean jarri zuen eta lanaren banaketari naturaltasunaren azken itxura kendu zion. Oro har, naturaltasuna deuseztu zuen, lanaren barruan egitea ahalgarri zen heinean, eta harreman natural guztiak diru-harreman bihurtu zituen. Naturalki eraturiko hirien ordeztu, industria-hiri moderno handiak sortu zituen, gauetik goizera sortzen zirenak. Suntsitu egin zituen, nonahi sartzen zela ere, artisautza eta industriaren aurreko fase guztiak. Merkataritza-hiriaren landarekiko garapena burutu zuen. [Haren lehen auresuposizioa] sistema automatikoa da. [Haren garapenak] produkzio-indarren masa bat sortu zuen, zeinek aurkitzen baitzuten jabetza pribatua kate bat, gremioak manufakturaentzat izan ziren bezala eta nekazaritza-ustiapen txikia artisautzaren aurrerapenerako. Produkzio-indar horiek, jabetza pribatuaren pean, alde bateko garapena bakarrik zuten, gehiengoarentzat indar suntsitzailerik bihurtzen ziren eta haien kantitate handi bat jabetza pribatua ere aplikatzerik ez zegoen. Industria handiak nonahi sortzen zituen, oro har, harreman berak gizarteko klaseen artean, horrekin nazionalitateen izaera propioa eta berezia suntsituz. Azkenik, nazio bakoitzeko burgesiak bere interes nazionalak aparte mantentzen jarraitzen zuten bitartean, industria handiak klase bat sortu zuen, nazio guztietan interes berarengatik mugitzen zena, eta zeinean jadanik nazionalitate oro suntsiturik geratzen baitzen; mundu zahar guztiarekin ezer jakin nahi ez zuen klase bat eta, aldi berean, aurre egiten zion bat. Industria handiak jasanezin egiten zion langileari ez bakarrik kapitalistarekiko harremana, baita lana bera ere.

220

Esan beharrik ez dago industria handiak ez duela lortzen garapen maila bera herrialde bateko toki guztietan. Hala ere, horrek ez du geldiarazten proletarioaren klase-mugimendua, zeren industria handiak sortutako proletarioak mugimendu horren erpinean jartzen baitira eta berekin herrestan eramaten baitute masa osoa, eta hori industria handiak bazterturiko langileak industria handi bereko langileena baino oraindik bizi-egoera okerrago batera bultzaturik daudelako. Eta, era berean, industria handi bat garatu duten herrialdeek eragina dute herrialde *plus o moins* <gehiago edo gutxiago> ez-industrialetan, horiek mundu-trukeak konkurrentziaren borroka unibertsalera bultzatuak dauden neurrian. [Produkzio-] forma desberdin horiek lanaren beste hainbeste antolatze-forma dira eta, beraz, jabetzarenak. Aldi guztietan gertatu da existitzen ziren produkzio-indarren bateratze bat, beharrek derrigorreko egiten zuten guztietan.

Produkzio-indarren eta komertzio-formaren arteko kontraesana, zeina ikusten baikenuen, behin baino gehiagotan gertatu dena aurreko historian, baina haren oinarria arriskuan jarri gabe, ezinbestez bihurtu behar zuen, hori gertatzen zen bakoitzean, iraultza, baina aldi berean zenbait albo-forma hartuz, adibidez, gatazkagataz orohartzaileak, klase desberdinen arteko gatazka, kontzientzien kontraesana, ideia-borroka, etab., borroka politikoa, etab. Ikuspuntu mugatu batetik

nabarmen daiteke albo-forma horietako bat eta iraultza horien oinarritzat har daiteke, eta hori hainbat errazagoa da, iraultzen abiapuntu izateko balio duten norbanako berek lilurak sortzen baitituzte beren jarduera propioaz, beren kultura mailaren eta kasu bakoitzeko garapen historikoaren fasearen arabera.

Gure ikuspuntuaren arabera, historiako gatazka guztiak produkzio-indarren eta eragintruke-formaren arteko kontraesanetik sortzen dira. Gainerakoan, ez da beharrezko kontraesan hori, herrialde batean gatazkak eragiteko, herrialde horretan bertan areagotzea hain zuzen ere. Industrialki garatuagoak diren herrialdeekiko konkurrentzia, nazioarteko truke handiago baten eragina aski da antzeko kontraesan bat sortzeko ere industria gutxiago garatuko herrialdeetan (horrela, adibidez, Alemaniako proletalgo latentea agerian jarri da industria ingelesaren konkurrentziaren bidez).

221

Konkurrentziak bakartu egiten ditu norbanakoak, ez bakarrik burgesak, are gehiago proletarioak, elkarrekin aurrez aurre jarriz, nahiz eta aglutinatzen dituen. Horregatik denbora luzea behar da norbanako horiek batera daitezen, bestalde bateratze horretarako —tokiko soila ez izatekotan— industria handiak beharrezko bitartekoak eskaintzen dituenen hasi behar du, industria-hiri handiak eta komunikabide merke eta lasterrak, horregatik borroka luzeen ondoren bakarrik da ahalgarri menderatzea norbanako bakartu horiei aurre egiten dien edozein botere antolatatu, zeinak bizi baitira beren isolamendua egunero birsortzen duten baldintzetan. Aurkakoa eskatzea konkurrentzia ez existitzea eskatzea adinaxe izango litzateke garai historiko determinatu horretan edo norbanakoek burutik kentzea harremanak, zeinen gain, norbanako bakartu gisa, ez baitute kontrol txikiarik ere.

[*Erkidegoa*] Etxebizitzen eraikuntza. Berez ulertzen da basatien artean familia bakoitzak bere kobazuloa edo txabola propioa izatea, nomadek beren denda duten bezalaxe. Banakako etxe-ekonomia hori oraindik are beharrezkoagoa egiten da jabetzar pribatuaren ondorengo garapenaren indarrez. Nekazaritza-herrietan baterako etxe-ekonomia lurra batera lantzea bezain ezinezkoa da. Aurrera-pauso handia izan da hiriak eraikitzea. Hala eta guztiz ere, aurreko aldi guztietan, banakako ekonomia ezabatzea, jabetza pribatua gainditzearekin bereiztezina, ezinezkoa zen jadanik horretarako baldintza materialik ez egotearen arrazoi hutsez. Baterako etxe-ekonomiaren antolakuntzak makineriaren garapena, indar naturalen eta beste produkzio-indar asko erabiltzea inplikatzeko du, adibidez, etxeetako ur korrantea, gasezko argikuntza, lurrinezko berokuntza eta abar, hiriaren eta landaren arteko [kontrajartzea] gainditzea. Baldintza horiek gabe, baterako ekonomia ez da iritsiko, bestalde, beste produkzio-indar bat izatera, oinarri material oroz gabeturik egongo da, oinarri teoriko hutsean bermatuko da, hau da, apeta hutsa izango da eta monasterio-ekonomia batera besterik ez du gidatuko. Zer zen ahalgarri hirien erakuntzan ikusten da, zeina abiatu baitzen jendea elkarrengana mugitu zenean eta helburu zehatz desberdinetarako eraikin komunalak jasotzean (kartzelak, koartelak, etab.). Jakina, banakako ekonomiaren traszendentzia bereiztezina da familiaren traszendentziatik.

222

Max Santuarengan hain sarritan aurkitzen dugun tesia, zeinaren arabera norbera den guztia estatuaren bidez delakoa, funtsean burgesa burges generoko ale dela sostengatzen duena bera da, tesi horrek auresuposatzen du *klase* burgesa jadanik



existitzen zela eratzten duten norbanakoen aurretik. Erdi Aroan, hiri bakoitzeko auzoak beharturik zeuden landa-nobleziaren aurka bateratzera beren larrua babesteko; merkataritza hedatzeak eta komunikabideak garatzeak bultzatzen zioten hiri bakoitzari beste batzuk ezagutzera, zeinek baliarazi baitzituzten interes berak, aurkari beraren aurkako borrokan. Hiri desberdinetako tokiko auzategi askotatik sortuz joan zen horrela, pixkanaka, hiriko, burgo auzoen klasea, edo burgesak. Burgo edo hirietako burges edo auzo bakoitzaren bizi-baldintzak, existitzen ziren harremanekiko kontrajartzeak bultzaturik edo horrek ezartzen zuen lan motarengatik, aldi berean haientzat guztientzat baldintza komun bihurtzen ziren eta norbanako bakoitzarengandik independente. Hirietako auzoak baldintza horiek sortuz joan ziren bateratze feudaletatik bereiztean, aldi berean horiek sortuak izan ziren bezala, topo egin zuten feudalismoarekiko kontrajartzeak baldintzaturik aurkitzen ziren heinean. Hiri batzuk beste batzuekin ukipenean jartzean, baldintza komun horiek garatu egin ziren klase-baldintza bihurtzeraino. Baldintza identikoek, antitesi identikoek eta interes identikoek derrigor eragin behar zituzten alderdi guztietan, larriki, ohitura identikoak. Burgesia bera pixkanaka garatzen hasten da bere baldintzekin, gero banatu egiten da, lanaren banaketaren egintzapean, zati bat baino gehiagotan eta, azkenik, klase jabetzadun guztiak hurruputzen ditu, zeinekin topo egin baitzuen jaiotzean (aldi berean eraginez klase desjabetuaren gehiengoa, zeinarekin topo egiten baitu eta aurreko klase jabetzadunaren parte bat garatzea klase berri bat, proletalgora eratzeko), aurreko jabetza guztia kapital industrial edo komertzial bihurtzen den neurrian. Norbanako desberdinek klasea eratzten dute bakarrik borroka komun bat beste klase batekin izatera beharturik aurkitzen direnean, zeren bestela berek egiten baitiote aurre elkarri, etsaikiro, konkurrentziaren mailan. Eta, bestalde, klasea substantibatu egiten da eratzten duten norbanakoen aurrean, halako moldez, non horiek jadanik beren bizi-baldintza aurredestinatuekin aurkitzen baitira; aurkitzen dira klaseak esleitzen diela bizitzako beren posizioa eta, horrekin, beren garapen pertsonalaren ibilbidea; hark hurrupaturik aurkitzen dira. Norbanako bakoitza lanaren banaketari makurtzearen fenomeno bera da, eta hori ezabatzeko jabetza pribatua eta lana bera gainditzea beste biderik ez dago. Dagoeneko adierazi dugu behin baino gehiagotan nola norbanakoen klasearekiko makurtze hori garatzen den, aldi berean, ideia desberdinei eta abarri makurtzeraino.

223

Baldin eta *filosofikoki* kontsideratzen badugu norbanakoen garapen hori historikoki ondozkutzen diren estamentu eta klaseen existentziaren baldintza komunetan eta modu horretara ezarri zaizkien ideia orokorren arabera, aise iristen gara imajinatzea norbanako horiengan Espeziea edo Gizakia garatu dela edo haiek Gizakia garatu dutela; imajinatzeko modu hori historiarekin buruz buruz kontrajarria da. Gero, estamentu eta klase desberdin horiek kontzebi ditzakegu kontzeptu orokorren zehaztapen gisa, Espeziearen barietate gisa, Gizakiaren garapenaren fase gisa.

Norbanakoak klase determinatu batzuetan sartze hori ezingo da gainditu, izan ere, harik eta klase batek ezin klase-interes ez duen zertan kontrajarri klase menderatzaileari.

Botere pertsonalak (harremanak) materialean eraldatzea lanaren banaketaren eraginez ezin daiteke gaindi hari buruzko ideia orokorra burutik kenduz, baizik norbanakoak eraginez berriz ere beren egintzapean botere material horiek

konrrrolatzera eta lanaren banaketa gainditzera. Eta hori ez dago egiterik erkidegoa gabe. Erkidegoaren barruan bakarrik dauka norbanako orok bere gaitasunak zentzu guztietan garatzeko beharrezko bitartekoak; erkidegoaren barruan bakarrik da ahalgarri, beraz, askatasun pertsonala. Orain arte existitu diren erkidegoaren ordezkietan, estatuan eta abarretan, askatasun pertsonala klase dominatzailearen harreman barruan garaturiko norbanakoentzat soilik existitzen zen eta klase horretako norbanakoak zirenentzat soilik. Orain arte norbanakoak asoziatu ziren itxurazko erkidegoak beti izan du existentzia propioa eta independentea haien aurrean, eta klase baten beste baten aurkako asoziazioa zelako ez zen bakarrik, aldi berean, erkidego lilura hutsezko klase menderatzailearentzat, baizik eta baita eragozpen berri bat ere. Erkidego errealearen barruan, norbanakoek lortzen dute, aldi berean, beren askatasuna asoziatzean eta asoziazioaren bidez.

Norbanakoak beti beren baitatik abiatu dira, nahiz eta naturalki, beren baldintza eta harreman historiko jakinen baitan, eta ez norbanako «huts»arenean, ideologoen zentzuan. Baina, garapen historikoaren joieran, eta lanaren banaketaren barruan ezinbestekoa den harreman sozialen substantibatzearen bitartez hain zuzen, aldea nabarmentzen da norbanako bakoitzaren bizitzan, haren bizitza pertsonalari dagokionez, eta bizitza hori bera lanaren abar determinatu bati eta dagozkion baldintzei menderatua.

224

(Hori ez da ulertu behar, adibidez, errentistak, kapitalistak eta abarrek pertsona izateari uzten dioten zentzuan, baizik eta horien nortasuna baldintzaturik eta determinaturik dagoela klaseharreman oso konkretuez, eta aldea beste klase batekiko kontrajartzean bakarrik gelditzen da agerian eta, beraiekiko, porreta gertatzen denean bakarrik). Estamentuan (eta areago tribuan) hori oraindik estalirik agertzen da; eta horrela, adibidez, nobleak noble izaten jarraitzen du eta plebeiuak plebeiu, horien beste harremanak aparte utzita, hura nortasunetik ezin bereiziko nolakotasun bat delako. Norbanako pertsonalaren aldea klase-norbanakoarekiko, bizi-baldintzen izaera zorizkoa norbanakoarentzat, klasearen agerpenarekin bakarrik azaltzen dira, zeina, bestalde, burgesiaren produktua baita. Konkurrentziak eta norbanako batzuek besteekin duten borrokak sortzen eta garatzen du izaera zorizko hori bere horretan. Horregatik irudimenean, norbanakoak, burgesiaren boterepean, lehen baino askeagoak dira, zeren haien bizi-baldintzak, beraientzat, zori hutsezko zerbait baitira; baina, errealitatean, naturalki askatasun gutxiago dute, zeren botere material bati menderatuagoak baitaude. Estamentuaren aldea agertzen da, zehazki, burgesiaren eta proletarioaren antitesian.

Hirietako, korporazioetako eta abarretako auzoen estamentua agertzean landa-nobleziaren aurrez aurre, haren existentzia-baldintzak, jabetza higikorra eta artisautza-lana, zeinak jadanik existitzen baitziren modu latentean asoziazio feudaletik bereizi baino lehen, zerbait positiboa bezala agertu ziren, zeinek balioa baitzuten jabetza higiezin feudalaren aurrean, eta hori zen arrazoia berriz ere beren moduan, lehenik, forma feudala hartzearena. Egia da glebako jopu iheslariak beren aurreko joputza zerbait akzidentaltzat jotzen zutela beren nortasunean. Baina horrekin traba batetik bere burua jaregiten duen klase orok egiten duena besterik ez zuten egiten. Gainera, estamentuen eraentzaren markotik ez ziren irteten, baizik eta estamentu berri bat eratzen zuten, eta eraduki egiten zuten egoera berrian beren aurreko lan-modua, eta garatu ere egiten zuten, lotutako garapenari ez zegozkion

trabetatik askatzean.

Proletarioei dagokienez, aitzitik, haien bizi-baldintza propioa, lana, eta horrekin gaurko gizartearen existentziako baldintza guztiak, zorizko zerbait bihurtu dira haientzat, zeinen gainean proletario bakoitzak berez ez baitu kontrol txikienik ere eta zeinen gainean ezen antolakuntza *sozial*ek ezin baitio ere eman kontrolrik, eta proletario banakoaren nortasunaren eta haren bizi-baldintzaren arteko kontraesana ezarria zaionez, hau da, lana begi-bistako zaio bere aurrean, batez ere bere haurtzarotik jadanik sakrifikaturik ikusten duelako bere burua eta ez duelako, bere klasearen barruan, beste egoera batean jarriko duten baldintzak lortzera iristeko aukera txikienik ere.

225

N.B. Ez da ahaztu behar existitzeko jopuen beharrak berak eta tamaina handiko ekonomiaren ezintasunak, zeinak ekarri baitzuen jabetzen banaketa jopuen artean, laster murriztu zituzten jopuen beren jaun feudalarekiko betebeharrak espezie eta laneko prestazioen batez besteko batera, zeinak ahalbidetzen baitzion jopuari jabetza higikorra metatzea, horrekin erraztuz bere jaunaren lurretatik ihes egiteko aukera eta hiri bateko auzo gisa bizirauteko aukera emanaz, eta horrek lagundu zuen, aldi berean, jopuen artean mailaketak sortzea, eta horrela, ikusten dugu jopu iheslariak jadanik, erdizka, hirietako auzoak direla. Eta aise ulertzen da nekazari jopuak, ofizio bat zekitenak, horiek zirela jabetza higikorrak eskuratzeko aukera gehien zutenak.

Horrela, bada, jopu iheslariak jadanik existitzen ziren bizi-baldintzak libreki garatu eta baliarazi nahi zituzten bitartean, horrexegatik bakarrik iritsi baitziren, azken finean, lan askera, proletarioek, pertsonalki beren burua baliarazteko, aurreko existentziako beren baldintza propioa bukatu beharra dute, zeina aldi berean aurreko gizarte osoarena baita, hau da, lana bukatzea. Halaber, zuzeneko kontrajartzean daude orain arte gizarteko norbanako osagaiak oro har estatuan agertzen ziren formarekin, eta estatua eraitsi behar dute, beren nortasuna egikaritzeko.

Aurretik esandako guztitik ateratzen da klase bateko norbanakoak sartzen diren erkidego-harremana, haien interes komunek hirugarren baten aurrean baldintzaturiko harremana, beti zen erkidego bat zeinetakoak baitziren norbanako horiek norbanako ertain gisara bakarrik, bere klaseko existentzia-baldintzen barruan bizi ziren heinean bakarrik; hau da, harreman horrek ez zituen batzen norbanako horiek ziren heinean, baizik eta klase bateko kide gisa. Aitzitik, proletario iraultzaileen erkidegoarekin, zeinek hartzen baitituzte beren kontrolpean beren existentzia-baldintzak eta gizarteko kide guztienak, hain zuzen alderantzizkoa gertatzen da: hartan norbanakoek esku hartzen dute halako norbanako diren heinean.

226

Erkidego hain zuzen ere, norbanakoen asoziazioa besterik ez da, (produktzio-indarren premisatik abiatuz, noski, orain garatu diren bezala), norbanakoen garapen aske eta mugimenduko baldintzak bere kontrolera entregatzen dituen; baldintza horiek orain arte zorian esku zeuden eta existentzia propioa eta independentea hartua zuten norbanako bakoitzaren aurrean horiek norbanako gisa zuten bereizkuntzarengatik eta gero, beren beharrezko asoziazioarekin, lanaren banaketari esker, asoziazio bat besterik ez zen (inola ere ez hautazkoa, adibidez, *Contrat*

*Socialen* deskribatzen zaigunaren gisakoa, baizik beharrezkoa) (cfr., adibidez, estatu iparramerikarren eta errepublika hegoamerikarren erkatzea) baldintza horiei buruz, zeinen barruan lortzen baitzuten gero norbanakoek halabeharraz gozatzea. Zoriak eskain zezakeena, baldintza batzuen barruan, libreki gozatzeko eskubide horri, orain arte, askatasun pertsonala deitzen zitzaion. Existentziabaldintza horiek produkzio-indarrak eta kasu bakoitzean dauden eragintruke-formak bakarrik dira.

Komunismoa bereizten da aurreko mugimendu guztietatik orain arte izan diren produkzio- eta komertzio-harreman guztien oinarria lurrera eraistean eta lehen aldiz era kontzientean premisa natural guztiak tratatzean aurreko gizakien sorkari gisa, haien izaera nazionalaz gabetuz eta norbanako asoziatuen boterearen mendean jarritz. Haien antolakuntza, beraz, esentzialki ekonomikoa da, asoziazio horren baldintza materialena; dauden baldintzak asoziaziorako baldintza egiten ditu. Existitzen dena, komunismoa sortzen duena, norbanakoengandik independenteki existitzen den guztia ezinezko egiteko oinarri erreala da hain zuzen ere, existitzen den zerbait hori, hala ere, norbanakoen beraien aurreko harreman baten produktu bat besterik ez den heinean. Komunistek, beraz, produkzioak eta aurreko harremanek sorturiko baldintzak, praktikoki, baldintza inorganiko gisa tratatzen dituzte, imajinatzerara iritsi ere egin gabe aurreko belaunaldiak asmorik izan zutenik edo materialak hornitzea pentsatu zutenik, eta baldintza horiek inorganikoak zirela sinetsi ere egin gabe sortzen zituzten norbanakoentzat.

Norbanako pertsonalaren eta harentzat akzidentezkoa denaren arteko aldea ez da kontzeptu-aldea, baizik gertakari historiko bat. Eta alde horrek bestelako zentzua du garai bakoitzaren arabera, adibidez, estamentuarekin gertatzen zenez, zeina XVIII. mendean akzidentezkoa baitzen norbanakoarekiko, baita, *plus ou moins*, familia ere. Ez da garai guztietarako ezarri behar dugun alde bat, eta ez kontzeptuarekiko noski, baizik bizitzako gatazka materialek beharturik. Hurrengo garaia aurrekoarekiko akzidentezkoa iruditzen zaiona, baita aurretik hartara pasatu diren elementuen artean ere, produkzio-indarren garapen determinatu bati zegokion harreman-forma da. Produkzio-indarren eta eragintruke-formaren arteko harremana horren eta norbanakoen jarduera edo okupazioaren artean dagoena da. (Okupazioaren oinarrizko forma da, naturalki, forma materiala, zeinaren baitan baitaude gainerako guztiak: espirituala, politikoa, erlijiosoa, etab.) Bizitza materialaren antolakuntza desberdina kasu bakoitzean, naturalki, jadanik garaturiko beharren baitan dago, eta nola behar horiek sortzea hala asetzea berez prozesu historiko bat den, ardi batengan edo txakur batengan aurkituko ez duguna (Stirnerren *adversus hominem* oinarrizko argudio setaria, nahiz eta ardiak eta txakurrak, gaurko formapean, nahiz eta *magre eux* prozesu historiko baten produktuak izan, noski).

227

Baldintzak, zeinen azpian erlazionatzen baitira norbanakoak, kontraesana [haien eta horien artean] tartejarri baino lehen, haien indibidualtasunari dagozkion baldintzak dira eta ez haien kanpoko zerbait; baldintzak, zeinetan norbanako determinatu horiek, harreman determinatuetan existitzen direnek beren bizitza materiala eta harekin eriazionatua bakarrik produzi baitezakete; beraz, haien okupazio-modu propioaren baldintzak dira, eta okupazio-modu horrek berak produzitzen ditu. «Eraginrrukearen beraren formaren produkzioa» Kontraesanaren absentsian baldintza partikularrak, zeinen azpian produzitzen baitira horrela haien izaera baldintzatuaren aktualitateari, haien existentzia aldebatekoari dagokio, zeinaren

aldebatekotasuna bakarrik agertzen baita kontraesana tartejartzean eta, ondorioz, gero datozenentzat bakarrik existitzen da. Gero, baldintza hori ustekabeko eragozpen bat bezala agertzen da, eta orduan aurreko garaia eragozpen bat denaren kontzientzia lerratzen da.

Bestelako baldintza horiek, lehenik jarduera propioaren baldintza gisa agertzen direnak eta gero haren eragozpen gisa, garapen historiko osoan zehar harreman-formen sail koherente bat eratzen dute, zeinen kohesioa baitatza aurreko harreman-forma, eragozpen bihurturik, beste berri batek ordeztzen baitu, produkzio-indar garatuekin akortago dena eta, beraz, norbanakoen jarduera propioarekin modu aurreratuago batekin, zeina *à son tour* berriro eragozpen bihurtzen baita eta, bestalde, beste batek ordeztzen baitu. Eta baldintza horiek fase bakoitzean produkzio-indarren aldi bereko garapenari dagozkion, gertatzen da horien historia, aldi berean, garapeneko eta belaunaldi berri bakoitzak heredaturiko produkzio-indarren historia izatea eta, beraz, norbanakoen beraien indarren garapenaren historia.

228

Eta, bilakaera hori modu espontaneoan obratzen denez gero, hau da, libreki asoziatutako norbanakoen baterako plan bati menderaturik, lokalitate, tribu, nazio, lan-abar eta abarren aldetik, zeinetariko bakoitza besteekiko independentzian garatzen baita eta pixkanaka bakarrik sartzen da haiekiko harremanetan. Prozesu hori, gainera, oso geldoki garatzen da; fase eta interes desberdinak ez dira inoiz erabat gainditzen, baizik eta interes garaikorrari menderatzen zaizkio soilik eta mendez mende arrastaka doaz horren alboan. Eta hortik dator, nazioaren baten beraren barruan ere, norbanakoak, haien hondar-baldintzetatik independenteki ere, garapen-lerro erabat desberdinak jarraitzea eta aurreko interes bat, zeinaren harreman-forma berezia jadanik desplazatu baitu geroagoko interes bati dagokion beste batek, luzaroan mantentzeko botere tradizional baten jabe gisa norbanakoen aurrean substantibaturiko itxurazko erkidegoan (estatuan eta zuzenbidean), eta botere horri azken finean iraultza batek bakarrik ezarri ahal izango baitio amaiera. Eta horrela azaltzen da, halaber, zergatik, sintesi orokorrago baterako gai diren puntu konkrituago batzuekiko, kontzientziak, batzuetan, harreman enpiriko garaikideak baino aurreratuagoa dagoen itxura izan dezakeen, eta arrazoi horregatik ikusten dugu nola, sarritan, ondorengo garai bateko borroken aurrean aipatzen diren autoritate gisa aurreko teoriararen doktrinak.

Aldiz, Ipar Amerikaren gisako herrialdeetan, zeinak hasten baitira hasieratik garai historiko oso aurreratu batean, garapen-prozesuak oso bizkor egiten du aurrera. Herrialde horiek, bertan kolono gisa instalatzen diren norbanakoenak beste premisa naturalik ez dute, herrialde zaharretako harreman-formek horretaturik, zeinak ez baitatoz bat jadanik haien beharrek. Beraz, herrialde zaharretako norbanako aurreratuarekin hasten dira, harreman-forma garatuenarekin, norbanako horiei dagokienarekin, jadanik herrialde zaharretan harreman-forma horrek ezartzeko modurik izan baino lehen. Hori da kolonia guztietan gertatzen dena, estazio militar edo faktoria komertzial soilak ez direnean. Kartagoko kolonia grekoetan eta XI. eta XII. mendeetako Islandian ditugu horren adibideak. Eta antzeko egoera bat gertatzen da konkistaren kasuan ere, beste lurzoru batena garaturiko harreman-forma zuzenean aldatzen denean herrialde konkistatuta; jatorrizko herrialdean forma hori artean aurreko garaietatik interesez eta harremanez blai eginik zegoen; hemen,

ordea, erabat ezar daiteke eta ezarri behar du eta eragozpen txikienik gabe, besteak beste, konkistatzaileen boterea modu egonkorrean segurtatzeko. (Ingalaterra eta Napoli normandoen konkistaren ondoren, zeinek eraman baitzuten batera eta bestera antolakuntza feudalaren formarik perfektuena.)

229

Historiaren kontzepzio horri guztiari badirudi kontra egiten diola konkistaren gertakariak. Orain arte bortxa, gerra, zakuratzea, lapurretarako asasinatzea eta abarkontsideratu izan da historiaren indar bultzatzaile gisa. Hemen puntu nagusietara mugatu beharra daukagu, eta arrazoi horrengatik herri barbaro batek egindako zibilizazio zahar baten suntsipenaren adibide deigarriena hartuko dugu eta, horren ondorioz, gizartearen egitura berri bat sortzea, hasieratik abiatuz (Erroma eta barbaroak, feudalismoa eta Galiak, Ekialdeko Inperio Erromatarra eta turkiarrak).

Herri barbaro konkistatzaileari dagokionez, gerrak jarraitzen du izaten, lehenago aditzera eman dugunez, harreman-forma normala, hainbat suharkiago esplotatua, zenbat eta produkzio-modu zakarraren eta herri horientzat ahagarri zen bakarraren barruan, biztanleriaren gehikuntzak premiatsuago bihurtzen baitu produkzio-bitarteko berrien beharra. Italian, aitzitik, lur-jabetzaren kontzentrazioaren indarrez (determinatua, lur-erosketaz gainera eta haren lantzaileen zorren birkargaz, heredentziaz, zeren, nagitasun handiaren eta ezkontzen urritasunaren ondorioz, leinu zaharrak pixkanaka iraungiz baitzihoazen, eta haien ondasunak esku gutxitan batuta geratzen ziren) eta maneatzeko lurak larre-sail eraldaturik geratzearen indarrez (eragina, gaur egun oraindik indarrean dauden kausa ekonomiko normalez aparte, labore lapurtuen eta zerga gisa erauzitako inportazioz eta, horren ondorioz, Italiako alearentzat kontsumitzailearen urrutitasunez), biztanleria librea ia desagertu egin zen eta esklaboak berak ere masan hiltzen ziren inaniziaz, eta atergabe beste berri batzuek ordeztu behar izaten ziren. Esklabotza zen produkzio guztiaren oinarria. Plebeiuak, askeen eta esklaboen artean posizio ertaina hartzen zutenak, inoiz ez ziren iritsi lunpen-proletalgo bat besterik izatera. Bestalde, eta, oro har, Erroma ez zen izan hiri bat baino gehiago, probintziekin harreman politiko ia hutsa zeukana, zeina, normala denez, hautsia edo astindua gerta zitekeen berriz ere maila politikoko jazoerez.

230

Ezer ez da ohikoagorik historian, orain arte, dena *konkista* izan delakoa baino. Barbaroak Inperio erromatarraz jabetu ziren, eta konkista horren bidez azaltzen da antzinarotik feudalismorako igarobidea. Baina barbaroen konkistan kontua da jakitea ea haiek menderatutako nazioa produkzio-indar industrialak garatzera iritsi zen herri modernoekin gertatzen denez, edo haien produkzio-indarrak atsedentzen ziren, funtsean, haien batasunaren gainean eta erkidegoaren gainean soilik. Jabetzearen egintza, gainera, baldintzaturik dago jabetzen den objektuaz. Banku-jabe baten ondasuna, paperetan funtsatzen dena, ezin liteke inola ere har hartzailea produkzio-baldintzetara eta herrialde okupatuaren harremanera menderatu gabe. Eta gauza bera gertatzen da herrialde industrial moderno bateko kapital industrial osoarekin ere. Azkenik, jabetze-egintza beti oso bizkor amaitzen da, eta hartzeko ezer ez dagoenean derrigor hasi behar da produzitzen. Eta produzitu behar horretatik, berehalaxe iragarritik, herrialdean kokaturiko konkistatzaileek hartutako erkidego-forma derrigor egokitu behar zaiola bertan aurkitzen diren produkzio-indarren garapen-faseari edo, hori ez denean kasua, modifikatu produkzio-indarren arabera. Eta horrek azaltzen du, halaber, alderdi guztietan

ohartzen zela uste zen gertakaria herrien transmigrazioaren ondoko garaian, hau da: basailuak jaun bihurtu zirela eta konkistatzaileek oso bizkor hartu zituztela konkistatuen hizkuntza, kultura eta ohiturak. Feudalismoa ez zen irten, ezta gutxiago ere, jadanik prest eta antolatua, Alemaniatic, baizik eta izan zuen bere jatorria, konkistatzaileen aldetik, konkista bertan armadak lortuz joan ziren gerra-antolakuntzan, eta egiazko feudalismo bihurtu arte garatu zen haren ondoren, herrialde konkistatuetan aurkitutako produkzio-indarren egintzari esker. Forma hori zer puntutaraino baldintzaturik zegoen produkzio-indarrez erromatar oroitzapen zaharretatik jaiotako beste forma batzuk ezartzeko egin zituzten ahalegin frustratuek erakusten dute. (Karlomagno, etab.) Jarraitzeko.

231

Industria handiak eta konkurrentziak bat egiten dituzte banakoen existentzia-baldintzak, faktore determinatzaileak eta aldebatekotasunak bi forma sinpleenen azpian: jabetza pribatuaren eta lanaren azpian. Diruarekin, akzidentezko zerbait bezala ezartzen da norbana koentzat eragintruke-forma oro eta eragintrukea bera ere. Diruak inplikatu du, beraz, aurreko eragintruke oro norbanakoen eragintrukea bakarrik zela baldintza determinatuta, eta ez norbanakoena norbanako diren heinean. Eta baldintza horiek bitara murrizten dira: lan metatua, hau da, jabetza pribatua, eta lan erreala. Bi baldintza horiek desagertzean edo horietako bat bakarra, eragintrukea gelditu egiten da. Ekonomialari modernoek berek, adibidez Sismondik, Cherbuliezek eta abarrek, kontrajarri egiten diote *association des individus association des capitaux-i*. Bestalde, norbanakoak berak garatzen dira erabat lanaren banaketari menderatuak eta horrekin batak besteekiko dependentzia osoenera murrizturik. Jabetza pribatua, lanari aurre egiten dion heinean, horren barruan, metatzearen beharretik abiatuz garatzen da eta, nahiz eta bere hasieretan erkidego-forma gero eta markatuago ageri duen, gero eta gehiago doa hurbilduz, ondorengo garapenean, jabetza pribatuaren forma modernora. Lanaren banaketak alde aurretik ezartzen ditu *laneko baldintzen* banaketarako premisak, erremintak eta materialak eta, horrekin, jabe desberdinen artean metaturiko kapitalaren zatiketarako eta, ondorioz, kapitalaren eta lanaren arteko banaketarako eta jabetza beraren forma desberdinetarako. Zenbat eta gehiago garatu lanaren banaketa eta metaketa hazi, hainbat gehiago areagotuko da zatiketa hori. Lanak berak ere zatiketa horren premisapean bakarrik existu ahal izango du.

Nazio desberdinetako norbanakoen energia pertsonala —alemaniarra eta amerikarra—, arraza-gurutzamenduz jadanik lortutako energia —hortik alemaniarren kretinismoa; Frantzian, Ingalaterran eta abarretan, populu atzeritarren zeharaldaketa jadanik garaturiko lurzoruan, Amerikan lurzoru erabat berrian, Alemanian biztanleria naturala lasaiki bere tokiari lotua geratu zen.

Hemen bi gertakariaren aurrean aurkitzen gara. Lehenik, produkzio-indarrak norbanakoengandik indar erabat independente eta bereizi gisa agertzen direla ikusten dugu, mundu propio batekin horien alboan, eta horrek badu izateko bere arazoia norbanakoak, zeinen indarrak haiek baitira, batak besteen aurrean barreiatuak existitzen direlakoan, aldiz indar horiek soilik dira indar erreal eta egiazkoak eragintrukean eta horien norbanakoekiko elkarloturan. Beraz, alde batetik, produkzio-indarren osotasun bat, zeinek halako modu batean, forma material bat hartzen baitute eta zeinak norbanako beraientzat ez baitira jadanik beraien indar propioak, baizik eta jabetza pribatuarenak eta, beraz, norbanakoenak bakarrik dira

jabe pribatu diren heinean.

232

Aurreko beste ezein alditan ez ziren iritsi produkzio-indarrak forma axolagabe hori hartzera norbanakoen harremanerako, halako norbanako diren heinean, zeren haien harremana oraindik mugatua baitzen. Bestalde, produkzioindar horiei norbanakoen gehiengoak egiten die aurre, zeinetatik indar horiek erauzi egin baitira eta, beraz, bizi-eduki erreal oroz gabeturik, norbanako abstraktu bihurtu baitira, eta, horregatik beragatik, batak besteekin *norbanako gisa* harremanetan jartzeko gaiturik daude. Norbanakoek produkzio-indarrekin eta beren existentzia propioarekin, lanarekin oraindik mantentzen duten harreman bakarrak galdu egin du haiengan jarduera propioaren itxura oro, eta bere bizitzari eusten dio kaskartuz. Aurreko aldietan jarduera propioa eta bizitza materialaren produkzioa bereizirik agertzen ziren bitartean pertsona desberdinei egozten zitzaizkielako, eta bizitza materialaren bizitza, norbanakoen beren estutasunez, jarduera propioaren modalitate subordinatu gisa kontsideratzen bazen, orain bi aspektu horiek halako moldez desberdintzen dira, non bizitza materiala helburu gisa agertzen baita, eta lana (orain, forma ahalgarri bakarra, baina forma negatiboa, ikusiko dugunez, jarduera propioarena) bitarteko gisa.

Beraz, gauzak hain urrun joan dira, non norbanakoek produkzio-indar guztien totalitateaz jabetu beharra baitute, ez bakarrik beren jarduera propioa egikaritzeko, baizik, oro har, beren existentzia propioa segurtatzeko. Jabetze hori baldintzaturik dago, batez ere, jabetu nahi den objektuaren aldetik, hau da, totalitate bateraino garaturiko produkzio-indarren aldetik, eta zeinak eragin-truke unibertsal baten barruan bakarrik existitzen baitira. Beraz, jabetze horrek derrigor izan beharko du, jadanik ikuspuntu horretatik, izaera unibertsala produkzio-indarrei eta eraginrrukeari dagokienez. Indar horiez jabetzea ez da, berez, produkzioaren tresna materialei dagozkien gaitasun indibidualen garapena besterik. Produkzio-tresnen totalitateaz jabetzea berez bada, ondorioz, norbanakoengan beraiengan gaitasunen totalitate baten garapena. Jabetze hori, gainera, norbanako jabetzaileek baldintzaturik dago. Gaur eguneko proletarioak bakarrik daude, jarduera propiorik erabat eskludituak, beren jarduera propioa baliarazteko baldintzatan, osoki eta mugatu gabe, zeina baitatza produkzio-indarren totalitate batez jabetzean eta ondorioz gaitasunen totalitate bat garatzean. Aurreko jabetze iraultzaile guztiek izaera mugatua izan zuten; norbanakoak, zeinen jarduera propioa murrizturik baitzegoen produkzio-tresna batez eta eragintruke mugatu batez, produkzio-tresna mugatu horretaz jabetzen ziren eta, horrekin, berriro mugatzea besterik ez zuten egiten. Haien produktotresna beraien jabetza izatera pasatzen zen, baina beraiek lanaren banaketaren eta beren produkzio-tresnaren mendean jarraitzen zuten. Orain arteko jabetze guztietan norbanako-masa bat produkzio-tresnaren bati menderaturik geratzen zen; jabetze proletarioan, produkzio-tresnenak derrigor egon behar menderaturik norbanako bakoitzari eta jabetza denei. Eragintruke unibertsal modernoa betiko norbanakoek kontrolatzeko modu bakarra hura denen kontrolari menderatzea da.

233

Jabetzea, gainera, burutzeko moduak baldintzaturik dago. Izan ere, asoziazio baten bitartez bakarrik burutu daiteke, zeinak, proletalgoak duen izaera kontuan izanik, asoziazio unibertsal bat bakarrik izan behar baitu, eta iraultza baten eraginez, zeinean, alde batetik, produkzio-moduaren eta aurreko eragin-trukearen boterea eta



dagokion antolakuntza soziala eraitsiko baitira; bestalde, hor garatzen dira proletalgoak bere jabetzea burutzeko behar dituen izaera unibertsala eta errergia, aldi berean proletalgoak, gainera, bere burua gabetzen du aurreko gizartean zeukan posiziotik berarengan gera daitekeenaz.

Fase horretara iristean bakarrik dator bat jarduera propioa bizi materialarekin, zeina norbanakoen garapenari baitagokio norbanako oso diren heinean, eta haiengan espontaneotik dagoen guztia gairiditzeari; eta horri dagokio lana jarduera propio eraldatzea eta aurreko harreman baldintzatua norbanakoen arteko harreman halako diren heinean. Norbanako asoziatuak produkzio-indar guztiz jabetzarekin amaitzen da jabetza pribatua. Aurreko historian akzidentezko bezala agertzen zen bitartean, baldintza berezi bat, orain norbanakoen isolamendua, bakoitzaren irabazte pribatu partikularra akzidentezko izatera pasatu da.

Lanaren banaketaren pean jadanik ez dauden norbanakoak, filosofoek ideal bezala errepresentatu dituzte «Gizaki» izenaren pean, arestian azaldu dugun prozesu hori guztia «Gizakia»ren garapenaren prozesua bezala kontzebituz, eta horretarako orain arte fase historiko bakoitzean jarduten ikusi ditugun norbanakoen lekuan 'Gizaki» kontzeptua lerratzen da, historiaren indar bultzatzaile gisa aurkeztuz. Horretara, prozesu hori guztia «Gizaki»aren autoalienazio-prozesu ezkutuan ondorengo faseko norbanako ertaina aurrekoari eta ondorengo kontzientzia aurreko norbanakoei. Eta alderantziketa hori, alde aurretik jaramonik egiten ez diena baldintza errealei, horrek ahalbidetzen du historia osoa kontzientziaren garapen-prozesu bihurtzea.

234

Gizarte zibilak bere baitan hartzen du norbanakoen eragintruke osoa produkzio-indarren garapeneko fase determinatu batean. Fase bateko bizi komertzial eta industrial osoa hartzen du eta, ildo horretatik, estatuaren eta nazioaren mugak gairiditu egiten ditu, nahiz eta, bestalde, kanpoan nazionalitate gisa bere burua derrigor baliarazi behar duen eta, barrualdera ikusirik, estatu bezala. «Gizarte zibil» terminoa XVIII. mendean agertu zen, ordurako jabetza-harremanak Antzinaroko eta Erdi Aroko erkidegoaren markotik jaulkiak zirenean. Gizarte zibila bere horretan burgesiarekin bakarrik garatzen da; hala ere, gizarte-antolakuntza, zeina zuzenean garatzen baita produkzioaren eta komertzioaren bitartez eta zeinak garai guztietan estatuaren eta gainegitura idealistaren gainerakoaren oinarria eratzen baitu, beti izen beraz izendatu izan da.

### *Estatuaren Eta Legearen Harremana Jabetzarekiko*

Jabetzaren lehen forma, nola Antzinaroan hala Erdi Aroan, jabetza tribala da, erromatarren artean batez ere gerrak, eta germaniarren artean, abelazkuntzak, determinatua. Antzinako populuen artean, kontuan izanik hiri berean tribu desberdinak zirela bizikide, jabetza tribala estatuaren jabetza bezala agertzen da, eta norbanakoak hartaz gozatzeko eskubidea *possessio* soil gisa, zeina, hala ere, mugatzen baita, jabetza tribal gisa kasu guztietan, lurraren gaineko jabetzara. Egiatzko jabetza pribatua, antzinakoen artean, herri modernoaren artean bezala, jabetza higigarriarekin hasten da —(esklabotza eta erkidegoa) (*dominium ex jure Quiritum*). Erdi Arotik sortutako herrietan, jabetza tribala zenbait etapetatik pasatuz

garatu zen —lurraren jabetza feudala, jabetza higikor korporatiboa, kapital manufakturaizaileaharik eta kapital modemora iritsi arte, industria handiak eta konkurrentzia unibertsalak determinatura, jabetza pribatu hutsera, zeina jadanik gabeturik baitzegoen erkidego-itxura oroz eta zeinak ezabatu baitu estatua jabetza-garapenaren gaineko eragin orotatik.

235

Jabetza pribatu moderno horri dagokio estatu modernoan, jabe pribatuek zergen bidez pixkanaka eresia, zeinen eskuetan erori baita erabat zor publikoaren bidez eta zeinaren existentzia, estatuaren baloreak burtsan goratu eta beheratzeak agertzen duenez, jabe pribatuek, burgesek ematen dioten kreditu komertzialaren baitan baitago erabat. Burgesia, jadanik klase bat izatearren, eta estamentu soil bat, beharturik dago maila nazionalen antolatzerara, eta ez tokiko mailan bakarrik, eta bere interes komunei forma orokor bat ematera. Jabetza pribatuaren emantzipazioaren bidez erkidegoarekiko, estatuak existentzia propioa hartzen du gizarte zibilaren alboan eta hartaz kanpo; baina estatua ez da ezer baizik burgesek beren buruari derrigorrean ezartzen dioten antolakuntza-forma, nola barruan hala kanpoan, beren jabetzaren eta beren interesen elkarrekiko bermerako. Estatuaren independentzia soilik gertatzen da, gaur egun, herrialde haietan, zeinetan estamentuak oraindik ez baitira garatu erabat klase bihurtu arte, non oraindik ere estamentuek bai baitute halako eginkizun bat, herrialde aurreratuenetan desagertuek, non nahaste moduko bat baitago eta non, beraz, biztanleriaren ezein parte ezin baita iritsi gainerakoak menderatzera. Hori da, izan ere, Alemanian gertatzen dena. Estatu modernoaren adibide perfektua Ipar Ameriketara daukagu. Idazle moderno frantses, ingeles eta iparramerikarrek adierazten dute estatua jabetza pribatuaren funtzioan bakarrik existitzen den iritzia, eta hori, errepikatzearen poderioz, kontzientzia arruntean txertatu da.

Nola estatua klase menderatzaileko norbanakoek beren interes komunak baieztatzen dituzten forma den, zeinean garaiko gizarte zibil osoa kondentsatzen baita, horri darraio instituzio komun guztiak estatuaren bidez objektibatzen direla eta forma politikoa lortzen dutela haren bitartez. Hortik legea nahimenean oinarritzen den lilura eta, gainera, oinarri errealetik etenduriko nahimenean, nahimen *askean*. Eta, era berean, legera murrizten da zuzenbidea, gainera.

Lege zibila jabetza pribatuarekin batera garatzen da erkidego naturalaren desintegrazioetik. Erromatarren artean, jabetza pribatuaren eta lege zibilaren garapenak ondorio industrialak eta komertzialak bakarrik ekarri zituen, zeren Erromaren produkzio-moduak erabat lehengo bera izaten jarraitu baitzuen. Herri modernoetan, zeinetan erkidego feudala industriak eta komertzioak disolbatu baitzuten, jabetza pribatuaren eta zuzenbide pribatuaren jaiotzak fase berri bat ireki zuen, ondoren garatzeko gai zena.

236

Erdi Aroan itsasoz merkataritza hedatu bat zeukan lehen hiria, Amalfi, itsas zuzenbidea garatu zuen lehena ere izan zen. Eta lehenik Italian eta gerora beste herrialde batzuetan, industria eta merkataritza jabetza pribatua garatzen jarraitzeaz arduratu ziren bezain laster, berriz ere zuzenbide erromatar garatua onartu zen eta autoritatea eman zitzaion. Eta geroago, burgesia aski indartsua zenean printzeek beren babespean har zitzaten beren interesak, burgesiaren bidez noblezia feudala eraisteko asmoarekin, herrialde guztietan hasi zen —Frantzia XVI. mendean

bezalazuzenbidearen egiazko garapena, zeinak haietan guztietan, Ingalaterran izan ezik, zuzenbide erromatarra hartu baitzuen oinarritzat. Baina Ingalaterran ere erabili ziren, zuzenbide pribatuaren geroko garapenerako, printzipio juridiko erromatar batzuk, batez ere, jabetza higikorri zegoenez. (Ez da ahaztu behar zuzenbideak erlijioak bezain historia propio gutxi duela.)

Lege zibilak aldarrikatzen ditu nahimen orokorraren emaitza bezala existitzen diren jabetza-harremanak. *Jus utendi et abutendi* esapideak berak adierazten du, alde batetik, jabetza pribatua jadanik erkidegoaren baitan ez dagoelakoa eta, bestetik, jabetza pribatua bera nahimen pribatu hutsaren baitan dagoelako lilura, hautaz gauzaz baliatzeko eskubidea bezala. Praktikan, *abutik* muga ekonomiko oso determinatu eta konkretuekin topo egiten du jabe pribatuarentzat, ez badu nahi bere jabetza, eta harekin bere *jus abutendia* beste esku batzuetara pasatzea, zeren gauza ez baita halako gauza bere nahimenarekiko harreman soilean, baizik eta egiazko jabetza soilik bihurtzen da komertzioan eta gauza batekiko eskubidez aparte (han bakarrik bihurtzen da harreman bat, filosofoek ideia deitzen dutena). Lilura juridiko horrek, eskubidea nahimen hutsera murrizten duenak, derrigorrean gidatzen du, jabetzharremanen ondorengo garapenean, pertsona batek gauza batekiko eskubide juridikoa izan ahal izatera haren jabe errealki eduki gabe. Horrela, adibidez, konkurrentziagatik lursail baten errenta galtzen bada, jabeak jabetzaren titulu juridikoa gordeko du, eta harekin dagokion *jus utendi et abutendia*. Baina ezin izango du ezer egin eskubide horrekin eta ez du ezer edukiko lurraren jabe gisa, bere lursail hori lantzeko nahikoa kapital ez badauka. Eta juristen lilura beraz azaltzen da haienez eta kode guztientzat, oro har, akzidentala izatea norbanakoek elkarren artean harremanak ezartzea, kontratuak eginez, esaterako, harreman horiek kontsideratuz egin daitezkeen edo ez daitezkeen lokarri gisa, nahi denaren arabera, eta, zeinen edukia erabat oinarritzen baita kontratatzaileen nahimen indibidual askean. Industriaren eta tramaren garapenek komertzio-forma berriak sorrarazten dituzten bezain laster, adibidez, aseguru-konpainiak, etab., zuzenbidea beharturik aurkitu zen, kasu bakoitzean, forma horiei sarrera ematera jabetza eskuratzeko moduen artean. [Engelsen izkribuko testu jarraitua hemen amaitzen da; parean behean, ezker zutabearen, Marxek honako oharrok gehitu zizkion]

237

Lanaren banaketak zientzian izandako eragina.

Errepresioaren eginkizuna estatua, zuzenbidea, morala eta abarrekiko.

Legean, burgesek adierazpen orokor bat ematen behar diote beren buruari, hain zuzen ere klase bezala menderatzen dutelako.

Natur zientziak eta historia.

Ez da existitzen politikaren, zuzenbidearen, zientziaren, eta abarren, arrearen, erlijioaren eta abarren historia.

*Ideologoen zergatik jartzen duten dena buruz behera.*

Erligioaren predikariak, juristak, politikariak.

Juristak, politikariak (estadistak oro har), moralistak, erlijioaren predikariak.

Azpibanaketa ideologiko horri dagokionez klase beraren barruan: 1) Profesioak existentzia propioa hartzen du lanaren banaketaren indarrez. Bakoitzak uste du bere

ofizioa egiazkoa dela. Bere ofizio aren eta errealtatearen arteko loturari dagokionez, oraindik lilura saihestezinagoak sortzen dira hori ofizioaren izaera propioak determinatzen duelakoaz. Harremanak kontzeptu bihurtzen dira jurisprudentzian, politikan eta abarretan, kontzientzian; harreman horietan nabarmentzen ez direnez gero, horiei buruzko kontzeptuak kontzeptu finko bihurtzen dira haren buruan; adibidez, epaileak kode bat ezartzen du, horregatik harentzat legedia da egiazko indar bultzatzailea. Haien merkantziarekiko errespetua, zeren haren profesioak gai orokorrak tratatu behar baititu.

Justizia ideia. Estatu ideia. Kontzientzia arruntean gauzak buruz behera jarrita daude.

Erlijioa hasieratik transzendentearen kontzientzia bat da, [zeina] behar errealetik sortzen den.

238

Era herritarragoan adierazi.

Tradizioa zuzenbidea, erlijioa eta abarrekiko.

Norbanakoak beti abiatu dira, beti abiatzen dira beren baitatik. Haien harremanak beren bizitza efektiboko harremanak dira. Nola gertatzen da haien harremanak existentzia independentea izatea, kontrajarria zaiena, eta beren bizitza propioko indarrak menderatzen dituzten indar bihurtzea?

Laburki: lanaren banaketa, zeinaren maila baitago garai konkretu bakoitzeko produkzio-indarren garapenean.

Erkidego-jabetza

Lur-jabetza, feudala, modernoa.

Estamentu-jabetza. Manufaktura-jabetza. Kapital industrialia.

**MANIFESTU KOMUNISTA**

Karl Marx eta Friedrich Engels

Manifestu komunista *da Marxen idazkietatik gehien irakurtzen dena eta defenda daiteke garai modernoko idazki politikoen artean era gin handieneko testua dela. Marxek eta Engelsek idatzia da 1847aren amaieran eta 1848aren hasieran Justuaren Ligaren, langile alemaniarren alderdi erradikal eta konspiratzailearen eskariz. Marx eta Engels garai hartan Londresen egoitza zeukan Ligarekin gero eta harreman estuagoa izaten hasi ziren 1840. urteen erdi-aldera. 1847an, Ligak bertan behera utzi zuen bere orientazio konspiratzailea, aldatu egin zuen izena Liga Komunista hartuz, eta Marx eta Engelsengana hurbildu zen printzipioen aldarrikapen bat zirrimarratzeko, izatez, harentzat alderdi-plataforma bat zena. Haiak onartu egin zuten, eta Manifestua Londresen argitaratu zen 1848ko otsailean.*

Manifestua *laburbilduma teorikoaren eta polemika iraultzailearen arteko konbinazio bat da eta bietan arrakasta distiratsua lortu du. Haren puntu nagusia agian Engelsek laburbildu zuen hobekien obraren 1883ko alemaniar argitalpenaren «Hitzaurrea»n.*

Manifestuan zehar dabilen oinarrizko pentsamendua da —garai historiko bakoitzeko produkzio ekonomikoak eta hartatik derrigor sortzen den gizartearen egiturak eratzten dute garai haren historia politiko eta intelektualerako oinarria; ondorioz (lurraren jabetza komunalaren ertarotarraren disoluzioaz geroztik) historia guztia klase-borroken historia bat izan da esplotatuen eta esplotatzaileen artean, klase menderatu eta menderatzaileen artean garapen sozialaren estadio bakoitzean; borroka horrek, hala ere, orain estadio bat lortu du, zeinean klase esplotatu eta zapalduak (proletalgoak) jadanik ezin baitu bere burua emantzipatu esplotatzen eta zapaltzen duen klasetik (bugesiatik), aldi berean betiko gizarte osoa esplotaziotik eta klase-borrotatik askatu gabe —pentsamendu oinarrizko hori Marxena da soilik eta eksklusiboki.

Manifestua *lau sailetan banaturik dago. Lehenak klase-borro karen historia zirrimarratzen du Erdi Arotik hasi burgesiaren igotze on zehar gizarte kapitalistako orainaldiko klase-egoera eta burge siuaren eta proletalgoaren arteko borroka arte. Bigarren sailean, mugimendu komunistaren posizioa nabarmentzen da langile-klasea rekiko harremanean eta kritika zenbaiten aurka defendatzen da. Sai laren amaieran, Marxek eta Engelsek proletalgoa boterera iritsi eta gero komunistek ekinean jarri beharreko neurrien zerrenda bat egiten dute. Interesgarria da ohartaraztea, ondorengo historiaren argitan, zerrendako puntu batzuek, adibidez, errenta-zerga graduatuak, galdu egin dutela beren itxura iraultzailea. Hirugarren sailean, Marxek eta Engelsek eztabaidari ekiten diote beste posizio sozialista batzuekin moduak adieraziz, zeinetan beraiena baita sozialismoaren forma zuze na. Azken sail laburrak komunisten harremanak aztertzen ditu beste herrialde batzuetako alderdiekiko eta gomendio ospetsuarekin amaitzen da. «Proletarioek beren kateak baizik ez dituzte galtzeko. Mundu bat dute irabazteko. HERRIALDE GUZTIETAKO PROLETARIOAK, ELKAR ZAITEZTE!»*

\*\*\*

Mamu bat dabil European barrena-komunismoaren mamua. Europa zaharreko botere guztiak aliantza santu batean elkartu dira mamu horren aurka, Aitasantua eta Tsarra, Metternich eta Guizot, erradikal frantsesak eta alemaniar polizigizonak. Non dago oposizioko alderdia aurkari agintariak komunista izena ematen ez diotena, non dago oposizioko alderdi bat oposizio aurreratueni, etsai atzerakoieni bezala, komunismoaren salakuntza estigmatizatzailea jaurtitzen ez diena? Gertakari horretatik bi ondorio ateratzen dira:

241

Lehena da komunismoa dagoeneko potentziazat aitorturik daukatela Europako potentzia guztiek.

Bigarrena, badela ordua komunistek egun argitan eta mundu osoaren aurrean adieraz ditzaten beren ideiak, beren joerak, beren nahiak, mamu komunistaren ipuin horri alderdi-manifestu batekin aurre egin diezaioten.

Helburu horrekin bildu dira Londresen herrialde desberdinetako komunistak, eta honako manifestu hau idatzi dute, ingelesez, frantsesez, alemanieraz, italieraz, flandrieraz eta danieraz argitaratuko dena.

\*\*\*

### *I. Burgesak eta Proletarioak<sup>1</sup>*

Orain arteko gizartearen<sup>2</sup> historia klase-borroken historia da.

Askeak eta esklaboak, patrizioak eta plebeiuak, baroiak eta glebako jopuak, gremio-maisuak<sup>3</sup> eta ofizialak; hitz batean, zapalduak eta zapaltzaileak, elkarren aurrez aurre beti, etengabeko borroka bat egin dute, ezkutukoa batzuetan, agerikoa beste batzuetan, borroka bat, zeinak etapa bakoitzean gidatzen baitu eraentza sozial osoaren eraldakuntza iraultzailera edo bi klase borrokatzaileen baterako hondamendira.

Historiako lehen aldietan gizartea zatiturik aurkitzen dugu ia nonahi estamentu desberdinetan, zeinetako bakoitzaren barruan gizarte-posizioen askotariko mailak baitaude. Antzinako Erroman patrizioak, ekiteak, plebeioak, esklaboak dira; Erdi Aroan, jaun feudalak, basailuak, gremioetako maisuak eta ofizialak, glebako jopuak,

---

<sup>1</sup> Burgesiaz adierazi nahi da kapitalista modernoan, produkzio sozialeko bitartekoen jabeen eta soldatalanaren enplegatzaileen klasea. Proletalgoaz, soldata-langile modernoan klasea, zeinak produkzio-bitarteko propiorik ez izatean, beharturik baitaude beren lanindarra saltzera bizitzeko. [Engelsen oharra 1888ko edizio ingelesari.]

<sup>2</sup> Hau da, historia idatzi guztia. 1847an, gizartearen prehistoria, historia erregistratuaren aurretik existitzen zen antolakuntza soziala, ia ezezaguna zen. Harrezkero, Haxthausenek aurkitu zuen lurraren jabetza komuna Errusian. Maurerrek frogatu zuen oinarri soziala zela, zeinatik arraza teutoniko guztiak abiatu baitziren historian, eta gero eta gehiago aurkitu zen herrixka-erkidegoak zirela, edo izan zirela gizartearen forma primitiboan edonon Indiatik hasi eta Irlandaraino. Gizarte komunista primitibo horren barne-antolakuntza agerian jarri zen, haren forma tipikoan *gensaren* eta haren tntwarekiko harremanaren egiazko izaeraren Morgenentz aurkikuntza gorenaz. Lehen erkidego horien disoluzioarekin gizartea desberdintzen hasten da klase bereizi eta azken finean antagonistatan. Saiatu naiz disoluzio-prozesu horren aztarnak bilatzen obra honetan: *Der Ursprung der Familie, des Privateigentums und des Staats*, 2. ed, Stuttgart, 1886. [Engelsen oharra 1888ko edizio ingelesari, eta —azken esaldia izan ezik— 1890ko edizio alemaniarri.]

<sup>3</sup> Gremio-maisu, hau da, gremio baten kide oso, bertako maisu, ez gremio baten buru. [Engelsen oharra 1888ko edizio ingelesari.]

eta klase horietako ia bakoitzaren barruan mailaketa gehiago.

Gizarte feudalaren hondakinetatik sortutako gizarte burges modernoak ez du gainditu klaseen kontrajartzea. Klase berriak, zapalkuntzako baldintza berriak, borrokaren taxueraberriak ezarri ditu zaharren lekuan.

Hala ere, gure garaia, burgesiaren garaia klase-kontrajartze horiek sinpletu izanak ezaugarritzen du. Gaur, gizarte osoa gero eta gehiago zatitzen da bi sail etsai handitan, elkarren aurrean dauden bi klase handitan: burgesian eta proletalgoan.

242

Erdi Aroko glebako jopuengandik lehen hirietako «bilauak» sortu ziren; eta bilau horietatik garatu ziren burgesiaren lehen elementuak.

Amerikaren aurkikuntzak, Afrikaren inguruko nabigazioak sail berriak sortu zizkieten gora zetorren burgesiari. Txina eta Ekialdeko Indietako merkatuak, Amerikaren kolonizazioak, koloniekiko komertzioak, truke-bitartekoak eta merkantziak gehitzeak, oro har, merkataritzari, nabigazioari, industriari inoiz ezagutu gabeko bulkada eman zieten eta horrekin deusezten ari zen gizarte feudaleko elementu iraultzaileari garapen bizkor bat.

Ordu arteko industriaren eraentza feudal edo gremiala ez zen iristen merkatu berriek irekitzen zituzten beharrak asetzera. Manufaktura etorri zen haren lekua hartzera. Klase ertain industrialak baztertu zituen gremioetako maisuak, korporazio desberdinen arteko lanaren banaketa desagertu egin zen tailer bakoitzeko lanaren banaketaren aurrean.

Baina merkatuak haziz zihoazen, beharrak gehituz. Manufaktura bera ere ez zen aski. Lurrina eta makineriak iraultzatu zuten produkzio industrialia. Manufakturaren lekua industria handi modernoak hartu zuen, eta klase ertain industrialek lekua utzi zieten milioidun industrialei, armada industrial osoen buruzagiei, burges modernoei.

Industria handiak mundu-merkatua sortu zuen, Amerikaren aurkikuntzak jadanik prestatua zuena. Mundu-merkatuak bulkada neurtezina eman zien merkataritzari, nabigazioari eta lehorreko komunikabideei. Horiek, bestalde, eragina izan zuten industriaren hedapenean, eta neurri berean, industria, merkataritza, nabigazioa, trenbideak hedatzen ziren, eta neurri berean garatzen zen burgesia, gehitzen ziren haren kapitalak, eta bultza egiten zien atzealdera Erdi Arotik ondarean hartutako klaseak.

Badakusagu, beraz, burgesia modernoa bera garapen-prozesu luze baten produktua dela, produkzioeta truke-moduen eraldakuntza sail batena.

Burgesiaren garapen maila horietako bakoitza zegokion aurreratze politikoz lagundurik zegoen. Jaun feudalen agintepean zapaldiriko klasea, burgesiak elkarte autonomo eta armatua eratzen du «komuna»<sup>4</sup> bere interesen defentsarako; hemen udal-errepublika independenteak, han monarkien hirugarren estatu zergaduna; gero manufakturen garaian nobleziaren kontrapisua da monarkia feudal edo absolutuaren barruan eta monarkia handien oinarria oro har, harik eta, azkenik, industria handia ezarri eta mundu-merkatuaren bideak urraturik, aginte politiko

---

<sup>4</sup> «Commune» zen, Frantzian, hiri sorberriek hartzen zuten izena beren jaun eta nagusi feudallengandik autogobernua eta eskubide politikoak konkistatu baino lehen «Hirugarren Estatu» gisa. Eskuarki hitz eginez, burgesiaren garapen ekonomikorako, Ingalaterra hartzen da hemen herrialde tipiko gisa; garapen politikorako, Frantzia. [Engelsen oharra 1888ko edizio ingelesari.]

esklusiboa konkistatu eta ordezkari-estatu moderno sortzen den arte. Gaur, estatu-exekutibo modernoa batzorde bat da, burgesia-klase osoaren arazo komunak kudeatzen dituena.

243

Burgesiak eginkizun guztiz iraultzailea izan du historian.

Burgesiak, agintera iritsi den tokian, deuseztu egin ditu harreman feudal, patriarkal eta idiliko guztiak. Gupidagabe eten ditu lokarri feudal pintarratuak, gizakia «nagusi natural»ekin lotzen zutenak, eta ezer ez du utzi zutik interes biluzia, «eskudiru soil» sentimendu gabea baizik. Ito egin ditu jaiera erlijiosoaren, suhar zalduneriakoaren eta buges onaren melankoliaren estasi santuenak kalkulu egoistaren ur izoztuan. Duintasun pertsonala truke-balio bihurtu du, eta ezin zenbatu ahala askatasun eskrituratu eta ongi lortuen ordezkari-estatu askatasun kontzientziaz bakar bat ezarri du. Hitz batean esateko, lilura politiko eta erlijiosoz estalitako ustiapenaren lekuan, ustiapen ageriko, lotsagabe, zuzeneko eta zakarra ezarri du.

Burgesiak erantzi egin die aureola gaur arte gurgarritzat eta ikara jaierratsuz kontsideraturiko jardueri. Bere soldatapeko zerbitzari bihurtu ditu medikua, jurista, poeta, apaiza, zientzia-gizona.

Burgesiak urratu egin ditu familia-harremanen belo hunkipenezko eta sentimentalak, eta familia-harremana diru-harreman soil bihurtu du. Burgesiak erakutsi du erreakzioak Erdi Aroan hainbeste miresten dituen indar zakarraren erakustaldi haiek alferkeria nagieanean zeukatela beren osagarri egokia. Berak erakutsi zuen lehenik gizakiaren jarduera zer egiteko gai zen. Burgesiak Egiptoko piramideak, erromatarren akueduktuak eta katedral gotikoak baino askoz obra miresgarriagoak egin ditu, herrien migrazioak eta gurutzadak baino askoz egitada handiagoak egin ditu.

Burgesia ezin da existitu produkzio-tresnak, beraz produkzioharremanak, eta horrekin eraentza sozial guztia etengabe iraultzatu gabe. Aldiz, aurreko klase industrial guztien lehen existentzia-baldintza zen indarreko produkzio-moduaren iraupen aldagabea. Produkzioaren etengabeko desplazamenduak, baldintza sozial guztien atzabeko kordokatzeak, segurtasunik eza eta mugimendua betierekoak ezaugarritzen dute burgesiaren garaia beste guztien aldean. Iraganeko harreman herdoildu eta finkoak, horien ideia eta sineste zahar eta gurgarrien segizioarekin, disolbatu egiten dira eta eratu-berriak zaharkitu egiten dira hezurdura hartu baino lehen. Trinkoa den guztia urtu egiten da, santua den guztia profanotu egiten da, eta azkenik, gizakia beharturik aurkitzen da, bere bizi-baldintzei eta besteekiko bere harremanei aurrez aurre begiratzen.

244

Merkatu gero eta hedatuagoak bere produktuentzat aurkitzearen beharrak xaxatu egiten du burgesia lurbira osora. Nonahi egiten du kabia, nonahi eraikitzen du, nonahi ezartzen ditu harremanak.

Burgesiak, mundu-merkatua ustiatzean, izaera kosmopolita ematen die herrialde guztietako produkzioari eta kontsumoari. Erreakzionarioen atsekabe handirako, industriaren oinpeetatik zutik dagoen lurzoru nazionala atera du. Industria nazional zaharrak deuseztu egin dira eta oraindik ere egunero deusezten dira. Industria berriek baztertu egiten dituzte, zeinen ezarpena bizi-arazo baita nazio zibilizatuentzat, zeinek ez baitituzte eraldatzen lehen bezala beren baitako lehengaiak eraldatzen baizik klima urrunagoetatik ekarritakoak eta zeinen



fabrikatuak herrialdean bertan ez ezik munduko alderdi guztietan erabiltzen baitira. Garai batean lurraldeko emaitzek asetzen zituzten beharren ordez, berriak sortzen dira, herrialde eta klima urrunenetako produktuak haiek asetzeko eskatzen dituztenak. Autohornikuntza eta bakartze tokiko eta nazionalaren ordez, alderdi guztiekiko komertzioa dugu, nazioen alderdi guztiekiko dependentzia, eta hori nola produkzio materialean hala intelektualean. Nazio banakoen sorkariak ondare komun bihurtzen dira. Gero eta ezinezkoagoa da aldebakartasun eta mugatutasun nazionala, eta literatura nazional eta tokiko ugariatatik mundu-literatura bat sortzen da.

Burgesiak, produkzio-bitarteko guztien hobekuntza lasterrarekin, etengabe erraztutako komunikazioaren bitartez nazio barbaroenak ere zibilizaziora eramaten ditu. Bere merkantzien prezio merkea da Txinako harresi guztiak eraisteko, tribu barbaroen atzerritarrarenganako gorroto setatienea errendiarazteko erabiltzen duen artilleria astuna. Behartu egiten ditu nazio guztiak burgesiaren produkzio-modua berenganatzera, hondoa jo nahi ez badute; behartu egiten ditu beren baitan zibilizazioa onartzera, hau da, burges izatera. Hitz batean, mundu bat sortzen du bere irudi propiora.

245

Burgesiak landa hiriaren agintepean ezartzen du. Hiri eskergak sortu ditu, gehitu egiten du hirietako biztanleria landakoaren aldean neurri handi batean eta erauzi egiten du biztanleriaren parte esanguratsu bat landa-bizitzaren kretinismotik. Eta landa hiriaren mendean ezartzen duen bezala, herrialde barbaro eta erdi-barbaroak zibilizatuen mendean, populu nekazariak populu burgesen mendean, Ekialdea Mendebaldearen mendean ezartzen du.

Burgesia pixkanaka gaudituz doa produkzio-bitartekoen, jabetzaren eta biztanleriaren sakabanaketa. Aglomeratu egin du biztanleria, produkzio-bitartekoak zentralizatu eta jabetza esku gutxitan kontzentratu. Horren ondorio derrigorrekoa zentralizazio politikoa izan da. Probintzia independenteak, ia ozta-ozta loturikoak, interes, lege, gobernu eta zerga desberdinak dituztenak nazio, gobernu, lege, klase-interes nazional, aduana-lerro bakarra eratzera bultzatu ditu.

Burgesiak klase menderatzaile gisa daraman ia ehun urteetan iraganeko belaunaldi guztiek batera baino produkzio-indar kolosalago eta masiboagoak sortu ditu. Natur indarren menderakuntza, makineria, kimikaren erabilera industrian eta nekazaritzan, lurrinezko nabigazioa, trenbideak, telegrafo elektrikoak, kontinente osoen maneaketa, ibaien kanalizazioa, lurzorutik sortutako biztanleriak... Zeinek susmatzen zuen iragandako mendeetan halako produkzio-indarrak lan sozialaren baitan lozorroan zeudenik?

Ikusia dugu produkzio- eta garraio-bitartekoak, zeinaren gainean garatu baitzen burgesia, gizarte feudalean sortu zirela. Produkzio- eta garraio-bitarteko horien garapenaren maila jakin batean, gertatu zen ez zetozeela bat gizarte feudalak produzitzen eta trukutzen zuen harremanak, nekazaritza eta manufakturaren antolakuntza feudala, hitz batean, jabetza-harreman feudala produkzio-indar garatuekin. Beste hainbeste kate bihurtu ziren. Etenarazi egin behar ziren, eta etenarazi egin ziren. Haien lekuan konkurrentzia askea sartu zen, hari zegokion konstituzio sozial eta politikoarekin, klase burgesaren nagusitasun ekonomiko eta politikoarekin.

246

Gure begien aurrean ari da gertatzen antzeko mugimendu bat. Gizarte burges

modernoak bere produkzio—, truke- eta jabetza-harremanekin, gizarte burges modernoak hain produkzio- eta truke-bitarteko hain ahaltsuak era miresgarrian sorrarazi dituen araoz lurpeko espirituak aterarazi zituen aztiaren parekoa da. Duela zenbait hamarkada, industriaren eta merkataritzaren historia produkzio-indar modernoaren historia besterik ez da indarreko produkzio-harremanen aurka, jabetza-harremanen aurka matxinatzen dena, zeinak baitira burgesiaren bizibaldintzak eta haren nagusitasunekoak. Aski da aipatzea merkataritza-krisiak, zeinen aldizkako errepikapena gero eta arrisku handiagoa baita gizarte burges osoaren existentziarako. Merkataritza-krisiek, produktu landuen parte handi bat deusezteaz gainera, existitzen diren produkzio-indarren parte nabarmen bat ezerezten dute. Krisi horietan epidemia sozial bat abiarazten da, zeinari aurreko edozein garaik zentzugabe eta kontzebiezin iritziko baitzion: gainprodukzioaren epidemia. Gizartea supituki aldi bateko barbarie-egoera batera atzera eramana aurkitzen da; badirudi gosete batek edo suntsipen-gerra orokor batek eten dituela bizigai guztiak; industria, merkataritza ezereztuak dirudite, eta zergatik? Zibilizazio gehiegi, bizigai gehiegi, industria gehiegi, merkataritza gehiegi duelako. Eskura dituen produkzio-indarrek jabetza-harreman burgesaren harremanak homitzeko jadanik ez dute balio; alderantziz, ahaltsuegi bihurtu dira harreman horietarako, haiek eragotzi egiten dituzte; eta eragozpen hori gainditu orduko, gizarte burges osoa desordenan jartzen dute, jabetza burgesaren existentzia arriskuan jartzen dute. Harreman burgesak estuegiak dira haiek sortutako aberastasuna hartzeko. Eta nola gainditzen ditu burgesiak krisi horiek? Batetik, produkzio-indarren masa handi bat deuseztuz; besterik, merkatu berriak konkistatuz eta merkatu zaharrak sakonago ustiatuz. Hau da, gero eta krisi orokorragoak eta indartsuagoak prestatuz eta krisiak prebenitzeko bitartekoak urrituz.

Burgesiak feudalismoa menderatzeko erabilitako armak orain burgesiaren beraren aurka zuzentzen dira.

Eta burgesiak ez ditu prestatzen heriotza emango dioten armak bakarrik, baizik arma horiek erabiliko dituzten gizakiak —langile modernoak, proletarioak sortu ere egiten ditu.

Burgesia, hau da, kapitala, garatzen den neurri berean, proletarioa, langile modernoaren klasea ere garatzen da, zeinak soilik bizitzen baitira lana aurkitzen duten heinean, eta, zeinek soilik lana aurkitzen baitute, haien lanak kapitala gehitzen duen heinean. Langile horiek, beren burua zatika saldu behar dutenak, merkantzia dira beste edozein merkataritza-salgai bezala eta, era berean, konkurrentzia-aldaketen, merkatuaren gorabehera guztien mendean dago.

247

Proletarioen lanak makineriaren hedapenaren eta lanaren banaketaren bitartez galdu egin du bere izaera autonomoa eta, horrenbestez, langilearentzako xarma oro. Makinaren atal soil bihurtzen da, zeinari eragiketa mekaniko, monotono eta erraz ikasteko bat soilik eskatzen baitzaio. Langileak eragiten dituen kostuak, horregatik, bizigaietara ia bakarrik mugatzen dira, zeinak bere arrazaren iraupen eta ugalketarako behar baititu. Merkantzia baten prezioa, eta ondorioz lanarena ere bai, haren produkzio-kostuaren parekoa da. Lanaren arbuigarritasuna hazten den neurri berean, soldata urritu egiten da. Areago, makineria eta lanaren banaketa areagotzen den neurrian, lanaren masa ere neurri berean gehitzen da, bai lanorduak luzatuz, bai denbora jakin batean eskatutako lana areagotuz, makinaren abiadura bizkortuz eta

abarrez.

Industria modernoak maisu patriarkalaren tailertxoak kapitalista industrialaren fabrika handi bihurtu du. Fabrikaren kontzentratutako langile-masak militarri antolatuta daude. Industriako soldadu arrunt gisa antolatuta daude ofizial eta azpionfiziaren hierarkia osoaren agindupean. Ez dira burgesiaren eta estatu burgesiaren jopuak soilik; baizik eta egunero eta orduoro daude makinak, kontramaisuak, eta batez ere, burges fabrikatzaile banakoak jopu bihurturik. Nagusikeria hori hainbat ziztrinagoa, nardagarriagoa, mingarriagoa da, zenbat eta agerikiago aldarrikatzen duen irabazia duela bere xede.

Zenbat eta esku-lanak trebezia eta indar-kanporatze gutxiago eskatu, hau da, zenbat eta gehiago garatu industria modernoa, hainbat gehiago desplazatzen du gizonaren lana emakumearenak. Langile-klasearentzat sexu- eta adin-desberdintasunek jadanik ez dute inolako balio sozialik. Denak lan-tresnak dira, adina eta sexuaren arabera kostu desberdinak eragiten dituztenak.

Fabrikatzaileak langileari egindako ustiapena bukatu bezain laster eta bere soldata jasotzen duen orduko, gainera oldartzen zaizkio burgesiaren beste parteak, etxe-jabea, dendaria, mailegu-emailea, etab.

Orain arteko estamentu ertaina, industrial txikiak, merkataria eta errentadunak, artisauek eta nekazariak hurrupatzen dituzte proletarioak; batak, haien kapital txikia ez delako aski industria handiaren enpresarako eta kapitalista handiaren konkurrentziaren mende erortzen delako, eta besteak, produkzio-modu berriek haien trebetasunak baliogabetu dituzte. Horrela proletarioa biztanleriaren klase guztietatik erreklutatzen da.

248

Proletarioak garapen-etapa desberdinak egiten dituzte. Burgesiaren aurkako haren borroka bere existentziarekin hasten da.

Hasieran langile bakartuek borrokatzen dute, gero fabrika bateko langileek, gero toki bateko lan-abar bateko langileek zuzenean esplotatzen dituzten burges banako baten aurka. Beren erasoak ez dituzte produkzio-harreman burgesen aurka bakarrik zuzentzen, produktotresnen beraien aurka zuzentzen dituzte; merkantzia konkurrente atzerritarak deusezten dituzte, makinak suntsitzen dituzte, su ematen diete fabrikei, Erdi Aroko langilearen posizio galdua berreskuratu nahi dute.

Lehen etapa horretan herrialdean sakabanaturiko eta konkurrentziak zatikaturiko masa eratzten dute langileek. Langileen masa-kontzentrazioak ez dira oraindik elkartzearen ondorio, baizik burgesia elkartzearen ondorio, zeinek bere xede politiko propioak lortzeko proletario osoa mugimenduan jarri behar baitu, eta hori oraindik pixka batean badezake. Etapa horretan proletarioek ez dute oraindik beren etsaien aurka borroka egiten, baizik beren etsaien aurka, monarkia absolutuaren hondarren, lurjabeen, burges ez-industrialen, burges txikien aurka. Mugimendu historiko osoa burgesiaren eskuetan kontzentratuta dago horrela; horrela lortzen den garaipen oro burgesiaren garaipena da.

Baina industriaren garapenarekin ez da proletarioa bakarrik gehitzen; masa handiagotan kontzentratzen dituzte, haren indarra gehitzen du, eta gero eta gehiago sentitzen dituzte. Proletarioaren barneko interesak, bizi-baldintzak gero eta berdinduak dira, makinariak lanaren desberdintasuna gero eta gehiago ezabatu

ahala eta soldata ia nonahi maila apal berdin batera eraisten delarik. Burgesiaren baitan sortutako konkurrentzia gero eta handiagoa eta hortik sortzen diren merkataritza-krisiek langileen soldatak gero eta gorabeheratsuago bihurtzen dituzte; makineriaren etengabeko hobekuntzek, gero eta bizkorrago garatzen direnek, haien bizi-posizioari gero eta ziurtasun-gabezia handiagoa ematen diote, langile banako aren eta burges banakoaren arteko gatazkek gero eta gehiago hartzen dute bi klaseren arteko gatazka-izaera. Horrenbestez langileak burgesen aurkako koalizioak sortzen hasten dira, beren soldatak babesteko elkartu. Elkarte iraunkorrak sortzen dituzte alde zuzenetik nontizteko gerta litezkeen matxinaldietarako. Tarteka, jaikialditan leher egiten du borroka.

249

Noizean behin langileek irabazten dute, baina era igarokorrean beti. Borroka horien benetako helburua ez da berehalako emaitza lortzea, baizik langileen gero eta batasun handiagoa hedatzea. Gero eta gehiago hazten diren komunikabideek, industria handiak sortu eta toki eta erregio desberdinetako langileak elkarrekin harremanetan jartzen dituztenek laguntzen dute horretan. Batasun hori beharrezkoa zen nonahi izaera bera zuten tokiko borroka ugariak klase-borroka nazional bihurtzeraino zentralizatzeko. Klase-borroka oro borroka politikoa da. Erdi Aroko hiriek, beren bide eskasekin, mende osoak behar izan zituzten besteekin bat egiteko; proletalgo modernoak, berriz, trenbideei esker, urte gutxitan sortu du batasun hori.

Proletalgoa klase bezala antolatzea, eta, horrenbestez, alderdi politiko gisa, uneoro hautsi egiten da langileen beren arteko konkurrentziaz. Baina betiere indartsuago, finkoago, ahaltsuago bihurtzen da. Eta burgesiaren baitan sortzen diren etenez baliaturik langileen interes banakoak aitortzera behartzen du lege-forman. Horrela jaiotzen da Ingalaterran hamar orduko lanaldiaren legea.

Gizarte zaharreko gatazkek, modu askotara, bultzatzen dute proletalgoaren garatze-joira. Burgesia etengabeko borrokan aurkitzen da: lehenik, aristokraziaren aurka; gero, burgesiako parte beraien aurka, zeinen interesak kontraesanean sartzen baitira industriaren aurrerabidearekin; beti atzerriko herrialdeetako burgesiaren aurka. Borroka horietan guztietan derrigorreko ikusten du proletalgoari dei egitea, haren laguntza kontuan hartzea eta horrela mugimendu politikora arrastaka eramatea. Berak ematen dizkio proletalgoari erakuntza propiorako elementuak, hau da, bere buruaren aurkako armak.

Gainera, dagoeneko ikusi dugunez, industriako aurrerabideek klase menderatzaileko osagaiak amiltzen dituzte proletalgora, edo gutxienez haien bizi-baldintzatan mehatxatuak sentiarazten dituzte. Proletalgoa osagai-elementuen masa batez hornitzen dute. Azkenik, klase-borroka erabakitzeko zorian zegoen aldi haietan, antzinako gizartearen baitako klase menderatzailearen disoluzio-prozesuak hain izaera bortxazkoa eta hain nabaria hartzen du, non klase menderatzailearen atal txiki bat hartatik berezi eta klase iraultzaileari atxikitzen baitzaio, bere eskuetan etorkizuna dakarren klaseari. Eta lehen nobleziaren parte bat burgesiara pasatu zen bezala, horrela pasatzen da orain proletalgora burgesiaren parte bat, hau da, burgesiako ideologoaren parte bat, zeina iritsi baita mugimendu historiko osoaren ulerkuntza teorikoraino.

250

Gaur egun burgesiari aurre egiten dioten klase guztietatik proletalgoa da errealki klase iraultzaile bakarra. Gainerakoak iraungi eta desagertu egiten dira industria

handiarekin; proletalgora da haren produktu propioa.

Estamentu ertainak, industrial txikia, merkataritza txikia, artisaua, nekazaria, denek borrokatzen dute burgesia estamentu ertain beren existentzia hondamenditik segurtatzeko. Ez dira, beraz, iraultzaileak, kontserbadoreak baizik. Areago, erreakzionarioak dira, historiaren gorpila atzerantz ibilarazi nahi dute. Iraultzaileak baldin badira proletalgorako igarobidearen aurrean daudelaketik begiratuta da. Beraz, ez dituzte presenteko baizik etorkizuneko interesak; beraz, bere ikuspuntu propioa alde batera uzten dute, proletalgoarenean kokatzeko. —Proletalgo zarpada, gizarte zaharreko geruza behearen usteltze pasibo hori, neurri batean herrestan eraman izango da mugimendu proletarioaren bitartez, nahiz eta haren bizi-baldintza guztiak prestuago egongo diren maneiu erreakzionarioetarako bere burua erosten uzteko.

Gizarte zaharraren bizi-baldintzak jadanik deusezturik daude proletalgoaren bizi-baldintzetan. Proletalgora jabetzarik gabea da; emaztea eta seme-alabekiko haren harremanak ez du ezer komun familia-harreman burgesekin; lan industrial modernoa, kapitalaren azpiko mendekotasun modernoa, nola Ingalaterran hala Frantzian, nola Amerikan hala Alemanian, izaera nazional guztia ezabatu dio. Legea, moralak, erlijioa beste hainbeste aurreiritzi burgesak dira harentzat, zeinen atzean beste hainbeste interes burges ezkututzen baitira.

Aurreko klase guztiak, agintea konkistatu zutenak jadanik eskuratutako bizi-posizioak segurtatzen saiatu ziren gizarte osoa beren eskurapenaren baldintzen pean ezartzen. Proletarioek konkistatu ahal izan zituzten produkzio-indar sozialak soilik, ordu arte jabetze-modua eta horrekin ordu arteko jabetze-modu osoa ezabatuz. Proletarioek ez dute ezer propiorik segurtatzeko, baizik orain arteko segurtasunak eta segurantzak pribatuak deusezteko.

251

Orain arteko mugimendu guztiak gutxiengoaren edo gutxiengoaren interesen mugimenduak izan dira. Mugimendu proletarioa gehiengo eskerga baten mugimendu autonomoa da gehiengo eskerga baten interesean. Proletalgora, gaurko gizartearen geruza behearena, altxatu, zutitu, gizarte ofiziala eratzen duten geruzen gainegitura guztia airean barrena zartarazi gabe.

Nahiz eta edukiz ez izan, formaz proletalgoaren burgesiaren aurkako borroka nazionala izatetik hasten da. Naturala da herrialde bakoitzeko proletalgoak lehenik bere burgesia propioarekin kontuak garbitzea.

Proletalgoaren garapenerako fase orokorrenak zirrimarratzean jarraitu egin dugu gerra zibil gutxi-asko ezkutukoa existitzen den gizartearen barruan halako punturaino, non gerra zibil horrek iraultza ageriko bat sortzen baitu eta proletalgoak, burgesia bortxaz eraitsiz, bere agintea oinarritzen baitu.

Orain arteko gizarte guztiak, dagoeneko ikusia dugunez, klase zapaltzaile eta zapalduen arteko kontraesanean bermatu da. Baina klase bat zapaldu ahal izateko, haren baldintzak segurtatu behar dira, zeinen barruan gutxienez haren existentzia joputzakoa jarrai daitekeen.

Glebako jopuak komunako kide izatera jaso izan zen joputzatik irten gabe, burges txikia burges izatera bezala absolutismo feudalaren uztarripean. Langile modernoak, aitzitik, industriaren aurrerabidearekin igo ordez, gero eta sakonago hondoratzen da

bere klasearen baldintzen azpian. Langilea errumestu egiten da, eta errumeskeria biztanleria eta aberastasuna baino bizkorrago garatzen da oraindik.

Hemen argi geratzen da burgesia ez dela gai aurrerantzean gizartearen klase menderatzaile izateko eta bere klasearen bizi-baldintzak gizarteari lege arautzaile gisa ezartzeko. Ez da gai agintzeko, zeren ez baita gai bere esklaboei beren esklabotzaren barruan bertan segurtatzeko, zeren beharturik baitago hura halako egoera bateraino hondoratzen uztera, non hura elikatu behar duen, hark bera elikatu beharrean. Gizartea ezin da aurrerantzean haren pean bizi, hau da, haren bizitza jadanik ez da gizartearekin bateragarri.

Klase burgesaren existentzia menderakuntzarako baldintza esentziala pribatuen eskuetan aberastasuna metatzea da, kapitala eratzea eta gehitzea; kapitalaren baldintza soldatapeko lana da. Soldatapeko lana langileen elkarren arteko konkurrentzian bakarrik bermatzen da. Industriaren aurrerabideak, zeinaren eroale nahimen eta erresistentziarik gabea burgesia baita, konkurrentziaren bidezko langileria bakartzearen tokian haren asoziazioaren bidezko elkartzeko iraultzaile ezartzen du. Industria handiaren garapenarekin burgesiak oinpean ikusten du oinarria bera, zeinaren gainean produzitzen baitu eta produktuez jabetzen baita. Batez ere bere hilobi propioa produzitzen du. Haren gainbeheratzea eta proletalgoaren garaipena saihestezinak dira era berean.

252

## *II. Proletarioak eta komunistak*

Zer harreman dute komunistek proletarioekin, oro har? Komunistak ez dira alderdi berezi bat beste langile-alderdien aurrean. Ez dute interesik proletalgo osoaren interesez bestelakorik.

Ez dute printzipio berezirik ezartzen, zeinen arabera mugimendu proletarioa molda daitekeen.

Komunistak bereizten dira gainerako alderdi proletarioetatik gauza bakar batean: alde batetik, proletarioen borroka nazional bakoitzean proletalgo osoaren interes komunak, nazionalitatearekiko independenteak nabarmendu eta baliaraztean, eta besterik, garapen-fase desberdinetan, zeinetatik pasatzen baita proletalgoa eta burgesiaren arteko borroka, beti mugimendu osoaren interesak ordezkatzean.

Komunistak dira, beraz, herrialde guztietako langile-alderdien atal erabakigarriena eta beti bultzatzen ari dena praktikan; bestalde, teorikoki proletalgoaren gainerako masa handiarekiko mugimendu proletarioaren baldintzak, joira eta emaitza orokorrak ulertzearen abantada dute.

Komunisten berehalako xedea gainerako alderdi proletarioena bera da: proletalgoa klase bihurtzea, burgesiaren menderakuntza eraistea, botere politikoa konkistatzea proletalgoaren bidez. Komunisten proposamen teorikoak ez dira inondik ere ideiatan, printzipiotan, zeinak honelako edo bestelako mundu-hobetzailek asmatu edo aurkitu baititu.

Existitzen den klase-borroka baten harreman errealean, gure begien aurrean doan mugimendu historiko baten adierazpen orokorra besterik ez da. Dauden

jabetza-harremanak ezabatzea ez da inondik ere komunismoaren ezaugarri bereizgarria.

153

Jabetza-harreman guztiak etengabeko bilakaera historiko baten, aldaketa historiko iraunkor baten mendean egon dira.

Iraultza frantsesak, adibidez, jabetza feudala ezabatu zuen burgesaren mesedetan.

Komunismoa ezaugarritzen duena ez da jabetza ezabatzea, oro har, baizik jabetza burgesa ezabatzea.

Baina jabetza pribatu burges modernoak produktuen sortzearen eta jabetzearen adierazpen azken eta perfektuena da, zeina klase-kontraesanetan, batak bestea espiotatzearen gainean bermatzen baita.

Ilido horretatik komunistek beren teoria adierazpen batean, jabetza pribatua gainditzean laburbil dezakete.

Komunistoi aurpegiratzen zaigu, pertsonalki eskuratutako, lan propioaren bidezko jabetza ezabatu nahi dugula; askatasunaren, jardueraren eta autonomia pertsonal ororen oinarria dena.

Norberak landu, eskuratu eta merezitako jabetza! Artisau apalaren, nekazari txikiaren jabetzaz ari al zarete, jabetza burgesaren aurrekoa izan zenaz? Ez daukagu ezabatu beharrik, industriaren garapenak ezabatu du eta ezabatzen du egunero.

Ala jabetza pribatu burges modernoaz ari zarete?

Soldatapeko lanak, proletarioaren lanak jabetza sortzen al dio? Inola ere ez. Kapitala, hau da, jabetza sortzen du, soldatapeko lana ustiatzen duena, zeina soldatapeko lan berria berriro ustiatzeko sortzen duen baldintzapean bakarrik gehitzen baita. Jabetza bere gaurko taxueran kapitalaren eta soldatapeko lanaren arteko kontrajartzean mugitzen da. Kontsidera ditzagun kontrajartze horren bi aldeak.

Kapitalista izateak esan nahi du ez bakarrik produkzioan posizio pertsonal bat hartzea, baizik soziala ere bai. Kapitala produktu kolektibo bat da eta kide askoren jarduera komun baten bidez bakarrik, are azken finean gizarteko kide guztien jarduera komunaren bidez bakarrik jar daiteke mugimenduan. Kapitala ez da, beraz, botere pertsonala, soziala baizik.

Kapitala jabetza komun, gizarteko kide guztiei dagokiena bihurtzen denean, orduan ez da jabetza pertsonal bihurtzen, sozial baizik. Jabetzaren izaera soziala bakarrik eraldatzen da. Bere klase-izaera galtzen du.

254

Soldatapeko lanari hel diezaiozun.

Soldatapeko lanaren batez besteko prezioa soldataren gutxienekoa da, hau da, langilea langile den heinean sostengatzeko beharrezko bizigaien batura. Soldatapeko langileak bere lanarekin eskuratzen duen guztia da, beraz, hertsiki behar duena bizitzeko eta lan egiten jarraitzeko. Guk ez dugu ezabatu nahi inola ere bizitza bitartegabea birsortzeko lan-produktuen jabetze pertsonala, jabetze bat, zeinak ez baitu uzten etekin likidorik, lan atzerritarraren gainetik boterea eman lezakeenik. Jabetze horren izaera laidagarria gainditu nahi dugu guk, zeinean langilea kapitala gehitzeko bakarrik bizi baita, zeinean bizi baita klase menderatzailearen interesak eskatzen duen heinean.

Gizarte burgesean, lan bizia bitarteko bat da lan metatua gehitzeko. Gizarte komunistan, lan metatua bitarteko bat da, langilearen bizi-prozesua hedatzeko, aberasteko, sustatzeko. Gizarte burgesean, beraz, iragana presentearen gain nagusitzen da; komunistan, presentea iraganaren gain. Gizarte burgesean, kapitala independentea eta pertsonala da, aldiz, norbanako aktiboa independentea eta inpersonala.

Eta harreman horiek gainditzeari deitzen dio burgesiak pertsonaltasuna eta askatasuna gainditzea! Eta zuzen dabil. Noski, kontua da burgesiaren pertsonaltasuna, independentzia eta askatasuna gainditzea!

Askatasun hitzaz ulertzen da gaurko produkzio-harreman burgesen barruan merkataritza askea, salerosketa askea!

Salerosketa desagertzen bada, salerosketa askea ere desagertzen da. Salerosketa askeari buruzko hizketa horrek, baita oro har askatasunari buruzko gure burgesiaren gainerako goraltza horiek guztiek, salerosketa murriztuaren aurrez aurre bakarrik dute zentzua, oro har, Erdi Aroko hiritar joputuen aurrez aurre, baina ez salerosketaren, produkzio-harreman burgesen eta burgesia beraren gainditze komunistaren aurrez aurre.

Izutu egiten zarete jabetza pribatua gainditu nahi dugulako. Baina existitzen den zuen gizartean dagoeneko gainditua dute bertako kideek jabetza pribatuaren hamarretik bederatzian; existitzen da, hain zuzen, hamarretik bederatzirentzat existitzen ez delako. Aurpegiatzen diguzue jabetza bat gainditu nahi dugula, zeinak auresuposatzen baitu beharrezko baldintzat gizartearen gehiengo eskerge batek jabetzarik ez izatea.

255

Hitz batean, aurpegiatzen diguzue zuen jabetza gainditu nahi dugula. Noski, horixe nahi dugu.

Lana kapital, diru, errenta, hitz batean, botere sozial monopolizagarri bihurtzerik ez dagoen unetik, hau da, jabetza pertsonala jabetza burges trukatzerik ez dagoen unetik, pertsona gainditua dago.

Aitortzen duzue, beraz, zuentzat ez dagoela burgesa, jabetzadun hiritarra beste pertsonarik. Eta pertsona hori gainditu egin behar da noski.

Komunismoak ez dio inori boterea kentzen produktu sozialak jabetzeko, jabetze horren bitartez lan arrotzaren mendean ezartzeko boterea kentzen dio soilik.

Objektatu da jabetza pribatua gainditzearekin jarduera guztia geldituko dela eta nagikeria orokor bat hedatuko dela.

Honezkero gizarte burgesak aspaldi alferkeriaz lur jota egon beharko zukeen; zeren hartan lan egiten dutenek, ez baitute eskuratzen, eta hartan eskuratzen dutenek, ez baitute lan egiten. Objekzio hori guztia tautologia baten adierazpena baizik ez da: soldatapeko lanik ez dagoela, kapitalik ez dagoenean.

Produktu materialen jabetzeeta produkzio-modu komunisten aurkako objekzio guztiak produktu intelektualen jabetze eta produkziara ere hedatzen dira. Burgesarentzat klase-jabetza galtzea produkzioa bera galtzea den bezala, berarentzat klase-kultura galtzeak oro har kultura galtzearekin bat egiten du. Hainbeste deitoratzen duen kulturaren galera hori gehiengo eskerge makina bihurtzen duena



da.

Baina ez ezazue eztabaida gurekin jabetza pribatua ezabatzeaz, askatasunetik, kulturatik, zuzenbidetik eta abarretik, zuen kontzepzio burgesetatik abiatuz. Zuen ideiak berak produkzioeta jabetza-harreman burgesen sorkariak dira, zuen zuzenbidea lege izatera jasotako zuen klase-nahimena besterik ez den bezala, zuen klasearen bizi-baldintza materialetan edukia emana daukan nahimena.

Iraungi diren klase menderatzaile guztiakin partekatzen dituzue zuen produkzioeta jabetza-harremanak, produkzioaren joairan desagertzen diren baldintza historikoen obra, lege natural eta arrazional betierekotan bermatzen direlako kontzepzio interesatua. Antzinako jabetzarako ulertzen duzuen, jabetza feudalerako ulertzen duzuen, ezin duzue ulertu jabetza burgeserako.

256

Familia gainditzea! Erradikalenak ere sutan jartzen dira komunisten proposamen makurraren aurrean!

Zertan bermatzen da gaurko familia burgesa? Kapitalaren gainean, lukuru pribatuaren gainean. Burgesiarentzat bakarrik existitzen da hura erabat garatua; baina proletarioen familia-gabezia behartuan eta prostituzio agerikoan bakarrik aurkitzen du bere osagarria.

Naturala da burgesen familia desagertzea osagarri hori desagertzean, eta biak iraungitzea kapitala iraungitzean.

Gurasoek beren seme-alabak esplotatzea gainditu nahi dugula aurpegiratzen al diguzue? Aitortzen dugu krimen hori.

Baina, hala diozue, harreman intimoenak kentzen ditugu, etxeko hezkuntzaren orde zoziala ezartzen dugulako.

Zuen hezkuntza bera ere ez al dago gizarteak determinatua? Harreman sozialen bidez, zeinen barruan hezten baitzarete, gizartearen tarteratze zuzeneko edo zeharkakoaren bidez, eskolaren bitartez? Komunistek ez dute asmatu gizarteak hezkuntzan duen eragina, haiek haren izaera aldatu egiten dute, klase menderatzailearen eraginpetik atera erauzi egiten dute hezkuntza.

Familia eta hezkuntzari gurasoen eta seme-alaben arteko harreman intimoen buruzko burgesen hizkera horiek hainbat nazkagarriagoak gertatzen dira, zenbat eta industria handiaren ondorioz proletarioei familia-lokarri guztiak urratzen eta seme-alabak merkantzia eta lanabes soil bihurtzen diren heinean.

Baina zuek komunistok emakumeen erkidegoa ezarri nahi duzue, oihu egiten digu burgesiak aho batez.

Burgesak produkzio-tresna soil bat ikusten du bere emakumearengan. Entzuten du produkzio-tresnak erkidegoan ustiatu behar direla, eta derrigor pentsatu behar du erkidegotasunaren zoria, era berean, emakumeei ere badagokiela.

Ez da ohartzen hor kontua emakumeak produkzio-tresna bezala duen posizioa gainditzea dela.

257

Gainerakoan ezer ez da barregarriagorik gure burgesiaren moralitasun handiko izua baino, komunisten emakume-erkidego ofizial ustezkoari buruz. Komunistek ez dute emakume-erkidegoa ezarri beharrik, ia beti existitu baita.

Gure burgesek, aski ez dutelarik beren eskura edukitzeaz beren proletarioen emakumeak eta seme-alabak, prostituzio ofizialaz ez hitz egitearren, egundoko atsegina sentitzen dute elkarren emazteak seduzitzen.

Izatez, ezkontza burgesa bada emazte-erkidegoa. Gehienera, komunistei aurpegira lekieke gaurko emakume-erkidego hipokritaki ezkutatuaren ordeztu beste ofizial, ageriko batez ordeztu nahi izatea. Gainerakoan aise ulertzen da gaurko produkzio-harremanak gaitzitzen hartatik sortzen den emakume-erkidegoa ere, hau da, prostituzio ofiziala eta ez-ofiziala desagertu egiten dela.

Komunistei gainera aurpegiratzen zaigu, aberria, nazionalitatea ezabatu nahi dugula. Langileek ez dute aberirik. Ezin zaie kendu ez daukatenik. Hala ere, proletalgoak aginte politikoa konkistatu nahi duelarik, klase nazional izatera igo beharra du, bere burua nazio bezala eratu beharra du, bera ere nazionala da, nahiz eta ez izan inola ere burgesiaren zentzuan.

Herrien desberdintasun eta kontraesanak desagertuz doaz gero eta gehiago burgesiaren garapenarekin, merkataritza-askatasunarekin, mundu-merkatuarekin, produkzio industrialaren erabatekotasunarekin eta horri dagozkion bizi-harremanekin.

Proletalgoaren menderakuntzak oraindik lasterrago desagerraziko ditu. Herrialde zibilizatuen ekintza bateratua da haren askapenerako lehen baldintzetako bat.

Norbanako bat beste batek esplotatzea gaitzitzen den neurrian, nazio batek beste bat esplotatzea gaitzitzen da. Nazioaren barruan klaseen kontrajartzearekin galdu egiten da nazioen jarrera etsaikorra. Komunismoaren aurka ikuspuntu erlijioso, filosofiko eta ideologikotik egiten diren salakuntzek ez dute merezi eztabaida xeheagorik.

Intuizio zorrotzagoa behar al da ulertzeko gizakiaren bizi-harremanekin, haren harreman sozialekin, haren existentzia sozialarekin, haren kontzepzioak, ikuspegiak eta ideiak, hitz batean, haren kontzientzia ere aldatu egiten dela?

257

Zer egiaztatzen du ideien historiak, baizik eta produkzio intelektuala materialarekin batera eraldatzen dela? Garai bateko ideia menderatzaileak beti izan dira klase menderatzailearen ideiak.

Gizarte oso bat iraultzatzen duten ideiez hitz egiten da; horrekin adierazten da gizarte zaharraren barruan berri baten elementuak eratu direla. Bizi-harreman zaharrak disoluzioarekin ideia zaharren disoluzioa parez pare doala.

Mundu zaharra beheraka zihoala, erlijio kristauak garaitu egin zituen erlijio zaharrak. Ideia kristauak 18. mendean ilustrazioko ideien mendean erortzen ari zirela, gizarte feudala herio-borrokan ari zen ordukoan iraultzailea zen burgesiarekin. Kontzientzia eta erlijio-askatasunaren ideiek konkurrentzia askearen nagusitasuna adierazi zuten jakitearen alorrean.

«Baina —esango digute ideia erlijioso, moral, filosofiko, politiko, juridiko eta abarrek modifikatu egiten dira garapen historikoaren joairan. Erlijioa, morala, filosofia, politika, zuzenbidea, aldaketa horretan egon dira beti. Gainera, egia betierekoak daude askatasuna, justizia eta abar bezalakoak, estamentu sozial guztiei komunak zaizkienak. Baina komunismoak ezabatu egiten ditu egia betierekoak, ezabatu egiten

ditu erlijioa, morala; berriro taxutu ordez, kontra egiten dio orain arteko garapen historiko guztiei.»

Zertara murrizten da salaketa hau? Orain arteko gizarte osoaren historia klase-kontrajartzetan mugitu da, zeinak garai bakoitzean desberdin taxaturik baitzeuden. Baina zeinahi forma hartzen duelarik ere, gizartearen atal batek bestea esplotatzea da iragan mende guztietako errealitate komuna beti. Ez da harrizkoa, beraz, mende guztietako kontzientzia soziala, askotarikotasun eta desberdintasun guztiak gorabehera, forma komun halako batzuetan mugitzea, kontzientzia-forma batzuetan, zeinak klase-kontrajartzeak osoki desagertzean disolbatzen baitira erabat.

Iraultza komunista da ondarean hartutako jabetza-harremanekiko haustura erradikalena; ez da harrizkoa haren garapen-joairan ondarean hartutako ideiekin erarik erradikalenean haustea.

Baina alde batera uzten ditugu burgesiak komunismoaren aurka egindako objekzioak.

Lehenago ikusia dugu langile-iraultzaren lehen pausoa proletalgora klase menderatzaile izatera igotzea dela, demokraziaren konkista.

259

Proletalgora bere nagusitasun politikoaz baliatuko da, burgesiari pixkanaka bere kapitala kentzeko, produkzio-tresna guztiak estatuaren eskuetan, hau da, klase menderatzaile gisa antolaturiko proletargoarenean zentralizatzeko eta produkzio-indarren masa ahalik eta lasterren gehitzeko.

Hori naturala denez, hasieran jabetza-zuzenbideari eta produkzio-harreman burgesei egindako eraso despotikoen bitartez bakarrik gerta daiteke, neurrien bitartez, zeinek ekonomikoki askiezak eta sostengaezinak baitirudite, baina mugimenduaren joairan bere buruaren gainetik haratago bultzatuko baitute eta ezinbestekoak baitira produkzio-modu osoa eraldatzeko bitarteko gisa. Neurri horiek, normala denez, desberdinak izango dira herrialde bakoitzaren arabera.

Herrialde aurreratuenentzat honako orokor samar hauek aplikagarriak izan litezke:

1-Jabetza higiezinaren desjabetzea eta lurzorua errenta ezartzea gastu publikoei.

2-Zerga aurrerakor indartsua.

3-Herentzia-eskubidea ezabatzea.

4-Etorkin eta errebeldeen fortuna konfiskatzea.

5-Estatuaren kreditua zentralizatzea Banku nazional baten bidez, estatuaren kapitalarekin eta monopolio eskusiboarekin.

6-Garraioen nazionalizazioa.

7-Fabrika nazionalak eta produkzio-tresnak gehitzea, lurrak maneatu eta hobetzea plan kolektibo baten arabera.

8-Lan egitearen betebeharrak aldarrikatzea; armada industrialak sortzea, landan batik bat.

9-Ustiategi nekazaritzakoak eta industrialak artikulatzea; pixkanaka landaren eta hiriaren arteko desberdintasunak ezabatuz joateko joera.

10-Haur guztien hezkuntza publiko eta doakoa. Hurrek gaurko eran fabriketan lan egitearen debekua. Hezkuntza eta produkzio materiala bateratzea etab.

260

Garapenaren joairan klase-desberdintasunak desagertu direnean, eta produkzio

guztia norbanako asoziatuen eskuetan kontzentratu direnean, botere publikoak galdu egiten du bere izaera politikoa. Botere politikoa, berez, klase baten botere antolatua da beste bat zapaltzeko. Burgesiaren aurka borrokan ari den proletalgoa derrigor klase gisa elkartzean, iraultza baten bitartez klase menderatzaile bihurtu eta klase menderatzaile gisa bortxaz produkzio-harreman zaharrak gainditzen dituenen, produkzio-harreman horiekin klase-kontrajartzeen existentzia-baldintzak, klaseak oro har, eta horrela bere nagusitasun propioa klase gisa bertan behera uzten du.

Gizarte burgesaren lekua, haren klaseekin eta klase-kontrajartzeekin, asoziazio batek hartuko du, zeinean bakoitzaren garapen askea guztion garapen askea baita.

### *III. Literatura sozialista eta komunista*

#### **1. Sozialismo atzerakorra**

**a) Sozialismo feudala** Aristokrazia frantsesa eta ingelesa, bere posizio historikoaren arabera, deiturik zegoen gizarte burges modernoaren aurka panfletoak idaztera. 1830eko ekaineko iraultza frantsesean, mugimendu erreformista ingelesean beste behin sakon gorrotatuak mendean hartu zuen. Ia ez zegoen borroka politiko serio batez hitz egiterik. Borroka literarioa bakarrik geratzen zitzaion. Baina literaturaren alorrean ere Errestaurazio-garaiko<sup>5</sup> hizkera zaharra ezinezko bihurtuta zegoen.

Sinpatia irabazteko, aristokraziak itxuraz bere interesak begietatik galdu beharra zeukan eta burgesia akusatatu langile-klase esplotatuarena beste interesik eduki gabe. Horretara, beren nagusi berriari irrikoplak abestu eta iragarpen gutxi-asko hondamendizkoak belarrira xuxurlatzeko gozamena ematen zion bere buruari.

Modu horretara jaio zen sozialismo feudala, erdi-deitoreia, erdi-irrikopla, iraganeko erdi-oihartzuna, etorkizuneko erdi-burrunda; noizean behin, burgesiari zartako bat bihoitzaren erdian ezartzen ziona bere epai garratz eta zorrotzekin, historia modernoaren joira ulertzeko erabateko bere ezgaitasunarengatik beti komikoki eraginez.

Aristokraziak eskeko-zaku proletarioa, bandera gisa, astintzen zuen eskuan, herria bere atzetik biltzeko. Baina jarraitzen zion bakoitzean, herriak dirdir egiten ikusten zuen buruzagien bizkarretan arma feudal zaharrak eta barre-algara ozen eta irreberentearekin sakabanatzen zen.

241

Legitimista frantsesen parte bat eta Ingalaterra gaztea izan ziren ikuskizun horren antolatzaile bikainenak.

Feudalek egiaztatzen dutenean beren esplotatzeko modua beste era batera taxaturik zegoela esplotazio burgesaren aldean, ahaztu egiten dute haien zirkunstantzia eta baldintza zeharo desberdin eta orain desagertuetan esplotatzen zutela. Frogatzen dutenean beren agintepean ez zela existitzen proletalgo modernoa, ahaztu egiten dute beren burgesia modernoa beren gizarte-ordenaren beharrezko kimua dela.

---

<sup>5</sup> Ez Errestaurazio ingelesa 1660tik 1689 arte, bazik Errestaurazio frantsesa 1814tik 1830 arte.[ *Engelsen oharra 1888ko edizio ingelesari.* ]

Gainerakoan, hain gutxi saiaten dira beren kritikaren izaera erreakzionarioa disimulatzen, non burgesiaren kontrako haien salakuntza nagusia den, beren eraentzaren azpian klase bat garatu dela klaseordena zahar osoa lehortaraziko duena.

Gehiago aurpegiatzen diote burgesiari proletalgo *iraultzaile bat* sortzea, oro har, proletalgo bat sortzea baino.

Horregatik praxi politikoan beti esku hartzen dute langile-klasearen aurkako bortxaketa-neurri guztietan eta bizitza arruntean; erretolika hanpatu guztiak gorabehera, urrezko arrautzak biltzera mugatzen dira, eta fideltasuna, maitasuna, ohorea artilea, erremolatxa eta pattarrarekin trukutzen.<sup>6</sup>

Apaizak beti jaun feudalen besotik joaten ziren bezala, horrela apaiz-sozialismoa feudalarekin doa.

Ez dago ezer errazagorik aszetismo kristauari berniz sozialista ematea baino. Ez al zuen gudukatu kristautasunak jabetza pribatuaren aurka, ezkontzaren aurka, estatuaren aurka? Ez al zituen haien lekuan karitatea eta limosna, zelibatua eta haragia hilduratzea, monako-bizitza eta Eliza predikatu? Sozialismo kristaua apezak aristokraten amorruari botatzen dion ur-bedeinkatua besterik ez da.

**b) Sozialismo burges txikia** Aristokrazia feudala ez da burgesiak eraitsitako klase bakarra, zeinaren bizi-baldintzak zapaldu eta hiltzera etorri baita gizarte burges modernoa. Erdi Aroko bilauak eta nekazari txikiak izan ziren burgesia modernoaren aitzindariak. Eta industrialki eta komertzialki gutxiago garatutako herrialdeetan klase horrek begetatzen jarraitzen du gorantz doan burgesiaren alboan.

262

Zibilizazio modernoak garatu den herrialdeetan klase berri burges txiki bat eratu da, burgesiaren eta proletalgoaren artean igerika dabilena eta zeina gizarte burgesaren atal gisa beti berriro eratzen baita. Klase horretako kide banakoak etengabe proletalgora arrastatuak dira konkurrentziaren eraginez, eta, industria modernoak garatzen den heinean, ikusi ere ikusten dute unea, non erabat desagertuko diren gizarte modernoaren atal independente merkataritzan, manufakturan, nekazaritzan kapataz eta domestikoez ordeztuak izateko.

Frantzia bezalako herrialdeetan, zeinean nekazari-klaseak biztanleriaren erdia baino askoz gehiago eratzen baitu, naturala zen idazle batzuek, proletalgoarekin burgesiaren aurka zeudenek, burges-eraentzaren beren kritikan burges txikiaren eta nekazarien interesak arautzat hartzea, eta langileen alderdia burges txikiaren ikuspuntutik ulertzea. Horrela sortu zen sozialismo burges txikia. Sismondi da literatura horren burua, Frantzian ez ezik baita Ingalaterran ere.

Sozialismo horrek oso zorrotz aztertu ditu produkzio-harreman modernoetako kontraesanak. Mozorroa kendu die ekonomialarien zuribidetze hipokritei. Era ezeztazinean frogatu ditu makineriaren eta lanaren banaketaren ondorio suntsitzaileak, kapitalen kontzentrazioa eta jabetza higiezina, gainprodukzioa, krisia,

---

<sup>6</sup> Hau batez ere Alemaniari aplikatzen zaio, non aristokrazia landadunak eta lur-aristokraziak beren jabetzen sail handiak baitauzkate landuak beren kontura maioralen bidez, eta gainera, erremolatxa-azukrearen manufakturatzaile handiak eta patata-pattarraren distilatzaileak baitira. Britainiar aristokrazia aberatsagoa, orain arte, horien gaineratik dago; baina horiek ere badakite nola konpentsatu beheraka doazen errentak beren izenak emanez flotatzaileei edo sozietate anonimo gutxi-asko susmagarriei [ *Engelsen oharra 1888ko edizio ingelesari.* ]

burgese txikien eta nekazarien ezinbesteko beherakada, proletalgoaren miseria, produkzioko anarkia, aberastasunaren banaketako desberdinkeria sumingarriak, nazioek beren artean egiten duten susnatsipen-gerra industrialia, antzinako ohituren, antzinako familia-harremanen, nazionalitate zaharren disoluzioa.

Baina haren formula positiboak dagokienez, sozialismo horrek antzinako produkzioeta truke-bitartekoak berrezarri egin nahi ditu, eta horiekin antzinako jabetza-harremanak eta antzinak gizartea, edo produkzioeta truke-harreman modernoak indarrez txertatu nahi ditu jabetza-harremanen markoan, zeinak ezandarazi baitzituen, ezandarazi behar izan baitzituen. Bi kasuetan atzerakorra eta utopikoa da aldi berean. Gremioak manufakturan eta ekonomia patriarkala landan, horiek dira haren azken hitzak.

Geroko garapenean joera sozialista hau lozorro koldarrean sartu da.

263

**c) Sozialismo alemaniarra edo «egiazkoa»** Frantziako literatura sozialista eta komunista, zeina burgesia menderatzaile baten presiopean jaio baitzen eta zeina haren menderakuntzaren aurkako borrokaren adierazpen literarioa baita, Alemaniara eraman zen, burgesia absolutismo feudalaren aurkako borroka hasi zuen une berean.

Filosofoek, sasi-filosofoek eta buruargi alemaniarrek irrikaz bereganatu zuten literatura hori, baina ahaztu egin zuten idazki haiek Frantziatik etortzean aldi batean ez zirela etorri Alemaniara bizi-baldintza frantsesak. Alemaniar harremanen aurrean, literatura frantsesak galdu egin zuen esanahi praktikoa bitartegabea eta itxura literario soila hartu zuen. Giza esentziari egikaritzeari buruzko espekulazio alferraren itxura hartu behar izan zuen. Beraz, XVIII. mendeko filosofo alemaniarrentzat frantses iraultzaren postulatuek oro har «arrazoi praktikoa»ren postulatuek izatearen zentzua zuten, eta frantses burgesiaren nahimen-adierazpenak haien begietarako nahimen hutsaren legeak bakarrik ziren, izan behar duen bezalako nahimenarenak, egiazko giza nahimenarenak.

*Literato* alemaniarren lan bakarra zegoen ideia frantses berriak beren kontzientzia filosofiko zaharrarekin harmonizatzean edo areago beren ikuspuntu filosofikotik ideia frantsesak berenganatzean, itzulpenaren bidez.

Anexioa gertatu zen hizkuntza arrotz bat egiten den era berean, hau da, itzulpenaren bidez.

Ongi ezaguna da nola monakoek idazten zituzten santuen historia katoliko zozoak, antzinako jentil-garaietako obra klasikoak zeuzkaten eskuizkribuen *gainean*. Literaro alemaniarrek alderantziz jokatu zuten literatura frantses profanoarekin. Jatorrizko frantsesaren azpian idatzi zituzten beren aldrebeskeria filosofikoak. Esaterako, diru-harremanen kritika frantsesaren azpian «giza esentziaren alienazioa» idatzi zuten, estatu burgesaren kritika frantsesaren azpian «orokor abstraktuaren agintea gainditzea» idatzi zuten eta abar.

Esapide filosofiko horiek garapen frantsesen azpian sartzea bataiatu zuten «egitatearen filosofia», «egiazko sozialismoa», «sozialismoaren zientzia alemaniarra» eta abar.

264

Horrela, literatura sozialista-komunista frantsesa formalki irendu egin zuten. Eta

alemaniarren eskuetan jadanik klase baten beste baten aurkako borroka adierazten ez zuenez, alemaniarra kontziente zen «alderdikeria frantsesa» gainditu zuela; behar egiazkoan ordez egiaren beharra eta proletarioen interesen ordez, giza esentziaren interesak, gizakiarenak oro har, ordeztu izana, ezein klasetakoa, oro har errealitatekoa ez den, fantasia filosofikoaren zeru lainotsukoa bakarrik den gizakiarena.

Sozialismo alemaniar hori, bere eskola-ariketak hain serio hartzen zituena eta hainbeste eta hain solemneki tronpetatzen zituena, pixkanaka bere errugabetasun pedantea galduz joan zen. Alemaniar burgesiaren, hau da, prusiar burgesiaren, feudalen eta monarkia absolutuaren aurkako borroka, hitz batean, mugimendu liberala serioago bihurtu zen.

«Egiazko» sozialismoari abagune hain desiratua eskaintzen zitzaion mugimendu politikoari erreibindikazio sozialistak kontrajartzeko, ohiko anatema liberalismoaren aurka, ordezkapen-estatuaren aurka, konkurrentzia burges askearen aurka, prentsa-akastunaren aurka, zuzenbide burgesaren, askatasun eta berdintasun burgesaren aurka botatzeko, herri-masari predikatuz, mugimendu burges horrekin ez zuela ezer irabaziko, aitzitik, dena galduko zuela. Sozialismo alemaniarrek garai ahaztu zuen kritika frantsesak, zeinaren bizirik gabeko oihartzuna baizik ez baitzen, gizarte burges moderno bat auresuposatzen zuela, zegozkion bere bizi-baldintza materialekin eta konstituzio politiko egokiarekin, auresuposizio garbiak, zeinak lortzeko ari baitziren borrokan Alemanian.

«Egiazko» sozialismo hori ongi zetorkien gobernu absolutuei beren apaiz, eskola-maisu, landa-kapare eta burokraten segizioarekin txorimamu desiratu gisa mehatxu egiten saiatzen zen burgesiaren aurka.

Osagarri ezta zen zigorkada garrantzentzat eta fusil-balentzat, zeinekin gobernu horiek alemaniar langile-erreboltei aurre egiten baitzieten.

Baina «egiazko» sozialismoa arma bat izateaz gainera, gobernuen eskuetan burgesia alemaniarren aurka interes atzerakor bat ere bitartegabe ordeztzen zuen, alemaniar behe-burgesiaren interesa. Burgesia txikiak, XVI. mendetik heredatu eta harrezkero forma desberdinetan behin eta berriz azaleratuak, eratzen du Alemanian indarreko egoeraren benetako oinarria.

265

Klase hori iraunaraztea, indarreko egoera alemaniarra iraunaraztea da. Burgesiaren menderakuntza industrial eta politikoak beldurra dio beherakada seguruari, alde batetik kapitalaren kontzentrazioarengatik, besterik proletalgo iraultzaile baten etorrerarengatik. «Egiazko» sozialismoak ematen zuen bi hegalak kolpe batez ebakiko zizkiola. Epidemia bat bezala hedatu zen.

Armiarma-sare espekulatibozko jantzia, erretorika-lorez apaindua, sentimendu gaixozkoaren ihintzetan blai eginak, jantzi traszendental horrek, zeinetan sozialista alemaniarrek estaltzen baitzituzten beren «egia betierekoak», hezurra eta azala baizik ez zirenek gehitu egiten zuten merkantzia horren eskaria publiko horretan. Bestalde, sozialismo alemaniarrek gero eta gehiago ulertzen zuen behe-burgesia horren goi-ordezkarri izatea zela bere betekizuna.<sup>7</sup>

---

<sup>7</sup> 1848ko ekaitz iraultzaileak garbitu egin zituen joera ziztrin horiek guztiak eta sendatu egin zituen horien protagonistak sozialismoan gehiago murgiltzeko desiratik. Herr Karl Grün da joera horren ordezkari nagusia eta tipo

Nazio alemaniarra nazio eredugarri eta mendeko alemaniarra gizaki normal aldarrikatu zituen. Morrontzakeria guztiei zentzu garai ezkutu sozialista eman zien, berez zirenez bestetara. Eta azken ondorioa atera zuen, komunismoaren joera «zakar suntsitzailea»ren zuzenean kontrajartzean eta bere garaitasun inpartziala klase-borroka guztien gaintik iragartzean. Alemanian zirkulatzen duen literatura sozialista eta komunista omen den guztia, salbuespen gutxi batzuekin, literatura zikin irendu horretakoa da.

## **2. Sozialismo burges edo kontserbadorea**

Burgesiaren parte batek bigundu egin nahi ditu bidegabekeria sozialak gizarte burgesaren iraupena segurtatzeko.

Talde horretakoak dira ekonomialariak, filantropoak, humanitarioak, langile-klasearen hobetzaileak, gizarte-ekintzaren antolatzaileak, animaliekiko krudelkeriaren prebenitzaileak, alkohol-moderazioaren aldeko elkarteen sortzaileak pentsa litezkeen txoko-eraberritzaile pintarratuenak. Sozialismo burges hori sistema osoak izateraino aldatu da.

Adibidetzat Proudhonen *Philosophie de la misere* apaitzen dugu.

Burges sozialistek gizarte modernoaren bizi-baldintzak nahi dituzte, hartatik derrigorrean sortzen diren borroka eta arriskuak gabe.

266

Existitzen den gizartea nahi dute, baina elementu iraultzaileak eta disolbatzaileak kenduta. Burgesia nahi dute proletariorik gabe. Burgesiak errepresentatzen du, noski, menderatzen duen mundua mundurik hoberena bezala. Sozialismo burgesak errepresentazio kontsolagarri hori sistema edo erdi-sistema izatera eramaten du. Eta proletariorik eskatzen dionean bere sistema egikaritzeko eta Jerusalem berrian sartzeko, funtsean bakarrik eskatzen dio gaurko gizartean iraun dezala, baina haren errepresentazio gorrotagarriak ezabatuz.

Sozialismo horren bigarren forma batek, hain sistematikoa ez izan arren praktikoagoa denak, baliogabetu egin nahi du mugimendu iraultzaile oro langile-klasearen begietan ikusaraziz hari interesatzen zaiona ez direla aldaketa politiko hutsak baizik bizi-harreman materialen, harreman ekonomikoen aldaketa bat. Bizi-harreman materialen aldaketapean sozialismo horrek ez du ulertzen produkzio-harreman burgesak ezabatzea, zeina bide iraultzaileetatik bakarrik baita ahalgarri, baizik hobekuntza administratiboak, produkzio-harreman horien lurzorutik berez sortzen direnak, kapitala eta soldatapeko lanaren harremana ezertan aldatzen ez dutenak, baizik kasurik hoberenean bere menderakuntzaren kostuak urritzen eta aurrekontua sinpletzen diona.

Sozialismo burgesak dagokion adierazpena figura erretoriko huts bihurtzen denean lortzen du soilik.

Merkataritza askea! Langile klasearen interesetan; muga-zergak! Langile-klasearen interesetan; presondegi-erreforma! Langile klasearen interesetan; hori da sozialismo burgesaren azken hitz serio bakarra.



Burgesiaren sozialismoa datza baieztapen honetan: burgesak burges dira —langile klasearen interesetan.

### **3. Sozialismo kritiko-utopikoa edo komunismoa**

Hemen ez dugu hitz egingo literaturaz, zeinak iraultza moderno handi guztietan proletalgoaren eskakizunak adierazi baititu. (Babeuf-en obrak eta abar.)

Proletalgoak bere klase-interesak sakontzeko egin dituen ahaleginek, astinaldi orokorreko garaietan, gizarte feudalaren amiltzegarria, proletalgoaren beraren taxuera garatugabearekin topo egin behar zuten, alde batetik, eta askapenerako baldintza material ezinbestekoen gabeziarekin, zeinak garai burgesaren produktuak izango baitziren. Literatura iraultzailea, zeinak lagundu baitzituen proletalgoaren lehen mugimenduak edukiaren arabera derrigorrean erreakzionarioa da. Aszetismo orokor bat eta berdinkeria gordin bat irakasten du.

267

Benetako sistema sozialista eta komunistak, Saint-Simon, Fourier, Owen eta abarren sistemak, proletalgoa eta burgesiaren arteko borrokaren lehen aldi garatugabetik sortzen dira, lehenago aurkeztu dugunez (Ikusi Burgesak eta proletarioak).

Sistema horien aurkitzaileek ikusten dituzte noski klaseen kontrajartzeak, baita gizarte menderatzailean bertan dauden elementu disolbatzaileen eragina ere. Baina ez dute ikusten proletalgoaren aldetik egintza historiko independenterik, propioa zaion mugimendu politikorik.

Klase-kontrajartzearen garapen industriaren garapenarekin batera gertatzen delarik, egoera ekonomikoak, aurkitzen dutenez, oraindik ez dizkie eskaintzen proletalgoaren emantzipazio-erako baldintza materialak. Beraz, zientzia sozial berri bat bilatzen dute, lege sozial berriak, baldintza horiek sortuko dituztenak.

Egintza historikoa da beren egintza pertsonal asmatzailearen mendean jartzea, historikoki sortutako emantzipazio-baldintzak beste fantastiko batzuen mendean, eta pixkanaka, proletalgoaren klase-antolakuntza espontaneoaren asmatzaile horiek bereziki bururaturiko gizarteantolakuntza baten mendean.

Haienez, etorriko den historiaren joira unibertsala beren plan sozialen propaganda eta egikaritze praktikora mugatzen da. Zinez jabeturik daude beren planetan nagusiki langile-klasearen interesak ordezkatzen dituztela klase sufrituentzat hartzen baitute. Klase sufrituenaren ikuspuntu horren pean bakarrik existitzen da haienez proletalgoa.

Klase-borrokaren izaera garatugabeak, baita horren bizi-inguruneak ere, sinetsarazten die sozialistei klase-kontrajartze haien gainetik egotea. Hobetu egin nahi dute gizarteko kide bakoitzaren baldintza, baita faboratuenena ere. Horregatik eskuarki gizarte osoari dei egiten diote desberdintasunik gabe, bereziki klase menderatzaileari. Zeren sistema ulertu behar da, gizarte ahalik eta hoberenaren plan ahalik eta hobereana berrezagutzeko.

Horregatik arbuia egiten dute egintza politiko oro, eta bereziki iraultzaile oro, beren xedeak bitarteko baketsuz lortu nahi dituzte, eta saiatzen dira esperimentu txiki, naturalki porrotera kondenatuz, eta etsenpluaren indarrez ebanjelio sozial berrirako bidea urratzea.

268

Etorkizuneko gizartearen hain deskribapen fantastikoa oraindik proletalgora erabat garatu gabe dagoen garai batean sortzen da, oraindik bere posizioaz ikuspegi fantastiko bat duen bitartean, gizarte osoa orokorki birtaxutzeko bulkada senezkoen arabera.

Eta idazki sozialista eta komunista horietan badaude elementu kritikoak ere. Existitzen den gizartearen oinarri guztiei erasotzen diete. Horregatik eman dute langileen argitzapenerako material guztiz baliotsua. Baina etorkizuneko gizarteari buruzko tesi positiboak, adibidez, hiria eta landa arteko kontrajartzea, familia, jabetza pribatua, soldatapeko lana gainditzea, harmonia sozialaren iragarpena, estatua produkzioaren organismo administratibo soil bateraino eraldatzea —tesi horiek guztiek klase-kontrajartzeak desagertuko direla adierazten dute, zeina doi hasi baita garatzen eta zeina bere lehen indeterminazio taxugabeaz ezagutzen baitute. Horregatik, tesi horiek zentzu utopiko hutsa bakarrik dute.

Sozialismo eta komunismo kritiko-utopiko horren garrantzia gizartearen garapen historikoarekiko alderantzizko harremanean dago. Klase-borroka definituz eta areagotuz doan heinean, garrantzi praktikoa eta zentzu teorikoa galduz doa harekiko nagusitasunezko posizio fantastiko hori, hura ezabatzearen balio praktikoro, justifikazio teorikoro. Horregatik, sistema sozialista horien egileak zentzu askotan iraultzaileak baziren ere, horien ikasleek gaur sekta erreazionarioak eratzen dituzte. Maisuen ikuspegi zaharrak temati sostengatzen dituzte proletalgoraren aurrerabide historiko berrien aurrean. Beraz, kontsekuenteak dira klase-borroka biguntzen eta kontrajartzeak bitartekotzen ahalegintzen direnean. Eta amets egiten dute beren utopia sozialak esperimenterik egikaritzen, fanatismoak sortzen, barne-koloniak oinarritzen, Ikaria txiki bat eraikitzen<sup>8</sup> —Jerusalem berriaren miniaturazko argitalpena—, eta gaztelu horiek guztiak airean eraikitzeko bihotz eta patrika burgesen filantropiara jo beharra daukate. Pixkanaka erortzen dira lehen deskribaturiko sozialista erreazionario edo kontserbadoreen kategorian, zeinetarik beren pendantekeria sistematikoz, eta beren zientzia sozialen mirarigintzan sinestearen superstizio fanatikoz bakarrik bereizten baitira. Horregatik mingostasunez aurre egiten diete langileen mugimendu guztiei, zeinak itsukeria fedegabez bakarrik ez baitu ebanjelio berria aintzat hartzen.

269

Ingalaterrako owenistek chartisten aurka erreazionatzen dute, Frantziako fourieristek erreformisten aurka.

#### *IV. Komunisten jarrera oposizioko gainerako alderdiekiko*

II. kapituluaren esandakoaren arabera ulertzekoa da komunistek duten harremana jadanik eraturiko gainerako langile-alderdiekiko, chartista ingelesekiko eta Ipar Amerikako nekazaritza-eraberritzaileekiko.

<sup>8</sup> *Phalanstères* kolonia sozialistak ziren Charles Fourierren planean; *Icaria* zen Cabetek bere Utopiari emandako izena eta, geroago, bere kolonia komunista amerikarrari. [Engelsen oharra 1888ko edizio ingelesari.] «Home Colonies» ziren Owenek eredu komunistako gizarteak deitu zituenak. *Phalansteres* izan zen Fourierrek planifikaturiko jauregi publikoen izena. *Icaria* izan zen fantasiako lurralde utopikoari emandako izena, zeinen instituzio komunistak erretratatu baitzituen Cabetek. [Engelsen oharra 1890eko edizio alemaniarrari.]

Komunistek langile-klasearen xede eta interes bitartegabeak lortzeko borrokatzen dute, baina presenteko mugimenduan mugimenduaren etorkizuna ere ordeztzen dute. Frantziar alderdi sozial-demokratikoarekin <sup>9</sup> aliatzen dira burgesia kontserbadore eta erradikalaren aurka, baina horrenbestez uko egin gabe tradizio iraultzailetik esapide eta lilurekiko kritikoki jarduteko eskubideari.

Suitzan erradikalak bermatzen dituzte, alderdi hori elementu kontraesankorrez eraturik dagoela ahaztu gabe: demokrata sozialistaz, frantsesen erara, eta burges erradikalez.

Poloniarren artean komunistek nekazaritza-iraultza sostengatzen duen alderdia bermatzen dute askapen nazionalerako baldintza gisa, 1846an Krakoviako matxinada eragin zuen alderdia.

Alemanian alderdi komunista burgesiaren alboan borrokatuko da, burgesiak iraultzaileki diharduen bitartean, burgesiarekin batera monarkia absolutuaren, jabetza feudal handiaren eta burgesia txikiaren aurka.

Baina une bakar batez ere ez diote utzi langileen artean lan egiteari, haiengan ahalik eta argitasun handienaz burgesia eta proletalgora bereizten dituen kontrajartze etsaikorraren kontzientzia sortu arte, langile alemaniarrek prestaturik egon daitezen burgesiaren aurka jartzeko, beste hainbeste armarekin, Alemanian klase erreakzionarioak horrela amildu ondoren, burgesiak eragin behar dituen baldintza sozial eta politikorekin batera, burgesiaren beraren aurkako borroka has dadin. Alemaniara zuzentzen dute komunistek nagusiki beren arreta, zeren Alemania iraultza burges baten bezperatan baitago, eta inarrosaldi iraultzailea europar zibilizazioaren baldintza aurreratuenetan garatuko da eta XVII. mendean Ingalaterrakoa eta XVIII. mendean Frantziakoa baino askoz proletalgora garatuagoarekin, horregatik guztiatik alemaniar iraultza burgesa iraultza proletario baten prelude bitartegabea izango da.

270

Hitz batean: komunistek alderdi guztietan bermatzen dute dagoen egoera politiko eta sozialaren aurkako mugimendu iraultzaile oro.

Mugimendu horietan guztietan jabetza-auzia jartzen da agerian, zeinahi delarik ere hartu duen forma gutxi-asko garatua, mugimenduaren oinarritzat. Azkenik, komunistek lanean dihardute alderdi demokratiko guztien batasunaren eta ulerkuntzaren alde herrialde guztietan.

Komunistek uko egiten diote beren ideia eta asmoak ezkutatzeari. Ageriki aitortzen dute beren xedeak orain arteko ordena soziala indarrez amilduz bakarrik lor daitekeela. Ikara bitez klase menderatzaileak iraultza komunistaren aurrean. Proletarioek beren kateak baizik ez dituzte galtzeko. Mundu bat dute irabazteko.

**HERRIALDE GUZTIETAKO PROLETARIOAK, ELKAR ZAITEZTE!**

---

<sup>9</sup> Orduan Parlamentuan LedruRollinek ordezkaturiko alderdia, literaturan Louis Blancen, eguneroko prentsan *Reformek*. Sozial-Demokraziaren izenak, haren asmatzaile hauekin alderdi Demokratikoaren edo Errepublikaren sail bat adierazten zuen, gutxi-asko sozialismoz kutsatua. [Engelsen oharra 1888ko edizio ingelesari. ] Frantziako alderdia, garai hartan bere buruari Sozialista-Demokratiko deitzen ziona Ledru-Rollinek ordezkatzeko zuen bizitza politikoa eta Louis Blancen literaturan; horrela ezin nenurtuzko eran desberdintzen zen gaur eguneko Sozial-Demokrazia alemaniarretik. [Engelsen oharra 1890eko edizio alemaniarretik. ]

## LOUIS BONAPARTEREN BRUMARIOKO HEMEZORTZIA (LABURBILDUMAK)

Kal Marx

*1848. urtea jarduera iraultzailezko uhin baten lekuko zen Euro pan zehar; Marxek eta Engelsek Alemaniara itzuliz erantzun zuten bertako ezinegonean esku-hartzeko. Baina giro iraultzaileak bizitza laburra izan zuen, hala ere, eta erreakzioa laster baretu zen. Frantzia, Borboien Errestaurazioa eraitsi 1848an eta bigarren Errepublika ezarri zuten; Louis Napoleon Bonaparte, Napoleon I.aren iloba Presidente hautatu zuten. Indar kontserbadoreen laguntzarekin bere boterea senditu zuelarik, Louis Bonapartek 1851ko abenduaren 2an estatu-kolpe bat eman, botereaz jabetu eta Napoleon III. Bigarren Inperioko Enperadore gisa ezarri zuen bere burua. Garai hartan Marx Londresen bizi zen, eta artikulu sail bat idatzi zuen 1851ko abenduaren eta 1852ko martxoaren artean, Louis Bonaparte agintera nola igo zen aztertuz. Die Revolution alemanierazko egunkarian argitaratu ziren New Yorken 1852an.*

*Izenburuak aipatzen du 1799ko azaroaren 9an, Lehen Errepublikan sortutako egutegiaren arabera Brumarioko hemezortzian, Louis Bonapartek boterea hartu eta Lehen Inperioa sortzea. Baina Marxek saiakeraren hasieran sarkastikoki azpimarratzen duenez, Hegelen ohar bat zabalduz, jazoera historikoak bi aldiz gertatzen direla, lehen aldian «tragedia bezala, eta bigarrenean fartsa bezala» gertatzen dira. Bigarren Napoleonek frogatuko zuen lehenaren itzal bat besterik ez zela. Marxen artikuluko asmoa zen 1851ko kolpean gailurtu ziren jazoeren aztarnak jarraitzea, haiek batez ere klase-politikaren testuinguruan kokatuz. Iruzingile gehienak bat datoz esatean saiakera hori haren ahalegin arrakastatsuen delat, bere ikuspegi teorikoa ezartzeari zegokionez, garapen politiko errealean joaira aztertzeko. Ikasi beharreko da, hasieran iragartzen duenez, «Gizakiek beren historia propioa egiten dutela, baina ez dutela egiten atsegin dutenez; ez dute egiten berek hautaturiko inguruabarretan, baizik bitartegabeki topaturiko inguruabarren, iraganetik eman eta helarazien pean».*

*1850ean idatziriko obra goiztiar batean, Frantziako klaseborrokak obran, Marxek aztertuak zituen 1848ko iraultza eta haren ondorioak. Material hura Brumarioko Hemezortzian laburbildu ondoren, ondorengo jazoeren berri ematen jarraitzen du. Obraren azken sailak puntu garrantzitsuak dakartza estatuaren garapenaz eta gizarte zibilarekiko haren harremanaz; ohar horiek izan dira marxisten ahaleginen abiagune hogeigarren mendearen faxismoa analizatzeko.*

Baina monarkia absolutuaren azpian, lehen iraultzan zehar, Napoleonen pean, burokrazia burgesiaren klase-agintaritzatza prestatzeko bitartekoa besterik ez zen. Errestauraziopean, Louis Philipperen pean, errepublika parlamentariopean, klase menderatzailearen instrumentua zen, nahiz eta asko saiatu beretzat boterea eskuratzen.

Bigarren Bonaparteren azpian bakarrik ematen du estatuak bere burua erabat independente bihurtu zuela...

Eta, hala ere, estatuaren boterea ez dago airean esekita. Bonapartek klase bat ordezkutzen du, eta gizarte frantseseko klase ugariena, jabetza-txikidun nekazaritzarena.

*Hala ere, Bonapartek harreman baldar bat mantendu behar du burgesiarekiko. Eta egoera kontraesankor horretan, armadak ordenaren instrumentu gisa garrantzi handia hartzen du, mundu garaikidean batere ezohikoa ez den egoera izaki.*

\*\*\*

## I

Hegelek dio nonbait historia unibertsaleko gertakari eta pertsonala handi guztiak bi aldiz jazotzen direla nolabait esateko. Baina ahaztu egin zitzaion gehitzea: batean tragedia gisa eta bestean fartsa gisa. Caussidiere Dantonen ordeztan, Louis Blanc Robespierrearen ordeztan, 1848tik 1851rako Montagne 1793tik 1795erako Montagneren ordeztan, iloba osabaren ordeztan. Eta karikatura bera Brumarioko Hemezortziaren bigarren argitarapena laguntzen duten inguruabarretan!

273

Gizakiek beren historia propioa egiten dute, baina ez dute egiten gogoak ematen dien bezala, berek hautaturiko inguruabarren pean, baizik eta bitartegabe aurkituriko, existitzen diren eta iraganetik hartutako inguruabarren pean. Hildako belaunaldi guztien tradizioak lokamuts batek bezala zanpatzen du bizien burmuina. Eta lanpetuak diruditenean beren buruak eta gauzak eraldatzen, ordu arte izan ez den zerbait sortzen, krisi iraultzaileko aldi horietan, hain zuzen ere, hortxe arautzen dituzte beldurti beren erbestean iraganeko espirituak, haien izenak maileguan harzten dituzte, haien gerra-kontsignak, haien janzkera, zahartzaro beneragarrizko eta mailegaturiko hizkuntza horrekin, historia unibertsaleko eszena berria antzetzeko. Horrela, Lutero Paulo apostolua bezala desgisatu zen, 1789-1814 errepublika erromatar eta inperio erromatar bezala jantzi zen txandaka, eta 1848ko iraultzak ez zuen jakin hemen 1789 eta han 1793tik 1795erako tradizio iraultzailea parodiatzea baino gauza hoberik egiten. Hizkuntza berri bat ikasi duen hasiberria bezala da: bere ama-hizkuntzara itzuliko du, baina hizkuntza berriaren espiritua soilik norbereganatzen da eta hartan libreki produzitzeko gai izaten da haren barruan zaharra gogoratu gabe jaiotzatiko hizkuntza ahazten duenean.

Historia unibertsaleko hildakoen arautzeak kontsideratzen baditugu, berehalaxe agertzen da alde nabarmen bat. Camille Desmoulins, Danton, Robespierre, St-Just, Napoleon, heroiak, antzinako iraultza frantseseko alderdia eta masak bezala, bete egin zuten, erromatarren jantzipean eta erromatar esapideekin, beren garaiko egitekoa: kateetatik askatu eta gizarte burges modernoaren ezartzea. Batzuek txikimila egin zituzten lurzoru feudalak eta hartan sortutako buru feudalak moztu egin zituzten. Besteak Frantziaren barruan sortu zituen baldintzak, zeinen azpian konkurrentzia askea garatzea ahalgarri baitzen, lur-jabetza partzelatua ustiatu, nazioaren produkzio-indar industrial, liberatuak aplikatu; eta muga frantsesez haraindi taxuera feudalak nonahi ekortu zituen, hori beharrezkoa zen mailan, Frantziako gizarte burgesa europar kontinentean giro egokiz, garaietara moldatuz inguratuzeko.

274

Formazio sozial berria ezarri ondoren, desagertu egin ziren uholdeurreko kolosoak eta haiekin erromantizismo berpiztua: Brutoak, Grakoak, Publikolak, tribunak, senatoreak eta Zesar bera ere bai. Gizarte burgesa bere errealitate gartxuak bere interprete eta bozeramaileak sortuak zituen Sayengan, Cousinengan, Royer-Collardengan, Benjamin Constantengan eta Guizotengan; haren egiazko buruzagiak merkataritzabulegoetan zeuden, eta Louis XVIII.aren urdaiburua zen haren buru politikoa. Aberastasunaren produkzioak eta konkurrentziaren borroka bakezkoak erabat hurrupaturik, jadanik ez zen gogoratzen erromatarren garaiko mamuek babestu zutela bere sehaska. Baina gizarte burgesa batere heroikoa ez bada ere, hura mundura ekartzeko beharrezkoak izan ziren, hala ere, heroismoa, buru-ukapena, terrorea, gerra zibila eta herrien batailak. Eta haren gladiatoriek erromatar errepublikako tradizio klasiko zorrotzetan ideialak eta forma artistikoak, beren borroken eduki burgeski mugatua beren buruari estaltzeko lilurak eta beren grinari tragedia historiko handiaren parean eusteko. Horrela, garapenaren beste fase batean, mende bat lehenago, Cromwell eta populu ingelesa Itun Zaharrera joan ziren beren iraultza burgeserako hizkuntza, grinak eta lilura bilatzera. Jomuga erreala lorturik, gizarte ingelesaren eraldatze burgesa eginik, Locke desplazatu zuen Habakkuk.

Iraultza haietan hildakoen berpizteak balio zuen, beraz, borroka berriak loriatzeko eta ez antzinakoak parodiatzeko, emandako betebeharra fantasian bapikatzeke eta ez atzera egiteko errealitatean hura betetzetik, berriro iraultzaren espiritua aurkitzeko eta ez haren mamua alde batetik bestera ibilarazteko.

1848-1851an, antzinako iraultzaren mamuak alde batetik bestera ibiltze baizik ez zuen egin, Marrastengandik, *le républicain en gants jaunes*enganaik [eskularru horiekiko errepublikarra], zeina Baily zaharrez desgisatu baitzen, Napoleonen herio-maskaratxo burdinazkoaren azpian bere zertzelada arrunt eta nazkagarriak ezkutatu zituen abenturazalearenganaino. Iraultzaren bidez bere buruari bulkada azeleratu bat eman ziola uste zuen herri oso bat bat-batean iraungitako garai batera atzera eramana aurkitzen da, eta berrerorketaz engainurik izan ez dadin, data zaharrak agerrarazten dituzte, egutegi zaharra, izen zaharrak, ediktu zaharrak (aspaldidanik antikuarioren aditutasunari emanak), zaindari zaharrak, aspaldidanik usteldurik zeudela ziruditenak. Nazioak Bedlamen zoro ingeles haren antza du, zeinek uste baitzuen faraoi zaharren garaietan bizi zela, eta egunero deitoratzen zituen Etiopiako meatzetan urre-hondeatzaile gisa egin beharreko lan gogorak, lurpeko kartzela hartan hormaraturik, argi doiko kriseilu bat buruan tinkaturik zuela, atzean esklabozaina bere zartailu luzearekin eta irteeretan mertzenario barbaroen samalda bat, ez zirenak gai bortxatuak meatzetan ulertzeko, ezta elkar ulertzeko ere ez baitziren hizkuntza komunez mintzo. «Eta hau guztia —hasperen egiten zuen ingeles zoroak— niri ezarri didate, antzinako faraoientzat urrea ateratzeko!». «Bonaparte familiaren zorrak ordaintzeko!», hasperen egiten du nazio frantsesak. Ingelesak, arrazoimenaren jabe zen bitartean, ezin zuen baztertu urrea lortzearen ideia finkoa. Frantsesek, iraultzan zeuden bitartean, ezin zuten oroitzapen napoléonikoa baztertu, abenduaren 10eko hauteskundeek erakutsi zuten. Iraultzaren arriskuen aurrean Egiptoko eltzeen oroitzapenak erakarriak sentitu ziren, eta erantzuna 1851ko abenduaren 2an izan zen. Napoleon zaharraren karikatura ez

ezik, Napoleon zaharra bera lortu zuten karikaturan, XIX. mendearen erdi aldera derrigorrean agertu behar zuenez.

275

XIX. mendeko iraultza sozialak ezin du bere poesia iraganetik atera, etorkizunetik bakarrik. Ezin du bere atza hasi iraganarekiko superstizio oro kendu aurretik. Aurreko iraultzek historia unibertsaleko oroitzapenetara jo beharra zeukaten bere eduki propioaz sorgortzeko. XIX. mendeko iraultzak utzi egin behar du hildakoek beren hildakoak lurpera ditzaten, bere edukiaren kontzientziaz jabetzeko. Han esaldiak edukia gainezkatzen zuen; hemen, edukiak esaldia gainezkatzen du.

Otsaileko iraultzak ustekabean *harrapatu* zuen, harritu egin zuen gizarte zaharra, eta herriak aldarrikatu zuen ustekabeko *esku-kolpe* hori historia unibertsaleko balentzia bat bezala, zeinarekin garai berri bat irekitzen baitzen. Abenduaren 2an, otsaileko iraultzari iruzur egiten dio jokalaria tranpati baten zilipurdiak, eta eraitsia dirudiena ez da jadanik monarkia, baizik mendeetako borroken bidez erauziak izan zitzaizkion lagapen liberalak. Gizarte bera izan gabe eduki berri baten konkistatzailea, badirudi besterik gabe estatua bere formarik zaharrenera itzultzen dela, sablea eta sotanaren menderakuntza lotsagarriki sinplera. Horrela erantzuten dio 1848ko otsaileko *coup de mainari* 1851ko abenduko *coup de teteak*. Etorritako lekutik joan zen. 1848tik 1851ra arteko urteetan, gizarte frantsesak asimilatu egin zuen, eta metodo laburtu baten bidez egin zuen, iraultzailea izateagatik, irakatsiak eta esperientziak, zeinak garapen normal batean, irakasgaiz irakasgai, nolabait esteko, otsaileko iraultzaren aurretik etorri beharko zuketenak, hori gainaldeko dardarizoa baino zerbaite gehiago izan zedin. Gaur, badirudi gizarteak atzera egin duela bere abiaguneaz haratago; egiaz gertatzen dena da abiagune iraultzailea, egoera, harremanak, baldintzak sortzetik hasi beharra dagoela, zeinak gabe ez baitu hartzen izaera serioa iraultza modernoak.

276

Iraultza burgesek, Hemezortzigarren mendekoa bezalakoak, geraezinki egiten dute aurrera arrakastaz arrakasta, haien efektu dramatikoak elkargainkatu egiten dira, gizakiek eta gauzakiak artifiziozko suz argituak dirudite, estasia da eguneroko espiritua; baina iraultza horiek bizitza laburrekoak dira, berehala iristen dira beren kinkara eta depresioaldi luzea jabetzen da gizarteaz, bere aldi oldartsu eta erasokorraren emaitzak baretasunez asimilatzen ikasi baino lehen. Aitzitik, iraultza proletarioek, XIX. mendekoa bezalakoak, etengabe beren burua kritikatzeko, etengabe eteten dira beren joaira propioan, amaitua zirudienara itzultzen dira, berriro hasteko, zehaztasun gupidagabez irri egiten diete beren lehen saioetako desegokitasunei, ahuleziei eta ziztrinkeriei, badirudi aurkaria soilik eraisten dutela horrek lurretik indar berriak atera ditzan eta haien aurrean erraldoiago zutitu dadin, etengabe izularriturik egiten dute atzera beren xedeen eskergetasun lausoaren aurrean, harik eta egoera bat sortzen den arte, atzera egiten uzten ez duena eta inguruabarrek berek oihu egiten dute:

Hic Rhodus, hic salta!

Hemen dago arrosa, hemen egin dantza!

Gainerakoan, behatzaile on samar batek, nahiz eta pausoz pauso ez jarraitu gertakariak Frantzian, aurrentipen bat izan behar zuen iraultza inoiz entzun gabeko lotsaizun baten aurrean zegoela. Aski zen entzutea jaun demokratek elkar agurtzeko zerabiltzaten zaunka harranditsuak 1852ko maiatzaren bigarren igandetik espero

zituzten efektu mirarizkoengatik. 1852ko maiatzaren bigarren igandea haien buruetan ideia finko bihurtu zen, dogma, kiliasten buruetan Kristok berragertu behar zuen eta milurteko-erreinua hasi behar zuen eguna. Ahulezia, beti bezala, mirariaren federa joan zen aterpe bila, sinesten zuen etsaia garaituko zuela, bere fantasian magigoki bazterten bazuen, eta presentearen ulerkuntza oro galdu zuen etorkizunaren loriatze pasiboan, zeina zain baitzeukaten eta zeinak *in petto* baitzituen egitateak, baina artean agertzea egokitzen jo gabe. Heroi horiek ahaleginak egiten zituzten beren ez-gaitasun frogatua ezeztatzeko, elkarrekiko errukia bata besteari emanez eta samalda batean bilduz, beren pardeltxo lotua zuten, beren ereinotz-koroak alde aurretik jaso zituzten eta prestaturik zeuden ganbio-letren merkatuan *in partibus* errepublikak deskontatzeko, zeinetarako bere aldarre exigentzia gutxikoaren sekretuan zuhurki antolatua baitzeukan gobemuko pertsonala. Abenduaren 2an erori zen haien gainera zero oskarbiko tximista bezala, eta herriak, zeinek aldarre txar txepeleko garaietan atsegin baitzuten oihulari garrasilarienek beraien barne-beldurra itoaztea, agian konbentziturik egongo dira antzaren karrankek Kapitolioa salba zezaketen garaiak jadanik pasatuak direla.

277

Konstituzioa, Biltzar Nazionala, alderdi dinastikoak, errepublikar urdinak eta gorriak, Afrikako heroiak, tribunako trumoiak, eguneroko prentsaren oinartzargiak, literatura osoa, izen politikoak eta *renomé* intelektualak, lege zibila eta zuzenbide penala, *liberté*, *égalité* eta *fraternité* eta 1852ko maiatzeko bigarren igandea, dena desagertu da fantasmagoria bat bezala, etsaiek berek ere aztitzen hartzen ez duten gizon baten araopean. Sufragio unibertsalak une batez bakarrik biziraun zuela eman zuen bere hilburukoa bere eskuz eta letraz egiteko mundu guztiaren aurrean eta herriaren beraren izenean aitortu ahal izateko: «Jaiotzen den orok eraitzia izatea merezi, hutsa balio duenez gero».

Ez da aski esatea, frantsesek egiten dutenez, haien nazioa oharkabean harrapatu zutela. Ez nazioari eta ez emakumeari ez zaie barkatzen lehen abenturazaleak haietat bortxaz abusatu ahal izan duen ardura-gabeziako ordua. Azalpen horiekin ez da enigma argitzen; beste era batean aurkeztea baizik ez da egiten. Azaldu gabe geratuko litzateke nola industriako hiru zaldunek oharkabean harrapatu eta gatibu bihurtu zuten, erresistentziarik gabe, 36 milioi pertsonako nazio bat.

Birkapitula ditzagun, zertzelada larritan, iraultza frantsesak 1848ko otsailaren 24tik 1851ko abenduko hila arte ibilitako faseak.

Hiru aldi nagusi nahastezin daude: otsaileko aldia; 1848ko maiatzaren 4tik 1849ko maiatzaren 28a arte, errepublika eratze-aldia edo Biltzar Nazional Eratzailearena; 1849tik maiatzaren 28tik 1851ko abenduaren 2a artekoa, errepublika konstituzionalaren aldia edo Biltzar Nazional Legegilearena.

278

Lehen aldia, otsailaren 24tik, Louis-Philippesen erorikotik, 1848ko maiatzaren 4a artekoa, Biltzar Eratzailea bildu zen datakoa, otsaileko aldia zehazki esana, iraultzaren hitzaurretzat jo daiteke. Haren izaera ofizialki agertzen da berak inprobisaturiko Gobernuak bere burua probisional aitortu izatean, eta, Gobernu bezala, aldi honek iradoki, saiatu eta aldarrikatu zuen guztia, zerbait guztiz probisonala bezala aurkezten zen. Ez ezer eta ez inor ez zen ausartzen existitzeko eta modu erreal batean obratzeko eskubide beretzat erreklamatzera. Iraultza prestatu edo determinatu zuten elementu guztiek, oposizio dinastikoak, burgesia



errepublikarrak, burgesia txiki demokratiko-enepublikarrak eta langile sozialdemokratek behin-behineko beren postua otsaileko Gobernuan aurkitu zuten.

Ezin zitekeen bestetara izan. Otsaileko egunak jatorrian hauteskunde-eraberrikuntza bezala proposatzen ziren, zeinak zabaldu behar baitzuen politikari pribilegiatuen zirkulua klase jabetzadunaren beraren barruan eta aristokrazia finantzarioaren menderakuntza eskusiboa eraitsi. Baina gatazka errealak leher egin zuenean, populua banikadetara igo zen, Guardia Nazionala janera pasiboan egon zen, armadak ez zuen erresistentzia seriorik kontrajarri eta monarkiak ihes egin zuen, errepublika berez ulertzen zela ematen zuen. Alderdi bakoitzak bere erara interpretatzen zuen. Proletalgoak armak eskuetan zituela erauzia, horrek bere zigilua ezarri eta *errepublika sozial* aldarrikatu zuen. Iraultza modernoaren eduki orokorrean adierazten zenez, zeina aurkitzen baitzen kontraesanik apartekoenean, une hartan praktikan jar zitekeen guztiarekiko, eskura zegoen materialarekiko, masak lortutako garapengraduarekiko eta emandako inguruabar eta harremanen azpian. Bestalde, otsaileko iraultzari lagundu zioten gainerako elementu guztien uziak Gobernuan lortu zuten lehoi-partean aitortuak izan ziren. Horregatik, ezein alditan ez dugu aurkitzen esaldi hanpatu eta segurtasun-eza eta babes-gabezia efektibo nahaste pintarratuagorik berrikuntza-uzi suharragorik eta errutina zaharraren aginpide irmoagorik, gizarte oroaren itxurazko harmonia handiagorik eta haren elementuen artean desadostasun sakonagorik. Parisko proletalgoa aurrean ireki zitzaion ikuspegi handiko ikuspenean gozatzen ari zen eta arazo sozialei buruzko eztabaidetan seriotasun osoz murgiltzen zen bitartean, gizarteko indar zaharrak taldekatu egin ziren, bildu, beren baitaratu eta ustekabeko laguntza aurkitu nazioko masan, nekazariengan eta burges txikiengan, zeinak denak batera amildu baitziren agertoki politikora, uztailleko monarkiaren langak erori ostean.

279

Bigarren aldia, 1848ko maiatzaren 4tik 1849ko maiatzaren azkenetara doana, konstituzioaren, errepublika burgesaren oinanztapenaren aldia da. Otsaileko egunen ondoren berehala ez zuten errepublikarrek bakarrik ustekabean hanapatu oposizio dinastikoa, eta haiek sozialistek, baizik Parisek harrapatu zuen Frantzia osoa. Biltzar Nazionalak, 1848ko maiatzaren 4an bildu zenak, hauteskunde nazionaletatik irtenak, nazioa ordezkatzeko zuen. Protesta bizi bat zen otsaileko egunetako uzien aurka eta iraultzaren emaitzak burgesen neurrira murriztuko zituen. Alferrik saiatu zen Parisko proletalgoa, zeinak berehalaxe ulertu baitzuen Biltzar Nazional horren izaera, maiatzaren 15ean, hura bildu eta handik egun gutxitara, bere existentzia indarrez nabarmentzen, disolbatzen, nazioaren espiritu erreakzionatzailea mehatxatzen zuen, haren atal desberdinetan berriro atalkatzen. Jakina denez, maiatzaren 15eko emaitza bakarra eszena publikotik urruntzea izan zen aztertzen ari garen ziklo osoan Blanqui eta haren burkideak, hau da, alderdi proletarioaren egiazko buruzagiak.

Louis-Philippesen *monarkia burgesaren* ondotik errepublika burgesa bakarrik etor daiteke; hau da, erregearen izenean, burgesiaren atal mugatu batek menderatu bazuen, orain burgesiaren osotasunak menderatuko duela herriaren izenean. Parisko proletalgoaren errebindikazioak txatxukeria utopikoak dira, bukatu behar direnak. Parisko proletalgoak *ekaineko matxinadarekin* erantzun zion Biltzar Nazional Eratzailearen deklarazio horri, europar gerra zibilen historian gertaera erraldoiena izan denaz. Haren ondoan zeuden aristokrazia finantzarioa, burgesia industrialia,

klase ertaina, burges txikiak, armada, Guardia Higikor giza antolaturiko lumpen-proletalgoa, intelektualak, apaizak eta landako biztanleria. Parisko proletalgoaren ondoan bera besterik ez zegoen. 3.000 matxinatu baino gehiago lepo eginak izan ziren garaipenaren ondoren, eta 15.000, epaiketarik gabe deportatuak. Haren ponotarekin, proletalgoa eszena iraultzailearen atzealdera pasatu zen. Itxuraz mugimenduak indar berriak hartzen dituen bezain laster, behin eta berriz lehen planora pasatzen ahalegintzen da, baina indarren gastu gero eta ahulago batekin eta emaitza gero eta deusezagoekin. Haren gaineko geruza sozialetako batek suhanaldi iraultzaile bat sentitzen duen bezain laster, proletalgoa hari lotzen zaio, eta horrela alderdi bakoitzak elkanen ondotik nozitzen dituzten porrotak partekatuz doaz horrela.

280

Baina behin eta berriz hartutako kolpe horiek gero eta gehiago moteltzen dira gizarteko gainalde osoan barrena zenbat eta gehiago banatu. Biltzar Nazionaleko eta prentsako haren buruzagi garrantzitsuenak elkarren ondotik eroriz doaz, epaitegien biktima, eta haren buruzagitza gero eta figura zalantzakorrageok hartzen dute. Parte batean *esperimentu doktrinarioei ekiten diete, truke-banku eta langileelkarteei, hau da, mundu zaharra eraldatzeari uko egiten dion mugi mendu bati, mundu horrek propioak dituen baliabide handi guztien laguntzarekin, eta ahalegina egiten du, aitzitik, gizarteari bizkar ema nez salbamena lortzen, bide pribatutik, bere existentzia-baldintza mugatuen barruan eta, beraz, derrigor porrot egiten du*. Badirudi ezin duela bere baitan berriro aurkitu handitasun iraultzailea, ezta indar berririk atera ere sortu dituen lokarri berrietatik, ekainean borrokatu dituen klase guztiak luzetara haren alboan eraitsirik ez dauden bitartean. Baina gutxienez, helmen historiko-unibertsaleko borroka handi baten ohoreekin erortzen da; ez Frantziak bakarrik, Europa osoak egiten du dardar ekaineko lurrikararen aurrean, eta klase garaienen ondoz ondoko porrotak hain kostu gutxirekin lortzen dira, non alderdi irabazlearen bapikatze lotsagabeak bakarrik pasaraz ditzakeen jazoeratzat, eta hainbat eta laidagarriagoak dira, zenbat eta ununago geratzen den proletalgotik behean geratzen den alderdia. Ekaineko matxinatuen porrotak prestatu, lautu egin zuen, noski, errepublika burgesa oinarritu eta eraiki zitekeen lursaila; baina aldi berean, agerian jarri zuen European «errepublika edo monarkia»z bestelako auzi batzuk zeudela jokoan. Agerian jarria zuen hemen *errepublika burgesak* klase baten beste batekiko despotismo mugagabea esan nahi zuela. Frogatua zuen zibilizazio zaharreko herrialdeetan, klaseerakuntza garatua, baldintza moderno eta produktioarekin eta kontzientzia intelektual batekin, zeinetan mendeetako lanak deuseztuak baitzituen, *errepublikak*, oro har, ez du esan nahi *gizarte burgesaren subertsioaren forma politikoa*, baizik eta haren *bizi-forma kontserba dorea*, esaterako, Amerikako Estatu Batuetan, zeinean jadanik klaseak existitzen badira ere. Horiek ez baitira oraindik finkatu, baizik eta etengabe aldatzen baitira eta elkarri lagatzen baitizkiote beren osagaiak, etengabeko mugimenduan; zeinean produkzio-bitarteko modernoek, gainbiztanleria kroniko batekin bat etorri ordez, ordeztu egiten baitute areago buru eta besoen urritasun erlatiboa, eta zeinean, azkenik, produkzio materialaren mugimendu sukartsuki gazteak, mundu berri bat bereganatu behar duenak, ez baitu denborarik ez aukerarik mamuen mundu zaharra kanporatzeko.

281

Ekaineko egunetan, klase eta alderdi guztiak batu egin ziren *Ordenaren Alderdi* bakarrean klase proletarioaren aurka, *anarkia*, sozialismoa, komunismoaren *alderdia* bailitzan. «Salbatu» egin zuten gizartea «*gizartearen etsaien*» ganaik. Beren armadari gizarte zaharraren kontsignak eman zizkioten lelotzat: «Jabetza, familia, erlijioa eta ordena», eta gurutzada kontrairaultzaileari oihu egina zioten: «Zeinu honen pean garaituko duzu!». Une horretatik, alderdi ugarietako bat, zeina talderatu baitzen zeinu haren pean ekaineko matxinatuen aurka, borroka-zelai iraultzailean bere klase-interes propian kokatzen saiatzen da, «Jabetza, familia, erlijioa eta ordena!» leloaren oihupean erortzen da. Gizartea salbatu egiten da haren menderatzaileen zirkulua muniztuz doan heinean, eta interes eskusiboago bat ezartzen zaio zabalagoari. Liberalismo arruntenaren, errepublikanismo formalenaren, demokrazia hutsalenaren erreibindikazio oro, baita eraberritze finantzario burges elementalenarena berarena ere, berehala zigortzen da «gizartearen aurkako atentatuz» eta «sozialismo»tzat estigmatizatuz, harik eta, azkenean, «erlijioa eta ordena»ren apaiz nagusiak beraiek ere ostikoka haien aulki pitikoetatik amilduak, gauaren eta lainoaren erdian ohetik atereak, kotxe zelularretan paketatuak, kartzelan sartuak edo erbestera bidaliak diren arte; haren tenplutik ez da geratzen harririk harriaren gainean, haien ahoak zigilatuak, haiek lumak hautsiak, haien legea unatua izan da erlijioaren, jabetzaren, familiaren eta ordenaren izenean. Ordenaren burges fanatikoak haien balkoietan tiroka hartzen ditu soldaduteria hordituak, etxearen santutasuna profanatu egiten da eta haien etxeak denborapasan bonbardatzen dituzte, —eta jabetza, familia, erlijioaren eta ordenaren izenean—. Gizarte burgesaren erreusak azkenean *ordena renfalanxe sakratua* eratzen du, eta Kraptilinski heroia Tuillerietan instalatzen da «*gizartearen salbatzaile*» gisa.

## //

Errepublika soziala fase gisa, profetia gisa agertu zen otsaileko iraultzaren atalasean. 1848ko ekaineko egunetan *Parisko proletalgoaren* odoletan itoarazi zuten, baina dramaren gainerako agerraldietan mamu gisa agertzen da. *Errepublika demokratikoa* iragartzen da. 1849ko ekainaren 13an ilauntzen da, bere burges txikien ihesarekin, baina bere ihesian bere atzetik erreklamo bi aldiz hananditsuak jaurtitzen ditu. Errepublika parlamentarioa burgesiarekin agertoki osoaz jabetzen da, bere existentziaren zabalera betean biziko da, baina 1851ko abenduaren 2an errealista koalizioratuen lanidura-oihuaren pean hilobiratzen du: «Bizi bedi Errepublika!»

Burgesia frantsesak, proletalgo langilearen menderakuntzaren aurka matxinatzen zenak, lumpen-proletalgoa eraman zuen agintera, abenduaren 10eko Elkartearen burua aurrean zuela. Burgesiak etengabeko beldurpean zeukan Frantzia anarkia gorriaren etorkizuneko izuen aurrean; Bonapartek deskontatu egin zuen etorkizun hori abenduaren 4an ordenaren armada, edaribiziak adoretuak dispararazi zuenean leihoetan zeuden Boulevard Montmartre eta Boulevard des Italienseko burges prestuen aurka. Burgesiak sablearen apoteosia egin zuen, eta sableak hura menderatzen du. Prentsa iraultzailea deusezten du, eta bere prentsa propioa deuseztua izan da. Herri-bilerak poliziaren zainketapean ezarri zituen; haren saloiak poliziaren zainketapean daude. Guardia Nazional demokratikoa disolbatu zuen eta

bere Guardia nazional demokratikoa eta bere Guardia Nazional propioa disolbatua izan da. Setio-egoera dekretatu zuen, eta setio-egoera beraren aurka dekretatua izan da. Epaimahaiak komisiio militarrez ordeztu zituen, eta komisiio militarrek epaimahaien lekua hartua daukate. Apaizen mendean jarri zuen herriaren irakaskuntza, eta apaizek hura beren mendean jartzen dute. Epaietarik gabeko atxilotuak deportatu zituen, eta hura epaietarik gabe deportatua izan da. Gizartearen mugimendu oro estatuaren botereaz itoarazi zuen, eta estatuaren botereak haren gizarteko mugimendu guztiak itoazten ditu. Bere diru-poltsarekiko suharrak eramanik bere politikari eta literato propioen aurka matxinatu zen; haren politikari eta literatoak aurretik kenduak izan ziren, baina haren diru-poltsa zakuratua izan da haien ahoa bozatu eta haien luma hautsi ondoren. Burgesiak nekerik gabe oihu egiten zion iraultzari Artsenio Santuak kristauei bezala: *Fuge, tace, quiesce!* Ihes egin, isildu, atsedena har! Eta orain Bonapartek oihu egiten dio burgesiari: *Fuge, tace, quiesce!* Ihes egin, isildu, atsedena har!

283

Burgesia frantsesak aspaldidanik ebatzia zuen Napoleonen dilema: *Dans cinquante ans, l'Europe sera républicaine ou cosaque...* Harentzako soluzioa *Republique cosaquen* aurkitua zuen. Ezein Zirzek ez du desitxuratu bere xarma gaizkilearekin errepublika burgesaren arte-obra, munstro bihurtuz. Errepublika honek errespetaganitasun-itxura bakarrik galdu zuen. Gaur eguneko Frantzia osorik zegoen errepublika parlamentarioaren barruan. Baioneta baten hanamazka besterik ez zen behar maskuriak leher egin eta munstroa agerian geratzeko.

Zergatik ez zen matxinatu Parisko proletalgora abenduaren 2aren ondoren?

Burgesiaren erorikoa dekretatua baizik zegoen; dekretua artean egikaritu gabe zegoen. Proletalgoaren edozein altxamendu seriok indar berriak emango zizkiokeen hari, adiskidetu egingo zukeen armadarekin eta uztaileko bigarren porrot bat segurtatuko ziekeen langileei.

Abenduaren 4an, burgesek eta dendariak borrokara ezproinkatu zuten proletalgora. Egun horretako gauean Guardia Nazionalaren zenbait legio armatu eta uniformatu borroka-lekuan agertuko zirela agindu zuten. Izan ere, burgesek eta dendariak aurkitua zuten, abenduaren 2ko dekretuetako batean, Bonapartek abolitu egiten zuela isilpeko botoa eta erregistro ofizialetan beren izenaren atzean «bai» edo «ez» ezartzera behartu zituela. Abenduaren 4ko erresistentziak ikaratu egin zuen Bonaparte gauez, Parisko kantoian guztietan kartelak itsatsarazi zituen isilpeko botoaren berrezarpena iragarritz. Burgesek eta dendariak beren helburua lortu zutelakoan zeuden. Biharamun goizean aurkeztu ez ziren guztiak burgesak edo dendariak ziren.

Bonaparteren esku-kolpe batek, abenduaren 1etik 2rako gauean emanak, Parisko proletalgora bere gidariez, barrikadetako buruzagiez gabetu zuen. Ofizialik gabeko armada batek, zeina 1848 eta 1849aren ekaineko eta 1850aren maiatzeko oroitzapenek montagnarden banderapean borroka egitetik aldenerazten baitzuten, bere abangoardiari, elkarte sekretuei fidatu zien Parisko matxinatze-ohorearen salbamena, burgesiak hain otzanki soldauterari eman ziona, non Bonapartek geroago Guardia Nazionala desarmatu ahal izan baitzuen, anarkistek beraren aurka abusuz erabiliko zituzten beldur zelako aitzakia isekati batez!

284

«*C'est le triomphe complet et définitif du Socialisme*». Hala ezaugarritu zuen Guizotek abenduaren 2 hura. Baina errepublika parlamentario aren erorikoak bere baitan badauka jadanik iraultza proletarioaren garaipenaren ernamuina, haren emaitza berehalakoa, ukigarria, Bonaparteren parlamentuaren gaineko garaipena zen, botere betearazleak botere legegilearen gainekoa, esapiderik gabeko indarrak esapideen indarraren gainean zeukana. Parlamentuan, nazioak bere nahimen orokorra lege izatera jasotzen zuen, hau da, klase menderatzailearen legea bere nahimen orokorrera jasotzen zuen. Botere betearazlearen aurrean, bere nahimen propio oroz abdikatzen du eta botere arrotz batek, autoritatearen diktatuei men egiten die. Botere betearazleak, legegilearekiko kontrajarririk, nazioaren heteronomia adierazten du autonomiarekiko kontrajarrita. Beraz, Frantziak badirudi klase baten despotismoari ihes egiten diola norbanako baten despotismoaren pean erortzeko bakarrik, eta zehatzago esateko, autoritaterik gabeko norbanako baten autoritatearen pean. Eta badirudi borroka bukatua zela klase guztiak ahuspez erortzean, ezintasun berarekin eta isiltasun berarekin, fusilaren kulatapean.

Baina iraultza erradikala da. Oraindik garbitokitik pasatzen ari da. Metodoz betetzen du bere ataza. 1851ko abenduaren 2ra arte bere prestatze-lanaren erdia amaitu zuen; orain, beste erdia amaitzen du. Lehenik perfekziora darama botere parlamentarioa, derrokatu ahal izateko. Orain, hori lorturik, botere betearazlea darama perfekziora, haren adierazpen garbienera murrizten du, bakartu egiten du, aurre egiten dio jopuntu bakar bati bezala, zeinaren aurka kontzentratu behar baititu bere suntsipen-indar guztiak. Eta iraultzak burutua duenean bere atarilanekeo bigarren parte hori, Europa jaikiko da, eta pozkariotsu oihu egingo du: ongi egin duk uxarrean, sator zaharra!

Botere betearazle hori, bere antolakuntza burokratiko militar eskerarekin, bere esatu-makineria konplexu eta artifiziozkoarekin, milioi-erdiko funtzionari-armada batekin, beste milioi-erdiko armada baten ondoan, organismo bizkanoi beldurgarri hori, sare bat bezala gizarte frantsesaren gorputzari lotzen zaiona eta poro guztiak estaltzen dizkiona, monarkia absolutuaren garaian sortu zen, eraentza feudalaren beherakadan, zeina organismo berak areagotu baitzuen. Lurjabeen eta hirien nagusi-pribilegioak estatu-boterearen beste hainbeste atributu bihurtu ziren, dignatario feudalak funtzionari ordaindu eta Erdi Aroko subirautza borrokalarien erakusle zen mapa pintarratua, estatu botere baten plan arautuarekiko, zeinaren lana banaturik eta zentralizaturik baitago lantegi batean bezala.

285

Lehen iraultza frantsesa, botere partikular tokiko, lurraldeko, udaleko eta probintziako guztiak hausteko betekizunarekin, nazioaren batasun zibila sortzeko, derrigorrean garatu beharra zeukan monarkia absolutuak hasita zeukana: zentralizazioa; baina aldi berean bolumena, atribuzioak eta Gobernu-boterearen zerbitzari kopurua. Napoleonek perfekzionatu egin zuen estatu-makineria hori. Monarkia legitimoak eta uztaileko monarkiak ez zuten ezer gehitu lanaren banaketa handiago bat izan ezik, zeina haziz baitzihoan gizarte burgesaren barruan lanaren banaketa interestalde berriak sortzen zituen heinean, eta honegatik material berria estatu-administrazioarako. interes *komun* bakoitza berehalaxe bakantzen zen gizartetik, honi interes goragoko, *orokor* bati bezala kontrajartzen zitzaion, gizarteko norbanakoen ekimen propioari aldendu eta gobernu-jardueraren objektu bihurtzen zen, edozein landa-udalerriren zubia, eskola eta erkidego-ondasunetatik hasi eta

Frantziako trenbide, aberastasun nazionala eta unibertsitateetaraino. Azkenik, errepublika parlamentarioa, iraultzaren aurkako bere borrokan sendotzera beharturik aurkitu zen neurri errepresibo, bitarteko eta gobernu-boterearen zentralizazioarekin. Iraultza guztiek perfektionatu egiten zuten makineria hori, puskatu orde. Menderakuntzarengatik txandaka borroka egiten zuten alderdiek estatuaren eraikin neurgabe horren jabetza hartzea irabazlearen harrapakin nagusitzat jotzen zuten.

Baina monarkia absolutuaren azpian, lehen iraultzakoan, Napoleonen azpian, burokrazia burgesiaren klase-menderakuntza prestatzeko bitartekoa besterik ez zen. Errestaurazioan, Louis-Philipperen azpian, errepublika parlamentarioaren azpian, klase menderatzailearen tresna zen, nahiz eta bera ere botere propioa izaten saiatu.

Bigarren Bonaparteren azpian badirudi estatuak erabateko autonomia lortu duela. Estatu-makineria halako moldez sendotu da gizarte burgesaren aurrean, non aski baita haren aurrean abenduaren 10eko Elkarrearen buruzagia egotea, kanpotik etorritako eta soldaduteria horditu batek gidari eginga, zeina pattarra eta saltxitxoiekin erosi baitzuen eta zeinari etengabe saltxitxoa jaurti behar baitio. Hortik dator Frantziaren bularra zanpatzen duen eta arnasa geldiarazten dion etsipen txepela, umiliazio neurgabeenaren sentimendua eta endekatzea. Frantzia desohoretua sentitzen da.

286

Eta hala ere, estatuaren boterea ez da airean kulunkatzen. Bonapartek klase bat ordezkatzeko du, gainera, gizarte frantseseko klase ugariena: nekazari partzelarioena.

Borboitarrek lurjabe handien dinastia ziren bezala eta Orleanstarrak diruaren dinastia, Bonapartetarrek nekazarien dinastia dira, hau da, populu frantsesaren masa. Nekazarien hautatua ez da parlamentu burgesari men egiten zion Bonaparte, baizik sakabanatu zuen Bonaparte. Hiru urtez lortu zuten hiriek abenduaren 10eko hauteskundearen zentzua faltsutzea eta nekazariari inperioaren errestituzioarekin iruzur egitea. 1848ko abenduaren 10eko hauteskundera ez zen 1851ko abenduaren 2ko *coup d'état*-a arte burutu.

Nekazari partzelarioek masa neurgabea eratzen dute, zeinaren norbanakoak egoera berean bizi baitira, baina haien artean harreman asko egon gabe. Haien produkzio-moduak bakartu egiten ditu elkarrengandik, haien artean elkanekiko harremanak ezani beharrean. Bakartze hori Frantziako komunikabide txarrek eta nekazarien pobretasunak sustatzen dute. Haren produkzio-alorrak, partzelak, ez du onartzen hura lantzean lanaren inolako banaketarik, ezta zientziaren inolako aplikaziorik ere; ez du onartzen, beraz, garapenaren askotarikotasunik, ez talentu-desberdintasunik, ez harreman sozialen aberastasunik. Nekazari-familia bakoitza aski da, gutxi gorabehera, bere buruarentzat, berak zuzenean ekoizten du kontsumitzen duenaren parterik handiena, eta horrela bere bizi-bitartekoak naturarekiko trukean areago lortzen ditu gizartearekiko tratuan baino. Partzela, nekazaria eta haren familia; eta alboan, beste partzela bat, beste nekazari bat eta beste familia bat. Unitate horietako batzuek herrixka bat eratzen dute, eta herrixka banaka batzuek, departamendu bat. Horrela eratzen da nazio frantsesaren masa handia, izen bereko unitateen batura soilez, zaku bateko patatek zaku-patata eratzen duten modura, esaterako. Milioika familia existentzia-baldintzatan bizi diren neurrian, zeinek bereizten baitituzte beren bizimoduz, beren interesez eta beren

kulturaz beste klaseetatik eta horiei era etsaikor batez kontrajartzen dizkieten heinean, klase bat eratzen dute. Tokiko artikulazio huts bat nekazari partzelarioen artean existitzen den heinean eta haien interesen identitateak haien artean inolako erkidegorik, inolako batasun nazionalik eta inolako antolakuntza politikorik sortzen ez duen heinean, ez dute klaserik eratzten, beraz, ez dira gai beren klase-interesa beren izen propioan baliarazteko, bai parlamentu baten bidez edo konbentzio baten bidez. Ezin dute beren burua ordezkatu, bestek ordezkatu behar ditu. Haien ordezkariak aldi berean haien nagusi bezala agertu behar du, haien gaineko autoritatea bezala, gainerako klaseetatik babestuko dituen botere mugagabea bezala eta goitik euria eta eguzkia bidaliko diena bezala. Beraz, nekazari partzelarioen eragin politikoak bere azken adierazpena aurkitzen du botere betearazleak gizartea bere agintepean menderatzen duelakoan.

287

Tradizio historikoak jaioarazi zuen nekazari frantsesarengan Napoleon izeneko gizon batek bere distira betea itzuliko zion fede mirarigilea. Eta aurkitu zen norbanako bat halakotzat bere burua zeukana, Napoleon izena zeukana *Code Napoleonek* agintzen duelako: «*La recherche de la paternite est interdite*». 20 urtez alderrai ibili eta abentura grotesko sail baten ondoren elezaharra bete egiten da, eta gizon hori frantsesen enperadore bihurtu da. Robaren ideia finkoa egikaritu egin zen frantsesen klase ugariaren ideia finkoarekin bat zetorrelako.

Baina objektatuko zait: eta Frantzia erdiaren nekazari-matxinadak, nekazarien aurkako armadaren batidak, nekazarien kartzelaratzeak eta masako deportazioak?

Louis XIV. arengandik Frantziak ez du izan nekazarien antzeko jazarpenik «maneu demagogikoengatik».

Baina ongi uler bedi. Bonaparte dinastiak ez du ordezkutzen nekazari iraultzailea, baizik nekazari kontserbadorea; ez du ordezkutzen bere existentzia-baldintza sozialetik, partzelariotik irteten ahalegintzen dena, baizik, alderantziz, hori sendotu nahi duena; ez nekazaribiztanleria, zeinak bere energia propioz eta hiriei baturik ordena zaharra eraitsi nahi baitu, baizik, aitzitik, ordena zahar horretan ilunki itxita, bere partzelarekin batera inperioaren mamuak salbatua eta hobetsia ikusi nahi baitu bere burua. Ez du ilustrazioa ordezkutzen, nekazariaren superstizioa baizik; ez haren iritzia, baizik haren aurreiritzia; ez haren etorkizuna, baizik haren iragana; ez haren Cévennes modernoak, baizik haren Vendée moderna.

288

Errepublika parlamentarioaren menderakuntzak dirauen hiru urteek sendatua zuten nekazari frantsesen parte bat lilura napoléondarretik eta irauli egin zituzten, nahiz eta gaingiroki bakarrik izan; baina burgesiak zakarki atzerantz bultzatzen zituen mugimenduan jartzen ziren orduko. Errepublika parlamentarioaren azpian, nekazari frantsesen kontzientzia modernoak borroka egin zuen kontzientzia tradizionalarekin. Prozesua eskola-maisuen eta apaizen arteko borroka etengabearen formapean garatu zen. Lehen aldiz nekazariak ahaleginak egin zituzten jarrera independente bat hartzeko gobernu-jardueraren aurrean. Hori agertu zen alkateek prefektuekin zuten etengabeko gatazkan. Burgesiak kargugabetu egin zituen alkateak. Azkenik, zenbait tokitako alkateak matxinatu egin ziren, errepublika parlamentarioaren garaian, beren bidutzi propioaren, armadaren aurka. Burgesiak setioaldiekin eta exekuzioekin zigortu zituen. Eta burgesia horrek berak oihu egiten du orain Bonaparteren aurrean traizio egin dioten masen, *vile mutituderen* ergelkeriaz. Berak sendotu zuen bortxaz

nekazari-klasearen inperialismoa, berak finkatu zuen nekazari-erlijio honen sehaska eratzen duen egoera. Jakina burgesiak beldurra izan behar diola masen ergelkeriari, kontserbadore izaten janaitzen duten bitartean, eta masen kontzientziari iraultzaile bihurtzen diren bezain laster.

*Coup d'etataren* ondoko altxamenduetan, nekazari frantsesen parte batek protesta egin zuen, armak eskuetan zituela, 1848ko abenduaren 10eko bere boto propioaren aurka. 1848tik lortutako esperientziak begiak ireki zizkien. Baina beren arima historiako indar infernutanei emana zieten, eta horrek hitzetik heltzen zien, eta gehiengo a oraindik hain zegoen aurreiritziz betea, non departamendurik gonienetan biztanleria nekazariak ageriki Bonaparteren aldeko botoa eman baitzuen. Haien arabera, Biltzar Nazionalak ibiltzea eragotzi zion. Orain hiriek landaren nahimenari ezarritako loturak etetea besterik ez zuten egin. Leku batzuetan, Napoleonen alboan Konbentzio bat ezartzearen ideia groteskoa ere bazuten.

Lehen iraultzaren ondoren nekazari erdi-jopuak lurjabe aske bihurtu zituen. Napoleonek sendotu eta arautu egin zituen baldintzak, zeinen azpian ustiatu ahal izango zuten inork trabarik egin gabe esleitu zitzairen Frantziako lurzorua, eta beren jabetzaren gazte-irrika ase zuten. Baina gaur egun nekazari frantsesa hondamendira daramana haien partzela bera da, luraren banaketa, Napoleonek Frantzian sendoturiko jabetzaren forma. Hain zuzen ere, baldintza materialek bihurtu zuten nekazari feudal frantsesa nekazari partzelario, eta Napoleon, enperadore. Bi belaunaldi aski izan dira ezinbesteko emaitza hori sortzeko: nekazaritzaren pixkanakako txartzea eta nekazariaren pixkanakako zorpetzea. Jabetzaren forma «napoléondarra», XIX. mendearen hasieran askapenerako eta biztanleria nekazari frantsesa aberasteko baldintza zena, mende honen joairan zehar, haren esklabotza eta errumeskeriaren legea bezala garatu da. Eta hain zuzen ere lege hori da *idées napoléoniennes*etan lehena bigarren Bonapartek baieztatuko duena. Baldin eta oraindik partekatzen badu nekazariekin haien hondamendiaren kausa bilatzearen lilura, ez haien jabetza partzelarioan bertan, baizik hartaz kanpo, inguruabar sekundarioen eraginean, haren esperimentuak xaboi-burbuilak bezala desegingo dira produkzio-harremanen aurka.

289

Jabetza partzelarioaren garapen ekonomikoak errotik alderantzikatu du nekazariaren harremana gizarteko gainerako klaseekin. Napoleonen azpian, landako lurra eta zoruaren partzelazioak osatu egiten zuen konkurrentzia askea eta hirietako industria handi hasiberria. Klase nekazaria protesta oropresentea zen eraitsi berria zen aristokrazia lurjabearen aurka. Jabetza partzelarioak Frantzian egin zituen enoek kendu egin zioten feudalismoari elikagai guztia. Haren mugarriek burgesiaren gotorleku naturala eratzen zuten haren antzinako jaunaren esku-kolpe oraren aurka. Baina XIX. mendean zehar hiriko lukuneroa pasatu zen jaun feudalaren lekua hartzera, lurzoruaren karga feudalak hipotekak ordeztu zituen eta lur-jabetza aristokratikoa kapital burgesak ordeztu zuen. Nekazariaren partzela aitzakia besterik ez da orain kapitalista ahalbidetzen duena lurretik irabazia, interesak eta errenta ateratzera, nekazaria utziz ahal duen moduan molda dadin bere soldata ateratzeko. Lurzoru frantsesaren gaineko hipoteka-zonek Frantziako nekazariari hain interes handia ezartzen diete, nola baitira zor nazional britainiar osoaren urteko interesen pareko. Jabetza partzelarioak, ezinbestean haren garapenak gidatzen duen kapitalpeko esklabotza horretan, nazio frantseseko masa troglodita bihurtu ditu.



Hamasei milioi nekazari (emakumeak eta haurrak barne direla) txosnatan bizi dira, haietako parte handi batek irekidura bakar bat duelarik, beste batek, bi bakarrik, eta pribilegiatuek, hiru. Leihoak dira etxe batentzat bost zentzumenak buruarentzako diren horiek. Ordena burgesa, zeinak mendearen hasieran ezani baitzuen estatua partzela sortu berriaren zaindaritzat eta ereinotzez ongarritu baitzuen, odola eta muina hunapatzen dizkion eta kapitalaren alkimistapertzera botatzen duen vanpiro bihurtu da. *Code Napoléona* jadanik ez da enbargo, enkante eta bortxazko esleipenen kodea baizik. Pauper ofizial, alderrai, delinkuente eta prostituten lau milioiri (haurrak barne, etabar.), bost milioi gehitu behar zaizkio, zeinen existentzia amildegiaren ertzean kulunkatzen baita, eta landan bertan bizi baitira edota etengabe alde eragiten baitute, beren zarpailekin eta seme-alabekin, landatik hirietara eta hirietatik landara. Beraz, nekazarien interesak ez dira aurkitzen jadin, Napoleonen azpian bezala, adostasunean, baizik kontrajarrita burgesiaren, kapitalaren interesekin. Horregatik nekazariak beren aliatu eta buruzagi naturala hiri-proletalgoan aurkitzen dute, zeinak baitauka betekizuntzat ordena burgesa eraistea. Baina Gobernu indartsu eta absolutua —zeina baita bigarren *idée napoléonienne* bigarren Napoleonek egikaritu duena— ordena «material» hori bortxaz defendatzera deiturik dago. Eta *ordre matériel* hori, leloa ere bada, nekazari matxinatuen aurkako Bonaparteren proklametan.

290

Kapitalak ezartzen dion hipotekaren alboan, zergen zama dago partzelaren gainean. Zergak dira burokraziaren, armadaren, apaizen eta gortearen bizi-iturriak; hitz batean, botere betearazlearen aparatu osoarena. Gobernu indartsu a eta zerga jasoak gauza bera dira. Jabetza partzelarioa naturaz da baliagarri burokrazia ahalguztidun eta zenbatuezinaren oinarri izateko. Harreman eta pertsonen maila berdin bat sortzen du herrialde osoan zehar. Halaber, eskaini egiten du, beraz, era berean masa horren puntu guztietan eragiteko ahaltasuna erdigune goren batetik. Suntsitu egiten ditu tarteko gradu aristokratikoak populuaren masaren eta estatu-boterearen artean. Alde guztietatik estatu-botere honen zuzeneko esku-sartzea eragiten du eta haren organo bitartegabeen tartejartzea. Eta, azkenik, gainbiztanleria langabe bat sortzen du, zeinak ez baitu sarrerarik ez landan eta ez hirietan eta zeina, beraz, kargu publikoez baliatzen baita limosna errespetagarri batez bezala, estatuko karguen sorrera eraginez. Baioneta-muturrez ireki zituen merkatu berriekin, kontinentearen zakuratzearekin, Napoleonek itzularazi egin zituen zerga bortxazkoak beren interesekin. Zerga horiek akuilu bat ziren orduan nekazariaren industriarako, aldiz orain haren industria azken baliabideez gabetzen dute eta babesgabe errumeskeriaren mendean uzten dute. Eta *idées napoléoniennes* guztietatik, burokrazia eskerga batena da, ongi galoiztatua eta ongi janaritua, bigarren Bonaparteri hobekien doakiona. Eta nola ez zitzaion gustatuko, sortzera beharturik aurkitzen bada, gizarteko errege-kasten alboan kasta artifical bat, zeinarentzat bere eraentzaren mantenimendua labana eta sardexka arazoa baita? Horregatik, haren lehen eragiketa finantzarioetako bat, berriro funtzionarioen soldatak antzinako mailara jasotzea eta sinekura berriak sortzea izan zen.

291

Beste *idée napoléonienne* bat *apaizak* menderatzea da gobernu-bitarteko gisa. Baina partzela sortu berria, gizartearekiko bere harmonian, naturako indarrekiko dependentzian eta goitik babesten zuen autoritatearekiko mendekotasunean erlijiosoa baldin bazen, naturalki, partzela hori, zorrez jana, gizartetik eta

autoritatetik aldendua eta bere mugatutasun propioetatik irtetera behartua, naturalki, irreligioso bihurtzen da. Zerua gehikin oso ederra zen lur zati lortu berriarentzat, hainbat gehiago hartatik eguzkia eta euria datozenean, baina irain bihurtzen da partzelaren orde ezarri nahi zaion bezain laster. Kasu horretan, apaiza da polizia lurtarraren txakur aztarnari ukenduz igurtzia bezala soilik agertzen da —beste *idée napoléoniennea*. Hurrengoan, Erromaren aurkako espedizioa Frantzian bertan burutuko da, baina M. Montalemberten alderantzizko zentzuan.

Azkenik, *idées napoléoniennesen* armadaren nagusigoa da. Armada zen nekazari partzelarioen *point d'honneur*, beraiek heroi bihurtuak ziren, beren jabetza berria defendatuz kanpoko etsaiaren aurka, beren nazionalitate konkistatu berria aintzatuz, mundua zakuratuz eta iraultzatuz. Uniformea zuten beren gala-jantzia; gerra beren poesia; partzela, luzatua eta fantasian biribildua, aberria, eta abertzaletasuna jabetzaren zentzuaren forma ideala. Baina etsaiak, zeinen aurka orain nekazari frantsesak bere jabetza defendatu behar baitu, ez dira kosakoak, alguazilak eta fiskoko agente betearazleak dira. Partzela jadanik ez dago aberria deitzen dutenaren barruan txertatua, baizik hipoteka-erregistroan. Armada bera jadanik ez da gazteria nekazariaren lorea, baizik lumpen-proletalgo nekazariaren zingirako lorea. Gehiengoan *remplaçantez*, ordezkoz eratua dago, bigarren Bonaparte *remplaçant*, Napoleonen ordezkoa besterik ez delarik. Haren balentria heroikoak orain nekazarian aurkako ehizaldi eta batidak dira, jendarmeria-zerbitzuan, eta haren sistemaren barne-kontraesanez muga frantsesaz bestaldera jaurtitzen badute abenduaren 10eko Elkartearen buruzagia, bandido-kolpe batzuen ondoren armadak ez ditu ereinotz-uztarik bilduko, jipoi-uzta baizik.

292

Ikusten denez, *idées napoléoniennes* guztiak partzela hasiberria, gaztearen ideiak dira, baina kontrazentzu bat dira partzela bizirik iraun duen partzelarentzat. Haren agoniako haluzinazioak besterik ez dira, esaldi bihurturiko hitzak, mamu bihurturiko espirituak. Baina inperioaren parodia beharrezkoa zen nazio frantsesaren masa tradizioaren zamatik jaregiteko eta estatua eta gizartearen arteko kontrajartzea argi eta garbi nabarmenarazteko. Jabetza partzelarioaren hondamendiak aurrera egin ahala, porrokatu egiten da haren gainean eraikitako eraikina. Estatuaren zentralizazioa, gizarte modernoak behar duena, gobernu-makineria burokratiko-militarraren, feudalismoarekiko oposizioan landuaren hondakinen gainean bakarrik jasotzen da.

Nekazari frantsesen baldintzek erakusten digute *abenduaren 20 eta 21eko hauteskunde orokorren* misterioa, zeinek eraman baitzuten bigarren Bonaparte Sinaira, baina ez legeak hartzera, ematera baizik.

Burgesiak orain, ageriki, Bonaparte hautatzea beste aukerarik ez zeukan. Konstanzako Kontzilioan puritanoak aitasantuen bizitza biziotsuaz kexatzen zirenean eta ohiturak eraberritzearen premiaz intziri egiten zutenean, Pierre d'Ailly kardinalak ahots trumointsuz esan zuen: «Deabruak berak bakanik Eliza katolikoa salba dezakeenean, zuek aingeruak eskatzen dituzue!». Burgesia frantsesak ere *coup d'etataren* ondoren oihu egin zuen: Abenduaren 10eko Elkartearen buruzagiak bakarrik salba dezake jadanik gizarte burgesa! Lapurretak bakanik salba dezake jabetza; zinausteak, erlijioa; bastartismoak, familia desordenak, ordena!

Bonapartek indar independente bihurturiko botere betearazle gisa sentitzen du «ordena burgesa» salbatzea dela bere eginkizuna. Baina ordena burges horren indarra klase ertainean dago. Beraz, klase ertainaren ordezkari dela uste du eta dekretuak promulgatzen ditu zentzu horretan. Beraz, klase ertainaren indar politiko eta literario gisa baieztatzen du bere burua. Baina bere indar materiala babestean, bere indar politikoa sortzen du berriz. Beraz, kontua da kausari bizirik eustea, baina efektua ezabatzea hori agertzen den tokian. Baina hori ezinezkoa da kausa eta efektuaren arteko nahastetxo bat gabe, zeren batak bestearengan eragina izatean eta alderantziz, biek galtzen dituzte beren ezaugarri bereizgarriak. Banalerroa trabatzen duten dekretu berriak. Bonapartek badaki aldi berean, burgesiaren aurrean, nekazarien eta herriaren ordezkaria dela, oro har, gizarte burgesaren barruan zorientsu egitera deitua zegoela herriko behe-klaseak. Dekretu berriak, aldeztu aurretik iruzur egiten dietenak «egiazko sozialistei» beren gobernatzaile-jakiturian. Baina Bonapartek ezer baino lehen badaki Abenduaren 10eko Elkartaren buruzagia dela, lumpen-proletalgoaren ordezkaria, zeinetakoa baita bera, haren *entouragea*, haren Gobernu eta armada, eta zeinari batik bat bere buruari mesede egitea interesatzen baitzaio eta Altxor publikotik loteria kalifornianeko sariak ateratzea. Eta Abenduaren 10eko Elkartaren buruzagi bezala baieztatzen du bere burua dekretuekin, dekretu gabe eta dekretuak gorabehera.

293

Gizonaren betekizun kontraesankor honek azaltzen ditu haren Gobernuaren kontraesanak, han eta hemen haztamuka ibiltzea, zeina saiatzen baita batzuetan klase hau eta beste batzuetan hura irabaztea edota umiliatzea, denak era berean bere kontra ezarriz, eta zeinaren segurtasun-eza praktikoak kontraste izugarri komikoa eraten baitu haren gobernu-egintzen estilo agindukoi eta kategorikoarekin, zeina baita osabari otzanki kopiaturiko estila.

Industriak eta merkataritzak, hau da, klase ertainaren negozioek loretu egin behar dute negutegiko landare gisa Gobernu sendoaren azpian. Ezin zenbatu ahala trenbide-emakida eskaintzen dira. Baina lumpen-proletalgo bonapartistak aberastu egin behar du. *Maneu* espekulatiboak hasi zituzten trenbide-emakidekin *burtsan* aldeztu aurretik trebatuekin. Baina ez da aurkezten ezein kapital trenbideetarako. Bankua behartu egiten da diruan aurreratzerako trenbideakzioen kontura. Baina, aldi berean, pertsonalki ustiatu behar da bankua, eta, horregatik, lausengatu. Bankuari barkatu egiten zaio astero bere txostenak argitaratzearen betebeharra. Bankuaren Gobernuarekiko lehoi-kontratua. Lana eman behar zaio herriari. Obra publikoak agintzen dira. Baina obra publikoek gehitu egiten dituzte herriaren zerga-zamak. Beraz, behertu egiten ditu zergak errentisten aurkako eraso batez, ehuneko 5eko errentak ehuneko 4,5eko errenta bihurtuz. Baina *douceur* <azukre-ogi> bat eman behar zaio burgesiari. Beraz, bikoiztu egiten da ardoaren gaineko zerga herriarentzat, zeinak txikizka edaten baitu, eta erdira eraisten da klase ertainarentzat, zeinak handizka edaten baitu. Disolbatu egiten dira dauden langile-elkarteak, baina elkarte-mirariak agintzen dira etorkizunerako. Nekazariei lagundu behar zaie: hipoteka-bankuak, zorpetzea eta jabetzaren kontzentrazioa agurotzen dutenak. Baina banku horiek Orleansko etxetik konfiskaturiko ondasunetatik dirua ateratzeko erabili behar dira. Ez dago kapitalistarik baldintza horretarako prest dagoenik, zeina ez baita ageri dekretuan, eta hipoteka-bankua dekretu huts izatera murrizturik geratzen da, etab.

294

Bonapartek agertu nahiko luke klase guztien ongile patriarkal gisa. Baina ezin dio bati ezer eman besteari kendu gabe. Eta Fronderen garaian Guiseko dukeaz esaten baitzen Frantziako gizonik *obligantena* zela, bere finka guztiak bere partisoen obligazio bihurtu zituelako bere buruaren aurka; Bonapartek ere Frantziako gizonik *obligantena* izan nahiko luke eta Frantziako jabetza guztia eta lan guztia bere buruaren aurkako obligazio pertsonal bihurtu. Frantzia osoari lapurtu nahiko lioke Frantziari opari egiteko, edo hobeki esanda, Frantziari berriro erosteko diru frantsesaz, zeren Abenduaren 10eko Elkartearen buruzagi gisa derrigor erosi behar baitu berea izatea nahi duena. Eta sobornoinstituzio bihurtzen dira estatuaren instituzio guztiak: Senatua, Estatu Kontseilua, Gorputz legegilea, Ohore Legioa, soldaduen domina, ikuztokiak, eraikin publikoak, trenbideak, Guardia Nazionalaren Estatu Nagusia soldadu anuntik gabe, Orleans etxeari konfiskaturiko ondasunak. Soborno-bide bihurtzen dira armadako eta gobernu-makineriako postu guztiak. Baina prozesu horretako gauzarik ganantzitsuena, zeinean hartzen baita Frantzia bere buruari emateko, Abenduaren 10eko Elkarteko buruzagiak eta norbanakoek poltsaratzen dituzten ehuneko hainbesteak dira truke-eragiketakoan. L. Kondesak, de Morny jaunaren maitaleak, ondasun orleanisten konfiskazioa ezaugarritzen zuen txistea: «*C'est le premier vol de l'aigle* [Arranoaren lehen hegaldia (= lapurreta) da.], arrano horren hegaldi guztiei aplika dakieke, zeina arrano baino gehiago baita bele. Bai berak eta haren jarraitzaileek elkarri oihu egiten baitiote egunero, kartusiar italiar hark diruzaleari bezala, zeinek harranditsu zenbatzen baitzituen urte luzetan gozatu behar zituen ondasunak: «*Tufai conto sopra i berri, bisogna prima fiar il conto sopra gli anni*». [Ondasunak kontatzen dituzu, lehenik urteak kontatu beharko zenituzke]. Urteetan ez huts egiteko, minututan ateratzen dituzte kontuak. Gortean, ministerioetan, administrazioa eta armadaren gailurrean, alproja-samalda bat metatzen da, zeinatariko hoberenez esan baitaiteke ez dakiela nondik datorren, *bohème* astrapalatsua, susmagarria eta zakuratze-irrikaduna, zeina bere kasaka galoiztatuetan arrastaka baitabil Soulouqueko dignatario handien duintasun grotesko berarekin. Baldin eta plastikoki errepresentatu nahi badugu Abenduaren 10eko Elkartearen goi-geruza hori, aski dugu jakitea Véron-Crevel dela haren predikari morala eta Granier de Cassagnac haren pentsalaria. Guizotek, bere ministerio-aldian, Granier hori erabili zuenean kazetaxka batean oposizio dinastikoaren aurka, esaldi honekin goretsi ohi zuen: «*C'est le rol des drôles*», «bufoien erregea da». Bidegabea litzateke Erregentzia edo Louis XV.a gogoratzea Louis Bonaparteren gortearikiko edo tribuarekiko loturan. Zeren «Frantzia sarritan pasatu da jadanik amoranteen gobernu batetik, baina oraindik inoiz ez *hommes entretenus* gobernu batetik.

295

Egoera horren eskakizun kontraesankorrez hertsatua eta aldi berean prestidigitadore bat bezala beregana erakartzera, etengabeko ezustekoen bitartez, publikoaren begiradak, Napoleonen ordezkioak egiten zuenez, eta horrenbestez egunero miniaturako estatu-kolpe bat egikartzera beharturik, Bonapartek kaosa eraman zuen ekonomia burgesera, 1848ko iraultzari ukiezina iruditu zitzaion guztiaren kontra atentatzen du, batzuk iraultzarekiko egonarritsu eta beste batzuk iraultzarekiko urduri bihurtzen ditu, eta egiazko anarkia bat sortzen du ordenaren izenean, aldi berean estatu-makineria osoari santutasun-kutsua kenduz, profanatu, aldi berean nazkagarri eta irrigarri bihurtuz. Parisen Napoleonen mantu inperialaren kultuaren formapean, Trierko tunika sakratuaren kultua kopiatzen du. Baina azkenik,

II. Materialismo historikoari buruzko idazkiak. Louis Bonaparteren brumarioko hemzortzia  
(laburbildumak)

mantu inperiala Louis Bonaparteren sorbalden gainera erortzen bada, Napoleonen brontzezko estatua lurrera eroriko da Vendomeko Zutarriaren gainetik.

## **POLITIKA EKONOMIKOAREN KRITIKARAKO EKARPEN BATEN HITZAURREA**

Karl Marx

*Marxek Londresen eman zuen 1850.a, politika ekonomikoaren kritika eta kapitalismoaren analisia bere obra lantzen. Lan teoriko handiko aldi horretatik 1859on irten zen Ekonomia politikoko kritikarako ekarpen bat-en argitorapenorekin. Obra hori Kapitalaren lehen liburukiaren lehen atalaren aurrerapen bat zen, zeina agertuko baitzen zortzi urte geroago, eta zeina gaur egun gutxik irakurtzen baitute Marxen adituek izan ezik. Baina asko irakurtzen eta eztabaidatzen dena 1859ko saiakaeraren hitzaurrea da. Hitzaurrean, Marxek ekonomia politikoari buruzko bere pentsamenduaren garapenaren berri laburra ematen du, Rheinische Zeitungen emandako egun goiztiarretatik hasita. Hori har daiteke Marxek bere obran ikusten zuen jarraipen handiaren frogatzat, hegeldar gaztea izan zen garaietatik hasita. Gero «nire azterlanen printzipio gidaria» laburbilduma aurkezten du. Materialismo historikoaren oinarritzko aldarrikapenen baieztapen hori arrazoiz ospetsu bihurtu da honako adierazpenengatik: «Gizakien kontzientziak ez du determinatzen haien existentzia, baizik haien existentzia sozialak determinatzen du haien kontzientzia» eta «Gizadiak horrela ezinbestean ezartzen dizkio bere buruari ebazteko gai den bezalako atazak, zeren azterketa hurbilagoko batek beti erakutsiko baitu arazoa bera soilik sortzen dela hura ebazteko baldintza materialak jadanik presente daudenean edo gutxienez eratze-bidean». Badirudi hitzaurreak determinismo teknologikoaren bertsio zorrotz samarra markatzen duela. Eztabaida sortu da hitzaurreak zehatz ordezkatzeko duen Marxen ikuspuntu teoriko erreala edo distorsionaturik dagoen bereziki laburtzaile izateko ahaleginarengatik, eta ea hemen agertutako ikuspegia kontsistentea den haren beste idazki teoriko eta politikoeekin.*

\*\*\*

### *Hitzaurrea*

Ekonomia burgesaren sistema honako ordenan aztertzen dut: *kapitala, lur-jabetza, soldatapeko lana, estatua, kanpo-merkataritza, mundu-merkatua*. Lehen hiru izenburuen pean analizatzen ditut hiru klase handien bizi-baldintzak, zeinetan gizarte zibila banatzen baita. Lehen liburuaren lehen atala, kapitala aztertzen duena, honako kapituluek osaturik dago: 1. Merkantzia; 2. Dirua edo zirkulazio sinplea; 3. Kapitala oro har. Lehen bi kapituluek eratzten dute koaderno honen edukia. Material osoa aurrealdean daukat monografia formapean, zeinak idatzi baitziren ez argitaratzeko, baizik neure burua argitzeko elkarrengandik aldi oso bereizitan; horiek birmoldatzea osotasun integratu batean adierazi dudana planaren arabera kanpoko inguruabarren baitan egongo da.

Sarrera orokor bat, zirrimarratua nuena, baztertu egiten dut, zeren gehiago pentsatu ondoren nahasgarri iritsi baitiot emaitzak aurreratzeari, zeinak oraindik frogatu egin behar baitira, eta benetan jarraitu nahi didan irakurleak erabaki beharko du partikularretatik orokorrera aurrera egitea. Hala ere, aitzitik, egokiak izan litezke hemen ohar batzuk ekonomia politikoaren nire azterketa propioaren joairari buruz.

Nire ikasketa profesionalak jurisprudentiakoak ziren, zeinaz, guztiarekin ere, bigarren mailako ikasgai batez bezala arduratu bainintzen, filosofia eta historiarekin batera. 1842-1843an, *Rheinische Zeitungen* erredaktore nintzela lehen aldiz aurkitu nintzen interes materialei buruz iritzia eman beharraren kinka laman. Rhineko Dietak egurlapurretaz eta lur-jabetzaren partzelazioari buruzko debateek, von Schaper jaunak, garai hartan Rhineko probintziaren gobernadora zenak, eta *Rheinische Zeitungek* Moselako nekazarien egoeraz izandako polemika ofizialak eta, azkenik, librekanbio eta protekzionismoari buruzko debateek eragin ninduten lehen aldiz auzi ekonomikoez arduratzera. Bestalde, «aurrera joate»aren nahi onak gaiaren ezagutza askoz gainditzen zuen garai haietan, *Rheinische Zeitungek* entzunarazten zuen sozialismo eta komunismo frantsesaren oihartzun bat nabardura filosofiko ahulez koloreztatua. Ni diletantismo horren aurka agertu nintzen, baina aldi berean zinez aitortuz, *Allgemeinen Augsburger Zeitungekiko* konrobertsia batean, nire ordu arteko ikasketek ez zidaten uzten ezein iritzi joera frantsesen edukiaz beraz menturatzera. Hainbat desira handiagoz aprobetxatu nuen *Rheinische Zeitungen* kudeatzaileen lilura, zeinek uste baitzuten kazetaren jarrera bigunduz haren aurka ordurako agindutako herio-epaia ezeztaraztea lortuko zutela, jendaurreko agertokitik neure ikasgelara baztertzeko.

299

Astintzen ninduten zalantzak uxatzeko ekindako neure lehen lana zuzenbide-filosofia hegeldarraren berrikusketa kritiko bat izan zen, zeinaren sarrera 1844an agertu baitzen Parisen argitaratzen ziren *Deutsch-Französischen Jahrbüchern*. Nire ikerketak eraman ninduen ondorio batera: nola harreman juridikoak hala estatu-formak ezin direla berenez ulertu ezta giza espirituaren bilakaera orokorra deituaren bidez ere, baizik, aitzitik, bizi-baldintza materialetan errotzen direla, zeinaren multzoa laburbiltzen baitu Hegelek XVIII. mendeko ingelesan eta frantsesen aurrekarika jarraituz, «gizarte zibil» izenaren pean, eta gizarte zibilarren anatomia ekonomia politikoan bilatu behar dela. Bruselan, nora aldatu bainintzen Guizot jaunak diktaturiko erbesteratzeordena batengatik, jarraitu egin nituen Parisen hasitako ekonomia politikoko ikasketak. Lortu nuen emaitza orokorra eta ondoren nire ikasketen hari gidari izateko balio izan zuena, honela laburbil daiteke: beren bizitzako produkzio sozialean gizakiek harreman determinatu beharrezkoak eta beren nahimenarekiko independenteak ezartzen dituzte, produkzio-harremanak, produkzio-indar materialen garapenaren fase determinatu bati dagozkionak. Produkzio-harreman horien multzoak gizartearen egitura ekonomikoa eratzen du, oinarri erreala, zeinaren gainean eraikitzen baita gainegitura juridiko eta politikoa eta zeinari baitagozkio kontzientzia sozialaren forma determinatu batzuk. Bizitza materialaren produkzio-moduak baldintza egiten du bizitza sozial, politiko eta intelektualaren prozesua, oro har. Gizakiaren kontzientziak ez du determinatzen bere izatea, baizik izate sozialak determinatzen du haren kontzientzia. Gizarteko produkzio-indar materialen garapenaren fase determinatu batera iristean kontraesanean sartzen dira dauden produkzio-harremanekin edo, horren adierazpen

juridikoa besterik ez dena, jabetza-harremanekin, zeinen barruan garatu baitira haraino.

300

Produkzio-indarren garapen-formetatik, harreman horiek haien eragozpen bihurtzen dira, eta iraultza sozialeko garai bat irekitzen da honela. Oinarri ekonomikoa aldatzean eraldatu egiten da, gutxi-asko bizkor, haren gainean eraikitako gainegitura neurgabea. Eraldakuntza horiek aztertzean beti bereizi behar dira produkzio-baldintza ekonomiko gertaturiko aldaketa materialak, zeinak natur zientzien zehaztasun propioz nabarmn baitaitezke, eta forma juridiko, politiko, erlijioso, artistiko edo filosofikoak, hitz batean, forma ideologikoak, zeinetan gizakiek gatazka horren kontzientzia hartzen baitute eta hura ebazteko borrokatzen baitira. Eta norbanako bat epaitu ezin dugun bezala bere buruaz pentsatzen duenetik, ezin ditugu epaitu eraldatze-garai horiek beren kontzientziatik, baizik, aitzitik, kontzientzia hori azaldu behar da bizitza materialaren kontraesanetatik, produkzio-indar sozialen eta produkzio-harremanen artean dagoen gatazkatik. Ezein erakuntza sozial ez da desagertzen harik eta produkzio-indar guztiak, zeinetarako aski baita, garatuak izan diren arte, eta produkzio-harreman berri eta jasoagoak ez dira inoiz agertzen haren existentziarako baldintza materialak antzinako gizarte propioaren barruan heldu baino lehen. Horregatik, gizateriak bete ditzakeen atazak bakanik proposatzen ditu beti, zeren, hobeki begiratu, beti aurkituko da helburu horiek betetzeko baldintza materialak badaudenean, edo, gutxienez, bilakatzen ari direnean bakanik sortzen direla. Laniki, gizartearen erakuntza ekonomikoan progresuaren beste hainbeste fase bezala izenda ditzakegu produkzio-modu asiarra, antzinakoa, feudala eta moderno burgesa. Produkzio-harreman burgesak produkzio-prozesu sozialen azken forma antagonikoa dira; antagonikoa, ez antagonismo indibidualaren zentzuan, baizik eta norbanakoen bizi-baldintza sozialetatik datorren antagonismo batenean. Baina gizarte burgesean garatzen diren produkzio-indarrek, aldi berean, antagonismo hori ebazteko baldintza materialak eskaintzen dituzte. Erakuntza sozial horrekin ixten da, beraz, gizartearen historiaurrea.

301

Friedrich Engels, zeinarekin nik etengabeko ideia-truke idatzia mantentzen bainuen kategoria ekonomikoen kritikari buruzko bere zinimarra geniala agertu zenetik (*Deutsch-Französische Jahrbücher*etan), bestelako bide batetik (erka bedi haren *Langile-klasearen egoera Ingalaterran*) nire emaitza berera iritsia zen. Eta 1845eko udaberrian, bera ere Bruselan finkatu zenean, erabaki genuen batera lantzea gure ikuspuntuaren kontraproposamena filosofia alemaniarraren ikuspuntu ideologikoarekin; egitatez, gure aurreko kontzientzia filosofikoarekin kontuak garbitzea. Asmoa egikaritu zen filosofia posthegeldarraren kritika baten formapean. Eskuizkribua —bi liburuki lodi zortzikoan— jadanik aspaldi heldu zen Westfaliako haren argitalpen-lekura. Hori ikusirik, eskuizkribua saguen kritika karraskariari utzi genion, oso gogara, zeren gure helburu nagusia, geure ideia propioak argitzea, ordurako lortua baitzegoen. Garai hartan irakurleriari geure ideiak azaldu genizkion lan sakabanatuen artean, alderdi batzuen edo beste batzuen azpian, *Alderdi Komunistaren Manifestua* bakarrik aipatuko dut Engelsek eta biok elkarrekin idatzia, eta *Librekanbioari buruzko Diskurtso bat*, neuk argitaratua. Gure kontzepzioaren puntu erabakigarriak lehen aldiz aurkeztu ziren zientifikoki, nahiz eta polemikoki bakarrik, *Misère de la philosophie* etc. 1847an argitaratu eta Proudhonen aurka



zuzenduan. Alemanieraz *Soldatapeko lanaz* idatzitako azterketa baten argitarapena, zeinak biltzen baitzituen Bruselako Langile Alemaniarren Elkartean gai horretaz eman nituen hitzaldiak, otsaileko iraultzak eten egin zuen inprentan, eta horren ondorioz ni Belgikatik indarrez urruntzea eragin zuen.

*Neuen Rheinische Zeitung* 1848an eta 1849an argitaratzeak eta ondorengo gertakariak eten egin zituzten nire azterketa ekonomikoak, zeinei 1850ean Londresen berrekin bainien. British Museumen metaturiko ekonomia politikoaren historiari buruzko material eskerga, gizarte burgesa behatzeko Londresek eskaintzen duen posizio hain faboragarria eta, azkenik, hori itxuraz sartzen ari zen garapen-etapa berria Californian eta Australian urrea aurkitzearekin, hasieratik berriro hastera bultzatu ninduten, era kritikoa, bidea urratuz, material berrietan zehar. Azterketa horiek beren kabuz batzuetan alor itxuraz urrunduetara eramaten ninduten eta zeinetan denbora gutxi-asko luzean gelditu behar izaten bainuen. Baina eskura neukan denbora batez ere munizten zuena bizi izateko lan egin behar ezinbestekoa zen. Jadanik zortzi urtez *New York Tribune* lehen kazeta ingeles-amerikanarekiko nire lankidetzak nire azterketak izugarri barreiatzera behartzen ninduen, zeren salbuespeneko kasuetan bakarrik aritzen bainaiz idazten prentsa-korespondentzia propioki direnak. Hala ere, Ingalaterrako eta kontinenteko jazoera ekonomiko nabarmenei buruzko artikuluek nire lankidetzaren parte garrantzitsu bat eratzen baitzuten, eta horrek behartu egiten ninduen ekonomia politikoaren egiazko zientziaren eremuaz kanpoko izaera praktikoko xehetasun batzuen ezagupidea izatera.

302

Ekonomia politikoko alorreko nire azterketen ibilbideari buruzko zirrimarra honek soilik frogatu nahi du nire ideiak, —zeinahi epai merezi dutelarik ere, eta klase menderatzaileen aurreiritzi interesatuekin, inondik ere ez bat etorri—, ikerketa kontzientziatsu eta luzearen emaitza direla. Baina zientziaren sarreran, infernuko atean bezala, honako kontsigna hau ezarri beharko litzateke:

*Qui si convien lasciare ogni sospetto;*

*Ogni vilita convien che qui sia moria*

<Susmo oro uztea komeni da hemen;

Hemen koldarkeria oro hiltzea komeni da>

Londresen, 1859ko urtarrilean

Karl Marx

### III. IDAZKI EKONOMIKOAK

#### Lehen Liburukia *Kapitala* (aukera)

Karl Marx

Kapitala (Das Kapital) da zalantzarik gabe Marxen obra nagusia. Nahiz eta Marxek Grundrissen (1857-58ko Oharliburua) lehen atala bakarrik bere ikerketa-programa bete bezala zirrimarratu zuen, Kapitala bera ez zen inoiz osatu. Lehen liburukia 1867an argitaratu zen, baina bigarren eta hirugarren liburukiak Engelsen editoretzapean alera ziren Marx hil eta gero (bigarren liburukia 1885ean eta hirugarren liburukia 1894an). Marxen egitasmo osoa zen kapitalismoa atzeman eta erakuntza sozial gisa azaltzea eta kapitalismotik haratago gizarte sozialista batera joatearen izaera eta aukera aztertzea. Egitasmo horrek, konturatzen zen, eskatuko zuen historikoki eta soziologikoki gizarte kapitalisiako instituzio guztiak ulertzea: estatua, zuzenbidea, kultura eta erlijioa, baita ekonomia ere. Baina bere fokapen teoriko orokorrarekiko adostasunean, ekonomiaren izaerarekin hasi zen eta bereziki produkzio-harremanarekin, zeren oinarrizko baldintzak aurkitu beharra baitzegoen, zeinetatik sortzen baitzen gainerako guztia. Aldi berean, kapitalismoko produkzioa eta harreman ekonomiko orokorrak ulertzeko ahaleginak egiten zituen bitartean, Marx beste teoriarari batzuen kritika parez parekoan ere inplikatu zen, zeren konturatu baitzen munduaren ulerkuntza egokia bakarrik eduki zitekeela gizarte baten ideologia atzematen duten ulerkuntza distortsionatuak uxatuz. Hortik dator Kapitalaren azpi-izenburua, «Politika ekonomikoaren kritika bat». Areago, nahiz eta hasiera batean teoria ekonomikoko obra teoriko huts baien itxura izan, Kapitala giza askatasunaren izaera eta aukeraren ikerketa filosofiko bezala irakurri beharko litzateke. Ildo horretatik, 1844ko Eskuizkribu filosofiko eta ekonomikoekiko jarrai pena du. Kapitalismoak zapaldu, esplotatu, eta alienatu egiten ditu gizakiak. Nola gertatu da hori? Nola obratzen du efektu horiek sortzeko? Nola eta zergatik izango da gainditua? Horiek dira Kapitalaren analisi teorikoa informatzen duten auzi esentzialak.

304

Hemen emaien diren aukerak lehen liburukikoak dira. Liburuki horren lehen atalean, Marxek bere teoria ekonomikoaren oinarrizko kategoriak aurkezten ditu: merkantzia, kapitala, dirua, erabilera-balioa, truke-balioa, eta gainbalioa. Katetoria horiek balioaren lan-teoriaren forma espezifikokoaren testuinguruan funtzionatzen ezartzen dira, zeina Marxek garatu baiizuen Smith, Ricardo, eta hasierako beste ekonomialari politiko batzuen idazkietatik. Gizarte kapitalistako gertakari txundigarriena da ordu arte inoiz ez bezalako proportzioan haren baitan aberastasuna metatzea. Eta, lehen liburukiaren hasieran ohartarazten duenez, aberastasun hori «'merkantzia-bilduma neurgabe' agertzen da». Badirudi merkantziek beren baitan daramatela balio

*propioa eta mozkina, zeinak gehiarazten baitu aberastasun metatua, badirudi merkantzien truketik sortzen dela. Baina itxura horrek, hala ere, gezurtatu egiten du kapitalismoaren egia erreala, zeina baita mozkina, eta hortik eratortzen dela aberastasun-metatzea, kapitalistaren eta proletarioaren arteko trukearen izaeratik. Truke horrengatik, lanindarra saldu eta erostearengatik, mozkina ahalgarri da. Baina mozkina ez da merkatuan sortzen, truke-esferan, zeinean gertatzen baita hasierako topaketa kapitalista eta langilearen artean. Aitzitik, zeinean kapitalistak erositako lanindarra langilearengandik gainbalioa ateratzeko fabrikari erabiltzen duen modua da mozkinaren ahaltsunerako inporta duena. Mozkinaren sekretua aurkitu behar da, bada, ez merkatuan baizik produkzio-esferan. Marx ohartu zen, prozesu hori ulertu ahal izateko, azaldu beharra zegoela lana nola bihurtzen den merkantzia, lanindar, eta merkatu-prezio bai lortzen duen, eta produkzio-prozesua nola antolatzen den gainbalioa atera ahal izateko. Horiek dira Marxen esplotazioaren teoriaren ataza nagusiak.*

*Lehen kapituluko 4. Sailean, «Merkantziaren fetitxismoa» pasarte ospetsuak tratatzen du merkantziak inplizituki baliozko eta bere bizitza propioa baleuka bezala asumitzen duen itxura azpian dituen harreman sozialen errealitatearen errainu distortsionatu bai besterik ez dela. Merkantzien mugimendua ekonomia kapitalistaren inguruan iruditzen zaie produzitzaileei «gauzek egindako mugimendu bai eta gauza horiek, haien kontrolpean egon beharrean, beren buruen kontrolatzaile». Marxek erabiltzen duen analogia erlijioarena da, zeina 1843an analizatu baiizuen gizarte zibileko harreman sozialen errainu distorsionatu gisa. Jainkoek gure harreman sozialen forma alienatu bai ordezkatzan duten bezala, berdin egiten dute gure merkantziek ere.*

305

*Lehen liburukiaren azken atalean, Marx kapitalismoaren sorrera historikoaren azterketara itzultzen da. Nola sortu zen, galdetzen du Marxek, hasierako gainbalio-metatzea, kapitalismoaren motorra elikatzeko beharrezkoa zena? Haren erantzuna: «Historia errealean, gertakari nabaria da konkistak, esklabotzeak, lapurreak, erahilketak, hitz batean, bortxak jokatzan duela parte nagusia». Ohartarazien duen beste faktore garrantzitsua izan zen landatik baserri-nekazariak erretiratzean lanindar eskuragarriaren funts bai sortzea. Azkenurreko kapituluan, jatorriz azken kapitulua izan behar zuenean, Marx etorkizunaren auzira itzultzen da. Baieztapen biribil batean, zirrimarratzen du kapitalismoaren baitako joerek nola eramango duten hura heriotzara. «Produkzio-bitartekoen eta lanaren sozializazioaren zentralizazioa iristen dira puntu batera, zeinak ez baitira bateragarriak integumentu kapitalistarekin. Hori zariatatu egin da. Jabetza pribatu kapitalistaren azken-orduak jo du. Desjabetzaileak desjabetuak izan dira.»*

\*\*\*

### *Lehen argitarapenaren hitzaurrea*

Lana, zeinaren lehen liburukia enregatzen baitiot publikoari, *Ekonomia politikoaren kritikarako ekarpena*, 1859an nik argitaratutakoaren jarraipena da. Hasieraren eta

jarraipenaren artean igarotako pausaldi luzea urte luzetako gaixotasun bati zor zaio, zeinak behin eta berriz eten baitu nire lana.

Lehen obraren edukia liburuki honetako lehen kapituluan laburbildurik dago. Eta hori ez da gertatu bakarrik koherentzia eta osotasunarengatik bakanik. Aurkezpena hobetu egin da. Gaiak ahalbidetu duen heinean, lehen ozta-ozta zinimanaturiko puntuak garatu egin dira; aitzitik, han zabalki garaturikoa, hemen aipatu besterik ez da egin. Balioaren teoriaren eta diruaren teoriaren historiari buruzko kapituluak orain erabat ezabatu dira noski. Hala ere, lehengo lanaren irakurleak lehen kapituluko oharretan erreferentzia berriak aurkituko ditu teoria horien historia aztertzeko iturri berrienak.

306

Hasiera oro beti zaila izaten da; zientzia guztietarako balio du horrek. Horregatik, lehen kapitulua ulertzea, bareziki merkantziaren analisiari buruzko paragrafoak izango dira zailtasun handienekoak. Balioaren substantziaren eta balioaren magnitudearen analisiari dagokionez, ahalik eta gehien popularizatzen saiatu naiz.<sup>1</sup> Balio-forma, zeinaren garapen betea diru-forma baita, oso sinplea eta eduki gutxikoa da. Guztiarekin ere, giza adimena 2.000 urte baino gehiagotan alferrik ari izan da hori ikertzen, bitartean beste forma konplexuago eta edukitsuago batzuk analizatuak izan dira gutxi gorabehera emaitzara hurbilduz. Eta zergatik hori? Zeren errazagoa baita gorputz antolatua aztertzea gorputzeko zelulak baino. Gainera, forma ekonomikoak aztertzeko, ez dago ez mikroskopioa ez errektibo kimikoak erabiltzerik. Abstrakzio-gaitasunak ordeztu behar ditu biak. Alabaina, gizarte burgesarentzat, lanaren produktuaren merkantzia-forma edo merkantziaren balio-forma forma ekonomiko zelularrak dira. Landugabeei iruditzen zaie forma horiek analizatzea xehekeria soiletan galtzea dela. Izatez, xehekeriak dira, baina anatomia mikroskopikoak tratatzen dituen bezalako xehekeriak.

Horregatik, balio-formari buruzko kapitulua salbuetsirik, inork ezingo du liburu hau ulergaitzasunarengatik saiatu. Jakina, esan nahi dut zerbait berria ikasi nahi duten eta, beraz, beren kabuz pentsatu nahi duten irakurleez ari naiz, noski.

Fisikariak behatzen ditu natur prozesuak, formarik trinkoenean eta eragin nahastaileek gutxien itxuragabeturik agertzen diren tokian edo, ahal bada, esperimenduak egiten ditu prozesuaren garapena bere forma hutsean segurtatzen duten baldintzetan. Obra honetan ikertu nahi dudana produkzio-modu kapitalista da eta dagozkion produkzioeta aldaketa-harremanak. Horretarako herrialde klasikoa orain arte Ingalaterra da. Hori da arrazoa nire garapen teorikoen argigarri nagusitzat baliatu izanarena. Irakurle alemaniarrek sorbaldak jasotzen baditu fariseokeriaz langile industrial eta nekazari ingelesten egoeraren aurrean edo baikortasunez lasaitzen bada pentsatuz Alemanian gauzak ez dau dela, ezta hurrik eman ere, hain gaizki, esan beharko diot: *De te fabula narratur!*

---

<sup>1</sup> Hau hainbat beharrezkoagoa da, zeren eta Esrdinad Lassallek Schulze-Delitzschen aurka egindako obraren sailean, zeinean aitortzen baitu gai horiei buruzko nire azalpenen «kintesentzia intelektuala» ematen duela, akatsa garrantzitsuak baititu. Ferdinand Lassallek ia hitzez hitz mailegatu ditu nire idazkietatik, eta inolako berrezagutzarik gabe, bere obra ekonomikoetako proposamen teoriko orokorrak, adibidez, kapitalaren izaera historikoari buruzkoak, produkzio-harremanen eta produkzio-moduaren arteko loturari buruzkoak, etab., etab., neuk sortutako terminologiainokoak, hori agian propaganda-asmoengatik. Ez naiz ari hemen proposamen horien lantze xehakatuaz eta aplikazioaz, zeinekin ez baitaukat nik inolako zerikusirik.\*

\*Oin-oharrak Marxenak berarenak dira eta sekuentzialki zenbakizaturik daude. (Zenbakiztapenak ez du jarraitzen itzulpena, zeinatik hartu baita testua.)

307

Berez kontua ez da hemen antagonismo sozialek lortzen duten garapen maila garaiago edo behereagoaz, zeinak produkzio kapitalistaren natur legeetatik sortzen baitira. Legeez berez da kontua, eta behartasun burdinazkoz aritzen diren eta ezartzen diren joerez. Industrialki garatuena den henialdeak erakutsi besterik ez dio egiten gutxiago garatuari haren etorkizun propioaren irudia.

Baina hori alde batera utzita, produkzio kapitalista erabat gure artean egokitu den tokietan, adibidez, fabrika propioki deituetan, egoera Ingalaterran baino askoz txanagoa da, zeren fabrika-legediaren kontrapisua falta baita. Gainerako esfera guztietan tormentatu egiten gaitu, Mendebal Europako herrialde kontinental guztietan bezala, ez bakanik produkzio kapitalistaren garapenak, baizik eta haren garapenaren gabeziak. Miseria modernoek gainera, heredaturiko miseria-sail oso batek zanpatzen gaitu, zeinak baitatoz produkzio-forma antzinako eta iraungiak gure artean begetzetik, harreman sozial eta politiko anakronikoen segizio batekin. Ez dugu biziengatik bakarrik sufritzen, baita hildakoengatik ere. *Le mort saisit le vif!*

Ingelesarekin alderatuta Alemaniako estatistika soziala eta gainerako Mendebal Europa kontinentalekoa oso pobrea da. Hala ere, nahikoa jasotzen du beloa haren atzean Medusaren burua sumarazteko. Ikaratu egingo ginateke geure egoera propioaz baldin eta gure gobernuek eta parlamentuek, Ingalaterran bezala, aldizka baldintza ekonomikoen ikerketa-batzordeak izendatuko balituzte; batzorde horiek horniturik baleude Ingalaterrakoen ahalmen berez egia ikertzeko; baldin eta aurkitu ahal izango balira, betekizun honetarako, Ingalaterrako lan-ikuskatzaileak bezain aditu, inpartzial eta zorrotzak, Public Health-az [Osasungintza Publikoa] informatzen duten mediku ingelesak bezalakoak, emakumearen eta haurraren ustiapenaz, etxebizitza eta elikaduraren baldintzak eta abar ikertzen dituzten komisario ingelesak bezalakoak. Perseok buru-oskol magiko bat janzten zuen munstroak jazartzeko; guk buruoskol magiko hori bereraino sartzen dugu geure begi-belarrietan munstroen existentzia ukatu ahal izateko.

308

Ez dago zertan lilurak sortu. XVIII. mendeko Independentzia iparramerikaneko gena europar klase ertainarentzat ordara-deia izan zen bezala, gerra zibil iparramerikarra Europako langile-klasearentzat izan da. Ingalaterran, prozesu iraultzailea eskuez uki daiteke. Halako puntu jakin batean eragina izango du kontinentean. Eta han forma brutalagoak edo gizatianagoak hartuko ditu, langile-klasearen beraren garapen-graduaren arabera. Zio garaiagoak alde batera utzirik, gaur egun menderatzaileak diren klaseei haien interes propioenek legez kontrolagarriak diren eragozpen guztiak kentzeko diktatzen diete langile-klasearen garapenerako. Ni honegatik luzatu naiz hainbeste fabrikalegedia ingelesaren historia, edukia eta emaitzei buruzko liburuki honetan. Nazio batek ikasi dezake eta behar du besteetatik. Nahiz eta gizarte batek bere mugimenduaren aztarna aurkitu —eta obra honen azken xedea gizarte modernoaren mugimendu-lege ekonomikoa agerian jartzea da—, ezin ditu haren garapen-fase naturalen ginetik jauzi egin ezta dekretuz ezabatu ere. Baina erditze-minak laburtu eta bigun ditzake.

Hitz batzuk balizko interpretazio faltsuak saihesteko. Kapitalisten eta lurjabeen irudiak ez ditut kolore arrosaz marraztu. Baina hemen pertsonen kategoria ekonomikoen pertsonifikazio gisa bakarrik hitz egiten da, klase-harreman eta-interes determinatu batzuen eroale gisa. Nire ikuspuntuak, zeinak fokatzen baitu

gizartearen erakuntza ekonomikoaren garapena prozesu historiko-natural gisa, beste edozeinek baino gutxiago egin dezake norbanakoa harreman batzuen erantzule, zeinen produktu baita sozialki, nahiz eta subjektiboki haien oso gainetik jartzeko gai izan.

Ekonomia politikoaren alorrean, ikerketa zientifiko askeak gainerako alorretan baino etsai gehiagorekin topo egiten du. Tratatzen duen materialaren izaera bereziak haren kontra altxarazten ditu eta borroka-zelaira eramaten ditu giza bihotzeko grinarik bizienak, ziztrinenak eta gorrotagarrienak: interes pribatuaren furiak. Ingalaterrako goi-elizak, esaterako, lehenago barkatzen du bere 39 artikuluetako 38ren aurkako eraso bat bere diru-sarreraren 1/39aren aurka baino. Gaur egun, ateismoa bera ere *culpa levis* da, jabetzaren harreman tradizionalen kritikarekin erkatuta. Hala ere, hemen aitortu beharra dago aurrerapauso bat eman dela. Ohar gakizkion, adibidez, azken asteotan *Correspondence with Her Majesty's Missions Abroad, regarding Industrial Questions and Trade Unions* izenburuarekin argitaratutako Liburu Urdinari. Atzerrian Ingalaterrako Koroaren ordezkariak direnek akiakularik gabe aurkezten dute hemen Alemanian, Frantzian, hitz batean, europar kontinenteko kulturadun estatu guztietan Ingalaterran bezain sentigarria eta ezinbestekoa dela kapitala eta lanaren arteko harremanen eraldatze erradikal bat. Aldi berean, Ozeano Atlantikoaz bestaldean, Wade jaunak, Ipar Amerikako Estatu Batuen presidentordeak jendaurreko mitinetan aitortzen zuen, esklabotza abolitu ondoren kapitala eta lurraren gaineko jabetza-harremanen eraldakuntza sartu zela gaizerrendan! Aldien zeinuak dira horiek purpurazko mantuek ez sotana beltzek ezkuta ezin ditzaketenak. Ez dute esan nahi bihar mirariak gertatuko direnik. Erakusten dute, klase menderatzaileetan beraietan susmoa nabaritzen dela gaur eguneko gizartea ez dela kristal zurrun bat, baizik eraldatzeko gai den eta etengabeko eraldakuntzan dagoen organismo bat.

309

Obra honetako bigarren liburukiak tratatuko ditu kapitalaren zirkulazio-prozesua (II. liburua) eta prozesuaren alderdiak, oro har, (III. liburua); hirugarren eta azkenak (IV liburua) teoriaren historia.

Ongi etorri edozein judizio kritiko zientifiko. Iritzi publikoa deritzonaren aurreiritzien aurrean, zeinari ez baitiot inoiz amore eman, Florentziar handiaren leloa beti baliozkotzat jotzen dut:

*'Segui il tuo corso, e lascia dir le genti'.*

Londres, 1867ko uztailaren 25a

Karl Marx

### *I. Kapitulua. Merkantzia. 1, 2 eta 4 atalak*

*1) Merkantziaren bi faktoreak: erabilera-balioa eta balioa (balio-substantzia, balio-magnitueda)*

Gizarteen aberastasuna, zeinetan menderatzen baitu produkzio-modu kapitalistak «merkantzia-bilduma eskerga»<sup>2</sup> agertzen da, eta merkantzia indibiduala aberastasun horren forma elemental gisa. Gure ikerketa, beraz, merkantziaren analisi gisa hasten da.

Merkantzia, lehenik, kanpo-objektu bat da, gauza bat, zeinak bere propietateen bidez edozein eratako giza premia asetzen baititu. Premia horien izaera, adibidez, urdailean edo fantasian sortzea, ez du ezertan aldatzen gauza.<sup>3</sup> Hemen ez da tratatzen gauza horrek nola asetzen duen giza premia: bitartegabe bizi-bitarteko gisa egiten duen, hau da, gozamenaren objektu gisa, edo itzulinguruz, produkzio-bitarteko gisa.

310

Gauza baliagarri oro, hala nola, burdina, papera eta abar, ikuspuntu bikoitzetik kontsideratu behar da, nolakotasunaren eta kantitatearen arabera. Gauza horietako bakoitza propietate askoren osotasun bat da eta, beraz, alderdi desberdinen arabera izan daiteke baliagarria. Alderdi desberdin horiek eta, ondorioz, gauzak erabiltzeko modu askotarikoak aurkitzea egitate historiko bat da.<sup>4</sup> Gauza bera gertatzen da neurri sozialak aurkitzearekin gauza baliagarrien lantitatea adierazteko. Batetik, merkantzia-neurrien desberdintasuna, neurtu beharreko objektuen izaera desberdinetik sortzen da, eta besterik, konbentziotik.

Gauza baten baliagarritasunak erabilera-balio bihurtzen du hura.<sup>5</sup> Baina baliagarritasun hori ez da kulunkatzen airean. Merkantziaren gorputzaren propietateek baldintzatua, ez da haiek gabe existitzen. Merkantziaren gorputza bera, hala nola burdina, garia, diamantea, eta abar, erabilera-balio edo ondasun bat da. Horren izaera hori ez dago haren erabilera-propietateez jabetzea gizakiari lan asko edo gutxi kostatzearen baitan. Erabilera-balioak kontsideratzean haien izaera determinatu kuantitatiboa aurreuposatzen da beti, hala nola: dozena bat erloju, kana bat mihise, tona bat burdina, eta abar. Merkantzien erabilera-balioek diziplina berezi baterako, merkantziologiarako gaia hornitzen dute.<sup>6</sup> Erabilera-balioa erabileran edo kontsumoan bakanik egikaritzen da. Erabilera-balioek aberastasunaren eduki materiala eratzen dute, zeinahi delarik ere horren forma soziala. Kontsideratuko dugun gizarte-forman, truke-balioaren eroale materialak dira aldi berean.

Lehenik, truke-balioa harreman kuantitatibo gisa aurkezten da, mota bateko erabilera-balioak beste mota bateko erabilera-balioez trukatzaren diren proportzioan,

---

<sup>2</sup> Karl Marx, *Zur Kritik der Politischen Ökonomie*, Berlin, 1859, 3 or.

<sup>3</sup> 'Desirak gogoia premia inplikatzan du; gogamenaren apetitua da, gorputzarentzat gosea bezain naturala dena... (Gauzen) kopuru handienak hartzen du bere balioa gogamenaren gogoak hornitzetik' (Nicholas Barbon, *A Discourse on Coining the New Money Lighter*. In *Answer to Mr Locke's Considerations etc.*, London, 1696, 2,3 orr.

<sup>4</sup> 'Gauzek bertute intrintsekoa dute' (hau da Barbonentzat erabilera-balioarentzako termino berezia) 'zeinak toki guzietan bertute bera baitauka; imanak burdina erakartzeko bezalakoa' (op. cit., 6. or). Burdina erakartzeko imanaren propietatea soilik bihurtu zen erabilgarri polaritate magnetikoaren aurkikuntzara gidatu zuenean bakarrik.

<sup>5</sup> 'Edozeren balio naturala datza beharrak asetzeko haren egokitasunean, edo giza bizitzako komenientziei zerbitzatzekoan' (John Locke, *Some Considerations on the Consequences of the Lowering on Interest* (1691), in *Works*, London, 1777, 2. Libkia., 28 or.). Hamazazpigarren mendeko idazle ingelesengan oraindik sarritan aurkitzen dugu 'worth' erabilera-balio gisa erabilia eta 'value' truke-balio gisa. Hori erabat ados dago hizkuntzaren espirituarekin, zeinak hitz teutoniko bat erabili nahi izaten baitu gauza errearentzat, eta hitz erromantze bat haren erreflexiorako.

<sup>6</sup> Gizarte burgesean lege-fikzioak nagusiarazten du pertsona bakoitzak, erosle gisa, merkantzien ezagutza entziklopedikoa duela.

etengabe denbora eta lekuaren arabera modifikatzen den harreman bat bezala.<sup>7</sup> Truke-balioak, badirudi, bada, zerbait kontingentea dela eta erlatibo hutsa, eta merkantziarekiko trukebalio inmanente, barnekoa (*valeur inirinsèque*), beraz *coniradictio in adjecio* bat.<sup>8</sup> Hurbilagotik azter dezagun gaia.

Merkantzia jakin bat, quarter bat gari, adibidez, x bota-betunez, y zetaz, edo y unez trukutzen da. Hitz batean, beste merkantzia batzuek trukutzen da proportziorik desberdinetan. Beraz, gariak truke-balio bat baino gehiago ditu, bakarraren orde. Baina x bota-betun, y zeta, z urre, etab., bakoitzak quarter bat gariren balioa ordezkatzeko du. Beraz, x bota-betunek, y zetak, z urrek, eta abarrek, truke-balio gisa, elkarrekiko ordezkagarri izan behar dute edo magnitude berekoak. Hortik dator lehenik: merkantzia beraren baliozko truke-balioek berdintasun bat adierazten dute. Bigarrenik, ordea, truke-balioa horretatik bereizgarria den adierazpen-modu bat, «agerpen-forma» bat bakanik izan daiteke.

311

Har ditzagun orain bi merkantzia, garia eta burdina, adibidez. Zeinahi delarik ere horien truke-harremana, beti ordezkari daiteke ekuazio batez, zeinean gari kantitate jakin bat berdintzen baita burdina kantitate batekin, adibidez, quarter bat gari = x kintal burdina. Zer esan nahi du ekuazio horrek? Esan nahi du magnitude identikoko elementu komun bat existitzen dela bi gauza desberdinetan, quarter bat garitan eta era berean kintal bat burdinatan. Biak dira, beraz, hirugarren batekiko berdinak, zeina bere honetan ez baita ez bata eta ez bestea. Horietako bakoitzak, truke-balioari dagokionez, hirugarren horretara murrizgarria izan behar du.

Adibide geometriko sinple batek argituko du hori. Figura lerrozuzen guztien azalera determinatu eta erkatzeko triangulutan deskonposatzen ditugu. Gero triangulua bera murrizten da bere figura ikuskorrekiko adierazpen zeharo desberdin batera: basearen eta altueraren emaitzaren erdia. Era berean merkantzien truke-balioak elementu komun batera murriztu behar dira, zeinen kantitate handiago edo txikiago bat ordezkatzeko baitu.

Elementu komuna ezin daiteke izan merkantziaren propietate geometriko, fisiko, kimiko edo naturako beste bat izan. Horren propietate gorputzezkoak kontuan hartzen dira bakarrik baliagarri diren heinean, beraz, truke-balio gisa. Baina, bestalde, horien erabilera-balioen abstrakzioa nabarmen ezaugarritzen du merkantzien truke-harremanak. Horren barruan, erabilera-balio batek beste batek adina balio du, baina dagokion proportzioan presente dagoen heinean. Edo, Barbon zaharrak dioenez: «Merkantzia mota bat bestea bezain ona da, baldin eta haren truke-balioa berdina bada. Ez da existitzen desberdintasunik edo bereizgarritasunik truke-balio bereko gauzen artean.»<sup>9</sup> Erabilera-balio gisa, merkantziak, ezer baino lehenago, kalitate desberdinekoak dira; truke-balio gisa kantitate desberdinekoak bakarrik izan daitezke, eta ez dute, beraz, erabilera-balioaren atomorik ere.

312

Alabaina, merkantzien gorputzaren erabilera-balioa alde batera uzten badugu, propietate bakar bat geratuko zaie: lanaren produktu izatearena. Guztiarekin,

<sup>7</sup> 'Balioa datza gauza baten eta beste baten truke-harremanean, produktu baten kopuru jakin baten eta beste baten kopuru jakin baten artean' (Le Trosne, *De Tinteret social*, in *Physiocrates*, ed. Daire, Paris, 1846,889 or.).

<sup>8</sup> 'Ezerk ezin du balio intrintsekorik izan' (N. Barbon, op. cit., 6. Or.); edo Butlerrek dioenez: 'Gauza baten balioa da hark ekarriko duen adinakoa'.

<sup>9</sup> N. Barbon, op. cit., 53 eta 7 orr.



lanaren produktua ere eraldatu egin zaigu esku artean. Horren erabilera-balioa abstraitzen badugu, hura erabilera-balio egiten duten osagai eta gorputz-formak ere abstraitzen ditugu. Hori ez da jadanik mahai bat edo etxe bat edo hari bat edo beste edozer gauza baliagarri. Horren propietate sentigarri guztiak ezabatu egin dira. Jadanik ez da zurginaren edo igeltseroaren edo irulearen edo beste edozein lan produktibo determinaturen produktua. Lanaren produktuen izaera baliagarriarekin haietan ordezkaturiko lanen izaera baliagarria desagertu egiten da, desagertu egiten dira lan horien forma desberdin konkretuak; jadanik ez dira bereizten, baizik eta denak giza lan berdineran murrizten dira, giza lan abstraktura.

Azter dezagun orain lan-produktuen hondarra. Ez da haietaz ezer geratu mamuzko objektibitate bera izan ezik, giza lan bereizigabearen jelatina hutsa, hau da, gizaz lanaren indar-gastuarena hura gastatu zen forma kontsideratu gabe. Gauza horiek aurkezten dute bakarrik horien produkzioan laneko giza indarra erabili dela, giza lana metatu zela. Komunak zaizkien substantzia sozialaren kristal gisa, balioak dira —merkantzia-balioak—. Merkantzien arteko truke-harremanean bertan agertu zitzaigun horien truke-balioa horien erabilera-balioekiko zeharo independentea dena bezala. Gero errealki abstraitzen bada laneko produktuek duten erabilera-balioa, horien balioa lortzen da, determinatu berria den bezala. Truke-balioan harremanean edo merkantzien trukebalioan agertzen den zerbait komun hori, horien balioa da, beraz. Ikerketaren aurrerabideak berriz ere truke-baliora eramango gaitu balioaren beharrezko adierazpen edo agerpen-formara bezala, zeina, hala ere, forma honetaz independente gisa aztertu behar baita.

Erabilera-balio batek edo ondasun batek, beraz, bakanik du balioa giza lan abstraktua hartan objektibaturik edo materializaturik dagoelako. Nola neurtu, orduan, haren balioaren magnitudea? Hartan dagoen «substantzia balio-sortzailea»ren kantitatez —lan kantitatez—. Lan kantitatea bera horren iraupenez neurtzen da eta lan-denborak, bestalde, bere neurri-txantiloia denbora-frakzio determinatutan dauka, hala nola orduan, egunean, eta abanean.

313

Balirudike merkantzia baten balioa haren produkzioan gastatutako lan kantitatez determinatzen bada, zenbat eta gizaki bat nagiagoa edo baldarragoa izan hainbat baliotsuagoa izango litzatekeela haren merkantzia, zeren hark hainbat denbora gehiago beharko bailuke hura prestatzeko. Guztiarekin ere, balioaren substantzia sortzen duen lana giza lan desberdindugabea da, giza lanindar beraren gastua. Gizarteko lanindar osoak, merkantzien munduko balioetan ordezkatuak, giza lanindar bakar eta beraren balioa du hemen, nahiz eta lanindar banakoen indar zenbatuezinez osatua izan. Lanindar banako horietako bakoitza besteak bezalako giza lanindar bera da, batez besteko lan sozialaren indar-izaera duen eta batez besteko lan sozialaren indar hori bezala obratzen duen heinean, hau da, merkantzia baten produkzioan, batezbeste beharrezkoa den lan-denbora, edo sozialki beharrezkoa den lan-denbora bakanik erabiltzen duen heinean. Sozialki beharrezkoa den lan-denbora edozein erabilera-balio produzitzeko behar dena da, gizarte batean indarrean dauden produkzio-baldintza normaletan eta lan-trebetasun eta —intentsitatearen gizarte maila batez bestekoarekin. Lurrinezko ehundegia Ingalaterran sartu eta gero, adibidez, aurretik baino lanaren erdia bakarrik aski izan zen gutxi-asko hari kantitate jakin bat ehun bihurtzeko. Eraldaketa hori lortzeko, eskuzko ehule ingelesak lehengo lan-denbora bera zehazki erabili behar zuen, baina

haren lan-ordu banakoaren produktuak lan sozialaren orduerdi bakarrik ordezkatzzen zuen, eta haren balioa urritu egin zen, beraz, lehen zeukanaren erdira.

Sozialki beharrezkoa den lan kantitatea bakanik da, beraz, edo sozialki beharrezkoa den lan-denbora erabilera-balio baten produkzioarako, honen balio-magnitudea determinatzen duena.<sup>10</sup> Merkantzia bakoitza hemen, oro har, haren motako batez besteko aletzat hartzen da.<sup>11</sup> Beraz, lan kantitate berdinak dituzten merkantziak, edo lan-denbora beraz produzi daitezkeenek balio-magnitude bera dute. Merkantzia baten balioa beste baten balioarekiko da bataren produkzioarako beharrezkoa den lan-denbora bezala bestearen produkzioarako beharrezko lan-denborarekiko dena. «Balio diren heinean, merkantzia guztiak dira *lan-denbora solidoiuaren* neurri determinatu bat bakanik.»<sup>12</sup>

Merkantzia baten balio-magnitudea, beraz, iraunkor geratuko litzateke haren produkzioarako beharrezko lan-denbora ere iraunkor geratuko balitz. Baina hori aldatu egiten da lanaren indar produktiboko aldaketa ororekin. Lanaren indar produktiboa ingurabarugarik determinatzen dute, besteak beste, langilearen trebetasunaren batez besteko mailak, zientzia eta haren aplikazio teknologikoak aurkitzen diren garapen-estadioak, produkzio-prozesuaren koordinazioa sozialak, produkzio-bitartekoen eskalak eta eraginkortasunak, baldintza naturalek.

314

Lan kantitate berak, adibidez, 8 bushel gari produzitzen ditu urte on batean, 4 urte txar batean. Lan-kalitate berak metal gehiago produziten du meatze aberatsetan pobreetan baino, etab. Diamanteak gutxitan agertzen dira lur-azalean, eta hortik dator horiek aurkitzea asko kostatzen dela, batezbeste. Beraz, bolumen txikian lan asko ordezkatzzen dute. Jacobek zalantzan jartzen du urreak bere balio osoa inoiz kitatu duenik. Hori oraindik ziurragoa da diamanteen kasuan. Eschwegeren arabera, laurogei urtetan brasildar diamante-aztarnategietatik ateratako guztia artean iritsi gabe zegoen, 1823an, kanabera edo kafe-landadi brasildarretan 18 hilabetetan lortutako batez besteko produktuaren prezioa berdintzera, nahiz eta askoz lan gehiago eta, ondorioz, balio gehiago ordezkatzzen zuen. Meatze produktiboagoak edukiz, lan kantitate bera diamante gehiagotan ordezkaturiko litzateke, eta horien balioa unitu egingo litzateke. Eta lan gutxirekin ikatza diamante bihurtzea lortuko balitz, horiek adreiluak baino gutxiago balio izatera irits litezke. Oro har: zenbat eta lanaren indar produktiboa handiagoa izan, hainbat txikiagoa izango da artikulu baten produkzioarako behar den lan-denbora, hainbat txikiagoa hartan kristalduriko lan-masa, hainbat txikiagoa haren balioa. Alderantziz, zenbat eta txikiagoa izan lanaren indar produktiboa, hainbat handiagoa izango da artikulu baten produkzioarako beharrezko lan-denbora, hainbat handiagoa haren balioa. Beraz, merkantzia baten balio magnitudea aldatu egiten da hartan egikaritutako lan kantitatearekiko zuzenean eta lan horren indar produktiboarekiko alderantzian. Gauza bat izan daiteke erabilera-balio, balio izan gabe. Hori da kasua haren gizakiarentzako balioa lanak bitartekotua izan denean. Hori gertatzen da airea, lur

<sup>10</sup> 'Haien balioa' (bizitzarako beharrezkoena) 'bata besteaz trukatzzen denean, derrigorrean behar den eta haiek sortzean eskuarki hartzen den lanaren kantitateak arautzen du' (*Some Thoughts on the Interest of Money in General, and Particularly in the Publick Funds*, London, 36, 37 orr.). Hemezortzigarren mendeko obra anonimo ohargarri horek ez dauka datarik. Hala ere, edukitik argi dago George II.aren erreinuan agertu zela, 1739 edo 1740 aldera.

<sup>11</sup> 'Zehatz hitz eginez, mota bereko produktu guztiak masa bakar bat eratzen dute, eta haien prezioa orokorrean determinaturik dago eta inguruabar partikularrekiko inolako kontsideraziorik gabe' (Le Trosne, op. cit., 893 or.).

<sup>12</sup> Karl Marx, op. cit.

birjina, zelai natural eta berez datozen basoekin eta abanekin. Gauza bat baliagarria eta giza lanaren produktu izan daiteke, eta ez izan merkantzia. Bere produktuaren bidez bere behar propio bat asetzen duenak erabilera-balio bat sortzen du, baina ez merkantzia bat. Merkantzia bat sortzeko, ez da erabilera-balioa bakanik sortu behar, baizik besteentzako erabilera-balioak, erabilera-balio sozialak [Eta ez besteentzat bakarrik. Erdi Aroko nekazariak jaun feudalarentzat zerga-garia sortzen zuen, eta hamarrena apaizarentzat. Baina ez zerga-garia eta ez hamarrena bihurtzen ziren merkantzia besteentzat produziturikoak izateagatik. Merkantzia bihurtzeko merkantziak trukearen bidez erabilera balio bezala erabiliko duenari transferitua izan behar du]. Azkenik, ezein gauza ezin da izan balio erabilerarako objektu bat ez bada. Ezbaliagarria bada, ez baliagarria izango da hartan dagoen lana ere; ez da lan bezala kontatuko eta ez da izango inolako balio.

315

## *2. Merkantzietan ordezkaturiko lanaren izaera bikoitza*

Hasiera batean, merkantzia zerbait aldebiko gisa agertu zitzaigun: erabilera-balio eta truke-balio gisa. Geroago agertu da lanak, balioan adierazia egotean, jadanik ez dituela ezaugarri berak, zeinari erabilera-balioen sortzaile gisa baitagozkio. Lehena izan naiz merkantzian dagoen lanaren izaera aldebiko hori kritikoki aurkezten.<sup>13</sup> Puntu hori ekonomia politikoaren ulerkuntzarako ardatza denez gero, hemen xeheago argitu behar dugu.

Har ditzagun bi merkantzia, adibidez, jaka bat eta 10 kana mihise. Lehenak bigarrenaren bi halako balio du, beraz baldin 10 kana mihise = W, jaka = 2 W.

Jaka erabilera-balio bat da, behar berezi bat asetzen duena. Hori produzitzeko, jarduera produktiboaren mota determinatu bat behar da. Hori haren xedeak, eragiketa-moduak, objektuak, bitartekoak eta emaitzak determinatzen dute. Lan baliagarria deitzen diogu laburki lanari, zeinaren baliagarritasuna honela haren produktuaren erabilera-balioan ordezkatzeko baita, edo haren produktua erabilera-balio bat baita. Ikuspuntu honetatik, lana beti haren efektu baliagarriarekiko harremanean kontsideratzen da beti.

Jaka eta mihisea balio-erabilera kualitatiboki desberdinak diren bezala, kualitatiboki desberdinak dira lanak, zeinen bidez izatera iristen baitira: jostunarena eta ehulearena. Gauza horiek erabilera-balio kualitatiboki desberdinak izango ez balira, eta ondorioz lan-produktu kualitatiboki desberdinak, inola ezingo liriateke merkantzia gisa kontrajarri. Jaka bat ez da jaka batez trukatzeko, erabilera-balio bat erabilera-balio beraz.

Erabilera-balio edo merkantzien gorputz desberdinen osotasunaren bitartez agerian jartzen da era berean askotarikoak diren lan baliagarrien osotasun bat, espezie, mota, familia, azpimotaldaera desberdineko lan baliagarriena —lanaren banaketa sozial bat—. Hori existentzia-baldintza bat da merkantzia-produkzioarako, nahiz eta merkantzia-produkzioa ez izan, alderantziz, baldintza lan-banaketa sozialaren existentzia-baldintza. Erkidego paleoindiarrean lana sozialki banaturik zegoen, produktuak merkantzia bihurtu gabe. Edo, adibide hurbilagoko bat jartzearren,

<sup>13</sup> Karl Marx, op. cit., 12, 13 or., eta passim.

fabrika bakoitzean lana sistematikoki banaturik dago, baina banaketa hori ez dago bitartekoturik langileek beren produktu banakoak trukatzearen bidez. Lan pribatu autonomoen eta elkarrekiko independenteen produktuek bakarrik egiten diote elkarri aurre merkantzia gisa.

316

Ikusi da, beraz, merkantzia bakoitzaren erabilera-balioak jarduera produktibo determinatu bat daukala bere baitan edo lan baliagarria-xede baterako. Erabilera-balioak ezin dira merkantzia gisa elkarren aurrean jarri, baldin eta beren baitan ez badituzte lan baliagarri kualitatiboki desberdinak. Gizarte batean, zeinen produktuek, oro har, merkantzia-forma hartzen baitute, hau da, merkantzia-produzitzaileen gizarte batean, lan baliagarrien arteko desberdintasun kualitatibo hori sistema kide askotariko izateraino, lanaren banaketa sozial bat garatzen baita, zeinak bata besteekiko independente burutzen baitira, produzitzaile autonomoen zeregin pribatu gisa.

Gainerakoan jakari berdin zaio jostunak edo jostunaren bezeroak erabiltzen duen. Bi kasuetan erabilera-balio bezala obratzen du. Era berean, jakaren eta produzitzen duen lanaren arteko harremana ere ez da aldatzen, bere baitan eta berarentzat, jostuntza profesio berezi, lanaren banaketa sozialeko kide autonomia bihurtzen delako. Gizakiak milaka urtetan egin zuen bere jantzia, jantzeko beharrak honetara behartzen zuen tokian, gizaki jostun bihurtu baino lehen. Baina jakaren, mihisearen, naturaren produktu espontaneo ez den aberastasun materialeko elementu oren existentzia derrigorrean egongo da bitartekoturik jarduera produktibo berezi batez, xede baterako, zeinak asimilatzen baititu gizakiaren behar partikularretara material natural partikularrak. Erabilera-balioen sortzaile gisa, lan baliagarri gisa, bada, lana gizarte-forma guztiekiko gizakiaren existentzia-baldintza independentea da, natur behartasun betierekoa, gizakiaren eta naturaren arteko metabolismoa, ondorioz, giza bizitza bitartekotzeko.

Erabilera-balioak —jaka, mihisea, etab.— hitz batean, merkantzien gorputzak bi elementuren konbinazioak dira: material naturalarena eta lanarena. Lan baliagarri desberdin guztien batura osoaren abstrakzioa egiten bada, jakan, mihisean eta abarretan sartuta daudenena, substrato material bat geratuko da beti, zeinaren existentzia naturari zor baitzaio eta ez giza esku-hartzeari. Haren produkzioan, gizakiak naturak berak bezala bakarrik jardun dezake, hau da, materialen forma aldatuz bakarrik.<sup>14</sup> Areago, eraldatze-lan horretan bertan indar naturalek etengabe laguntzen diote. Lana, beraz, ez da produzitzen dituen erabilera-balioen, aberastasun materialaren iturri bakarra. Lana da honen aita, William Pettyk dioenez, eta lurra, haren ama.

317

Pasa gaitezen merkantziatik, erabilera-objektu den heinean, merkantzia-baliora.

---

<sup>14</sup> Unibertsoko fenomeno guztiak, gizakiaren eskuz edo fisikaren lege unibertsalez produzituak, ez dira kontzebitu behar sortze-egintza gisa baizik materiaren berrantolatze gisa bakarrik. Konposizioa eta bereizkuntza dira giza gogamenak aurkitutako elementu bakarrak birsortzearen nozioa analizatzen duenean; berdin gertatzen da balioaren birsortzearekin ere (erabilera-balioa, nahiz eta Verri bera, fisiokraten aurkako polemika horretan, ez egon oso ziur zer balio mota aipatzen ari den) 'eta aberastasuna, dela lurra, dela airea edo dela ura, ale bihurtzen dira soroetan, edo intsektu baten sekrezioak zeta bihurtzen dira gizakiaren eskuz, edo metal zatitxo batzuk elkarrekin antolatzen dira ordulari errepikari bat eratzeko' (Pietro Verri, *Meditazioni sulla economia politica* — 1771n lehen aldiz inprimatua-Italiar ekonomialarien Custodiren argitalpenean, *Parte moderna*, 15 libkia., 21, 22 or.).

Gure kalkuluaren arabera jakak mihiseak baino bi halako gehiago balio zituen. Baina hori desberdintasun kuantitatibo bat besterik ez da, eta oraingoz ez zaigu interesatzen. Gogora dezagun, bada, jaka batek 10 kana mihisek baino bi halako gehiago balio baditu, 20 kana mihiseren balio-magnitudea jaka batena adinako izango dela. Balio gisa jaka eta mihisea substantzia bereko gauzak dira, lan mota beraren adierazpen objektiboak. Baina jostunaren eta ehulearen lana kualitatiboki desberdinak dira. Badira egoera-sozialak, hala ere, zeinetan gizaki berak txandaka jostun eta ehule gisa lan egiten baitu, horietan bi lanmodu desberdin horiek, bada, norbanako berak egiten duen lanaren aldaerak modifikazioak baizik ez dira; ez dira iritsi norbanako desberdinen funtzio berezi, finko, izatera, era berean, zehazki, gure jostunak gaur egiten duen jaka eta bihar egingo dituen frakak lan banako beraren aldaerak bakarrik diren bezala. Begirada batek erakusten digu, gainera, gure gizarte kapitalista, eta lanaren eskaerak ageri duen orientazio aldagarriaren arabera, giza lanaren portzio jakin bat txandaka eskaintzen dela jostuntza-lan edo ehungintza-lan gisa. Lanaren forma-aldaketa hori segur aski ez da gertatuko frikziorik gabe, baina denigorrean obratzen da. Jarduera produktiboaren determinatutasuna, eta ondorioz, lanaren izaera baliagarria alde batera uzten bada, horretan geratzen dena giza lanaren indar-gastu bat da. Jarduera produktibo kualitatiboki desberdinak badira ere, jostuntza eta ehungintza burmuinaren, muskuluen, nerbioaren, eskuaren eta abarren giza produkziogastua da, eta ildo horretatik bata eta bestea giza lana dira. Giza lanindarra gastatzeko bi forma desberdin baizik ez dira. Beharrezko da, noski, giza lanindarra, honela edo hala gastatzeko, garapen handiago edo txikiagoa lortu izana. Baina merkantzia-balioak giza lan huts eta sinplea ordezkatzeko, giza lanaren gastua, oro har. Gizarte burgesak, oro har, edo banku-jabe batek zeregin garrantzitsu bat egiten duen bezala, eta gizakiak besterik gabe, aldiz, zeregin oso ziztrin bat<sup>15</sup>, gauza bera gertatzen da hor giza lanarekin.

318

Lanindar sinplearen gastua da hau, zeina, batezbeste, gizaki arrunt orok, garapen berezirik gabe, bere gorputz-organismoan baitauka. *Batez besteko lan sinplearen* izaera aldatu egiten da, noski, herrialde eta kultur aro desberdinen arabera, baina emana dago gizarte determinatu baterako. Kontsideratzen da lanik konplexuena lan simple *potentziatu* edo areago *biderkatuaren* berdina dela bakarrik, halako moldez, non lan konplexuaren kantitate txiki bat lan sinplearen kantitate handiago baten baliokidea baita. Esperientziak erakusten du etengabe obratzen dena murrizte hori. Nahiz eta merkantzia bat lan konplexuagoaren produktua izan haren balioak lan sinplearen produktuarekin berdintzen du, eta, ondorioz, lan sinplearen kantitate determinatu bat bakarrik ordezkatzeko du.<sup>16</sup> Lan mota desberdinak lan sinplera murriztuak diren proportzio desberdinak haren neurri-unitatera bezala, prozesu sozial baten bitartez ezartzen dira, zeina produzitzaileen bizkar gertatzen baita eta zeina horiei traizio baten emaitza iruditzen baitzaie. Sinpletzeko, aurrerantzean lanindar mota oro zuzenean lanindar sinpletzat kontsideratuko dugu, eta horrekin murriztearen eragozpena besterik ez dugu aurreztuko.

<sup>15</sup> Cf. Hegel, *Philosophie des Rechts*, Berlin, 1840, 250 or, 190 para.

<sup>16</sup> Irakurleak ohartu behar luke hemen ez garela ari langileak hartzen dituen soldataz edo balioaz (adibidez) lanegun bati dagokionaz, baizik merkantziaren balioaz, zeinean haren laneguna objektibatzen baita. Gure aurkezpenaren estadio honetan, soldata kategoria ez da inola ere existitzen.

Beraz, jaka eta mihisearen balioetan haien erabilera-balioen arteko aldea abstraitzen den bezala, gauza bera gertatzen da balio horietan ordezkaturik dauden langileen kasuan, lan horietako forma baliagarrien arteko desberdintasunarekin: jostunaren eta ehulearen artean. Jaka eta mihisea erabilera-balioak oihala eta irunarekin egiten den xede batera zuzenduriko jarduera produktiboen konbinazioak diren bezala, eta, aldiz, jaka eta mihisea balioak lan-jelatina homogeen hutsa bakarrik diren bezala, balio horietan dauden lanek ere ez dute baliotasunik oihala eta irunarekiko beren harreman produktiboarengatik baizik eta giza lanindarraren gastu gisa. Jostuntza eta ehungintzako lana jaka eta mihisea erabilera-balioen elementu osagaiak dira horien nolakotasun desberdinei esker hain zuzen ere; jaka balioaren eta mihise balioaren substantzia dira haren nolakotasun espezifikoak abstraitzen den heinean, biek nolakotasun bera giza lanaren nolakotasuna duten heinean.

Jaka eta mihisea, ordea, ez dira balio orokorrak soilik, baizik magnitude determinatu baten balioak, eta gure hipotesiaren arabera jakak bi halako balio zituen 10 kana mihiserean aldean. Nondik dator horien balio-magnitudeen desberdintasuna? Mihiseak jakaren aldean lanaren erdia bakarrik bere baitan izatetik, halako moldez, non azken horren produkzioarako beharrezko izango baita bi halako lanindarra bi aldiz gehiagoko denboran gastatzea lehenaren produkzioarako baino.

319

Horregatik, baldin eta erabilera-balioari dagokionez merkantziaren baitako lanak kualitatiboki bakanik kontatzen bada, balio-magnitudeari dagokionez, kuantitatiboki bakarrik kontatzen du, eta hori giza lanera sinpleki murriztua izan da. Han, lanaren nola eta zer zen kontua, hemen zenbat, haren iraupena. Merkantzia baten balioaren magnitudeak haren baitan dagoen lan kantitatea bakarrik ordezkatzeko duenez gero, merkantziak, proportzio jakin batean, beti balio berdinak izango dira.

Aldatu gabe geratzen bada, adibidez, jaka baten produkzioarako beharrezko lan baliagarri guztien produkzio-indarra, jaken balio-magnitudea gehitu egingo da haren kantitate propioarekin. Baldin eta jaka batek  $x$  lanegun ordezkatzeko baditu, bi jakak  $2x$  ordezkatzeko dituzte, etab. Baina demagun jaka baten produkzioarako beharrezko lana bikoiztu egiten dela, edo erdira urritzen dela. Kasuetako lehenean jaka batek lehen bik adina balioko du; bigarrenean, jantzi horietako bik lehen bakanak balio zuen adina balioko dute nahiz eta bi kasuetan lehengo zerbitzu berak ematen dituen jakak eta hartan dagoen lan baliagarria beti bezala egikaritu izana. Baina aldatu egin da haren produkzioan gastatutako lan kantitatea.

Erabilera-balioaren kantitate handiagoa aberastasun material handiagoa izango da bere baitan eta berarentzat; bi jaka, bakana baino gehiago. Bi jakarekin bi gizaki jantz daitezke, jaka bakarrarekin gizaki bakarra soilik, etab. Guztiarekin ere, aberastasun materialaren masa hazkorrai haren balioaren murriztapen aldibereko bat egoki dakioko. Mugimendu kontrajarri hori lanaren izaera bialdekoetik dator. Produkzio-indarra, noski, lan baliagarriaren, konkretuaren produkzio-indarra da eta izatez denbora-epe jakin batean, xede batera zuzenduriko produkzio-jarduera baten eraginkortasun maila soilik determinatzen du. Horregatik, haren produkzio-indarraren gehitze edo murriztearen harreman zuzenean bihurtzen da lan baliagarria produkzio-iturri ugariago edo urriago. Aitzitik, bere baitan eta berarentzat, lanaren produkzio-indarreko aldaketa batek ezertan ez du afektatzen balioan ordezkaturiko lana. Lanaren produkzio-indarra lanak konkretuki hartutako forma baliagarriari dagokion zerbait denez gero, naturala da, forma baliagarri

konkretu hori abstraitu bezain laster, hark inolako eraginik ez izatea lanaren gain. Lan berak, bada, nahiz eta produkzio-indarra aldatu beti balio magnitude bera ematen du beti denbora-epe beretan. Baina denbora-epe berean kantitate desberdinetan ematen ditu erabilera-balioak: areago, produkzio-indarra gehitzen denean, gutxiago, unitzen denean. Produkzio-indarrean gertatzen den aldaketa bera eta zeinaren bitartez lana emankorrago bihurtzen baita, ondorioz, horrek emandako erabilera-balioen masa gehitzea eraginez, murriztu egiten du masa total gehitu honen balio magnitudea, masa horren produkzioarako beharrezko lan-denboraren batura laburtzen duen bakoitzeko. Eta alderantziz.

320

Lan oro, alde batetik, giza lanaren gastu bat da zentzu fisiologikoan, eta giza lan berdinaren, edo giza lan abstraktuaren baldintza horretan eratzen du merkantziaren balioa. Lan oro, bestalde, giza lanindarraren gastua da forma partikular eta xede batera zuzenduan, eta lan baliagarri konkretuaren baldintza horretan erabilera-balioak produzitzen ditu.<sup>17</sup>

#### 4. Merkantziaren izaera fetixista eta haren sekretua

Merkantzia bat lehen begiratuan gauza normal, arrunt agertzen da. Baina horren analisiak adierazten du oso gauza bihurria dela, sotilkeria metafisikoz eta apaindura teologikoz betea. Erabilera-balio den heinean, ez du ezer misteriotzurik bere baitan, baldin eta kontsideratzen badugu haren propietateen ikuspegitik giza beharrak asetzen dituela, edo propietate horiek giza lanaren produktu gisa kontserbatzen dituela. Argi eta garbi dago gizakiak, jarduera horren bitartez, naturako materialen formak aldatzen dituela halako moldez, non beretzat baliagarri izateko eran aldatzen dituen. Zuraren forma, esaterako, aldatu egiten da, hartaz mahai bat egiten bada. Guztiarekin ere mahaiak zura izaten jarraitzen du, gauza arrunt eta zentzumenezkoa. Baina merkantzia gisa agertzen den orduko, eraldatu egiten da sentiganiki zentzumenezkoaren gaineko gauza bihurtzen da. Ez da bakarrik bere hanken gainean zutik egoten, beste merkantzia guztien aurrean, haien buruan ere jartzen da, eta

---

<sup>17</sup> Frogatu ahal izateko 'lana bakarrik dela eredu azkena eta erreala, zeinaren bidez merkantzia guztien balioa garai eta toki guztietan kalkulatu eta erka baitaiteke, balio bera izan behar du langilearentzat. Haren osasun-, indar- eta jarduera-egoera arruntean; haren trebezia eta abilezia maila arruntean, haren erosotasun, haren askatasun, eta haren zoriontasun portzio bera ezarri behar du' (*Wealth of Nations* Bk I, Ch. 5 [1045 or.]). Alde batetik, Adam Smithek hor (baina ez toki guztietan) nahastu egiten du balioaren bere determinazioa merkantzien produkzioan gastaturiko lanaren kantitatearekin merkantzien balioen determinazioarekin lanaren balioaz, eta horregatik saiatzzen da frogatzen lan kantitate berak beti balio bera duela. Bestalde, susmo bat dauka, lana merkantzien balioan agertzen den bitartean, lanindarraren gastu bezala bakarrik kontatzen duela; baina gero berriz ere bere gastua atsedanaren, askatasunaren eta zoriontasunaren sakrifizio bezala bakarrik ikusten du, ez gizakiaren bizi-jarduera normal bezala ere. Jakina, soldatapeko langile modernoak dauka buruan. Adam Smithen aurreko anonimoa, 9. oharrean aipatua, askoz hurbilago dago jopuntutik hau dioenean: 'Gizaki batek bere burua enplegatu du bizitzarako beharrezkoa den hau lortzen... eta hari beste zerbait trukean ematen dionak ezin du egin kalkulu hoberik haren baliokide egokia denarena, erkatuz ez bada hari kosta zaiona beste hainbeste lan eta denbora: izan ere, hori gauza batean denbora jakin baterako gizaki baten lana trukatzea baizik ez dena, beste gizaki baten lana beste gauza batean denbora berean' (*Some Thoughts on the Interest of Money in General etc.*, 39 or.). [Engelsen oharra laugarren alemaniar argitalpenerako: ] Hizkuntza ingelesak bi hitz bereiziren jabe izatearen abantada du lanaren bi alderdi desberdin horietarako. Erabilera-balioak sortzen dituen eta kualitatiboki determinatua dena 'work' deitzen da 'labour' hitzari kontrajarriz; balioa sortzen duen lana eta kuantitatiboki soilik neurtzen denari 'labour' deitzen zaio, 'work' hitzari kontrajarra bezala.

haren zurezko burutik ideia bitxiak ere garatzen ditu, bere aukera askez dantzan hastea baino askoz miresgarriagoak.<sup>18</sup>

Merkantziaren izaera mistikoa ez dator haren erabilera-balioetik. Ez dator haren balio-determinazioen edukitik ere. Zeren, lehenik, nahiz eta lan baliagarriak edo jarduera produktiboak oso desberdinak izan, egia fisiologiko bat da, giza organismoaren funtzioak direla eta funtzio horiek guztiak, zeinahi dela ere, haien edukia eta haien forma, giza burmuin, nerbio, gihar, zentzumen-organo eta abarren gastua dela esentzialki. Bigarrenik, eta balio magnitudeak determinatzeko oinarri gisa balio duenarekiko, hau da, gastu horren iraupenarekiko edo lan kantitatearekiko, sentigarriki ere egingarria da haren nolakotasuna eta lan kantitatea bereiztea. Gizarte mota guztietan derrigorrean interesatu zitzaion gizakiari bizigaien produkzioak hartzen duen lan-denbora, nahiz eta interes hori ez izan iraunkorra garapen-estadio guztietan.<sup>19</sup> Azkenik, gizakiek elkarrentzat lan egiten duten bezain laster, haien lanak forma sozial bat ere hartzen du.

321

Nondik sortzen da, orduan, lan-produkzioaren izaera enigmatikoa, merkantzia-forma hartzen duen bezain laster? Bistan da forma horretatik bertatik. Giza lanen berdintasunak lan-produktuen balioaren objektibitate berdinen forma hartzen du; giza lanaren indargastuaren neurriak bere iraupenaren bidez lan-produktuek lortzen duten balio-magnitudearen forma hartzen du; azkenik, produzitzaileen arteko harremanek, zeinetan egikaritzen baitira haien lanen determinazio sozialak, lan-produktuen harreman sozial baten forma hartzen dute.

Merkantzia-formaren izaera misteriotsua datza soilik honek gizakien aurrean haien lan propioaren izaera soziala islatzean lan-produktuen beren izaera objektibo gisa, gauza horien propietate sozial natural gisa, eta, ondorioz, produzitzaileen eta lan osoaren artean bitarteko den harreman soziala islatzean ere bai, objektuen arteko harreman sozial gisa, produzitzaileez aparte bezala. *Quid pro quo* horren bitartez bihurtzen dira merkantzia lan-produktuak, gauza sentigarriki zentzumenezkoaren gaineko edo sozial gisa. Horrela, gauza baten argi-inpresioa begi-nerbioaren gainean ez da nerbio horren kitzikadura subjektibo gisa aurkezten, baizik begiaz kanpo kokaturiko gauza baten forma objektibo gisa. Baina ikustean argia proiektatzen da gauza batetik, kanpoko objektutik, beste batera, begira. Gauza fisikoen arteko harreman fisiko bat da. Aitzitik, merkantziaren formak eta forma hori ordezkatzeko den lan-produktuen arteko balio-harremanak ez dute batere zerikusirik horien izaera fisikoarekin, ezta izaera horretatik sortzen diren harremanekin ere, gauzen propioak direnekin. Hemen gizakientzat hartzen duen gauzen arteko forma fantasmagorikoa haien artean existitzen den harreman sozial determinatua besterik ez da. Horregatik analogia bat aurkitzeko mundu erlijiosoaren laino-eremura ihes egin behar dugu. Hor giza gogamenaren produktuek figura autonomoak dirudite, bizi propioz hornituak, elkarrekiko eta gizakiekiko harremanean. Gauza bera gertatzen da merkantzia-munduan giza eskuen produktuekin. Horri deitzen diot lan-produktuei

<sup>18</sup> Gogoratu behar da Txina eta mahaiak dantzan hasi zirela munduaren gainerakoa itxuraz geldituz zeuden bitartean —*pour encourager les autres*.

<sup>19</sup> Antzinako germaniarren artean lur-zati baten tamaina egun bateko lanaren arabera neurtzen zen; horregatik deritzen zitzaion akreari Tagwerk, Tagwanne (jurnale, edo terra jurnal, edo diornalis) Mannwerk, Mannskraft, Mannsmad, Mannshauet, etab. Ikusi Georg Ludwig von Maurer, *Einleitung zur Geschichte der Mark-, Hof-, usw. Verfassung*, Munich, 1854, 129 or. eta hh.



atxikitzen zaien fetitxismoa merkantzia gisa produzitu bezain laster, eta zeina honegatik merkantzia-produkzioetik bereizteazina baita.

322

Merkantzia-munduaren izaera fetitxista, aurreko analisiak dagoeneko erakutsi duenez, merkantziak produzitzen dituen lanaren izaera sozial berezitik sortzen da. Erabilera-objektuak merkantzia bihurtzen badira, hori da lan pribatuen produktuak, elkarrekiko independenteak direlako soilik. Lan pribatu horien konplexuak eratzen du lan sozial osoa. Produzitzailak ukipen sozialean sartzen ez direnez gero, harik eta beren lanaren produktuak trukatu arte, lan pribatu horien atributu bereziki sozialak ez dira agertzen truke horren markoan izan ezik. Edo bestela esateko, egitatez, lan pribatuak egikaritzen dira lan sozialaren atal gisa haien osotasunean soilik trukeak lan-produktuen artean ezartzen dituen harremanen bidez, eta horien bidez, produzitzailen artean. Horientzat, beraz, beren lan pribatuen arteko harreman sozialak agerian jartzen zaizkie diren bezala, esan nahi baita, ez harreman zuzenean sozial gisa pertsona beraien artean ezarri bezala, haien lanetan, baizik eta, alderantziz, pertsonen harreman material gisa eta gauzen harreman sozial gisa.

Lan-produktuek beren trukean bakarrik lortzen dute balio-objektibitate, sozialki erabakarra, haren erabilera-objektibitate berezia, sentigarriki desberdina. Lan-produktua gauza baliagarri eta balio-gauza etete hori praktikan egikaritzen da trukeak nahikoa hedadura eta munta lortu dituen trukeko gauza baliagarriak produzitzeko, eta horrenbestez, horien produkzioan bertan kontuan izaten da gauzen balio-izaera. Memento horretatik produzitzailen lan pribatuek benetan hartzen dute izaera sozial bikoitza. Alde batetik, lan baliagarri determinatu gisa, behar sozial determinatu bat ase behar dute eta honekin beren eraginkortasuna frogatu lan osoaren, lan-banaketa sozialak ezaugarritutako sistema naturalaren atal gisa. Bestalde, haien produzitzailen propioen behar askotarikoak bakarrik asetzen dituzte, lan pribatu partikular, baliagarri oro beste edozein lan pribatu baliagarri motarekin trukagarria den heinean, eta horregatik baliokide zaiolako. Lan *toio caelo* [erabat] desberdinen berdintasuna horien desberdintasun errealearen abstrakzio bat besterik ez da, izaera komunerako murriztapenean, zeinaren jabe baitira, giza lanindarraren gastu gisa, abstraktuki giza lan den heinean. Produzitzailen pribatuen burmuinak haien lan pribatuen izaera sozial bikoitz hori islatzen du mugimendu praktikoan agertzen diren formetan soilik, zeren, lan-produktuak baliagarria izan behar duen formaren pean soilik islatzen baitu, eta besteentzat izan hain zuzen ere; lan desberdinen arteko berdintasunaren izaera soziala, materialki gauza desberdin, lan-produktu horien balio-izaera komunaren formapean.

323

Ondorioz, gizakiek beren lan-produktuen balioak elkanen artean erlazionatzea ez da gertatzen gauza horiek giza lan homogeneoaren estalki material huts gisa bakarrik balio dutelako. Alderantzikoa da egia: beren produktu heterogeneoak balio gisa elkanen artean parekatzean, beren lan desberdinak giza lan gisa parekatzen dituzte elkanekiko. Ez dakite hori, baina egin egiten dute.<sup>20</sup> Balioak, ondorioz, ez darama idatzirik bekorian zer den. Aitzitik, balioak lan-produktu oro hieroglifiko sozial bihurtzen du. Aurrerago gizakiak hieroglifikoaren zentzua deszifratzen, beren

<sup>20</sup> Beraz, Galianik esan zuenean: 'Balioa bi pertsonaren arteko harremana da' ('La ricchezza e una ragione tra due persone') hau gehitu beharko zukeen: 'maskor material baten azpian gordetako harreman bat'. (Galiani, *Della Moneta*, 222 or., 3. Libkia., *Scrittori classici italiani di economia politica*, Parte Moderna, Milan, 1803 izenburua zeukan Custodiren bildumakoa.)

produktu sozial propioaren misterioa argitzen saiatzen dira, zeren erabilera-objektuak balio gisa determinatzea haien produktu soziala baita hizkuntza bezalaxe. Lan-produktuak, balioak diren neurrian, haien produkzioan gastatutako giza lanaren adierazpen soilak direlako geroko aurkikuntza zientifikoak aro bat markatzen du giza bilakaeraren historian, baina inondik ere ez du ezabatzen lanaren izaera sozialaren objektibitate-itxura. Produkzio-forma berezi horretarako bakarrik balio du horrek, merkantzia-produkzioarako, —hau da, lan pribatu independenteen izaera bereziki soziala haien berdintasunean datzala giza lan diren heinean, eta lan-produktuen balio-izaeraren forma hartzen duela—, aurkikuntza haren aurretik eta atzetik aurkezten da era berean behin betiko balio arekin merkantzia-produkzioa harremanetan murgildurik daudenen aurrean, airea bere elementuetan deskonposatzeak, zientziaren aldetik, aldatu gabe uzten duen bezala airearen forma gorputz fisiko baten forma den heinean.

324

Batez ere praktikan interesatzen zaiena merkantziak trukatzeko dituztenei nor bere produktuaz zenbat inoren produktu lortuko duten jakitea da; zer proportziotan, bada, trukatzeko diren produktuak. Proportzio horiek, heldzean, erabilerrako finkotasun sagaratu jakin bat lortzera iristen direnean, badirudi lan-produktuen izaerari zor diotela beren jatorria, halako moldez, non tona bat burdinak eta bi ontza unek gauza bera balio duten, libra bat urrek eta libra bat burdinak berdin pisatzen duten modura haien propietate fisikoak eta kimikoak desberdinak badira ere. Egitatean, lan-produktuek ageri duten balio-izaera sendotzen da praktikan balio-magnitude gisa egikaritzeko soilik. Magnitude horiek etengabe aldatzen dituzte, nahimenarekiko independenteki, trukatzailen aurreikuspenak edo egintzak. Mugimendu sozialak berak du haientzat gauzen mugimendu baten forma, zeinaren kontrolpean baitaude, haien kontrolatzaile izan beharrean. Erabat garaturiko merkantzia-produkzio bat behar da, esperientziatik bertatik sortu baino lehen, lan pribatuak —elkarrekiko independenteki burutuak baina aldeaskotako elkardependentsia bati menderatuak naturalki sortzen diren lan-banaketa sozialaren abar gisa— uneoro beren proportzio sozialeko neurrira murriztuak direlako ulerkuntza zientifikoa, zeren haien produktuen arteko truke-harreman zorizko eta beti gorabeheratsuetan, horiek produzitzeko lan-denbora sozialki beharrezkoa era erresistiezinean ezartzen baita lege natural arautzaile gisa, nola ezartzen baita grabitatearen legea norbaiti etxea buru gainera amiltzen zaionean.<sup>21</sup> Balio-magnitudeak lan-denboraren bidez determinatzea, bada, da merkantzien buruzko balioak afektatzen dituzten mugimenduen azpian ezkutaturiko misterio bat da. Horiek deszifratzeak ezabatu egiten du lan-produktuek lortutako balio-magnitudeen determinazioa zori hutsezkoa delako itxura, baina inondik ere ez honen forma materiala.

Giza bizitzaren formei buruzko gogoetek, eta ondorioz, horien analisi zientifikoak garapen errealak janaitutako bidez alderantzizkoa hartzen dute. *Post festum* [gertakarien ondoren] hasten da, eta, beraz, garapen-prozesuaren azken emaitzak eskuan dituela. Formek, zeinek ezartzen baitiete lan-produktuei merkantzia-zigilua

<sup>21</sup> 'Zer pentsa dezakegu lege batez aldizkako krisialdiekin bakarrik bere burua ezar dezakeenaz? Pairatzen duen jendearen kontzientzia-gabeziaren baitan dagoen lege natural baizik ez da' (Friedrich Engels, *Umriss zu einer Kritik der Nationalökonomie*, in the *Deutsch-Französische Jahrbücher*, Arnold Ruge eta Karl Marxek argitaratua, Paris, 1844 [Ingeleseko itzulpena in *Marx/Engels' Collected Works*, 3 liburukia., London, 1975, 433 or. ]).

eta, beraz, merkantzia-zirkulaziorako auresuposaturik baitaude, bizitza sozialeko forma naturalen finkotasun propioaren jabe dira, gizakiek horien ez izaera historikoa argitzen saiatu baino lehen —zeinek jadanik kontaktzen baitute haientzat zerbait aldaezin gisabaizik haien edukia. Horrela, merkantzien prezioen analisisa bakarrik izan zen balio-magnitudeen determinaziora eraman zuena; merkantzien adierazpen kolektiboa dirutan bakarrik izan zen haien balio-izaera finkatzera gidatu zuena. Baina hain zuzen ere, merkantzia-munduaren forma burutu hori da —diru-forma— lan pribatuen izaera soziala, eta ondorioz, langile banakoen arteko harreman sozialak estaltzen dituena. Baldin badiot jaka, botinak, etab., mihisearekin lotzen direla giza lan abstraktuaren gorpuzte orokor gisa, begi-bistakoa gertatzen da adierazpen honen zentzugabekeria. Baina jaka, botin eta abarren produzitzaileek merkantzia horiek mihisearekin edo urrearekin eta zilarrarekin erlazionatzen dituztenean, zeinak ez baitu ezertan aldatzen gauza hori baliokide orokor gisa, lan pribatuen eta lan sozialaren arteko harremana haren osoan forma zentzugabe beraren azpian aurkezten zaie hain zuzen ere.

325

Gisa horretako formek eratzen dituzte, hain zuzen, ekonomia burgesaren kategoriak. Sozialki baliozkoak diren pentsatze-formak dira, eta horregatik objektiboak, produkzio-harremanetarako, zeinek ezaugarritzen baitute produkzio-modu sozial historikoki determinatu hori: merkantzia-produkzioa. Merkantzia-munduaren mistizismo guztia, merkantzia-produkzioan oinarrituriko lan-produktuak inguratzen dituzten magia eta fantasmagoria guztia, bat-batean ilauntzen da beste produkzio-modu batzuetarako bideari heltzean.

Politikari ekonomikoak robinsonkeriak atsegin dituzenez gero<sup>22</sup>, ager bedi aurrena Robinson bere uhartean. Neurrizkoa, etxetik bertatik izaki, hala ere behar batzuk ase beharra dauka eta, beraz, mota desberdinetako lan baliagarriak egikaritu behar ditu: erremintak egin, altzariak eraiki, llamak bezatu, arrantzan egin, ehizan egin eta abar. Errezuez eta antzeko beste gauza batzuez ez dugu hemen hitz egingo, zeren gure Robinsonari jarduera horiek atsegina sortzen baitiote eta bere olgetetan sartzen ditu. Haren funtzio produktiboen desberdintasuna gorabehera, jakin badaki Robinson beraren jarduketa-forma desberdinak baizik ez direla, hau da, giza lanaren modu desberdinak besterik ez. Beharrak berak behartzen du bere denbora bere funtzio desberdinen artean anetaz banatzera. Batak haren jarduera osoko tarte handiagoo hartzea eta besteak gutxiago, proposatutako ondorio baliagarria lortzeko gaitu beharreko zailtasun handiago edo txikiagoaren baitan baitago. Esperientziak irakasten dio, eta gure Robinsonek, zeinek naufragiotik eriojua, liburu nagusia, tinta eta luma salbatu baititu, ingeles onari dagokionez bere buruaren kontabilitatea eramateari ekiten dio. Haren inbentarioan jabetzan dituen objektu baliagarrien, haien produkzioarako beharrezko eragiketa desberdinen, eta azkenik, produktu bakoitzaren kantitate determinatuak lantzeak, batezbeste, hartzen dion lan-denbora zerrenda bat dago. Robinsonek eta berak sortutako aberastasuna taxutzen duten gauzen arteko harreman guztiak hain dira sinpleak eta gardenak, non Max Wirth

<sup>22</sup> Ricardok berak ere baditu Robinson Crusoearen istorioak. 'Ricardok bere arrantza primitiboa eta ehiztari primitiboa merkantzien jabe bihurtzen ditu, zeinek berehala trukatzten baitituzte beren arraina eta ehiza truke-balio horietan materializaturik dagoen lan-denborarekiko proportzioan. Abagune horretan 1817an Londresko Burtsan erabilitako urteko taulen arabera haien artikuluen balioa kalkulatzera arrantzaleari eta ehiztari primitiboari ahalbidetzearen anakronismoan erortzen da. Gizarte burgesaz kanpo, badirudi «Owen jaunaren paralelogramoak» izan direla Ricardok ezagutu duen gizarte-forma bakarra' (Karl Marx, *Zur Kritik etc.*, 38-9 or.).

jauna bera ere, burua asko behartu gabe, haiek ulertzeko gai izango bailitzateke. Eta, hala ere, haien baitan geratzen dira balioaren determinazio esentzial guztiak.

326

Alda gaitezen orain Robinsonen uharte distiratsutik europar Erdi Aro ilunera. Gizaki independentearen ordeaz hor aurkitzen dugu denak mendekotasun-lokarriz estekaturik daudela: gleba-jopuak eta lurjabeak, basailuak eta jaun handiak, sekularrak eta klerikoak. Mendekotasun pertsonalak ezaugarritzen ditu nola produkzio materiala gertatzen den harreman sozialak hala produkzio honen gainean egituratutako bizitzako beste esferak. Baina hain zuzen ere mendekotasun-harreman pertsonalak oinarri sozial emana eratzen dutelako, lanek eta produktuek ez daukate forma fantastiko bat hartu beharrik, errealitateaz bestelakoa. Mekanismo sozialean zerbitzu natural eta jarduera natural gisa sartzen dira mekanismo sozialean. Lanaren forma naturala, haren berezitasuna eta ez, merkantzia-produkzioaren oinarriaren gainean bezala, haren orokortasuna da hor haren forma zuzenki soziala eratzen duena. Morrontza-lana denboraz neurtzen da, merkantziak produzitzen dituen lanarekin egiten denez, baina edozein jopuk badaki bere lan pertsonalaren indar kantitate determinatu bat dela, berak jaunaren zerbitzuan gastatzen duena. Apaizari ematen dion hamarrena elizgizonaren bedeinkapena baino argiagoa da. Zeinahi judizio merezi digutelarik ere horgizakiek jantzen dituzten maskarek beren eginkizunak betetzerakoan, kontua da pertsonak beren lanetan dituzten harreman sozialak agerian jartzen direla haien harreman pertsonal gisa eta ez direla agertzen gauzen, lan-produktuen arteko harreman sozialez disfrazaturik.

Lan kolektiboa, hau da, zuzenean sozializatua ikertzeko ez da beharrezkoa herri zibilizatu guztien atalase historikoetan aurkitzen den beraren forma natural eta jatonizko horretara atzera joatea.<sup>23</sup> Adibide hurbilagoko bat nekazari-familia baten industria patriarkal, landakoak eskaintzen digu, zeinek bere biziraupen propiorako laboreak, azienda, haria, mihisea, jantziak, etab., produzitzen baititu. Gauza desberdin horiek familiaren aurrean jartzen dira haren familia-lanaren produktu desberdin gisa, baina ez elkanekiko merkantzia gisa aurrean janiz. Produktu horiek sortzen diren lan desberdinak —lurra lantzea, azienda haztea, irutea, ehutea, jantziak atontzea— haien forma naturalean funtzio sozialak dira, zeren familiaren funtzioak baitira, eta horrek lanaren bere banaketa natural propioa burutzen baitu, merkantzia-produkzioan egiten den bezalaxe. Sexueta adin-desberdintasunak, baita urtaroen arabera aldakorrak diren lanaren baldintza naturalek ere, arautu egiten dute hori familiaren barruan eta haren kide bakoitzaren lan-iraupena ere. Baina hor denboraz neurtutakolanindar banakoen gastua agerian jartzen da lehen unetik lanen beraien determinazio sozial gisa, zeren lanindar banakoak soilik baitihardue, haien jatorritik, familiaren lanindar kolektiboaren organo bezala.

327

Demagun azkenik, aldatzeko, gizaki askeen elkarte bat, zeinek lan egiten baitute produkzio-bitarteko kolektiboekin eta kontzienteki erabiltzen baitituzte beren

<sup>23</sup> 'Nozio irrigarri bat hedatu da berriki atzerrian esanez jabetza komunal bere forma naturalean, espontaneoan, espezifikoki eslabiarra dela, eskusiboki errusiarra zehazkiago. Egitatez, forma primitiboa frogatzen dezakegu erromatar, teutoi eta zelten artean existitu zela, eta oraindik gaur arte existitzen dela Indian, eredu desberdinen gama oso batean, nahiz eta batzuetan hondar bezala bakarrik. Jabetza pribatuaren asiar formaren azterketa zehatzago batek, eta indiar formaren espezifikoki adieraziko luke zer eratan jabetza pribatu espontaneo, primitibo eta espontaneoak sorrarazi dituen haren disoluzioaren forma desberdinak. Horrela, jabetza pribatu erromatarraren eta germaniarren jatorrizko tipo desberdinak jabetza komunal indiarren forma desberdinetatik ondoriozta daitezke' (Karl Marx, *Zur Kritik, etc.*, 10 or.).

lanindar banako ugariak lan sozialaren indar bat bezala. Robinsonen laneko determinazio guztiak errepikatzen dira hemen, baina era sozialean bakarrik, banakoan izan beharrean. Robinsonen produktu guztiak haren produktu eksklusiboki pertsonala zen eta, beraz, berarentzako erabilera-objektuak ziren zuzenean. Elkartearen produktu guztia produktu soziala da. Horren parte batek berriz ere zerbitzuak ematen ditu produkzio-bitarteko gisa. Sozial izaten dirau. Baina elkarteko kideek beste parte bat kontsumitzen dute bizigai gisa. Beharrezko da, beraz, haien artean banatzea. Banaketa honen mota aldatu egingo da produkzioko organismo sozial propioaren mota partikularrekin eta produzitzaileen garapenari dagokion maila historikoaren arabera. Merkantzia-produkzioarekin parekotasunari eusteko bakarrik, demagun produzitzaile bakoitzaren partaidetza bizigaietan haren lan-denborak determinaturik dagoela. Ondorioz, lan-denborak eginkizun bikoitza izango du. Haren banaketa, sozialki planifikatuak, arautu egingo du proportzio egokia lan-funtzio desberdinen eta behar desberdinen artean. Bestalde, lan-denborak balio izango du aldi berean produzitzailearen partaidetza banakoaren neurri bezala lan komunean, eta halaber, ondorioz, produktu komunaren atal indibidualki kontsumigarrian. Gizakiek beren lanekin eta horien produktuekin dituzten harreman sozialak hor argiro sinpleak izaten diraute, nola produkzioari hala banaketari dagokienez.

328

Merkantzia-produzitzaileen gizarte baterako, zeinaren produkzio-harreman sozial orokorra bere produktuen aurrean merkantzien aurrean, hau da, balioen aurrean bezala portatzean baitatza, eta beren artean lan pribatuak erlazionatzean, gauzen forma horren azpian, giza lan berdina gisa, erlijio-forma egokiena kristautasuna da, gizaki abstraktuaren bere kultuarekin, eta batez ere bere garapen burgesarekin, protestantismoarekin, deismoarekin eta abarrekin. Produkzio-modu paleo-asiarrea, antzinakoan eta abarrean, produktuak merkantziara eraldatzeak, eta, horregatik, gizakiak merkantzia-produzitzaile gisa existitzeak, eginkizun mendeko bat du, baina hainbat muntadunago bihurtzen dena zenbat eta gehiago sartzen diren erkidegoak haren beherakada-fasean. Benetako herri merkataria antzinako munduaren tartemunduetan bakanik existitzen ziren, Epikuroren jainkoak, edo juduak gizarte poloniarreko poroetan bezala. Produkzio-organismo sozial antzinako horiek askoz sinpleagoak eta gardenagoak dira burgesak baino, baina norbanakoaren heldutasun-gabezian oinarritzen dira, zeina artean askatu gabe baitzegoen espezieko beste osakide batzuekiko bere lotura naturaleko zilbor-hestetik, edo menderakuntza eta joputzako zuzeneko harremanetan. Lanindar produktiboen garapen maila behere batek baldintzaturik daude eta gizakien harreman ondorioz murriztuek haien bizitzak sortze-prozesu materialaren banuan, eta, ondorioz, elkarrekiko eta naturarekiko. Murriztapen erreal hori modu ideal batean islatzen da naturarekiko kultuan eta Antzinaroko herri-erlijioetan. Mundu errealaren isla erlijiosoak soilik desagertu ahal izango da bizitza praktikoa, eguneroko inguruabarrak gizakientzat ordezkatuko dituztenean, egunean-egunean, harreman argiro arrazionalak, berekiko eta naturarekiko. Bizi-prozesu sozialaren, hau da, produkzio-prozesu materialaren figurak soilik galduko du bere belo mistiko lainotsua, libreki asoziatuak gizakien produktu gisa, horiek beren kontrol planifikatu eta kontzientearen mendean ezarriko dutenean. Horretarako, hala ere, gizartearen oinarri material bat edo existentzia-baldintza material sail bat, zeinak baitira, bestalde, horiek berak garapen-historia luze eta oinazetsu baten produktu naturala.

Alabaina, ekonomia politikoak aztertu du, nahiz eta era osoan ez bada ere<sup>24</sup>, balioa eta balio-magnituda eta forma horietan ezkutaturik dagoen edukia aurkitu du. Soilik inoiz ez du egin galdera hau: zergatik eduki honek hartzen duen forma hori; zergatik, bada, lana balioan ordezkatzeko den, eta zergatik iraupenaren arabera lanaren neurria lanaren produktuak lortutako balio-magnituden ordezkatzeko den.<sup>25</sup> Formula horiek, zeinek baitaramate bekorian erakuntza sozial batekoa izatearen zigilu nahastezina, zeinean produkzio-prozesua gizakiaren gainean nagusi ageri baita, alderantzizkoaren ordezkari, ekonomialari politikoen kontzientzia burgeserako lan produktiboa bera bezain begi-bistakoa eta naturak ezarritako behar bezala agertzen baita. Horregatik, politika ekonomikoak tratatzen ditu produkzio-organismo

---

<sup>24</sup> Balioaren magnitudeari buruzko Ricardoren analisiaren askieza -eta haren analisia da askoz hobereenaobra honetako hirugarren edo laugarren liburuetan agertuko da. Balioari oro har dagokionez, ekonomia politiko klasikoak egitatez inon ez du esplizituki bereizten eta kontzientzia argi batekin lana produktu baten balioan agertzen den bezala eta lan bera produktuaren erabilera-balioan agertzen den bezala. Jakina, bereizkuntza praktikan egiten da, zeren lana batzuetan haren alderdi kuantitatibotik tratatzen baita, eta beste batzuetan, kualitatiboki. Baina ez zaio bururatzeko ekonomialariari lan moten arteko bereizkuntza kuantitatibo hutsak unitate kualitatiboa edo berdintasuna aurreuposatzen duela, eta ondorioz hura giza lan abstraktura murriztea. Adibidez, Ricardok aitortzen du bat datorrela Destutt de Tracyrekin azken horrek dioenean: 'Ziurra den bezala gure gaitasun fisiko eta moralak direla bakarrik jatorrizko gure aberastasunak, gaitasun horien, motaren bateko lanaren enplegua dela jatorrizko gure altxorra, eta beti enplegu horretatik sortzen direla aberastasun deitzen ditugun gauza horiek guztiak... Halaber, ziurra da, gauza horiek guztiak sortu dituen lana bakarrik ordezkatzeko dutela, eta balioa baldin badute, edo bi balio desberdin ere bai, (balio) horretatik bakarrik erator ditzaketela haiek, 'lanetik, zeinari baitarizkio' (Ricardo, *Ekonomia politikoaren eta tributazioaren printzipioak*, Klasikoak, Bilbo, 1995). Hor nabarmenduko genuke Ricardok inposatu egiten duela Destutt hitzen bere interpretazio propio sakonagoa. Onarturik dago Destutte dioela aberastasuna eratzeko duten gauza guztiak 'haiek sortu dituen lana ordezkatzeko dutela', baina, bestalde, 'lanaren balioetik' 'bi balio desberdin' (erabilera-balioa eta truke-balioa) ere eskuratzen dituztela. Eta horrela ekonomialari arrunten errore topikoan erortzen da, zeinek asumitzen baitute merkantzia baten balioa (lana hemen), aldez, beste merkantzia batzuen balioak determinatzeko. Baina Ricardok irakurtzen du lana (ez lanaren balioa) bietan erabilera-balioan eta truke-balioan ordezkaturik dagoela esan izan balu bezala. Guztiarekin ere, Ricardok jaramon gutxi egiten dio era bikoitz horretan ordezkaturiko lanaren izaera dualaz, non beharturik aurkitzen den bere «Balioa eta Aberastasunak, horien propietate bereizgarriak» kapitulu osoa J. B. Say baten huskerien azterketa xehean ematera. Eta azkenean ondorioz guztiz txunditurik aurkituko du Destutt berekin bat datorrela lana iturria delakoan, guztiarekin ere, bera bat datorrela Sayrekin balioaren kontzeptuari dagokionean.

<sup>25</sup> Ekonomia politiko klasikoaren hutsegiterik nagusienetako bat da inoiz ez lortu izatea, merkantzien bere analisen bitartez, eta bereziki haien balioaren bitartez, balioaren forma aurkitzea, zeinak egitatez balioa truke-balio bihurtzen baitu. Haren ordezkari hoberenek ere, Adam Smithen eta Ricardok, balioaren forma axolagabetasunezko zerbait bezala tratatzen dute, merkantziaren beraren naturaz kanpoko zerbait bezala. Horren azalpena ez da soilik haien arreta balioaren analisiak edo magnitudeak erabat hurrupaturik egotea. Zerbait sakonagoa da. Lanaren produktuaren balio-forma produkzio-modu burgesaren forma abstraktuena ez ezik unibertsalena ere bada; egitatez produkzio-modu burgesa zigitatu egiten du izaera historiko eta iraizeko produkzio sozialaren mota partikular bat bezala. Gero guk hura produkzio sozialaren forma natural betiko bezala tratatzearen hutsa egiten badugu, balio-formaren espezifikotasunari jaramonik ez diogu egiten derrigorrean, eta ondorioz, merkantzia-formari haren gero garapenekin batera, diru-formari, kapital-formari eta abarri. Eta horregatik aurkitzen dugu lan-denbora balioaren magnitudearen neurria delakoan erabat bat datozen ekonomialariek ideiarik estrainioenak eta kontraesankorrenak dituztela diruari buruz, hau da, balioak unibertsalari buruz haren forma bukatuan. Hori nabarmen agertzen da banku-sistema tratatzen dutenean, zeinean diruari buruzko definizio topikoek ez baitute iraungo porrot egin gabe. Hortik sortu da ekonomialari klasikoek kontrajarririk sistema merkantilista berrezarri bat (Ganiilh, etab.), zeinak ikusten baitu balioa forma soziala bakarrik, edo areago haren itxura insubstantziala. Azpimarra dezadan behin betiko ekonomia politiko klasikoak ekonomialari guztiak esan nahi dudala, zeinek W. Pettyren garaitik produkzio-harreman burgesen barne-harreman erreala aztertu baitute, ekonomialari arruntei kontrajarririk, zeinak harreman horien itxurazko loturaz hitz-totelka hitz egitea baizik ez baitute egin, ekonomia politiko zientifikoak aspaldidanik hornitutako materialak atergabe hausnartu, eta zeinek aurkitzen baituzte hor burgesiaren xede domestikoentzako fenomeno gordinenen azalpen onargarriak. Hortaz landa, ekonomialari arruntak mugatzen dira era pedantean sistematizatzaera, eta egia betikotzat aldarrikatzaera, produkzioaren eragile burgesek sostengatzen dituzten nozio hutsal eta buruaseak beren mundu propioaz, zeina baita haientzat posibleetan hobereana.

sozialaren burgesia-aurreko formak Elizako Gurasoek kristautasun-aurreko erlijioak tratatzen zituzten modu ia beretsuan.<sup>26</sup>

329

Zer puntutaraino ekonomialarien parte batek onartzen duen merkantzia-munduari datxekion fetitxismoak liluratzea, edo lanaren determinazio sozialen itxura objektiboak, horrek erakusten digu, besteak beste, truke-balioa eratzean naturak izango lukeen eginkizunaren inguruko kontrobertsia aspergarri eta zofoak. Truke-balioa gauza batean erabilitako lana adierazteko era sozial determinatu bat denez gero, ezin du eduki, adibidez, truke-joairak baino materia natural gehiago.

Merkantzia-forma produkzio burgesaren orokorrena eta gutxien garatua denez gero —eta horri zor zaio goiz agertzea, nahiz eta ez gure egunotan hartzen duen era menderatzaile eta ondorioz karakteristikoan—, oraindik badirudi aski erraza dela haren fetitxe-izaera agerian jartzea. Baina forma konkretuenetan desagertu egiten da sinpletasun-itxura hori bera ere. Nondik datoz, orduan, moneta-sistemaren lilurak? Horrek ez zituen ikusten unea eta zilarra, diru gisa, produkzio-harreman sozial bat ordezkatzeko, baizik ezohiko atributu sozialekiko objektu naturalen formapean. Eta zer esan ekonomia politiko modernoaz, zeinek mespretxuz begiratzen baitio moneta-sistemari? Eta kapitala tratatzen duenean, ez al da bihurtzen ukigai ekonomia modernoaren fetitxismoa? Noiztik desagertu da lilura fisiokrata, zoru-errenta lurretik sortzen direla, eta ez gizartetik?

Gauzak ez aurreratzeko, aski bedi hemen oraindik adibide bat ematea merkantzia-formari buruz. Merkantziek hitz egin ahal izango balute, hau esango lukete: gure erabilera-balioa interesa dakieke gizakiei, baina ez dagokigu guri gauza gisa. Baina gauza gisa dagokiguna, ordea, gure balioa da. Merkantzia gisa dugun

---

<sup>26</sup> Ekonomialariek jarduteko era aparte bat dute. Haien artean, bi eratako instituzioak bakarrik daude, artifizialak eta naturalak. Feudalismoaren instituzioak artifizialak dira, burgesiarenak instituzio naturalak dira. Horretan badute teologoaren antza, haiek ere bi erlijio mota ezartzen baitituzte. Berena ez duten erlijio oro gizakien asmatzuna da, aldiz, berena duten erlijio Jainkoaren emanazioa da...Horrela izan da historia, baina jadanik ez dago halakorik' (Karl Marx, *Misere de la philosophie. Reponse a la philosophie de la misere de M. Proudhon*, 1847, 113 or.). Egiak komikoa da M. Bastiat, zeinak imajinatzen baitu antzinako grekoak eta erromatarrek zakuratzetik bakarrik bizi zirela. Zeren jendea zakuratzetik bizi izan bada mendetan, azken finean, zakuratzeko zerbaitek egon behar izan du; beste hitz batzuetan, zakuratzearen objektuak etengabe birproduzitu behar izan dira, beraz, badirudi grekoek eta erromatarrek produkzio-prozesu bat zutela, hortik ekonomia bat, zeinak eratzen baitzuen haien munduaren oinarri materiala ekonomia, burgesak gaur eguneko munduarena eratzen duen bezalaxe. Edo agian Bastiatek esan nahi ote du esklaboen lanean oinarritutako produkzio-modu bat zakuratzeko-sistema batean oinarritzen dela? Kasu horretan lurzoru arriskutsuan dabil. Aristoteles pentsalari erraldoiak huts egin ahal izan bazuen esklabo-lanaren ebaluazioan, zergatik izan behar zuen arrazoiak Bastiat ekonomialari nanoak soldada-lanaren bere ebaluazioan? Abagune honetaz baliatzen naiz alemaniar-amerikar argitalpen batek nire *Zur Kritik del Politischen Ökonomie*, 1859 obrari egindako objektio bat laburki ezeztatzen. Nire ikuspuntua da produkzio-modu partikular bakoitza, eta hari une jakin bakoitzean dagozkion produkzio-harremanak, labur esateko, 'gizartearen egitura ekonomikoa' dela 'oinarri erreala, zeinen gainean sortzen baita gainegitura legal eta politikoa, eta zeinari, baitagozkio kontzientzia sozialaren forma definituak' eta 'bizitza materialaren produkzio-moduak baldintzatu egiten duela bizitza sozial, politiko eta intelektualaren prozesu orokorra'. Argitalpen alemaniar-amerikararen iritzian hori oso egiazkoa da gure garai propioetarako, zeinetan interes materialak nagusiak baitira, baina ez katolizismoak menderaturiko Erdi Aroako, ezta politikak menderaturiko Atenas eta Erromarako ere. Lehenik, bitxia gertatzen zaigu inork uste izatea Erdi Aroari eta antzinako munduari buruzko esapide higitu horiek beste guztiei ezezagunak zitzaizkiela. Gauza bat dago argi eta garbi: Erdi Aroa ezin zitekeela katolizismotik bizi, ezta antzinako mundua politikatik ere. Aitzitik, beren bizi-modua irabazteko izan zuten erak azaltzen du zergatik kasu batean politikak eta beste kasu batean katolizismoa izan zuten eginkizun nagusia. Gainerakoan, aski da errepublika erromatarren ezagupide txiki bat izatea haren historia sekretua landadun jabetzaren historia dela ohartzeko. Eta gero hor dago On Kixote, zeinek aspaldi ordaindua baitzuen zalduntza ibiltaria gizarteko forma ekonomiko guztiekin bateragarria zela oker imajinatu izanaren zigorra.

tratuak frogatzen du hori. Truke-balio gisa erlazionatzen gara elkarrekin. Entzun orain nola hitz egiten duten merkantzia horiek ekonomialarien ahotik:

«Balioa» (truke-balioa) «gauzen propietatea da, aberastasuna» (erabilera-balioa). «gizakiarena». Balioa, zentzu horretan trukea inplikatzeko du derrigorrean; aberastasunak ez».<sup>27</sup>

330

«Aberastasuna» (erabilera-balioa) «gizakiaren atributua da, balioa merkantzien atributu bat. Gizaki bat edo erkidego bat aberatsak dira; perla bat edo diamante bat balioetsua da... Perla batek edo diamante batek balioa du perla edo diamante gisa.»<sup>28</sup>

Oraindik ez dago kimikaririk perlan edo diamantean erabilera-balioa aurkitu duenik. Substantzia kimiko horren aurkitzaile ekonomialariak, beren sakontasun kritikoaz batez ere ilarrainduz, gauzen erabilera-balioa gauza gisa dituzten propietateen baitan ez dagoelako ondorioa iristen dira, aitzitik haien balioa gauza gisa dagokiela. Kontzepzio horretan berresten duena da gauzen erabilera-balioa gizakiarentzat elkartruke gabe egikaritzen den inguruabar bitxia, hau da, gauzaren eta gizakiaren arteko zuzeneko harremanean, horren balioa, aitzitik, elkartrukean soilik egikaritzen da, hau da, prozesu sozialean. Nor ez da oroitzen hor Dogberryz Seacoal gauzainari irakasten dionekoak: Itxura onekoa izatea ingurubarren dohaina da, baina irakurtzen eta idazten jakitea naturatik dator.»<sup>29</sup>

## 2. Kapituluak Elkartruke Prozesua

Merkantziek ezin dute beren kabuz merkatura joan, ezta berenez elkarrukatu ere. Beraz, horien zaintzaileengana, merkantzia-jabeengana begirada zuzendu beharra daukagu. Merkantziak gauzak dira eta, beraz, erresistentziagabeak dira gizakiarekiko. Haien nahi ez badute, honek bortxara jo dezake edo, bestela esateko, haietaz jabe daiteke.<sup>30</sup> Gauza horiek beren artean lotzeko merkantzia gisa, horien zaintzaileek elkarrekin harremanetan jarri behar dute pertsona gisara, zeinen nahimena objektu horietan baitatza, halako moldean, non bata, bestearen nahimenaren akordioz soilik, edo biek batera duten nahimen-egintza baten bidez, inoren merkantziaren jabetzera baitoa, bere propioa besterentzean. Biek, beraz, berrezagutu behar dute bata bestearen jabe pribatu gisa. Harreman juridiko hori, zeinaren forma kontratua baita —legez formulatua edo ez— nahimenen arteko harreman bat da, zeinean islatzen baita harreman ekonomikoa. Harreman juridiko horren edukia edo nahimen artekoa

<sup>27</sup> *Observations on Some Verbal Disputes in Pol. Econ., Particularly Relating to Value, and to Supply and Demand*, Londres, 1821, 16 or.

<sup>28</sup> S. Bailey, op. Cit., 165 or.

<sup>29</sup> Nola *Observations etc.* Obraren egileak hala S. Baileyk saiatu egiten dute Ricardo truke-balioa zerbait erlatiboan izateko zerbait absolutu bihurtu izanagatik. Alderantzizkoa da egia. Murriztu egin du gauza horiek (diamanteak, perlek eta abarrek) duten itxurazko erlatibitate itxuraren atzean ezkatututako egiazko harremanarekiko, hau da, haien erlatibitate giza lanaren adierazpen huts gisa. Baldin eta Ricardoren jarraitzaileek zakar samar erantzuten badiote Baileyri, baina inondik ere ez konbentzitzeko moduan, hori da gai ez direlako Ricardoren obran bertan inolako argipenik emateko balioaren eta balio-formaren, edo truke-balioaren arteko barne-loturarik.

<sup>30</sup> Hamabigarren mendean, haren pietatearengatik hain sonatua izan zen hartan, merkantzia horien artean oso gauza delikatuak agertzen dira sarritan. Horrela, garai hartako poeta frantses batek Lenditeko ferian aurki zitezkeen merkantzien artean, arropak, oinetakoak, larrua, nekazaritzako lanabesak, azalak eta abarren artean aipatzen ditu '*femmes folies de leur corps*'.



harreman ekonomikoak berak emana da.<sup>31</sup> Hor, pertsonak batak besteentzat bakarrik existitzen dira merkantziaren ordezkari gisa, eta ondorioz, merkantzia-jabe gisa. Gure garapenaren aurrerabidean ikusiko dugu pertsonen izaera-maskara ekonomikoak harreman ekonomikoen pertsonifikazioak besterik ez direla, zeinen eroale gisa aipaturiko pertsonak elkarri kontrajartzen baitzaizkie.

331

Hain zuzen ere, merkantzia eta haren jabea bereizten dituen da beste merkantzia-gorputz ororen inguruabarrak soilik balio duela harentzat bere balio propioaren agerpen-forma gisa. Nibelatzailea eta zinikoa sehaskatik, beti prest dago ez bakarrik arima trukatzeko baita gorputza ere beste edozein merkantziaz, nahiz eta hori Maritornes baino desatseginagoa izan. Merkantziari falta zaion merkantzia-gorputzen konkretuarekiko zentzu hori osatu egiten du haren jabeak bere bost eta gehiago zentzumenekin. Bere merkantzia propioak ez du harentzat zuzeneko erabilera-baliorik batere: bestela ez luke merkatura eramango. Besteentzako erabilera-balioa du. Berarentzat, truke-balioaren eroale izatearen erabilera-balioa bakarrik du zuzenean, eta halako moduan, truke-bitarteko.<sup>32</sup> Hortik merkantzia batez besterendu nahi izatea, zeinaren erabilera-balioak ase egingo baitu. Merkantzia guztiak ez-erabilera-balio dira haien jabeentzat, erabilera-balioak haien ez-jabeentzat. Horregatik aldatu behar dute guztiek jabez. Baina jabe-aldaketa horrek eratzen du haien elkartrukea, eta haien elkartrukeak balio gisa erlazionatzen ditu elkarrekin eta halako diren heinean egikaritzen ditu. Merkantziek, bada, aurrena balio gisa egikaritu behar dute erabilera-balio gisa egikaritu baino lehen.

Bestalde, erabilera-balio gisa kreditatu behar dute balio gisa egikaritu ahal izan baino lehen. Zeren haietan erabilitako giza lanak besteentzat era baliagarrian erabiltzen bada bakarrik kontatzen baitu. Baina besteentzat baliagarria izatea, haren produktuak besteen beharrak asetzea, haren elkartrukeak frogatzen dezakeen zerbait bakarrik da.

Merkantzia-jabe orok berea beste batez elkartrukatzea besterik ez du nahi, zeinaren erabilera-balioak bere behar propioa ase dezan. Neurri horretan, elkartrukea prozesu banako bat besterik ez da berarentzat. Bestalde, bere merkantzia balio gisa egikaritu nahi du, eta ondorioz, atseginekoa izango den eta berdin balioko duen beste edozein merkantzia bihurtu, axolagabea delarik bere merkantzia propioak besteari jabearentzat erabilera-balioa izatea edo halakorik ez izatea. Neurri horretan elkartrukea harentzat prozesu sozial orokor bat da. Baina prozesu bera ezin daiteke izan, merkantzia-jabe guztientzat, eskusiboki banakoa eta aldi berean eskusiboki sozial orokorra.

332

<sup>31</sup> Proudhonek sortzen du bere justizia-ideala, '*justice éternelle*'-arena merkantzien produkzioari dagozkion harreman juridikoetatik: horrela frogatzen du, burges txikien kontsolamendurako, merkantzien produkzioa justizia bezain forma betikoa dela. Gero bira eman eta gaurko merkantzia-produkzioa eraberritzea bilatzen du, eta dagokion lege-sistema, bere idealarekiko adostasunean. Zer pentsatuko genuke kimikari batez eragintruke molekularrak gobernatzen dituzten lege errealak aztertu beharrean, eta horren oinarriaren gainean arazo zehatzak ebatzi ordez, eragintruke horiek '*naturalité*' eta '*affinité*'-ideia betiko-en bitartez arautzen dituela esango balu? Benetan ba al dakigu zerbait gehiago 'lukurreria'-z esaten dugunean kontra egiten diola 'justizia betiko'-ari, '*mutualité éternelle*'-ri, eta beste '*vérités éternelles*'-ei kontra egiten dietela diogunean, Elizaren gurasoek zekiten baino ziotenean bateraezina zela '*grâce éternelle*', '*foi éternelle*' eta '*da volonté éternelle de Dieu*'-rekin?

<sup>32</sup> 'Zeren bikoitza baita objektu bakoitzaren erabilera... Bata berezia da objektuarekiko berarekiko, bestea ez da, erabili litekeen eta trukagarria den sandaloa bezalakoa. Biak sandaloaren erabilerak dira, zeren behar dituen dirua edo janariarekin trukatzan dituenak ere sandaloaren sandalo bezalako erabilera egiten baitu. Baina ez haren era naturalean. Zeren trukatu izateko eginga izan baita'. (Aristoteles, *Politeia*, I, i, 9 kap.).

Hurbilagotik begiratzen badugu, ikusiko dugu merkantzia-jabe orori inoren merkantzia oro berarenaren baliokide partikular gisa aurkezten zaiola, eta hori gainerako guztien baliokide orokor gisa. Baina hori merkantzia-jabe guztiei era berean aplikatzen zaienez gero, haietako batere ez da baliokide orokorra eta, ondorioz, merkantziek ez dute balio-forma erlatibo orokorrik, zeinean pareka baitaitezke balioak, erka balio-magnitude diren heinean. Merkantziak, bada, inondik ere ez dira elkarren artean kontrajartzen merkantzia gisa, baizik produktu edo erabilera-balio gisa bakanik.

Bere txundimenean, gure merkantzia-jabeek Faustek bezala pentsatzen dute. «Hasieran egintza zen». Hortik dator jardun izana pentsatu baino lehen. Merkantziek beren baitan dituzten natur legeak berretsi egiten dira haien jabeen instintu naturalean. Haien merkantziak balio gisa bakarrik erlazioa daitezke, eta honegatik merkantzioa diren heinean bakanik, beste edozein merkantziarekin antitetikoki erlazionatzean, zeinek egingo baitu baliokide orokorraren ordeko. Hori da merkantziaren analisisian lortutako emaitza. Baina egintza sozial batek bakarrik bihur dezake merkantzia determinatu bat baliokide orokor. Horregatik gainerako merkantzien egintza sozialak aldendu egiten du haietatik merkantzia determinatu bat, zeinetan haiek guztiek ordezkatzeko baitituzte beren balioak. Merkantzia horren forma naturala eraldatu egiten da, beraz, sozialki indarreko baliokide-formapean. Baliokide orokor izatea prozesu sozialaren bidez merkantzia aldentuaren funtzio espezifikoari sozialean eraldatzen da. Horrela bihurtzen da diru.

*«lili unum consilium habent et virtutem et potestatem suam bestiae tradunt. Et ne quis possit emere aut vendere, nisi qui habet characterem aut nomen bestiae, aut numerum nominis ejus.»* (Apokalipsia)

Diru-kristala elkartruke-prozesuaren beharrezko produktu bat da, zeinean parekatzen baitira era eraginkor eta elkanekikoan lanaren produktu desberdinak eta, ondorioz, errealki merkantzian eraldatzen dira. Elkartrukearen hedatze eta sakontze historikoek erabilera-balioaren eta balioaren artean, merkantziaren naturan latente dagoen antitesia garatzen dute. Antitesi horri kanpo-adierazpen bat emateko beharrak, elkartrukeerako, merkataritza-balioaren forma autonomo bat ezartzen laguntzen du, eta ez du atsedunik hartzen ez amore ematen merkantzia merkantzia eta diru desberdintzearen bidez, behin betiko hori lortu arte. Ondorioz, lanaren produktuak merkantziatan eraldatzea kontsumatzen

den neuni berean, burutzen da merkantzia dirutan eraldatzearen eraldakuntza.<sup>33</sup>

333

Produktuen elkartruke bitartegabeak badu alde batetik balioaren adierazpen sinplearen forma, baina besterik oraindik ez du. Forma hori zen:  $x$  merkantzia A =  $y$  merkantzia B. Produktuen elkartruke hitartegabearen forma da:  $x$  erabilera-objektu

---

<sup>33</sup> Horretatik kalkula dezakegu sozialismo burges txikiaren abilezia, zeinek betikotu egin nahi baitu merkantzien produkzioa aldi berean 'dirua eta merkantzien arteko antagonismoa' gaudituz, hau da, dirua bera gaudituz, zeren dirua antagonismo horretan eta horren bitartez bakarrik existitzen baita. Era berean gandi liteke Aitasantua katolizismoari bititzen utziz. Horretaz gehiago jakiteko ikusi nire obra: *Zur Kritik der Politischen Ökonomie*, 61 or. eta hh.

A = y erabilera-objektu B.<sup>34</sup> Hemen, A eta B gauzak ez dira merkantziak elkartrukearen aurretik, baizik eta halakotan eraldatzen direla berari esker hain zuzen. Lehen modua, zeinean erabilera-objektu bat, potentzialki, truke-balio izatera iristen baita haren existentzia da ez-erabilera-balio gisa, haren jabearen behar bitartegabeak gainditzen dituen erabilera-balio kantitate gisa. Gauzak dira, beren baitan eta berentzat, gizakiaz besteren eta ondorioz, besterengarri. Besterentze hori elkarrekikoa izan dadin gizakiek aski dute inplizituki elkarri kontra egitea gauza kanporagarri horien jabe pribatu gisa, hain zuzen ere, horrexegatik aurre eginez, elkanekiko pertsona independente gisa. Elkanekiko arrotasun-erlazio hori, hala ere, ez da existitzen jatorri naturaleko erkidego bateko kideentzat, familia patriarkal baten forma daukala, indiar erkidego antzinako batena, estatu inka batena eta abarrena. Merkantzien elkartrukea hasten da erkidegoak amaitzen diren tokian, beste erkidego batzuekiko edo horietako kideekiko ukiguneetan. Baina kanpo-bizitzan gauzak merkantzia bilakatu orduko, halako bihurtzen dira halaber, erreakzioz, erkidegoaren barne-bizitzan ere. Haren elkartrukearen proportzio kuantitatiboa, printzipioz, erabat zorizkoa da. Gauzak elkartrukagarri izatea jabeen nahimen-egintzaz gertatzen da, elkarri besterentzen dizkiote. Horrela ere sendotzen da, pixkanaka, erabilera-objektu besteren beharra. Elkartrukea etengabe errepikatzeak prozesu sozial erregular bihurtzen du hura. Denbora igaro ahala beharrezkoa da gutxienez lanaren produktuen parte bat produzitzea elkartrukean iraultzeko asmoarekin. Une honetatik abiatuta berretsi egiten da, alde batetik, kontsumo zuzenerako gauzen baliagarritasunaren eta elkartrukeerako haien baliagarritasunaren arteko etena. Haien erabilera-balioa bakandu egiten da haien truke-balioetik. Bestalde, proportzio kuantitatiboa, zeinaren arabera elkartrukatzen baitira, haren produkzioaren baitako bihurtzen da. Ohiturak finkatzen ditu balio-magnitude gisa.

334

Produktu-elkartruke bitartegabean merkantzia oro truke-bitarteko bitartegabe da haren jabearentzat, eta baliokide haren ez-jabearentzat, baina harentzat erabilera-balioa duen heinean bakanik. Beraz, trukutzen den artikulua oraindik ez du lortu balio-forma independente bat bere erabilera-balioarekiko edo elkartrukatzailen behar banakoarekiko. Forma horren beharra elkartruke-prozesuan sartzen diren merkantzien kopurua eta bariete hazkorrekin batera garatzen da. Arazoa aldi berean sortzen da ebazteko aukera ematen duten bitartekoekin. Sekula ez da izaten traturik, zeinean merkantzia-jabeek beren artikulua elkartrukatzen baitituzte beste batzuek, eta horiekin erkatzen baitituzte, horien jabe desberdinen merkantzia desberdinak, tratu honen barruan elkartrukatu gabe hirugarren merkantzia bat bezala, beti bera, eta hartan erkatzen baitira balio gisa. Aipaturiko hirugarren merkantzia hori, beste merkantzia desberdin batzuen baliokide bihurtzen den neurrian baliokide orokor edo sozialaren forma hartzen du bitartegabe, nahiz eta muga estuen barruan. Baliokide orokorraren forma hori sortu eta desagertu egiten da bizia eman zion aldiuneko kontaktu sozialarekin. Txandaka eta irazean merkantzia honi dagokio edo beste hari. Baina

<sup>34</sup> Artikuluen masa kaotiko bat artikulua bakar baten baliokidetzat eskaintzen den bitartean (basatien artean sarritan gertatzen denez), baliagarritasunezko bi objektu desberdin trukatu beharrean, produktuen truke zuzenekoaren atalasean bakarrik gaude.

John Gray-ren *The Social System* (1831) obrako proposamenari zuzentzen zaio hori, lan-diruaren sarrerari, gerora Proudhonek hartuko zuenari.

merkantzia-elkartrukearen garapenarekin, era irmo eta eskusiboan atxikitzen zaie merkantzia mota partikularrei, edo diru-forman kristalizatzen da. Zein merkantzia motari finkaturik geratzen den, haisera batean, zorizko gertakaria da. Bi inguruabar, hala ere, oro har determinatzaileak dira. Diru-forma atxikitzen zaie edo kanpotik datozen trukeartikulu garrantzitsuenei, zeinak toki produktuen truke-balioa agertzen den forma naturalak baitira, edo erabilera-objektuari, zeina baita tokiko aberastasuna besterengarriaren elementu nagusia, adibidez, azienda. Herri nomadak lehenak dira diru-forma garatzen, zeren haien pertenezia guztiak higikorrek baitira eta ondorioz, bitartegabe besterengarrien forma hartzen baitute, eta haien bizimoduak etengabeko harremanean jartzen dituelako berenaz bestelako erkidegoekin, ondorioz produktu-trukera bultzatuz. Sarritan gizakiek gizakia bera bihurtu dute, esklabo-formapean, jatorrizko diru-material, baina inoiz ez lurra. Ideia hori gizarte burges jadanik garatuan bakarrik azal zitekeen. XVII. mendearen azken herenekoa da, eta mende bat geroago arte, frantsesen iraultza burgesa arte, ez zen nazio mailan entseatu.

Tokiko hutsak ziren bere lokarriak merkantzia-trukeak zartarazten dituen neurri berean eta merkantzia-balioa, ondorioz, giza lanaren konkrezio material bihurtzeraino, oro har, hedatzen den bezala, neurri berean diru-forma merkantzia trasferitzen zaie, zeinak beren izaeraz egokiak baitira baliokide orokorraren funtzio soziala betetzeko. Merkantzia horiek metal preziatuak dira.

335

Eta, zeren «unea eta zilarra naturaz diru ez diren anen, dirua naturaz urre eta zilar delako»<sup>35</sup> proposamenak haien propietate naturalen eta haien funtzioen arteko kongruentzia erakusten du.<sup>36</sup> Honaino, hala ere, diruaren funtzioetako bat bakarrik ezagutzen dugu, merkantzia-balioari agerpen-forma gisa zerbitzatekoa edo material gisa, zeinean adierazten baitira sozialki merkantzien balio-magnitudeak. Balioagerpenaren forma egokia, edo giza lan abstraktuaren konkrezio material bakanik izan daiteke materia bat, zeinaren proportzioek guztiak kalitate erabakar bera baitute. Gainerakoan, balio-magnitudeen artean dagoen desberdintasuna kuantitatibo hutsa delarik, diru-merkantziak islatu ahal izan behar ditu desberdintasun kuantitatibo hutsak, eta ondorioz, zatigarria izan behar du nahierara, eta integratzeko gai izan behar du gainera atal osagarrietatik hura berriro osatzea. Uneak eta zilarrak naturaz dituzte propietate horiek.

Diru-merkantziaren erabilera-balioa bikoitza da. Erabilera-balio partikularraren alboan merkantzia gisa —urreak, esaterako, hortzetako hუსguneak betetzeko balio du, luxuzko artikuluen lehengai gisa, etab.— haren funtzio sozial espezifiketatik datorren erabilera-balio formala hartzen du.

Gainerako merkantzia guztiak diruaren baliokide partikularrak bakarrik direnez gero, eta hori haien baliokide orokorra, haiek merkantzia partikular gisa portatzen dira merkantzia orokor gisa portatzen den diruaren aurrean.<sup>37</sup>

Ikusia dugu diru-forma isla besterik ez dela, merkantzia bati atxikia, gainerako merkantzia guztien arteko harremanena. Dirua merkantzia dela,<sup>38</sup> bada, soilik da

<sup>35</sup> Karl Marx, op. cit., 135 or. 'Metalak... dirua dira beren naturaz' (Galiani, *Della Moneta*, Custodiren bilduman, *Parte moderna*, 3 libkia., 137 or.).

<sup>36</sup> Gai horri buruzko xehetasun gehiagorako ikusi 'Metal Preziatuak' kapituluaren gorago aipaturiko nire obran.

<sup>37</sup> 'Dirua da merkantzia unibertsala' (Verri, op. cit., 16 or.).

<sup>38</sup> 'Zilarra eta urrea berak, zeinak Lingote (Bullion) izen orokorrak izenda baititzakegu merkantziak... dira... balioz...

aurkikuntza haren figura kontsumatutik abiatzen denarentzat ondoren analizatzeko asmoarekin. Berak diruan eraldatzen duen merkantziari elkartruke-prozesuak ematen dio, ez balioa, baizik ezaugarritzen duen balio-forma espezifikoa. Bi determinazioen arteko nahasteak eragin zuen imajinario kontsideratzea linearen eta zilarren balioa.<sup>39</sup> Funtzio jakin batzuetan unea zeinu soilez ordezkatu daitekeenez gero, beste errorea sortu zen, unea bera zeinu soil izango zelakoa. Guztiarekin ere, kontzepzio horretan inplizitu dago diru-forma gauza berarekiko kanpoko delako susmoa, eta ondorioz, haren atzean ezkutaturiko giza harremanen agerpen-forma hutsa. Ildo horretatik merkantzia oro zeinu izango litzateke, zeren balio den heinean hartan erabilitako giza lanaren estalki objektiboa baita.<sup>40</sup>

336

Baina sostengatzen denean gauzek hartzen dituzten ezaugarri sozialak edo produkzio-modu determinatu baten oinarriaren gaineko lanaren determinazio sozialak asumitzen dituzten gauzen ezaugarriak zeinu hutsak direla, aldi berean baieztatzen da giza gogoetaren produktu hautazkoak direla. Modu kuttun horretara jotzen zen XVIII. mendean giza harremanen forma enigmatikoak azaltzeko, zeinen sortze-prozesua artean ezin baitzen deszifratu, gutxienez behin-behinekoz hari arrotasun-itxura kenduz.

Gorago ohararazi dugu merkantzia batek hartutako balioideformak ez duela inplikatzeko haren balio-magnituda kuantitatiboki determinatua egotea. Urrea dirua dela jakitea eta, honegatik, bitartegabe trukagarria beste edozein merkantziarekiko, ez du esan nahi dakigunik, adibidez, zenbat balio duten 10 libra urrek. Merkantzia

---

igotzen eta jaisten dena. Lingotea kalkula daiteke balio handiagokoa dela, pisu txikiagoak herrialdeko produktuaren edo manufakturararen kantitate handiago bat erosten duenean etab.' (S. Clement, *A Discourse of the General Notions of Money, Trade, and Exchange, as They Stand in Relations to Each Other. By a Merchant*, Londres, 1695, 7 or.). 'Zilarra eta urrea, txanpondua edo txanpondegabea, gainerako gauza guztientzako neurritzat erabiltzen badira ere, ez gutxiago merkantzia dira ardoa, olio, arropa edo materiala baino'. (J. Child, *A Discourse Concerning Trade, and That in Particular of the East-Indies etc.*, Londres, 1689, 2 or.). 'Erresumako aberastasunen gordailua ezin daiteke berez dirura mugatu, urrea eta zilarra ere ez lirateke baztertu behar merkantzia izatekiko' (T. Papillon, *The East-India Trade a Most Profitable Trade*, Londres, 1677, 4 or.).

<sup>39</sup> 'Urreak eta zilarrak metal bezala dute balioa dirua izan baino lehen' (Galiani, op. cit., 72 or.). Locke dio: 'Gizateriaren kontsentimendu unibertsalak eman zion zilarrari, dirua izateko egokia egiten zuten haren nolakotasunak kontuan izanik, balio imajinario bat' (John Locke, *Some Considerations etc.*, 1691, in *Works*, ed. 1777, 2 libkia., 15 or.). Law-k, bestalde, dio 'Nola zitekeen nazio desberdinek balio imajinarioa ematea gauza bakar bati... edo nola zitekeen balio imajinario horrek bere buruari eustea?' Baina berak ere ez zuen gauza handirik ulertzen gaiaz, adibidez, 'Zilarra zeukan erabilerabaliorekiko proportzioan trukatzeko, ondorioz haren balio errealearen proportzioan. Diru bezala hartzean balio gehigarri bat hartzen zuen (*'une valeur additionnelle'*) (Jean Law, *Considerations sur le numeral re et le commerce*, E. Daire-ren argitalpenean: *Economistes financiers du XVIII siecle*, 469-70 orr.).

<sup>40</sup> 'Dirua da haien (merkantzien) sinboloa' (V. De Forbonais, *Éléments du commerce*, argit. Ber., Leyden, 1776, 2 libkia., 143 or.). 'Sinbolo bezala merkantziek erakarria da' (Montesquieu, *Esprit des lois, Oeuvres*, Londres, 2 libkia., 3 or.). 'Dirua ez da sinbolo hutsa, zeren bera ere aberastasuna baita; ez ditu balioak ordezkatzeko, haien balioidea da' (Le Trosne, op. cit., 910 or.). 'Balio kontzeptua kontsideratzen badugu, gauzari berari sinbolo bezala bakarrik begiratu behar diogu; ez du kontatzen bera bezala, baizik balio duen hartarako bezala' (Hegel, op. cit., 100 or.). Ekonomialariak baino askoz lehenago, legelariak modan jarri zuten dirua sinbolo hutsa delako ideia, eta metal preziatuen balio imajinario hutsa dela. Hori errege-boterearen zerbitzu sikofantikoan egin zuten, azken horrek txanponaren balioa behartzeko zeukan eskubidea sostengatuz, Erdi Aro osoan zehar, Inperio Erromatarreko eta Digestoan aurkitzen diren diru kontzepzioen bidetik. 'Inork ez dezala auzitan jar', dio Philip de Valois, haien ikasle iaioak, 1346ko dekretu batean, 'merkataritza, konposizioa, eskaintza eta monetari buruzko ordenantzak argitaratzeko boterea... guri bakarrik dagozkigula eta gure errege-maiestateari, atsegin zaion eta ongi deritzogun interesa eta prezioa ezartzea'. Lege Erromatarren maxima bat zen diruaren balioa Dekretu Inperialez finkatzen zela. Espresuki debekaturik zegoen dirua merkantzia gisa tratatzea. '*Pecunias vero nulli emere fas erit, nam in usu publico constitu tas oportet non esse mercem'*. Eztabaida bikain bat dago horretaz G.P. Pagninirena, in *Saggio sopra il gius to pregio delle cose*, 1751, Custodiren bilduman inprimatua, *Parte moderna*, 2 libkia. Obra horren bigarren atalean Pagninik bere polemika jauna legalen aurka zuzentzen du bereziki.

guztiak bezala, diruak bere balio-magnitude propioa bakarrik adieraz dezake erlatiboki, beste merkantzetan. Haren balio propioa hura produzitzeko behar izandako lan-denborak determinatzen du eta beste merkantzia orotako kantitatean adierazten da, zeinean solidotu baita lan-denbora bera.<sup>41</sup> Balio-magnitude erlatiboaren finkatze hori haren produkzio-iturrian egiaztatzen da, truke-tratu bitartegabeen. Diru gisa zirkulazioan sartu orduko, haren balioa jadanik emana dago. Eta XVII. mendearen azken hamarkadetan, diru-analisiaren hasierako fasea zabalkiro gauditua bazegoen ere, jakina zen azken hori merkantzia zela, artean lehen pausoak bakarrik eman ziren. Zailtasuna ez zegoen dirua merkantzia dela ulertzean, baizik nola, zergatik, zeren bitartez merkantzia bat diru den.<sup>42</sup>

Ikusten genuen balioaren adierazpen soilenean bertan  $x$  merkantzia  $A = y$  merkantzia  $B$  —gauzak, zeinean ordezkaten baita beste gauza baten balio-magnitudea, badirudi baduela bere baliokide-forma harreman honekiko independentea, izaera sozialeko propietate natural gisa. Aztertua dugu itxura faltsu horren sendotzea. Hori bere betetasunera iristen da baliokide-forma orokorra merkantzia mota partikular baten forma naturalarekin identifikatzen denean, horrela diru-forman kristalizatuz. Badirudi merkantzia bat ez dela diruan eraldatzen gainerako merkantzia guztiek beren balioak hartan ordezkaten dituztelako, baizik alderantziz, badirudi horiek hartan ordezkaten dituztela hura dirua delako. Mugimendu bitartekaria desagertu egiten da bere emaitza propioan, bere atzetik inolako aztarnarik utzi gabe. Merkantziek, prozesuan esku hartu gabe, jadanik prest aurkitzen dute beren balio-figura propioa, haietaz kanpo eta haien alboan existitzen den merkantzia baten gorputz gisa. Gauza horiek, unea eta zilarra, lurraren errailetatik sortzen diren bezala, giza lan ororen haragiztapen bitartegabea dira aldi berean. Hortik du diruak bere liluramena. Gizakien portaera atomistiko hutsa haren produkzio-prozesu sozialean, eta ondorioz, haren produkzio-harreman propioek hartzen duten gauza-figura —figura hori ez dago haren kontrolaren, haren egintza banako kontzienteen baitanagertzen da batez ere haren lan-produktuak, oro har, merkantzia-forma hartzean. Diru-fetitxeak duen enigma merkantzia-fetitxearen enigma besterik ez da, orain ikuskor eta begi-itsugarri bihurtua.

<sup>41</sup> 'Gizaki batek ontza bat zilar ekar badezake Londresa Peruko Lurraldetik, bushel bat gari produzi dezakeen aldi berean, orduan bata bestearen prezio naturala da: alabaina, mina berri edo errazagoengatik gizaki batek bi ontza zilar eskura baditzake lehen bakarra eskuratu zuen bezain errazki, bushel bat gari hamar txelinetan lehen bost txelinetan zegoena bezain merkea izango da, *caeteris paribus*' (William Petty, *A Treatise of Taxes and Contributions*, Londres, 1667, 32 or.).

<sup>42</sup> Professor Roscher adituak, lehenik guri berri eman ondoren 'diruaren definizio faltsuak bi talde nagusitan bana daitezkeela: hura merkantzia baino gehiago egiten dutenak, eta hura gutxiago egiten dutenak, diruaren izaerari buruzko obren katalogo pintarratua ematen digu, zeinak ez baitigu ideiarene argi izpirik ematen teoriaren historia errealarari dagokionez. Gero ondorio moral hau ateratzen du: 'Gainerakoan, ez dago ukatzerik geroko ekonomialari gehienek ez dutela behar adina kontuan hartzen dirua beste merkantzetatik bereizten dituzten berezitasunak' (horregatik, azken finean merkantzia bat baino zerbait gehiago edo gutxiago da!)...' Horrenbestez, Ganilhen erreazio erdi-merkantilista ez da inondik ere oinarri gabea' (Wilhelm Roscher, *Die Grundlagen der Nationalökonomie*, 3. argit., 1858, 207-10 orr.).

Gehiago! Gutxiago! Ez behar adina! Horrenbestez! Inondik ere! A zer modua nork bere kontzeptuak determinatzeko! Eta irakasle-erretolika eklektiko hori Roscher jaunak apaltasunez 'metodo anatomiko-fisiologiko' bataiatzen du! Hala ere, aurkikuntza bat egin izanaren kreditua merezi du, hau da, dirua 'merkantzia atsegin bat' delakoarena.

### 3. Kapitulutik. Dirua, edo Merkantzia-zirkulazioa

Dirua da merkantzia absolutuki alienagarria. Atzeraka irakurtzen ditu prezio guztiak eta horretara islatzen da merkantzien gorputz guztietan, zeinak baitira horrela dirua merkantzia izatera irits dadin sakrifikatzen den materiala. Aldi berean, prezioek, merkantziek maitasunezko begirada samurrak botatzen dizkioten begiek, adierazten dizkiote diruari haren eraldatze-gaitasunaren mugak, hau da, haren kantitate propioa. Merkantzia diru izatera iristean desagertzen denez gero, ezinezkoa da horretatik bertatik esatea nola iritsi den jabearen eskuetara, edo zer merkantzia eraldatu den hartan. *Non olei* [ez du usainik], zeinahi delarik ere haren jatorria. Alde batetik merkantzia saldu bat ordezkatzeko badu; besterik, eskura dezakeen merkantzia.<sup>43</sup>

D - M, erosketa aldi berean, salmenta da M - D; merkantzia baten azken metamorfosia, beraz, aldi berean, beste merkantzia baten lehen metamorfosia da. Gure ehulearentzat haren merkantziaren bizikanera bere 2 libera sterlingak bihurtu dituen biblia amaitzen da. Baina biblia-saltzaileak edaribiziaz aldatzen du ehulearengandik eskuratutako 2 libera sterlingak. D - M, eta M - D- Maren azken fasea (mihisea - dirua - biblia) aldi berean M - D da, M - D - Maren lehen fasea (biblia - dirua - edaribizia). Nola merkantzia-produzitzaileak produktu aldebakana soilik hornitzen duenez gero, kantitate handitan saldu ohi du; aldiz, haren behar aldeaskotakoek prezio egikaritua etengabe errepikatzen behartzen dute, edo lortutako diru kopurua, erosketa ugaritan. Ikusten dugunez, salmenta bat merkantzia desberdinen erosketa askotan amaitzen da. Merkantzia baten azken metamorfosia, beraz, beste merkantzia batzuen lehen metamorfosien agregazio bat da.

338

Alabaina, merkantzia baten metamorfosi osoa aztertzen badugu, adibidez, mihisearena, lehenik ikusiko dugu bi mugimendu kontrajarriz osatua dela eta elkar osatzen dutela, M - D eta D - M. Merkantziaren bi mutazio kontrajarri horiek bi prozesu sozial antitetikotan burutzen dira merkantziaren jabearen aldetik, eta berak asumituriko bi eginkizun ekonomiko halaber kontrajarritan islatzen dira. Salmentaren egile gisa saltzaile bihurtzen da; erosketaren egilea gisa, erosle. Baina merkantziaren mutazio orotan haren bi formak aldi berean existitzen diren bezala —merkantziarena eta diruarena—, ezik mutur kantrajarritan, merkantzien jabeak berak aurre egiten dio beste erosle bati eta erosle gisa beste saltzaile bati. Merkantzia bera hunenez hurren alderantzizko bi mutazioetatik aurrera egiten duen bezala —merkantziatik dirura eta dirutik merkantziara—, merkantziaren jabe berak burutzen ditu txandaka erosleeta saltzaile-eginkizunak. Ez dira, bada, eginkizun finkoak, baizik, merkantzien zirkulazioaren markoan, horiek berak etengabe aldatzen dira pertsonaz.

Merkantzia baten metamorfosi osoak, bere formarik sinpleenean, lau *denouemenis* eta hiru *perisonae dramatis* [pertsona jardule] inplikatzeko ditu. Lehenik, merkantzia batek aurrez aurre jartzen da diruarekin; bigarrena lehenaren balioak hartzen duen forma da, eta nor zehar existitzen da beste norbaiten sakelari bere errealitate material gogor guztian. Merkantzia-jabea, bada, diru-jabe batek egiten dio aurre.

<sup>43</sup> 'Diruak ordezkatzeko badu, gure eskuetan, erosi nahi ditugun gauzak, era berean diru horrengatik saldu ditugun gauzak ere ordezkatzeko ditu' (Mercier de la Riviere, op. cit., 586 or.).

Merkantzia dirutan eraldatu bezain laster, hori baliokide-forma iragankorrera igarotzen da, zeinaren erabilerabalioaz edo edukiaz honaindi existitzen baita, beste merkantzia-gorputz batzuetan. Merkantziaren lehen eraldakuntzaren amaigune gisa, dirua aldi berean bigarrenaren abiagune da. Horretara, lehen ekitaldiko saltzailea erosle bihurtzen da bigarrenean, eta hor hirugarren merkantzia-jabe batek aurre egiten dio saltzaile gisa.<sup>44</sup>

Merkantzia-metamorfosiaren bi mugimendu-fase alderantzizkoek ziklo bat eratzen dute: merkantzia-forma, merkantzia-formaz gabetzea, hartara itzultzea. Zalantzarik gabe, merkantzia bera dago hemen antitetikoki determinatua. Abiagunean ez-erabilera-balioa da haren jabearentzat; amaigunean, erabilera-balioa harentzat. Horrela dirua balioaren kristalizazio aldaezin gisa aurkezten da, zeinean bihurtzen baita merkantzia, haren baliokide-forma huts bezala disolbatzeko.

339

Merkantzia baten zikloa taxutzen duten bi metamorfosiek aldi berean beste bi merkantziaren metamorfosi zatiko eta alderantzizkoak eratzen dituzte. Merkantzia berak (mihisea) inauguratzen du bere metamorfosi propioen saila eta beste merkantzia baten (garia) metamorfosi osoa ixten du. Bere lehen mutazioan, hau da, salmentan, pertsonan burutzen ditu bi eginkizun horiek. Aitzitik, unezko krisalida den heinean, hau da, haragi ooren bidea jarraitzen duen egoeran, hirugarren merkantzia baten lehen metamorfosiarri bukaera ematen dio. Merkantzia orok izandako metamorfosi saila deskribatzen duen zikloa, bada, era bereiztezinean katigatzen da beste merkantzia batzuen zikloekin. Prozesua bere osoan merkantzia-zirkulazio gisa aurkezten da.

Merkantzia-zirkulazioa ez da formalki soilik desberdintzen, baizik esentzialki, produktu-truke bitartegabetik. Atzera-begiratu bat soil bat eman diezaiozun gertatuari. Ehulea, ez dago zalantzarik, mihisea bibliaz trukatu du, norbere merkantzia besterenaz. Baina fenomeno hori berarentzat bakarrik da erreala. Biblia-banatzaileak, beroaren zaleago zenak hotzarena baino, ez zuen pentsatu bere biblia mihiseaz trukatzen zuenik, ehuleak ere batere susmatzen ez duen bezala bere mihisea garaiz trukatu zuela. Bren merkantziak Aren merkantzia ordeztzen du, baina Ak eta Bk ez dituzte trukatzen elkarrekin beren merkantziak. Gerta daiteke, errealitatean, Ak Bri merkantziak erostea eta Bk Ari, baina harreman berezi hori inondik ere ez dago baldintzaturik merkantzia-zirkulazioaren harreman orokorren aldetik. Alde batetik, hemen ohartzen da, nola merkantzia-elkartrukeak aurrean eramaten dituen produktu-elkartruke bitartegabearen hesi banako eta tokikoak eta giza lanaren metabolismoa gararazten duen. Bestalde, izaera naturaleko lokarri sozial sail oso bat garatzen da, pertsona jarduleen kontrolpean ez daudenak. Ehuleak mihisea sal dezake nekazariak garia saldu duelako soilik: Hotspur-ek bibliak sal baditzake ehuleak mihisea saldu zuelako da; distilatzaileak edaribizia sal dezake, zeren besteak dagoeneko saldua baitu bizitza betiereko ura, etab.

340

#### *4. Kapituluua Kapitalaren formula orokorra*

---

<sup>44</sup> 'Beraz badira... lau azken termino eta alderdi kontratatzaile, zeinetarik batek bi aldiz sartzen baitu eskua' (Le Trosne, op. cit., 909 or.).



Merkantzia-zirkulazioa da kapitalaren abiagunea. Merkantzia-produkzioa, merkantzia-zirkulazio garatua, merkataritza dira aurrepostu historikoak, zeinen azpian sortzen baita hori. Mundu-merkataritzak eta mundu-merkatuak inauguratzen dute XVI. mendean kapitalaren biografia modernoa. Merkantzia-zirkulazioaren edukia, erabilerabario desberdinen elkartrukea alde batera uzten badugu, prozesu horrek sortzen dituen forma ekonomikoak aztertzeraz mugatuz, aurkituko dugu haren azken produktua dirua dela. Merkantzia-zirkulazioaren azken produktu hori da kapitalaren lehen agerpen-forma.

Historikoki kapitalak lur-jabetzari aurre egiten dio lehenik diruforman, diru-ondare gisa, merkataritza-kapital eta lukurari-kapital gisa.<sup>45</sup> Hala ere, ez dago atzera-begiraturik egin behanik kapitalaren protohistoriari diruan haren lehen agerpena berrezagutzeko. Historia hori bera jokutzen da egunero gure begien aurrean. Kapital berri oro lehen aldiz sartzen da eszenan, hau da, merkaturan, merkantzia-merkatuan, lanmerkatuan edo diru-merkatuan, beti diru bezala, prozesu determinatu batzuen bitartez kapital bihurtuko den diru bezala beti.

Dirua diru den heinean eta dirua kapitala den heinean, hasiera batean, horien zirkulazio-forma desberdinarengatik bereizten dira soilik.

Merkantzia-zirkulazioaren forma bitartegabea M - D - M da, merkantzia diru bihurtzea eta hori hartan berreraldatzea, saltzea erosteko. Forma horrekiko parez pare bigarren bat aurkitzen dugu, ordea, hartaz espezifikoki desberdina dena: D - M - D forma, dirua merkantzia bihurtzea eta merkantzia dirutan berreraldatzea, erostea saltzeko. Dirua, zeina bere mugimenduan azken zirkulazio mota horri egokitzen baitzaio, kapitalean eraldatzen da, kapital bilakatzen da eta jadanik bada, haren determinazioaren arabera, kapital.

Azter dezagun hurbilagotik D - M - D zirkulazioa. Honek, merkantzia-zirkulazio soilak bezala, bi fase kontrajarri korritzen ditu. Horietako lehenean, D - M, erosketa, dirua merkantzia eraldatzen da. Bigarren fasean, M - D, salmenta, merkantzia dirutan berreraldatzen da. Baina bi faseen batasunak taxutzen du mugimendu osoa, zeinek aldatzen baitu dirua merkantziaren truke eta merkantzia bera berriro diruaren truke; merkantzia erosten du saltzeko, edo, alde batera uzten badira erosketa eta salmentaren arteko desberdintasun formalak, merkantzia erosten du diruaz eta dirua merkantziatz.<sup>46</sup> Prozesu hori guztia kontsumatzen den emaitza dirua diruz elkartrukatzea da. B. aldian eta 100 libera sterlingez 2.000 libra kotoi eskuratzen baditut, eta horiek 110 libera sterlingez saltzen baditut, azkenean 100 libera sterling 110 libera sterlingez aldatuak izango ditut, dirua diru truke.

341

Alabaina, begi-bistakoa da D - M - D zirkulazio-prozesua zentzugabea eta edukigabea litzatekeela itzulinguru horren bidez dirubario bat diru-bario beraz aldatuko nahi izango balitz, hau da, adibidez, 100 libera sterling 100 libera sterlingen truke. Askoz sinple eta seguruagoa litzateke bere 100 libera sterlingak eradukitzen dituen altxortzailearen prozedura zirkulazioaren arriskupean jani gabe. Bestalde, merkataritza 110 libera sterlingetan saltzen duela 100 libera sterlingetan erositako

<sup>45</sup> Lur-jabetzaren, dominazio eta joputzako harreman pertsonaletan oinarrituaren botereraren, eta diruaren boterearen arteko antagonismoa, zeina inpersonala baita, argiro adierazten dute bi zuhurriz frantsesek: '*Nulle terre sans seigneur*', eta '*L'argent n'a pas de maître*'.

<sup>46</sup> 'Diruarekin merkantziak erosten dira, eta merkantziekin dirua erosten da'. (Mercier de la Riviere, *L'Ordre naturel et essentiel des sociétés politiques*, 543 or.).

kotoia edo hartaz gabetu behar duela 100 libera sterlingetan edo are 50 libera sterlingetan, kasu guztietan haren diruak mugimendu berezi eta original bat egin du, merkataritza-zirkulazio sinpleak egiten duenaz zeharo bestelakoa, adibidez, garia saltzen duen nekazariaren eskuetan zeinak honela lortutako diruarekin jantziak eskuratzen baititu. Beraz, lehenik forma-desberdintasunak ezaugarritzea dagokio D - M - D eta M - D —M zikloen artean. Honekin, aldi berean, desberdintasun formal horien atzean ezkutaturik dauden desberdintasun formalak azaleratuko dira.

Ikus dezagun lehenik zer duten batera bi forma horiek.

Bi zikloak bi fase kontrajarri beretan deskonposatzen dira, M D, salmenta, eta D - M, erosketak. Bi faseetako bakoitzean gauzen munduko bi elementu berak kontrajartzen dira, merkantzia eta dirua, eta maskara ekonomiko berak erakusten dituzten bi pertsona, erosle bat eta saltzaile bat. Bi ziklo horietako bakoitzak fase kontrajarri beraren batasuna eratzen du, eta bi kasuetan batasuna bitartekotua da hiru alderdi kontratatzaile eszenan sartzen direlako, zeinetarik bat saltzera mugatzen baita, bestea erostera, baina hirugarrenak txandaka erosi eta saldu egiten baitu.

Aldez aurretik, hala ere, M - D - M eta D - M - D bi zikloak bereizten dituen zirkulazio-fase kontrajarri beren alderantzizko sekuentzia da. Merkantzia zirkulazio sinplea salmentarekin hasten da eta erosketarekin amaitzen da, diru-zirkulazioa kapital gisa erosketan hasten da eta salmentan amaitzen da. Han merkantzia da nola mugimenduaren abiagunea hala amaigunea eratzen duena; hemen, dirua. Lehen forman dirua da prozesu osoa bitartekotzen duena, alderantzizkoan, merkantzia.

342

M - D - M zirkulazioan dirua azkenean merkantzian eraldatzen da, zeinak zerbitzuak ematen baititu erabilera-balio gisa. Behin betiko gastatu da, beraz, dirua. Alderantzizko forman, D - M D, aitzitik, erosleak dirua ematen du saltzaile bezala eskuratzeko asmoarekin. Merkantzia erostean dirua jaurtitzen du zirkulaziora hartatik erretiratzeko merkantzia beraren sarmentaren bidez. Diruaz gabetzen da, baina berriro eskua ezartzeko asmo maltzurarekin. Aurreratzera mugatzen da, beraz.<sup>47</sup>

M - D - M forman diru-pieza bera bi aldiz aldatzen da lekuz. Saltzaileak eroslearen eskutik hartzen du eta hartatik aldendu egiten da beste saltzaile bati ordaintzean. Prozesu osoa, merkantziaren truke dirua hartzean hasten dena, dirua merkantziaren truke emanez ixten da. Alderantziz, D - M - D forman. Ez da diru-peza bera hemen bi aldiz lekuz aldatzen dena, merkantzia bera baizik. Erosleak saltzailearen eskutik lortzen du, eta hartaz gabetzen da, beste erosle bati utziz. Merkantzia-zirkulazio sinplean diru-pieza beraren leku-aldatze bikoitzak esku batzuetatik beste batzuetarako behin betiko transferentzia eragiten zuen bezala, kasu honetan merkantzia beraren leku-aldatze bikoitzak inplikatzeko du dirua bere abiagunera birjariatzea.

Dirua abiagunera birjariatzea ez dago merkantzia erosi zena baino garestiago saltzearen baitan. Inguruabar horrek birjariatzen den diru kopuruaren magnitudearen gain bakarrik du eragina. Birjariatze-fenomenoa merkantzia erositako birsaltzen den orduko gertatzen da, zeinarekin osoki deskribatzen baita D - M - D

---

<sup>47</sup> 'Gauza bat erosten denean berriro saltzeko, erabilitako zenbatekoari diru aurreratua deitzen zaio; ez saltzeko erosten denean gastatzeko egin dela esan daiteke' (James Steuart, *Works, etc.*, General Sir James Steuart, haren semeak argitaratua, Londres, 1805, 1 libkia., 274 or.).

zikloa. Beraz, hori zentzumenez hauteman daitekeen desberdintasuna da kapital gisa zirkulatzen duen diruaren eta diru soil gisa zirkulatzen duenaren artean.

Osoki egiten da M - D - M zikloa merkantzia baten salmentak dirua sortzen duen orduko, zeina beste merkantzia baten erosketak kendu egiten baitu, bestalde. Guztiarekin ere, dirua abiagunera birjariotzen bada, joaira osoaren berritzeari edo errepikatzeari bakanik zor zaio. Quarter bat gari saltzen badut 3 libera sterlingetan eta 3 libera sterling horiekin jantziak erosten baditut, niretzat 3 libera sterling horiek behin betikoz gastatuak daude. Jadanik ez dut zerikusirik horiekin. Jantzi-saltzailearenak dira. Alabaina, bigarren quarter bat gari saltzen badut, berriz dirua jariotuko da nire eskura, baina ez lehen transakzioarengatik, haren errepikapenaren ondorioz soilik. Dirua berriro urrundu egiten da nigandik bigarren transakzioa amaitu eta berriro erosten dudanean. M - D - M zikloan, bada, diruaren gastuak ez du inolako zerikusirik haren birjariotzearekin. D - M - Dn, aitzitik, diruaren birjariotzea haren gastuaren motak berak baldintzatzen du. Birjariotze hori gabe, eragiketak huts egiten du edo prozesua eten egiten da eta amaitu gabe geratzen da, haren bigarren fasea falta baita, erosketak osatzen eta kitatzen duen salmenta.

343

M - D - M zikloa merkantzia batek eraturiko mutur batetik abiatzen da eta beste batek taxuturiko muturrean amaitzen, zeina zirkulaziotik irten eta kontsumoan sartzen baita. Beraz, kontsumoa, beharrak asetzea edo, hitz batean, erabilera-balioa da haren azken xedea. D - M - D zikloa, aldiz, diruak eraturiko muturretik abiatzen da eta mutur horretara berera berrituztzen da. Horren zio bultzatzailea eta honen xede determinatzailea, beraz, truke-balioa bera da.

Merkantzia-zirkulazio sinplean bi mutunek dute forma ekonomiko bera. Biak merkantziak dira. Eta, gainera, balio-magnitude berdina duten merkantziak. Baina erabilera-balio kualitatiboki desberdinak dira, adibidez, garia eta jantziak. Produktu-elkartrukeak, material desberdinen trukeak, zeinetan ordezkutzen baita lan soziala, taxutzen du hemen mugimenduaren edukia. Ez da gertatzen gauza bera D - M - D zirkulazioan. Lehen begiradan, tautologikoa delako, edukigabea dirudi. Bi muturrak dirua dira, beraz ez dira erabilera-balio kualitatiboki desberdinak, zeren dirua baita hain zuzen ere merkantzien figura transmutaria, zeinean iraungi baitira erabilera-balio partikularrak. Aurrena 100 kotoiaz aldatzea eta gero, bestalde, kotoi bera 100ez, hau da, itzulinguru bat eginez, dirua diru truke, gauza bera gauza beraren truke, badirudi erabat xederik gabeko eragiketa bezain zentzugabea dela.<sup>48</sup>

<sup>48</sup> Inork ez du dirua diruaz trukatzeko, azaltzen die Mercier de la Rivierek merkantilistei (op.cit., 486b or.). 'Merkataritza' eta 'espekulazioa'ri buruzkoa dela dioen obra batean hau agertzen da: 'Merkataritza oro datza mota desberdineko gauzak trukatzeko; eta abantada '(merkatariarentzat?)' desberdintasun horretatik sortzen da. Libra bat ogi libra bat ogiz trukatzeko... ez luke inolako abantailarik;... Hortik dator merkataritza abantailarekin kontrastatzea jokoarekin, zeina baita dirua diru hutsez trukatzeko'. (Th. Corbert, *An Inquiry into the Causes and Modes of the Wealth of Individuals; or the Principles of Trade and Speculation Explained*, Londres, 1841, 5 or.). Nahiz eta Corbetek ez ikusi D D, dirua diruaz trukatzeko zirkulazio-forma karakteristikoa dela, ez bakarrik merkatarien kapitalarena, baizik kapital ororena, halere gutxienez berrezagutzen du forma hori komuna zaiola jokoari eta espekulazioa izeneko beste merkataritza mota bati. Gero, hala ere, Mac Culloch sartzen da eszenan, eta baieztatzen du saltzeko erostea espekulazioa dela, eta horrela espekulazioaren eta merkataritzaren arteko bereizkuntza desagertu egiten da. 'Transakzio oro, zeinean norbanako batek produktua erosten baitu berriz saltzeko egitatez espekulazioa da' (Mac Culloch, *A Dictionary, Practical etc., of Com merce*, Londres, 1847, 1009 or.). Askoz *naivete* gehiagorekin, Pintok, Amsterdameko Burtsako Pindaroak, ohartzen du: 'Merkataritza joko bat da' (esapide hori Lockerengandik mailegatua da) 'eta ezin da ezer irabazi eskaleengandik. Norbaitek edozer irabaziko balu edonorengandik luzaroan, beharrezkoa izango litzateke mozkinaren parterik handiena atzera borondatez itzultzea joko berriro hasteko' (Pinto, *Traité de la circulation et du credit*, Amsterdam, 1771, 231 or.).

Diruzenbateko bat soilik bereiz daiteke beste batetik haren magnitudearengatik. Beraz,  $D - M - D$  prozesuak ez dio zor bere edukia ezein desberdintasun kualitatibori beren muturren artean, zeren bata eta bestea dirua baitira, baizik haren desberdintasun kualitatiboari soilik. Azken finean, diru gehiago ateratzen da zirkulaziotik hasieran bertara jaurti zena baino. 100ean eskuratutako kotoia, adibidez, 100+10ean birsaltzen da, hau da 110ean. Prozesu horren forma betea, beraz,  $D - M - D'$  da, non  $D' = D + \Delta D$ , hau da, berdin hasiera batean aurreratutako diru kopurua gehi gehipen bat. Gehipen hori edo jatorrizko balioaren gaineko soberakina deitzen dut nik gainbalio (*surplus value*). Jatorriz aurreratutako balioak ez du, bada, iraun bakanik egiten zirkulazioan, baizik eta hartan modifikatu egiten du bere balio-magnitudea, gainbalio bat gehitzen du edo baliotu egiten da. Eta mugimendu horrek kapitalean eraldatzen du.

344

Halaber, ahalgarria da, noski,  $M - D - M_n$  bi muturrak,  $M, M$ , adibidez garia eta jantziak, balio-magnitude kualitatiboki desberdinak izatea. Litekeena da nekazariak bere garia haren balioaren gainetik saltzea edo jantzia haren balioaren azpitik erostea. Gerta liteke jantzi-saltzaileak iruzur egitea. Baina balio-desberdintasun horrek, zirkulazio-forma horren kasuan, guztiz zorizkoa izaten jarraitzen du. Horrek ez ditu bere zentzua eta izateko arrazoa galtzen  $D - M - D$  prozesuaren kasuan, baldin eta bi muturrak, adibidez garia eta jantzia, baliokideak badira. Horien baliokidetza hor areago da joaira normalaren baldintza.

Erosteke egintzaren errepikapenak edo berritzeak bere neurria eta bere jomuga aurkitzen du, prozesu honek berak bezala, hortaz kanpo kokaturiko azken xede batean: kontsumoan, behar determinatu batzuk asetzean. Aitzitik, salmentarako erosketan, hasiera eta amaiera gauza bera dira, dirua, truke-balioa, eta horregatik berorregatik prozesua amaieragabea gertatzen da. Egia da  $D D + A D_n$  eraldatu dela 100 libera sterling 110+10 libera sterling. Baina ikuspuntu kualitatibo hutsetik, 110 libera sterling 100 libera sterling adina dira, hau da, dirua. Eta kuantitatiboki kontsideraturik, 110 libera sterling balio-zenbateko mugatu bat da, 100 libera sterling bezala. 110 libera sterlingak gastatuko balira diru bezala, beren eginkizuna betetzeari utziko liokete. Kapital izateari utziko liokete. Zirkulaziotik aterata, harrizko bihurtuko lirake altxor-formapean eta zentabo bakar bat ere ez lukete emango Azken Judiziora arte gordeta egongo balira ere. Beraz, balioa baliotzea baldin bada kontua, behar bera dago 110 libera sterlingak baliotzeko 100 libera sterlingak bezala, zeren bi zenbatekoak truke-balioaren adierazpen mugatuak baitira, eta ondorioz bata eta besteak dei bera baitute hurbiltzeko, hazkuntza kuantitatibo baten bidez, aberastasun absolutura. Jakina, 100 libera sterlingen balioa, jatorriz aurreratuarena, zirkulazioan sortu den 10 libera sterlingeko gainbalio-une batek bereizten du, baina desberdintasun hori berehalaxe desegiten da. Prozesuaren amaieran ez da sortzen alde batetik 100 libera sterlingen jatorrizko balioa eta besterik 10 libera sterlingen gainbalioa.

345

Prozesutik sortzen dena da 110 libera sterlingeko balio bat da, zeina aurkitzen baita forma egoki berean baliotze-prozesua hasteko, jatorrizko 100 libera sterlingak bezala.<sup>49</sup> Ziklo singular bakoitzaren amaierak, zeinean egiten baita salmentarako

Pindarok (522-422 K. A.) odak ondu zituen garaipen olinpikoak goretsiz; Pinto (K.A. 1715-87) Amsterdameko espekulatzailerik eta merkataririk aberatsak liburuak idatzi zituen bere herrialdeko finantza-sistema goretsiz.

<sup>49</sup> 'Kapitala banaturik dago... jatorrizko kapitalean eta mozkinen -kapitalaren gehitzean... nahiz eta praktikan

erosketa, bere kabuz taxutzen du, beraz, ziklo berri baten hasiera. Merkantzia-zirkulazio sinplea —erosteko saltzeabitarreko gisa balio du zirkulazioaz kanpo ezarritako azken xede bati: erabilera-balioez jabetzeari, beharrak asetzeari. Diruaren kapital gisako zirkulazioa, aitzitik, bere baitako xede bat da, zeren balioaren baliotzea etengabe berrituriko mugimendu horren markoan bakarrik existitzen baita. Kapitalaren mugimendua, beraz, neurrigabea da.<sup>50</sup>

Mugimendu horren eroale kontziente gisa, diruaren jabea kapitalista bihurtzen da. Haren pertsona, edo, areago haren patrika, diruaren abiagunea eta itzulgunea da. Zirkulazio horren eduki objektiboa —balioaren baliotzeada haren xede subjektiboa, eta aberastasun abstraktuaren jabetze hazkorra haren eragiketen zio bultzatzaile bakarra den neurrian, funtzionatzen du hark kapitalista gisa, hau da, kontzientziaz eta nahimenez hornituriko kapital pertsonifikatu gisa. Beraz, ez da inoiz kontsideratu behar erabilera-balioa kapitalistaren xede bitartegabe gisa<sup>51</sup>. Ezta irabazi bakartua ere, baizik irabaziak lortzearen mugimendu nekaezina.<sup>52</sup> Aberasteko gurari absolutu hori, truke-balioaren atzetiko ehiza grinatsu hori<sup>53</sup> batera dute kapitalistak eta altxortzaileak, baina altxortzailea kapitalista zentzugabea baizik ez da, berriz, kapitalista eta altxortzaile arrazionala da. Balioaren zabaltze atergabea, zeina

---

mozkina bitartegabe metatzen den kapitalarekin eta harekin mugimenduan jartzen den' (F. Engels, *Umriss zu einer Kritik der Nationalökonomie*, in *Deutsch Französische Jahrbücher*, Arnold Ruge eta Karl Marxek argitaratua, Paris, 1844, 99 or.).

<sup>50</sup> Aristotelesek ekonomia 'krematistika'rekin kontrajartzen du. Ekonomiarekin hasten da. Eskuratzearen artea den heinean, existentziarako beharrezkoak diren eta etxerako edo estatuarentzat baliagarriak diren artikuluak lortzera mugaturik dago. Egiazko aberastasuna ó ἀληθινός πλούτος horrelako erabilera-balioetan datza; zeren bizitza on baterako beharrezkoa den jabetza-zenbatekoa ez baita mugagabea... Bada, ordea, gauzak eskuratzeko bigarren modu bat, zeinari lehenasunez eta zuzentasunarekin krematistika izena ematen baitiogu, eta kasu horretan badirudi ez dagoela mugarik aberastasun eta jabetzarako. Merkataritza ή χατηλιχη hitzez hitz txikizkari merkataritza da, eta Aristotelesek forma hori aukeratzen du horretan erabileralioak nagusi direlako) bere izaeraz ez da krematistikakoa, zeren horretan trukeak soilik baitu erreferentzia haientzat (eroslearentzat eta saltzailearentzat) beharrezkoa denarekin'. Horrela, erakusten jarraitzen duen neurrian, merkataritzaren jatorrizko forma trukea izan zen, baina horren hedapenarekin diruaren beharra sortu zen. Diruaren aurkikuntzarekin, behararen trukea χατηλιχη, merkantzia-merkataritza bihurtu zen, eta hori berriz ere, bere jatorrizko joerarekin kontraesanean, krematistika, dirua egiteko arte izateraino hazi zen. Orain krematistika bereiz daiteke ekonomiatik honetan: 'krematistikarako, zirkulazioa da aberastasunen iturria ποηιχη χρημάτων ... διάχρημάτων μεταβολής. Eta badirudi dirua birarazten duela, zeren dirua baita truke mota horren hasiera eta amaiera το γάρ νόμισμα στοιχείον χαί πέρας τής αλλαγής έστιν .Beraz, aberastasunak, krematistikak lortu nahi dituen bezala, mugagabeak dira. Xede baterako bitarteko ez diren arte guztiak bezala, baizik bere baitako xede, ez du mugarik bere helburuetarako, zeren gero eta gehiago saiitzen baita xede hartara hurbiltzen; aldiz, xede baterako bitartekoak jarraitzen dituzten arteak ez dira mugagabeak, zeren jomugak berak ezartzen baitie muga bat; horrela krematistikarekin ez dago mugarik haren jomugentzat, muga horiek aberastasun absolutua baitira. Ekonomiak, krematistikak ez bezala, muga du... zeren lehenaren objektua diruaz bestelako zerbait baita, bigarrenarekiko dirua gehitzea... Bi forma horiek nahastetik, zeinek elkar teilakatzen baitute, batzuk eramanak izan dira dirua preserbatu eta *ad infinitum* gehitzea ekonomiaren azken jomugatzat kontsideratzera' (Aristoteles, *De Repu blica*, Bekker argit., I. libkia, 8, 9 kap., passim).

<sup>51</sup> 'Merkantziak' (hemen erabileralio zentzuan erabilia) 'ez dira merkataritza kapitalistaren bukaeraobjektu, dirua da bukaera-objektu' (T. Chalmers, *On Political Economy etc.*, 2. Ed., Glasgow, 1832, 165-6 orr.)

<sup>52</sup> 'Nahiz eta merkataria ez duen kontsideratzen egin duen mozkina ezer ez bezala, guztiarekin ere begia beti etorkizuneko bere mozkinen ezarritako dauka' (A. Genovesi, *Lezio ni di economia civile* 1765, italiar ekonomialarien Custodiren edizioan inprimatua, *Parte moderna*, % libkia., 139 or.).

<sup>53</sup> 'Irabaziaren grina iraungiezinak, *auri sacra famesak*, gidatuko ditu beti kapitalistak' (Mac Culloch, *The Principles of Political Economy*, Londres, 1830, 179 or.). Ikuspuntu horrek, jakina, ez ditu prebenitzen MacCulloch bera eta haren sozioak, zailtasun teorikoetan daudenean, adibidez, gainproduktzioaren tratamenduan, kapitalista bera hiritar onean eraldatetik, zeinaren ardura bakarra erabilera-balioak baitira, eta zeinak gose aseezina garatzen baitu bota, sonbrairu, arrautza, perkala eta beste erabilera-balio mota guztiz arruntekiko.

altxortzaileak jazartzen baitu dirua zirkulaziotik salbatzen<sup>54</sup> ahalegintzen denean, kapitalista zurrangoak atzeman egiten du, behin eta berriz zirkulaziora jaurtiz.<sup>55</sup>

Forma independenteak, merkantzia-balioak zirkulazio sinplean hartzen dituen diru-formak, merkantzia-elkartrukea bitartekotzera murrizten dira eta desagertu egiten dira mugimenduaren azken emaitzan. Aldiz, D - M - D zirkulazioan biek funtzionatzen dute, merkantziak eta diruak, balio beraren existentziaren modu desberdin gisa bakarrik: diruak haren existentzia-modu orokor gisa, merkantziak haren existentzia-modu partikular gisa edo, nolabait esatearren, existentzia-modu mozorrotu gisa.<sup>56</sup> Balioa atergabe pasatzen da forma batetik bestera, mugimendu horretan galdu gabe, horrela subjektu automatiko bihurtuz. Baliotzen den balioak bere bizi-zikloan txandaka hartutako agerpen-forma partikularrak finkatzen baditugu, honako baieztapenetara iritsiko gara: kapitala dirua da, kapitala merkantzia da.<sup>57</sup> Baina egitatean balioa hor prozesu baten subjektu bihurtzen da, zeinean diru- eta merkantzia-formak atergabe aldatuz, modifikatu egiten baitu bere magnitude propioa, gainbalio gisa bere baitatik jatorrizko balio gisa jaulkitzen da, autobaliotu egiten da. Gainbalioa eransten duen mugimenduak, izan ere, bere mugimendu propioa du, eta haren baliotzea, beraz, autobaliotzea. Balioa delako balioa eranstearen nolakotasun ezkutukoa lortu du. Kume biziak erditzen ditu, edo, gutxienez, uneko arrautzak erruten ditu.

346

Prozesu horretako subjektu menderatzaile gisa, zeinean orain diru-forma edo merkantzia-forma hartzen baitu, orain haietaz gabetu egiten baita, baina bere burua iraunaraziz eta hedatuz aldaketa horietan, balioak forma autonomo bat behar du batez ere, zeinean bere identitatea frogatzen baitu bere buruarekin. Eta forma hori diruak bakarrik dauka. Horregatik da hori baliotze-prozesu oroaren abiagunea eta amaigunea. 100 libera sterling zen, eta orain 110 libera sterling da, etab. Baina diruak berak hemen balio-forma bezala bakarrik kontatzen du, zeren horrek bi forma baititu. Merkantzia-forma hartu gabe, dirua ez da kapital bilakatzen. Dirua, bada, ez da aurkezten hor polemikan merkantziaren aurka, altxortzean gertatzen denez. Kapitalistak badaki merkantzia guztiak, zarpailtsuak diruditen arren edo usain txarra duten arren, fedean eta egian dirua direla, judu barnetik erdainduak diren bezala, eta gainera bitarteko miresgarriak dirutik diru gehiago egiteko. Baldin eta zirkulazio sinplean merkantzien balioak, haren erabilera-balioaren aurrean, gehienez ere diruaren forma autonomoa hartzen badu, hor supituki prozesuan dagoen substantzia bezala aurkezten da, mugimendu propioa duena bezala, zeinerako merkantzia eta dirua forma hutsak besterik ez baitira. Baina areago oraindik. Merkantzia-harremanak ordezkatu ordez, orain agertzen da, nolabait esatearren, bere buruarekiko harreman pribatu batean. Jatonzko balio gisa bere buruarengandik gainbalio gisa bereizten da —Jainko Aita bere buruarengandik bereizten den bezala Jainko Seme den heinean, nahiz eta biak adin berekoak izan eta

<sup>54</sup> Σώζειν [salbatu] adierazpen greko karakteristikoko bat da metatu esateko. Ingelesezko 'to save' hitzak *retten* [erreskatatu] eta *sparen* [salbatu] esan nahi ditu.

<sup>55</sup> 'Gauzek nolakotasun infinitua dute zirkulu batean mugitzen direnean, lerro zuzenean aurrera egiten dutenean ez daukatena'. (Galiani, op. cit., 156 or.).

<sup>56</sup> 'Ez da materiala kapitala eratzen duena, baizik materialaren balioa' (J.B. Say, *Traited'economiepolitique*, 3. Ed., Paris, 1817, 2 libkia., 429 or.).

<sup>57</sup> Artikuluak produzitzean erabilitako moneta (!)... kapitala da' (Macleod, 77ie *Theory and Practice of Banking*, Londres, 1855, 1 libkia., I kap., 55 or.). 'Kapitala merkantzia da' (James Mili, *Elements of Political Economy*, Londres, 1821, 74 or.).

izatez pertsona bakarra eratu—, zeren 10 libera sterlingen gainbalioaren indarrez bakarrik, aurreratutako 100 libera sterlingak kapitalean eraldatzen dira, eta hori egiten delarik, Semea sortua delarik eta haren bitartez Aita, berriro desagertu egiten da desberdintasuna eta biak Bakarra dira, 110 libera sterling.

345

Balioa, beraz, prozesuko balio, prozesuko diru bihurtzen da, eta halakoa den heinean kapital. Zirkulaziotik dator, hartara itzultzen da, hartan irauten du eta biderkatzen da, gehiturik itzultzen da hartatik eta behin eta berriz, ziklo berari benekiten dio beti.<sup>58</sup> D - D', «dirua inkubatzeko duen dirua» —*money which begets money*— dio kapitalaren definizioak haren lehen interpreteen, merkantilisten ahoan.

Saltzeko erosi edo, zehatzago, garestiago saltzeko erosi. D - M - D'k lirudike, noski, kapital mota bat besterik ez dela, forma berezi bat, merkantari-kapitala. Baina kapitala industrialara ere merkantzia bihurtzen den dirua da eta merkantziaren salmentaz diru gehiagoan birbihurtzen da. Adibidez, erosketaren eta sarmentaren artean obratzen diren egintzek, zirkulazioko esferaz kanpo, ezertan ez dute modifikatzen mugimenduaren forma hori. Azkenik, interesa ematen duen kapitalaren kasuan, D - M - D' zirkulazioa laburbildurik aurkezten da, bere emaitzarekin baina bitartekotzarik gabe, estilo lapidarioan nolabait esateko, D - D' bezala, dirua berdin diru gehiago, bere burua baino handiagoa den balioa.

Egitatean, bada, D - M - D', zirkulazioaren esferan bitartegabe agertzen den bezala, kapitalaren formula orokorra da.

## 6. Kapitulu Lanindarraren erosketak eta salmenta

Kapital bihurtu behar duen diruaren balio-aldaketa ezin daiteke diru horretan bertan obratu, zeren erosketak-bitarteko eta ordaintzeko-bitarteko gisa erosten edo ordaintzen duen merkantziaren prezioa bakarrik egikaritzen (*realisieren*) baitu, aldiz, bere forma propioan badirau, harrizko bihurtzen da balio-magnitude aldaezin gisa.<sup>59</sup> Modifikazioa ere ezin daiteke bigarren zirkulazio-ekitalditik ere sor, merkantziaren birsalmentatik, zeren egintza hori merkantzia forma naturaletik diru birbihurtzera mugatzen baita. Aldaketa, bada, lehen ekitaldian erosten den merkantziarekin obratu behar da, D - M, baina ez horren balioarekin, zeren balioak trukatzeko baitira, merkantzia bere balioan ordaintzen da. Beraz, modifikazioa soilik sor daiteke haren erabilera baliotik halakoa den heinean, hau da, haren kontsumotik. Eta merkantzia batetik kontsumo-balioa ateratzeko, gure diru-jabeak gain zori onekoa izan beharko luke, non aurkituko duen zirkulazio-esferaren barruan, merkaturan, merkantzia bat, zeinaren erabilera-balioak izango lukeen balio-iturri izatearen propietate berezia; zeinaren kontsumo efektiboa bera, bada, lanaren objektibazio, eta ondorioz balio-sortze izango litzatekeen. Eta diru-jabeak aurkitu egiten du merkaturan merkantzia berezi hori: lan-gaitasuna edo lanindarra.

348

Lanindarrez edo lan-gaitasunez ulertzen dugu gaitasun fisiko eta intelektualen multzoa, zeinak existitzen baitira gizaki baten sointasunean, nortasun bizian eta

<sup>58</sup> 'Kapitala... bere burua iraunkorki biderkatzen duen balioa da' (Sismondi, *Nouveaux principes d'économie politique*, I libkia., 89 or.) [alemanez aipatua jatorrizkoan, eta zertxobait aldatua].

<sup>59</sup> 'Diru-forman... kapitalak ez du mozkinik produzitzen' (Ricardo, *Principles of Political Economy*, 267 or.).

zeinak berak mugimenduan jartzen baititu edozein motatako erabilera-balioak produzitzen dituenean.

Hala eta guzti ere, diru-jabeak lanindarra merkatuan aurki dezan, merkantzia gisa, baldintza batzuk bete behar dira. Merkantzien elkartrukea, beren baitan eta berentzat, ez du inplikitzen haien natura propiorik sortzen direnak baino dependentzia-harreman gehiago. Aurreuposizio horren azpian, lanindarra, merkantzia gisa, soilik ager daiteke merkatuan haren jabe propioak —lanindar hori dagokion pertsonak— merkantzia bezala eskaintzen eta saltzen duen neurrian eta egitatez. Haren jabeak merkantzia gisa sal dezan beharrezkoa da hura eskura izatea, eta, beraz, bere lan-gaitasunaren, bere pertsonaren jabe aske izatea.<sup>60</sup> Berak eta diru-jabeak merkatuan aurkitu eta elkarrekiko harremanak ezartzen dituzte eskubide berez hornituriko merkantzien jabe gisa, zeinak soilik bereizten baitira bata saltzailea eta bestea eroslea direlako; biak, bada, pertsona juridikoko berdinak dira. Harreman horrek iraun dezan beharrezkoa da lanindarraren jabeak beti denbora determinatu baterako saltzea, zeren behin betiko salduko balu, bere burua saltzen du, gizaki aske izatetik esklabo bihurtzen da, merkantziaren jabe izatetik merkantzia soil. Pertsona bezala portatu behar etengabe bere lanindarrarekiko bere jabetzarekiko bezala, eta soilik dago hori egiteko moduan eroslearen eskura jartzen duen neurrian —kontsumorako lagatzen dio— aldi baterako bakarrik, beraz, haren alienazioarekin harekiko jabetzari uko egin gabe.<sup>61</sup>

Bigarren baldintza esentziala, zeinak ahalbidetzen barrio diruaren jabeari lanindarra aurkitzea merkatuan merkantzia gisa hau da, lanindarraren jabea, merkantziak saltzeko gai izan ordez, zeinean haren lana objektibatu baita, areago bultzatua sentitzea merkantzia gisa salmentan eskaintzera haren soin bizian bakarrik existitzen den lanindar hura bera eskaintzera.

349

Norbaitek bere lanindarraren merkantzia desberdinak saldu ahal izateko, norbait horrek produkzio-bitartekoen, adibidez, lehengaien, laneko tresnen eta abarren jabe izan behar du. Larrurik gabe ez dago botak egiterik. Gainera, bizigaiak behar ditu. Inor ezin da etorkizuneko produktuetatik bizi —ezta etorkizun-musikaria ere—, eta ondorioz, ezta erabilera balioetatik ere, zeinen produkzioa ez baita oraindik amaitu eta lurreko agertokian azaldu ziren lehen egunean bezala, gizakiak egunero kontsumitu egin behar du produzitu baino lehen eta produzitzen duen bitartean.

<sup>60</sup> Antzinaro klasikoko entziklopedietan honelako zentzugabekeria irakur daitezke: Antzinako munduan kapitala erabat garaturik zegoen, 'langile libreen absentsia eta kreditusistema salbu'. Mommsenek ere, bere *History of Rome* obran, hutsegitea hutsegitearen gain metatzen du horri dagokionez.

<sup>61</sup> Hortik dator zenbait herrialdetako legediak luzera maximo bat finkatzea lan-kontratuarako. Lan askea arau den tokian, legeak arautzen ditu kontratu hori bukatzeko baldintzak. Estatu batzuetan, Mexikon bereziki (eta Gerra Zibil Amerikarraren aurretik Estatu Batuek Mexikori hartutako lurraldeetan, baita praktikan Danubioko Printzerrietan ere Cuzaren *coup d'état-a* arte), esklabotza peoitz-formapean ezkutatu izan da. Lanaz berrordaingarriak diren aurrerapenen bitartez, zeinak belaunaldi belaunaldi entregatzen baitira, ez bakarrik langile banakoak, baita haren familia ere, egitatean beste pertsona batzuen eta haien familien jabetza bihurtzen zen. Juarezek ezabatu egin zuen peoitz, baina Maximiliano enperadore deituak berrezarri egin zuen dekretu baten bidez, zeina egokiro salatua izan baitzen Washingtingo Ordezkarien Etxean Mexikon esklabotza berriro sartu zuen dekretu gisa. 'Neure trebezia fisikoaren eta mentalaren eta jarduteko nire ahalmenaren produktu banakoak alienoa diezazkioket beste norbaiti eta neure gaitasunen erabilera aldi mugatu baterako eman diezaioket, zeren, mugapen horren indarrez, nire gaitasunek kanon-harreman bat lortzen baitute nire izatearen totalitatearekiko eta unibertsaltasunarekiko. Neure denbora guztia, nire lanean kristalizatua den heinean, eta produzitu dudana guztia alienatzean, beste baten jabetza bihurtuko nuke neure izatearen substantzia, neure jarduera eta errealtate unibertsala, neure nortasuna'. (Hegel, *Philosophie des Rechts*, Berlin, 104 or., 67 para.).



Produktuak merkantzia gisa produzitzen badira, saldu beharra dago produzitu eta gero, eta produzitzailearen salmentaren ondoren soilik ase ahal izango dira produzitzaile horren beharrak. Produkzio-denborari salmentarako beharrezko denbora gehitzen zaio.

Dirua kapitalean eraldatzeko diru-jabeak, bada, merkantzia-merkatuan langile askea aurkitu behar du; askea zentzu bikoitzean: alde batetik, gizaki aske den heinean bere lanindarra eskura duena merkantzia gisa, eta besterik, saltzeko beste merkantziarik ez duela, gabeturik eta deshorniturik dagoela, bere lanindarra ekinean jartzeko beharrezko gauzez soildurik. Diru-jabeak, zeinek jadanik lan-merkatua merkantzia-merkatuaren sail berezi bezala aurkitzen baitu, ez zaio axola galdetzea zergatik langile aske horrek aurre egiten dion zirkulazio-esferan. Eta, oraingoz, galdera hori guri ere ez zaigu axola. Teorikoki gertakariari lotzen gatzaizkio, diru-jabeak praktikan egiten duenez. Gauza bat, ordea, begi-bistakoa da. Naturak ez du sortzen alde batetik diruedo merkantzia-jaberik eta, besterik, beren lanindar propioak dituzten pertsonak. Harreman honek ez du oinarririk historia naturalean, ezta aldi historiko guztiei komuna zaien onarri sozialik ere. Bere honetan, nabarmen, aurreko garapen historikoaren emaitza da, iraulketa ekonomiko askoren produktua, produkzio sozialaren formazio zahar sail oso baten beherakadarena.

Lehen kontsideratutako kategoria ekonomikoek ere badaramate beren zantzu historikoa. Produktuaren merkantzia gisako existentzian estalita daude baldintza historiko determinatuak. Merkantzia bihurtzeko, produktuak ez da produzitu behar subsistentzia-bide bitartegabe gisa produzitzailearentzat berarentzat. Geure ikerketa jarraitu izan bagenu galdetuz zer inguruabarretan hartzen duten produktu guztiek edo produktuen gehiengoak merkantziaren forma, aurkituko genukeen hori ez dela gertatzen produkzio-modu absolutuki espezifiko baten, produkzio-modu kapitalistaren, oinarriaren gainean izan ezik.

350

Ikerketa hori, ordea, arrotza zaio merkantziaren analisiari. Gerta daitezke merkantzia-produkzioa eta merkantzia-zirkulazioa, nahiz eta produktuen parte handiena produzitzaileen beraien autoasekuntzarako izan bitartegabeki, ez eraldatu merkantziatan; bada, produkzio-prozesu soziala oraindik truke-balioz eraendu gabe dagoen, bere hedadura eta sakonera osoan. Produktua merkantzia gisa aurkezteak inpliketzen du gizartearen banuan lanaren banaketa hain garatua, non erabilera-balioa eta truke-balioaren arteko etena, doi hasia truke-merkataritza bitartegabeen doi hasia, burutuko den. Garapen-fase hori, hala ere, komun dute gizarte-formazio ekonomiko historiko askok [*ökonomische Gesellschaft Formationen*], zeinek ezaugarri historiko desberdinak baitituzte.

Edo, dirua kontsideratzen badugu, ikusten dugu honek auresuposatzen duela merkantzia-trukeak maila jakin bat lortu izana. Diru-forma partikulanek —merkantzien baliokide hutsek edo zirkulazio-bitartekoek edo ordainketa-bitartekoek, altxorrak eta mundu-diruak— adierazten dituzte, haietako bakoitzaren tamainaren eta funtzio bataren edo bestearen munta erlatiboaren arabera produkzio-prozesu sozialeko estadio oso deberdinak. Guztiarekin ere, esperientziaz dakigu garapen erlatiboki mengeleko merkantzia-zirkulazio bat aski dela forma horiek guztiak sor daitezen. Ez da gauza bera gertatzen kapitalarekin. Honen existentzia-baldintza historikoak ez daude emanak, inondik ere, merkantzia-eta diru-zirkulazioarekin. Bakarrik sortzen da produkzio-bitartekoen eta

biziraupen-bitartekoen jabeak merkatuan langile askea aurkitzen duenean bere lanindarraren saltzaile gisa, eta baldintza historiko honek historia unibertsal bat inplikatzeko du. Kapitalak, beraz, lehen mementotik aro berri bat iragartzen du produkzio-prozesu sozialean.<sup>62</sup>

Orain astiroago aztertu behar dugu merkantzia berezi hori, lanindarra. Beste merkantzia guztiek bezala, balio baten jabe da.<sup>63</sup> Nola determinatzen da?

351

Lanindarraren balioa, beste edozein merkantziarena bezala, artikulu berezi horren produkzioarako beharrezko lan-denborak determinatzen du, eta, beraz, baita birprodukzioarako ere. Balioa den heinean, lanindarrak berak ordezkatzeko du soilik hartan objektibatutako batez besteko lan sozialaren kantitate determinatu bat. Lanindarra soilik existitzen da norbanako biziaren gaitasun bezala. Haren produkzioak, beraz, horren existentzia aurreuposatzen du. Existentzia hori emanik, lanindarraren produkzioa datza bere birprodukzio edo kontserbazio propioan. Bere kontserbazioarako norbanako biziak biziraupen-bitartekoen kantitate jakin bat behar du, edo, bestela esateko, lanindarraren balioa haren jabearen kontserbazioarako beharrezko biziraupen-bitartekoen balioa da. Lanindarra, hala ere, haren kanporatzearen bidez bakanik egikaritzen da: lanean bakarrik kanporatzen da. Baina ekinean jartzearen bidez, zeina baita lana, giza muskulu, nerbio, burmuin, eta abarren kantitate determinatu bat gastatzen da. Gastu gehitu honek berekin dakar sanera gehitu bat ere.<sup>64</sup> Lanindarraren jabeak gaurko egunez lan egin badu, beharrezkoa da bihar prozesu bera errepika dezan kemen eta osasun bereko baldintzatan. Biziraupen-bitartekoen baturak, bada, norbanakoa lanean mantentzera iritsi behar du honelakoa den heinean, haren bizi-baldintza normalean. Behar naturalak berak —janaria, jantzia, berokuntza, etxebizitza, etab.— desberdinak dira berezitasun klimatikoaren eta herrialde bateko gainerako baldintza naturalen arabera. Gainerakoan, behar ezinbesteko deitzen bolumena bera ere, baita haien asetzaren mota ere, produktu historikoa da, eta neurri handi batean herrialde baten kultura mailaren baitan daude, eta esentzialki, beste gauza batzuen artean, langile askeen klasea eratu den baldintzen baitan ere bai, eta beraz haien azturen eta bizi-gurariaren baitan.<sup>65</sup> Gainerako merkantziekiko kontrajartzez, bada, lanindarraren balioaren determinazioak elementu historiko eta moral bat dauka bere baitan. Hala ere, herrialde determinatu baterako, aldi determinatu baterako emana dago langile baten biziraupen-bitarteko beharrezkoen batez besteko kopurua.

Lanindarraren jabea hilkorra da. Beraz, haren presentziak etengabea izan behar duelarik merkatuan —dirua kapitalean eraldatzeak aurreuposatzen duenez—, lanindarraren saltzaileak betikotu egin beharko du bere burua, «banako bizi oro betikotzen den moduan, ugaltzearen bidez»<sup>66</sup> Behanezko izango da etengabe berrezartzea lanindar berrien kopuru gutxienez berdin batekin higaduraz eta

<sup>62</sup> Aldi kapitalista, beraz, lanindarrak, langilearen beraren begietan, merkantzia-forma hartzeak ezaugarritzen du, zeina baita haren jabetza; haren lanak ondorioz soldata-lanaren forma hartzen du. Bestalde, une horretatik bakarrik bihurtzen da unibertsal lan-produktuen merkantzia-forma.

<sup>63</sup> 'Gizaki baten balioa edo meritua, beste gauza guztiena bezala haren prezioa da zera esatea adina da, zenbat emango litzatekeen haren indarraren erabilerarengatik' (T. Hobbes, *Leviathan*, in *Works*, Molesworth ed., Londres, 1839-44, 3 libkia., 76 or.).

<sup>64</sup> Antzinako Erroman, beraz, *villicusak*, nekazaritza-esklaboek kapataz gisa, 'langile esklaboek baino sari murriztagoa jasotzen zuen, zeren haren lana arinagoa baitzen' (T. Mommsen, *Römische Geschichte*, 1856, 810 or.).

<sup>65</sup> Cf. W. T. Thornton, *Over-Population and its Remedy*, Londres, 1846.

<sup>66</sup> Petty

heriotzaz merkatutik erretiratzen direnak. Lanindarraren produkzioarako beharrezko biziraupen-bitartekoen baturak, bada, ordezkoen biziraupen-bitartekoak ditu bere baitan, hau da, langileen seme-alabenak, halako moldez, non merkantzia-merkatuan betikotu ahal izango den merkantzia-jabe berezi horren arraza.<sup>67</sup>

352

Giza natura orokorra modifikatzeko, halako moldez non gaitasuna eta trebetasuna eskuratuko dituen lan-abar determinatu batean, lanindar garatu eta espezifikoki bihurtuko baita, prestakuntza edo hezkuntza determinatu bat behar da, zeinak bestalde merkantzia-baliokide kopuru handiago edo txikiagoa kostatzen baita. Lanindarraren izaera gehiago edo gutxiago bitartegabea den heinean, desberdinak izango dira haren prestakuntzaren kostuak. Aprestakuntza-kostu horiek, izugarri txikiak lanindar arruntaren kasuan, horren produkzioarako gastaturiko balioen zenbatekoan sartzen dira, beraz.

Lanindarraren balioa biziraupen-bitartekoen batura determinatu baten balioan ebazten da. Ondorioz, aldatu egiten da biziraupen-bitartekoen balioarekin, hau da, haren produkzioarako behar den lan-denboraren magnitudearen arabera.

Biziraupen-bitartekoen parte bat —adibidez, janaria, erregaiak, etab.— egunero kontsumitzen da, eta egunero berrezarri behar izaten dira. Beste biziraupen-bitarteko batzuk, hala nola, jantzia, altzariak, etab., denbora-epe luzeagotan kontsumitzen dira, eta honegatik denbora-epe luzeagotan berrezartzen dira. Mota bateko merkantziak egunero erosi edo ordaindu behar izaten dira, beste batzuk astero edo hiruhilabetez behin, etab. Baina zeinahi delarik ere gastu horien zenbatekoa banatzeko era, adibidez, urtebetean zehar, beharrezkoa da egunegunegun estaltzea batez besteko sarreraz. Baldin eta egunero lanindarraren produkzioarako beharrezko merkantzien masa izango balitz = A, astero beharrezkoa = B, hiruhilabetero beharrezkoa = C, etab., merkantzia horien eguneroko batez bestekoa  $\frac{365 A + 52 B + 4 C + \dots}{365}$  izango litzateke.

Demagun batez besteko egun baterako beharrezkoa den merkantzia-masa horretan lan sozialeko 6 ordu daudela, lanindarrean batez besteko lan sozialeko egun-erdi bat objektibatzen da egunero, edo lanegun-erdi bat behar dela lanindarraren eguneroko produkzioarako. Horren eguneroko produkzioarako behar den lan kantitate honek eratzen du lanindarraren eguneroko balioa edo egunero birproduzitutako lanindarraren balioa. Lanindarraren jabeak egunero salgai jartzen badu txelin baten truke, haren salmenta-prezioa haren balioaren berdina da eta, gure supostuaren arabera, diru-jabeak, bere talerra kapital bihurtzeko gutizia duenak, ordaindu egiten du balio hori.

353

Lanindarraren balioaren azken muga edo muga minimoa merkantzien masaren balioak eratzen du, zeinaren eguneroko horniketarik gabe lanindarraren eroaleak, gizakiak, ezin baitu beritu bere bizi-prozesua; hau da, fisikoki ezinbestekoak diren biziraupen-bitartekoen balioa. Lanindarraren prezioa minimo honekiko erortzen bada, bere balioaz azpitik erortzen da, zeren kasu horretan forma atrofiatu batean bakarrik iraun eta gara baitaiteke. Baina merkantzia ororen balioa haren

<sup>67</sup> 'Haren' (lanaren prezio naturala... datza bizitzako erosotasun eta beharrezkoen halako kantitatean, non, klimaren izaeratik, eta herrialdeko ohituretatik beharrezkoak baitira langileak sostengatzeko, eta haiei ahalbidetzeko halako familia bat mantentzera, non preserbatuko duen, merkatuan, lan-eskaintza urritugabe bat' (R. Torrens, *An Essay on the External Corn Trade*, Londres, 1815, 62 or.). Lan hitza oker erabilia dago hor lanindarraren ordez.

kalitate-egoera normalean hornitzeko beharrezko lan-denborak determinaturik dago.

Sentimentalkeria harrigarriro merkea da lanindarraren balioaren determinazio hori zakartzat jotzea, zeina gauzaren naturari berari baitario, eta Rossik bezala hileta jotzea: «Lan-gaitasuna (*puissance de travail*) kontzebitzea produkzio-prozesuan langileen biziraupen-bitartekoak alde batera utzita, kimera bat (*être de raison*) kontzebitzea da. Lana dioenak, lan-gaitasuna dioenak, aldi berean dio langilea eta biziraupenbitartekoa, langilea eta soldata». <sup>68</sup> Lan-gaitasuna dioenak ez dio lana, digeritzeko gaitasuna dioenak digestioa ez dioen bezala. Azken prozesu horretarako, jakina denez, urdail ona baino zerbait gehiago behar da. Lan-gaitasuna dioenak ez da abstraitzen horren biziraupenerako beharrezko bitartekoez. Horien balioa adierazten da, areago, haren balioan. Hura saltzen ez bada, ezertan ez dio aprobetxatzen langileari, zeinak sentitzen baitu, aitzitik, behar anker natural bat bezala bere lan-gaitasunak biziraupen-bitartekoen kantitate determinatu bat behar izana bere produkziarako eta beti berriro behar izatea bere birprodukziarako. Orduan Sismondirekin aurkitzen du, «lan-gaitasuna... ezer ez dela berau saltzen ez bada». <sup>69</sup>

Merkantzia espezifiko horren, lanindarraren natura bereziak berekin dakar eroslearen eta saltzailearen artean kontratua egitean haren erabilera-balioa artean errealki ez pasatzea eroslearen eskura. Haren balioa, beste edozein merkantziarena bezala, zirkulazioan sartu aurretik determinaturik zegoen, zeren lanindarraren produkziarako lan sozialaren kantitate determinatu bat gastua baitzegoen, baina honen erabilera-balioa indar horren geroko indar-kanporatzean. Indarraren alienazioa eta honen kanporatze erreala, hau da, horren existentzia erabilera-balio den heinean, ez datoz bat denboran. Merkantzien kasuan, zeinean erabilera-balioaren alienazio formala salmentarengatik eta erosleari errealki ematea denboran aldentzen baitira, eroslearen diruak burutzen du, oro har, ordainketa-bitartekoaren funtzioa. <sup>70</sup>

354

Produkzio-modu kapitalistako herrialde guztietan lanindarra erosketa-kontratuan ezarritako epean funtzionatu eta gero soilik ordaintzen da, adibidez, aste bakoitzaren amaieran. Alderdi guztietan, langileak irekitzen dio kreditua kapitalistari. Kreditu hori ez dela fantasia hutsa erakusten du ez bakarrik kreditaturiko soldataren noizbehinkako galerak kapitalistak porrot egitean, <sup>71</sup> baizik izaera iraunkorragoko efektu sail batek ere bai. <sup>72</sup>

<sup>68</sup> Rossi, *Cours d'économie politique*, Brusela, 1842, 370-71 or.

<sup>69</sup> Sismondi, *Nouvelles Principes etc.*, I libkia., 113 or.

<sup>70</sup> 'Lan oro bukatu eta gero ordaintzen da'. (*An Inquiry into Those Principles Respecting the Nature of Demand, etc.*, 104 or.). 'Merkataritza-kredituaren sistema hasi behar izan zuen langileak, produktuen sortzaile nagusiak, bere aurrezkiei esker, bere soldatari itxaron ziezaiokeen mementoan astearen, hamabostaldiaren, hilabetearen, lauhilekoaren eta abarren amaiera arte' (C. Ganilh, *Des systemes de l'économie politique*, 2. Ed., Paris, I libkia., 150 or.).

<sup>71</sup> 'Langileak mailegatu egiten dio bere industriari', dio Storchek. Baina herabeti gehitzen dio horri langileak 'ezer arriskatzen ez duelako' baieztapena, 'bere soldataren galera...' izan ezik. 'Langileak ez du izaera materialeko ezer entregatzen' (Storche, *Cours d'économie politique*, St. Petersburgo, 1815, 2. Libkia., 36-7 orr.).

<sup>72</sup> Adibidebat. Londresenbieratako okinak daude, 'prezio osokoak', ogia balio osoan saltzen dutenak, eta 'azpisaltzaileak', balioaren azpitik saltzen dutenak. Azken horiek okinen kopuru osoaren hiru laurdenak baina gehiago dira (XXXII orrialdea H. S. Tremenheeren Txostenean, komisarioak seinatu zuen aztertze 'ofizial okinek aurkezturiko kexuak' etab., Londres, 1862). Azpisaltzaileek, ia salbuespenik gabe, alunbre, xaboi, perla-errauts, igeltsu, Derbyshireko harri-hauts eta antzeko osagai atsegin, elikagarri eta osasungarri eta abarrez adulteraturiko ogia saltzen dute. (Ikusi goian aipaturiko Liburu Urdina, baita 1855eko batzorde hautatuaren txostena janariaren

Guztiarekin ere, diruak erosketa-bitarteko gisa edo ordainketabitarteko gisa funtzionatzea merkantzia-elkartrukearen izaera ezertan afektatzen ez duen ingurabana da. Lanindarraren prezioa kontratuz estipulaturik dago, nahiz eta, etxe baten alokairuan bezala, gerora egikaritzen den. Lanindarra salduta dago nahiz eta geroago bakarrik hura ordaindu. Harremana bere garbitasunean kontzebitzeko, hala ere, baliagarria da bitartean suposatzea, lanindarraren jabeak berehalakoan jasotzen duela aldioro, hura saltzean, kontratuz estipulaturiko prezioa.

Orain ezagutzen dugu diru-jabeak merkantzia berezi honen, lanindarraren jabe denari ordaintzen dion balioa determinatzeko modua. Lehenak, bere aldetik, elkartrukean lortzen duen erabilerabalia, kontsumo errearekin, lanindarraren kontsumo-prozesuan bakarrik agertuko da. Diru-jabeak merkaturan erosten ditu prozesu honetarako beharrezko gauza guztiak, hala nola, lehengaia, etab., eta prezioa betea ordaintzen du. Lanindarraren kontsumo-prozesua da aldi berean merkantziaren eta gainbalioaren produkzio-prozesua. Lanindarraren kontsumoa, beste edozein merkantziarena bezala, merkaturaz edo zirkulazio-esferaz kanpo burutzen da. Horregatik bertan behera utziko dugu gainaldean kokaturiko eta begi guztientzat zabalik dagoen esfera zaratatsu hori, diru-jabearekin eta lanindar-jabearekin batera, haien pausoen atzetik, produkzioaren egoitza ezkutukora jotzeko, zeinaren atalburuan irakurtzen baita: *No admittance except on business* [Ez sartu negoziotarako ez bada]. Hor erakutsiko zaigu ez bakarrik kapitalak nola produzitzen duen, baizik bera, kapitala, nola produzitzen den. Azkenean agerian geratuko da mozkingintzaren misterioa.

355

Zirkulazioaren edo merkantzia-trukearen esfera, zeinen mugen barruan mugitzen baitira lanindarraren erosketa eta salmenta, egitatean jaiotzatiko giza eskubideen egiazko paradisu bat zen. Han askatasuna, berdintasuna, jabetza eta Bentham ziren nagusia. Askatasuna! Zeren merkantzia baten eroslea eta saltzailea, adibidez, lanindarrarena haien nahimen askeak bakarrik determinaturik baitaude. Pertsona aske, juridikoki berdin gisa egiten dute kontratua. Kontratua azken emaitza da,

---

adulterazioaz, eta Hassall Dr.aren *Adulterations Detected*, 2. ed., Londres, 1861.) Sir John Gordonek baieztatu zuen 1855eko batzordearen aurrean 'adulterazio horien ondorioz, egunean bi libra ogirekin bizi den behartsuak orain ez duela gai elikagarriaren laurden bat eskuratzen, alde batera utzita haren osasunean dituen efektu kaltegarriak'. Tremeneheek deklaratu du (op. cit. xlviii or.) 'langile-klasearen parte oso handi batek', nahiz eta adulterazio horretaz jabeturik egon, guztiarekin ere alunbrea, harri-hautsa, etab., beren erosketaren parte gisa onartzearen arrazoitzat, haientzat 'ezinbestekoa dela okinarengandik edo dendariarengandik haiek hornitzea hautatzen duten ogia hartzea'. Astearen amaiera arte soldatak ordaintzen ez zaizkienez gero, haiek, bestalde, ez dira gai 'asteaz zehar familiak kontsumituriko ogia ordaintzeko, asteburua baino lehen', eta Tremeneheek gehitzen du lekukoan testigantzarekin, 'nabaria da nahaste horiez osatutako ogia era horretara saltzeko espresuki egina dela'. 'Nekazaritzadistrito ingeles askotan (eta oraindik gehiago eskoziarretan) 'soldatak hamabostean eta hilean behin ere ordaintzen direla; ordaintzen arteko tarte hain luzeekin, nekazaritza-langileak beharturik dago kreditupean erostera... Prezio altuagoak ordaindu behar ditu, eta egitatez kreditua ematen dion dendari loturik dago. Horrela Wiltseko Horninghamen, adibidez, non soldatak hilerok ordaintzen baitira, beste edonon stoneko 1s 10d-an eros litekeen irin bera stoneko 2s 4d kostatzen zaio' (*Public Health, Sixth Report of the Medical Officer of Privy Council, etc.*, 1864, 264 or.). 'Paisley eta Kilmarnockeko (Eskoziaren Mendebala) estanpatzaileek behartu egin zuten 1833an greba baten bitartez ordainketa-epaia hilabetetik hamabost egunetara murriztea' (*Reports of the Inspectors of Factories...31 October 1853, 34 or.*). Langileek kapitalistari emandako kredituaren beste garapen hobe bat bezala, ikatz-jabe ingeles askok hartutako metodoa aipa dezakegu, zeinaren bidez langileari ez baitaio ordaintzen hilaren amaiera arte, eta bitartean kapitalistak kopuruak ematen dizkio kontura, askotan ondasunetan, zeinen truke meatzaria beharturik baitago merkatu-prezioa baino gehiago ordaintzera (truck system). 'Praktika komuna da ikatz-jabeen artean hilean behin ordaintzea, eta beren langileei eskudirua aurreratzea tarteko aste bakoitzaren amaieran. Eskudirua dendan ematen zaie' (hau da, nagusiaren dendan); 'gizonen alde batean hartzen dute eta bestean uzten dute' (*Children's Employment Commission, Third Report, Londres, 1864, 38 or., 192 zk.*).

zeinean haien nahimenak bat egiten baitira adierazpen juridiko komun batean. Berdintasuna! Zeren merkantzia-jabe gisa bakanik erlazionatzen baitira beren artean, eta baliokidea baliokidez trukutzen dute. Jabetza! Zeren bakoitzak bera bakarrik baitauka eskura. Bentham! Zeren bietako bakoitza bere buruaz bakanik arduratzen baita. Batzen eta harremanetan jartzen dituen botere bakarra haien egoismoarena da, haien abantada pertsonalarena, haien interes pribatuena. Eta, hain zuzen ere, bakoitza bere buruaz bakarrik arduratzen delako eta inor ez bestaz, denek burutzen dute, gauzen harmonia aurrezani baten ondorioz edo probidentzia zuhurtziaorodun baten auspizioen pean, haien probetxu elkarrekikoaren, haien altruismoaren, haien interes kolektiboaren obra soilik.

Zirkulazio sinplearen edo merkantzia-trukearen esfera hori atzean uztean, zeinean 'librekanbista *vulgarisak*' ematen baititu ideiak, kontzeptuak eta kapitalaren eta soldatapeko lanaren gizartea epaitzen duen neurria, eraldatu egiten da neurri batean, dirudienez, gure *drama tis personaen* [pertsoneien] fisionomia. Behiala diru-jabe zenak irekitzen du orain martxa kapitalista gisa, lanindarren jabeak jarraitu egiten du haren langile gisa; batak, esanguratsu, asebetarik irribarre egiten du eta aurrera joz; besteak herabeti, atzera joz, bere larra propioa merkatura eraman eta orain gauza bakarra espero dezakeenak bezala: hura ontzea!

## 7. Kapitulu Lan-prozesua eta baliotze-prozesua

### 1. Lan-prozesua

Lanindarraren erabilera lana bera da. Lanindarraren erosleak haren saltzaileari lana eraginez kontsumitzen du. Horrekin azken hori *actu* [errealiki] izatera iristen da lehen *potentia* bakanik zena: bere burua mugimenduan jartzen duen lanindarra, langilea. Haren lana merkantziatan ordezkatzeko, ezer baino lehen erabilera-baliotan ordezkatu behar du, edozein eratako beharrak asetzeko balioko duten gauzatan. Kapitalistak, bada, egiten du langileak erabilera-balio berezi bat, artikulu determinatu bat produzitzea. Erabilera-balioen edo ondasunen produkzioak ez du modifikatzen haren izaera orokorra kapitalistarentzat eta haren fiskalizaziopean gertatzen delako. Hortik dator hasiera batean lan-prozesua ikertu behar izatea, alde batera utzirik horrek hartzen duen forma sozial determinatua.

356

Lana, lehenik, gizakiaren eta naturaren arteko prozesu bat da, prozesu bat, zeinean gizakia bitartekotu, arautu eta kontrolatu egiten baitu naturarekiko bere metabolismoa. Gizakiak aurre egiten dio materia naturalari berari botere natural batekin. Bere sointasanari dagozkion indar naturalak, besoak eta zangoak, burua eta eskuak mugimenduan jartzen ditu, naturako materialez jabetzeko bere bizitza propiorako forma baliagarri batean. Mugimendu horren bidez berataz kanpoko naturaren gain obratzean eta hura eraldatzean, bere natura propioa eraldatzen du aldi berean. Hartan lozorroan zeuden potentziak eta bertako indar-jokoa bere nagusitasunaren pean ezartzen ditu. Hemen ez ditugu aipatuko lanak dituen lehen forma instintuzkoak, izaera animaliazkoak. Langilea merkatuan aurkezten den egoerak, bere lanindarraren saltzaile gisa, atzean utzi du, garai primitiboan atze-oihala, giza lanak artean erantzi gabe zeukan lehen forma instintuzkoaren

egoera. Lana kontzebitzen dugu forma batean, zeinean gizakiari bakanik baitagokio. Armiamak ehulearenak gogorarazten dituen eragiketak burutzen ditu, eta erleak lotsarazi egingo luke, bere abaraskako zeldatxoak eraikitzeagatik, maisu arkitekto bat baino gehiago. Baina abantailaz maisu igeltsero txarrena eta erlerik hoberena bereizten dituen da lehenak zeldatxo bere buruan moldatu duela ezkoan eraiki baino lehen. Lan-prozesuaren amaieran langilearen buruan, hau da, idealki jadanik hura hasi aurretik existitzen zen emaitza bat sortzen da. Langileak ez du soilik naturazkoaren forma-aldaketa bat burutzen; naturazkoan, aldi berean, bere xede propioa egikaritzen du; berak badaki xede horrek determinatu egiten duela, lege batek bezala, bere eragitearen modua eta era, zeinari mendekotu behar baitio bere nahimena. Eta subordinazio hori ez da egintza bakartua. Lan egiten duten organoak behartzeaz gainera, langileari eskatzen zaio, lanaren iraupen osoan, xede batera zuzenduriko nahimena, zeina aditasun gisa agertzen baita. Eta hainbat gehiago eskatzen da aditasun hori, zenbat eta erakargarritasun gutxiagokoa baita langilearentzat lan hori, haren eduki propioz eta hura egikaritzeko formaz eta moduz; zenbat eta gutxiago gozatu langilean aipaturiko lanaz bere indar fisiko eta intelektual propioen joko batez bezala.

357

Lan-prozesuaren elementu sinpleak xede batera zuzenduriko jarduera (1) edo lana bera (2), haren xedea eta haren bitartekoak dira.

Lurra (zeinaren barruan baitago ura ere, ekonomikoki hitz eginez), gizakiari bizigaiak, kontsumorako jadanik prest dauden biziraupen-bitartekoak hornitzen dizkion jatorrizko egoeran,<sup>73</sup> haren esku-sartzerik gabe existitzen da giza lanaren objektu orokor gisa. Lana lurrarekiko lotura bitartegabetik askatzera mugatzen den gauza guztiak naturan aurreexistitzen diren lan-objektuak dira. Horrela, adibidez, arraina, zeina atzematen baita bere bizi-elementutik, uretik bereiziz; oihan birjina eraitsitako zura; meatik erauzitako minerala. Aldiz, baldin eta lanaren objektua, nolabait esatean, jadanik pasatua bada aurreko lan baten iragazkitik, lehengai deitzen dugu. Adibidez, meatik bakandutako minerala, gero garbitzen dena. Lehengai oro lan-objektua da, baina lan-objektu oro ez da lehengai. Lan-objektua soilik da lehengai, jadanik lanak bitartekoturiko modifikazio bat izan duenean.

Lan-bitartekoa gauza bat edo gauza multzo bat da, zeina langileak jartzen baitu beraren eta lan-objektuaren artean eta zeinak zerbitzatzeko baitio bere jardueraren eroletzat objektu horren gain. Langilea gauzen propietate mekaniko, fisiko eta kimikoez baliatzen da obrarazteko, finkatua duen xedearen arabera, beste gauza batzuen gaineko egintza-bitarteko gisa.<sup>74</sup> Objektua, zeinaz langilea bitartegabe jabetzen baita, kontsumorako jadanik prest dauden biziraupen-bitartekoak atzematea alde batera utzirik, esaterako, frutak —kasu horretan soin-organo propioek balio izaten dute lan-bitarteko gisa—, ez da lan-objektu, lanbitarteko baizik. Horrela naturazkoa bera bere jardueraren organo bihurtzen da, langileak bere

<sup>73</sup> 'Lurraren produkzio espontaneoak kantitate txikitan, gizakiarengandik independenteak izaki, agertzen dira, nolabait esateko, Naturak hornituak bezala, gazte bati diru-zenbateko txiki bat ematen zaion modura, hura ekinbideren batean eta bere fortuna egiteko eran jartzeko' (James Steuart, *Principles of Political Economy*, Dublin, 1770, I libkia., 116 or.).

<sup>74</sup> Arrazoa ahalsua bezain maltzurra da. Maltzurra dela esan daiteke egintza elkarbitartezkoan zeinak, objektuei beren joera propioari jarraitzea eta agortu arte beste batean gain jardutea ahalbidetzen dien eta prozesuan tartekatzen ez den bitartean, hala eta guztiz ere bere helburu propioak lantzen bakarrik aritzen baita' (Hegel, *Enzyklopadie, Erster Theil, Die Logik*, Berlin, 1840, 382 or.).

soin-organoei gehitzen dien organo, Bibliari kontra eginez, horrela bere kaizu naturala luzatuz. Luna da, aldi berean jatorrizko jakitegia eta lan-bitartekoen haren lehen artsenala. Berak hornitzen dio, adibidez, harria jaurtitzeko, igurtzitzeko, jotzeko, ebakitzeko eta abarrerako. Lurra bera lan-bitarteko bat da, nahiz eta halakotzat balio izateko nekazaritzan auresuposatu behar izan, bestalde, beste lan-bitarteko batzuen sail oso bat eta lanindarraren garapen handi samarra.<sup>75</sup> Lan-prozesuak puntu jakin bateraino ozta-ozta garatu denean, lanaren beraren produktu diren lan-bitartekoak eskatzen ditu jadanik. Gizakiaren bizileku izan ziren haitzulo zaharrenetan lanabes eta arma litikoak aurkitzen ditugu.

358

Harri, zur, hezur eta maskor landuekin batera, animalia bezatuak burutzen du eginkizun nagusia lan-bitarteko gisa, zeina horretarako hazia izan baita eta, beraz, jadanik lanak berak modifikatua.<sup>76</sup> Lan-bitartekoak erabiltzeak eta sortzeak, nahiz eta animalia-espezie batzuetan ernamuietan agertzen den, lan-prozesu espezifikoki gizatiarra ezaugarritzen dute, eta hortik Franklinek gizakia «a toolmaking animal», animalia lanabesgile gisa definitzea. Animaliaespezie iraungien antolakuntza ezagutzeko hezur fosilen egiturak duen garrantzi bera dute lan-bitartekoen aztarnek iritzi bat eratzeko iraungitako formazio ekonomiko-sozialez. Aro bata eta bestea bereizten dituen ez da zer egiten duten, baizik nola, zein lan-bitartekoz egiten den.<sup>77</sup> Lan-bitartekoak ez dira soilik giza lanindarrak lortutako garapena adierazten duten eskala graduatuak, baizik harreman sozialen adierazleak ere bai, zeinen azpian burutzen baita lan hori. Lan-bitartekoek beren artean, izaera mekanikoa dutenek, eta zeinen multzoa hezureta giharsistema izenda baitaiteke, produkzio sozialaren aro baten ezaugarri askoz definitzaileagoak agertzen dituzte lan-objektuaren ontzi gisa, adibidez, hodi, upel, saski, pitxer, etab., gisa bakanik balio duten lanbitartekoek baino, eta zeini dei baikeniezaieke, oro har eta modu oso orokorrean, produkzioaren ontzi-sistema. Industria kimikoan bakarrik dute azken horiek eginkizun esanguratsua.<sup>78</sup>

Zentzu zabalean, lan-prozesuak bere bitartekoen artean gauzez gainera, zeinek lanaren efektua haren objektuari bitartekotzen baitiote, eta, beraz, modu batera edo bestera, jardueraren gidari gisa balio baitute, baldintza objektibo guztiak ere baditu, oro har, prozesua gerta dadin beharrezko direnak. Ez dira zuzenean hartan sartzen, baina horiek gabe ezin da burutu edo era ez-perfektuan bakarrik. Kategoria horren lanbitartekoa, beste behin, lurra bera da, zeren langileari *locus siandia* [egoteko lekua] eskaintzen baitio eta haren prozesuari egintza-eremua (field of employment). Mota horretako lan-bitartekoak, jadanik lanak bitartekotuak, dira adibidez, lan

<sup>75</sup> Gainerakoan errukarria den 77ie'or *rie de V économie politique*, Paris, 1815, haren obran Ganilhek era harrigarrian aipatzen ditu fisiokratei kontrajarririk, lan-prozesuen serie luzeak, zeinek eratzen baitute egoki nekazaritza deiturikorako auresuposizioa.

'Fisiokratentzat, lanaren produktibitatea naturaren dohain, naturaren produkzio-indar bat bezala agertzen zen...Gainbalioa, beraz, naturaren dohain bat bezala agertzen zen' (*Theories of Surplus-Value*, I. atala, 49-51 or.).

<sup>76</sup> *Reflexions sur la formation et la distribution des richesses* (1766) bere obran Turgotek animalia bezatuek zibilizazioaren hasierarako izan zuten garrantziaren berri ematen du.

<sup>77</sup> Merkantzia guztien artean garrantzi gutxienekoak produkzio-aro bakoitzaren erkaketa teknologikorako luxu errealeko artikulua dira.

<sup>78</sup> Historiaren idazleek orain arte oso arreta gutxi eskaini diote produkzio materialaren garapenari, zeina baita gizarte-bizitzaren oinarria, eta, beraz, historia erreale guztiarena. Baina historiaurreko garaiak edonola ere natur zientziaren ikerketaren oinarriaren gainean sailkatu izan dira, ikerketa historikoa deitua baino areago. Historiaurrea banatu izan da, lanabesak eta armak egiteko erabilitako materialen arabera, Harri Aroan, Brontze Aroan eta Burdina Aroan.



egiten den lokalak, kanalak, bideak, etab. Lan-prozesuan, bada, gizakiaren jarduerak, lan-bitarrekoaren bidez, aldez aurretik nahi izandako lan-objektuaren modifikazioa burutzen du.

Prozesua produktuan iraungitzen da. Haren produktua erabilera-batio bat da, forma-aldaketa baten bidez giza beharretara egokituriko naturaren material bat. Lana bat egin da bere objektuarekin. Objektibatu egin da, eta objektua landu egin da. Langilearengan atsedetik gabeko mugimendu-formapean agertzen zena, orain produktuan atsedena duen propietate gisa agertzen da, izatearen formapean. Langileak irun egin du, eta produktua irungai bat da.<sup>79</sup>

359

Prozesu osoa emaitzaren, produktuaren ikuspuntutik kontsideratzen bada, nola lan-bitartekoa hala lan-objektua produkzio-bitarteko gisa jarriko dira agerian, eta lana bera lan produktibo gisa.<sup>80</sup>

Erabilera-batio bat, produktu gisa, lan-prozesutik irteten denean, beste erabilera-batio batzuk, aurreko lan-prozesuen produktuak sartzen dira hartan, produkzio-bitarteko gisa. Lan horren produktua den erabilera-batio berak eratzen du beste haren produkzio-bitartekoa. Produktuak, ondorioz, ez dira emaitza soilik, baita lan-prozesuaren baldintza esentzial ere.

Erauzte-industria salbuesten bada, zeinak naturan jadanik aurkitzen baitu bere lan-objektua, hala nola: meatzaritza, ehiza, anantza, etab. (eta nekazaritza lur birjinak maneatzera mugatzen denean bakarrik), industriako abar guztiek lehengaia den objektu batekin obratzen dute, hau da, lan-jarduerak jadanik iragazitako lan-objektu batekin, bera ere lanaren produktua den batekin. Hala gertatzen da, adibidez, haziarekin nekazaritzan. Produktu naturaltzat jotzen diren animaliak eta landareak ez dira soilik aurreko urtean egindako lanaren produktuak, baizik, haien oraingo formetan, belaunaldi askotan janaitutako eraldatze-prozesuaren produktuak, giza kontrolpean ezarriak eta giza lanak bitartekotuak. Hala ere, lan-bitartekoei dagokienez, horien parte abailganikiro handienak erakusten du, begirada axalekoenari ere, iraganeko lan baten aztarna.

Lehengaia produktu baten substantzia nagusia izan daiteke edo haren osaeran material lagungarri gisa soilik sar. Material lagungarria lanaren bidez kontsumitzen da, ikatza lurrin-makinaren kasuan bezala, gurpilak olio, lor-zaldiak belar ondua bezala, edo lehengaiari eransten zaio eraldakuntza material bat sortzeko, kloroak ehun gordinari, ikatzak burdinari, tinduak artileari edo lan-jardueraren egikaritzeari berari laguntzen dio, adibidez, laneko lokala argitu eta epeltzeko erabilitako gaiak bezala. Material nagusiaren eta material lagungarriaren arteko desberdintasuna desagertu egiten da benetako fabrikazio kimikoan, zeren erabiltutako lehengaietako bat ere ez baita berragertzen produktuaren substantzia gisa.<sup>81</sup>

360

Nola gauza bakoitzak era askotako propietateak dituen eta, beraz, aplikazio baliagarri desberdinetarako gai diren, produktu berak batio lezake lehengaitzat lan-prozesu oso

---

<sup>79</sup> Paradoxazkoa dirudi baieztatzeak harrapatu gabeko arraina, adibidez, produkzio-bitarteko bat dela arrantza-industrian. Baina orain arte inork ez du aurkitu arraina harrapatzearen artea halakorik ez daukan uretan.

<sup>80</sup> Lan produktiboa zer den determinatzeko metodo hau, lan-prozesu sinplearen ikuspuntutik, inondik ere ez da aski produkzio-prozesu kapitalista estaltzeko.

<sup>81</sup> Storckek material gordina (*'matiere'*) eta material gehigarriak (*'materiaux'*) bereizten ditu. Cherbuleziek gehigarriak *'matieres instru mentales'* gisa deskribatzen ditu.

desberdinetan. Laboreak, adibidez, lehengai dira errotariarentzat, almidoigilearentzat, distilatzailearentzat, abelzainarentzat, eta abanentzat. Hazi bezala bere produkzio propioaren lehengai bihurtzen dira. Honela, ikatza produktu gisa irteten da meatze-industriatik eta produkzio-bitarteko gisa sartzen da bertan.

Produktu berak balio dezake lan-bitarteko eta lehengai gisa produkzio-prozesu berean. Azienda gizentzen, adibidez, non animalia, lehengai landua baita aldi berean ongarria prestatzeko bitarteko bat.

Jadanik kontsumorako prest dagoen forma batean dagoen produktu bat beste produktu baten lehengai birbihur daiteke, mahatsarekin gertatzen denez, ardoaren lehengai baita. Edo lanak nonti dezake bere produktua forma baten azpian, zeinean berriro lehengai gisa bakanik baita berrerabilgarria. Egoera horren pean, lehengaiari produktu erdilandu deitzen zaio, baina hobe litzateke tarte-produktu deitzea, kotoiaren, albainuaren, hariaren eta abarren kasuan. Nahiz eta bere horretan produktu izan, litekeena da jatorrizko lehengai beharturik aurkitzea prozesu bat baino gehiagoren gradazio oso bat, zeinetan, figura etengabe modifikatu baten pean, lehengai bezala funtzionatzen baitu beti, harik eta azken lan-prozesuraino, zeinak kanporatzen baitu biziraupen-bitarteko bukatu gisa edo lan-bitarteko gisa haren erabilpenerako.

Ikusten dugunez, erabilera-balio bat lehengai, lan-bitarteko edo produktu gisa agertzea, lan-prozesuko funtzio determinatuaren, hartan hartzen duen lekuaren baitan dago erabat; leku horren aldaketarekin aldatzen dira determinazio haiek. Lan-prozesu berrietan produkziobitarteko gisa sartzearen bitartez, produktuek galdu egiten dute produktu-izaera. Lan biziaren faktore objektibo bezala bakarrik funtzionatzen dute. Iruleak obratzen du ardatzarekin tresna batekin bezala soilik, zeinaren bidez iruten baitu, eta lihoarekin soilik egintza hori burutzen duen objektuarekin bezala. Ezin da irun dagokion materialik eta ardatzik gabe. Beraz, iruten hastean auresuposaturik dago produktu horien existentzia. Baina prozesu honetan bertan hain axolagabea da lihoa eta ardatza iraganeko lan baten produktuak izatea, nola elikatzean axolagabea den ogia nekazariaren, errotariaren, okinaren eta abarren iraganeko lanaren produktua izatea. Alderantziz. Baldin eta lan-prozesuan produkzio-bitartekoek agerian jartzen badute aurreko lan baten produktu direlako, hori haien akatsengatik da. Ebakitzen ez duen labanak, uneoro eteten den hariak labanagilea eta irulea biziki gogoratzea eragiten dute. Produktu ongi lortuan desegin egin da haren erabtieria-propietateen bitartekotza iraganeko lanaren bitartez.

361

Lan-prozesuan zerbitzurik ematen ez duen makina alfenikakoa da. Gainera, metabolismo naturalaren indar suntsitzailearen pean erortzen da. Burdina herdoildu egiten da, zura usteldu egiten da. Ehuten edo harilkatzen ez den haria alferrik galdutako kotoia da. Lan biziari dagokio gauza horietaz jabetzea, hildakoen mundutik iratzartzea, erabilera-balio potentzialetik erabilera-balio erreal eta obratzailean eraldatzea. Lanaren suak miazkatuak, haren soinean atal gisa txertatuak, haren kontzeptua eta zertarakoari dagozkien funtzioak prozesuan bete ditzaten bizi-indarrez blai eginak, zinez kontsumituak izaten dira, baina xede batekin, erabilera-balio berrien produktu berrien formazioko elementu gisa, zeinak biziraupen-bitarteko gisa kontsumo banakoan sartzeko gai baitira edo produkzio-bitarteko bezala lan-prozesu berri batean.

Beraz, existitzen diren produktuak ez badira soilik emaitza, baizik eta existentzia-baldintza ere bai lan-prozesurako, bestalde, prozesu horretan jaurtitzea eta, ondorioz, lan biziarekiko kontaktua da bitarteko bakarra erabilera-balio gisa iragabeko lanaren produktu horiek iraunarazi eta egikaritzeko.

Lanak erabili egiten ditu bere elementu materialak, bere objektua eta bere bitartekoak, irentsi egiten ditu, eta, beraz, kontsumo-prozesu ere bada. Kontsumo produktibo hori, bada, norbanakoaren kontsumotik, zeinean azken honek kontsumitu egiten baititu produktuak norbanako biziaren biziraupen-bitarteko diren heinean; eta lehenak lanaren, norbanako horren lanindar ekintzan jarriaren biziraupen-bitarteko diren heinean. Norbanakoaren kontsumoaren produktua, beraz, kontsumitzailea bera da; kontsumo produktiboaren emaitza kontsumitzailearengandik bereizten den produktu bat da.

Haren bitartekoak eta haren objektua bera jadanik produktu diren neurrian, lanak produktuak kontsumitzen ditu produktuak sortzeko, edo produktu batzuk erabiltzen ditu beste batzuen produkzio-bitarteko diren heinean. Baina lan-prozesua jatoniz gizakiaren eta luranen artean bakarrik gertatzen zen bezala, zeina existitzen baitzen gizakiaren esku-sartzeaz aparte, gaur egun oraindik zerbitzuak ematen jarraitzen dute prozesu horretan naturak osoki emandako produkzio-bitartekoek, zeinek ez baitute natura-materialen eta giza lanaren inolako konbinaziorik ordezkutzen.

362

Lan-prozesua, haren elementu simple eta abstraktuetan aurkeztu dugunez, xede batera zuzenduriko jarduera bat da, erabilera-balioen produkzio arena, naturazkoaz jabetzearena giza beharretarako, gizakia eta naturaren arteko metabolismoaren baldintza orokorra baita giza bizitzaren baldintza natural betierekoa eta, beraz, bizitza horretako forma ororekiko independentea eta komuna, aitzitik, haren gizarte-forma guztiekiko. Ez dugu beharrezkotzat jo, beraz, langilea beste langileekiko harremanean aurkeztea. Aski zen gizakia eta haren lana alde batetik aurkeztea; natura eta haren materialak, besterik. Gariaren zaporetik ez dakigun bezala nork landu duen, prozesu horrek ez digu agertzen zer baldintzaren pean gertatzen den, esklabo-kapatazaren zartailu ankerraren pean ala kapitalistaren begira urduriaren pean, Zinzinatok burutu duen bere akre pare landuz edo harrikada animalia bat eraisten duen basatiak.<sup>82</sup>

Baina itzul gaitzen gure *in spe* kapitalistarengana [kapitalistagaiarengana]. Galduak genituen haren pausoak hark merkatuan lan-prozesu bat burutzeko beharrezko faktore guztiak eskuratu ondoren: faktore objektiboak, edo produkzio-bitartekoak, eta faktore subjektiboak edo lanindarra. Aditu-begirada zorrotzez hautatuak zituen produkzio-bitarteko eta lanindar egokiak bere negozio bereziko: irungintza, oinetakogintza, eta abanerako. Gure kapitalistak orduan berak eskuratutako merkantzia, lanindarra kontsumitzeari ekiten dio, hau da, lanindarraren eroaleari berari, langileari, bere lanaren bitartez produkzio-bitartekoak kontsumiarazten dizkio. Lan-prozesuaren izaera orokorra ez da modifikatzen, noski, langileak

---

<sup>82</sup> Zorroztasun logikozko balentria miresgarri batez, Torrens Koronelak aurkitu du, basatiaren harrian, kapitalaren jatorria. 'Basatiak jazartzen duen basa animalari jaurtitzen dion lehen harrian, bere helmenaz haratago eskegita dagoen fruitua eraisteko hartzen duen makilan, ikusten dugu artikulu batez jabetzea beste bat eskuratze-helburuari laguntzeko, eta horrela aurkitzen dugu kapitalaren jatorria' (R. Torrens, *An Essay on the Production of Wealth*, etc, 70-71 orr.). Ez dago zalantzarik 'lehen makila' honek [Stock ] azalduko lukeela zergatik 'stock' ingelesez kapitalaren sinonimoa den ere.

kapitalistarentzat egikaritzeagatik, beretzat egin ordez. Baina botak egiteko edo iruteko modu berezia ere ez da hasiera batean modifikatzen, kapitalistaren tartejartze hutsez. Hasiera batean kapitalistak lanindarra aurkitzen duen bezala hartu behar du, aurretik dagoen bezala, merkatuan, eta beraz, haren lana ere artean kapitalistarik ez zegoen aldi batean sortzen zen bezala. Lana kapitalari menderatzearen bitartez produkzio-moduaren beraren eraldakuntza, geroago bakarrik gerta daiteke eta horregatik geroago aztertuko dugu.

Lan-prozesuak, kapitalistak lanindarra kontsumitzen duen prozesu bezala, bi fenomeno berezi erakusten ditu.

363

Langileak kapitalistaren kontrolpean lan egiten du, zeinari baitagokio haren lana. Kapitalista adi egoten da lana era egokian egin dadin eta produkzio-bitartekoak esleituriko xedearen arabera erabil daitezten, beraz, lehengairik alferrik gal ez dadin eta lan-instrumentua aurrez dadin, hau da, haren erabilerak lanean behar duen neurrian bakarrik desegin dadin.

Baina bigarrenik, produktua kapitalistaren jabetza da, ez produzitzaile bitartegabearena, langilearena. Kapitalistak ordaindu egiten du, adibidez, lanindarraren eguneroko balioa. Beraz, badagokio haren erabilera egun batez, beste edozein merkantziarena, adibidez, egun baterako akuratuko lukeen zaldi batena legokiokenez. Merkantziaren erosleari haren erabilera dagokio, eta, egitatez, lanindarraren jabeak bere lana ematean bakarrik ematen du hark saldutako erabilera-balioa. Langileak kapitalistaren tailerra zapaltzen duen unetik, haren lanindarraren erabilera-balioa eta, beraz, haren erabilera, lana, kapitalistari dagokio. Lanindarraren erosketaren bitartez, kapitalistak txertatu egin du lan-jarduera bera, legami bizi bezala produktua eratzten duten elementu hiletan, zeinak berari baitagokio. Haren ikuspuntutik lan-prozesua lanindarra merkantziaren kontsumoa, hark erositako, besterik ez da, eta zeina soilik kontsumi baitezake produkzio-bitartekoak gehitzen badizkio. Lan-prozesua kapitalistak erositako, berari dagozkion gauzen arteko prozesua da. Beraz, prozesu horren produktua ere badagokio, haren sotoko legamitze-prozesuaren produktua ere dagokion bezalaxe.<sup>83</sup>

## 2. Baliotze-prozesua

Kapitalistaren jabetza den produktua erabilera-balio bat da, irungia, botak, etab. Baina botek, adibidez, zentzu batean, nahiz eta progresu sozialaren oinarria eratu, eta gure kapitalista nahiz eta progresuzale deliberatua izan, ez ditu botak botengatik

---

<sup>83</sup> 'Produktuez jabetzen da kapitalean eraldatu baino lehen; eraldakuntza horrek ez ditu jabetze horretatik baztertzen' (Cherbuliez, *Richesse ou pauvreté*, Paris, 1841, 54 or.). 'Proletarioak, bere lana biziraupen-bitartekoan (*approvisionnement*) kantitate definitu baten truke saltzean, produktuan parte izateko eskubide guztiari uko egiten dio. Produktuez lehen bezala jabetzen da; hori ez da inola ere aldatzen aipatu dugun tratua bidez. Produktua kapitalistarena bakarrik da, zeinak hornitu baititu material gordina eta *approvisionnement*. Hori zorrozki jabetze-legeari darion zerbait da, zeinaren oinarriko printzipioa zehazki kontrajarria baitzen, hau da, langile orok eskubide eskusiboa duela produzitzen duenaren jabe izateko' (ibid., 58 or.). 'Langileek beren lanarengatik soldatak hartzen dituztenean... kapitalista orduan ez da kapitalaren jabea soilik' (hau da, produkzio-bitartekoena) 'baizik lanarena ere bai. Soldata bezala ordaintzen dena sartzen bada, eskuarki egiten denez, kapital terminoan, zentzugabea da lanaz kapitatek berezia den zerbait bezala hitz egitea. Kapital hitzak horrela enplegatutik lana eta kapitala biak hartzen ditu bere bitan' (James Mili, *Elements of Political Economy*, 1821, 70-71 or.).

fabrikatzen. Merkantzia-produkzioan, erabilera-balioa ez da, oro har, gauza bat *qu'on aime pour elle même* [berez maitatzen dena]. Hemen erabilera-balioak produzitzen badira sustrato material, truke-balioaren eroale direlako da, eta halako diren heinean. Eta gure kapitalistarentzat bi gauza desberdin dira. Lehenik, kapitalistak erabilera-balio bat produzitu nahi du, truke-balioa duena, salmentarako artikulua bat, merkantzia bat. Eta bigarrenik, merkantzia bat produzitu nahi du, zeinaren balioa haren produkzioarako beharrezko merkantzien balioen, produkzio-bitartekoen eta lanindarraren batura baino handiagoa izango baita, zeinen truke berak aurerratu baitzuen bere diru bikainarekin merkatuan. Ez du erabilera-balio bat sortu nahi bakarrik, merkantzia bat baizik; ez bakanik erabilera-balio bat, balio bat baizik, eta ez balioa soilik, baizik gainbalio bat gainera.

364

Egitatean, hemen merkantzia-produkzioaz ari garenez gero, begi-bistan dago prozesuaren alderdi bat aztertzea mugatu garela soilik. Merkantzia bera erabilera-balio eta balio-unitate bat den bezala, beharrezkoa da haren produkzio-prozesua lan-prozesuko eta baliogintza-prozesuko unitate bat izatea.

Kontsidera dezagun orain, halaber, produkzio-prozesua baliogintza-prozesu bezala.

Badakigu merkantzia ororen balioa haren erabilera-balioan materializatutako lan kantitateak, haren produkzioarako sozialki beharrezkoa izan den lan-denborak determinaturik dagoela. Horrek berdin balio du gure kapitalistak lan-prozesuaren emaitza bezala lortzen zuen produkturako ere. Lehenik, bada, produktu horretan objektibatutako lana kalkulatu behar da.

Demagun, adibidez, irundako gaiak direla.

Irundako gaien produkzioarako, lehenik, haren lehengaia, demagun 10 libra kotoi behar zirela. Ez da beharrezkoa aurrena kotoiaren balioa ikertzea, zeren kapitalistak haren merkatuko balioaren truke erosi baitu, adibidez, 10 txelinen truke. Kotoiaren prezioan jadanik ordezkaturik dago, lan sozial orokor gisa, haren produkzioarako beharrezko lana. Gainera kotoia lantzean kontsumituriko ardatz-masa suposatuta behar dugu, erabilitako lan-bitarteko guztiak guretzat ordezkatzeko dituztenek 2 txelineko balio bat dutela. 24 orduko lanaren produktua edo bi laneguneko 12 txelineko urre-masa bat bada, lehenik segitzen da irundako gaietan bi lanegun objektibatu direla.

Kotoia formaz aldatu eta kontsumituriko ardatz-masa erabat desagertu izanak ez gaitu okertu behar. Balio-lege orokoraren arabera, irundako gaien 10 libra, adibidez, 10 libra kotoi eta ardatz 1/4 baten baliokide dira, beti ere irundako gaien 40 libraren balioa = 40 libra kotoiaren balioa + ardatz oso baten balioa bada, hau da, beti ere ekuazio horren bi terminoak produzitzeko lan-denbora bera behar bada. Kasu horretan, lan-denbora bera ordezkatzeko da behin irundako gaien erabilera balioan, bestean aldi, kotoia eta ardatzaren erabilera-balioetan. Balioari axolagabea zaio, aldiz, irundako gaien, ardatzaren edo kotoiaren formapean agertzea. Ardatza eta kotoia, bata bestearen alboan alferrik egon beharrean irute-prozesuan sartzeak haren erabilera-formak modifikatzen dituen konbinazio batean, zeinak irundako gai bihurtzen baititu, hain gutxi afektatzen du haren balioa elkartruke sinplearen bidez haren irundako gaien baliokidez negoziatu izan balitu bezala.

365

Kotoiaren produkzioarako behar den denbora irundako gaien produkzioarako beharrezkoa den lan-denboraren parte bat da, zeinari aipaturiko kotoiak balio baitio lehengai gisa, eta honegatik dago irundako gaien barruan. Gauza bera gertatzen da ardatzak masan produzitzeko behar den lan-denboarrekin ere, zeinen higadura edo kontsumoa gabe ezingo bailitzateke irun kotoia.<sup>84</sup>

Beraz, analisisan irundako gaien balioa sartzen den heinean, edo haren produkzioarako behar den denbora, ahagarria da kontsideratzea lan-prozesu beraren ondoz ondoko fase bezala, denboran eta espazioan bereizirik lan-prozesu partikular desberdinak, zeinak aurrena ibili behar izan baitziren kotoia bera eta higaturiko ardatzen masa produzitzeko, eta azkenik kotoitik eta ardatzetatik irundako gaiak. Irundako gaietan dagoen lan guztia iraganeko lana da. Inguruabar erabat axolagabea da aurretik igarotakoa izatea haren elementu eratzaileen produkzioarako lan-denbora, pluskuanperfektuan egotea, aldiz, aitzitik, azken prozesuan bitartegabe erabilitako lana, irutean, orainalditik hurbilago egotea, iragan perfektuan. Baldin eta etxe bat eraikitzeke lan-masa determinatu bat behar bada, demagun 30 lanegun, ezer ez da aldatzen etxeari ezarritako lan-denboraren kantitate osoari dagokionez, hogeita hamargarren laneguna produkzioan sartzea lehena baino 29 egun geroago. Eta era berean, erabat ahagarria da lan-materialari eta lan-bitartekoei sartutako denbora kontsideratzea irute-prozesuaren aurreko estadio batean bakarrik gastatu izan balitz bezala, irute-lanaren formapean azken finean gehitzen den lana baino lehen.

Ondorioz, produkzio-bitartekoen balioak, kotoia eta ardatza, 12 txelineko prezioan adieraziak, irundako gaien edo produktu-balioaren parte eratzaileak dira.

Bakanik bi baldintza bete behar dira. Lehenik, kotoiak eta ardatzak erabilera-balio bat produzitzeko balio izan behar dute. Gure kasuan, beharrezkoa da haietatik irundako gaiak sortu izana. Balioari axolagabea zaio haren eroalea erabtiera-balio bat edo bestea izatea, baina ezinbestekoa da haren eroaleak erabilera-balio bat izatea. Biganetik, auresuposatzen da produkzio-baldintza sozial emanen azpian beharrezko lan-denbora erabili dela. Beraz, irundako gaien libra 1 iruteko beharrezko izango balitz libra 1 kotoi, beharrezkoa da irundako gaien libra len formazioan libra 1 kotoi bakarrik kontsumitu izana. Gauza bera gertatzen da ardatzarekin ere. Kapitalistari bururatuko balitzaio urrezko ardatzak erabiltzea burdinazko ardatzen lekuan, irundako gaien balioan soilik hartuko litzateke kontuan, hala ere, sozialki beharrezko lana, hau da, burdinazko ardatzen produkzioarako beharrezko lan-denbora.

366

Orain badakigu irundako gaien zer parte dagoen produkzio-bitartekoz, kotoiz eta ardatzez eraturia. 12 txelinen balioa da, hau da, bi lanegunen konkretio materiala. Orain kontua da irundako gaietako langileak, bere lanarekin, kotoiari gehitzen dion balio-partea kontsideratzea.

Lan hori orain zeharo beste ikuspuntu batetik aztertu behar dugu lan-prozesukoaren aldean. Han xede batera zuzenduriko jarduera zen, kotoia irundako gaien eraldatzearena. Zenbat eta egokiagoa izan xede honetarako lana, hainbat egokiagoa irundako gaia, gainerako ingurubar guztiak iraunkorrak zirela auresuposatzen baguenen. hulearen lana espezifikoki desberdina zen beste lan produktibo

---

<sup>84</sup> 'Ez soilik merkantziei bitartegabe aplikaturiko lanak afektatzen du haien balioa, baizik inplementu, lanabes, eta eraikinen gain ezarritako lanak ere bai, zeinekin lan horri laguntzenbaitzaio' (Ricardo, op. cit., 16 or.).

batzuekiko, eta desberdintasuna ikuskor egiten zen subjektiboki eta objektiboki, irute-jardueraren xede partikulanean, haren obratzeko modu espezifikoan, haren produkzio-bitartekoen izaera berezian eta haren produktuaren erabilera-balio berezian. Kotoia eta ardatza irute-lanaren biziraupenbitartekoak dira, nahiz eta haiekin ez dagoen kanoi marratuak egiterik. Baina, aldiz, hulearen lana balio-eratzaillea, hau da, balio-iturri den heinean, ez da bereizten inola ere kanoi-zulatzaillearen lanetik edo, hurbilagotik dagokiguna, irundako gaien produkzio-bitartekoetan egindako lanetatik: kotoi-lantzailearen eta ardatzak egiten dituenaren lanetik. Identitate horri, horri bakarrik, zor zaio kotoia lantzea, ardatzak egitea eta irutea balio oso beraren, irundako gaien balioaren parte izatea, zeinak elkarren artean kuantitatiboari dagokionez bakarrik desberdintzen baitira. Horko kontua jadanik ez da lanaren nolakotasuna, lanaren izaera eta edukia, haren kantitatea bakarrik. Hori zenbatu egin behar da besterik gabe. Abiatzen gara irute-lana lan sinplea, batez besteko lan soziala delako oinarritik. Aurrerago ikusiko da aurkako suposizioak ez duela aldatzen ezertan arazoaren izaera.

367

Lan-prozesuan lana etengabe pasatzen da jardueraren egonezinetik izatearenera, mugimendu-formatik objektibitatera. Ordu baten amaieran, hulearen mugimendua irundako gaien kantitate jakin batean ordezkaturik geratzen da, eta, beraz, kotoian objektibaturik dago lan kantitate bat, lan-ordu bat. Lan-ordu bat diogu, zeren hemen irute-lanak lanindarraren gastu bezala bakarrik kontatzen baitu, ez irutearen jarduera espezifiko gisa.

Alabaina, ganantzi erabakigarria du prozesuan zehar, hau da, kotoia irundako gai eraldatzearenean, soilik kontsumitzea sozialki beharrezkoa den lan-denbora. Baldin eta produkzio-baldintza normaletan, hau da, batez besteko produkzio-baldintza sozialetan, beharrezkoa bada  $a$  libra kotoi  $b$  libra irundako gaitan lan-ordu lean  $12$  orduko lanegun kontsideratuko da, hura zeinean  $12 \times a$  libra kotoi eraldatuko diren  $12 \times y$  libra irundako gaitan. Sozialki beharrezko lan-denborak bakarrik kontatzen du balio-eratzaille gisa.

Lehengaiak eta produktua hor lan-prozesuarenetik zeharo bestelako argi baten azpian agertzen dira. Lehengaiak hor lan kantitate determinatu bat hurrupatzen duen elementu den heinean bakarrik kontatzen du. Hunupaketa horren bitartez irundako gai bihurtzen da, zeren irutelana gehitu baitzaio. Baina orain produktua, irundako gaiak, kotoiak zenbat lan hurrupatu duen adierazten duen eskala graduatua besterik ez da. Ordubetan  $1^{2/3}$  libra kotoi iruten badira, edo horiek  $1^{2/3}$  libra irundako gai bihurtzen badira.  $10$  libra irundako gaik  $6$  lan-ordu hurrupatu duela suposatzen dute. Produktu kantitate determinatuek, esperientziak finkatuek, orain ez dute lan kantitate determinatuak baizik ordezkatzeko, lan-denbora solidotuaren masa determinatu bat. Ordu baten, bi orduren, lan sozialeko egun baten konkrezio materiala bakanik dira.

Lana hain zuzen ere irute-lana izatea, haren materiala kotoia eta haren produktua irundako gaiak izatea, hor lan-jardueraren objektua, bestalde, produktu eta, beraz, lehengai izatea bezain axolagabea da. Langileak irun ordezkatzeko batean lan egingo balu, naturak lanobjektua, harriak eta homituko luke. Horrek, guztiarekin ere, meatzetik ateratako ikatz kantitate determinatu batek, adibidez, kintal batek lan hurrupatuaren kantitate determinatu bat adieraziko luke.

368

Lanindarraren salmenta aztertzean suposatzen genuen haren eguneroko balioa 3 txelin zela eta horietan sartuak zeudela 6 lan-ordu, beharrezko izanik horrela lan-kantitate hori langileak egunero behar dituen biziraupen-artikuluen batez besteko batura produzitzeko. Baldin gure iruleak, lan-ordu batean  $1^{2/3}$  libra kotoi  $1^{2/3}$  libra irundako gai bihurtzen baditu,<sup>85</sup> ondorioz 6 ordutan 10 libra kotoi 10 libra irundako gai bihurtuko ditu. Kotoia irute-prozesuan zehar, bada, 6 lan-ordu hurrupatzen ditu. Lan-denbora bera ordezkatzan da 3 txelineko une kantitatean. Beraz, kotoiari, irute-lanaren bitartez, 3 txelineko balioa gehitzen zaio.

Azter dezagun orain produktuaren balio osoa, irundako gaien 10 librena. Hartan objektibaturik daude  $21/2$  lanegun: 2 egun kotoian eta ardatzen masan sartuak daudenak, lanegun  $1/2$  bat irute-prozesuan zehar hurrupatua. Lan-denbora hori 15 txelineko urre-masa batean ordezkatzan da. Ondorioz, 10 libra hariaren balioari dagokion prezioa 15 txelinekoa da; libra bat irundako gaien prezioa txelin 1 eta 6 penikekoa da.

Gure kapitalista txunditurik geratzen da. Produktuaren balioa aurerratatuko kapitalaren berdina da. Aurerratatuko balioa ez da baliotu, horrek ez du gainbaliorik sortu; dirua, beraz, ez da kapital bihurtu. Irundako gaien 10 libren prezioa 15 txelinekoa da, eta 15 txelin merkatuan gastatu ziren produktuaren elementu eratzailen truke, edo gauza bera dena, lan-prozesuaren faktoreengatik: 10 txelin kotoiarengatik, 2 txelin kontsumituriko ardatz-masarengatik eta 3 txelin lanindarrarengatik. Hariaren balioa gehitu izanak ez du ezer ebazten, zeren haren balioa kotoiaren, ardatzaren eta lanindarraren artean banaturiko balioen batura besterik ez baita, eta aurrez existitzen ziren balioen gehitze huts horretatik inoiz ezin da gainbalio bat sortu.<sup>86</sup> Balio horiek guztiak orain gauza batean kontzentraturik daude, baina 15 txelineko diru kopuruan ere bazeuden, hura 3 merkantzia-erosketatan banatu baino lehen.

Bere baitan eta berarentzat emaitza hori ez da estrainioa. Irundako gaien libra bat txelin 1 eta 6 penike da, eta, beraz, gure kapitalistak merkatuan ordaindu beharko luke, 10 libra hariaren truke, 15 txelin. Berdin dio bere egoitza pribatua jadanik prest dagoena merkatuan erestea edo berak eraikiaraztea, eragiketa horietako batek ere ez du gehiaraziko etxea eskuratzen inbertituriko dirua.

369

Kapitalistak, ekonomia arrunteko gaien eroso sentitzen baita, agian esango du berak bere dirua aurerratu duela, hartaz diru gehiago egiteko asmoarekin. Infernurako bidea asmo onez harriztaturik dago, eta oinani beraz izan lezake produzitu gabe dirua egiteko asmoa ere.<sup>87</sup> Kapitalistak mehatxu egiten du. Berrero ez diote ziria sartuko. Aurerrantzean merkantzia jadanik amaitua erosiko du merkatuan, berak

---

<sup>85</sup> Zifra horiek erabat hautazkoak dira.

<sup>86</sup> Hau da fisiokraten doktrinaren oinarria eratzen duen funtsezko proposamena: nekazaritzakoa ez den lan oro ez-produktiboa dela. Ekonomialari profesionalarentzat hori ezeztatzina da. 'Objektu partikular bati beste ugari askoren balioa gehitzearen metodo honek (adibidez, ehulearen bizi-kostua lihoari gehitzea), 'balio bat baino gehiago geruzatan balio bakar baten gainean metatuko balira bezala, emaitzatzat dauka balio hori neurri berean haztea...' 'Gehitze adierazpenak argi eta garbi adierazten du nola eratzen den produktu manufakturatuen prezioa; prezio hori balio kopuru baten batura bakarrik da, zeinak kontsumituak izan baitira, eta zeinetara iritsi baita denak elkarri gehituz; hala ere, gehitzea eta biderkatzea ez dira gauza berak' (Mercier de la Riviere, op. cit., 599 or.).

<sup>87</sup> Horrela 1844tik 1847ra erretiratu egin zuen bere kapitalaren parte bat enplegu produktibotik trenbide-espekulazioetara jaurtitzeko; eta horrela, Amerikar Gerra Zibilean, bere lantegia itxi eta langileak kalera bota zituen Liverpooleko kotoi-burtsan jokatzeko.



fabrikatu ordez. Baina haren anaia kapitalistek gauza bera egingo balute, nola aurkituko lituzke merkantziak merkatuan? Eta dirua ez dago jaterik. Kapitalistak, orduan, katekesiari ekiten dio. Abinentzia kontuan hartu beharko litzateke. Bere 15 txelinak xahu zitzakeen. Honen ordez, produktiboki kontsumitu ditu, irundako gai bihurtuz. Baina irundako gaien jabe da eta ez dauka kontzientziako zimikorik. Baina ez da berriz eroriko altxortzailearen eginkizunean, dagoeneko erakutsia baitigu zer gertatzen den aszetismoarekin. Gainerakoan, ezer ez dagoen tokia, erregeak galduak ditu bere eskubideak. Haren uko-egitearen meritua edozer delarik ere, ezer ez dago aparte ordaintzeko, zeren prozesutik sortzen den produktuaren balioak ez baititu gainditzen bertara jaurretako merkantzia-balioen batura. Konformatu egin beharko du, beraz, bertutean bere baitan saria aurkitzen duelakoarekin. Baina ez, temati jartzen da. Irundako gaiak ez diote inolako baliaganitasunik ematen. Salmentarako produzitu ditu. Beraz, saldu egiten ditu edo, sinpleago, aurrerantzean bere erabilera propiorako gauzak produzitzera mugatzen da, MacCulloch oheburuko medikuak dagoeneko luzatu dion errezeta gainproduktzioaren epidemiaren aurkako erremedio hutsezin gisa. Betoskodun, kapitalistak bereari esuten dio. Agian langileak airean sortu behar al ditu, bere beso-zangoez, lan-produktuak, produzitu behar al ditu merkantziak? Ez al dizkio kapitalistak eman materiala, zeinaz eta zeienan bakarrik langileak gorpuzten baitu bere lana? Eta gizartearen parte handiena honelako ez edukiz osaturik dagoenez, ez al dio egin berari egundoko zerbitzua, bere produktio-bitarteko, bere kotoi eta bere ardatzarekin, eta langileari berari ere bai, zeina, gainera, biziraupen-bitartekoz hornitzen baitu? Eta ez al lioke ezani behar kontuan zor hori? Baina langileak ez al dio itzuli zerbitzua kotoia eraldatzean eta ardatza irundako gaitan? Gainerakoan, hor ez dago zerbitzurik.<sup>88</sup> Zerbitzua erabilera-balio baten efektu baliagarria besterik ez da, merkantzia dela, lana dela.<sup>89</sup> Baina hor balio duena truke-balioa da. Kapitalistak langileari 3 txelinen balioa ordaindu dio. Langtieak baliokide zehatza itzuli dio, kotoiari gehitutako 3 txelinen balioaren formapean. Balioa balio truke. Gure adiskideak, nahiz etakapitalista-espíritu arranditsua izan, supituki hartzen du bere langilearen jarrera apala. Berak ere ez ote du lan egin?, ez al du hulea zaintzearen, gidatzearen lana burutu? Haren lan horrek ez al du eratzen balioa? Haren *overloo kerak* eta haren *managerak* berak sorbaldak jasotzen dituzte. Baina bitartean kapitalistak, hribarre alaiz, bere fisionomia zaharra hartu du berriro. Letania horrekin guztiarekin guri adarra jo besterik ez du egin. Afera guztia bost axola zaio. Utzi egiten ditu ihesbide erkin eta asmakeria hutsal horiek, eta antzeko beste sorkari batzuk, ekonomia politikoko irakasleen ardurapean, zeini ordaindu egiten baitie berak. Hura gizon praktikoa da, zeinek negozioaz kanpo ez baitu beti sakon kontsideratzen esaten duena, ongi daki zer egiten duen haren barruan.

370

<sup>88</sup> 'Gorets, apain eta garbi ezak heure burua... Baina gehiago edo hobeto hartzen duenak (ematen duena baino), 'hori lukurreria da, eta ez du esan nahi zerbitzua, baizik hurkoari egindako kaltea, lapurtzea eta ostearrekin gertatzen den bezala. Dena ez da zerbitzua eta hurkoari on egitea, zerbitzu eta on egitea deitzen den guztia. Zeren emakume eta gizon ezkontza-nahasleek elkarri zerbitzu eta atsegin handia ematen diote. Zaldun batek zerbitzu handia egiten dio lapur bati errepidean lapurretan lagunduz, eta jendeari eta landari eraso. Papistek gure jendeari zerbitzu handia egiten diote ez itoarazi, erre, edo erahiltzean, edo presondegian ez ustelaraztean, baizik utzi egiten diete batzuei bizitzen eta kanporatu egiten dituzte edo daukatena kentzen diete. Deabruak berak bere zerbitzariari zerbitzu handi neurtezina egiten die... Hitz batean: mundua eguneroko zerbitzu handi eta bikainez eta egintza onez beterik dago' (Martin Luther, *An die Pfarrherrn, wider den Wucher zu predigen. Ver manung*, Wittenberg, 1540).

<sup>89</sup> Ohar bat egiten dut horretaz hemen: *Zur Kritik der politischen Ökonomie*, 14 or.: 'Erraza ulertzen da zer zerbitzua merezi duten *zerbi tzu* kategoria J. B. Say eta F. Bastiaten moduko ekonomialarientzat.'

Ikus dezagun kasua hurbilgotik. Lanindarraren eguneroko balioa 3 txelinekoa zen, zeren hartan bertan objektibatu baitzen lanegun-erdi bat. Baina iraganeko lana, lanindarrean sartua, eta honek egikari dezakeen lan bizia, mantenimendurako haren kostu egunerokoak eta haren errendimendu egunerokoa, bi magnitude erabat desberdinak dira. Lehenak haren truke-balioa determinatzen du, besteak haren erabilera-balioa taxutzen du. Lanegun-erdi bat behar izatea 24 orduz bizirik eusteko, inola ere ez dio eragozten langtieari lanegun oso batez lan egitea. Lanindarraren balioa eta lan-prozesuko haren baliotzea, bada, bi magnitude desberdin dira. Kapitalistak oso presente zeukan balio-desberdintasun hori lanindarra eskuratu zuenean. Haren jabetza baliagarria, irundako gaiak edo botak egitea, *conditio sine qua non* bat zen, zeren balioa formatzeko lana era baliagarrienean gastatzea beharrezkoa baita. Baina erabakigarria merkantzia horren erabilera-balio espezifiko izan zen, balio-iturri izatearena, eta berak daukana baino balio gehiagokoa. Horixe da hartatik kapitalistak espero zuen zerbitzu espezifiko. Eta, hori egitean, merkantzia-trukearen lege betierekoen arabera jokatzeko du. Hertsiki hartuta, lanindarraren saltzailea, beste edozein merkantziaren saltzaileak bezala egikaritu egiten du haren truke-balioa eta alienatu egiten du haren erabilera-balioa. Ezin da bata kontserbatu bestea lagatu gabe. Lanindarraren erabilera-balioa, lana bera, hain gutxi dagokio haren balioa nola olio-merkatariari saldutako olioaren erabilera-balioa. Diru-jabeak lanindarraren lanegun baten balioa ordaindu du; badagokio, beraz, haren erabilera lanegunean zehar, lanegun bateko lana. Lanindarraren eguneroko mantenimendua lanegun-erdi bat bakarrik kostatzea, nahiz eta lanindarrak lanegun oso batez obra dezakeen edo lan egin dezakeen, eta beraz, hura egun batez erabili izanak sortutako balioa bi aldiz handiagoa izatea haren eguneroko balioa baino, zorte aparta da eroslearentzat, baina inondik ere ez saltzailearentzat bidegabekeria.

371

Gure kapitalistak aurreikusia zuen kasu hori, zeinak barre eragiten baitio. Horregatik langileak tailerrean aurkitzen ditu ez bakarrik sei orduko lan-prozesu baterako beharrezkoak diren bitartekoak, baizik hamabiko baterakoak. 10 libra kotoik 6 lanordu hunuputzen bazituzten eta 10 libra irundako gai bihurtzen baziren, 20 libra kotoik 12 lanordu hurrupatuko dituzte eta 20 libra irundako gai bihurtuko dira. Azter dezagun orain lan-prozesu luzatuaren produktua. 20 libra irundako gaitan orain 5 lanegun objektibatu dira: 4 kontsumituriko kotoieta ardatzmasan, 1 kotoiak hurrupatua irute-prozesuan. Baina 5 lanegunen adierazpena urrean 30 txelinekoa da, hau da libra sterling 1 eta 10 txelinekoa. Hori da, beraz, irundako gaien 20 libraen prezioa. Irundako gaien libra, beti bezala, txelin 1 eta 6 penike kostatzen da. Baina prozesura jaurtitako merkantzien balio-batura 27 txelinekoa zen. Irundako gaien balioa 30 txelinekoa da. Produktuaren balioa 1/9ren handiagoa da haren produkzioarako aurreratutako balioaren gainetik. Horrela, 27 txelin 30 bihurtur dira. 3 txelineko gainbalioa gehitu zaio. Trikimailuak azkenean emaitza lortu du. Dirua kapitalean eraldatu da.

Araozaren baldintza guztiak bete dira eta merkantzia-trukearen legeak ez dira inola ere hautsi. Baliokide bat beste batez trukatu da. Kapitalistak, erosle gisa, merkantzia guztiak bere balioan ordaindu zituen: kotoia, ardatz-masa, lanindarra. Orduan, merkantzia-erosle guztiek egiten dutena egin zuen. Haien erabilera-balioa kontsumitu zuen. Lanindarraren kontsumo-prozesuak, zeina aldi berean merkantziaren produkzio-prozesua. baita, 20 libra irundako gaien produktua eman

zuen emaitzatat 30 txelineko balioarekin. Kapitalista orain merkatura itzultzen da eta merkantzia saltzen du, merkantzia erosi ondoren. Irundako gaiaren libra txelin 1 eta 6 penketan saltzen du, haren balioaren apurrik ere gabe gaisetik edo azpitik. Eta hala ere, zirkulaziotik 3 txelin ateratzen ditu, hasiera batean bertara jaurti zituenak baino gehiago. Igarotze hori guztia, haren dirua kapitalean eraldatzea, zirkulazioaren esferan gertatzen da eta ez da gertatzen. Zirkulazioaren bitartez obratzen da, zeren lanindarra merkaturan erosteak baldintzatzen baitu. Eta ez da zirkulazioan gertatzen, zeren hori baliotze-prozesua hastera mugatzen baita, zeina produkzio-esferan gertatzen baita bakarrik. Eta honetara «*ioui [esi] pour le mieux dans le meilleur des mondes possibles*» [dena modurik hobereanean doa mundu posibleetatik hobereanean].

372

Kapitalistak dirua merkantzian eraldatzen duenean, zeinek balio baitute produktu berri baten materia eratzaile gisa edo lan-prozesuaren faktore gisa, lanaren indar bizia haien objektibitate hilean sartzean, balioa eraldatzen du, iraganeko lana, objektibatua, hila, kapitalean, bere burua baliotzen duen balioan, «lanean» hasten den munstro bizidun batean, soinean maitasuna balu bezala.

Orain erkatzen baditugu baliogintza-prozesua eta baliotze-prozesua, ikusiko dugu azken hori puntu jakin batetik haratago luzatutako lehena besterik ez dela. Baliogintza-prozesuak puntua soilik atzematen badu, zeinean baliokide berri batekin kapitalak ordaindutako lanindarraren balioa ordeztu baita, baliogintza-prozesu simple baten aurrean egongo gara. Prozesu hori puntu horretatik haratago luzatzen bada baliotze-prozesu bihurtzen da.

Gainera, baliogintza-prozesua lan-prozesuarekin erkatzen badugu, ikusiko dugu azken hori erabilera-balioak produzitzen dituen lan baliagarria dela. Hor mugimendua ikuspuntu kualitatibotik aztertzen da, haren modu eta era partikulanean, haren xede eta edukiaren arabera. Baliogintza-prozesuan, lan-prozesua bera aurkezten da soilik bere alderdi kuantitatiboan. Hor lanak bere exekuziorako behar duen denboraz ari gara, edo denboraz, zeinean gastatzen baita lanindarra. Hemen, era berean, lan-prozesuan sartzen diren merkantziek jadanik ez dute lanindar baten faktore material, funtzionalki determinatu gisa kontatzen, zeinek obratzen baitu esleitutako xedearen arabera. Lan objektibatuaren kantitate definitu gisa bakanik kontatzen dute. Produkzio-bitartekoetan sarturik dagoela edo lanindarrari gehitu diola, lanak bere denbora-neurriaren arabera bakarrik kontatzen du. Hainbeste ordu, egun eta abarrekoa da.

Baina soilik kontatzen du erabilera-balioaren produkzioan gastaturiko denbora sozialki beharrezkoa den neurrian. Horrek alderdi bat baino gehiago inplikatu ditu. Lanindarrak baldintza normalen pean obratu behar du. Baldin eta iruteko makina bada iruten lan-bitarteko sozialki menderatzailea, langileari ez zaio goru bat ezarri behar eskuetan. Ez du jaso behar, kalitate normaleko kotoiaren ordeztu, aldioro etengo den erreusa; kalitate egokikoa izan behar du.

373

Kasu batean eta bestean sozialki beharrezkoa dena baino lan-denbora gehiago erabiliko luke libra bat irundako gaiaren produkzioarako, baina alferrikako denbora ez luke baliorik edo dirurik sortuko. Lan-faktore objektiboen izaera normala, hala ere, ez dago langilearen baitan, kapitalistarenean baizik. Beste baldintza bat lanindarraren beraren izaera normala da. Horrek enplegatzen den abanean nagusi

den gaitasunaren, trebetasunaren eta lastertasunaren batez besteko mailaren jabe izan behar du. Baina lan-merkatu kapitalistan kalitate normaleko lanindarra erosi zuen. Lanindar hori esfortzuaren ohiko batez besteko mailan erabili beharko da, sozialki ohikoa den intentsitate-graduarekin. Kapitalistak arretaz zaintzen du hori, baita lan egin gabe denbora alferrik gal ez dadin ere. Epe jakin baterako erosi du lanindarra. Saiatu egiten da berea lortzen. Ez du nahi inork lapurreta egiterik. Azkenik eta horretarako jaun honek bere *code pénal* propioa du, ez du gertatu behar lehengaien eta lan-bitartekoen kontsumo desegokirik, zeren material edo lan-bitarteko alferrik galduek era alferrikakoan gastatutako lan objektibatuaren kantitateak ordezkatzen baitituzte eta, ondorioz, ez dute kontatzen produktuan edo ez dira sartzen ere haren balioan.<sup>90</sup>

Ikusten da lehen merkantziaren analisitik ateratako desberdintasuna lanaren artean erabilera-balioaren sortzaile gisa eta lan beraren artean balio-sortzaile gisa, orain desberdintze gisa aurkezten da produkzio-prozesuko alderdi desberdinen artean.

Produkzio-prozesua, lan-prozesuaren eta baliogintza-prozesuaren unitate gisa, merkantzia-produkzioaren prozesu da, lan-prozesuaren eta baliogintza-prozesu gisa kontsideraturik, produkzioaren prozesu kapitalista da edo merkantzia-produkzioaren forma kapitalista.

Gorago adierazi da baliotze-prozesurako zeharo axolagabea dela kapitalistak jabeturiko lana lan sozial batez besteko, sinplea edo lan konplexua, pisu espezifikoki garaiagoko lana izatea. Lana, kalifikatuagoa, lan sozial batez bestekoarekiko konplexuagoa kontsideratzen dena, lanindar baten kanporatzea da, zeinean sartzen baitira eratze-kostu garaiagoak, eta zeinaren produkzioak lan-denbora gehiago hartzen baitu bere baitan eta beraz, balio garaiagoa baitu lan sinplearen indarrarenak baino. Indar horren balioa handiagoa izaki, halaber lan garaiago batean agertu beharko du eta objektibatu, epe beretan, balio proportzionalki handiagotan. Zeinahi delarik ere, ordea, irute-lanaren eta bitxigintzaren artean dagoen gradu-desberdintasuna, zeinaren bidez bitxigintza bere lanindar propioaren balioa

---

<sup>90</sup> Hau da esklabotzan oinarritutako produkzioa garestiago bihurtzen duen inguruabarretako bat. Esklabotzapean, antzinaroan erabilitako adierazpen txundigarriaren arabera, langilea *instrumentum vocale* bezala bakarrik bereizten da animalia batetik, zeina *instrumentum semi-vocale* baita, eta inplementu bizigabe batetik, zeina *instrumentum mutum* baita. Baina bera arduratzen da sentirazteko bai animaliarri eta bai inplementuari ez dela haiek bezalakoa, baizik gizakia dela. Bere buruari poza ematen dio jakitean bera desberdina dela bata ankerkeriaz tratatuz eta bestari *con amore* kalte eginez. Hortik dator printzipio ekonomikoa, produkziomodu horretan erabilia inplementu zakar eta astunenak bakarrik erabiltzekoa, zeinak zailak baitira hondatzen duten berezko zakartasunarengatik. Mexikoko Golkoaren inguruko, Gerra Zibila arte, esklabo-estatuetan aurkitzen ziren golde bakarrak antzinako eredu txinatarraren arabera eginak ziren, zeinek iraultzen baitzuten lurra txerriak edo satorrak bezala, ildoak egin ordez. (Ikusi J.E. Catines, *The Slave Power*, Londres, 1862, 46 eta hh. Bere *Seaboard Slave States-en*, Olmstedek dio, beste gauza batzuen artean, 'Hemen erakutsi dizkidate gure artean zentzuduna den inork soldata ordaintzen ari zaion bere langilea zamatzeko inoiz erabiliko ez lituzkeen lanabesak; eta zeinen gehiegizko pisuak eta zakartasunak, esango nuke, gutxienez ehuneko hamar bat gehiago lan eragingo bailiokete gure artean eskuarki erabiltzen direnek baino. Eta ziur nago, esklaboengandik beti hartu behar duten trataera arduragabe eta baldarrarekin, ezer arinagorik edo traukiltasun gutxiagokorik ezingo litzaiekeela hornitu ekonomia onean, eta guk etengabe geure langileei ematen dizkiegun lanabesak eta haiei ematean geure mozkina aurkitzen baitugu, ez luketela iraungo egun batez ere Virginiako gari-soro batean -nahiz eta gurea baino arinagoak eta harri gutxiagokoak izan gureak baino. Horrela, halaber, galdetzen dudanean zergatik hain unibertsalki mandoek ordeztzen dituzten zaldia granjan, ematen duten lehen arrazoia da, eta aitortzen dutenez nagusia da, zaldia berehala hondatzen edo kaltetzen dituztela, aldiz, mandoek jasan egiten dutela jipoia, edo otordu bat edo bi galtzea noizbehinka, benetan minik hartu gabe, eta ez dutela hotzeriarik edo gaitzik harrapatzen, zabor tratatuak izan direlako edo lan gehiegi eragin zaielako. Baina aski dut idazten ari naizen gelako leihora hurbiltzea ia denbora guztian ikusteko aberearen trataera, zeinak ziurtatuko bailuke ia edozein granja-jabek gidaria lanetik kanporatzea Iparraldekoa balitz.'

ordeztera mugatzen baita, ez da kualitatiboki bereizten, inola ere, lanaren portzio gehigarritik, zeinaren bitartez sortzen baitu gainbalioa. Beti bezala, gainbalioa sortzen bada, lan-soberakin kuantitatibo baten bitartez sortzen da, lan-prozesu beraren iraupena luzatu izanaren bitartez: kasu batean irundako gaien produkzio-prozesuaren bitartez; bestean, bitxi-produkzioaren bitartez.<sup>91</sup>

374

Gainerakoan, baliogintza-prozesu orotan beti da beharrezkoa lan kalifikatua lan sozial batez bestekora murriztea, adibidez, lan kalifikatuko egun 1 lan sinpleko X egunetara.<sup>92</sup> Alferrikako eragiketa bat aurrezten dugu eta analisia sinpletzen dugu, baldin eta suposatzen badugu, beraz, kapitala enplegaturiko langileak lan sozial batez besteko sinple bat egikaritzen duela.

## 26. Kapituluua. Jatorrizko Metatzearen Sekretua

Ikusia dugu dirua nola eraldatzen den kapitalean, kapitalaren bitartez gainbalioa nola egiten den eta gainbaliotik kapital gehiago. Guztiarekin ere, kapitalaren metatzean gainbalioa auresuposatzen du, gainbalioak produkzio kapitalista eta horrek kapital-masa handiagoen eta lanindarren aurre existentzia merkantzia-produzitzaileen eskuetan. Mugimendu oso hori badirudi gurpil zoro baten inguruan biraka dabilela, zeina imajinatzen baitugu suposatuz metatze kapitalistaren aurretik zegoen «jatorrizko» metatze bat («previous accumulation» Adam Smithengan), metatze bat, zeina ez baita produkzio-modu kapitalistaren emaitza, baizik haren abiagunea.

Jatonizko metatze horrek izan du ekonomian gutxi-asko jatorrizko bekatuak teologian izan duen eginkizun bera. Adamek hozka egin zion sagarralari, eta horrekin bekatua etorri zen gizadira. Horren jatorria azaltzen zaigu iraganeko anekdota bat bezala kontatuz. Aspaldi-aspaldiko garai batean bazen, alde batetik,

<sup>91</sup> Langile garaia eta soilaren, 'langile trebatu' eta 'langile trebatugabe'aren arteko bereizkuntza, alde batetik, lilura hutsean oinarritzen da edo, bigun esateko, aspaldian errealki izateari utzi dioten bereizkuntzatan, eta konbentzio tradizional baten indarrez bakarrik dirautenetan; eta besterik, langile klasearen sailen baten baldintza babesgabea, zeinek eragozten baitie gainerakoekiko parekotasunean beren lanindarraren balioa kobratzea. Inguruabar akzidentalek hainbesteko zerikusia dute hor, non bi lan-forma horiek batzuetan lekua aldatzen baitute. Adibidez, langile-klasearen fisikoa narriatu denean eta, erlatiboki hitz eginez, unaturik dagoenean, zeina baita kasua produkzio kapitalista oso garatua den herrialde guztietan, lanaren forma apalagoak, muskulu-gastu handia eskatzen dutenak oro har forma garaigotzat hartzen dira askoz lan-forma delikatuagoekin erkatuta; azken horiek lan soilaren mailara jaisten dira. Har bedi adibidetzat bricklayer (igeltsero) bat Ingalaterran zeinak baitauka askoz maila garaia goa damaskogile batek baino. Bestalde, nahiz eta fustian-cutter (fustanbakitzaile) baten lanak gorputz-ariketa handiago eskatzen duen, eta aldi berean osasungaitza izan, lan soil bezala bakarrik kontatzen da. Areago, ez dugu uste izan behar lan 'trebatu' deituak eratzten duenik nazioko lan osoaren parte handi bat. Laingek kalkulatu du Ingalaterran (eta Galesen) 11.300.000 pertsonaren bizimodua lan trebatugabearen baitan dagoela. Berak idazten zuen garaiko 18.000.000ko biztanleria totaletik 1.000.000 bat deduzitzen bada aristokraziarako, 1.500.000 pauper, alderrai, kriminal eta prostitutentzat, eta 4.650.000 klase ertaina eratzten dutenentzat, lehen aipaturiko 11.000.000 geratzen dira. Baina klase ertain horretan inbertsio txikien interesekin bizi direnak, ofizialak, letra-gizonak, artistak, eskola-maisuak eta antzekoak sartzen ditu, eta kopurua puzteko 4.650.000 horietan 'fabrika-langile' en proportzio hobeki ordaindua ere sartzen du! Bricklayerak ere 'goi-klaseko langile' en artean ageri dira (S. Laing, *National Distress etc.*, Londres, 1844). 'Klase handiak, janariaren truke ohiko lana baizik emateko ez duenak, jendearen masa handia eratzten du. (James Mili, 'Colony' artikuluan, *Supplement to the Encyclopaedia Britannica*, 1831).

<sup>92</sup> Lanari balio-neurri gisa erreferentzia egiten zaionean, horrekin derrigorrean ulertzen da mota berezi bateko lana... beste motekikoak harekin duten proportzioa erraz egiaztatzen da' ([J.Cazenove ], *Outlines of Political Economy*, Londres, 1832, 23-3 or.).

elite saiatu, adimentsu eta batez ere aurrerazale bat, eta besterik, jendaila alferra, zeukan eta gehiago xahutzen zuena. Jatorrizko bekatuak elezaharrak kontatzen digu, noski, gizakia nola izan zen kondenatua bere ogia bekoki izerdiz jatera; jatorrizko bekatu ekonomikoaren historiak agerian jartzen digu nola dagoen jendea horrelako premiarik inondik ere ez duena. Berdin dio. Horrela gertatu zen lehenek aberastasuna metatu zutela eta azken horiek ezer ez zeukatela saltzeko beren larra propioa izan ezik.

375

Eta jatorrizko bekatu horretatik dator masa handiaren pobretasuna, zeinak gaur egun ere, bere lan guztia gorabehera, ezer ez baitauka saltzeko bere burua izan ezik, eta gutxien aberastasuna etengabe haziz doa, nahiz eta aspaldi utzi zioten lan egiteari. Thiers jaunak, adibidez, *propriétéaren* defentsan, umekeria zozo horiek predikatzen dizkie behiala hain frantses buruargiak zirenei, gainera hori estadistaren seriotasunez eta solemnetasunez eginez. Baina jabetzaren auzian jokoan sartzen den bezain laster, betebeharrak sakratu bihurtzen da haur-kartillaren ikuspuntua dela adin maila eta garapen-gradu guztietarako baliadun bakarra. Historia errealean eginkizun handia burutzen dute, jakina denez, konkistak, menderatzeak, lapurretarengatik gizahilketak: hitz batean, bortxak. Ekonomia politikoa bigunean aspaldidanik idilioa izan da nagusi. Zuzenbidea eta «lana» izan dira aspaldidanik aberasteko bide bakarrak, «urte hau» salbuetsirik, noski. Egitatean, jatorrizko metatzearen metodoak edozer gauza dira, idilikoak izan ezik.

Dirua eta merkantzia ez dira kapital lehen mementotik, produkzioeta biziraupen-bitartekoak ere ez diren bezala. Kapitallean eraldatuak izatea behar dute. Baina eraldakuntza hori bera honako honetan bateratzen diren inguruabar determinatu batzuen azpian bakarrik obra daiteke: beharrezkoa da elkarri aurre egitea eta kontaktuan jartzea merkantzia-jabeen klase oso desberdinak, alde batean, diru—, produkziobitarteko- eta biziraupen-jabeak, zeinei baitagokie baliotzea, besteren lanindarraz jabetzeaz bereganatu duten balio-batura; bestaldean, langile askeak, lanindar propioaren saltzaileak eta, beraz, lanaren saltzaileak. Langile askeak zentzu bikoitzean, produkzio-bitartekoen artean bitartegabe sartuta ez daudelako, esklaboak, gleba-jopuak, etab., bezala, eta produkzio-bitartekoak ere ez dagozkielako, bere lurra lantzen duen nekazariarekin gertatzen den bezala, etab., aldiz, aske eta produkzio-bitarteko horietaz gabeturik aurkitzen dira. Merkantzia-merkatuaren polarizazio horrekin emanak daude produkzio kapitalistaren oinarrizko baldintzak. Kapital-harremanak auresuposatzen ditu langileen eta jabetzaren arteko etena lana egikaritzeko baldintzen gainean. Produkzio kapitalista ezarri eta gero, honek ez dio eutsi bakarrik egiten banaketa horri baizik eta birproduzitu egiten du eskala gero eta handiagoan. Kapital-harremanak sortzen duen prozesua bakarrik izan daiteke langilearen eta haren lan-baldintzen jabetzaren arteko etete-prozesua; prozesu horrek, alde batetik, eraldatu egiten du kapital batean produkzioeta biziraupen sozialeko bitartekoak, eta besterik, produzitzaile bitartegabeak soldatapeko langile bihurtzen ditu. Jatónizko metatzea deritzona, beraz, produzitzailearen eta produkzio-bitartekoen arteko etete historikoaren prozesua besterik ez da. «Jatónizko» bezala agertzen da kapitalaren historiaurrea eta hari dagokion produkzio-moduarena taxutzen dituelako.

376

Gizarte kapitalistaren egitura ekonomikoa gizarte feudalaren egitura ekonomikotik sortu da. Azken honen disoluzioak jaregin ditu lehenaren elementuak.

Produzitzaile bitartegabeak, langileak, bere burua eskura eduki zezakeen lurrari lotuta egoteari uko egin zionean, eta beste persona baten esklabo edo jopu izateari utzi zionean. Lanindarraren saltzaile askea izateko, zeinek gauaiatzen baitu bere merkantzia harentzat merkaturatu aurki dezakeen tokira, gainera gremioen eraentzatik, haien apendiz eta jornalarietarako arauetatik, haien lan-araudi muniztaileetatik ere ihes egin behar zuten. Hortik agertzen da mugimendu historikoa, zeinak aldatzen baititu produktzaileak soldatapeko langiletan, alde batetik, joputzatiko eta gremioen kateetatiko haien emantzipazio gisa, eta gure historialari burgesentzat mugimenduaren alderdi hori bakarrik existitzen da. Baina, bestalde, gizaki berriki askatuak beren buruaren saltzaile bihurtu ziren haiei beren produkzio-bitarteko guztiak eta antolakuntza feudal zaharrek ematen zizkien existentzia-berme guztiak lapurtu zitzaizkienean. Eta historia hori haien desjabetzearen historia gizadiaren analetan idatzirik dago odolezko eta suzko letratan.

Kapitalista industrialek, potentatu berri horiek, ez zituzten soilik gremioetako langile-maisuak baztertu behar, baita jaun feudalak ere, zeinak baitzeuden aberastasun-iturrien jabetzan. Hori dela eta, kapitalista industrialen gorakada borroka garaikor baten fruitu bezala agertzen da, bai botere feudalaren eta haren prerrogatiba sumingarrien aurka, eta bai gremioen aurka ere, eta produkzioaren garapen askea eta gizakiak gizakia libreki ustiatzea azken honek murrizten zituen kateak. Industriako zaldunek, hala ere, bakanik izan zuten arrakasta zaldun ezpatadunak ordeztan berek inolako esku-hartzerik izan ez zuten jazoerak ustiatuz. Erromatar libertoek behiala beren *paironusaren* nagusi izateko erabili zituzten bitartekoak bezain doilorrak erabiliz igo ziren.

377

Soldatapeko langileak eta kapitalistak sortu zituen garapenaren abiagunea langilearen esklabotza izan zen. Egindako aurrerapena zegoen joputza horren forma-aldaketan ustiapen feudala ustiapen kapitalistan eraldatzean. Horren joaira ulertzeko, ez daukagu oso atzera joan beharrik. Nahiz eta produkzio kapitalistaren lehen hasierak jadanik 14. eta 15. mendeetan Mediterraneoko hiri batzuetan agertzen zaizkigun, aro kapitalista 16. mendean hasten da lehen aldiz. Agertzen den tokian, aspaldidanik osatua zegoen joputzaren abolizioa, eta Erdi Aroko lorpenik distiratsuena, hiri-estatu independenteen existentzia, denbora-epe ohargarri batean beheraka joana zen.

Jatoffizko metatzearen historian, iraultza guztiak aro-markatzaileak dira eta palanka gisa dihardute eratzen ari den klase kapitalistarentzat; baina hori bereziki egiazkoa da gizaki-masa handiak bat-batean eta bortxaz beren biziraupen-bitartekoetatik erauziak izan direnean, eta lan-merkatura proletario aske, babesgabe eta eskubidegabe gisa jaurtiak izan direnean. Produktzaile nekazaria, baserritarra haren lurraz desjabetzea da prozesu osoaren oinarria. Jabetza horren historiak alderdi desberdinak hartzen ditu herrialde bakoitzean eta fase desberdinetatik igarotzen da suzesio-ordena bat baino gehiagotan, aro historiko bakoitzean. Ingalaterran bakanik, zeina hartzen baitugu adibidetzat, dauka forma klasikoa.<sup>93</sup>

---

<sup>93</sup> Italian, produkzio-kapitalista goizen garatu zen tokian, joputzaren disoluzioa ere beste inon baino goizago gertatu zen. Han jopua lurzoruarekiko ezein eskubide preskriptibo eskuratu baino lehen emantzipatu zen. Emantzipazioak berehala bihurtu zuen proletario 'aske', ezein eskubide legezko gabe, eta prest aurkitu zuen nagusia itxaroten hirietan, zeinak gehienak erromatarren garaietatik entregatuak izan baitziren. Hamabosgarren mendearen amaiera aldera mundu-merkaturan gertatu zen iraultzak ipar Italiako merkataritza-nagusitasuna deuseztu zuenean,

### 32. Kapituluua: *Metatze Kapitalistaren Joera Historikoa*

Zertan ebazten da kapitalaren jatorrizko metatzea, hau da, haren genesi historikoa? Esklaboak eta gleba-jopuak soldatapeko langiletan eraldatze bitartegabea ez den bitartean, hau da, forma-aldaketa hutsa produzitzaile bitartegabearen desjabetza besterik ez da, hau da, jabetza pribatuan oinarritzen den lan propioaren disoluzioa. Jabetza pribatua, jabetza sozial, kolektiboaren antitesi gisa, lan-bitartekoak lanaren kanpo-baldintzak pribatuenak diren tokian bakarrik existitzen da. Baina pribatu horiek langileak edo ez-langileak izatearen arabera, jabetza pribatuak beste izaera bat du. Lehen begiratuan agertzen diren jabetza pribatuaren ezin zenbatu ahala itzal desberdinak bi muturren artean dauden tarteko egoeren isla besterik ez dira.

378

Langilearen jabetza pribatua dituen bere produkzio-bitartekoan enpresa txikiaren oinarria da, eta enpresa txikia beharrezko baldintza da produkzio sozialaren garapenerako eta langilearen beraren indibidualtasun askerako. Jakina, produkzio-modu hori existitzen da esklabotzaren, joputzaren eta dependentziatzko beste egoera batzuen azpian ere. Baina loratu, bere energia osoa jaregin, bere forma klasiko egokia langilea berak eskuratutako lan-baldintzen jabe askea den tokian bakarrik lortzen du, nekazaria lantzen duen soroarena, edo artisaua bere instrumentuarena, zeinean bertutetsu gisa jotzen baitu.

Produkzio-modu honek suposatzen du zorua eta gainerako produkzio-bitartekoak barreiatzea. Azken horien kontzentrazioa bezala, eskluditu egiten ditu lankidetzak, lanaren banaketa produkzio-prozesu horien barruan, naturako indarren kontrol soziala eta arautzea, produkzio-indar sozialen garapen askea. Produkzioaren eta gizartearen muga natural estuekin bakarrik da bateragarria. Hori betikitzea izango litzateke, Pecqueunek zuzen dioenez, «erdipurdikeria unibertsala dekretatzea». Garapenaren estadio jakin batean mundura hura suntsitzeko bitarteko materialak dakartza. Une horretatik indar berriak eta grina berriak sortzen dira gizartearen baitan, zeinak hark kateatuak sentitzen baitira. Ezereztu egin behar dira, ezereztu egin dira. Hura ezerezte, sozialki kontzentratuiko produkzio-bitarteko banakotu eta berreiatuen eraldakuntza, beraz, nanoak bezalako jabetza askorena erraldoia bezalako jabetza gutxi batzuen eta jende-masa handia beren lurretik, biziraupen-bitartekoetatik eta lan-tresnetatik desjabetzea jende-masaren desjabetze izugarri eta zail horrek eratzen du kapitalaren historiaunea. Bortxazko metodoen sail oso bat besarkatzen du, eta guk kapitalaren jatorrizko metatzearen metodo gisa aromarkatzaile izan direnei bakanik pasatu diegu errebista. Produzitzaile bitartegabeen desjabetza bandalismo gupidagabeen bitartez eta grina infame, doilor, zikin eta kaskanenen eraginpean burutu zen. Pertsonalki landutako jabetza pribatua, hau da, zeina oinarritzen baita, nolabait esateko, independenteki lan egiten duen norbanako bakartua bere lan-baldintzekin bat egitean, jabetza pribatu kapitalistak ordeztu duela, zeina oinarritzen baita lan arrotz baina formalki askearen ustiapenean.<sup>94</sup>

---

mugimendu bat ezarri zen alderantzizko norabidean. Hiri-langileak *en masse* landara bultzatuak izan ziren, eta bertan ordu arte inoiz ikusi gabeko bulkada eman zioten maila txikiko kultiboari, jardingintza-eran.

<sup>94</sup> 'Gizartearentzat erabat berria den egoera batean gaude... jabetza mota oro eta lan mota oro bereizteko



379

Metamorfosi honek gizarte zaharra behar adina deskonposatu duen bezain laster, haren zabal-sakonean, langileak proletario bihurtu diren bezain laster, eta haien produkzio-bitartekoak kapital, produkzio-modu kapitalista bere oin propioen gainean zutitu den bezain laster, forma berri bat hartzen du lana gehiago sozializatzeko eta gehiago eraldatzeko zorua eta beste produkzio-bitartekoak produkzio-bitarteko sozialki ustiatu eta, beraz, komunal izateraino. Orain desjabetu beharrekoa ez da langile autoenplegatua, baizik langile kopuru handi bat esplotatzen duen kapitalista.

Desjabetza burutzen da produkzio kapitalistaren lege immanenteen jokoaren bitartez, kapitalaren zentralizazioaren bidez. Kapitalista batek beste asko uzten ditu jokoan kanpo. Zentralizazio horrekin, edo kapitalista gutxi batzuek egiten duten desjabetza horrekin eskuz esku, beste garapen batzuk gertatzen dira eskala gero eta handigoan, adibidez, lan-prozesuaren forma kooperatiboa garatzen da, zientziaren aplikazio tekniko kontzientea, lurzoruaren ustiapen planifikatua, lan-bitartekoen eraldakuntza formetan, zeinean komun erabil bai baitaitezke, produkzio-bitarteko guztiak ekonomizatzea haren erabileraren bidez lan sozial konbinatuaren produkzio-bitarteko gisa, herri guztiak katigatzea mundu-merkatuaren sarean, eta, honekin, eraentza kapitalistaren nazioarteko izaeraren hazkuntza. Magnate kapitalisten kopuruaren etengabeko urritzearekin batera, zeinak usurpatzen eta monopolizatzen baitu eraldatze-prozesu honen abantada guztiak, miseria, zapalkuntza, esklabotza, endekatze eta ustiapenaren masa haziz doa; baina honekin batera langile-klasearen, kopurutan etengabe gehitzen ari den produkzio-prozesu kapitalistaren mekanismoak berak trebatu, elkartu eta antolatutako klasearen matxinada ere haziz doa. Kapitalaren monopolioa produkzio-moduaren kate bihurtu da, harekin eta haren pean loratu dena. Produkzio-bitartekoen eta lanaren sozializazioaren zentralizazioa iristen dira puntu batera, zeinak ez baitira bateragarriak integumentu kapitalistarekin. Hori zartatu egin da. Jabetza pribatu kapitalistaren azken orduak jo du. Desjabetzaileak desjabetuak izan dira.

Produkzio-modu kapitalistatik sortzen da jabetze-modu, eta ondorioz jabetza pribatu kapitalista, lan propioan oinarrituriko jabetza pribatu banakoaren lehen ukapena da. Produkzio kapitalistak, prozesu natural baten behararekin, bere ukapen propioa sortzen du. Ukapenaren ukapena da. Horrek ez du jabetza banakoa berrezartzen, baina jabetza banakoa ezartzen du aro kapitalistako lorpenen oinarriarekin, hau da, lanak berak produzituriko produkzio-bitartekoen eta lurraren erkidego-jabetzarenarekin.

380

Norbanakoen lan propioaren gainean datzan jabetza pribatu barreiatuaren eraldakuntza, jabetza pribatu kapitalista bihurtu arte, jakina, askoz luze, gogor eta zailagoa da jabetza kapitalistaren jabetza pribatu izateko eraldakuntza baino, zeina errealki produkzioaren maneiu sozialaren gainean oinarritua baita. Han herri-masaren desjabetza zen usupatzaile gutxi batzuen bitartez; hor usurpatzaile gutxi batzuen desjabetza da herri-masaren bitartez.<sup>95</sup>

---

ahaleginetan ari gara' (Sismondi, *Nou veaux Principes d'économie politi que*, 2 libkia., 434 or.). 450

<sup>95</sup> Industriaren aurrerabideak, zeinaren eroale nahimen eta erresistentziarik gabea burgesia baita, konkurrentziaren bidezko langileria bakartzearen tokian haren asoziazioaren bidezko elkartze iraultzailea ezartzen du. Industria handiaren garapenarekin burgesiak oinpean ikusten du oinarria bera, zeinaren gainean produzitzen baitu eta

---

produktuez jabetzen baita. Batez ere bere hilobi propioa produzitzen du. Haren gainbeheratzea eta proletalgoaren garaipena era berean saihestezinak dira... Gaur egun burgesiari aurre egiten dioten klase guztietatik proletalgoa bakarrik da errealki klase iraultzaile bakarra. Gainerakoak iraungi eta desagertu egiten dira industria handiarekin; proletalgoa da haren produktu propioena. Estamentu ertainak, industrial txikia, merkatari txikia, artisaua, nekazaria, denek borrokatzen dute burgesia estamentu ertaina beren existentzia hondamenditik segurtatzeko... erreakzionarioak dira, historiaren gurpila atzerantz ibilarazi nahi dute.<sup>1</sup> (Karl Marx and F. Engels, *Manifest der Kommunistischen Par tei*, Londres, **1848**, 11,9 orr.)

**Frantziako Gerra Zibila**

1 «*Pilota Jokoa*, 1789ko Biltzar Nazionalak bere erabaki sonatuenak hartu zituen tokia.» (*Engelsek 1871ko alemaniar edizioari eginda ko oharra.*)

**Gothako Programaren kritika**

1 Hitz egin dut eta neure arima salbatu dut. (Ezekiel 3:18-19)

## IV. IDAZKI POLITIKO BERANTIARRAK

### Frantziako Gerra Zibila (hautatuak)

Karl Marx

*Louis Bonapartek 1851n Frantzian ezarri zuen inperioa azken goibelera iritsi zen prusiarren eskuetan 1870-71ko Gerra Franziar-Prusiarrean. Enperadorea tronugabeturik eta prusiar armadak hiriburuaren ateetan zirela, Parisko langileek Communearen sotrera aldarrikatu zuten 1871ren martxoan; Paris gobernatu zuten urte hartako maiatza arte. Bitartean, Behin-behineko Gobernu bai, Hirugarren Errepublika bihurtu zena instalatu zen Versaillesen Adolphe Thiersen azpian eta negoziaketak hasi zituen prusiarrekin. Communeak amaiera odoltsua izan zuen maiatzaren azkenean Thiersen gobernuak menderatu zuenean.*

*Marxek, Londresetik jazoera horien behatzaile zenak, Communeari buruzko oso iritzi nahasia zuen eta ezkorra zen haren arrakasia aukerez. Guztiarekin ere, Parisko Jendeari alokuzio bai idaztea proposatu zuen Londresko Lehen Internazionalaren Kontseilu Orokorra bermatuko zuena. Alokuzioak gaurdaino iraun duten hiru zirriborro izan zituen, eta azkena Kontseilu Orokorri aurkeztu zitzaion 1871ko maiatzaren 30ean, Communearen azken kolapsoa baino bi egun lehenago.*

*Alokuzioak lau sail ditu. Lehen biek errepublika berriko Behin-behineko Gobernuaren izaera eta Communea ezartzera eraman zuten jazoerak aztertzen dituzte. Hirugarren eta sail ospetsuenean, Marxek Communearen beraren izaera eta egitura aztertzen ditu. «Langile-klasea,» aldarrikatzen du Marxek, «ezin du besterik gabe dagoeneko prest dagoen estatu-makineriari heldu, eta bere xede propioetarako erabili». Bere gobernu-forma propioa eratu behar du.*

382

*Communarden asmoak deskribatzen jarraitzen du termino fantastiko samarretan zeren adostasunik eza baitzegoen beraien artean egin behar zenari buruz eta hura egiteko zegoen denbora laburrari buruz. Communea, aldarrikatzen du, «desjabetzaileen desjabetza zuen helburu. Jabetza pribatua egia bihurtu nahi zuen produkzio-bitartekoak, lurra eta kapitala, orain nagusiki lana esklabotu eta esplotatzeko bitartekoak lan aske eta asoziatuaren instrumentu hutsetan eraldatuz». Communea, hala ere, ez da nahastu behar gizarte iraultzailearen azken forma baiekin, abisatzen du Marxek. Langile-klaseak «badaki bere emantzipazioa lortzeko... borroka luzeetatik, prozesu historiko sail batzuetatik pasatu beharko duela, inguruabarrak eta gizakiak eraldatuz». Laugarren sailak Communearen heriotza deskribatzen jarraitzen du, eta Marxek Alokuzioa amaitzen du zapalkuntzaren biktimak omenduz. «Langileen Paris, beren Communearekin, beti ospatuko da gizarte berri balen aitzindari aintzatsua bezala. Haren martiriak gorderik daude langile-klasearen bihotz handian erlikitegi batean bezala.»*

Frantziako gerra zibila *garrantzitsutzajotzen da panfleto historiko gisa eta Marxen azterlan luzeenetako bai bezala iraultza-osteko «proletalgoaren diktadura»k izan zezakeen itxuraz. Azken estilo horretan, Marxen iraultza-teoriaren interpretazio leninistak sostengatzeko erabili izan zen.*

*Ondoren datorrena Alokuzioaren hirugarren saila da, jatorrizko ingelesetik itzulia.*

\*\*\*

1871ko martxoaren 18ko egunsentian Paris «Bizi bedi komuna!» dei zaratatsuak iratzarri zuen. Zer da komuna, burgesen gogamenari hain proba gogorrak jartzen dizkiona?

«Parisko proletarioak» —zioen Komite Zentralak martxoaren 18ko bere manifestuan—, klase menderatzaileen porroten eta traizioen erdian, konturatu dira iritsi dela ordua egoera salbatzeko arazo publikoen zuzendaritza eskuetan hartuz... Ulertu dute beren betebeharrak ezinbestekoa eta eskubide eztabaidaiezina dutela beren zori propioaren jabe bihurtzeko eta gobernu-boterea hartzeko».

283

Baina langile-klasea ezin da mugatu Estatuaren makineriaz jabetzera soilik dagoen bezala, eta hura bere xede propioetarako mugimenduan jartzera.

Estatu-botere zentralizatua, bere organo oropresenteekin: armada iraunkorra, polizia, burokrazia, apaizeria eta magistratura —lanaren banaketa sistematiko eta hierarkikoaren plan baten arabera sorturiko organoak—, monarkia absolutuaren garaietatik dator eta jaiotzen ari den gizarte burgesari arma ahaltu bezala zerbitzatu dio feudalismoaren aurkako bere borroketan. Guztiarekin ere, haren garapena eragotzia zegoen Erdi Aroko zarama guztia zela eta: jaun-eskubideak, tokiko pribilegioak, udal- eta gremio-monopolioak, kode probintzialak. XVIII. mendeko Iraultza Frantsesaren erratz erraldoiak ekortu egin zituen garai iraganetako hondakin horiek guztiak, horrela garbituz, aldi berean, Lehen Inperioaren garaian eraikitako estatu modernoaren eraikinaren gainegituraren aurrean jasota zeuden azken eragozpenak gizartearen lurzorutik, zeina, bestalde, Europa erdi-feudal zaharren Frantzia modernoaren aurkako koalizio-gerren fruitua baitzen. Hurrengo eraentzetan zehar, Gobernuaren kontrolpean ezarria —hau da, klase jabedunen kontrol zuzenaren pean— ez zen soilik zor nazional eskerga eta zerga abailgarrien mintegi bihurtu, baizik eta bere kargu, prebenda eta enpleguen limuri erresistiezinarekin, azkeneko liskarbide bihurtu zen frakzio lehiakideen eta klase menderatzaileetako abenturazaleen artean; bestalde, haren izaera politikoa aldi berean aldatu egiten zen gizartean gertaturiko aldaketa ekonomikoekin. Industria modernoko progresuek kapitala eta lanaren arteko kontrajartzea garatzen, zabaltzen eta sakontzen zuten bitartean, estatu-boterea eskuratuz joan zen gero eta gehiago kapitalaren botere nazionalaren izaera lanaren gain, indar publiko antolatua esklabotze sozialerako, klase-menderakuntzaren makinerian. Iraultza bakoitzaren ondoren, zeinak aurrerapauso bat markatzen baitu klase-borrokan, gero eta ageriago agertzen da estatuaren izaera zapaltzaile hutsa. 1830eko Iraultzak, emaitzatzat Gobernuaren pausoa ematean lurjabeen eskuetatik kapitalisten eskuetara, langile-klasearen etsai urrundunetatik etsai zuzenekoagoengana

transferitzea egin zuen. Errepublikar burgesek, Otsaileko Iraultzaren izenean estatuaren botereaz jabetu zirenek, ekaineko hilketak eragiteko erabili zuten, langile-klaseari frogatzeko Errepublika «soziala» haren mendekotasun soziala segurtatzen zuen Errepublika zela eta burgesen eta lurjabeen masa monarkikoa konbentzitzeko arriskurik gabe utz zitzaketela gobernuaren ardurak etadiru-abantailak «errepublikar» burgesei.

384

Guztiarekin ere, ekaineko haren balentria heroiko bakarraren ondoren, errepublikar burgesei Ordenaren Alderdiaren burutik isatsera pasatzea besterik ez zitzaien geratu, zeina baitzen frakzio guztiek eta klase jabetzailearen frakzio etsaiek, orain ageriki aitortua, klase produzitzaileen aurka. Kapital asoziatuko gobernu horrentzako forma egokiena *Errepublika Palamentarioa* zen, Louis Bonaparte presidente zuela. Hau klase-terrorismo nabariko eta la *vile multitudearen* [jendetza bilaua] aurkako irain deliberatukoa izan zen. Baldin eta Errepublika Parlamentarioa, Thiers jaunak zioenez, «gutxien banatzen zituena bazen» (klase menderatzailearen frakzio desberdinak), aitzitik amildegi bat irekitzen zuen klase horren eta haren leno urrietatik kanpo kokaturiko gizarte-gorputz biziaren artean. Haren elkartasunaren bitartez erortzera zetozen haien desakordioek estatuaren botereari ezartzen zizkioten mugak aurreko eraentzen azpian, eta, proletalgoaren matxinada mehatxagarriaren aurrean, estatu-botereaz baliatu ziren, errukirik gabe eta arranditsu kapitalaren gerra-makina nazional batez bezala lanaren aurka. Baina masa produzitzaileen aurkako gurutzada atergabe horrek behartu egiten zituen, ez bakarrik Botere Beterazlea errepresio-botere gero eta handiagoz hornitzera, baizik aldi berean behartu egiten zituen beren gotorleku parlamentarioa bera —Asanblada Nazionala— Botere Beterarazlearen aurkako haren defentsa-bitarteko guztiez gabetzera, banan-banan, harik eta horrek, Louis Bonaparteren pertsonarengan, ostiko bat eman zien arte. «Ordenaren Alderdiaren» Errepublikaren fruitu naturala Bigarren Inperioa izan zen.

Inperioa, *coup d'Etata* jaiotze-agiritzat zuela, sufragio unibertsala santziotzat eta ezpata zetroztat, nekazariengan bermatzen zela aitortzen zuen kapitalaren eta lanaren arteko borrokan bitartegabe nahastu gabeko produzitzaile-masa zabalean. Esaten zuen langile-klasea salbatzen zuela parlamentarismoa hautsi eta, harekin, Gobernuaren mendekotasun lotsagabea klase jabetzadunekiko. Esaten zuen salbatu egiten zituela klase menderatzaileak haien nagusitasun ekonomikoari zutik eutsiz langile-klasearen gainetik, eta, azkenik, klase guztiak elkartu nahi zituen, denentzat aintza nazionalaren kimera berpiztean. Errealitatean, gobernu posiblearen forma bakarra zen, burgesiak nazioa gobernatzeko gaitasuna jadanik galdua zuen eta langile-klasean artean eskuratu ez zuen une batean.

385

Mundu guztiak txalotu zuen Inperioa gizartearen salbatzailatzat. Haren nagusitasunpean, gizarte burgesak, ardura politikoetatik jareginik, berak ere espero ez zuen garapena lortu zuen. Haren industriak eta merkataritzak proportzio neurtezinetaraino hazi ziren; espekulazio finantzarioak orgia kosmopolitak ospatu zituen; masen miseriak erakuste lotsagabearen luxu suntuoso, faltsu eta doilortuarekin kontrastatzen zuen. Estatuaren boterea, itxuraz gizartearen gainetik kulunkatzen zena, bera zen hartako eskandalurik handiena eta aldi berean haren ustelkeria guztien benetako mintegia. Haren usteldura eta salbatu zuen gizartearen usteldura agerian jarri zituen Prusiaren baionetak, zeina sukarretan baitzegoen *régime* horren egoitza gorena Paristik Berlina lekuz aldatzeko. Inperialismoa da

formarik prostituituena eta aldi berean estatu-botere haren azken forma, zeina jaiotzen ari zen gizarte burgesa sartzen hasia baitzen feudalismotik bere burua emantzipatzeko eta zeina gizarte burges helduak azkenerako eraldatu egin baitzuen kapitalak lana esklabotzeko bitarteko batean.

Inperioaren zuzeneko antitesia Komuna zen. «Errepublika soziala» deiak, zeinarekin proletalgoan iragarri baitzuen Parisen Otsaileko Iraultza, ez zuen adierazten baizik Errepublika baten gurari lausoa, zeinak ez baitzuen amaituko klase-menderakuntzaren forma monarkikoa, baizik klase-menderakuntzaren bera. Komuna zen Errepublika horren forma zehaztua.

Paris, Gobernu-botere zaharraren erdigunea eta egoitza eta, aldi berean, Frantziako langile-klasearen gotorleku soziala, armatan matxinatu zen Thiersen eta landa-jaunen botere zahar hura, Inperioak ondare gisa emandakoa, berrezani eta betikotzeko ahaleginaren aurka. Eta Parisek erresistitu ahal izan zion bakanik, setioaren ondorioz, armadaz gabetu zelako, Guardia Nazional batez ordeztuz, zeina nagusiki langilez osaturik baitzegoen. Orain gertakari hori erakunde iraunkor bihurtzea da kontua. Horregatik, Komunaren lehen dekretua armada iraunkorra ezabatzeke eta populu armatuz ordezteko izan zen.

Komuna sufragio unibertsalez hautaturiko udal-kontsetiariz eraturik zegoen hiriko distrito bakoitzean. Erantzukizuna zuten eta edozein unetan kargugabe zitezkeen. Haietako kide gehienak, jakina, langileak edo langile-klasearen ordezkari berrezagutuak ziren. Komunak ez zuen izan behar organismo parlamentario bat, baizik lan-korporazio bat, betearazlea eta legegilea aldi berean. Gobernu zentralaren tresna bat izaten jarraitu ordez, polizia berehalaxe gabetu zuten atributu politikoez eta Komunaren instrumentu bihurtu zuten, erantzukizuna zuten haren aurrean eta edozein unetan kargugabe zitekeena. Gauza bera egin zen administrazioko abarretako funtzionarioekin ere. Komunako kideetatik beherantz, zerbitzari publiko guztiek langile-soldatak jaso behar zituzten. Estatuko dignatario handien interes sortuak eta ordezkaritza-gastuak desagertu egin ziren goi-dignatarioekin berekin. Kargu publikoek utzi egin zioten gobernu zentralaren testafarroen jabetza pribatu izateari. Komunaren eskuetan ez ziren jarri soilik udal-administrazioa, baizik ordu arte estatuak egikaritutako ekimen guztia.

386

Armada iraunkona eta polizia, antzinako Gobernuaren indar fisikoaren elementu zirenak ezeztaturik, Komunak neurriak hartu zituen berehala errepresioaren indar espiritual, apaizen boterea hausteko, Eliza eta Estatuaren bereizketa dekretatuz eta eliza guztien desjabetza korporazio jabedun gisa. Apaizak bizitza pribatuko erretirora itzuliak izan ziren, eliztarren limosnatik bizitzera, haien aurrekoak, apostoluak bezala. Irakaskuntzako instituzio guztiak doan zabaldu zitzaizkion herriari, eta aldi berean Eliza eta Estatuaren tartekatze guztitik emantzipatuak izan ziren. Horrela, irakaskuntza guztien helmenean jani ez ezik, zientzia bera erredimitu egiten zen klase-aurreiritziek eta Gobernuaren botereak menderaturik zeukaten eragozpenetatik.

Funtzionario judizialek galdu egin behar zuten itxurazko independentzia hura, zeinak soilik balio izan baitzuen elkarren ondoren etorri ziren gobernuetik beren mendekotasun arbuigarria mozorrotzeko, zeinen aurrean eginez eta bortxatuz baitzihoazen fideltasunezko zin-hitza. Gainerako funtzionario publikoek bezala,

magistratu eta epaileek hautatuak, erantzukizundunak eta kargugabegarriak izan behar zuten.

Ulertzekoa denez, Parisko Komunak eredu izan behar zuen Frantziako zentro industrial guztientzat. Parisen eta zentro sekundariotan finkatu ondoren, antzinako Gobernu zentralizatuak paso eman beharko zien probintzietan ere produzitzaileen autoadministrazioari. Komunak garatzeko denborarik izan ez zuen antolakuntza nazionaleko zirrimarra laburrean, argi eta garbi esaten da Komunak forma politiko izan behar zuela herrialdeko herrixkarik txikieneraino eta landa-distritoetan herri-miliziak ordeztu behar zuela armada iraunkorra, zerbitzu-aldi guztiz laboru batekin.

387

Distrito bakoitzeko landa-komunek beren arazo kolektiboak ordezkari-asanblada baten bidez administratuko zituzten zegokien distrito-hiriburuan, eta asanblada horiek, bestalde, ordezkariak bidaliko zituzten Parisko Ordezkarien Asanblada Nazionalera, ulertuz ordezkari guztiak edozein unetan kargugabe zitezkeela eta hautesleen *mandat impératifak* beharturik aurkituko zirela. Gobernu zentral batentzat oraindik geratuko ziren funtzio uni baina garrantzitsuak, ez ziren ezabatuko, esan den bezala, egia nahita faltsutuz, baizik agente komunalen, hau da, erantzukizun handikoen eskutan ezarriak izango ziren. Nazioaren batasuna ez zen hautsi behar, baizik alderantziz konstituzio komunalaren bidez antolatuko zen; errealitate bihurtu behar zuen estatu-botere hura ezereztuz, zeinak batasun haren gorpuztea nahi baitzuen, independentea eta nazioaren beraren gaintetik ezarria, zeinaren hazikin bizkarroia besterik ez baitzen. Botere zaharraren organo errepresibo hutsek inausiak izan behar zutelarik, haren funtzio legitimoak erauzi egingo zitzaizkion gizartearen beraren gainean posizio nagusi bat usurpatzen zuen autoritateari, gizarte horren zerbitzari araduratsuei berritzultzeko. Hiru edo sei urtez behin erabaki beharrean klase menderatzaileko zein kidek «ordezkatu» behar zuten herria parlamentuan, sufragio unibertsalak zerbitzatu behar zion komunatan antolaturiko herriari, sufragio banakoak beren negozioetarako langileak eta administratzaileak bilatzen dituzten ugazabei zerbitzatzen dien bezala. Eta ongi jakina da nola konpainiek hala partikularrek negozio-kontuetan badakitela eskuarki gizon egokia dagokion lekuan ezartzen eta, noizbait huts egiten badute, laster konpontzen dutela hutsegitea. Bestalde, ezer ezin zitekeen arrotzago izan Komunaren espirituarekiko sufragio unibertsala inbestidura hierarkikoz ordezte bano.

Sorkari historiko berrien ohiko zoria izaten da gizarte-bizitzako forma zahar eta zenduen ere birprodukziotzat hartuak izatea, zeinen antz pixka bat izan bailezakete. Honela, Komuna berri hori, estatu-botere modernoa hausten duena, Erdi Aroko komunen birprodukzioarekin nahastua izan da, zeinek estatu horri aurre hartu ondoren, gero haren oinarri izan baitziren. Konstituzio komunala ikusi izan da nazio handien batasun hori frakzionatzeko saio bat bezala, Montesquieu eta girondinoek amets egiten zutenez, estatu txikien federazio bat bihurtuz; batasun hori, hasiera batean bortxa politikoak ezarria, gaur produkzio sozialeko faktore ahaltsu bihurtu da. —Komunaren eta estatu-boterearen arteko kontrajartzea gehiegizko zentralismoaren aurkako borroka zaharraren forma bapikatu bat bezala aurkeztu izan da errakuntzaz.

388

Inguruabar historiko bereziek baliteke beste herrialde batzuetan gobernuaren forma burgesaren garapen klasikoa eragotzi izana, Frantzia gertatu zenez, eta ahalbidetu izana, Ingalaterran bezala hirietan estatuaren organo zentral handiak parrokia-asanblada [*vestries*] ustelez, kontseilari diru-errekardariz eta ongintzaren administrari ankerrez osatzea, eta, landan, ia hereditarioak ziren epailez. Konstituzio komunalak itzuli egingo zizkion organismo sozialari ordu arte estatu bizkarroia hurrupatzen ari zen indar guztiak, zeina gizartearen bizkar elikatzen baita eta haren mugimendu askea trabatzen baitu. Egitate honekin soilik Frantziaren birsorkuntza abian jani bide zuen. Probintzia frantseseko hirietako klase ertainak Komunari ikusten zuen berak Louis-Philipperen garaian landaren gain egikaritutako nagusitasuna berrezartzeko ahalegin bat, zeina Lois Bonaparteren garaian ordeztu egin baitzuen landak hirien gain zuen ustezko nagusitasunak. Errealitatean, konstituzio komunalak landako produzitzaileak beren distrito-hiriburu-tako gidaritzaren intelektualaren mendean jartzen zituen, hor, langileen pertsonengan, haien interesen ordezkari naturalak eskainiz. Komunaren existentzia hutsak inplikatu zuen, bistakoa zenez, udal-autonomia, baina jadanik ez alferrikakoa zen estatu-botere batekiko kontrapisu gisa. Bismarck baten buruan bakarrik, zeina odol eta burdinazko intrigitan sarturik ez dabilenean, antzinako lanbidera itzultzea baitu atsegin, haren kalibre mentalari hain ongi egokitzen zaiona, *Kladderadatscharen* lankide gisa, honelako buru batean bakanik sar zitekeen Parisko Komunari egozteko 1791ko udal-antolakuntza frantsesaren karikatua hura birsortzeko uzia, zeina baita Prusiako udal-antolakuntza, zeinean hirien administrazioa estatu prusiarren polizia-makinariaren gorpil soil sekundarioaren zereginera behar geratzen baita iraultza burges guztien lelo hori, «gobernu merkea», Komunari errealtate bihurtu zuen bi gastu-ituni handiak ezabatzean: armada iraunkorra eta estatu-burokrazia. Haren existentzia hutsak monarkia ez existitzea aurreuposatzen zuen, zeina, Europari gutxienez, klase-menderakuntzaren lastre normala eta mozorro ezinbestekoa baita. Komunari instituzio errealki demokratikoen oinarri batez hornitu zuen Errepublika. Baina ez gobernu merkea, eta ez «egiazko errepublika» ez ziren haren azken xedea, haren albokide berezkoak baizik ez ziren.

389

Komunari ezani zaizkion interpretazioen askotarikotasunak, eta hartan adierazi diren interesen askotarikotasunak forma politiko erabat malgua zela erakusten dute, gobernuaren aurreko formak ez bezala, zeinak funtsean errepresiboak izan baitziren. Hona hemen haren egiazko sekretua: Komuna, esentzialki, langile klasearen gobernu zen, klase produzitzaileak klase jabetzailearen aurkako borrokaren fruitua, azkenean aurkitutako forma politikoak, zeinak ahalbidetzen baitzuen lanaren emantzipazio politikoak egikaritzea.

Azken baldintza hori gabe, eraientza komunala ezinezkoa eta iruzurra izango zatekeen. Produzitzaileen menderakuntza politikoak haien esklabotza sozialarekin batera ezina da. Beraz, Komunari palanka izan behar zuen zimentarri ekonomikoak erauzteko, zeinetan bermatzen baita klaseen existentzia eta, ondorioz, klase-menderakuntza. Lana emantzipaturik, orduan gizaki bakoitza langile bihurtzen da, eta lan produktiboak utzi egiten dio klase-atributu izateari.

Gauza bitxia da: lanaren emantzipazioari buruz azkeneko hirurogei urteotan hain ugari hitz egin eta idatzi den guztia gorabehera, langileek nonbait gaia eskuetan hartzen duten bezain laster gaurko gizartearen bozeramaileen erretolika



apologetikoa berriro entzuten da, kapitalaren eta soldatapeko esklabotzaren haren bi poloekin (gaur, lurjabea kapitalistaren kide mendekoa baizik ez da), gizarte kapitalista errugabetasun birjinaleko egoera puruenean oraindik aurkituko balitz bezala, bere kontrajartzean eramuinetan dituela, bere iruzurrak oraindik estalita dituela, bere errealitate prostituituak oraindik biluztu gabe. Komunak, jaregiten dute, jabetza, zibilizazioaren oinarria abolitu nahi du! Bai, jaunok, Komunak abolitu egin nahi zuen klase-jabetza hori, askoren lana gutxi batzuen aberastasun bihurtzen duena. Komunak desjabetzaileak desjabetzeko asmoa zuen. Jabetza banakoa errealitate bihurtu nahi zuen, produkzio-bitartekoak eraldatuz —lurra eta kapitala—, zeinak gaur oinarrian esklabotze eta lanaren ustiatze-bitartekoak baitira, lan aske eta asoziatuko tresna soilak. Baina hori komunismoa da, «ezinezko» komunismoa! Hala ere, klase menderatzaileetako norbanakoak, gaur eguneko sistemak jarraitzea ezinezko duela ohartzeko bezain adimentsuak direnak —eta ez dira gutxi-produkzio kooperatiboaren apostolu gogaikarri eta garrasilari bihurtu dira. Alabaina, produkzio kooperatiboek itxura hutsa eta iruzurra baino zerbait gehiago izan behar badute; sistema kapitalista ordeztu behar badu; elkarre kooperatibo batuek produkzio nazionala arautu behar badute plan komun baten arabera, beren kontrolpean hartuz eta anarkia etengabeari eta produkzio kapitalistaren ezinbesteko ondorioak diren aldikako konbultsioei amaiera ezarriz; zer izango da hori orduan, jaunok, komunismoa, komunismo «ahalgarria» baizik?

390

Langile-klaseak ez zuen espero Komunatik miraririk. Langileek ez daukate utopiarik ezartzeko *par decret du peuple* [herriaren dekretuz]. Badakite beren emantzipazioa lortzeko eta horrekin bizi-forma garaiago hori, zeinera jotzen baitu erresistiezinki gaurko gizarteak bere garapen ekonomiko propioz, borroka luzeetatik igaro beharko dutela, prozesu historiko sail batetik, inguruabanak eta gizakiak aldatuko dituztenetatik. Haiek ez dute inolako idealik egikaritu beharrik, baizik gizarte berriaren elementuak jaregin soilik, zeinak gizarte burges hilzorikoak bere baitan baitaramatza. Bere eginkizun historikoaz erabat kontziente eta hori burutzeko erabaki heroikoarekin, langile-klaseak iseka egin dezake luma-lekaioen idazki zorrotzez eta asmo oneko doktrinario burgesen babes profesoralaz, zeinak hutsezintasun zientifikoak orakulu-tonuan beren ezjakin-pellokeriak eta fantasia sektarioak jareginez.

Parisko Komunak bere eskuetan hartu zuenean iraultzaren zuzendaritza, historian lehen aldiz, langile soilak «agintari natural»en gobernu-privilegioa bortxatzen auzartu zirenean eta, aurrekorik gabeko zailtasuneko inguruabanetan, beren lana modu apal, arretatsu eta eraginkorrean egin zutenean soldatekin, zeinetariko altuena doi-doi baitzen, autoritate zientifiko garai baten arabera, Londresko irakaskuntza publikoko kontseilu bateko idazkariaren gutxieneko soldataren zenbatekoaren bosten bat, mundu zaharra bihurtu egin zen amorrutako konbultsiotan Bandera Gorria, Lanaren Errepublikaren sinboloaren ikuskizunaren aurrean, zeina Hotel de la Villeren gainean baitzegoen.

Eta, hala ere, hau izan zen lehen iraultza, zeinean langile-klasea zabalkiro benezagutua izan baitzen klase ertain paristarraren beraren —dendarien, artisauen, merkatarialdetik ekimen sozialerako gai zen klase bakar gisa, kapitalista aberatsen salbuespen bakarrarekin. Komunak salbatu egin zuen, klase ertainaren beraren barruko liskar-ituni atergabea soluzio zuhur baten bidez: hartzekodunen eta

zordunen arteko gatazka. Klase ertaineko elementu horiek berak, 1848ko Ekaineko Langile Matxinada zapaltzen lagundu ondoren, haien hartzekodunekiko begirunerik gabe sakrifikatu zituen orduko Asanblada Eratzaileak. Baina ez zen izan hori langile-klasearen inguruan biltzera eman zituen zio bakarra.

391

Komunaren eta Inperioaren artean hautatu behar zela sentitzen zuten, zeinahi zelarik ere errotulua, zeinaren azpian azken hori berpiztuko baitzen. Inperioak ekonomikoki hondamendira eramane zituen aberastasun publikoa xahutuz, sustatu zituen estafa finantzario handiekin eta kapitalaren kontzentrazio artifizialki agurotuari emandako laguntzarekin, zeinak suposatzen baitzuen haren osagaietako askoren desjabetza. Politikoki zapaldu egin zituen eta moralki sumindu bere orgiekin; haien volterianismoa zauritu zuen seme-alaben hezkuntza *frères ignorantinei*-fidatzean, eta frantsesen sentimendu nazionala matxinarazi zuen gerra batera zalapartaka jaurtitzean, zeinak konpentsazio bakarra eman baitzuen eragindako hondamendi guztientzat: Inperioaren suntsipena. Egitatean, *bohème* bonapartista eta kapitalista garaiak Paristik ihes egin orduko, klase ertainaren benetako Ordenaren Alderdia sortu zen «Batasun Errepublikarra»ren formapean, Komunaren banderapean jani zen eta Thiersen desitxuratze berariazkoen aurka hura defenditzeari ekin zion. Denborak esango du klase ertaineko masa handi honen esker onak jasango dituen une hauetako proba latzak.

Komunak erabateko arrazoia zeukan nekazariei esaten zienean: «Gure garaipena da zuen itxaropen bakarra». Versaillesen inkubaturiko eta europar prentsaren mertzenario leinargiek hedaturiko gezur guztien artean, ikaragianietako bat zen «landako»ek nekazaritza frantsesa ordezkatzeko zutela. Pentsa zer maitasun sentituko zuten Frantziako nekazariak gizonenganako, zeintzuei 1815az geroztik kalteordainetan mila milioi ordaintzera behartu baitzituzten! Nekazari frantsesaren begietan, lur-jabe handien existentzia hutsa 1789ko konkisten usurpazio bat da. 1848an burgesiak zordundu egin zuen haren lur-partzela frankoko 45 ehuneneko zerga gehigarri batez, baina orduan iraultzaren izenean egin zuen; orain, aldiz, gerra zibil bat sustatu zuen iraultzaren aurka, nekazarien bizkar gainera jaurtitzeko prusiarrei ordaindu behar zitzaieen bost mila milioiko kalteordainaren zama nagusia. Komunak, aitzitik, iragarri zuen bere lehen aldarrietako batean gerraren kostuak haren egiazko kausatzaileek ordaindu behar zutela. Komunak erredimitu egin bide zuen nekazaria odol-ekarpenetik, gobernu merke bat eman bide zion, gaur haren vanpiroak direnak —notarioa, abokatua, agente betearazlea eta epaitegietako beste odol-xurgatzaile batzuk— soldatapeko enplegatu komunal, berak hautatu eta beraren aurrean erantzule; eskola-maisuaren eskuetan jarritako ilustrazioak hartu bide zuen apaizaren aldetiko kaikutzearen lekua.

392

Eta nekazari frantsesa, ezer baino lehen eta batez ere, gizon kalkulatzailea da. Guztiz arrazoizkoa irudituko zitzaiokeen apaizaren ordaina, berari zerga-biltzaileek erauzia izan beharrean, eliztarren sentimendu erlijiosoan agerpen espontaneoaren baitakoa izatea. Horiek ziren konstituzio komunalaren abantada handiak —eta hark bakarrik— eskaintzen zien hori nekazari frantsesei. Ez dago, beraz, aztertzen geratu beharrik arazo konplikatuago baina hil-bizikoak, zeinak Komunak bakanik ebatz baitzitezkeen —eta aldi berean behartua baitzegoen haiek ebaztera—, nekazarien mesedetan, hau da: hipoteka-zorra, haren partzelaren gaietan lokamuts batek bezala pisatzen zuena; *proletariat foncier* (landa-proletalgoa), etengabe hazten ari

zena, eta aipaturiko partzelatik hura desjabetzearen prozesua, zeina gero eta azeleratuagoa baitzen nekazaritza modernoaren garapenaren eta nekazari-produkzio kapitalistaren konkurrentziaren indarrez.

Nekazalgo frantsesak Louis Bonaparte hautatu zuen Errepublikaren presidente. Baina Ordenaren Alderdiak sortu zuen Bigarren Inperioa. Nekazalgo frantsesak errealki nahi duena 1849 eta 1850ean bera hasi zen erakusten, bere *mairea* gobernuaren prefektuari kontrajartzean, bere eskola-maisua gobernuaren apaizari eta bere pertsona propioa gobernuaren jendarmeari. Ordenaren Alderdiak promulgaturiko lege guztiak 1850eko urtarrilean eta otsailean nekazariaren aurkako errepresio-neurri lotsagabeak izan ziren Nekazalgoa bonapartista zen iraultza handia, hari konkistatutako onura guztiekin, berarentzat Napoleonengan pertsonifikatzen zelako.

Baina lilura hori laster hautsi zen Bigarren Inperioaren pean (zeina, bere izaeraz, «landakoen» aurkako baitzen), iraganeko aurreiritzi horrek nola egin ahal izango ziokeen aurre Komunak nekazarien bizi-interes eta behar larrienera dei egiteari?

«Landakoek» —horixe zen, errealitatean, haien beldur nagusiabazekiten Komunaren Parisak hiru hilabeteko kontaktua probintziekin izatea aski izango zela nekazarien matxinada orokor bat sorrarazteko, eta hortik haien presa Parisen blokeo poliziazkoa ezartzeko epidemia hedatzea eragozteko.

Komuna zen, beraz, gizarte frantseseko elementu osasuntsu guztien egiazko ordezkari, eta ondorioz, benetako gobernu nazionala. Baina, aldi berean, langile-gobernuaren eta lanaren emantzipazioaren borrokalari ausart gisa, nazioartekoa zen hitzaren zentzu betean. Armada prusiarren begietan, zeinak Alemaniari erantsi baitzizkion bi probintzia frantses, Komunak Frantziari erantsi zizkion mundu osoko langileak.

393

Bigarren Inperioa maula kosmopolitaren jubileoa izan zen, herrialde guztietako maualagileak haren deiari erantzunez lasterka etoni zitzaizkion haren orgietan eta populu frantsesaren zakuratzean eskuhartzera. Eta gaur oraindik ere Ganesco, krapula valakiarra da Thiersen eskuin eskua, eta ezker eskua Markovski, espioi errusiarra. Komunak atzerritar guztiei kausa hilezkor batengatik hiltzeko ohorea eman zien. Bere traizioarengatik galdutako kanpo-gerraren eta inbaditzaile atzerritarrekiko bere konspirazioak sustaturiko gerra zibilaren artean, burgesiak denbora aurkitzen zuen abertzaletasun-frogak emateko, batida poliziazkoak antolatzeko Frantzian egoiliar ziren alemaniarren aurka. Komunak langile alemaniar bat izendatu zuen bere lan-ministro. Thiersek, burgesiak, Bigarren Inperioak etengabe iruzur eginga zioten Poloniari, begikotasun-agerpen nabariekin, baina bitartean zinez Errusiaren aldeko interesengatik traizio egiten zioten, zeinari zerbitzu zikinenak egiten baitzizkioten. Komunak ohoratu egin zituen Poloniaren seme-alaba heroikoak, Parisko defendatzaileen buruzagitzan ezarriz. Eta argi eta garbi markatzeko kontzienteki inauguratzen ari zen aro historiko berria, Komunak, garaitzaile prusiarren begietan, alde batetik, jeneral bonapartistek agindutako armada nonapartistak, besterik, Vêndomeko Koloma, aintza gerrariaren sinbolo erraldoi hura eraitsi zuen.

Komunaren neurri sozial handia haren existentzia propioa, haren lana izan zen. Haren neurri konkretuek derrigor norabidea adierazi behar zuten, zeinean mugitzen

baita herriaren gobernu bat herriaren bitartez. Horien artean kontatzen da gaueko lana abolitzea langile okinentzat, eta debekua, zigorpean, ugazaben artean praktika arrunta zenarena, soldatak muniztekoa langileei isunak ezarriz aitzakia desberdinenengatik; prozesu horretan ugazabak bere buruari esleitzen zizkion legegile-, epaile- eta betearazle-funtzioak, eta, gainera, dirua poltsaratzen zuen. Gisa horretako beste neurri bat izan zen langile-elkarteei, kalteordain-erreserbapean, itxitako tailer eta lantegi guztiak ematea, berdin zelarik haien ugazabak ihes egin izana edo lana geldiaraztea hautatu izana.

394

Komunaren neurri finantzarioak, zuhurtziaz eta moderazioz nabariak zirenak, hiri setiatu baten egoerarekin bateragarria zenera mugatu behar izan ziren derrigorrean. Kontuan izanik Parisko hiriaren gain enpresa finantzario handiek eta obra-kontratasteak Haussmannen babespean eragindako lapurreta erraldoia, Komunak titulu paregabeki hobeak izango zituzkeen haien ondasunak konfiskatzeko Louis Napoleonek Orleans familiarenak konfiskatzeko eduki zituenak baino. Hohenzollern eta oligarka ingelesak, zeinen jabetzen parte handi bat Eliza zakuratzetik baitzeterren, sumindu egin ziren Komunak sekularizaziotik 8.000 frankoz aprobetxatzean. Versaillesko Gobernuak, adorea eta indar pixka bat berreskuratu bezain laster, Komunaren aurka neurririk bortxazkoenak erabitzen zituen; pentsamenduaren adierazpen askea Frantzia osoan itoazten zuen bitartean; hiri handietako ordezkarien asanbladak debekatzearaino; Versailles eta Frantziaren gainerakoa Bigarren Inperioa txiki uzten zuen espioitzaren mendean jartzen zuen bitartean; bere inkisidore-jendarmeen bitartez Parisen argitaratutako egunkari guztiak erretzen zituen eta hiriburutik zetorren eta bertara zihoan korrespondentzia guztia bortxatzen zuen bitartean; Asanblada Nazionalean Parisen alde menturatzeko ahaleginik beldurtienak zaunkaka itoazten zirenean, zeinetara ez baitzen iritsi 1816ko *Chambre introuvable* bera; Paristik kanpoko versaillestarren gerrarekin eta haien ustelkeriazko eta konspiraziozko barruko saioekin; gorde al zitzakeen komunak bere forma guztiak eta liberalismo-itxurak bake sakoneko garaian balego bezala, bere kausari lotsagarriki traizio egin gabe? Komunaren Gobernu Thiers jaunarenaren ahaidea izan balitz, ez zatekeen aukera gehiago izango Alderdiaren Ordenako orriak erreprimitzeko Parisen, Versaillesen Komunaren orriak erreprimitzeko egon zena baino.

Benetan sumingarria zen landakoentzat, Frantzia salbatzeko bitarteko bakartzat Elizaren baitara itzultzea aitortzen ari ziren une berean, Komuna jentilak Picpuseko moja-konbentuko eta Saint Laurent elizako misterio bereziak agerian jartzea. Eta iseka bat zen Thiers jaunarentzat, hark gurutze handiak jaitsarazten zituen bitartean, batailak galtzeko, kapitulazioak sinatzeko eta Wilhelmshöhen zigarretak egiteko artean haien maisutasuna saritzeko, Komunak kargugabetu eta atxilotzea bere jeneralak betebeharraren zabarkeriaren susmo txikienaren aurrean. Bere baitatik kidetako bat kanporatu eta atxilotzea, zeina lerratu baitzen hartan ustezko izen batekin eta Lyonen sei eguneko atxilotzea jasan baitzuen porrot egite hutsarengatik, ez al zen irain deliberatua Jules Favre faltsifikatzailearentzat, zeina artean Frantziako Kanpo Arazoetako ministro baitzen, eta bere herrialdea Bismarcki saltzen eta Belgikako Gobernu paregabe hari ordenak ematen jarraitzen baitzuen? Egitatean, Komunak ez zuen esaten hutsezintasuna zuenik, gobernu zahar guztiak salbuespenik gabe esaten zutenez. Bere egintzak eta hitzak argitaratzen zituen eta bere akats

guztiak jakinarazten zizkion publikoari.

395

Iraultza guztietan, haren benetako ordezkarien alboan, beste izaera bateko jendea agertzen da. Haietako batzuk aurreko iraultzetako bizirauleak eta debotoak, presenteko unearen ikuspegirik gabeak dira, baina oraindik herriarengan eragina dutenak, haien jatortasun eta kemenarengatik edo tradizio hutsaren indarrez; beste batzuk berritsu hutsak dira, zeinek urtez urte deklamazio berak errepikatzearen errepikatzez eguneko gobernuaren aurka, iraultzaile petoen sona irabazi baitute berentzat. Martxoaren 18aren ondoren horrelako gizonak ere agertu ziren, eta kasu batzuetan eginkizun nabaria izatera iristen ziren. Botereak ahalbidetu zien herrian, eragotzi egin zuten langile-klasearen benetako egintza, haien espezieko beste batzuek aurreko iraultza guztien garapen osoa eragotzi zuten bezala. Elementu horiek gaitz ezinbestekoak dira; denborarekin alde batera uzten dira; baina Komunari ez zitzaion aukerarik eman.

Miresgarria izan zen Komunak Parisen egindako aldaketa. Bigarren Inperioko Paris prostituitu haren aztarnarik ere ez. Paris jadanik ez zen lur-jabe ingelesen, absentista irlandarren, iparramerikar esklabozale ohien eta aberats berrien, jopu-jabe ohi errusiarren eta valakiar boiardoen topagune. Jadanik ez zeoen gorpurik morguean, ez gaueko asaltorik, eta ozta-ozta lapurreta bat edo beste; 1848ko otsailetik lehen aldzig seguru ibil zitekeen Parisko kaleetan zehar, eta hori inolako poliziarik gabe.

«Jadanik ez da entzuten —zioen Komunako kide batek— asasinaketa, lapurreta eta pertsonen aurkako ekintzen berri; esan liteke poliziak berekin eraman dituela Versaillesera bere adiskide kontserbadore guztiak».

*Cocotteak* [damatxoak] berriz aurkituak zituzten beren antzinako babesleen aztarna, familia, erlijioa eta, batez ere, jabetzaren gizon iheslariak. Haien lekuan, Parisko benetako emakumeak berriro azalera irteten ziren, antzinako emakumeak bezala heroikoak, nobleak eta buru-ukatzaileak. Parisek lan egin eta pentsatu egiten zuen, borroka egin eta bere odola ematen zuen; bere ekimen historikoaren suhertasunean distiratsu, gizarte berri bat lantzen murgildua, bere ateetan zeuzkan kanibalez ia ahaztu egiten zen.

396

Parisko mundu berri honen aurrean, horra non dagoen Versaillesko mundu zaharra —*régime* zendu guztien, legitimisten eta orleanisten, nazioaren gorpuaz elikatzeko irrikitan zeuden ghoulen biltzana— errepublikar uholde-aurrekoen isatsarekin, zeinek santzionatzen baitzuten beren presentziarekin Asanbladan esklabozaleen matxinada, beren Errepublika Parlamentarioaren mantenimendua hura presiditzen zuen txerpolari aguretuari fidatuz eta 1789ko iraultza *Jeu de Paumen*<sup>1</sup> espektroen bere bileren ospaketarekin karikatuz. Halakoa zen Asanblada hau, Frantziako hildako ororen ordezkaritza, Louis Bonaparteren jeneralen sableek bakarrik bizi-itxura batean mantendua. Paris, dena egia, eta Versailles, dena gezurra, Thiersen ezpainenatik irteten zen gezurra.

«Neure hitza ematen dizuet, eta inoiz ez dut jan», esaten die Thiersek Seine-et-Oiseko departamenduko alkate-batzorde bati. Asanblada Nazionalari esaten dio Frantzian existitu den Asanblada librekien hautatua eta liberalena dela; esaten die probintziei berak egindako Parisen bonbardaketa mito bat dela: «Kanoikada batzuk disparatu badira, Versaillesko armada ez da izan horien egilea,

baizik matxinatu batzuk borrokan ari dela sinetsarazten tematuak, aurpegia ematera ausartzen ez direla». Handik gutxira esaten die probintziei Versaillesko artilleriak ez duela Paris bonbardatzen, kanoikatu egiten duela bakarrik. Parisko artzapezpikuak dio Versaillesko tropei egotzitako ustezko exekuzio eta errepresaliak asmakeria hutsak direla. Parisi diotso «zapaltzen duten tiranoengandik askatzeko» irrikitan dagoela eta Komunaren Paris da ez dela, errealitatean «kriminal-eskutada bat besterik».

Thiers jaunaren Paris ez zen «jendetza bilau»aren Parisa, baizik Paris mamua,*francs-fileursen* Parisa, boulevardetako Paris maskulinoa eta femeninoa, Paris aberats, kapitalista; Paris urreztatua, Paris nagia, orain trumilka Versaillesera, Saint-Denis, Rueil eta Sain-Germainera lasterka zihoana, beren lekaioekin, bere maulariekin, bere *bohème* literarioa eta bere *cocotteekin*. Paris, zeinarentzat gerra zibila denborapasa atsegina baizik ez baitzen, largabistako betaurreko batetik batailak ikusten zituena, kanoikaden danbatekoak zenbatzen zituena eta bere ohorea eta prostitutenengatik zin egiten zuena Porte Saint-Martinen antzezten zituztenak baino ikuskizun hura askoz hobea zela. Han, erortzen zirenak benetako hildakoak ziren, zaurituen garrasiak ere benetakoak ziren, eta gainera, dena hain zen biziki historikoa!

397

Hori da Thiers jaunaren Paris, Koblenzako emigratuen mundua Calonneko jaunaren Frantzia zen bezalaxe.

## Gothako Programaren Kritika

Karl Marx

*Lehen Internazionala ez zen disolbatu 1876 arte, baina 1870erako galdua zuen bere eragimenaren parte handi bai, eta Marxek utzita zeukan bertan aktiboa izatea une hartan. Alemaniaren batera-kuntzarekin gerra frantses-prusiarraren ondoren, Marxen arreta politikoa Alemaniara itzulita zegoen, zeinak baitzeukan langile-klasearen mugimendu aktiboenetako bai. Mugimendu alemaniarra bi alderdi nagusiren inguruan zegoen batez ere antolatua: Langileen Alderdi Sozial Demokratikoa (SDAP), zeinari Marxek begikotasuna baitzion, eta langile Alemaniarren Batasun Orokorra (ADAV), zeina baiez ere Ferdinand Lassalleren jarraitzailez osaturik baitzegoen. Bi alderdiak eztabaidan hasi ziren beren ahaleginak baieratzeko asmoarekin, eta 1875eko maiatzean, Gothako hirian, programa komun bai onartu zuten. Marxek programaren zirriborroa ikusi zuenean sutan jarri zen eta kritika bai idatzi zuen bateratzearen aurretik SDAPeko buruzagien artean zirkularazteko. Dokumentu hori, ofizialki «Langile Alemaniarren Alderdiaren Programari buruzko Bazter Ohar» bezala ezagutzen dena, lehen aldiz 1891n argitaratu zuen Engelsek «Gothako Programaren Kritika» izenburupean.*

400

*«Kritika»n, Marxek eraso egin zien programan Lassalleren elementu gisa ikusten zituenei, zeinek emaien baitzioten itxura burges eta nazionalista handiegia. Baina, hala ere, dokumentua ospetsu egiten dutenak Marxek egiten dituen oharrak dira, elementu horiek kritikatzeko prozesuan, justizia banatzaileko era iraultza osteko gizarteko estatuaren izaerari buruzko auzietan. Ohartarazien du iraultza egin eta berehala gizarte-forma berri bai sortuko dela «gizarte-kapitalistatik, zeina baita zentzu guztietan, ekonomikoki, moralki eta intelektualki, artean markaturik egongo baita gizarte zaharraren jaiotze-aztarnez, zeinaren sabeletik irtengo baita». Gizarte horretan, langileak bere lanarengatik bere ekarpenaren guztiz parekoa den zenbateko bai hartuko du, premia sozialak finantzaizeko dedukzio bai kendurik. Baina Marxek komentatzen duenez, eskubide berdinen zentzu hori oraindik kontzeptu burges bai da eta izaiez esan nahi du langile guztiek desberdin izateko eskubidea dutela. Justizia banatzaile burgesak, forma aurreratu horretan bertan ere, ez ditu aintzat hartzen langilearen ego eraren eta beharren berezitasunak. Akats horiek ez dago saihesterik, hala ere, zeren «Eskubidea ezin baitaiteke inoiz izan gizartearen egitura ekonomikoa eta horrek determinatzen duen garapen kulturala baino garaia goa.»*

*Baina gizarte komunistaren estadio garaia bai bilakatuko da, zeinean lana «ez baita bizi-bitarteko soila izango, baizik eta bizitzako lehen beharra». Estadio horretan, produktua ez da banatuko jadanik justizia-eredu burgesaren arabera, baizik egiazko eredu komunistaren arabera: «Bakoitzarengandik bere gaitasunen arabera, bakoitzari bere beharren arabera». Estatuari dagokionez, Marxek ohartarazten du berriz ere iraultza osteko gizartearen hasierako estadioa desberdindu egin behar dela komunismo erabat garatutik. Lehen estadioa «igarobide politikoko aldi bai ere bada, zeinean estatua ezin baitaiteke ezer izan baizik proletalgoaren ditadura*

*iraultzailea.»*

\*\*\*

I

1. Lana da aberastasun ororen eta kultura ororen iturria, *eta nola* lan etekinduna gizartearen barruan eta gizartearen bitartez bakarrik ahalgarri den, lanaren onura, eskubide beraz, gizarteko kide guztiei dagokie murriztu gabe.

*Paragrafoaren lehen atala:* «Lana da aberastasun ororen eta kultura ororen iturria».

401

Lana ez da aberastasun ororen iturria. Natura da erabilera-balioen iturria (eta horiez osatzen da egiazki aberastasun materiala!) lana bezalaxe, zeina indar natural baten giza lanindarraren agerpena baita. Esapide hori silabario guztietan aurkitzen da, eta soilik da zuzena suposatzen bada lana dagozkion objektuekin eta bitartekoekin burutzen dela. Baina programa sozialista batek ez du baimendu behar mintzamolde burges horiek baldintza haiek isiltzea, zeinek soilik ematen baitiote zentzua. Gizakia alde aurretik kokatzen den neurrian jabe gisa naturaren, laneko objektu eta bitarteko guztien lehen iturriaren aurrean, eta bere jabetza bezala tratatzen duenean, haren lana erabilera-balioen iturri bihurtzen da, eta, beraz, aberastasun-iturri. Burgesek arrazoi ongi oinarrituak dituzte lanari indar sortzaile naturaz gaindikoa esleitzeko; zeren lana naturak baldintzatua ondorioztatzen da gizakiak ez daukala bere lanindarra beste jabetzarik, derrigorrean izan behar duela edozein gizarte-egoeratan eta zibilizaziotan, beste gizaki batzuen esklabo, zeinak bihurtu baitira lan-baldintza objektiboen jabe. Eta haren baimenarekin bakanik lan egin eta bizi ahal izango da.

Baina utz dezagun tesi hori, dagoen bezala, edo hobeki esateko, herrenka datorren bezala. Zer ondorio espero izan behar zen hartatik? Bistan dago hau:

«Lana aberastasun ororen iturria denez gero, gizartean inork ezin du aberastasunik bereganatu, lanaren produktua izan ezik. Beraz, norberak lan egiten ez badu, inoren lanetik bizi da eta bere kultura ere inoren lanaren kontura bereganatzen du.»

Eta horren orde, lehen perpausari «eta nola» emendiozko esapidea gehitzen zaio hartatik, eta ez lehenetik, ondorioa ateratzeko.

Paragrafoaren bigarren atala: «lan etekinduna gizartearen barruan eta gizartearen bitartez bakarrik ahalgarri den».

Lehen tesiaren arabera lana zen aberastasun ororen eta kultura ororen iturria, eta lanik gabe inolako gizarterik ere ez zen ahalgarri. Orain alderantzizkoa esperimentatzen dugu lan «etekindunik» ezin dela existitu gizarterik gabe.

Era berean esan ahal izango zatekeen gizartean soilik bihur daitekeela lan etekingabea eta are erkidegoarentzako kaltegarria abar industrial, gizartearen barruan bakarrik bizi daitekeela aisiatik, etab., etab.; Rousseau osoa kopia daiteke.

402

Eta zer da lan «etekinduna»? Proposatutako etekin-efektua lortzen duena bakarrik izan daiteke. Basati batek —eta gizakia basati bat da tximinoa izateari uzten dion unetik— harrikada batez animalia bat hiltzen duenak, fruituak metatzen dituenak etab., lan «etekinduna» egiten du.



Hirugarrena. Ondorioa. «*Eia nola* lan etekinduna gizartearen barruan eta gizartearen bitartez bakarrik ahalgarri den, lanaren onura, eskubide beraz, gizarteko kide guztiei dagokie murriztu gabe.

Ondorio bikaina! *Eta nola* lan etekinduna gizartearen barruan eta gizartearen bitartez bakarrik ahalgam den, lanaren onura gizarteari dagokio, eta langile banakoak lanaren «baldintza» sostengatzeko beharrezkoa ez dena, zeina baita gizartea, hori soilik jasoko du.

Egitatean tesi hori garai guztietan baliarazi dute gizarte-ordena existentetaren defendatzaile guztiek. Lehenik, gobernuaren uziak datoz, hari itsatsirik doan guztiarekin, zeren gobernu gizartearen organoa baita gizarte-ordenaren mantenimendurako; haren atzetik, jabetza pribatu mota desberdinak datoz, zeren jabetza pribatu mota desberdinak gizartearen oinarriak baitira, etab. Ikusten denez espide hutsal horiei birak eman eta nahi den erabilera eman dakieke.

Paragrafoko lehen eta bigarren atalek soilik izango lukete halako harreman arrazoizko bat honela idatzi gero:

«Lana soilik da aberastasuneta kultura-iturri lan sozial gisa», edo gauza bera dena, «gizartearen barruan eta haren bitartez». Tesi hori eztabaidarik gabe da zuzena, zeren norbanako bakartuaren lanak (haren baldintza materialak auresuposatuz) erabilera-balioak sor baditzaie ere, ezin du aberastasunik ez kulturarik sortu.

Baina, halaber, eztabaidarik gabea da beste tesia ere:

«Lana sozialki garatzen den neurrian, honela aberastasunaren eta kulturaren iturri bihurtuz, lan egiten duenaren pobretasuna eta babesgabezia ere garatzen dira, eta lan egiten ez duenaren aberastasuna eta kultura.»

Horixe da historia osoaren legea gaur arte. Horrela, bada, «lanaz» eta «gizarteaz» mintzamolde ohikoez gainera, determinatuki erakutsi beharra zegoen nola gaur eguneko gizarte kapitalistan azkenik sortu diren baldintza materialak, etab., zeinek ahalbidetzen eta behartzen baitituzte langileak madarikazio sozial hori haustera.

403

Egitatean, paragrafo oso horrek, zeina faltsua baita nola estiloari hala edukiari dagokionez, alderdiaren banderaren gorenean «lanaren onura murriztu gabea»ren lassalletar leloa inskribatzea dauka helburutzat. Aurrerago itzuliko naiz «lanaren onura», «eskubide berdina» eta abarretara, zeren gauza bera errepikatzen baita beste forma antzeko samar batean.

2. «Gaurko gizartean, lan-bitartekoak klase kapitalistaren monopolio dira; hortik datorren langile-klasearen dependentsia baldintzatua da miseriaren eta esklabotzaren forma guztien kausa».

Tesi hori, Nazioartekoaren Estatuetatik hartua, horrela «zuzendua» faltsua da.

Gaurko gizartean, lan-bitartekoak lur-jabeen eta kapitalisten monopolio dira (lur-jabetzaren monopolioa kapitalaren monopolioaren oinarria ere bada). Nazioartekoaren estatutuek ez dute aipatzen, dagokion pasartean, monopolista mota bat ez bestea. «*Lan-bitartekoen mono polioaz, hau da, bizi-iturriez*» hitz egiten du. «Bizi-ituniak» gehipen horrek aski adierazten du lurra lan-bitartekoen artean sartuta dagoela.

Zuzenketa hori sartu zen Lassallek, gaur egun guztientzat ezagunak diren arrazoiengatik, klase kapitalistari *bakarrik* erasotzen ziolako, eta ez lur-jabeei. Ingalaterran, kapitalista gehienetan ez da fabrika dagoen lur eta zoruaren jabe ere.

3. «Lanaren emantzipazioak eskatzen du lan-bitartekoak gizartearen ondare komun izatera jasotzea eta lan osoa kolektiboki arautzea, lanaren onuraren banaketa bidezkoarekin».

«Gizartearen ondare komun izatera jasotzea» dioen lekuan, zalantzarik gabe, esan beharko luke, «ondare komun bihurtzea». Baina hori bidenabar soilik.

Zer da «lanaren onura»? Lanaren produktua ala honen balioa? Eta azken kasu horretan, produktuaren balio totala, ala produkzio-bitarteko kontsumituen balioari lanak gehitzen dion balioaren parte soilik?

«Lanaren onura» hori ideia lauso bat da Lassallek kontzeptu ekonomiko zehatzak ordeztzeko erabilia.

Zer da «banaketa bidezkoa»?

Ez al diote burgesek gaurko banaketa «bidezkoa» dela? Eta ez al da hori, izan ere, egin litekeen banaketa «bidezko» bakana, gaurko produkzio-moduaren oinarriaren gainean? Agian kontzeptu juridikoak harreman ekonomikoek erazten al dituzte? Ez al dira sortzen, aitzitik, harreman juridikoak harreman ekonomikoetatik? Ez al dituzte sortzen sektario sozialistek ere banaketa «bidezkoa»ri buruzko ideiarik bariatuenak?

404

«Banaketa bidezkoa» esapideaz zer ulertu behar den jakiteko, paragrafo hori lehenarekin erkatu behar dugu. Glosatzen ari garen paragrafoa gizarte bat suposatzen du, zeinean «lan-bitartekoak ondare komun baitira eta lan guztia kolektiboki arautzen baita», aldiz, lehen paragrafoan ikusten dugu «lanaren onura osoa eskubide berdinez dagokiela gizarteko kide guztiei».

Hala ere, «gizarteko kide guztiak» eta «eskubide berdina» bistan dago esapideak baizik ez direla. Gaiaren funtsa dago gizarte komunista honetan, langile orok «lanaren onura oso» lassalletana lortu behar duelakoan.

Har ditzagun, lehenik, «lanaren onura» hitzak lanaren produktuaren zentzuan; orduan, lan kolektiboaren onura produktu sozial osoaren lan-onura izango da.

Hortik ondorioztatu behar da:

*Lehenik*, parte bat produkzio-bitarteko kontsumituak berrezartzeko.

*Bigarrenik*, parte osagarri bat produkzioa zabaltzeko.

*Hirugarrenik*, erreserbak edo aseguru-funtsak ezbeharren, natura-fenomenoengatik kalteen eta abarren aurka hornitzeko.

«Lanaren onura osoaren» dedukzio hauek behar ekonomiko bat eratzen dute, eta horren magnitudea existitzen diren bitarteko eta indarren arabera determinatuko da, eta baita probabilitate-kalkuluaren arabera ere, inola ere ezin da kalkulatu bidezkotasunetik abiatuta.

Produktu osoaren gainerako parte geratzen da, kontsumo-bitarteko gisa zerbitzatzeko determinatua. Baina parte hori banaketa indibidualera iritsi baino lehen, oraindik hartatik hau deduzitu behar da:

*Lehenik: administrazioko gastu orokorrak, produkzioari zuzenean ez dagozkionak.*

Atal hau, lehen mementotik, nabarmen mugatuko da gaurko gizartearekin erkatuta, eta urritu egingo da gizarte berria garatuko den neurrian.

405

*Bigarrenik: behar kolektiboak asetzero esleituriko atala, hala nola eskolak, osasun-instituzioak, etab.*

Atal hori nabarmen gehituko da lehen mementotik, gaurko gizartearekin erkatuta, eta gehituz joango da gizarte berria garatu ahala.

*Hirugarrenik: Lanerako gai ez direnentzako funtsak, etab., hitz batean, gaur egun beharizentzako laguntza ofizialari dagokiona.*

Horren ondoren bakarrik jo dezakegu «banaketa»ra, hau da, Lassalleren eraginpean eta kontzepzio estu batekin, programak kontuan hartzen duena, hau da, kontsumo-bitartekoen atala, zeina kolektibitate honetako produzitzatze banakoen artean banatzen baita.

«Lanaren onura osoa» eraldatu egin da jadanik, oharkabean, «onura zatiko»an, nahiz eta produzitzaileari norbanako gisa kentzen zaiona berarengana itzuli, zuzenean edo zeharka, gizarteko kide gisa.

Eta «lanaren onura osoa» adierazpena desagertu den bezala, orain desagertu egiten da «lanaren onura» oro har.

Gizarte kolektibistaren baitan, produkzio-bitartekoen jabetza komunean oinarritua, produzitzaileek ez dituzte beren produktuak aldatzen; produktuetan inbertituriko lana ez da aurkezten hemen, produktu horien balio bezala, haiek jabetzan daukaten gaitasun material bat bezala, zeren hemen, gizarte kapitalistan gertatzen denarekiko kontrajanirik, lan banakoak ez dira jadanik lan komunaren osagai itzulinguru baten bidez, baizik zeharka. «Lanaren onura» adierazpenak, gaur egun bere anbiguitatearengatik baztergarria denak, bere zentzu guztia galtzen du honela.

Hor kontua ez da gizarte komunista bat, bere oinarri propioaren gainean garatu dena, baizik, alderantziz, gizarte kapitalistatik hain zuzen irten berria den bat eta, beraz, bere alderdi guztietan, ekonomikoan, moralean eta intelektualean, oraindik gizarte zaharraren zigilua aurkezten duena, zeinaren baitatik baitator. Horren arabera, hartan produzitzaile banakoak gizarerik lortzen du —derrigorreko dedukzioak egin ondoren— eman duena zehatz-mehatz. Produzitzaileak gizarteari eman diona bere lan-kuota banakoa da. Horrela, adibidez, lanegun soziala lan banakako orduen baturaz osatzen da; produzitzaile bakoitzaren lan-denbora banakoa bereizian berak egiten duen ekarpenaren lanegun sozialaren atala, hartan duen partaidetza. Gizarteak bono bat ematen dio honelako edo bestelako lan kantitatea egin duela ezarri (erkidego-funtserako lan egindako deskontatu eta gero), eta bono horrekin kontsumo-bitartekoen gordailu sozialetatik ateratzen du berak egindako lanaren kantitatearen baliokidea. Gizarteari eman dion lan kantitate bera forma baten azpian, horretatik jasotzen du beste desberdin baten azpian.

406

Hor, bistan dago, merkantzien elkartrukea arautzen duen printzipio bera da nagusi, baliokideen elkartrukea den heinean. Forma eta edukia aldatu dira, zeren baldintza berrien azpian inork ezin baitu bere lana baizik eman, eta zeren, bestalde, orain ezer ezin baita norbanakoaren jabetza izatera pasatu, kontsumo-bitarteko banakoez

aparte. Baina horien banaketari dagokionez produzitzaile desberdinen artean, merkantzia baliokideen elkartrukerako printzipio bera da nagusi: lan kantitate bat aldatzen da, forma baten azpian, beste lan kantitate berdin baten truke, beste forma baten azpian.

Horregatik, *eskubide berdinak* hor, printzipioz, *eskubide burgesa* izaten jarraitzen du, nahiz eta orain printzipioa eta praktika ez dauden elkarrekin liskarrean, aldiz, baliokideen elkartruketa merkantzia-trukean batez bestekoan bakarrik gertatzen baita, eta ez kasu banakoetan.

Aurrerapen hori gorabehera, *eskubide berdin* horrek mugapen burges bat dauka beti itsatsia. Produzitzaileen eskubidea egin duten lanarekiko proportzionala da; berdintasuna, hemen, neurri beraz, lanaz neurtzean datza. Baina norbanako batzuk besteak baino gehiago dira, fisikoki edo intelektualki, eta denbora berean, lan gehiago egiten dute, edo lan gehiago egin dezakete; eta lana, neurritzat balio izateko, determinatu egin behar da iraupen edo intentsitateari dagokionez; bestela, utzi egiten dio neurri izateari. Eskubide berdin hori eskubide desberdina da lan desberdinerako. Ez du benezagutzen ezein klase-desberdintasun, zeren hemen norbanako bakoitza besteak bezalako langile bat besterik ez baita; baina tazitoki berrezagutzen ditu, beste hainbeste pribilegio natural gisa, gaitasun banako desberdinak, eta, ondorioz, errendimendu-gaitasun desberdina. Funtsean, beraz, eskubide oro bezala, desberdintasunaren eskubidea da. Eskubidea soilik egon daiteke, naturaren arabera, neurri berdina ezartzean; baina norbanako desberdinak (eta ez lirateke norbanako bestelako izango desberdinak ez balira) beti neurri beraz bakarrik neur daitezke eta ikuspuntu beraren azpian ezartzen direnean eta alderdi determinatu batetik bakarrik begiratzen zaienean; adibidez, emandako kasuan, langile diren heinean soilik, eta haiengan beste ezer ikusten denean, hau da, gainerako guztia alde batera uzten denean. Jarrai dezagun: langile bat ezkonduko dago eta bestea ez; batek besteak baino seme-alaba gehiago ditu, etab., etab. Lan berdinari eta, ondorioz, kontsumo-funts sozialean partaidetza berdinari dagokienez, batek besteak baino gehiago lortzen du, bata bestea baino aberatsago da, etab. Eragozpen horiek guztiak ekiditeko, eskubideak ez luke berdina izan behar, desberdina baizik.

407

Baina akats horiek ekidinezinak dira gizarte komunistaren lehen fasean, erditze luze eta mingarri baten ondoren gizarte kapitalistatik sortzen denez. Eskubidea ezin liteke inoiz izan egitura ekonomikoa, ezta hark baldintzaturiko gizartearen garapen kulturala baino handiagoa ere.

Gizarte komunistako fase garaiago batean, norbanakoen mendekotasun esklabotzailea lanaren banaketarekiko desagertu denean, eta harekin, lan intelektualaren eta lan eskuzkoaren arteko kontrastea; lana bizi-bitarteko soil bat ez denean, baizik lehen bizi-beharra; norbanakoen garapenarekin alderdi guztietan, produkzio-indarrak ere hazi eta aberastasun kolektiboaren iturriak txorrotada betean korrituko dutenean, orduan bakarrik gainezkatu ahal izango da erabat eskubide burgesaren ortzemuga estua eta gizarteak bere banderetan idatzi ahal izango du: bakoitzarengandik, haren gaitasunen arabera; bakoitzari haren beharren arabera!

Luzatu egin naiz «lanaren onura osoa»ri buruzkoan, alde batetik, eta besterik, «eskubide berdina» eta «banaketa bidezkoa»ri buruzkoan, erakusteko zeinen hutsegite larria egiten den, alde batetik, gure Alderdiari berriro ezarri nahi zaizkionean dogma gisara, ideiak, zeinak garai batean zentzua izan bazuten ere, gaur lelo zaharkituak baizik ez direnak, eta, besterik, kontzepzio errealista hondatuz —zeina hainbesteko ahalegina kostatu baitzaio alderdiari sartzea, baina gaur dagoeneko errotua dagoen— asmakeria ideologiko, juridiko eta beste mota batekoarekin, demokrata eta sozialista frantsesen artean hain sapan egon dena.

Orain arte azaldutakoa alde batera utzirik ere, okerra da, oro har, banaketa deitua esentzialtzat hartzea eta horretan azentu nagusia ezartzea.

408

Kontsumo-bitartekoen banaketa, une oro, produkzio-baldintza propioen banaketaren korolario bat da. Eta hori produkzio-moduaren beraren ezaugarri bat da. Adibidez, produkzio-modu kapitalista bermatzen da produkzio-baldintza materialak lan egiten ez dutenei kapitalaren eta lurzoruaren-jabetzaren formapean esleitzean, aldiz, masa produkzio-baldintza pertsonalaren, lanindarraren jabe bakanik da. Produkzio-elementuak modu horretara banaturik, berez sortzen da kontsumo-bitartekoen gaurko banaketa. Baldin eta produkzio-baldintza materialak langileen beraien jabetza kolektiboa izango balira, horrek, berez bakarrik, determinatuko luke gaurkoaz bestelako kontsumo-bitartekoen banaketa bat. Sozialismo arruntak (eta horren bitartez, demokraziaren parte batek) ekonomialari burgesengandik ikasi du banaketa kontsideratu eta tratatzera produkzio-moduarekiko zerbait independentea bezala, eta, beraz, sozialismoa batez ere banaketaren inguruan dabilen doktrina bata bezala azaltzera. Eta argiturik dagoelarik, duela denbora asko, gauzen egiazko harremana, zergatik berriro atzera joan?

4. Lanaren emantzipazioak langile-klasearen obra izan behar du, zeinaren aurrean gainerako klase guztiek masa erreakzionario bat besterik ez baitute eratzen.

Lehen ahapaldia Nazioartekoaren Estatutuen atarikitik hartua da, baina «zuzendurik». «Langile-klasearen emantzipazioak langileen beraien obra izan behar du», hemen, aitzitik, «langile-klaseak emantzipatu egin behar du, nor? «lana». Uler beza ahal duenak.

Kalteordain gisa, kontra-ahapalditarako, estilo garbieneko aipu lassalletar bat ematen zaigu: «zeinaren aurrean (langile-klasearenean) gainerako klase guztiak masa atzerakoi bat besterik ez baitute eratzen».

*Manifestu Komunistan* esaten da: «Gaur egun burgesiari aurre egiten dioten klase guztietatik proletalgoa da *erreaki klase iraultzaile* bakarra. Gainerakoak iraungi eta desagertu egiten dira industria handiarekin; proletalgoa da haren produktu propioena.»

Hor, burgesia klase iraultzaile —industria handiaren eroale— gisa kontsideratzen da jaun feudalen eta geruza ertainen aurrean, tematuak haiek eta hauek produkzio-forma zaharkituek sortutako posizio sozialei eusten. Ez dute eratzen, beraz, burgesiarekin batera, masa erreakzionario bat.

Bestalde, proletalgoa iraultzailea da burgesiaren aurrean, zeren industria handiaren oinarriaren gainean sorturik, produkzioari bere izaera kapitalista kentzeko gogo

baitu, zeina burgesiak betikotu egin nahi baitu. Baina Manifestuak gehitzen du «geruza ertainak... iraultzaile bihurtzen dira aurrean daukatenean berehala proletalgora igarotzea.»

409

Beraz, ikuspuntu horretatik, absurdoa da esatea langile-klasearen aurrean «masa erreakzionario bat besterik ez dutela eratzen», burgesiarekin eta jaun feudalekin berekin batera.

Azken hauteskundeetan oihu egin al zaie artisauei, industrial txikiei, eta abarri, eta nekazariari: Gure aurrean, ez al duzue eratzen, burgesekin eta jaun feudalekin batera, masa erreakzionario bat baizik?

Lassallek buruz zekien Manifestu Komunista, haren debotoek berak osatutako ebanjelioak dakizkiten bezala. Hala, bada, hain zakarki faltsutzen zuenean, burgesiaren aurkako aurkari absolutista eta feudalekiko bere aliantza zuribidetzeko bakarrik egin zezakeen hori.

Gainerakoan, aipatu dugun paragrafoa, sententzia hori oso beharturik ekarrita dago eta ez du inolako zerikusirik Nazioartekoaren Estatutuetako aipu eskuztatuarekin. Hemen ekartzea, inpertinentzia bat da, segur aski ez zaiona desatsegina gertatuko, ezta gutxiago ere, Bismarck jaunari; inpertinentzia merke horietako bat, zeinean baita espezialista Berlingo Marata.

5. «Langile-klasea lehenik, gaurko estatu nazionalaren markoan saiatzen da bere emantzipazioaren alde, bere ahaleginen beharrezko emaitza, herrialde zibilizatu guztietako langileei komunak zaizkienak, herrien nazioarteko senidetzea izango da».

Manifestu Komunista eta aurreko sozialismo guztiarekiko kontrajarririk langile-mugimendua ikuspuntu nazional estuenetik kontzebitzen zuen. Eta Nazioartekoaren jardueraren ondoren, oraindik haren atzetik jarraitzen da!

Esan gabe doa, langile-klaseak, borroka egin ahal izateko, klase bezala antolatu behar du bere herrialdean, izan ere hori baita haren agertoki bitartegabea. Ildo horretatik, haren klase-borroka nazionala da, ez haren edukiz, baizik, Manifestu Komunistak dioenez, «haren formaz». Baina gaur eguneko Estatu nazionalaren markoa, adibidez inperio alemaniarrarena, bestalde, estatu-sistema baten «markoaren barruan» aurkitzen da. Edozein merkatarik badaki merkataritza alemaniarra, aldi berean, kanpo-merkataritza dela, eta Bismarck jaunaren handitasuna hain zuzen ere nazioarteko politikaren batean datza.

410

Eta zertara murrizten du Langile Alderdi Alemaniarrak bere nazioartekotasuna? Bere ahaleginen emaitza «herrien nazioarteko senidetzea izango den» kontzientziara, zeina baita Bakearen eta Askatasunaren aldeko Liga burgesetik hartutako esapide bat, zeina pasarazi nahi baita klase langileen nazioarteko senidetasunaren baliokidetzat, klase menderatzaileen eta gobernuen aurkako beren borroka komunean. Langile-klase alemaniarraren nazioarteko betebeharez ez da hitz bakar bat ere esaten! Eta hori da langile-klase alemaniarrak bere burgesia propioari kontrajarri behar diona, zeren haren aurka senidetzen baita gainerako herrialde guztietako burgesekin, eta Bismarck jaunaren konspirazioko nazioarteko politikari!

Egitatean, programako fede-aitorpen internazionalista, alderdi librekanbistaren infinituki behetik geratzen da. Horrek ere baieztatzen du bere ahaleginen emaitza «herrien nazioarteko senidetzea» izango dela. Baina, gainera, merkataritza

nazioartekotzeko zerbait egiten saiatzen da, eta ez da nahikotzen, ezta hurrik eman ere, herri guztiek beren herrialde propioaren barruan merkataritzan ari direlako kontzientziarekin.

Langile-klaseen nazioarteko egintza ez dago, inola ere, «*Langileen Nazioarteko Elkartearen*» existentziaren baitan. Hori lehen ahalegin bat besterik ez zen izan harentzat organo zentral bat; ahalegin bat, eman zuen bulkadarengatik, eraginkortasun iraunkorra izan duena, baina bere lehen forma historikoan Parisko Komuna erori ostean luza ezin zitekeena.

Bismarcken Norddeutsche erabateko arrazoa zuen, bere jabearen pozerako iragarri zuenean, programa berrian, Langile Alderdi Alemaniarrak uko egiten ziola nazioartekotasunari.

## //

«Printzipio horietatik abiatuz, Langile Alderdi Alemaniara, ahalegindu egiten da, legezko bitarteko guztiekin *Estatu aske-eta-gizarte* sozialistara iristen; soldata-sistema, bere brontzezko legearekin eta forma guztien azpiko ustiapena gainditzen; desberdintasun sozial eta politiko guztia baztertzen.»

Estatu «aske»arenera gero itzuliko naiz.

Horrela, bada, hortik aurrera, Langile Alderdi Alemanianak sinetsi egin beharko du «soldataren brontzezko lege» lassalletanean! Eta «lege» hori gal ez dadin, «soldata-sistema gainditzeaz» hitz egitearen absurdoaz egiten da (soldatapeko lan-sistema: esan beharko litzateke), haren brontzezko legearekin. Soldatapeko lana gainditzen badut, haren legeak ere gainditzen ditu, bistakoa denez, «brontzezkoak» edo kortxoak izan. Baina soldatapeko lanaren aurkako Lassalleren borrokak, lege dituen honen inguruan bakanik ematen ditu birak. Beraz, Lassalleren sekta garaile atera dela frogatzeko, «soldata-sistema, haren brontzezko legearekin» gainditu behar da, eta ez hura gabe.

411

«Soldataren brontzezko legea» ez dagokio Lassalleri, jakina denez, «brontzezko» adierazpena baino gehiago, zeina Goetheren «*ewigen, ehernen grossen Gesetzen*»etik (lege betikoak, brontzezko lege handiak) kopiatuak baitira. «Brontzezko» adierazpena fededun ortodoxoak elkar berrezagutzeko duten kontraezina da. Eta legea Lassalleren sinadurarekin onartzen badut, eta beraz zentzu lassalletanean, haren oinarriztapenarekin ere onartu beharra daukat. Eta zein da hori? Hori, Langek seinatu zuenez Lassalle hil eta handik gutxira, biztanleriaren teoria malthusiarra da (Langelek berak predikatua). Baina teoria hori zehatza bada, aipaturiko legea ere ezin izango dut gainditu, nahiz eta nik ehun bider gainditu, zeren lege horrek ez baitu soldata-sistemarako bakarrik balioko, baizik sistema sozial ororako. Horretan hain zuzen bermatuz, ekonomialariek erakutsi izan dute, duela benogeta hamar urtez eta gehiagor ere bai, sozialismoak ezin duela naturak berak determinatutako miseria bukatu, orokortu, gizartearen gainalde osoan berdinkiro banatu baizik.

Baina hori guztia ez da oinarrizkoa. Lege horren kontzepzio lassalletar faltsua erabat alde batera utzita ere, atzerapauso egiazki sumingarria honetan datza:

Lassalleren heriotzaren ondoren, gure Alderdian bide egina zuen soldata dirudiena ez delako kontzepzio zientifikoa, hau da, lanaren balioa, edo prezioa, baizik balioaren, edo lanindarraren prezioaren forma mozorrotu bat soilik. Horrekin, behin betiko jautiki zen kareletik, nola soldataren kontzepzio burges zaharra, hala gaur arte kontzepzio honen aurka zuzenduriko kritika oro, eta argi jarri zen soldatapeko langileak bere bizi propioari eusteko bakarrik dagoela baimendua, hau da, bizitzera, kapitalistarentzat denbora jakin batean doan lan egiten duen neurrian (eta, beraz, baita bere onurakideentzat ere gainbalioari dagokionez); produkzio-sistema kapitalista osoak birak ematen dituela doako lan horren luzapenaren inguruan laneguna areagotuz edo produktibitatea garatuz, hau da, lanindarraren tentsioa handiagoa, etab.; beraz, soldatapeko lan-sistema esklabotza-sistema bat dela, gero eta gogorragoa egiten den esklabotza bat lanen produkzio-indar sozialak garatzen diren neurrian, berdin dio langilea hobeki edo okerrago sariturik egon. Eta kontzepzio hori gero eta hedadura handiagoa irabazten ari da gure Alderdiaren barruan, Lassalleren dogmetara atzera egiten da, nahiz eta gaur egun inork ezin duen jakin gabe egon Lassallek ez zekiela soldata zer zen, baizik, ekonomialari burgesen atzetik joanez, itxura gauzaren esentziaz hartzen zuela!

412

Zera bezala da, esklabotzaren sekretua azkenean aurkitu duten eta haren aurka matxinatzen diren esklaboen artean, ideia zaharkituen esklabo fanatiko bat etorri eta matxinatze-programan hau idatziko balu bezala da: esklabotza desegin egin behar da, zeren esklaboen mantenua, esklabotza-sistemaren banuan, maximo jakin, oso apal batetik ezin baitaiteke pasa! Gure alderdiaren ordezkariak alderdiaren masan hain hedatua zegoen kontzepzio baten aurka hain atentatu ikaragarria egiteko gai izateak berez frogatzen du nolako arinkeria kriminalez, nolako eskrupulugabeziak iragaitzako programa honen idazkuntzari ekin dioten. Paragrafoaren azken esapide lausoaren ordezkariak: «desberdintasun sozial eta politiko oro baztertzea», esan beharko zatekeena da klase-desberdintasunak desegitean, berez desagertzten dela haietatik sortzen den desberdintasun sozial eta politikoa.

### III

«Arazo sozialaren bidea prestatzeko, Langile Alderdi Alemaniarrak eskatzen du produkzio-kooperatibak sortzeko, estatuaren laguntzarekin herri langilearen kontrol demokratikoaren pean. Industrian eta nekazaritzan, produkzio-kooperatibak halako proportzioetan sortu behar dira, non haietatik lan osoaren antolakuntza sozialista sortuko den».

Lassalleren «brontzezko legearen» ondoren, profetaren panazea dator. Eta era duinean «prestatzen zaio bidea». Existitzen den klase-borroka kazetari-esapide batek ordeztzen du: «arazo soziala»k, zeinaren «soluzio»rako prestatzen baita bidea. «Lan osoaren antolakuntza sozialista» ez da sortzen gizartearen eraldakuntzako prozesu iraultzailetik, baizik eta «estatuaren laguntzatik» «sortzen» baita; laguntza hori estatuak berak sortutako produkzio-kooperatibei ematen die eta ez langileek sortutakoei. Lassalleren fantasiaren dinakoa da estatuaren maileguekin gizarte berri bat eraiki daitekeela trenbide berri bat eraikitzen den bezala!

413

Lotsa-hondar batengatik, «estatuaren laguntza» «herri langilearen» kontrol demokratikoaren pean ezartzen da.



Baina, lehenik, Alemaniako «herri langilea» gehiengoan nekazariz osaturik dago, eta ez proletarioz.

Bigarrenik, «demokratiko»k alemanez «herriak gobernatua» (*volksherrschaftlich*) esan nahi du. Eta zer da «herri langilearen herriak gobernatuaren kontrol» hori? Eta, gainera, herri langile bat delarik, estatuari erreibindikazio horiek planteatzen hutsez agintean ez dagoen eta aginterako helduta ez dagoen kontzientzia bete adierazten du!

Hor ez dago sartu beharrik, Louis-Philipperen azpian, sozialista frantsesei kontrajarrita eta Atelierreko langile errakzionarioek onarturik, Buchezek preskribaturiko errezetaren kritikan. Eta oztoparria ez datza programara eraman izatean sendatze mirarizko berezi hori, baizik klase-mugimenduaren ikuspuntutik, sekten mugimendura atzera egitean.

Langileek produkzio kolektiboaren baldintzak gizarte osoan ezarri nahi izatea eta batez ere beren herrialde propioan, eskala nazionalean, soilik esan nahi du gaurko produkzio-baldintzak irauli nahi dituztela, eta horrek ez du zerikusirik estatuaren laguntzarekin gizarte kooperatiboak sortzearekin. Eta, gaurko gizarte kooperatiboek dagokienez, horiek langileen propioen sorkari independenteak diren heinean bakarrik dute balioa, eta ez gobernuek ezta burgesek babestuak diren heinean.

#### IV

Eta orain atal demokratikoa aipatuko dut.

##### A. «Estatuaren oinarri askea».

Lehenik, II. Kapituluaren arabera, Langile Alderdi Alemaniarrak «estatu askea» iristen ahalegintzen da.

414

Zer da estatu askea?

Inola ere ez da langileen asmoa, zeinek jaregin baitute beren burua mendeko apalaren mentalitate mugatutik jaregin duen langilearen xedea. Inperio alemaniarrean, «estatu» Errusian bezain ia «askea» da. Askatasuna datza estatua gizartearen gaineratik dagoen organotik harata erabat menderaturiko organo bihurtzean, eta estatu-formak gaur gutxi-asko aske izaten jarraitzen dute estatu-askatasuna» mugatzen duten heinean.

Langile Alderdi Alemaniarrak —gutxienez, bere egiten badu programa hau— erakusten du nola sozialismoaren ideiak larruazalean barrara ez zaizkiola sartzen; zeren, existitzen den gizarte hartu beharrean (eta gauza bera esan dezakegu etorkizuneko edozein gizartez) existitzen den *estatuaren oinarritzat* (edo etorkizuneko, etorkizuneko gizarte baterako), estatua areago kontsideratzen du izaki independente gisa, bere «oinarri intelektual, etiko eta libertario» propioekin.

Eta gainera, zer esan programak «*gaurko estatu*», «*gaurko gizarte*» hitzez egiten duen abusu basatiaz eta estatuari buruz agertzen duen oraindik ulertezintasun basatiagoaz, zeini zuzentzen baitizkio bere erreibindikazioak!

«Gaurko gizarte» gizarte kapitalista da, herrialde zibilizatu guztietan existitzen dena, Erdi Aroko gehikinez gutxi-asko askea, herrialde bakoitzeko garapen historiko

espezifikoak gutxi-asko modifikatua, gutxi-asko garatua. Aitzitik, «gaurko estatua» aldatu egiten da muga nazionalekin. Inperio prusiar-alemaniarrean Suitzakoaz bestelakoa da, Ingalaterran, Estatu Batuetakoaz bestelakoa. «*Gaurko estatua*», beraz, fikzio bat da.

Hala ere, herrialde zibilizatu bakoitzeko estatu desberdinak, haien formen desberdintasun pintarratua gorabehera, guztiek komun dute gizarte burges modernoaren oinarrietan bermatzen direla, nahiz eta hori toki batzuetan beste batzuetan baino garatuago egon, zentzu kapitalistan. Ildo horretatik «gaurko estatua»z hitz egin daiteke, etorkizunekoari kontrajarrita, zeinean gaurko erroa, gizarte burgesa iraungia izango baita.

Orduan galde egin daiteke: zer eraldakuntza izango du estatueraentzak gizarte komunistan? Edo, beste hitz batzuetan, zer funtzio sozialek, gaurko estatu-funtzioaren antzekoak direnek, iraungo dute orduan? Galdera hori zientifikoki bakarrik erantzun daiteke, eta mila modutara herri hitza eta estatu hitza antolatzen dugularik ere, ez dugu urrats txikienik ere emango arazoaren soluziorantz.

415

Gizarte kapitalistaren eta gizarte komunistaren artean lehena bigarren bihurtzearen bitarteko aldia dago. Aldi horri dagokio, halaber, iragaitza-aldi bat, zeinaren estatua *proletalgoaren diktadura iraultzailea* bakarrik izan baitaiteke.

Baina programa ez da arduratzen azken horretaz, ezta gizarte komunistaren etorkizuneko estatu-eraentzaz ere.

Haren errebindikazio politikoak ez dira ateratzen mundu guztirentzat ezaguna den letania demokratikotik: sufragio unibertsala, legegintza zuzena, herri-zuzenbidea, herri-milizia, etab. Alderdi Herritar burgesaren, Bakearen eta Askatasunaren aldeko Ligaren oihartzun hutsa da. Horiek guztiak errebindikazioak dira, zeinak bapikatua ez daudenean ideia fantastiko bihurtu arte, jadanik *egikarituak* baitaude. Soilik praktikan jani dituen estatua ez da sartzen inperio alemaniarren mugen barruan, Suitzan, Estatu Batuetan eta abarretan baizik. «Etorkizuneko estatu» gisako hau jadanik *gaurko estatu* da, nahiz eta inperio alemaniarren «marko»tik kanpo existitu.

Baina gauza bat ahaztu da. Langile Alderdi Alemaniarrak, espresuki aitortzen duenez gero «gaurko estatu nazionalaren» barruan diharduela, hau da, bere estatu propioaren barruan, inperio prusiar-alemaniarren barruan —bestela, haren errebindikazioak zentzugabeak izango lirateke, gehienbat, zeren norberak ez daukana bakarrik exigitzen baitu—, ez zuen garrantzitsuena ahaztu behar, hau da, txikikeria polit horiek guztiek oinanzat herriaren subiranotasuna deituaren berrezagutza dutela, eta, beraz, *errepublika demokratiko* batean bakarrik dutela lekua.

Eta adorerik ez badago —eta hori oso zentzuzkoa da, zeren egoerak zuhurtzia eskatzen baitu— errepublika demokratikoa eskatzeko, programa langile frantsesek egiten zuten Louis-Philipperen eta Louis Napoleonen azpian, ez zatekeen jo behar amarrukeriara, zeina ez baita ez «ohorezkoa» ez duina errepublika demokratiko batean bakanik zentzua duten gauzak estatu bati eskatzea, zeina armazoi burokratiko eta blindaje poliziazkoa duen despotismo militarra besterik ez baita, forma parlamentarioz hornitua, osagai feudalez nahasia eta burgesiak jadanik eragina; eta

gainera, estatu horri segurtatzea imajinatzen garelako hori «berarengandik lortzea legezko bitartekoak erabiliz!»

416

Demokrazia arruntak berak ere, zeinak ikusten baitu errepublika demokratikoan erresuma milenario a eta zeinak ideia izpirik ez baitu hain zuzen ere gizarte burgesaren estatu-forma horren azpian, non erabakiko baita behin betiko armen indarrez klase-borroka; hori berori ere mila ukondoko garaieran dago gaur demokratismo gisako horren gaintetik, zeina mugitzen baita poliziak baimendutakoaren eta logikak debekatutakoaren barruan.

«Estatu»z, egitatean, gobernu-makineria ulertzen dela, edo estatua, lanaren banaketaren ondorioz, organismo propio bat eratzen duen heinean, gizarterik berezia, jadanik hitz hauek adierazten dute:

«Langile Alderdi Alemaniarrak estatuaren oinarri ekonomiko gisa exigitzen du: zerga bakar eta progresiboa errentaren gainean», etab.

Zergak dira gobernu-makineriaren oinarri ekonomikoa, eta besterik ez. Etorkizuneko estatuan, jadanik Suitzan existitzen denean, erreibindikazio hori ia egikariturik dago. Errentaren gaineko zergak auresuposatzen ditu gizarte-klase sozial desberdinen errenta-ituni desberdinak, hau da, gizarte kapitalista. Ez du, beraz, ezer estrainiorik Liverpooleko Financial-Reformersek —burgesek, Gladstoneren anaia buru dutela— programaren erreibindikazio bera planteatzea.

B. Langile Alderdi Alemaniarrak exigitzen du, estatuaren oinarri intelektual eta etiko gisa:

1. Hezkuntza *herritar orokorra eta berdina* estatuaren kontura. Eskola-asistentzia beharrezko orokorra. Doako irakaskuntza.

*Hezkuntza herritar berdina?* Zer ulertzen da horrekin? Sinesten al da gaurko gizartean (eta horrekin bakarrik dago zerikusia), hezkuntza *berdina izan* daitekeela klase guztientzat? Edo exigitzen dena ote da goi-klaseak ere indarrez behartuak izan daitezela eskola publikoak ematen duen hezkuntza apalarekin konformatzera, egoera ekonomikoarekin bateragarria den bakanarekin, ez bakarrik soldatapeko langilearenarekin, baizik nekazariarenarekin ere bai? «Eskola-asistentzia beharrezko orokorra. Doako irakaskuntza». Lehena existitzen da Alemanian, bigarrena Suitzan [eta] Estatu Batuetan eskola publikoei dagokienez. Azken herrialde honetako estatu batzuetan «doako»ak izatea goi-irakaskuntzako zentroak ere, soilik esan nahi du han goi-klaseei haien hezkuntza-gastuak zerga orokorren funtsaren kontura ordaintzen zaizkiela. Eta bide batez hori programako A, 5 puntuan aipatzen den «doako justizia-administrazioari» ere aplikatu daki. Justizia kriminala doakoa da alderdi guztietan; justizia zibila jabetzari buruzko auzien inguruan ia bakarrik aritzen da eta, beraz, klase jabetzadunak bakarrik afektatzen ditu. Horiek beren auziak Altxor publikoaren kontura ebatzi behar al dituzte?

417

Eskolei buruzko paragrafoak, gutxienez, eskola teknikoak (teorikoak eta praktikoak) eskatu beharko lituzke, eskola publikoekin konbinatuta.

«*Hezkuntza herritar orokorra estatuaren kontura*» delako hori erabat onartezina da. Gauza bat da determinatzea, lege orokor baten bidez, eskola publikoetako baliabideak, irakasleriaren gaitasun-baldintzak, irakasgaiak, etab., eta, Estatu Batuetan egiten denez, estatuaren ikuskarien bidez lege-preskripzioak betetzea

zaintzea gauza bat da, eta zeharo beste gauza bat estatua herriaren hezitzaile izendatzea! Egin behar dena areago da gobernu eta Eliza eskolaren gaineko eragin orotarik baztertea. Batez ere inperio prusiar-alemaniarrean (eta ez du balio «etorkizuneko estatuaz» hitz egiten delako ihesbide ustelarekin irtetea; dagoeneko ikusia dugu zer den hori), non, aitzitik, estatuak hartu behar baitu herriarengandik hezkuntza oso zorrotza.

Programa osoa, haren kriskitin-hots demokratiko guztia gorabehera, muineraino sekta lassalletarrak estaturengan duen fedez blai egina dago; edo —batere hobe ez dena— superstizio demokratikoz; edo areago da konpromiso bat sozialismotik era berean urrunduak diren bi superstizio horien artean.

«Zientzia-askatasuna»; Konstituzio prusiarreko paragrafo batek adierazten du jadanik. Zergatik orduan hona ekarri?

«*Kontzientzia-askatasuna!*» Bai, *Kulturkampf* garaiotan, liberalismoari haren kontsigna zaharrak gogorarazi nahi zitzaizkion, eta jakina, modu honetara bakanik egin zitekeen: mundu guztiak du bere behar fisikoak asetzeko eskubidea, poliziak horretan muturra sartu gabe. Baina Langile Alderdiak, aukera aprobetxatuz hemen «kontzientzia-askatasun» burgesa edozein *kontzientzia-ez-askatasun erlijioso* mota toleratzera mugatzen delako konbikzioa adierazi behar zuen, aldiz, berak kontzientzia mamu erlijioso orotatik askatu nahi duela. Baina nahiago izan da maila «burgesa» ez gaingitu.

418

Eta horrekin, azkenera iristen naiz, zeren programaren ondoren datorren eranskina, ez da haren atal *karakieristiko* bat. Beraz, oso laburra izango naiz.

## 2. «Lanegun normala».

Beste zein herrialdetan ez da langile-alderdia mugatzen hain errebindikazio lauso bat egitera, baizik eta beti finkatu egiten du lanegunaren iraupena, zeina baldintza konkretuen azpian normaltzat kontsideratzen baita.

## 3. «Emakumearen lanaren mugaketa eta haur-lanaren debekua».

Lanegunaren arauketak jadanik bere baitan izan behar du emakumearen lan-mugaketa, lanegunaren iraupenari, atsedenei eta abarri dagokienez; horrela ez bada, soilik esan nahi du emakumearen lana produkzio-abarretatik kentzea, zeinak bereziki kaltegarriak baitira emakumearen gorputzerako, edo sexu horrentzat, ikuspuntu moraletik, desagokiak. Hori esan nahi izan bada, esan egin behar zen.

«*Haur-lanaren debekua*». Hemen erabat beharrezkoa zen adin-muga ematea.

Haur-lanaren debeku orokorra ez da bateragarria industria handiaren existentziarekin, eta, beraz, nahi pietatetsu hutsa da, baina besterik ez. Debeku hori praktikan jartzea —egingarria izan litekeela suposatuz— erreakzionarioa izango litzateke, zeren zorrozki arauturik laneguna adin bakoitzaren arabera eta haurren babeserako gainerako neurri prebentibo guztiak ezarriz, lan produktiboaren konbinazioa adin goiztiantetiko irakaskuntzarekin gaur eguneko gizartea eraldatzeko bitarteko ahaltsuenetako bat baita.

## 4. Industriaren estatu-ikuskaritza fabrika, tailer eta etxe-industrietan.

Estatu prusiar-alemaniarren aurrean zehatz eskatu behar zen ikuskariak epai judizialaren bidez bakarrik kargugabe daitezkeela; langile orok sal ditzakeela

auzitegietan haien betebeharra unatzeagatik, eta profesio medikukoak izan behar dutela.

5. «Presondegietako lanaren arauketa».

419

Errebindikazio ziztrina langile-programa orokor batean. Edozein kasutan, argi eta garbi aldanikatu behar zen, konkurrentzia-beldurrarengatik, ez direla ikusi nahi delinkuente arruntak animaliak bezala tratatuak eta, batez ere, ez zitzaizela kendu nahi zuzentzeko bitarteko bakarra: lan produktiboa. Gutxiago ezin zitekeen espero sozialistengandik.

6. «Atxilotze-lege eraginkor bat».

Esan beharra zegoen zer ulertzen den atxilotze-lege «eraginkor» batez.

Bide nabar esango dugu, lanegun normalaz hitz egitean, ez dela kontua izan osasun-neurri eta istripuen aurkako babes-bitartekoei eta abarri dagokien lantegi-legediaren atala. Atxilotze-legea soilik sartzen da egintzan lantegi-arau horiek hautsi ondoren.

Hitz batean, eranskina ere zabar idatzirik dagoelako nabarmentzen da.

*Dixi eta salvavi animam meam.*<sup>1</sup>

## **Bakuninen *Estatismoa eta Anarkia* obrari buruzko albo-oharrak (laburbilduma)**

*Karl Marx*

*Mikhail Bakunin (1814-76), errusiar iraultzailea eta anarkismo modernoaren sortzaileetako bai izan zen, seguru asko, Marxen antagonista nagusia Lehen Internazionalaren lerroetan. Bakuninek Genevan argitaratu zuen 1873an bere Estatismoa eta Anarkia. Marxek, 1874aren azken aldera, oharrak hatu zituen liburuaz bere ohiko eran laburbildumak kopiatuz eta iruzkin kritikoak gehituz. Oharrak, zeinek erakusten baitute sarritan Marx bere jarrera polemika eta sarkastikoenean, oso luzeak dira, eta Obra Osoen hogeita hemezortzi orrialde har izen dituzte, nahiz eta horren parte baiek Bakuningandik aipaturiko pasarte luzeen forma hartzen duen. Marxen iruzkinen jitearen helburua da anarkismoa oro har eta Bakuninen iritziak bereziki ezeztatzea?*

*Oharrak interesekoak dira gaur egun batik bai iraultzaren osteko estatuaren izaeraren berri emateko. Bakunin, anarkista, eszeptikoa da estatu-botereaz edozein formatan, eta langileak zapaltzen dituen estatu burgesa ordeztzen duen estatu iraultzailearen arriskua ikusien du, haiek askatasunean ezer irabaziko ez dutela.*

*«Eskolome-adarjotzea», ihardesten dio Marxek. Bakuninek «ez du tutik ulertzen iraultza sozialaz, haren erretorika politikoa bakarrik; haren baldintza ekonomikoak ez dira existitzen harentzat». Gaizki uler izen du, hau da, harreman ekonomikoak nola determinatzen duen harreman politikoa. Bakuninek beldurra dio despotismo berriari gutxiengo agintariaren forman, «zeina hainbat arriskutsuagoa baita herriaren nahimena deituaren adierazpen bezala agertzen den heinean». Marxek ez du ikusien hor arriskurik zeren «langileen klase-agintaritzak haien aurka borrokan ari diren mundu zaharreko estratuen gain soilik irauin baitezake klase-gizartearen oinarri ekonomikoa suntsitua izan ez den bitartean». Truke horren atzean geratu zaigun auzi bai da, hogeigarren mendeko esperientziaren argitan, ea nork daukan ikuspuntu zuzenagoa.*

Auzia da: proletalgora bada klase menderatzailea, zeinen gainean menderatuko du? Horrek esan nahi du beste proletalgora bat geratuko dela menderakuntza berri horren, estatu berri horren mendeko izango dena.

Horrek inplikatzeko du beste klaseak, batez ere klase kapitalista oraindik existitzen den bitartean, eta proletalgora horren aurka borrokan ari den bitartean (zeren proletalgora gobernu-boterea lortzean haren etsaiak eta gizartearen antolakuntza zaharra ez dira artean desagertuta egongo), *bortxazko* bitartekoak erabili beharko ditu, hau da, gobernu-bitartekoak: berak klase izaten jarraitzen duen bitartean eta klase-borroka sorrarazten duten baldintza ekonomikoak eta klaseen existentzia

desagertu ez den bitartean, horiek kendu edo bortxaz eraldatu behar dira eta horiek eraldatzeko prozesua bortxaz bizkortu behar da.

Adibidez,...nekazari arruntak, nekazari jendailak, zeink, ongi ezaguna denez, ez dute marxisten onginahia, eta zeina zibilizazioaren mailarik apalenean aurkitzen baita, segur aski hiriko eta fabrikako proletalgoa izango du gobernatzaile.

Horrek esan nahi du, nekazariak *en masse* jabetza pribatuaren jabe gisa existitzen diren tokian, horiek gehiengo gutxi-asko ohargarria eratzen duten tokian, Europa Mendebaleko kontinenteko estatu guztietan bezala, zeinean oraindik ez baitira desagertu eta soldatapeko nekazariak oraindik ez baitituzte ordeztu, Ingalaterran bezala, hor honako hau gerta daiteke: edo nekazariak langile ororen iraultzaren porrota prebenitu edo bukatzen dute, orain arte Frantzian egin duten bezala; edo bestela proletalgoak (zeren nekazari jabeduna ez baita proletalgokoa, eta gaurko egoeran horkoa bada ere, ez du pentsatzen horkoa denik), gobernuak bezala, neurriak hartu behar ditu nekazariak zuzenean bere egoera hobetzea ahalbidetzeko beharrezkoak direnak, hau da, hura iraultzarako irabazteko; neurri horiek, hala ere, bere baitan dituzte lurraren jabetza pribatutik jabetza kolektiborako iragaitza ahalbidetuko duten haziak, halako moldez, non nekazaria horretara iritsiko den ekonomikoki bere akordioz; baina garrantzitsua da nekazariari ez kontrajartzea, adibidez, herentzia-eskubidearen abolizioa edo haren jabetzaren abolizioa aldarrikatuz; azken hori maizter kapitalistak nekazariak kanporatu dituenen bakarrik da ahalgarri, eta horrela nekazaria hiriko langilea bezain proletario, soldatapeko bihurtzen da, honela berak ere azken horren interes berak ditu *bitartegabe* eta ez zeharka. Hala ere, partzelen jabetza gutxiago indar daiteke partzela-esleipenen tamaina handituz sail handiagoak nekazalgoaren artean banatuz, Bakuninen kanpaina iraultzailean bezala.

423

«Edo, auzi hori ikuspuntu nazionaletik kontsideratzen bada, orduan suposatu behar da alemaniarrentzat eslabiarrak, arrazoi berarengatik, esklabotza-dependentsiazko harreman berean ezarriak izango direla alemaniar proletalgo garaitzailearekiko, nola azken hori bere burgesiarekiko aurkitzen den.»

Eskolume-astakeria! Iraultza sozial erradikal bat garapen ekonomikoko baldintza historiko jakin batzuei loturik dago; horiek dira haren premisak. Bakanik da ahalgarri, non produkzio kapitalistarekin proletalgo industrialak gutxienez posizio esanguratsu bat herri-masan hartzen baitu. Eta garaipenerako aukeraren bat izan dezan, gai izan behar du *mutatis mutandis* gutxienez nekazarien alde zuzen egiteko, burgesia frantsesak bere iraultzan nekazalgo frantsesaren alde egin zuen garai hartan bezala. Ideia bikaina pentsatzea lanaren aginteak landako lanaren zapalkuntza inplikatzeko duela! Baina hor agertzen da Bakunin jaunaren pentsamendurik sakonena. Ezertxo ere ez du ulertzen iraultza sozialaz, bere erretorika politikoaz bakarrik; haren baldintza ekonomikoak ez dira existitzen berarentzat. Eta nola aurreko formazio ekonomiko guztiek, garatuek edo garatu gabeek, langilearen esklabotza inplikatu zuten gero (soldatapeko langile, nekazari, etab., bezala), berak imajinatzen du *iraultza erradikala* era berean ahalgarria dela formazio horietan guztietan. Areago, iraultza sozial europarra nahi du, zeinaren oinarri ekonomikoa produkzio kapitalista baita, errusiar edo eslabiar herri artzain edo nekazarien mailan burutzea, eta horrek ez dezala gaingitu mana hori, nahiz eta berak ikus dezakeen *nabigazioak* desberdintasunak sortzen dituela neba-arreben artean; baina, noski, desberdintasun

hori politikari guztiei ezaguna zaielako bakarrik pentsatzen du *nabigazioan!* *Nahimena* da iraultza sozial baten oinarria, eta ez baldintza ekonomikoak.

424

Estatu dagoen tokian ezinbestez dago menderakuntza eta, ondorioz, esklabotza ere badago; esklabotza gabeko menderakuntza, ezkutukoa edo maskaratua, pentsaezina da —horregatik gara gu estatuaren etsai.

Zer esan nahi du proletalgoak klase menderatzaile gisa antolatuak?

Esan nahi du proletalgoak banaka klase ekonomikoki probilegiatuen aurka borroka egin ordez, nahikoa indar eta antolakuntza lortu duela hertsapen-bitarteko orokorrak erabiltzeko haien aurkako borrokan; baina erabil ditzakeen bitarteko ekonomikoak dira haren izaera propioa gainditzea soldatapeko langile gisa eta hortik klase bezala; haren garaipena osoa denean, haren menderakuntza ere amaitu egingo da, izan ere haren klase-izaera desagertu egingo da.

Proletalgo osoa egongo al da gobernuaren gailurrean?

Trade-Union batean, adibidez, Union osoak eratzen al du haren komite betearazlea? Fabrikako lanaren banaketa guztia bukatuko al da eta hartatik sortzen diren funtzio desberdinak? Eta Bakuninen behetik gorako erakuntzan, mundu guztia egongo al da gailurrean? Honela bada inor ez da egongo azpian. Erkidegoko kide guztiek aldi berean administratuko al dituzte erregioaren interes komunak? Orduan ez dago desberdintasunik erkidegoaren eta erregioaren artean.

40 milioi inguru alemaniar daude. Adibidez, 40 milioi kide horiek gobernuaren kide izango al dira?

Certainly [Jakina] Zeren gauza erkidegoen autogobernuarekin hasten baita.

Orduan ez da egongo gobernurik, ez estaturik; baina estatu bat baldin badago, agintariak eta esklaboak egongo dira.

Horrek soilik esan nahi du klase menderatzailea desagertu denean ez dela egongo estaturik gaurko zentzu politikoan.

Dilema marxisten teorian erraz ebazten da. Herri-gobernuaz haiek (hau da, Bakuninek) ulertzen dute herri-gobernua herriak hautatutako ordezkari kopuru txiki batek eratua.

425

*Asine!* [Astoa] Hori ergelkeria demokratikoa, berritsukeria politikoa da! Hauteskundeak —errusiar komuna txikienean eta artelen aurkitzen den forma politikoa. Hauteskundearen izaera ez dago izen honen baitan baizik oinani ekonomikoan, botoemaileen eragintruke ekonomikoan, eta funtzioek politiko izateari utzi dioten bezain laster, 1) jadanik ez da existitzen gobernu-funtziorik; 2) funtzio orokorren banaketa errutinazko gai bihurtu da, menderakuntzarik inplikatzeko ez duena; 3) hauteskundeek galdu egiten dute gaurko beren izaera politikoa.

Herri osoaren sufragio unibertsala-

Herri osoa bezalako zerbait, hitzaren gaurko zentzuan mamu bat da-

Bere ordezkariak eta estatu-agintariak hautatzeko hori da Marxisten azken hitza, baita eskola demokratikoarena ere *gutxiengo agintariaren* despotismoa ezkutatzeko duen gezur bat da, eta gezur hori hainbat arriskutsuagoa da herriaren nahimena deituaren adierazpen gisa agertzen den heinean.



Jabetza kolektiboarekin herriaren nahimen deitua desagertu eta lekua uzten dio kooperatibaren benetako nahimenari.

Horrela emaitza da herriaren gehiengo zabalari gutxiengo pribilegiatuak ezartzen dion kontrola. Baina gutxiengo hori, hala diote marxistek,

Non?

Langileek osatua izango da. Bai, oso litekeena da langile ohiak izatea, baina herriaren ordezkari edo agintari bihurtu diren bezain laster, langile izateari uzten diote

Fabrika-jabe bat kapitalista izateari uzten ez dion bezala zinegotzi hautatu dutelako

«eta langile arrunten mundu osoari estatutasunaren gaindegitik behera begiratuko dio; jadanik ez dute herria ordezkatzeko, beren buruak eta herria gobernatzeko beren uziak bakarrik. Hau zalantzan jartzen duenak ez daki ezertxo ere giza naturaz».

Bakunin jaunak gutxienez ezagutuko balu langile-fabrika kooperatiba bateko kudeatzailearen posizioa, menderakuntzari buruzko fantasia horiek guztiak pikutara joango lirateke. Bere buruari galdetu beharko ziokeen: zer forma hartu beharko lituzkete kudeaketa-funtzioek horrelako langile-estatu baten barruan, izen hori eman nahi badio?

426

Baina jende hautatu hori kartsuki konbentzituko da, baita sozialista ikasiak ere. *Sozialismo ikasia* hitzak-

Inoiz ez da erabili-

'sozialismo zientifikoa'-

sozialismo utopikoarekiko kontrajarrita soilik, zeinak lilura berriak sorrarazi nahi baitizkio jendeari, jendeak berak sortutako mugimendu sozialera bere ikerketa zientifikoa mugatu ordez; ikusi Proudhonen aurkako nire liburua-

zeina behin eta berriz erabiltzen baita lassalletarren eta marxisten idazkietan eta hiztaldietan; horiek frogatzen dute herriaren estatua deitua ezer ez dela izango baizik herri-masen zuzendaritza oso despotikoa gizon benetan edo ustez ikasien aristokrazia oso txiki batek burutua. Herria ez da zientifikoa; horrek esan nahi du erabat liberatua egongo dela gobernuaren arduratik. Erabat txertatua egongo da gobernatu beharreko taldean. Askapen bikaina!

Marxistek hautematen dute kontraesan hau, eta adituen gobernu bat (quelle rêverie!) munduko zapaltzaileena, gorrotatuena eta arbuigarriena izango dela, eta haren forma demokratiko guztiak gorabehera diktadura bat izango dela, eta beren burua kontsolatzen dute diktadura hori behin-behinekoa eta laburra izango den pentsamenduetarekin.

*Non, mon cher! —Langileen klase—* menderakuntza mundu zaharreko estratuen gainean, zeinak haien aurka borrokan ari baitira bakarrik iraun dezake klase-gizartearen oinarri ekonomikoa ezereztua izan ez den bitartean.

Haiek diote beren ardura eta helburu bakarra izango dela *herria hezi eta jasotzea* (tabernako politikaria!) bai ekonomikoki eta bai politikoki halako mailaraino, non gobernu oso laster izango baita alferrikako eta estatuak galdu egingo baitu erabat bere izaera politiko, hau da, menderatzailea, eta bere akordio propioz eraldatu egingo da interes ekonomikoen eta erkidegoen antolakuntza aske batean. Hori begi-bistako kontraesana da. Baldin eta haren estatua herri-estatu bat bada, zergatik ezereztu, eta

herriaren askapen errealerako hura ezereztea beharrezkoa bada, zergatik ausartzen dira orduan herri-estatu deitzen?

Liebknachten *herri-estatu* leloarekin beti aritzeaz aparte, zeina *Manifestu Komunistaren* eta abarren aurka zuzenduriko zentzugabekeria baita, bakarrik esan nahi du, proletalgora borrokaren aldian, zeinak gidatzen baitu gizarte zaharra eraistera, artean gizarte zaharraren oinarriaren gainean dihardu, eta hortik dator forma politikoen barruan mugitzea, zeinak gutxi-asko hari baitagozkio, artean ez da iritsi haren azken antolakuntzara, eta hortik haren askapena lortzeko metodoetara jo du, zeinak baztertuak izango baitira askapena lortu bezain laster. Hortik Bakunin jaunak ondorioztatzen du proletalgora ez lukeela ezer egin behar... eta *likidazio uniberisalaren egunari* —Azken Judizioari itxarotea besterik ez...